

Augustin Zubikarai

ONDARROA

KONDAIRA 1900-arte

Augustin Zubikarai

ONDARROA

KONDAIRA 1900-arte

Egilea: Augustin Zubikarai

ISBN: 84-88464-02-9

Lege gordailua: BI - 2195 - 93

Fotokonposaketa: Flash Composition, S.L.

Ercilla 11-1.a, esk. 48009 BILBAO

ESKEINTZA

Nire lanak irarkolarako
gertuten lagundu daustan
Beatriz, alabeari

eta

Zubikarai eta Abeledo'tar

Anton,

Maria,

eta Elena'ri;

Zubikarai eta Diaz'tar

Gorka,

Igor,

eta Nerea'ri;

Ibaibarriaga eta Zubikarai'tar

Maddi,

Lore,

eta Beñat

nire lobaei,

aittitta zarraren

maitasunez.

LABUR ETA ARGI

Lea-Artibai errialdeko ainbat erriren kondairak idatzi eta argitaratu ondoren, Ondarroa egin barik lagateak kezkatu egiten nindun.

Eta urteak aurrera, ta ariñegi igaroko diran bildurrez, lanean ekin dausat, fitxak batu, idatzi batzuk egokitu, artxiboak aztertu eta jakingarri batzuk gertuten.

Lan au Ondarroa nire sortze lekuari eskintzen dausat.

Batzuntzat ondo jausiko da. Beste batzuk sakondu bearreko gaiak igarri edo billatuko dabez. Neuk be ba dakit ori.

Fitxak batzen eta alkartzen jarraitzeko asmoa daukat.

Baiña urteak aurrera duaz.

Ba dakit itxas gaietan gauza asko geratzen dirala esateko.

Ba dakit folklore kontuan galtzen duazan oitura, esaera, siniste eta abar ugari oraintxe batu, gogoratu eta aizetu barik, sitsak jango dauzala, galdu egingo dirala.

Orrez gain, nire lan au, gairik geinetan, 1.900 urtean mugatzen da, au da, XX garren sarrera ikusten bakarrik. Kontuan euki ori.

Baiña ondarrutarrak zorioneko dira. Artxiboa udaletik Bilbora eroatean, alde batera emendik urten ezin dabenak gai batzuk berrikusteko aukerarik eukiko ez ba dabe be, oraiñarte artxiboa errian egoan eran ez egoan iñorentzat, eta ikasleentzat be nekegarri gertaten zan bertan zerbaiten billa ekitea.

Gaur Aldundiko Artxiboan gure liburu eta paperak aztertzen diardue, sailkatzen eta lanak erakusteko eran geratuko da 1.900 urte arteko artxiboa.

Liburu batzuk benetan egoera txarrean eroan dira, gogoratu sute baten ondoren zelako bustialdi eta erabillera euki eben, eta filminak atarata zaindu al izango dira.

Bestetik udalean geratu dana, azken gerratetik aurrera datorrena, sailkatzen diardue eta ori be mesedegarri izango da, ez bakarrik ikasleentzat, bai eta gauzei oiñarriak edo asierak billatu bear izaten dautsezan aurretikoei be.

Beraz emen agertzen ez diran jakingarri asko errezago billatu al izango dira eta orrela Ondarroa'ko kondaira guztia erriaren jakingarri ipintea lortuko da.


Gaur erriaren bizitza, itxaso eta leor, goitik bera aldatu dan gizaldi onek, uri, kai, bizi-erabide, irakaskintza, merkataritza, pentsakera, ekandu, ekologi eta abarretan gaitz sinistu leiken iraultza jasan dauan erri onek, beste arpegi eta ikuspegi bat erakutsiko dau urrengoentzat.

Nik lengo zarra agertu eta argitu nai izan dot besterik ezean arlo zabaletan.

Ikuspegi orretatik artu egizue, erritar maiteak, nire lan au.

Eskerrak biotzez.

I - ERRI MIÑEZ



GURE JATORRIA

Ondarrutarrak ezin ukatu geinke gure lur-ama Berriatu izan zanik.

Baiña Berriatu'k be ez dausku ukatuko gure aurretikoak Berriatu'ren lurretan biziarren, ondarrutar ziranik.

Eskutuan dagoz gure sortzeko zeaztasun ugari.

Ez dakigu garbi ze lurralde aldatu eutsan Berriatu'k Gipuzkoa'ri, ustez XI garren gizaldian.

Artibai gure ibaitik Deba arterañokoa?

Edo ta mendiz, Astigarribi artekoa?

Esaten dana au da: 1.027 urte inguruan Berriatu'k bere jaubetasuneko zan itxas ertzaren zati bat emon ebalá edo kendu eutsela Gipuzkoa'ren mesedean.

Onetan, argitasun zeatzik ez dakigun artean, irudimenez jokatu bear.

Ze ikusirik euki ete eban konponketa orretan Saturraran eta Mutriku bitarteak?

Geroagoko gizaldietan ikusten da beintzat Saturraran aldeko etxe batzuk, Arbelaitz, Galdona, goragoko Armetxa eta abarrek Ondarroan eukiten zituela euren eleizkizunak.

Zegaitik lotuera ori?

Bideak?

Kontuan euki oraingo errepidea lengo gizaldikoa dala.

Ibilleretako egokitasun eta aukera obeago edo laburrago?

Dana dala, aidean laga bear ori.

Baiña Ondarroa, arrantzalien bizitokia, or egoan, Berriatu'ren altzoan edo ta egalean.

Bizkai'ko itxasertzean Ea egon zan lez Natxitu'ko auzo, edo ta Elantxobe Ibarrangelu'ren zati lez. Lekeitio berbera be asarre ibili zan bere auzokideak lurak jaten eutsezelako.

Ba dirudi aldi aretan baserriak indar geiago eukala itxasoak baiño.

Ba dirudi baserri etxeak tinkoago egozala Bizkai lurreen sartuta, itxastarren txalupa-etxeak baiño.

Baiña itxasoak ba ekian, orduan be, gaur lez, tartetan orruka agertzen. Eta eldu zan itxaso egoera orretako tokietara.

Ondarroa, itxura baten, sortu aurretik indar artzen asia zan.

Erri nortasuna eta duintasuna lortu aurretik, or ezagutzen da bere izatearen ezaugarri, Juan Nuñez, Bizkai'ko Jaunaren agiri bat, 1.325'ko Irailla'ren 28'an Bermeo'n izenpetua.

Agiri ori Simancas-eko Artxiboan dago, Esker edo mesedetako eta Bera-rizko Ezaugarri Legeen saillean, 312 zenbakiagaz.

Uri iraspena, fundasiñoia, geroagoko da. Bizkai'ko Juan "Begi-okerra" il eta urte bete geroagoko.

Iraspen, fundasiño au Maria Diaz Harokoak izenpetua da. Bizkai'ko Andre Andi onek ba eukan deitura berezi bat: Lizarra'ko Andre Ona.

Iraspena 1.365 urteko Irailla'ren 28'an ziñatua da. Baiña, kontuan euki bear da oraindik "gizon jentillen" urteetan bizi giñala. Au da, Lengo erako urteen kontuetan egiña dala. Origaitik ogei ta amazortzi (38) urteetan aurreratu bear da urte ori gaurko egutegien kontularitzako urteetara ekarteko, gaurko urteen erreskadan sartzeko.

Jakin bear da 1.384 urtean egin zala urteen aldakuntza egokitzea. Beraz gaurko erako urteen kontuari buruz, antxiña 1.365 garrena esaten zana, 1.327 urte lez biurtuta geratu zala.

ONDARROA URI IZATEKO MESEDEA IRASPENEO (FUNDAZIÑOIKO) AGIRIA

Antxiñako gaztelania eta gaurkoa ez dira bardiñak.

Esakera asko, berba asko eta berba-erabilkera asko gaur ulergaitz egiten dira irakur aldi baten.

Ez dira bardiñak gaurko eta lengo oiturak; gaurko eta lengo mesedeak edo ta zigorrak. Eta orrela bizitzako ainbat gertaera.

Alaz eta alik eta errezen euskeratzen aleginduko naz, komeni dalako gure erria irasi ebanak, fundatu ebanak, zelako eskubideak eta arauak eta foruak eta usarixuak gogoan euki zitun guretzat.

Bestalde, erdal idatzia gaurko idazkerara aldatzean, erria ezagutzen ez dabena zeregin ori egitean, erriko toponimiaren ezaupide barik egitean, aldaketa biurriak egiten dakiez eta izen eta deitura asko barregarri geratzen dira.

Diñodan lez alik eta zintzoen euskeratzen alegintzen naz eta nire zintzotasun alegin onetan akatsen bat igarten ba da, ainbat ariñen zuzendu begi jator dakianak.

(Euskeratzeko darabildan textoa Juan Ramon Iturriza'ren "Historia General de Vizcaya y Epitome de las Encartaciones"ko bigarren liburuaren 247 eta jarraiko orrialdetan datorrena da.)

Mesede agiri au ikusten dabena gizon guztiak jakin begie, nik, doña Maria, don Juan Infantearen andre izan nitzanak eta Bizkai'ko Andre, zueri Ondarroako bizi lagunei emen idatzita doazan foruen mesede eskintzen dautsuedala.

Ondarroan agindu leiken iñork ez dagiala estuntzarik egin, ez indarririk, ez eta bertako borrreruak be, eta ez dagiala eurekandik ezer artu euren borondate barik, eta ez dagiala euren gain Borreruen foru okerririk erabili ez eta guda zer-garik (“fondasera” textuan) ez laguntzakerik edo egokitasunekorik, eta ez dagiela estuntzarik ezarri, eta betirako aske izan daitezala, eta zintzo iraun dagiela, eta ez dagiela gerra forurik, ez eta izkilluenik, ez eta azterkuntzakerik. Eta onetan Merinu edo Borreruak bizilagunen baten etxean sartu gura ba leuke, il dagiela eta ez dagiela giza-eriotzik ordaindu; eta Borrerua gaiztoa ba litz eta orren orde ezker eskatuko ba leu, il dagiela eta ez dagiela ordaindu bost soldata besterik. Eta ez dagiela giza-ilte lez ordaindu uri barruan edo lurlean billatu leiken ildakoengandik. Baiña bizilagunen batek beste gizonen bat edo beste bizilagunen bat ilgo ba leu eta ziur jakin beste bizilagunek, giza-iltea ordaindu eragin dagiela ori egin ebanari, eta Merinua etorri daitela eta baitu dagiala, bai-benak (fidantzak) emon arte, edo ta giza-iltea ordaindu dagiala bosteun soldataz eta ez geiagoz, eta orreitatik erdiak izan daitezala doña Maria’ren arimaren alde, eta giza-erailketa gaindituko ba leutse, baiben bi emon dagiazala doña Mariak agintzen dauanerako.

Eta iñok etxetik indarrez arrikorik (“peños”) atarako ba leu, lurlean 60 soldata ordaindu dagiazala, eta ostu zitun etxearen mesedean emon dagizala lan-sariak; eta iñok gizonik bere etxean galeraso edo estutzen ba dau, 60 soldata-erdi ordaindu dagiazala lurlean. Eta labanik ataraten daben iñok ez dagiala galdu bere ukabilik, edo ta yarein dagiala uriko forutzat egiaztatu al izan ezker; eta iñor zaurituko ba leu edo odola atara amar soldata-erdika ordaindu dagiazala lurlean eta ziurtatu ezin ba dau, zin egin dagiala. Eta iñok beste norbait billoiztuko ba leu, aragi-bizian itxi, erailketa erdi lez lurlean ordaindu dagiala; eta iñork beste bateri kapa edo mantoia kenduko ba leuskio edo beste antzeko batzuk erdi eskutuan, bost soldata-erdi ordaindu dagizala lurlean, bere irain eta guzti, usarixua dan lez. Eta gizonen batek andra ezkondu bat zaurituko ba leu, eta ori ziurtatu andre on edo gizon on baten bitartez, edo gizon biren bitartez, 60 soldata-erdi ordaindu dagizala lurlean; eta egiaztatu ezingo ba leu, zin egin dagiala. Eta andren bat bere arrokeriz.(gordinkeriz) jaikiko ba litz eta gizon zintzoen baten andrea zauritu, ori egiaztatu al ezker, zin egin dagiala; eta gizonen bateri bere bizarretatik edo barrabilletatik eutsi edo ta buruko uleetatik, bere eskua yarein dagiala eta ala egin ezik zigortua (fortigada) izan daitela; eta bizilagun oneik beste iñor aurkituko ba lebe euren ortuan edo euren maastian egunez kalte egiten, bost soldata ordaindu dagizala, erdiak jaubearentzat eta beste erdiak Uriko Jaunarentzat, eta zin egitera ukatuko ba litz, onorea merezi dauan jaunarentzat; eta gabeen aurkituko ba lebe, amar soldata-erdika ordaindu dagiazala sustraian jaubeari eta beste amar erdikak lurreko Printzeari, eta ukatuko ba litz, osorik sustraian jaunari.

Urian agintzen dauanak ez dagiala beste iñor agintaritzat sartu, bizilagun-

tzat baiño, eta urian irain egiten daben iñogandik ez dagiala bederatziurrenik artu, eta ez Borreruak eta ez Jaunak ez dagiala ordaindu Bederatziurren edo ta zergakontura ordaindu; Jaunak uriko iñoren salaketarik artuko ba leu, baibena eskatu dagiola, eta ori egin al eziñean kartzelan sartu dagiala eta kartzelatik urtetean iru zuri edo marau erdi ordaindu dagiazala; eta uriko auzokideen bat ba litz salakuntza egiten dauana eta orren ziurtapena erakutsi, edo ta lekukoena, bere erantzuleen aurrean agertu ezagaitik, lurreko bost soldata erdika ordaindu dagizala.

Eta Ondarroako bizilagun oneik baimen luzea euki dagiela nun-nai soloak erosteko, eta iñok ez dagitsela ondorenik eskatu, ez eta borerrerutzarik edo ta es-tuntzarik, bestera baiño, au da, aske eta garbi lortu dagiezala; eta saldu nai izan ezkeru saldu dagiezala; eta bizilagunen batek solo bat ba dauka urte bete eta egun baten iñoren esan txarrik barik aske eta zabal euki dagiala eta gero iñok salatzen ba dau, Lurraldeko jaunari 60 lurreko soldata erdika ordaindu dagioza-la uriaren barruan gertatzen danetan; eta lur geldi edo landu bakorik iñun aurkitzen ba dabe uriaren lurraldean, landu dagiezala, eta abereen bazkarako bedarrik billatzen daben tokietan bazkatu leikela, edo ta ebagi dagiezala jakitzat; eta soloak, edo maastiak, edo errotak, edo ortuak, edo beste ezetarako premiñazko diran urik billatu ezkeru, erabili eta artu dagiezala; eta etxeak egiteko edo beste premiñetarako leikezan zuaitz, mendi edo sustrairik aurkitu ezkeru, artu dagiezala.

Eta inguru edo lurralde oneik euki begiez Ondarroa'ko bizilagunak euren-tzat:

Amalloganetik Arranoateko borda arte.

eta andik Arreskolakontxaga 'ra (*"Meslakomtxaga" ere irakurten da kopia batzuetan*)

eta andik Aissaso'ra (*Kopia batzuetan "Hoar de suso" irakurten da*)

Andik Arretxe-ederraga'ra

eta andik Legarre'ra (*Legarreluz kopia batzuetan*)

Andik Akilla'ra (*"Aguila" kopia batzuetan*)

Andik itxasoan sartzen dan

Aitz zorrotzera (*"a la piedra fortujada do cae a la mar"*)

Andik beste muturrera,

Arretxekondua'ra. (*"del otro cabo Arrechucondua"*)

Eta andik Ateguren'go

ibilbidera (*"al bordo de Ateguren"*)

Eta andik Txopite'ko

arritzara (*"al pedregal de Chopite"*)

Eta andik <u>Aitxurra</u> 'ko (ala Aitxuria'ko) arri ertzera.	(<i>"A la punta de piedra de Aychurra , Aichuria?"</i>)
Eta andik <u>Mantxoarri</u> errekarra eta andik <u>Sausetan</u> portura	(<i>"al rio Manchoarri"</i>) (<i>"e fasta el puerto de Susanta (Kopia batzuetan Sausaten</i>
emen <u>Lekeitio</u> 'gaz banatzen dirala.	<i>por do se parten con Lequeitio.)</i>

Eta esandako erbarrutiak emoten dautsedaz, bertako mendi, eta iturri, eta sarrera, eta urteerakin.

Eta Ondarroa'ko bizilagunei emoten dautsedaz esandako aitaturako inguru orreik barruko lur, eta maasti, ortu eta errota, eta ubide eta niri dagokidan edo dagoki leiken bertan billatzen dan guztiagaz zeuok euki dagizuezan, eta zuen semeak, eta zuen oñordekuak, ezelako eragozpen barik. Eta doña Maria'ren ondasunetan iñok errotarik egiten ba dau, lenengo urteko io-aldia beretzat gorde dagiala eta urte orretan ez dagiala doña Maria'ri parterik emon; eta ortik aurrera erdiz bana eta agindutakuak be erdizbana sartu dagizala; eta errota egiten dauan bizilagunak, bere kontura sartu dagiala errotaria; eta bizilagunen batek bere soloan egiten ba dau errota, aske eta traba barik euki dagiala eta parterik emon ez doña Maria'ri eta lurreko Printzeari. Eta erritik kanpoko iñor ba letor eta bizilagun oneik auzitegura salatu, errian bertan erantzuna emoteko, eta ez daitela egon beste bitartekorik; eta sakramentura ba letor, bere Eleizara bakarrik joan dedilla emotera edo artzera, eta kanpoko gizonen batek auzitegira deitu ezkerreko erriko bizilagun edo auzokideari, eta urian etxea edo soloak daukazan lekuko (testigo) bigaz eziñean, zin ori Uriko Eleizan egin dagiala.

Eta baimen askea euki begie jantzi, trapu, abere eta okelarako guztiak erosteko, eta ez edozein bitartekori, zin egiten ez ba dau erosi ebal; eta bizilagunen batek bere astoa erosi ba leu, edo beorra edo Zaldia edo goldaketarako idia merkatuen baten edo doña Mariaren azokan eta ez ba daki zeñeri, bere ziña egin bedi eta ez beste bitarteko batena, eta iñok eskatuko ba leukio, emon begitso dakian guztia, eta zenbatean erosi ebanaren egiaztapena, eta bere balioa ko-bratu nai ba dau zin egin bedi berak ez dautsala saldu, eta ez emon be lapurtu eutsala baiño.

Urian agintzen dauanak norbait auzitegira eraongo ba leu, edo ta doña Mariagana joteko eskatu, bizilaguna ez daitela gorago joan, Gasteiz'era izan ezik, edo ta Orduñaraiño; eta urte betean bere etxea daukan iñok ez dagiala ezer ordaindu Bermeo'n ez eta Bizkai'ko beste urietan be; eta bizilagun bat auzira daroan iñok ez daijala ziñaldaririk emon Ondarrukoak izan ezik.

Urian agintzen dauanak, edo Merinuak, edo Borreruak, auzokideari zerbait

eskatzten ba dauksa, bere ziñagaz askatu daitela, eta ez geiagorik; edo ta bizilagun bateri zerbait eskatzten ba dauksa aitaren esanez edo amarenaz, lei-bitxiarena emon dagiola eta ez iraiñik zabaldu

Eta nik doña Maria'k emen idazten diran foruak emoten dautsedaz Ondarroa'ko bizilagunei; eta agintzen dot gizon nai emakume izan, munduko nire oñordekoen artean iñor ez daitela iñoiz eta iñon onein aurka agertu. Eta era berean, nik, doña Maria'k Ondarroa'ko bizilagunei on eta mesede egitearren eta aurerra atarateko daukadan garrez, onirizten dot eta agindu be bai uriko auzokidetzat euki dagiezala Amallo'ko nire baserritarrak, eta orrez gain Gorozika be emoten dautset bere lurrekaz eta bere ondasunekaz, bere sarrera eta urteera ta guzti eta onez gain emoten dautset Aranzibia'ko Pedro Gonzalez'ek daukana, eta Bizkai lurrean Ondarroa'ko inguruagazko anaitasunean, ordez nik berari baserritarrak emon dautsedazalako etxalde onen ordez eta ordaindu bear daben oiñordekoak banandu.

Orrez gain Ondarroa'ko Eleiza emoten dautsat bere kanposantuagaz, eta amarrenetako irunako bi Eleizarenak, Bermeo'n dauken lez; eta nigaz danarena eta baita nigaz jaubetzen dan agintariena be; eta esandako baserritarrak emoten dautsedaz ondarrutarrak daukezan askatasun guztia euki dagien eta zergak Ondarroan ordaindu dagiezan, eta saldu nai daben euren, ala nai izan ezkeru saldu edo emon edo iñorengandu, edo beragaz eta bere osotasunean nai dabena egin dagien, euren lez, baiña baldintza au kontuan eukita: ez dagiela saldu nai iñorengandu iñongo Ordena edo erlegiñoko gizoni, nire baimen barik, ez eta Ondarroan bizi ez edo auzokide ez diran Zaldun edo Aitonon seme aberatsei, bere ordena edo auzipean egon barik, Ondarroa'ko auzokideen ordainbearrak eurekin batera lotzen ez dabenei, eta bai beste iñogaz.

On eta mesede geiago egitearren agintzen dot baita Prestameru ez Merinok ez dagiela alik euki kalte egiteko, ez eta ezer eskatzeko, neuk izan ezik edo ta Uriko nire Alkateak. Bai eta gizonen batek bere auzokide bat erail eta ordura edo geroago arrapatu ezkeru, edozeiñek il da be, legez izan ezik, erailtzailleak ezer ba leuko, erailduaren oñordekoentzat geratu daitela, izan ezik gudu-arteak euki dauan bat edo guzurretan ildakoa. Orrelakoetan erailtzailleak dauken guztia Jaunarena izan daitela. Eta foruak agintzen dauan Zuzentza guztia, bertako alkatearen aurrean egiteko izan daitela erantzule baten bitartez, eta Ondarruko alkateen aurrean egindakoen gora-joteak, Bermeo'rako izan daitezala eta andik aurrerakoak niganako.

Eta nik, lenago esandako doña Maria'k mesede-agiri onetan esaten dan guztia emon eta agintzen dot, eta agintzen dot baita eta aldeztuko iñor ez daitela ausartu onen aurka joaten, ez eta mesede onetan agintzen dan zerbait alboratu edo zapaltzen; eta iñok egingo ba leu, diru barrietako milla marau ordaindu bearke daustaz, bai eta esandako Kontseilluari be edo ta eskubidea daukanari kaltea euki dauan aiña bidartuta, edo geiago eta orren alde bihurtuko nitzake.

Eta au legeko izan daiten eta zalantzarik egon ez dedin, argizariz lotutako nire zilluagaz zillatuta emotea agintzen dot.

Lizarra'n, 1.365 urteen aldiko Irailla'ren 28'an.

= Eta doña Maria'ren aginduz, nik, Bolibar'eko Juan Iñiguez'ek idatzi dot.= Auxe da Ondarroa'ko Uriaren Iraspen edo Fundaziñoiko Agiria.

Argi ikusten eta igarten da toponimiako izen batzuk oker itzuliak izan dirala eta onetan alderantzia dago textu bat edo bestegandik. Origaitik izen batzuk "parentesi" artean ipini dira.

Beste bat: Gorozika auzoa aitatzten danean Iturriza istori idazle berberak oar txiki bat ipinten dau eta au diño:

Gorozika: Naparroako Errege zan Sanchio Nausiak 1.027 urtean egindako Iruña'ko Gotzaingo (Obispaduko) mugaen barriztatze eta egiaztatzean, sei etxedun auzo lez aitatzten dau Gorozika. Orrela diño Moret'ek, bere Anales'etako 12 garen liburuko laugarren atalean.

ERRIAREN IZENA

Toki batzuk uri biurtzean, nortasun eta duintasun zabalago bat artzean, izen barrien premiña euki eben, gure inguruan, Markiña eta Elgoibar'ek lez, edo ta Deba'k.

Euren sortzailleak izen bereziak billatzen eutsezan, Monreal edo ta Villaviciosa eta antzerakoak geituta, gaurkoei berbaen orduko esannaia galdu dogu-noi, deitura arrigarriztat geratu jakuzanak.

Ondarroa'ri, uri sortzean, uri-nortasuna emotean, lendik ekarren izena laga edo ta ziurtatu eutsen: Ondarroa.

“Ondarroa irasi zan Berriatu eleiz-atearen barruan eta jaubetasunean egoan izen bereko kaian, portuan, itxas-ertzean. (...*fundó la villa de Ondarroa en el puerto de su nombre, de jurisdicción de la anteiglesia de Berriatua*”). Ibarra y Garmendia

“... e yo, doña Maria, otorgo a los pobladores de Ondarroa estos fueros que son aquí escriptos.” (Sortzeko agirian)

“...e estos términos han estos pobladores de ONDARROA por nombre de Amallogana hasta el sel de Arranoate...”)Eta Ondarroa izeneko lekuko bizilagunak lurralde oneik eukiko dabez mugatzat, Amallogana'tik Arranoate” zelaيرا bitartean...” (Sortzeko agirian).

“... e más les do la Iglesia de Ondarroa con su cementerio”. (Eta Ondarroa'ko eleiza be emoten dautset bere iltokiagaz batera) (Sortzeko agirian).

Argi dago beraz Ondarroa deitura ezaguna dala, jatorra eta lendik etorrana. Izen edo deituraren esan naia

Batzuk era onetan banatu edo zabaldu eta agertuten dabe:

Ondar-aoa. Au da, gaztelaniaz, Boca de arena.

Beste batzuk:

Ondar-arrua. (Gaztelaniaz Barranco de arena)

Beti be kontutan eukita Ondarroa ondar-zelai, izan be azken gizaldiko eraikintzak eta mollak egiñarte ondar-zelai, ondar zabaldi izan zalako ondarraren ezaugarri eta lekukotasuna emonaz.



“Aita Piedade”ko atea.

URI BIURTZEAREN ONDORENAK

Uri iraspena, uri sortzea, baimendu zan.

Baimena eta sorpena adierazo beintzat.

Eta gero?

Kontu egin mesede berbertan ez dala aitaturzen Berriatu'rik. Eta Ondarroa Berriatu'ren lurretan egoan arrantzalieu kaia lez ezagutzen zala. ("Torres de Vizcaya" III Tomoko 139 orrialdea. Ibarra y Garmendia.)

Konturatu agiri orretan ez dala esaten Berriatu erdibituta geratzen zanik, ez eta banakatuta be. Eta Ondarroa'ri Amallo'ko bere baserritarrak auzokidetzat emoten dautsazala esatean, ez diño Amallo'ko baserritar orreik zein erri edo eleizateren mendeko edo bizilagun ziran be.

Eta auzoan gendun Errenderi be ez da aitutzen eta geroago dator 1.336'ko Azaroaren 10-ean, Juan Nuñez de Lara'ren beste mesede bat esaten: "Ontzat ikusten dogu Amallo'ko Errenderi, emendik aurrerako eta betirako, Ondarroa'ko uria- ren barruko izatea."

Ba dirudi Ondarroa sortzetiko pekatu bategaz jaio zala: illeta jo eta negar egi- teko berezitasunagaz.

Leike benetan larri bizitea be.

Uri egin eta laster zan bere ingurutan Joffre almirantea bere txalupekaz gure itxasoa zemaitu eta bere mendean artu eta blokeatzen eta onetan, diñuenez, Onda- rroa izan zan geien jazan bear izan ebana.

Orregaitik Juan Lara berberak emondako mesedeen artean ormak jaso eta sa- rratzeko eskubidea emon eutsan.

Eta oraindik geiago: amaika urte geroago, 1.364 urteko Dagonillaren (Abus- tuaren) 6'an, zubia barriztuteko laguntzarako, zubi ori zabaldu bear bakoitzean best diru kobrateko baimena emoten dautso.

Agiri onetatik dakigunez, emen egoan zubia egurrezkoa zan, txalopak igarote- ko zabaldu egin bear izaten zan eta gizon bat egoten zan ortarako arduradun.

Orrela batzutan premiñak, bestetan Berriatuarekasko asarretan, Bizkai'ko

Jaunak Mesedeak edo ta egiaztapenak edo ta mesede orrein ziurtapenak emoten jarraitzen eben.

Ala, 1.373 urteko Gabonilla'ren 12'an, don Juan Bizkaiko Jaunak Tordesi-llas'en izenpetuta.

1.393-en Enrike III garrenak, Madrid'etik.

1.412 urtean Juan II garrena zanaren izenez Valladolid'en.

1.420 urtean, Martiaren 15'eanean, barriro Valladolid'en.

1.463 urtean, IV garren Enrike'k Segovia'n.

Dakigunez urte bete lenago, 1.462 urtean, Ondarroa erre egin zan. Eta agindu orretan esaten da Ondarroa zearo austuta geratu zala eta laguntza premiñan, etxeak konpondu edo ta barriro egiteko. Agirian au esaten da: "Para ayudar de reparar e tornar a facer esa dicha villa é las casas della, que agora se quemó e quedó yerma de todo punto."

Ondarroa uri izendatu eta bereala ezagutzen dogu bere nortasun duintasuna erakusten.

1.350 urtean, Winchelseako gudaketa lez ezagutzen dana egon zan. Eta Azilla-ren 11'an ziñatu zan bakea. Bake orretako agirian agertzen da gure erria.

Urte aretan itxasoko asarreak be noiz nai egoten ziran. Laburdi'ko Baiona portua be ingalandarrak artuta euken. Eta lortu zan oneikin bakea egitea.

Bake agiri aretan Bilbao, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa eta Plentzia agertzen dira, besteen artean, bake ziñatari.

Gorago esandako Mesede Agirien erreskadan, aitatu bearreko dira beste oneik be:

1.476 urtean, Epailaren (Martiaren) 30'eanean Isabel eta Fernando'k Medina del Campo'tik emona.

1.495'ko Otsailla'ren 25'an, Jaun berberak Madrid'en.

Baiña ziurtapen eta argibideak, egiaztapen eta mesede sendotzeak ez eben baketzen berriatuaren asarrerik.

Gogoratu Berriatua asarre eta Lekeitio'k be asarre ori berotu egiten ebal.

Ara auzi bat.

Itxura baten, Lekeitiarrak oituta egozan Ondarroa'ren inguruko basoetan egurra atara eta ezelako ordainketa barik, eta zergarik be barik, Erreterian zama aritzen eben txalopetan sartu eta ataratera.

Auzia 1.338 urtean erabagi zan.

Ondarrutarrak eskatzen eben lekeitiarrak zergaren bat ordaindu bear ebela Amalloko basoetan aukeratu eta ebegi eta ataraten eben edo zituen tantaiakaitik.


Lekeitiarrak erantzuten ekien sekula ez ebela orrelako kargarik euki eta ez eukela zetan barririk artu.

Ori erabagi al izateko Juan Nuñez eta doña Maria'k euren prestameru zintzo izan zan Lope Garzia Salazar'eri eskatu eutsen Bizkaiko alkateak batu eta uzte eben gizon-onakin batean auzi ori aztertu eta erabagiteko, bertako oitura eta ordurarteko erabidea ziurtatu ondoren.


Orretarako Rodrigo Adan, Lezama'ko Iñigo Perez eta Albiz'ko Ruiz Martinez aukeratu zituen.

Oneik Lekeitio eta Ondarroa'ko gizon onekaz batzartu eta danei entzun ondoren, erabagi eben:

Ondarroako Udalak ez beste iñok ez eukala Lekeitio edo Amalloko bizilagunei ezelako zergarik eskatzeko eskubiderik, ebagi, kargatu edo erosten eben egurragaitik, barrero saltzeko eroan ezik. Eta berba utsei sinistu nai ez ba eutsen, ziña eskatzeko ez zala saltzeko, etxeren bat egin edo barriztatzeko, edo bere txalopa, maasti edo ta itxituraren baterako baiño. (Labayru, Historia de Bizcaya, II Tomoa, 340 orrialdea.)



Antigua'rako bidea.



Ondarru zarra.

GAUZAK ARGITZEN

Berriatu eta Ondarroa'ko errien eztabaidetan, aldi bi bereiztu giñeikez:

Bat, 1.500 urte artekoa.

Igarten da aldi onetan, alkarren artean eukezan eztabaidak gorputza artuaz batera garrastuten eioazala.

Igarten da baita zeintzuk diran asarre bideak:

Ondarroa'ko zubia.

Errenderi'ko mugak.

Zaldu, Iramategi, Alliri eta Arriaga etxe ta ingurutakoak.

Barrenengoa (Allenda) etxeak eta Ixuskidi.

Eizmendi'ko iru etxeak.....

Gauza txikia bear orduko giroan asarrea biztu eta itsukerian amaitzeko.

Gero zuaitzak ebagitea zala-ta, bientzako alkartasunean itxi ziran mendietan, sekulako naste eta eztabaidak.

Gizon onak tartean sartu eta erabagiak artzean zeatzenak artzen alegindua-
rren, alperrik.

Orrela bastertzen dira nasteak erabagiteko aurkeztutako gizon onen irizpide eta erabagiak bertan bera galtzen:

Orrelako bat irakurtzen da Pedro Ibañez Goitiniz, mutrikuar bizilagunak eta Juan Urtiz Zabala, gernikarrak, ondarrutarren eta berriatuarren artetik auke-
ratutako gizon onen bitartekotasun erabagi baten.

Bertan esaten da balio barik lagaten dabezala Lekoa'ko Iñigo'k uritarren izenean berriatuarren aurka egindako salaketak eta bardin Juan Beltran Gardotzakoak ondarrutarren aurka agertuak.

Gogoratzen da baita Ondarroa eta Berriatuarrak 1.477 urteko Bagilla'ren 2'ean Pedro Estakona'ren etxean eukitako batzarra, epai baten kontua artzeko.

Bardin gogoratzen dabe 1.479'ko Apirilla'ren 26'ean Ondarroako ibiltokian erri bien arteko bake batzordeak eukitako batzarra.

Eta eurak erabagi au emoten dabe:

1.525.- Gizon on biren erabagia

Esan zeinkean 1.525 urtea ondo asi zala erri bien alkartasunerako. Urte orretan, Urtarrilla'ren 21'ean, gizon on biren agiria zabaldu zan. Erri biak izentatutako gizon bi oneik, Peru Ibañez Goitiniz, Mutrikun bizi zana eta Joan Urtiz Zabala, gernikarra, ziran.

Gora-bera guztiak ikusi, aztertu, batari entzun eta besteari bardin egin ondoren, biak batean argi eta zeatz au esan eben:

Salatari ebiltzan edo asarre agertu ziran gizonak eta agertutakoak ez zirala ziurrak eta kontuan eukitekoak. Au da, Lekoia'ko Iñigo'k berriatuarren aurka esanak ez zirala bete-betean egiak, ez eta Gardotza'ko Joan'ek ondarrutarren aurka esanak be.

Oituretatik ikusi eta igarten zanez, argi esan bear zala.

Zubia jaubetasun osoan, Ondarroa'rena zala, eurak Kurutzea baiño gorago ipiñita euken muga arrirarte. Eta andik gora, Berriatua'rena.

Bardin **zubi** orren azpitik igaroten zan ibai edo errekaaren oia, bai mare-gorakuan nai berakuan, urak ikututen eban arteko guztian, Ondarroarena zala. Eta ibai edo kanal orren jaubetasuna, Errenderiko auzoa baiño goratxuago dagon muga-arrirarte be bai.

Santa-Kutz eta Burgo aldera dagoan ibai ertzaren aldea, Berriatua'ren jaubetasuneko zala, baiña ez Gorozika'ko etxeak, oneik Ondarroarenak ziralako.

Zubitik eta Errenderiko mugarritik Ondarroaren aldera dagon dana eta Errenderi auzoa bera, Ondarroarenak zirala, Arriaga baserrian Berriatuagaz bat egin arte.

Ibai eta kanalaren jaube Ondarroa izanarren, itxasorarte. berriatuarrak libre zirala ibai eta ur orretan. Eta itxasoaren aldetik Ondarroa'k euki eikeazan eskubide batzuk bitarteko egonda be, berriatuarrak libre bear ebela portua, ezelako kaku ta ordaindu bearrik barik, ondarrutarrak eurentzako artzen eben eskubide eta jaubetasun bardiñagaz.

Iñoiz saltzeko asmotan ekarrirako janariak portuan sartzen ziranean, iru egunetan ikutu barik euki bear zirala, saltzeko ordain edo prezioa erabagita, ondarrutarrak eta berriatuarrak eskubide bardintsuz erosi al izateko.

Errenderi eta itxasoa bitarteko mendi, soro eta belardietako eskubideen agiriak illun egonik, eta azken urtetan ondarrutarrak berriatuarrei trabak ipinten eutsezalako abere ta ganaduak bear zituan janari ta uretan, libertadea bear zala orretan bata bestientzat, lenagoko denporetan ezagutu zan lez. Baiña zugaitzak,

arbolak ebagi edo mieztu bear ziran tokietan, iru urtetan ganadurik ez sartzeko, txaraketatik urteneran kalterik egin ez egien.

Sasoi aretan asarrerik bizienak erabilten zituenak, Errenderiko Mari eta Goikoetxeko Nikolas, Elordiko Mari eta Likona'tar Joan ziran. Bai Peru Likona be. Au eleizgizona zan. Bardin asarre ibilten ziranak ziran Patxi Ibarren ondorengoak, oneik Arriaga etxeari buruz, eta Zalduko Mari, au be bere etxearen gora-beran.

Berriatua'ko erriak esan eta eskatzen eban, Zaldu goi eta bekoak, Iramategi etxeak, Goitiniz, Aliri eta Arriaga etxeak berari erantzun bear eutsela artu-emon guztietan.

Esandako baserrien jaubeak ezezkoan egozan.

Ala ta be, len esandako gizon on bien eritziz, etxe oneik, Arriaga kenduta, Berriatuan sartu bear zirala erriko gora-beretan.

Arriaga etxea Patxi Ibarra ildakoarena zan, eta au au dala ta esan eben, etxe ori eta bere ingurua, Idoibaltzagan itxasoagaz bat egin arte, Ondarroa'n egoala eta emen sartu bear zala.

Aliri etxea Martin Likonarena zan. Jakiña zan Berriatua'k, ezelako begirapen barik eta gogortadean, bere zorrak ordaintzeko, tresna batzuk eta ardi batzuk kendu eutsazala. Origaitik, bost urtetan, zerga eta erri ordaintzetik libre laga eben, kendutako gauzeekin egindako kaltearen ordaiñez, baiña aurrerantzean Berriatuan sartu ta bertan erantzun bearko ebala erabagi eben.

Gizon on bien erabagi onen zertzelada eta zeaztasun guztiak Errenderin emon ziran, esandako egunean.

Ondarroaren izenean, Errenderiko Lope, Apalluako Txomin, Joan Arriola, Joan Gillestegi eta Martin Kareagak entzun eta ontzat emon eben erabagia.

Berriatuarren izenean, Martin Gardotza, Martin Olabe, Peru Ibargoen, Joan Urresti eta Martin Etxebarrik.

Bakea, itxura baterako egin zan. Baiña azaleko bakea gertatu zan, berialako baten lengo estutasun, txikikeri, zitalkeri, ikusi-ezin, jauntxukeri eta norberekeriak agertu ziralak. Alderdi bietakoak bakoitzak bereari ten egiten jarraitu eben.

Alkarren artean konpondu ezin zana, goiko legez eta indarrez zuzendu eta erabagitea nai zan.

1535.- Maiatzaren 20'ko Bete bearreko agiria

Alaxe, "sentencia ejecutoria" izenburuagaz emon zan egun orretako agiriz Don Karlos, jaunaren Errukiari esker "semper Augusto", Alemani'ko Errege eta Joana bere amak, biak Jaunaren esker onez Castilla'ko errege, Leon, Aragoi, Sizilia bietako, Jerusalem, Naparroa, Sevilla, Cerdeña, Cordoba, Corcega,

Murcia, Jaen, Algerbetako, Algeciras, Canarias, Indiak, Itxasotako lur sendoe-tako Errege; Barzelona'ko konde eta Bizkai'ko Jaun eta beste zerrenda luze ba-teko duintasun jaubeak emona.

Ikusten denez, auzi onen bitarteko Burgo de Osmá'ko gotzain zan Pero Gon-zalez Manso izan zan: "Sepades que pleito pasó é se trató en la nuestra Corte e chancilleria ante el muy reverendo en Xto padre don Pero Gonzalez....juez mayor de las suplicaciones del dicho nuestro Condado y Señorío de Vizcaya."

Bertan diñonez Lekeitio uritarrak inguruko baserrietakoekaz euren lurra-
k ondo mugatuta eukezan eta era berean nai eben Ondarroa eta Berriatuarrak be,
orrela egin ezkerre mendiak bizi barria artuko ebelako, zuaitzak landatuaz eta
ori danentzako mesedegarria gertatuko zan.

Ori ala egin al izateko Korrexidoreari agindua bialtzean, onek karta ori ar-
tu ta irakurri ondoren, esan eban berak beteko ebala, baiña berriatuarrei indar
geiagoz bete eragiteko, gure Agiri bat eskatzen ebala.

Ustez berriatuarrak esaten eben landaten ebezan zuaitzak eta landuten zi-
tuen tokiak, uritarrak eroango ebezala, eurekaz baliatuaz, lengo denboretan lez
txalopak egiteko tantaiak moztuaz, edo ikatza egiteko, edo ta burdiñoletarako,
lenagotik be beste ainbeste gertatzen zalako.

Eta barriro auzia aztartzeko eskatzen zan Madrid'en 1.528'ko Apirilla'ren
4'an emondako agindupean.

Igarten denez, Agiri au Berriatura bialdu zan bertako Parrokian irakurri ta lau
egunen buruan euren eskubideak agertu, prokuradoreak aukeratu eta abar egiteko.

Ala egin ezik Ondarroa'k esaten ebana aintzakotzat artuko zanaren ze-
maiaz.

ERRI BIEN ESKABIDEAK

Goi auzietara joatean, erri biak au eskatzen eben:

Ondarroa'k:

Berak eta Berriatu'k Amallo mendia alkartasunean eukela eta era berean
beste mendi, baso eta soro batzuk, eta bear legez zaindu, garbitu edo landaretu
barik egozala, erri bakoitzak bere zatia zein zan ez ekialako eta origaitik bear
zan ardurarik ez egoalako.

Bitsuenak edo alkartasunekoak zirala, nai ebana egiten ebala, bai zugatz,
arbolak ebagiten, bai belardiak erabilten.

Erri bien arteko bake, nortasun eta jaubetasuna obeto zaintzeko, komeni
zala eta premiñazko bakoitzak berea izentatzea.

Origaitik aldi aretan Korrexidore zan Diego Villasante'ri eskatu eutsen, au-
rreragoko auzi baten gai ontaz erabagi zana bete eragiteko.

Berriatu'k:

Berriatu'k, bere aldetik agertzen eban Amallo mendia eta Ondarroak nai zitun beste mendiak ez zirala alkartasunekoak, bereak baiño; serbitzu eskerra (servidumbre) zala. Eta baldintza ori amaitzen zanean, kondiziño ori beteten zanean, eun urte baiño geiago eroango zituela bien mendean eta ordurako banatze-bearraren eskubidea amaitua izango zala.

Gauzak orrela erri biak asi ziran euren batzarrak egin eta eskabideak zeaztu naian.

Ba dirudi ondarrutarrak ariñoago jokatu nai izan ebela berriatuarrak baiño.

Beintzat 1.531 urteko Urrilla'ren 26'an Santxo Axangiz agertu zan Medina del Campo'n, erri onen izenean auzia aurrera eroateko eukezan eskubideak jakin eragiten.

Auzi orreri buruz egin zan batzarrean gizon oneik izentatzen dira: Joan Gartzia Likona, alkatea; Errenderiko Lope, bigarren alkatea; Aretxaga Luis, zerga batzaillea. Euren inguruan, beste erriko gizon batzuk, bear ba da onetan zer ikusirik geien eukiko ebenak: Aparizio Ibarra, Joan Muguruza, Joan Aranzibia, Peru Ateguren, Joan Urresti eta Errenderiko Lope. Eta prokuradore zeregiñetan Martin Kareaga, kapitana eta Martin Arrate.

Ondarrutarrak ariñoago ibili ba ziran be, ez ziran lo egon auzokoak. Gogoan eukiteko da ondarrutarrak geienak itxastarrak zirala, origaitik gitxiago izango zirala lurren eta mendien goraberak ikutu egingo eutsenak. Berriatuarrak barriz, baserritar eta menditarrak izanik, geiago jotzen zittun artu eikean erabagiak.

Arrigarri da, ia bosteun urte igarota, zelan zaintzen diran gaur be orduko etxeen deiturak.

Ara 1.532 urteko Maiatzaren lenengo egunean, kanpaiak jo ondoren, oi zan lez, done Pedro parrokiaren aurreko arto arbolaren azpian batu ziran ango etxeetako ordezkariak:

Aranzibiako Hurtun, etxeko jauna; Zamitiz'ko Joan, zerga batzaillea; Ubilla'ko Joan; Imitola'ko Txomin; Orioso'ko Santxo; Ibarra'ko Joan (Jostuna); Ormaegi'ko Markos; Amillalde'ko Peru; Pertika'ko Joan; Gasturu'ko Joan; Asterrika'ko Errodrigo (Errementaria); Egi'ko Lope; Olabe'ko Joan; Urgoin'go Martin; Urkiabaso'ko San Joan; Garro'ko Peru; Elexpuru'ko Diego; Arregi'ko Joan; Etxebarri'ko Martin; Arania'ko Martin; Joan Urresti, mutilla, Basterrolatza'ko Peru, Orisolo'ko Txomin; Ibargoen'go Peru; Aulikiz'ko Joan; Lekoya'ko Peru; Alzaga'ko Joan; Altamira'ko Perran; Ayerdi'ko Joan; Barrenetxea'ko san Joan; Zelaeta'ko Joan; Ibaran'go Ortun; Larrera'ko Joan; Mirubidi'ko Santxo; Urueta'ko Otxoa; Eizmendi'ko Martin; Obekola'ko Txomin; Solabarrieta'ko san Joan; Goikoetxe'ko Joan; Lekoa'ko Ramus; Itola'ko Martin; Torre'ko Joan; Bustinzuri'ko Perran; Etxano'ko Peru; Orubia'ko Joan (Jostuna); Migeluri'ko Txomin; Iturroste'ko

Diego; Kamioeta'ko Joan; Ikaran'go Santxo; Zamitiz'ko Peru; Joan Plaza; Azkarra'ko Joan (zapataria); Migeluri'ko Martin; Ikaran'go Joan; (jostuna); Gardotza'ko Urtun; Mugertegi'ko Joan; Gabiola'ko Joan; Zabala'ko Joan; Alipasolo'ko Iñigo; Gernika'ko Martin; Ategiuren'go Lope; Iturrino'ko Joan; Egurrola'ko Martin; Solaguren'go Peru.

Eta ordezkariak Ormaegi'ko Martin eta Arregi'ko abadeari emon eutsen, eta Valladolid'eko auzitegian prokuradore ziran Martin Arrate, Joan Arrieta, Joan Lazkano, Joan Antezana eta Joan Otxoa Urkizu'ri.

Aldi aretako Korrejidore Diego Castillo Villasante zan eta alderdi biei entzuten ikasi eban.

Onek erri biei entzun, au da, alderdi biena jakin eta bere iritzia emonaz go-ra bialtzeko agindua eukan.

Eta au jakin eragin eban:

Ondarroa'ren eskabidez, Errege edo Jaun agindua artu zala alderdi biek entzuteko. Bere ustez mendien banaketa egitetik ez zala iñorentzat kalterik, mese-dea baiño; eta belardiak eta iturriak ordurarte lez bienak izatea onuragarri izan-go zala alde bientzat.

Eta lurraldeen itxiturarik ez zala egin bear, mugarren bitartez banaketak edo obeto esanda, bakoitzaren jaubetasuna erakutsi baiño.

Bai ondarrutarrak, eta bardin berriatuarrak, ogitarako bear ebena alkartasunean erabili eikeela kalterik egin barik bataren nai bestearen basoetan ibiliaz.

Eta banatu bear ziran lekuetarako erriak eta eleiz-ateak euren gizonak aukeratu egiezala, eta oneik bat ez etozenetarako, Korrejidorea izango zala irugarrena aukeratuko ebana.

ARANZIBIA'KO ETXEA BITARTEAN

Auzi onetan Aranzibia'tar Fortun Ibañez sartu zan bitartean.

Agirietan esaten danetz, bere etxea Berriatu'ko Eleizatean sartzan zan eta onek bere izenean eta berriatuarraren izenean esan eban, ondarrutarrak guzurretan agertu ebela euren agiria, esaten Aranzibia'ko jaun onek eukazan mendi eta lurralde batzuk bienak zirala uriarenak eta eleiz-atearenak, orrela izan barik.

Orretazko azterketa sakona eskatzen eban, auzitegitik eskatu eben lez. Eta alaxe egin be. Erri biak ez ebela sekula mendi eta basoen jaubetasuneko partaidetzarik, ariztiak ebagi eta euren adar eta txotx kentzetan izan ezik, ez eta lizar, pago, gorozti eta beste zuaitz eta frutuekáz, bakoitzak bereak baiño, eta ez komundidean, alkartasunean. Eta Ondarroa'ko uriak uztiatu edo baliatu nai ebala ariztien adar ebagite ta mozkiñetan eukan eskubideagaz, beste sailletan be lortzeko asmotan.

Korrejidoreak ala jakin eragin eban auzitegira, Valladolid'era.

Ortik etorri zan errien gogo eta borondatea geiago sakontzeko agintea, azken erabagi bat artu aurretik argitasun geiago bearra.

Edozetara be denboraldi onetan zearo garraztu ziran alkar arteko artu-emo-nak.

Eldu zan txanda bat Berriatu'k bere gizonak ipini zituna mendiak eta ba-soak zaintzen, "porque la dicha anteiglesia avia puesto é ponía guardias en todos los dichos montes i términos, los cuales con su nombre avían prendado é prendaban a todos los que cortaban é hacian daño en los dichos montes, aunque fuesen vecinos de la misma villa de Ondarroa, de lo cual se arguía el señorío é propiedad de los dichos montes."

Orrez gain Berriatu'k joten zitun pregoiak mendietako onurak saldu bear ziranean, mendietako enkantea kandela argitara egiñaz.

Gauza da batera egin edo bestera, gero ta ezin ikusi eta ezin alkartu geiago sortzen zala.

Eta erri biak, auzitegi gorenean itxaropenak eukezala bizi ziran, bateko ta bestekoak batzarrak egin eta bakoitzaren arrazoiak sendotu nairik.

Eta ori orretan lortu zan erri bakoitzaren asmo, gurari, eskabide eta eskubi-deak gora eroatea.

Baiña erabagia aldakorra izan zan.

Lenengo Berriatu'ren jaubetasunak ezagutzen.

Gero barriro irizpide ori aldatzen.

Eta ibili ta ibili, azkenez erabagi au:

"Erabagiten dogu Bizkaiko Epaikari Nagusi dan Luis Gonzalez de Villa lizenziatuak emondako erabagian oker azaldu zala eta origaitik bere epaia zuzentzen dogu, eta auzi onetan egin bear dana egiñaz, agintzen dogu, auzi onetan erabili diran toki eta mendiak zatitu eta banatu egin bear dirala Ondarroa eta Berriatu artean, nai eta belardi, larre eta iturriak bitsuentzat geratu; ezin dabela tokirik itxi edo mugatu nai daben lekutik, banatutako lez baiño, eta orretarako mugarriak ipini dagiezala bakoitzak jakin dagian zer dan berari dagokiona.

Eta agintzen dogu txalopak egiten diran lantokiak, astilleruak, erri bienak izan daitezala, beti izan diran lez, eta ez dagiezala ez banatu eta ez zatitu.

Eta banatu bear diran lurraldeak banatzeko agintzen dautsegu erabagi au artu eta ogei egunen barruan erri bakoitzak, gizon bat aukeratu dagiala eta eurak aukeratuak ados jarten ez ba dira, irugarren bat aukeratu dagiala Bizkaiko Korrexidoreak edo Epaikari nagusiak. Orrela, eurak erabagiten dabena, ontzat artu eta betea izan dedilla.

Erabagi au Petrus de Naba, "Episcopus Osmiensis", au da Osma'ko gotzaiñaren izenez agertu zan.

Eta guztia gogoratu, barriztu eta egiaztatzen, Valladolid'en, 1.535 urteko Maiatzaren 20'an Errege Erabagia agertu zan, Betebearreko erabagi lez.

Ikusten da, batera edo bestera, Berriatu eta Ondarroa'k euren auzia amaitu nai ebela eta amaitu bearra eukela.

Ezin eikezan beti asarre bizi, bear ba da auzo bizitza zela ala eroankor biurtzeko, oiñarrizko izango zituen erabagi batzuk artu barik.

Eten barik eukezan auzirako autuak, mendi, baserri eta ibaian.

Baiña aukeratzen ziran gizonak, borondatez konponketako zeregiña euren lepoan artu eta azken baten garraztuta geratzen ziran eta asarre.

Alaz eta nai ta ezko zan zela-alako ulermen bat eta ori iñok egitekotan lurralde au ondo ezagutuko eben gizon bik atara eikela uste zan.

1.538.- Gizon onak lanean

Zerbait egin nairik, gizon on bi aukeratu ziran mendien eta lurraldeen banaketak egiteko. Erri bakoitzaren aldetik gizon bat. Ondarrutarrak Alzaako Joan aukeratu eben. Berriatuarrak Gabiolako Joan.

Onein eritiziz, Orubiatik asi eta Liorreten alderako eztabaidetako lurrekin, lau zati egin bear ziran. Eta zati oneitan aukeratzea lenengo Berriatuari laga, ondoren Ondarroa eta olaxe laurak aukeratu arte, zati oneik Berriatuari ikututa dagozalako

Eta Mokaro aldetik asi eta Arrigorri artekoekaz, beste lau zati egin, eta emen Ondarroari emon aukeratzen asteko eskubidea, beti be lenengo erri batek aukeratu, gero besteak eta orrelaxe jardunaz.

Egiguren inguruko banaketa Alzaako Joan'ek egin ebalako, eta au Ondarroa'k aukeratutako gizona zalako, berrituarrei emon bear yakela lenen aukeratzeko eskubidea.

Iratza eta otatzak komeni zala bientzat alkartasunean jarraitzea, bientzako mesede zalako era orretan jokatzea, bestela ortik beste gauzetan be, abereentzako urak eta abarretan, eztabaida asko sortuko ziralako.

Erabagi au, on ustean egiña izanarren, ez zan ondo jausi ez ondarrutarrentzat ez berriatuarrentzat.

Asarreak, bigundu barik, gordindu eta zitaldu egin ziran. Alaz ta be egia da erri biak keixu zirala, euren itsutasunean be, beingoz erabagi baketsu bat billatzeko. Aspertu egin ziran ainbeste asarre ta eztabaidetan. Alkarregaz ainbat lasterren konponketak egiteko premiña igarten eben.

Origaitik ondarrutarrak batzarrean batu ziran 1.538 urteko Otsaillaren 22'an, eta bertan sei gizon aukeratu zituen autu au bein beingoz amaitzen alegintzeko: Errenderiko Joan Beltran, Errenderiko Ramus, Joan Gillestegi, Lekoiako Iñigo, Apalluako Txomin eta Errenderiko Errodrigo.

Ille bi geroago berriatuarrak beste gizon oneik aukeratu zituen euren ordezkari: Gardotzako Joan, Elexpuruko Joan, Ibargoengo Santxo eta Ibarrako Joan.

1.538.- Aranzibiako batzarra

Ordezkarri oneik Arantzibian batu ziran. Ez torrean, zubiaren inguruan baiño, an dagoan zelaian.

Ainbat lasterren alkarregaz ondo konpontzeko borondatea agertu eben, auzi ta eztabaidetan dirutza ugari galtzea besterik egin ez ebelako ordurarte.

Ezagutu eben gorago izentatutako Alzaako Joan eta Gabiolako Joan'en lanak beste era bateko izan bear zirala. Gaitz zala gizon bakar bik egiten ebena ondo jaustea. Eta obretarako obe zala gizon geiago aukeratu ta dana euren kontura laga barik, erriak parte geiago artzea. Orretarako beste erabagi bat artu zan. Au da, banatzalleak erri batek aukeratu egiazala eta beste erriak aukeratzeko eskubidea artu, taldeka.

Konponketa au indartzeko, Bilbora joan ziran erri bietako ordezkariak eta an, Korrexidorearen etxean, alkarren arteko erabagiaren idazketa edo eskritura egin eben.

Beriala Ondarroako erriak aukeratu zitun gizon bi, danen artean mendien banaketa egin al izateko. Etxebarrikoak ziran biak: Joan Aulestia eta Martin Zabala.

Orrela, eurak egiten ebena agertu Ondarroaren izenean eta aukeratzeko eskubidea Berriatuako erriari emon jakon.

Gero, besterik sortu ezik, konponketa batera zabaldu zan era orretan.

Batzar onetan artutako erabagietako bat au izan zan: Mendien banaketa egiteko Ondarroak aukeratutako gizonak, ogetamar egun barru egin bear ebela mendiak banatzea edo taldetan ipintea. Zati bi, lau, zortzi edo kontzientziak agintzen eutsen ainbestetan banandu eikeezala mendi ta basterrak, baiña beti be, erri bakoitzak, egiten ziran zatien erdia artu ta beragaz gelditzeko eran, eta beste erriak gañerantzeko erdi edo zatia.

Bein zatiak egin eta beste amar egun geratuko ziran Berriatuaren aukeran, berak zati orreitatik egokien eta komenien jakona artzeko.

Bein banaketak eginda gero, nastea sortu nairik asten zanak, berrogetamar dukat emon bearko eutsazala besteari zigor lez.

Eta erabagiten zana. mundua mundu dan arterako izango zala.

1.538-V-15.- Pertikako batzarra

Konponketa egiteko artu ziran erabagiak beteteko, Maiatzaren 15'ean Pertikako zelaian egin zan lenengo batzarra, Martin G. Gallartza eskribadua bertan zala.

Ondarroako erriaren aldetik, Joan Arriola, alkatea, Apalluako Joan, Eloorriagako Joan, Joan Gillestegi eta Errenderiko Joan batu ziran. Bai eta banatzea egin eben gizonak be.

Gizon oneik esan eben Amallo eta Sausaten arteko mendi ta lurraldeak ikusi zituela, balixua aztertu eta arboladi ta zugaztien onurea kontuan euki be bai. Eta euren kontzientzian mugarri oneik ipini zituela:

Lenengo mugarria, Pertikako bizilagunak lixibia egiteko oitura daben erre-kartearen ondoan. Andik 50 besakada ingurura, Azkarra izenagaz dan arbola batera jo, emendik goruntz asi eta geroago beste iru mugarri Zulazarretako aritzaren ingurura eldu arte ta andik zuzen Legarra mendira, Markiñako mendien mugara joaz, beste bost arri. Arri batetik bestera 50 besakada.

Orrela amar mugarri ipini ziran eta testigutzat bitartean egozan aritzak markatu ziran, Azkarra izeneko zugaztetik Legarrei mendi gaiñera arte, Pertika, Urdanoleta eta Berriatuaren begira gelditzen ziranetan kurutzeak egiñaz.

Era onetan, Urdanoletako mendiak, Oraniturriagako mendiak, Madalena ingurukoak eta Markiñakoen egalean gelditzen ziranak, barriro Pertika eta Aitzgibelean batu arte mugatuta gelditzen ziran beste aldetik be.

Andik gora, Izuzkidiko mendiak be mugatuta eukezala esan eben, Alnoagirreko biderarte, eta mendi oneitan eta Olabe inguruan eukezan ezaugarriak oneik zirala esan eben:

Elordiko basoan asi eta Kategi aldera joaz, 70 besakadetara, mugarri bat eta andik Olabe aldera jatxiz, 100 besakadetara beste mugarri bat, au Izuzkidiko bidearen gaiñean Kurutzez markatuta egozan aritz biren inguruan; andik Olabe basora, 50 besakadetara, beste bat eta berantz joaz, 40 besakadetara, beste bat, eta emendik 25 besakadetara beste bat, au gogortuta egoana, eta emendik landa baten leporaño, 55 besakada ingurutara, beste bat, eta emen, arri andi baten gaiñean testigu bat ipini ebela, eta bere inguruan, Izuzkidi aldetik, aritz andi bat egoala. Ortik bera joan eta 75 besakadetara, lautada baten, beste ezaugarri bat, eta berago oraindik, beste 50'era, karearri bat, bere testiguagaz, Izuzkidi aldera begira. Beste bat 40 besakadetara, beste 70'ra, 35'era beste bat eta urrengoa 50'era, testigu bigaz, Olabe etxearen ondoan egoan aritz andi baten alkartu arte.

Orrela amalau mugarri guztira Olabe eta Izuzkidi banatzeko.

Guzti au zati bat lez artu bear zala esan eben.

Eurak esan eben, baita, Olabeko mendiak Izuzkidikoakin banatzen ziran tokietan zatitzen ebezala, Kategi, Kalzakorta, Leorreten eta Iturrinotik leenago esan dogun Legarrei mendira eta Pertika ingurura jo arte. Orrela, zati au be, baktartzat artu bear zala.

Ondarru eta Arraintalaia aldera geratzen ziran lau zatiak, basamortuak danak, euren ustez urte batzuk leenago ibili ziran Joan Alzaa eta Joan Gabiolak zatituta lez geratu bear zirala, euren eritziz zatitze ori ondo egiña zalako.

Sausaten inguruko alde, baso ta mendiak danak ikusi ebezala esan eben eta euren ustez banaketa au egin bear zala:

Laratrozulo errekatik asi eta Sausaten'en sartu arte, eta gero, itxas ondotik

Asterrikako bidetik Egiguren etxearen inguruko erre kara jo, gero bertatik go-
runtz Egigurengo zelaia eltzen dan ertzean dagon aritza artuz, eta aritz ori mu-
ga lez ezagutu. Emendik, Egiguren baserri gañean dagoan mugarrira, gorago
beste bat, eta beste bat geiago, Mantxoaren'era doan bide nausiagaz batera zu-
zen joanaz. Orrela muga orrein barruan geratzen zana gaz zati bat egiten zan.
Eta emendik kanpo laga eben Ondarroa eta Lekeitio Ama Birgiñen eleizak eu-
kezan zelaiak eta Egiguren etxearen zelaia, bakoitzari tokatzen jakon neurrian.

Gañerakoagaz bigarren zati bat egin eben eta zati onetan sartu Elexpuru eta
Ergeitz'en erdian dagon kardamudiaren zati bat, bide onduan kardamudi orren
erdian dagoan ezaugarritik erre kartean elorri biren artean dagon erdirarte, ta
emendik Elexpuru artean gelditzen dan guztia.

Beste zati bat: Gorago agertutako muga egaletik eta Asterrikatik, aitzetatik
zear Sausatenera bitartean, Ondarrutik Lekeitiora duan bide nausia joaz. Emen
Arantzibiako Martin'eri bere sarobe a laga eutsen, baita Uskolako done Pedrorre-
nak ziran lurraldeak be. Eta zati oneri geitu eutsen Ergitiz eta Oruetako aldera
geratzen zan tortixa eta erri biren artean gelditzen zan beste guztia.

Baita esan eta agertu eben, erri biak Martin Ruiz Ibarre eskribaduaren au-
rrean lenagotik bereiztuta eukezan beste lur eta tokialdeak, egozan lez lagaten
zituela, eta era berean, Sausaten eta Amallo basoarteko lurretan egozan base-
rriei eta sarobei bakoitzan bere lurak lagaten eutsezala.

Baita be adierazi eben oraindik erri bien artean banandu barik egozan lu-
rraldean gora-beran ba ekiela eztabaidak eta gora-berak egozala batzuen artean,
baiña ori gerorako lagaten ebela, aurrez asarreen edo eztabaiden zergaitiak ja-
kilea komeni zalako. Eta onetan ez zala errien aurka ezer erabagi bear, banake-
tak egin arte.

Oneik orrela zirala, egun berean, illuntzean, Arantzibiako etxe azpian ba-
tzar txiki bat egin zan eta bertan erabagi zan komeni zala ainbat lasterren Be-
rriatuako erriari gorago esan dan guztia agertzea.

Berriatuarren ordezkariak

Egun batzuk geroago, betiko antzera kanpaiak jo ondoren, Batzar Nagu-
sian batu ziran berriatuarrak.

Batzar onetako gaia Amallo eta Sausaten bitarteko mendien banaketa zan,
Joan Aulestia eta Martin Zabala'k egiñiko zatien gora-berak aztertuz.

Batzar onetan izentatu ziran ordezkariak Berriatuaren izenean egin bear
zan aukera eta ukatzeak egiteko, eginda egozan zatiak begiz jo eta ondo neur-
tzeko, onurarik onena billatuz erriarentzat. Euren zeregiña kontzientzi onez
egingo eben juramentua eskatu jakoen bertan. Alaxe, orretarako aukeratuta
oneik geratu ziran: Elexpuruko Diego; Ibargoengo Peru; Gabiolako Joan; Aste-

rrikako Joan; Bustinzuriko Perran; Ikarango Santxo; Pertikako Joan; Astuieta-ko Txomin; Arantzadiko Miel; Etxanoko Peru eta Gardotzako Joan.

Batzar onetan bertan erabagi zan, ordezkari oneik egiten ebena bein eta betiko ontzat artu bearko zala, ba ekielako banatzea gauza saila zala, baiña auke-
ratzea Berriatuaren eskuetan egoala kontuan eukiz, aukera geiago emonarren,
ardura geiago be emoten ebalako aukeratze orrek eta beartasun geiagotan lotu.

Era berean erabagi zan lenengotatik ukatu bear zala eta betiko bastertu ge-
roago agertu eikeezan ezbardintasun batzukaitik auzitan ibiltea, alkarren artean
egiten zan konponketa au erri bien bakearen alde eta euren mesederako egin
bear zalako.

1.538-V-24.- Elordiko batzarra

Joan Ortiz Zabala eskribadua buru zala, Elordiko zelaian, mugarri bat da-
gon inguruan egin zan zatietatik aukeratzeko lenengo batzarra. Bertan lau on-
darrutar ordezkari batu ziran eta amar berriatuar. Asterrikako Joan ezik ordez-
kari danak.

Berriatuak, berak eukan eskubidea artuz, au aukeratu eban:

Legarregana eta Iturrinotik zear Armetxa ingurura jo ta andik Elordi gaiñe-
rako bideari jarraituz dagon mugarrirarteko zatia. Andik Olabeganera etorri eta
Gasturu errekan sartuz Olazarretako mugarrirartekoa, eta emendik Pertikakoak
lixibia egiten daben errekarteko mugara joaz, Solozarretako basora zuzen ta
andik beste bost mugarri ondoren, Legarrera sartzen zana. Orrelako bitarte on-
tan sartzen zan guztia beretzat, bai eta Mokarotik Arregira bitarteko erdia.

Beste zatiak Ondarroarentzat geratu ziran.

Mokaroko basotatik Arraintalairako muga bitartean, lendik berriatuarrak
erabilten eben zatia be Berriatuarentzat aukeratu eben.

Aukeratze au an egozan guztien borondate onez eta naitasunez egiten zala
autortu zan eta indar geiago emoteko, testigutzat sartu ziran, baita be, Plazako
Joan, Kataegiko Santxo, Elordiko Txomin eta Aranako Peru.

Ondarrutarrak be agertu eben konforme zirala dan. danean, oraindik zati-
tzeko gelditzen zan Olabarrietako auzia alboan lagata.

1.538-V-25.- Asterrikako batzarra

Errodrigo errementariaren etxean egin zan, Asterrika auzoan, egun onetako
batzarra, Joan Ortiz Zabala eskribadua buru zala.

Emen irakurri zan Aulestia eta Zabala jaunak, Goitiburu eta Itolaburu zati-
tu ebezala, Ondarroarena zan Asterrikatik asita, baita Goitiz etxearen lurral-

deak be; Ansosietea errekartera jo arte, emendik gora Itolaburu gaiñera sartuz, eta emendik Asterrikako bideari jarraituz beste mugarri bateraño elduz. Itolaburu iru mugarrigaz ezaugarrituta eukela, batana ta bestearena ziralako, eta iru mugarrien artean gelditzen zan zatia erri biena zala.

Aurreko egunean egin zana ontzat emonaz, egunean erabagiten zanak ez ebala ezetarako lengorik bertan bera jaurti edo barriztu bearrik sortu esan zan; eta alaxe ortarako itza emon eben alde bietakoak.

Egun onetako aukeratzean, Itolamendi Berriatuarena izanik, berriatuarrak esan eben eurak Berriatuaren aldera egoan dana aukeratzen ebela, Asterrika eta Garro Berriatuan sartuz, eta Astelarra aldera gelditzen zana, Ondarroarentzat lagaten ebela. Ondarrutarrak ontzat emon eben.

Gero agertu zan, erri ingurutan, ibaitik Gipuzkoa aldera dagon mendian, lau zati egozala lendik egiñak, eta ibaitik Sausaten aldera, Lekeitio aldean, sei zati.

Gipuzko aldera dagozan lau zatitatik, bitik bat erri bienak zirala eta Lekeitio aldean, irutatik bat.

Lenengoz, probintzi aldea, Gipuzkoa aldea, lau zatitan banatutea erabagi zan.

Lenengo zatia, Berriatuarrak aukeratuta, Izuzkidi mendietara doan zatia zan, Dostuko bidetik Mokarora joaz, eta emendik Egurrolako aritza izenagaz ezagutzen zan zugatz ondotik errekarra jo arte, Izuzkidi aldean ezagutzen dana, Ondarroarena gelditu zan. Eta emendik Iramategi aldera, Arrandoerreka igarotzen dan aldetik Iramategiko etxea jo arte (etxe au Joan Gartzia Likonarena zan) eta andik gorago jota, Gorozikatik Santakutzera doan bideko mugarrirarte, eta Alnagirregan, Motrikuko mugan, mugarria artuz, bitartean gelditzen zana, Berriatuarentzat.

Bigarren zatia, gorago esandako tokietatik Zaldun, Goitizko Martiñen txabolaren inguruan egoan mugararte eta emendik gora jota, Baraikuko etxearen ondoko mugarriari ikutu ta andik Baraikuko saroeko mugarritik Legaroz Mendi puntatik jarraituz Beresestika baserri inguru artekoa, Ondarroarentzat gelditu zan.

Irugarren zatia, bigarrenean aitatutako mugaetatik asi eta ontzitegi edo Astilleruko errekarteraño zan, eta andik Madrideko bideari jarraituz, Burgoko gaztañadian sartu arte, ta gerotxoago, Burgoko saroetik Mutrikuren mugan sartu arte. Berriatuarentzat aukeratu zan zati au.

Laugarren zatia, irugarrenean esandako tokietatik Arraintalaiara, itxasoa joaz. Au Ondarroarentzat gelditu zan.

Uretatik etorrita, Lekeitio aldean ziran sei zatiak onelaxe banandu ziran:

Lenengo zatia, Arantzibiako etxearen jaubetasuneko zan Lekerneko saro inguruan batzen zan. Lekeitiotik Ondarroara etorran bide nagusiaren egaLEAN asi eta portura doan errekatxoari jarraituz, Barrenetxeako gaztañadiak arte,

eta goragotik, Kapitelegi izendun tokitik Oruetatik Beleukira doan bidearen inguruko mugarrirarte, eta andik Aulikizko mendia jo artekoaren barruan gelditzen zana. Berriatuarentzat gelditu zan.

Bigarren zatia: Lenengokoan esandako muga eta tokietatik zati bat Burgaña baserrirarte zabaltzen da, baserri onen lurrekin bat egiñik. Au Ondarroarentzat aukeratu zan.

Anakabe ingurutan zati bi egin zituen banatzeko zeregindun gizonak.

Burgaña etxearen azpia, Anakabe aldean dagoan Ubirotxa izeneko erreka-txoan asi, ta gora joaz, trotix baten ondoan dagon mugarrirarte; eta emendik Anakabe baserriaren goi-aldean dagon mugarrirarte.

Mugarte onetan itxas aldera gelditzen zan zatia, lurraldea, Berriatuarentzat gelditzen zan. Goi aldea, Asterrika eta Itola alderakoa, Ondarroarentzat.

Itolamendi eta Garroburuko lurrekin be zati bi egin ziran.

Bata, Ondarroa eta Bizkai errien lurrak banatzen ziran Azkarra izendun tokitik asi eta Lekeitioko bideari jarraituz, Urkiaga baserriko bide nausian dagon karobitik igarota, Asterrika ingurutan dagon beste karobiaren ertzean, mugarrri bat ipini eben; emendik mendiaren lepora jota, beste bat; emendik Arbiaska izeneko lekura doan errekatxoaren gainean beste bat; eta andik berantza, Ondarroaren mugetara eldu eta Errenderiko lurraldetan sartuaz, Goitiako etxearenetan finkatuz, bestea. Au Ondarroarentzat.

Eta andik aurrera, Garro eta bere lurretan sartuz gelditzen zan guztia, Berriatuarentzat.

Galeamendiko lurretan be zati bi egin zituen. Urdakondegi izenez ezagutzen dan Lekoia mendiko tokian egoan mugarritik, Etxanoko bideari jarraituz bide berbertan mugarrri bat ipini eben eta emendik bera joanaz, Lekoiatik Bidazurietara doan bide-txindorrean beste bat, eta emendik Goikoetxe baserriaren Urea deiturako tokira doan errekatxoari jarraituz, beste bat.

Onela, mugarrri orreik kontuan artuz, Zabala eta Lekoia aldera jausten zan lurraldea Ondarroarentzat gelditu zan. Beste aldea, Etxano eta Ergeitzera emoten ebana, Berriatuarentzat.

Banaketa oneik egiñarren, ota eta iratzetako goraberetan, alkartasunean jarraitzea erabagi eben, onetan lendik erabagita eukena ontzat emonda.

Ain zuzen be urte bete lenago erabili ziran eztabaidetan, Iñigo Arkillo Korrexidorea egon zan Ondarroan egin bear ziran banaketa eta zatitzeak zuzendu nairik, eta orduan artu ziran erabagietako bat (besteak ez eben gero arrera onik euki eta origaitik barriztu ziran banatze oneik), iratza eta otatzak alkartasunean eroaten jarraitzea izan zan, orreik bienak izan ezik, asarre geiago sortuko ziran bildurrez.

Azkena emoten

Egin zan banaketa au Ondarroak eta Berriatuak pozik ikusi ebela esaten dabe garai aretako agiriak.

Orrela, Martin Gartzia Galartza eskribadua aurrean egoala, Bilbon batu ziran erri bietako ordezkariak, Korrexidorearen aurrean, 1.538 urteko Abenduaren 3'an, eta an erakutsi eben egin ebenaren agiria, eskribadu jaunaren eskritur-etan, Korrexidoreari eskatuz banatze orreri bere on ikusia emoteko, orrela gerorako indarra euki egian.

Azken onetara, Berriatuako ordezkari lez Gardotzako Beltran joan zan eta Ondarroaren izenean, Likona'ko Iñigo.

Eizmendiko Iru baserri

Oraindik sua itzali eta amatau barik egoan. Asko egin, baiña dana ez. Laster ikusiko dira barriro berriatuarrak eta ondarrutarrak auzitegietan.

Oraingo onetan EIZMENDI auzokoak biztuta.

Berriatuaren biotz-biotzean, Ondarroarenak ziran baserrietako etxe jaunak, itxura baten, ez eben onez ezagutu eta artzen Ondarroaren agintaritzarik.

Iru etxe egozan auzo orretan Ondarroarenak.

Etxe jaubeak: Eizmendiko Txomin, Eizmendiko Peru eta Mugertegiko batxillerra ziran. Azken onek, sasoi aretan, errenterua eukan etxean, Iturriza abizenduna.

XVIgarren gizaldiaren erdi inguruan zan ori.

Egun baten, 1.543 urteko Epaillaren lenengotan, Ondarroako agintariak agertu ziran Peru Eizmendiren etxean, gabeko orduetan, eta Marina bere ama-giñarreba artu ta Ondarroara ekarri eben.

Agiriak ez diño zegaitik egin eben ori. Baiña egintza onek laster biztu eban berriatuarren artean inguru aretako jaubetasun eta agintaritzaren eztabaida.

1.544'ko Apirillaren lenengoan, Sagardia Batxillerrak, Korrexidorearen ordeko lez emon eban epai edo erabagian, Berriatuaren alde agertu zan, lur areitako eta baserri arein jaubetasun Bizkai-erri lauaren jaubetasuna zala-ta.

Ondarrutarrak ez ziran gelditu. Ten egin eutsen nortasun eta eskubideari, Ondarroa irazi edo fundatu zaneke agirietatik, eurenak zirala baserri orreik. Arrezkero egondako gertaera guztietan be ondarrutar lez jokatu ebela bertako bizilagunak. Ukatu eziñeko eskubideak agertzen zitun Ondarroak.

1.545 urteko Urrillaren 12'an, Bizkaiko epaikari nagusiak agertu eban bere erabagia.

Argi agertzen zan ondarrutarrak legepean egozala Eizmendiko auzoan euren agintaritza erakutsi eta agintaritza orrek eskatzen zitun neurriak artzeko.

Erabagi orretan esaten zan, Eizmendiko Marina eta Peruri jakin erazten eutsala, aurrerantzean kontuz ibilteko agintaritza oneri trabak ipinten, eta betiko ixildu erazten zituala gauza onetan eskabide, jokabide eta eztabaida guzurrekoetan sartzeko..

Bizkaiko epaikari nagusiaren erabagi au ez zan begiko jausi eizmenditarren artean, eta Marina eta Peru'k, Urbinako prokuradorea izentatu eben Valla-dolid'eko auzitegi nagusira joteko epai edo sententzi orren aurka.

An 1.546 urteko Urtarrillaren 22'an artu zan erabagia.

Ondarroaren aldeko izan zan, Bizkaiko epaikari nagusiaren epaia, sententzia, oso osoan ontzat emoten, eskubide guztiak Ondarroako erriari ezagutuz.

Ori orrela, Ondarroak, denporarik galdu barik, "Carta executoria" edo bete eragiteko agiria eskatu eban eta 1.546'ko Otsaillaren 20'an izenpetuta agertu zan agiri ori.

Ondarrutarrak karta au erakutsi eutsen Ondarroan bertan Bizkaiko Korredoreari, 1.546 urteko Iraillaren 10'ean, kontuan euki egiala eskatzen.

Azillaren 7'an, Ondarroaren eskabidez Larrondo eskribaduak Berriatuako batzar baten irakurri eban karta ori, Eizmendiko Peru aurrean zala. Onek erantzun eban ez eukala epai orren aurka ezer esateko, baiña esaten zana aurrera eroateko, Bizkaiko Batzarrean jakin eraztea eskatzen ebal, bere ustez Bizkaiko Batzarrean aurkako zalako sententzi ori.

Egun berean irakurri jakon Eizmendi'ko Marina'ri be, ta onek be Peru'k esana barriztatu eban.

Jaubetasuna erakusten

Sasoi aretan oiturazko eben errietako agintariak euren lurraldetan agintaritza erakustea. Origaitik, urte berean, 1.546'ko Abenduaren 9'an, Ondarroako agintariak, Apallua Joan alkate zala, **alkate bastoia tente eroiela** agertu ziran Eizmendin eta Ondarroaren agintaritza agertu nai izan eben.

Iru baserrietako bizilagunekin batera, bakoitzaren mugarriak erakutsi eragin eutsezan, baster guztietatik zear joanaz eta mugarrien ezaugarriak artuz.

Jakin nai izan eben baita asarrerik edo eztabaidarik, edo ezagutu nai ezik jarraitzen ete eben epai nausiaren ondoren, Eizmendiko Txomin eta bere emazteak esan eben, ez eukela asarrerik, eta ondo entzun eta artzen zituela emondako aginduak.

Mugartegi batxillerraren jaubetasuneko etxean Iturriza errenteruak eta bere emazteak esan eben ez eukela aurkakorik.

Eizmendiko Peruren emazteak barriz, bere senarra ez egoala etxean eta jakin eragin bear zana edo esan bear zana bere senarrari adieraziteko, nai ta une aretan asarrerik euki ez.


Kontuan eukiteko da au zala auzitegietan ibilia eta bere etxean une aretan ez egotea komenentziz izan zala.

Ordutik aurrera, urte batzuetan beintzat, Ondarroako agintariak, alkate eta juezak, **bastoiak tente eroanez** urtero egiten eben jaubetasun eta aginpide eta nortasuna erakusteko ikustaldi ta osterea Eizmendira.


Era berean egiten eben osterari Gorozika auzora be, ango muga guztieta-tik zear ibiliz.

Bardin, urtero ori be, Santana etxearen ingurura.

Orrela, erriko agintariak, lotsaz eta zintzotasunez zaindu nai izaten eben erriaren eskubidea.



Atadi bat.



Arantzibia torrea.

BATZARREN ONDORENAK EZIN LORTUTA

Esandako batzarrak emon ete eben euren onurarik?

Ukatu eziña da konponketa guraria ba egoala, premiña ba egoala. Baiña zelako borondatea?

Borondate onik ba egoan, zetan etozan Iraspeneko Agiri eta mesede eskintza ondorengo ainbat urtetako ziurtapenak?

Zegaitik bete-bearreko agiria emonda be, oraindik ziurtapen agiri geiagoen premiñak?

Garbi ikusten dana au da: Alegiñak alegin, ez zala inguru oneitan Ondarru eta Berriatuarrak gogo onezko menpetasun baten sartu eta zainduko zitun agintaririk.

Eta origaitik zerbait jazo edo gertatu ordurako ondarrutarrak gora jotzen ekiela inguru askotako Errege lez agertuarren, emen Bizkaiko Jaun lez euren agintaritze erakusten ebenetara.

Orrela len esandako mesede ziurtatze guztien gain, oraindik be or dator Felipe IIgarrenaren mesede ziurtatze barri bat, Madrid'en idatzita 1.563'ko Urtrillaren 12'an zabaldu zana.

Agiri onetan be lengoen oitura jarraitzen da, aurrez egon ziran Agiri guztien aipamen labur bat egin eta gogoratuaz.

Felipe IIgarrenaren onetan, doña Juana eta don Karlos'en denborak gogoratzean esaten da iñor ez daitela ausartu emondako mesedeak zapaldu edo euren aurka joaten, eta barrero ziurtatuaz batera, euren aurka jagiten ziranak bere gorrotoa lortuko ebela, esan eta jakin erasoten da.

Eta denbora aretako agintaritzea, txanzillari eta abarrei, eta geroago be egongo diranei gogoratzen dautse bete dagiezala eurretan azalduten diranak, eta ondarrutarrei kalterik egiten dautsenak ondo ordaindu dagiela egiten daben kal-

tea, eta Mesedetako Agindu au erakutsita, amabost egun barru beregana joatera zemaitzeko.

Gauzak orrela ba dirudi zela ala mugak ipini zirala eta asarreak-asarre, atsegiñez edo atsekabez, baketan edo asarretan, zaintzen zirala.

Ez uste itxasaldean egoera larriak mendietan bakarrik gertaten ziranik. Itxas-aldiak eta batez be ibaiak, emoten eban bere lana eta zeregiña.

Ara, ondarrutarrak, itxastar lez, uste eben itxasoak mare gorakoetan estaldu edo artzen eban lurralde guztia, Ondarrurena zala. Berriatuarrak, ordez, uste eben, itxasoak mare berakoetan agirian lagaten eban lurraldea, eurena zala. Eta or, jakiña, gaitz izaten zan usteak alkartu eta bateratzea.

Dana dala, ainbeste batzar eta alkartze ondoren, ezin ukatu goi-gorengo mugatze bat lortu zanik eta mugatze ori zainduko zanik.



Arragieta etxea.

MUGA KONTUAK

Bein muga kontuan, nai ta baketan ez, baretzea lortu zanean, Berriatu'k lortu eban bere duintasunari edo mugapen bateri eustea gure egunak arte.

Egon ziran XIXgarren gizaldian erri txikiak auzorik urrenagaz batu edo alkartu eragiteko alegiñak.

Orreitariko bat 1.866 urteko udalen berrerakuntzarako lege egitasmoa izan zan, 1.867ko Urrilla'ren 23'ko Errege Agindu lez agertu zana. Berreun auzokide batzen ez ziran erriak, auzorik urbillenagaz konpondu bearra.

Ainbat erriri ikututen eutsen lege orrek Bizkaian, ugari ziralako kopuru orretara elduten ez ziran erriak, batez be elizateak.

Aldi aretan Berriatua Durango Lurraldeko Auzitegi Alderdian sartzen zan eta amasei erri, uri nai elizateak kontuan artuta batzen ziran lurralde orretan berreun auzokide baiño geiago eukezanak, euretariko batzuk kopuru ori ozta-ozta lortzen ebela (Berriatu'k 213 auzokide, Xemein'en 212, Areatza (Villaro)'k 204. Eta beste amazpi (17) berreun auzokidetara eltzen ez ziranak eta egitasmoa bete izan ba litza alkartu bearko ebenak.

Ara alkartasun bidea artu bearko ebenak Durango alde onetan:

Apatamonasterio, 42 auzokidegaz; Elorrioagaz alkartu bear.

Arrazola, 28 auzokide. Ubao, Arrigorriaga eta Zollo'gaz alkartu bear.

Arantzazu, 60 auzokide. Igorre'gaz alkartu bear.

Arteaga (Gaztelu Elexabeiti) 144 auzokide; Areatza'gaz alkartzea.

Arrazola eta Axpe, alkarregaz batu bear.

Etxano, Ibarri'gaz.

Garai, Berriz'en sartu bear

Ernu eta Mallabi, alkarregaz.

Bardin Izurtza eta Mañari.

Era berean Lemona eta Bedia.

Eta Zaldua (Zaldibar) Ermu eta Mallabigaz edo ta Berriz'en sartu bear.

Erabide orrek benetan nastuten eban Bizkai guztia, kontuan artuta beste lurraldetan bardintsu gertatzen zala.

Laster igarri zan orren eragiña, auzo erri askok alkartu barik be burukomin asko eukiten ebezalako eta Bizkai'ko Aldundiak 1.867'ko Martiaren 14'an bere eritzia emotean, egitasmu orren aurka zeatz-meatz emon eban berea.

Aldi aretan Berriatu'k 1.172 bizilagun eukazan eta euretatk 213 ziran auzokide lez onartuak.

Gure erriak, Ondarroa'k 2.123 bizilagun eukazan, eta 441 auzokide.

Politika giroak, nasteak eta estatuko goraberak, agindua bastertu eben eta gauzak lengo antzera geratu ziran.

ONDARROA, BERRIATU ETA MUTRIKU ARTEKO MUGEN ZEAZTASUN ETA EZAUGARRIAK

Zenb.	Tokia	Ezaugarria	Egitura	Neurriak	Besterako bitartea	Bestera norabidea	Ze ikusten dan	Jaubedunen mugak	Bata beste arteko zeaiztasunak	Oarrak
1	Mokaro-gane	Kare-arria	Irupuntako	0,60	"	E-Sork.	Iparrean ermita (San Juan)	Zaroe eta Doistu Goiko esia	" Berriatu eta	Mugarri au Mutriku Ondarroarena da.
2	Urkiaga-Basogane	Ondar-arri zarra	Irupuntako	0,40	369 m	E-Sork.	Iparrean ermita (San Juan)	Zaroe eta Doistu Goiko esia	Alkartzen dauzan marra zuzena	Mugarri au, Mutriku Berriatu eta Ondarroarena da eta daigon eran geratu zan.
3	"	"	Konikoa	0,40	157 m.	E-Sork.	"	Peñaflorida Kondea eta Doistu Goiko lurrak	Ur bidetara urreratzen da	Esandiako iru erriena.
4	Elordiko Potzua	"	Irupuntakoa	0,70	772 m.	E-Sork	"	Elordi eta Urkiaga-Baso	Berriatu'rena	Zati au Berriatuzena da eta Mutrikugaz mugatzen da.
5	Elordiko Potzutik Kattegane bitartean	"	Lautua	0,50	154 m.	"	"	"	Zuzena	Mugarri au, Ondarroa eta Mutrikuzena da.
6	Kategane	Ondar arri zarra	Irupuntako	0,70	201 m.	"	"	Allanda eta Elordi	"	Mugarri au Mutriku Berriatu ta Ondarroarena da eta egoan lez geratu zan.

ONDARROA, ETA BERRIATU ARTEKO MUGAEN ZEAZTASUN ETA EZAUGARRIAK

Zenb.	Tokia	Ezaugarria	Egitura	Neu- rriak	Besterako bitartea	Bestera norabidea	Ze ikusten dan	Jaubedunen mugak	Bata beste arteko zeaztasunak	Oarrak
1	Iraybalzaga	Aitzalru puntako		4,0	"	I-E	Itxasoa	Gorostidi eta Zezermerdi	Itxasoarteko marra zuzena	Fraila aitzza deitzen da eta mare berakoan 20 m.tara luzatzen da.
2	Zezermerdi	Ondar arria	"	0,50	330 m.	"	"	"	Errekartea	Barriztu zan
	Errepidea	Karearria	Lautua	1,20	60 m.	"	"	"	"	"
4	Arriaga errekartea	Ondar arria	Iru puntako	1,50	180 m	"	"	Gorostidi eta Arriaga	"	"
5	Arriagarako bidea	Karearria	Lautua	1,20	348	"	"	Zezermerdi eta Arriaga	"	len lez itxi zan
6	Arriaga exea	"	Iru puntakoa	0,50	200	"	"	Arriaga eta Ikaita	Bidea	barriztu zan
7	Ikatzako poizua	"	"	0,50	172	"	"	Bere izenekoa	"	" "
8	Azkarraga	"	"	0,90	530	S.Sar	"	Goiti ta Urkiaga	Bidea	len lez itxi zan
9	Goiti'ko erreka	"	"	1,50	500	Ip.-Eg	"	Goiti	marra zuzena	Barriztu zan
10	Errepidea	"	lautua	1,20	207	"	errepidea	Arantzibia eta Patrokua	" "	" "
11	Santana alde	"	"	1,	40	"	"	" "	" "	len lez itxi zan
12	Artibai ibaia	"	"	1,	158	"	ibaia	Arantzibia eta Santana	" "	barriztu zan

Zenb.	Tokia	Ezauagarria	Egitura	Neu- rriak	Besterako bitartea	Bestera norabidea	Ze ikusten dan	Jaubedunen mugak	Bata beste arteko zeaztasunak	Oarrak
13	Meltxorreneko solua	"	"	1,	557	Eg-Ip	"	Ibaia eta Meltxorrenekua	Bira	"
14	Errenderiko Uarritza	"	"	1,	112	Sor-Sar	"	Goiti ta Berriatu	Zuzena	"
15	Urkiaga Goiko solua	"	"	1,	582	Sar-Sor	"	Ibaia ta esandako solua	Bira	"
16	Saroalde	"	Irupuntako	0,40	73	Sor-Sar	"	Saroe ta Urkiaga	Zuzena	"
17	Saroalde	"	Irupuntako	0,40	14	" "	"	" "	"	"
18	Saroalde	"	"	0,40	58	" "	"	" "	"	"
19	Saroalde	"	"	0,40	220	" "	"	" "	"	"
20	Ibaia	Kare arria	Iru punt.	0,40	38	" "	Ibaia	Saroe ta Urkiaga	"	Barritzuzan
21	Arrauea	"	"	0,40	200	" "	"	Goitiniz	"	"
22	Arrauea	"	"	0,40	27	" "	"	Zaldua	"	"
23	Astelar	"	"	0,40	415	" "	"	Zaldua	Bira	"
24	Zalduerrea eta kargaderua	"	"	0,40	87	" "	"	Pasaman	zuzena	"
25	Zaldupe	"	"	0,40	42	" "	"	Zaroe ta Zaldupe	"	"
26	Zaldupe	"	"	0,40	70	" "	"	" "	"	"
27	"	"	"	0,40	86	" "	"	" "	"	"

Zenb.	Tokia	Ezaugarria	Egitura	Neu- rriak	Besterako bitartea	Bestera norabidea	Ze ikusten dan	Jaubedunen mugak	Bata beste arteko zeatzasunak	Oarrak
28	Astillero Zald.	"	"	0,40	60	"	Ibaia eta Ondarroa	Astillero ta Garbitokia	"	"
29	" "	"	"	0,40	32	"	"	" "	"	"
30	Zelaya'n fabrika	"	"	0,50	250	"	"	J. Eixabe ta ibaia zuzen	"	"
31	Errepidea	"	lautua	1,	98	"	Ondarroa	Zubi barria	"	len lez geratu zan
32	Mutrikurako bide zarra	"	iru puntako	0,50	36	"	"	Ibaia	"	"
33	Antzsoloko plaza txiki azpi	"	lautua	0,60	37	"	"	"	"	"
34	Astilleroa	Kare arri zarra	Biribila	0,40	75	Ip-Ego	"	Ibatbarriaga ta Arriola	"	OARRA: 31, 33 eta 34 artean triangulu bat osotzen dabe erri
35	Arrigorri muturra	Kurutze bat aitzean	lautua		577	Sar-Sor	Ondarroa ta itxasoa		Bira	biena dalarik, au da Astilleroa dagona eta 2.220 m lautu daukaz
36	"Bajo Boquete"	Aitz bat	lautua		585	"	Saturrarango ondartza	Bizkaia ta Gipuzkoa	Zuzen	35 eta 36 len lez geratu ziran

Laburpenak: I-E = Ipar-Ego Sar-Sor = Sarkalde Sorkalde.

ONDARROA'REN MUGAK

Mugak, nai ta zeaztuta ipini, erri txikien artean ezin ikusi ugari sortzen zituena auzokideen artean.

Eta batzutan esku gaiztoen batzuk erabili edo aldatu zituela, edo ta mugatzat izendatuta egozan enborrak eta zugaitzak ebagi bearra gertaten zala edo ta igartuta jausi zirala, edo ta lurren erasoak azterrenak be galdu eragin ebezala ta abar, toki askotako asarre-bide izaten ziran.

Lengo gizaldiaren azkenetan, Udalen mugak ziurtatzeko Errege Agindu bat agertu zan, 1.889'ko Dagonillaren (Abustuaren) 30'eko egunez.

Lege orren arabera, auzo errien artean batzordeak aukeratu ziran zeregin ori bete al izateko.

Ondarroak bere mugak eukazan ez bakarrik Berriatua'gaz, askoren ustez Berriatu eta itxasoak Ondarroa'ren inguru guztia mugatzen ebelako.

Or eukan Mutriku be, nai ta Mutrikugazko muga erriak uste eban tokian egon ez, geroago ikusiko dan lez.

Agindua beteteko Ondarroa'ko Udal Batzarrak bere muga-batzordea aukeratu eban era onetan:

Kandido Arriola, alkatea.

Eugenio Garramiola, ziñegotzia.

Salvador Zubikarai, ziñegotzia.

Jose M^a Urreta, sindikoa.

Eugenio Madariaga, idazkaria.

Eta teknikari lez beste bi:

Bitor Errekalde eta Geronimo Irusta.

Mutriku'ko Udalak bere aldetik beste batzorde au osotu eban:

Pedro Jose Guridi, alkate ordea.
Gerónimo Arrizabalaga, ziñegotzia.
Esteban Martinez, sindikoa.
Santiago Peña, idazkaria.
Eta peritutzat, Benito Mendizabal eta
Antonio M^a Mendizabal.

Batzorde biok izan ziran Ondarroa eta Mutriku arteko mugak ikusi, ezagutu eta ziurtatzera joan ziranak, 1.889'ko Azilla'ren bigarren egunean .

Bederatzi egun geroago, Azilla'ren 11'an egin zan Ondarroa eta Berriatu artekoena.

Berriatuarrak batzorde au aukeratu eben:

Eustasio Pagoaga, alkatea.

Pedro Arriola, Jose Azpiri eta Pedro Basterretxea ziñegotziak.

Teknikari lez Geronimo Irusta eta Bitor Errekalde, au da, Ondarroak eukazan bardiñak eta idazkari Andres Zubikarai.

Batzordeak, euren azterketa egitean, mugarri bakoitza zein tokitan egoan zeaztuten eben, erria, egurra edo beste zerbait ete zan, bere neurriak, zelako norabidean egoan, bertatik zer ikusten zan, nungo lurraldean edo zeinenean sartuta egoan, eta mugarri batetik bestearen bitartean zer egoan, eta barriztu ete dabena ala lengo eran itxi.

BATERATZE ASMO ETA EGIÑENAK

Barrero errien bateratzeak eta alkartzeak egiteko griña lakoa sartu zan XXgarren gizaldiaren erditik aurrerako gorakadan.

Ezin esan lei bateratze au errien eskabidez egin nai izan zanik, errietan agintzen egozan politikarien gogoz baiño.

Une a bizi ebenak ondo dakie ori.

Kontu egin Bizkaian eun eta amabi (112) udalerrri egozala eta berrogei ta amairutan (53) biurtuta itxiteko asmoa egon zala.

Bizkai'ko beste errien auzia alboan itxita, Ondarroa eta Berriatu'ren arteko auzia 1.965 inguruan asi zan.

Orduan Berriatu Ondarroagaz bateratzeko agertu eta erabili ziran arrazoiak oneik ziran:

Ondarroa ittota egoala bere lurraldean.

Ondarroa'k 1.965'ko Abenduaren 31'eko erroltzearen arabera zortzi milla irureun eta larogei ta bederatzi (8.389) bizilagun eukazan.

Berriatu'k milla bosteun eta berrogei ta sei (1.546)

Ondarroa'k 2,41 km² lurretan.

Berriatu'k 20,95 km²

Berriatu'k, azken 25 urtetan irureun (300) geitzea ezagutu eban. Gizaldia-
ren asieratik asita, 400 lagun geiago.

Ondarroa, bere aldetik, 1.940'tik asita iru milla (3.000) lagunetan geitu zan eta 1.900 urtetik zenbatu ezkeru, bost milla (5.000) lagunetan.

Ondarroa'k bere barru-barruan sartuta eukazan, bertatik premiña guztiak bete ta laguntzak artuaz, nai ta legez berriatuar izan, Madalena auzoa, Astillero eta Antzosolo zatia, Zaldupe ingurua, ondartza eta abar.

Ondarroak zabaldu bearra eukan batez be etxe bizitzentzako lurrak eta industriarentzako lekuak gertuteko.

Erri biak, eztabaidetan jarraituarren, Berriatu'k makurtu bearra euki eban.

1.969 urteko Martiaren 27'an Berriatu Ondarroa'n sartzearen agindua argitaratu zan.

Orren aurka asarre biziz eta gogor ekin eutsan Berriatu'k. Inguruetako atekak itxita ikustean Epaitegi Gorenera jo eban eta auzia bertaratu.

Urteak igaro eta Epaitegi Goren orrek 1.973'ko Azilla'ren 12'an erabagi eban bateratzeari buruz artutako erabagia bidezko zala eta ortazko aginduak indarrean egozala.

Orren arabera Madrid'eko Gobernuak, 1.974'ko Martiaren 1'ean ministroak Kontseilluan batuta agindu zarra betetea erabagi eben, eta erabagi ori Bizkaiko Boletinean be agertu zan il aretako 6garrenean.

Berriatuarrak ukatu egiten ziran.

Ez eben erantzun nai izan aginduaren ondorenez Ondarroa'ko alkateak emengo Udaletxera deitu eutsenean sarpena izenpetzeko batzarrera. Ango udaltxean erabagita eukan ukapen ori.

Konponketa lako bat egin zan, emengo udal batzarrean ango iru ziñegotzi sartzeko, eta ango arazoak euren irizpidean erabilteko.

Aldi aretako politika giroa, estatu maillan, indargetzen igarten zan eta ori berriatuarentzako mesedegarri izan zan.

Demokrazi denbora zabaldu zan eta Udalen aldaketak egin ziran.

Ordurarte mutu ta eskutuan egozan edo ebiltzan alderdi politikoak lenengotik agertu eben Berriatuagazko auzia erabagi bearren gogoia.

Berriatu'k 15 puntudun erabide edo jokabidea agertu eutsan Ondarroa'ri, bertan udal-batzar albotiko bat sortuaz, Ondarroa'gaz legez banatzea lortu bitartean.

1.983 urtean Bizkai'ko Batzar Nagusiak, banatze aren aldeko irizpidea agertu eben urte orretako Azilla'n egindako batzarretan eta erabagi orreri esker Berriatu eta Ondarroa banatuta geratu ziran 1.983-ko Abendu berbertan. Berriatu'n aldiz-aldizko Udal Batzar barria sortu zan, auteskunde barriak artean. Eta Abenduaren 11'an jai andiak ospatu ziran, Meza Nagusi, Erri Bazkari eta abar.

Arrezkero, Berriatu'k bere agintea itxi eban Ondarroa'n eukazan zokodietan. Ala Madalena eta Zaldupe auzoan, Astilleru eta Antzosolo aldian eta Arrigorritik Mutriku'ra bitartean geratzen zan errepidea geratzen zan mugatzat, errepidetik itxasorartekoa Ondarroarentzat itxiaz.

Ondarroa'k bere aldetik Berriatua'ri itxi eutsan Mereludi gainean eukan Eizmendi baserrien auzoa.

Beraz mugaetan aldakuntza ori azpimarratu bearra dago.

AZKEN KONPONKETAKO MUGAK

Ondarroa'ko Udal Batzar Orokorrak, 1.982'ko Abenduaren 17'an eginda-ko batzarrean, sei gai eukezan eguneko gaitzat .

Euretatik bigarren zan Berriatua eta Ondarroa'ko alde-banatzeri egokiona eta batzar orretako euskerazko agiritik oso-osorik agertzen dogu puntu ori. "Zuina" berba erabilten da tartetan, eta esan bear dogu berba orrek erderazko "linea", "alineación" esan nai dabela.

Ara agiria:

2.- Berriatua eta Ondarroa alkar banatzeko erabagia, Berriatua'ko eleizatea barrero sortuz

Ondoren, Bizkai Jaureriko Batzar Nagusietako erabagi ondorenez asitako Berriatua eta Ondarroa alkar banatzeko auzi-agiriaren kontua emon zan. Batzar Nagusien erabagia 1.980'ko Apirilla'ren 5'an artu zan.

Berriatua'ko Batzorde Eragilleagaz, mugak dirala-ta eukitako artu-emonen kontu emon zan, Berriatua'ko ordezkariak 1.980'ko Apirilla'ren 25'ean Udal Batzar orokorrari aurkeztutako eskintzatik asita, geroago 1.980'ko Maiatzaren 30'ko Batzarrean onartua izan zana, era onetan:

Berriatua'ko Batzordeak alkar banatzeko izentatzen ditun lurralde-mugak

Lenengo.— Aldatu barik geratzen dira Berriatua'k Ondarroa'gaz batu aurretik, Mendexa, Amoroto eta Markina-Jemein'egaz eukazan mugak.

Bigarren.— Aldatu barik geratzen dira, baita be Ondarroa'gaz batu aurretik, Berriatua'k Mutriku'gaz eukazan mugak, Gipuzkoa'ko aldean, Lekeitio'tik Deba'ra duan bidean eta bere be-aldetik Kantauri-itxasoari aldekoak izan ezik. Ondarroa'ren mesedean aldatzen diralako.

Irugarren.— Berriatua eta Ondarroa'k, batu aurretik eukezan mugak, aldakuntza oneik artzen ditue:

A) Mereludi'ko auzoan, eta Ondarroa'renak ziran Eizmendi'ko iru baserriak eta euren jaubetasunekoak, Berriatua'ren lurraldeko izatera aldatzen dira.

B) Ordez, Ondarroa'ko lurralde izatera aldatzen dira Berriatua'ko Madalena auzoa deritxanean eukazan etxe eta lurraldeak, BAT zuin (aldebanatze muga-arria) eta BI zuin (aldebanatze muga-arria) deiturretan zeaztuten diran lez.

BAT deiturako zuina

Atakotzat ezagutzen da, Gorozika auzoak, «Mokau» baserriaren atzean eta «Atxondo» baserriaren aurrean dagon zoko-tontorrak, eta Ondarroa'ko bizilagun dan Franzisko Bilbao'ren lurretan egiten daben BAT mugarri barriko arri zuzenak egiten daben zokoa.

Mugarri au Gorozika'tik «Baraiku» baserrietara duan auzo bidearen goi aldean ipinita dago, bide onen ardatzetik lau metrotara, eta «Errekandia» deitzen dan errekatik metro bitara. Mugarri onek, iparraldera begira, B izkia (letra) daroa, eta zuzenbide orretan «Iramategi-beko» baserria eta Iturribarri auzoa ikusten dira, eta Ego aldera O izkia (letra).

Muga arri au «Errekandia» deitzen dan erreka bidetik dua, Iramategi-beko eta Zaldu baserriaren arteko erreka bidetik zear, Artibai ubao arte, eta BAT arraiaren azken ertza, Artibai erreka orren ur-ibilien ardatza izanik.

BI deiturako zuina

Atakotzat artzen da «Mokau» aurrealdean asi eta Ondarroako bizilagun dan Pedro Arriola'ren alargunaren jaubetasuneko dan «Baraiku» baserriko lurraldetan ipinia dan BI mugarriak osotzen daben zokoa. Eta ezaugarritzat «Baraiku» baserri onetako ipar aldeko eta sorkaldeko ormak osotzen daben ertza artuaz, sorkaldera begira 19 metro bitarteko dirala dagona, eta egora begira metro bitara, «Baraiku»tik zear «Burgo» baserrira eta TV'ko biremailera duazan bide kurutzean ondoan.

Mugarri onek, B izkia agertzen dau Ego-Sorkaldera begira, zuzenbide onetan TV'ko bir-emallea ikusten dala, eta «O» izkia Ipar-Sorkaldera begira, bertatik Asterrika auzoko «Urkixa» baserriak ikusten dirala, Ipar-Sorkaldera begira kaia eta Ondarroa'ko erririk geiena ikusten dira.

Zuin (arrai) au «IRU» mugarri barriraño dua. Mugarri au Bilbo'ko bizilagun dan Gaminde'ren alargunaren jaubetasuneko dan «Akilla» baserrian ipinita

dago. Mugarri au telefonotako tenteko batetik metro bira dago, eta «Alfa» etxea edo Arrigorri'ko ondartzara begira dago, bere beko aldean Txori Erreka auzotik asi eta «Burgo» baserrira duan asfaltodun bidea duala, eta gora begiratuz, berrogei metrotara asfaltodun bide orren ardatza ikusten da. Mugarri onek «B» izkia dauka Saturrarán go ondartzara begira, eta «O» izkia Sorkaldera begira, Ondarroa'ko Santa Maria parrokiko eleizaren erdi aldearen zuzenbideagaz bat dator, ia Ondarroa guztia bertatik ikusten dala. Mugarri onetatik «Barraiku» baserri inguruan dagoan BI mugarría ikusten da.

Zuin au, zuzen LAU mugarri barriraiño dua. Mugarri au Bilbo'ko bizilagun dan Gaminde'ren alargunaren jaubetasuneko dan «Akilla» baserriaren lurretan dago.

Mugarria Lekeitio'tik Deba'ra duan bide nausiaren gaiñean dago, bide orren ormaren erditik 10 metro eta 50 zentimetrotan, IRU mugarríaren lerroka-dan, eta ondartza edo plai txikiko musturraren lerro zuzenean zuzenbide orreri jarraitu ezker «Vega» jatetxearen ezker ertzagaz batzeko eran.

Ipar Sorkalde aldera B izkia dauka eta O Ipar-sarkaldera begira eta barríro O izkia Ego-sarkaldera begira. Mugarri onetatik Ondarroa'ko zatirik bereziána ikusten da. Eta bertatik ikusi leikez BI eta IRU mugarríak be.

Gipuzkoa'ko mugan, Mutriku erriagaz bateratzera daroan zuína LAU mugarriraiño jarraituz, Lekeitio'tik Deba'ra duan bideari dagokio, bere eskuma alde edo gaiñetik, era orretan BI zuína osotua geratzen dala.

Ondoren egindako azken artu-emonen kontu emon zan. Euretako eritxien arauz, Ondarroa'ko Udala osotzen daben alderdi politíkoak eskari au bialdu eutsen Berriatu'ri: **Ondarroa'ko Udala osotzen daben alderdi politíkoak Berriatua'ko erriari egiten dautsen eskaria:**

1.- Berriatua'ko Batzorde Eragilleagaz euki diran artuemonetan aztertu diran lez, Ondarroa'ko erriaren zabaltzeko premiñak ikusita, Ondarroa'ko Udalak etxe barriak egiteko daukan urritasuna kontuan eukita, eskari oneik egitera beartuta gagoz:

a) Ondarroa'ko lurralde lez mugatzera Zaldupe'ko Ikastetxe ta Kíroldegiko lurraldea.

b) Markiñaldeko plangintzan «Alliri» inguruan egiteko dan bide nausi barria izan daitela erri bien muga.

2.- Erri bien muga arteko adiskídetasunaren ezaugarri eta mesedean, eta alderdi politíkoen gurari on lez, beartu egiten gara urrengo egingo dan Udál Batzar Orokorrean, Berriatua'ko erri barruko samarrak batzera, bost urtetan, zeregin ori doan (debalde) egingo dala erabagia artuz.

Eta urte orreik amaitutzean, geroago agertu leikien egoera aztertzeke geratuko litzake,

Ondarroan, 1.982'ko Azilla'ren 23'an.

Ondoren Berriatua'ko Batzar Eragilleak 1.982'ko Abendua'ren 3'an egindako batzarreko agiria irakurri zan:

ERRI BIEN ARTEKO MUGA ALDATZEAK

Erri guztiko ordezkariak bertan zizala, Berriatua'ko erritarren artean Parrokiko aretoan egindako batzarrean, toki berbertan 1.980'ko Maiatzaren 23'an egin zan lez, erri bien aldebanatzeari buruz egindako alegin eta artuemonen kontu emon zan. Eta Ondarroa'ko Udala osotuten daben alderdi politikoak, lurraldetako mugak aldatzeari buruz, 1.982'ko Azilla'ren 23'an izenpetutako eskaria irakurri ondoren, eskutako autarkira (bototara) atara zan, amazortzi urte-tik gorako batzartuen artean, eskari ori ontzat artu edo ez. Eta ondoren au lortu zan:

Eun eta larogei ta amazortzi	Bai
Ogei ta bat	Ez
Lau	Uzketak
Danetara emondako autarkiak	223

Eta Berriatua'ko Batzorde Eragilleak, ao batez erabagi au artu eban:

Lenengo.— Ondarroa'ko Udalak 1.980'ko Maiatzaren 30'ean ontzat artutako muga aldatzea, eta azken eskaritzat Ondarroa'ko Udala osotzen daben iru alderdi politikoan eskariak azken eskintza lez artzea, Berriatua'ko bizilagunik geienen eritziari jarraituz.

Berriatua'k Ondarroa'ri egiten dautsan lur-lagatea era onetakoa da:

a) Zaldupe;ko Ikastetxe ta kiroldegi lurraldea.

b) Markiñako plangintzan «Alliri» inguruan egiteko dan bide nausi barria izan daitela erri bien muga.

Ontzat artzen da Berriatua'ko lurralde barruan, bost urteen barruan, samarrak batzea doan egitea, eta urte orrein ondoren orduko gertaera berriro aztertzea.

Bigarren.— Erabagi onen kontua bereala Ondarroa'ko Udala'ri jakin erazitea, bere ezaupide eta ondorenetarako.


Eta erri bien muga izango diran zuinak alderdi biak ontzat artu ondoren, Udal Batzar Osoak, ao batez, erabagi oneik artu zitun:

Lenengo.— Muga aldatzeko zuinak ziurtatzea, bai eta bost urtetan samarrak doan batzeko eginbearra be, Ondarroa'ko Udala osotzen daben alderdi politikoak agindu legez eta Berriatua'ko Batzorde Eragilleak 1.982'ko Abendua'ren 3'an ontzat artuta lez.


Bigarren.— Ondarroa'n alde-banatzea onartu. Orrela Berriatua'ko eleizatea sortuko da, Urria'n 28'ko 40/81 legeko 3 atalean eskatzen dan quorum da-

lakoaz onartua izan dalako. Erabagi onen asieran agertu diran lur-mugak dirala errimuga lez. Ortarako Erri ta Lurralde Mugatzeen Araudiko 2-2 atalean bear-tzen diran agiriak agertu eta erabagi oneri lotuta geratzen dirala.

Irugarren.— Erri ta Lurralde Mugatzeen Araudiko 15 atalean agintzen dan lez, erri ezaupiderako ipintea aldebanatzeko agiri au, bere agiriekaz batean.



Kale ta kantalak.



Gorozika auzoa.

ONDARRUTARREN IBILLERAK

Ondarroa, euskaldunentzat ezik, erri ertsia, erri sarratua izan ba zan be, ez zan bera geldu egon gizaldietan zear. Begira bestela itxasoetako ibillera eta abarretara, bai arrantza munduan, bai eta merkataritza tratuetan, edo ta gerratean nai Ameriketarako osteretan.

Liburuak irakurtea baiño ez dago orduko giroa eta orduko egoera igarteko.

Ameriketako bilakatzeke denboretan or billatzen dogu Domingo Garro bat, Peru'ko Errege Ordearen kontulari izana.

Gerra eta naste askotan ibilli ziran bertako semeak, irabazpide erraz bat lortzearren batzutan, bizibidearen premiñaz bestetan, eta sarri errietara eskatzen zituen lagun eta deien eragiñez, borondatearen aurka, nai ta ezean.

Itxasoetako merkataritzan, komertzioan, eroan-ekarrietan eta baita sasoi aretan itxasertzeko erriak ainbeste oituten eben itxasoetako pirateri edo kortso bizitzan.

Bale eta bakallau arrantzan be ezagutzen dira, orduko toki ezezagunetan, itxas andien urrunetan. Erriko armarrarian or dago bale andi baten irudia.

Parrokiko liburu eta agiriak, jaiotzen goraberak 1.550 urtean euren asiera ba dauke be, bestelako liburuetan billatzen dira gure zarren egitadak eta illen liburuak usterik gitxienetan aurkitzen dira ondarrutarren ezaugarri eta fitxak.

Atzeragoko gizaldietako jakingarriak bestelako liburuetan billatu bear dira. Ondarroako iturrietan barik, zabalagoetan.

"...XV garren gizaldiko Mediterraneo'ko armadore eta tratulari ospetsuak Ugus'tar Jon, gipuzkoarra; Jon Irrisibar, Debatarra; Susonaga'ko Lope, Bilbao'ko Martin Perez, Jon Araya, bilbotarra, Juan Otxoa Lopez, tolosarra, Martin Otxoa, RODRIGO ROMO ondarrutarra, Jon Ferrand bermeotarra.... eta abar ziran". (*"...les grands armateurs ou negociants en Mediterranée au XV*

siecle, se nommaient Juan de Ugus, De Guipuzcoa; Juan R de Irrisabar de Deva; Lope de Susonega, Martin Perez de Bilbao, Juan Araya de Bilbao, Ochoa Lopez Juan, de Tolosa; Martin Ochoa, RODRIGO ROMO D'ONDARROA, Juan Ferrand de Bermeo....”(*L'Irrintzina ou le Destin des Basques*”. Leon Boussard)

Artu-emon orren barri geiago noiz nai billatu leitekez.

Garcia Cortazar'en "Vizcaya en el Siglo XV" liburuan, 266-267 orrialde-tan au esaten da: "Itxasontzirik geienentzat Genoba joan bearreko portu gerta-tzen zan....Martin Santxez bilbotarrak eraso bat euki eban 1.489 urteko Apiri-llean Saboia'ko dukearen aldekoen aldetik eta genobar txalopetan ebiltzan biz-kaitarren aldetik, Cerdeña'tik Napoles'eko erreñura igarotean. Eta ain zuzen be ementxe jaubetu zan Juan P. Likona ondarrutarra olio, ezti, gozaki eta nar-ruz betetako Jacobo Spatafora siziliarraren txalopa bat. " (*"Para la mayoría de las naves Génova era una escala más. Martin Sanchez de Bilbao fué asalta-do en Abril de 1.489 por gentes del ducado de Saboya y vizcainos que venían en naves genovesas -obsérvese esta insistencia documental en señalar la pre-sencia de los vizcainos en Génova, incluso formando parte de la actividad nor-mal de la ciudad-, al tratar de pasar de Cerdeña al reino de Nápoles. Aquí fué precisamente, donde Juan Perez de Licon, vecino de Ondarroa, se apoderó de dos naves del siciliano Jacobo Spatafora, cargadas de aceite, miel, azucar y cuero."*)

Jakingarri ori Simancas-ko Artxibotik artua da. (*R.G. del Sello, 1.489-X, flo. 110*)

Garcia de Cortazar berberaren liburutik atara geinke beste gertaera bat, on-darrutarren ibillerak jakiteko. Gertaera au be Simancas'ko artxiboetan irakurria da. *R.G. del Sello, 1.487-VIII, 345 orrian, Erdi Aroan Malaga'ko gerrari bu-ruz itz egitean.*

"Entre los capitanes participantes en aquella armada, consta la presencia de Pedro de Urresti, vecino de Ondarroa, a quien, falsamente, acusaron de es-tar en convivencia con los moros y contra quien, por dicha causa, se subleva-ron sus marinos, apresándolo y vendiendo su nave. Por fin, en Sevilla, a 18 de Marzo de 1.491, el Consejo dió ejecutora en el pleito surgido por reclamación de Urresti, absolviéndolo a éste por completo". (178 orrialdean.)

Garai aretan Bizkai'ko itxasontziak, eta euren artean ondarrutarrak, edo-zein aldetako itxasoetan ezagutzen ziran.

Batzutan erbesteko ontzietan, emengo gizonak ziran. Bestetan, emengo on-tziak egiten eben erbestera erabilketa guztia.

"Marsella'ra joaten ziran bizkaitar txalopak bardin egiten eben garraioa euren errikideen kontura, nai marsellatarren kontura, Mediterraneo'ko portu batetik bestera ibiliz, billatzen eben zamaren araberan, bide ziur bateri lotu barik". (Vizcaya en el Siglo XV. 256 orrialdean.)

XV garren gizaldia, bizkaitarrentzat, itxasoetako merkataritzan, joan etorri andiko gizaldia izan zala esaten dabe askok, eta ori garbi ikusten da aldi aretako edozein liburu, agiri, jakingarri nai ondorenetan.

Bizkaitarrak itxas legeak apurtzen ebiltzaneko jazoerak gogoratuaz, Modesto Sarasola'k "Vizcaya y los Reyes Católicos" liburuan au gogoratzen dau: *"Igual ocurrió con una nave de Escocia, con cuyo soberano se hallaban también nuestros reyes en excelentes relaciones, saqueada en aguas de Inglaterra por marinos vizcaínos y guipuzcoanos, la mayor parte de ellos, vecinos de Lequeitio y de Ondarroa, y con otra bretona de Saint Paul, apresada en la costa de Portugal por la Armada que mandaba Pedro de Bilbao, vecino de Portugalete"*.

Eta gertaera ori biribilduaz diño: *"El dueño de la escocesa no se resignó a la pérdida de la mercancía y siguió a los aprehensores hasta la misma villa de Ondarroa, a donde la habían trasladado. Aquí gestionó, aunque inutilmente su devolución. Entre el cargamento que podría valer 4.425 coronas, figuraba un candelero grande de cobre que los de Ondarroa donaron a su Iglesia. Según el escocés los vascongados, que tripulaban una carabela que andaba de armada, se les acercaron tirándoles con muchos tiros de pólvora e otras cosas"*.

Gertarea au 1.477'ko Bagillean gertatu zan, baiña oraindik erabagi barik egoan 1.480'ko Maiatzaren 12'an, eta egun orretakoa da Errege Kontseilluaren idazkia, tresna guztiak biurtzeko aginduaz edo ta euren balio osoa euren jaubeari, lapurreta egin ebenak Kontseillu berberaren aurrean euren egitada zuritu ezik.

Agiri orretan txalopan ebiltzan euskaldun guztien zerrenda irakurten da eta eurei zuzendua da. Oneik, besteen artean, Ondarroako seme ziran Martin Ruiz Aranzibia eta Itola'ko Peru ziran...."

Garai aretako gertaera da urrengoa be. Ainbatetako bat. Itxasoetako jokabi-deen ondoren bat. Egille berberaren liburuan irakurten da:

"...(izen batzuk eta euren artean Diego Lopez Aresmendi, Ondarroako bizilaguna deia....Coruña'ko merkatarí dan Alonso Perez'ek salatu dauzelako esanez, Galizia'ko Muros portuan eurak eta eurekaz ebiltzan lau txalopetako gizonak, txalopa bat kendu eutsela erabillan tresneri guztiagaz. Ainbat bidar salatu eban koruñarrak lapurreta ori, baiña erantzun barik, eta origaitik jo eban Isabel Erregiñarengana, eta onek 1.478 urteko Otsaillaren 25'ean agindu eban txalopa eta gauza guztiak biurtzeko."

Orrelaxe, tartetan, nun nai billatu leitekez, garai aretako liburuak irakurtean, orduko ondarrutarren urratsak.

Iñoren liburueta jo barik, Ondarroan bertan daukaguzan liburueta, batez be illen liburueta, urterik urte edozenbat agiri daukaguz, geroagokoak, jakiña, gure erritarren ibillerak agertzen dauskuezanak.

Ez gara ibiliko asko sakonduten. Azalean dagoz ezaugarriak. Eta garbi

ikusten dana au da: Ondarrun jaio, itxasoetan ibili, erbestean il eta azken oroi-
mena, azken otoitza, biztuera barriaren eskintzarako biozkadak eta sentimenak,
Ondarroan artzen zituela.

Aldi aretako ibilleren eta gertakizunen bidea jarraitu daikegu urtez urte ira-
kurtzen dogunetik bereztuten:

1.620.- “Azillaren 11’an Domingo Garro’ren il kanpaia jo zan, Calatra-
ba’ko Jantzidun Zalduna zan, jaiotzez ondarrutarra, eta Peru erreñuko Lima
urian il zan.”

Domingo Garro au ondarrutar jator agertu zan erbestean.

Fausto Arocena’ren “Diccionario Biográfico Vasco” liburuan fitxa au ira-
kurten da: “Domingo de Garro. (s XVI_ (Motrico). Fue contador Mayor en la
Ciudad de Lima y Caballero de Calatrava. Isasti dice que fue natural de Motri-
co y vecino de Ondarroa. A través de esa distinción expresiva, se ve claro que
Isasti da en términos generales a la expresión natural la significación de naci-
do, aunque eso no ocurre siempre.”

Ala ta be, Garro’ren Ondarroako jatorria, jaiotzak beranduago asten dirala-
ko, jaiotzetako liburutatik egiztatu ezin ba geinke be, bai Ildakoen liburuan,
bai beste batzuetan, garbi esaten da ondarrutarra zala.

Orrela, aldi aretako maiordomuen liburu batetik be irakurten da: “Memoria
de las Rentas que goza y tiene el Cabildo de la Iglesia de la villa de Hondarroa,
así en Censos capitales como en sus réditos”. Eta Memoria ori onelaxe asten da
1.623 urteari buruz:

*“Lenengo ta bein Ondarroako Parrokiko Abade taldeak urteko eun eta
ogeï ta bost dukaten errenta dauke, ezelako gastu barik Ondarroan ipinita. Di-
rutza ori, Erregearen aginduz Olivarez’ko Kondearen ondasunetatik ordaintze-
koa da, orrela agindu ebalako erri onetako semea dan Domingo Garro, Cala-
traba Jantzidun Zaldunak, bere arimaren alde egunero meza bat eskeiñi dagien
Parroki orretan dagon berberak ereikitako kapilla eta Ander deunaren alda-
ran.”*

Goiago esandako Arozena’ren fitxa Lope Isasi’ren “Compendio Histo-
rial”en agertzen ba da be, uste dogu oraindik il-barri zala idatzitako agiriak
geiago balio dauala, bere garaiko gizonak ainbeste jakingo ebelako gizon orren
sorterriari buruz.

Domingo Garro orrek Ondarruko erriarentzat mesede asko laga zitun eriotz
ondorenerako. Konbentu bat jasoteko bear zan dirua, bere ondorengorik ager-
tzen ez ba zan. Konbentu orretarako lenengo aukeratua Jesus’en Lagundia zan,
Lagundi ori orretarako gertu agertzen ba zan. Berak nai ezik Augustindarrak
edo Frantziskotarrak.

Jesuitak, nai ta Iñazio deunaren ama erri onetako jatorrikoa izan, ez eben
ontzat artu eskubide ori. Augustindarrak bai, baiña errian euki zituen arerioak,
bai eleiz-gizonetan eta bai erriko agintarietan, oneik konbentuaren aurka jarri

ziralako, eta origaitik kapital ori Durango'ko konbentura eroan eben, andik Ondarroa zaindu eta laguntzekotan.

Orduko agiri baten au irakurten da: “ *Habiendo fallecido sin sucesión los nominados Domingo y Francisco De Arechaga y renunciando sus derechos la Religión de la Compañía de Jesus, aceptó la de San Agustin, quien por consiguiente solicitó la Fundación de un Convento en dicha villa de Ondarroa, cuyos Cavildos Ecclesiástico y Secular se opusieron a ello, y en el Pleyto que se siguió ante Francisco Bernardo de Ontiveros, Obispo de Calahorra, declaró que por no haber quedado más hazienda del referio Domingo de Garro que ochocientos y cinquenta ducados de juros y censos, no se podía mantener la Fundación del Convento con número de doce Religiosos, como se disponía por Brebes Apostòlicos, a que se añadía seguirse gran perjuicio al Cavildo y Beneficiados y en atención a todo denegó la licencia que se le pidió para dicha Fundación y usando de su jurisdicción Ordinaria la conmutó en que aplicado, como aplicó al Convento de dicha Orden de San Agustin que estaba fundado en la villa de Durango, cinco leguas distante de la de Ondarroa, toda la Hazienda del referido Vínculo y Mayorazgo la gozases en diferentes Cargos y entre ellos el de pagar cada año para su aumento en las expresadas Ovras Pías, que fundó en Ondarroa el nominado Domingo de Garro doscientos ducados y veinte mil mrs que mandó, para que dicha Villa pagara las Lanzas Mareantes; lo que por escritura que el Prior y Religiosos de dicho Convento de san Agustín de Durango otorgaron en la Sachristía de él, con licencia de su Provincial, el dia 22 de mayp de 1.622....”*

Urte bete geroago, 1.663-VIII-2, III Karlos'ek baieztu eban akordio ori.

Baiña ondarrutarrak, bear ba da uste ebenik lortu ez ebelako, edo Durango'ko prailleak bear lez erantzuten ez ebelako, edo diruaren zirikaldiren baten....asarretu ziran, eta dirutza ori errira ekarri nairik asi.

Ez zan erraz baretzeko asarrea izan. Eun ta berrogei (140) urte iraun eban eztabaidak.

Irakurten jarraitu daigun, amaiara ikusteko:

“ *Y otrosí Ví una Escritura otorgada en la Sacristía de la Iglesia Parroquial de la referida villa de Ondarroa, el día dos de Mayo del año próximo pasado de 1.759, ante Miguel de Ibarluzea mi escribano, por el dicho Prior y Religiosos del citado convento de san Agustín, de los explicados Cavildos Ecclesiásticos y Secular de dicha villa, como Patronos de las mencionadas Capellanía, Memorias y Obras Pías fundadas por el dicho Domingo de Garro, que la aprobó el arzobispo de Laudicea, Nuncio de S.Santidad en estos sus Reynos, por la que transigieron y ajustaron el Pleyto que seguían dichas Partes sobre la paga y satisfacción de mrs. cesión de Viennes, consignación de Alimentos y otras cosas correspondientes a las referidas Memorias y Obras Pías y cedió el Convento a los Cavildos diferentes Vienes de los comprendidos en dicho Vin-*

culo y Mayorazgo y entre ellos los explicados trescientos treinta y siete mil y quinientos mrs., con el gozo desde primero de mayo de mil setecientos cinquenta y ocho en adelante para que dichos Patronos administren y perciban por sí las cantidades con que el Convento estaba obligado a contribuir a las Memorias conforme a la cuenta del Fundador y de la adjudicación que antes queda citada”.

Orrelaxe amaitu zan, ordurako diruak euren balioa galduta, eztabaida luze au.

Garro´ren beste mesede asko gelditu ziran. Ospitalarentzat laga eban lurralde bat. Ikastaroak egiteko laguntza premiñan aurkitzen ziranentzako bekak sortu zitun. Bai eta neskatilla bakartientzako laguntzak.

Jakingarri dalako aitatu eta ekarri dogu Garro zanaren il ondorengo gorabera au.

Goazen barriro Ildakoen liburuei begira, ondarrutarren ibillera geiago jakiten.

Barriro ibillerak zeaztuten

Jakiña danez Liburuak, Parrokiko Liburuak erderaz idatziak dagoz, baiña guk, berezitasunen bat edo beste kenduta, euskeratuta agertuko doguz euretako adierazgarriak.

1.622 urtea.– Urtarrillaren ogei ta zortzian jo zan Ramos Arrizurieta, Domingo Goikoetxea era Domingo Erlaegi´ren il kanpaia. Lisboan il ziran, Errege Armadan, igarotako Iraillean.

1.622.– Urrilla´ren bederatzian il zan Pasaian, azken nairik agertu barik, Ubilla´ko Iñazio. F. Mugartegi kapitanaren galeoian ebillan (bertako “kontra-maisu” zan) eta zirrituetatik (eskotilletatik) bera jausi zan”.

1.623.– “Martiairen ogeitamarrean Jon Sarassua´ren il kanpaia jo zan, emengo biztanlea. Argel urian il zan igaz, 1.622 urtean, an urte bitan baituta egoala, Donostiko txalupa baten Sevilla´ra eioala baitu ebelako. Izurritez il zan, Argel urian ikaragarria egon zalako.”

1.624.– “Urrilla´ren lauian Juan L. Burgoa´ren illeta egin zan. Errege Armadako Bizkaiko taldean ebillan. Urte askotan bertako artilleru izan zan.”

“Azilla-ren amaikan Domingo Azaola´ren illeta egin zan. Nikola Azaola´ren semea zan. Errege armadan ebillan eta Arraya´ra joan zan Tomas Larrazpuru almiranteagaz.”

“Trailla´ren amaikan Ramos Asterrika´ren illeta egin zan. Itxasoan il zan Terranoba´tik etorralla, esan ebenez ogeitamar egun gaixo egon ondoren. Dagonilla (Abustu)ko ogeigarren egunean il zan.”

1.625.– “1.625 urteko Urrilla´ren 24´an, Galizia´ko Erreinutik etorralla, Domingo Asterrika´k bere txalopan beragaz ekarri eban bere morroi zan Domingo Sanchez, Coruña´koa, P. Urriola eta Juan Urriola bere illobeagaz batean

eta igarotako 1.623 urtean galeoitán etozala, galeoitik itxasora salto eta iges egin eban, baiña beste galeoi batekoak artu eban.

Lau gizonok Galiziatik etozala, Urrilla'ren 23'an ekaitz gogorra sortu zan eta amabiak inguruan agertu ziran portu onen aurrekaldean, baiña ezin sartu izan barratik. Erritarrak ezagutu eban eta konturatu ziran Mutrikun sartu naian asi ziralá, eta an, erri guztia begira egonarren, itxas-andiagaitik ezin izan eban laguntzarik emon. Ori ikusita barrura sartzén ausartu ziran, eta olatu gogor batek leman etorrana uretara jaurti eban eta txalopea eta barruan etozanak galdu ziran. Illaren 25'eán aurkitu zan P. Urriola'ren gorpua eta 26'an lurra emon jakon parrokián. Azilla'ren 5'eán aurkitu zan J. Urriola'ren gorpua, eta Mutrikun bertan lur emon eutsen, ez egoalako Ondarroara ekarteko eran."

1.625.- "Urtarrilla'ren zazpian Juan de Txurruka'ren illeta ospatu zan. Igaz il zan Potosi'n, an egon zan erasoaldi baten eta beste asko be bertan il zituén."

1.629.- "Otsaillaren 27'an egin zan Rodrigo Aranzibia pilotoaren illeta. Sevilla'tik etorrála il zan, moroak aitzetara jo eragin eutsen patatxe baten eta mutil au gabietatik uretara jausi zan."

1.635.- "Kataegi'ko Juan. Indietan il zan."

"Urrunaga'ko Juan. Indietatik etorrála Habana'n il zan."

1.637.- "F. Urkiaga. Flandes'etako ontzibidean (kanalean) itto zan Errege egunean. Okendo'ren Armadan ebillan."

1.637.- "Dagonilla'ren iruan. Sebastian Urriola Frantziatik ekarri eban il da, bala batek buruan jota."

1.637.- "Azilla'ren 4'an... Tomas Alzola il zan. 20 urte eukazan. Frantzian gaixotuta etorrála il zan."

1.640.- "Asterrika'ko Asentsio, Peru'n il zan, Erregeen urian."

1.640.- "Marti'ko 25'eán illeta egin zan, Manuel Alzola, Nikolas Alzola, Joan Etxebarria eta Pedro Agilar'ena. Antonio Okendo'gaz Armadan joanak ziran eta Flandes'ko itxas-bidean il ziran.

1.640.- "Uztailla'ren 30'n Domingo Agirre eta Meltxor Lazurika'ren il kanpaia jo zan. Antonio Okendo'ren Armadan il ziran igazko urtean."

1.636.- "Urrilla'ren 15'eán Joan Erlaegi'ren illeta. Indietan il zan."

1.637.- "Urtarrilla'ren 19'an... Fermin Urkiaga'ren illeta. Flandes'etako itxas-bidean itto zan Errege egunean."

1.637.- "Marti'ko 30'eán Rodrigo Apallua'ren illeta. Rossas'en il zan, Antonio Okendo jaunaren Armadan."

1.646.- "Bagilla'ren 30'eán, Juan Otxoa Algorta, Indietako Santo Domingon il zan."

1.646.- "Bernardo Jausolo'ren illeta. Cadiz'en il zan.

1.646.- "Juan Armenza'ren illeta. Levante'n il zan eta Magon'go gazteluan obiratu eban."

- 1.646.—“Jakobo Alzola, mutil beartsua (pobrea). Errege Armadan il zan eta Etna ugartean lur emon eutsen”.
- 1.648.—Fernendo Goitia, mutiko beartsua. Errege Armadan il zan.
- 1.648.—Franzisko Aretxabaleta eta Isidro Alzola, mutiko beartsuak. Cadiz'ko ospitalean il ziran.”
- 1.649.—“Sebastian Agirre,mutil beartsua. Errege Armadan. Napoles'en il zan.”
- 1.649.—“Maiatzaren irugarren egunean jakin zan M. Aranzibia, mutil beartsua itto zala, Galizia'tik etorrala, Pinzon'go aitzetan.”
- “Eta egun berean jakin zan Mesina'ko urian Dionisio Orbea, mutil beartsua il ebela.”
- “Eta Iraillaren 26'an jakin zan Franzisko Aranzibia, ezkontzeko egoan gaztea, ezbearrez il zala Mesina'ko urian, Armadako galeoi baten egon zan gertaera baten.”
- 1.654.—Gabonillaren 5'ean jakin zan, Sevilla'tik esanda, Iñazio Jauregia il zala, Angola'tik etorrala, itxasoan emon eutsen bala baten ondorenez.”
- 1.660.—“Urte onetako Apirillaren amaikan il kanpaiak jo ziran Pedro Arriola itxaso eta gerrako kapitanagaitik, eta Bitorio Ubilla kapitana, Pedro'ren anaiagaitik, eta Jose Gorozika eta Domingo Gorozika, bata alfereza eta bestea itxas zaindaria, eta Tomas Urrunaga, Pedro Burgoa, Juan Aranzibiz eta Patxi Urkiaga artilleroekaitik. Esaten danez Bermudas ugartean inguruan itto ziran, galeoiak zaintzen etozala, 1.659 urtean, eta oraiñarte ez da liburuetan euren izenik idatzi, gauzak ziur jakin arte.”
- 1.661.—“.....Maiatzaren 15'ean jakin zan, izurritez il zirala Nueva España'ko Veracruz'en Bartolome Mandrike eta Domingo Aretxaga, parroki onetako eleiztarrak, Bartolome'k ogei ta bat urte eukazan eta Txomin'ek ogei ta amabost.”
- 1.663.—“Martiairen ogei ta lauan jakin zan Yucatan'go Merida urian Domingo Gorozika il zala. Lurralde aretan zaldien kapitana zan eta Madalena Agirre, gazteztarraren senarra zan.”
- 1.663.—...“Azillaren 25'ean jakin zan Nikolas Urkiaga il zala, Migel Okendo'ren eskuadrako mariñela. Gitxi gora bera 25 urte eukazan.”
- 1.665.—“....Uztaila'ren 28'an itxasoan itto ziran Juan Bta. Ansotegi, Gaspar Barrenetxea, Simon Etxebarria, Lorenzo Urriola...”
- Orrelaxe gizaldi guztian, urteak urte, batzutan geiago, bestetan gitxiago, baiña beti urduri egoteko eran
- Orduko egoera, nai ta ez, larria izan bear. Eta gizonen bizikera garratza.
- Ba dira bestelako barriak be. Itxasotik kanpoko barriak. Baiña ez asko.
- 1.628.—“Martiairen ogei ta bederatzian Lukaz Basterrolaza batxillerra il zan Valladolid'en. Antonio Basterrolaza eta bere emazte Franziska Vidarte'ren semea zan. Teologia ikasten ebillan eta balio andiko eta itxaropen asko sortu eban mutilla zan.”

Ez dira oneik aldi bateko edo gizaldi bateko ezaugarriak. Norbaitek itaundu lei:Eta itxas lapurrak. Kortsoan ebiltzanak?

Gizaldi onetako azken ingurutako agiri batek, orduko kortsarioen gertaera bat adierazten dau:

“Habiendo salido del puerto de la ciudad de San Sebastian a principios de Octubre de mil seisciento noventa y uno, en una fragata a corsear Lucas de Iturriaga, Francisco de la Vega, Manu Iriarte, Antonio de Egiguren, Martin de Manrique y Joseph de Sasturri Icajeta, en mucho tiempo no se pudo tener noticias de ellos, ni de la fragata en que navegaban y aunque en él se ha tenido alguna esperanza de que vivían apartados por alguna tempestad a alguna parte o prisiones, al cabo comenzaron los suyos a tratar de su funeral y entierro, cada uno conforme se persuadiò se habian aogado. Y asi....

Urte onetako Martiaren amarrean il kanpaiak jo ziran esandako Lukaz Iturriaga Ikaza'ren alde. Domingo Iturriaga eta Maria Aranzamendi'ren seme jatorra zan. Biak berriatuarrak ziran, Ikatza'ko baserri eta inguruaren jaubeak eta parroki onetako eleiztarrak. Ogei ta sei urte inguruko mutilla zan, gitxi gorabera, eta etxeko familiko seme lez, beartsua. Martiaren amaikan asi zan illeta eleizkizuna eta bertara bere gurasoak etorri ziran.”

Jakingarri guzti oneik Parrokiko Illen Liburuetatik atara dira, eta urteen arabera jarraitu leikez euren zeaztasun geieago.

XVIIIgarren gizaldia bardintsu agertzen da.

Orañiarte aitatuak Parrokiko illen IV garren liburutik atara dira.

Baiña begira azaletik “Sendotza artu eta Illen V liburua”. 1.670 urtetik 1.769 urteak bitartekoa. Eun urte.

Denboraldi orretan, eun urtetan, danetara 1.272 illen agiriak dagoz. Ikusten danez aldi aretan, bataz beste, ia amairu lagun ilten ziran urteko gure errian.

Begira etxetik kanpo ildako batzuk. Irakurri utsak erakusten dau nundik eta zelan ebiltzan ondarrutarrak.

1.675 urtea. Aulikiz'ko Ramos. Madrid'en il. 23 urtedun.

1.676.– Urkiaga, Pedro. Indietan, 22 urtedun.

1.676.– Sustatxa, Juan. Andaluzian, 42 urtedun.

1.679.– Agirre, Domingo.– Nueva España'ko Veracruz'en, 17 urtedun.

1.682.– Elexpurua, Domingo.– 22 urtedun, Sevillan.

1.684.– Leaegi, Juan. Levente'ko Cartagena'n.

1.684.– Armenza, Asentzio.– Kartzelan, Frantzian.

Eta beragaz batean, Frantziako kartzelan:

Anakabe, Martin;

Sasturri, Nikolas;

Koreskourrunaga, Ambrosio;

Zelaia, Joseph. Azken au 16 urteduna.

1.691.– Basterretxea, Mathias. Indietako Cartagena'n.

- 1.693.– Egiguren, Julio. Napoles'ko Aramadan. 20 urte.
- 1.693.– Unda, Lukas. Au Antonio Gonzalez kapitanaren itxasontzian ebi-llan, Ameriketan. Eta España'ra etozala, Irugarren Islak baiño onuntzago, fran-tzetar fragata bat ikustatu eben. Burrukan asi eta andik urtendako bala batek il eban Lukas.
- 1.694.– Larruskain, Pedro.– Cadiz'ko ospitalean. 36 urte.
- 1.696.– Iramategi, Inozentzio.– Caracas'erako osteran. 35 urte.
- 1.696.– Pertika, Franzisko.– Veracruz'erako osteran. 22 urte.
- 1.697.– Etxebarria, Aparizio.– Cadiz'eko ospitalean. 34 urte.
- 1.699.– Sasturri, Franzisko.– Andaluziako txalopa baten, naparreriaz. 16 urte.
- Urkiaga, Nikolas.– 20 urtedun. Burgos'ko ospitalean, Andaluziatik eto-rrela.
- 1.700.– Andonaegi, Lope.– Cordoba'ko erreñuko Agilar'en. 54 urte
- 1.702.– Asterrika, Franzisko.– Terranobarako ibilleran. 40 urte.
- 1.704.– Unda, Domingo. 38 urte.
- 1.704.– Renteria, Joseph. Bi oneik Portugal'dik galeoitán etozala, ingele-sak arrapatuta, Plasenzia'ko urian il ziran.
- 1.704.– Andonaegi, Mathias.– 24 urte. Olanda'n.
- 1.706.– Burgoa, Manuel.– Buenos Aires'en.
- 1.706.– Bernabeitia, Domingo.– Castilla'n, 24 urtedun.
- 1.707.– Ayerdia, Andres.– Londres'en. 50 urte.
- 1.709.– Churruka, Martin. 40 urte
- 1.709.– Iramategi, Pedro. 20 urte.
- 1.709.– Zelai, Domingo. 23 urte. Irurak Inglaterrako kanalean ittota.
- 1.713.– Aulikiz, In^o. "Itxasoan il zan bakallautatik etorralla, eta osterá bar-diñean etorran bere aitak Getxo'n emon eutsan lurra."
- 1.714.– Iramategi, Pedro.– Canada'ko Quebec'en.
- 1.715.– Egiguren, Joachin.– 20 urte. 1.710 urtean Buenos Aires'etarako barkuetan erroldu zan, olandarrak baitu eben, eta askatu eta Lisboa'tik etorralla, Madrid'en il zan, Errege ospitalean.
- 1.715.– Zelaya, Simon.– 24 urte. Barcelona'ko ospitalean.
- 1.716.– Aulikiz, Domingo.– 30 urte. Buenos Aires'tik etorralla, txalupako triketaren aga apurtu eta bera il eta beste batzuk zaurituta geratu ziran.
- Etxebarria, Antonio. 30 urte. Buenos Aires'en
- Iramategi, Pedro.– 32 urte. " " "
- Amallobieta, Pedro.– 30 urte. " " "
- Galdona, Lorenzo.– 34 urte. Onduras'etako itxasertzean txalopak tirabira egin eta bera baltsa batean ibili zan ur gaiñean egun batzuetan, eta lurrera eka-rrela, il zan.
- Arsuaga, Asentzio.– 20 urte.– Palermo'ko ospitalean.

- * Urte onetan bertan il ziran, baita, Basterretxea, Martin, 56 urteduna; Agirre Juan Bta, 48 urteduna eta Madarieta In^o, 50 urteduna.
- 1.720.– Burgoa, Domingo.– 40 urte. Cerdeña'ko Oristan urian.
- 1.721.– Iramategi Juan Bta.– 40 urte. Buenos Aires'etik etorrara. Aldaolea, Antonio.– 38 urte. Buenos Aires'en
- 1.724.– Madarieta, Franzisko 30 urteduna. Asterrika, Agustin.– 23 urteduna. Biok Cetradabike'n, baleetan ebiltzala.
- 1.725.– Basterretxea, Manuel.– Cadiz'ko San Fernando'n. 22 urte.
- 1.726.– Leaegi, Joseph.– 43 urtedun. Armadan. Odria, Domingo.– 27 urtedun. Armadan.
- 1.727.– Urizar, Andres.– 26 urte. Santander'eko barran. Larruskain, Thomas.– 38 urte.– Terranoba'n.
- 1.728.– Sasturri, Pedro.– 24 urte. Bakallautatik etorrara, gaisorik il zan Santander'en. Arrasate, Franzisko.– Onduras'en. Dostuate, Domingo.– Onduras'en.
- 1.729.– Etxaburu Pablo.– 34 urte. Txina'tik etorrara, Acapulco'n.
- 1.730.– Erkiaga, Franzisko. 25 urte.– Caracas inguruan. Galdona, Juan.– Baleetako osteran itto zan. Urkiaga, Gregorio.– 43 urte. Cadiz'eko ospitalean.
- 1.731.– Brevilla, Migel.– 20 urte. Indietako Cartagenarako urten eben ga-leoitau. Arteaga, Joseph. 20 urte. Toki berean. Sasturri, Domingo.– 23 urte. Toki berean.
- 1.732.– Sasturri, Joseph. 20 urte. Coruña'ko ospitalean. Joaristi, Juan Ig. 20 urte. Ferrol'eko Portovelo'n. Ubee, Jeronimo. Ferrol'en.
- 1.733.– Odria, Franzisko. 18 urte.– La Coruña'n.
- 1.735.– Urzaa Joseph. 40 urte.– Baleetan ebiltzala.
- 1.736.– Lekube, Pedro . 20 urte. La Coruña'ko ospitalean' Lekube, Joseph. Caracas inguruan, San Ignacio itxasontzian. Aranzamendi, Pedro.– 24 urte. Cadiz'en.
- 1.738.– Arrue, Matias.– 45 urte.– Caracas'eko itxas ertzean.
- 1.739.– Egiazabal, Andres.– 21 urte. Cadiz'ko ospitalean. Egurrola, Juan. 29 urte.– Indietan.
- 1.741.– Etxebarria, Juan. 30 urte. Indietako Cartagena'n Txopite, Martin. 39 urte.– Ferrol'en. Aresti, Bernardo.– 40 urte.– Caracas'eko itxas ertzean. Eskutasolo, Franzisko.– 23 urte. Inghaterran.
- 1.742.– Garizurieta, Migel.– 38 urte.– Indietako Cartagena'n.

- Makibar, Pedro.- 40 urte.- Indietako Jamaica'n
 Ibarra Franzisko. 50 urte. Inglaterran.
 Goikoetxea, Domingo.- 18 urte. Inglaterran.
 Albizu, Domingo.- 21 urte.- ”
 Aresti, Franzisko.- 19 urte.- ”
 Lekube, Iñazio.- 28 urte.- ”
- 1.743.- Urriola, Domingo.- 33 urte. Caracas'eko Puerto Cabello'n.
 Alberdi, Mathias.- 24 urte. ” ” ”
 Odria, Rafael. 21 urte.- Inglaterran.
 Olabarria Franzisko. 18 urte. ”
 Escutasolo Joseph. 28 urte.- Indietan.
- 1.744.- Laka, Franzisko. 34 urte.- Nueva España'n
 Iramategi Juan F. 32 urte.- ” ”
 Urriola, Pablo. 19 urte.- ” ”
- 1.745.- Aremayo Antonio.- 35 urte.- Porto Veracruz'en
 Aramaio, Alonso.- 19 urte.- Caracas Konpañiaren ibilleretan.
- 1.746.- Garramiola, Juan.- 28 urte.- Portugal-eko ospital baten.
 Sasturri Joseph. 30 urte.- Lima'n
 Dostuate, Juan.- 24 urte. Galizia'ko Grama'ko ospitalean.
- 1.748.- Ibarra, Iñazio.- 54 urte. Habana'n. Diego Torres'en eskudrako
 itxasontzi baten.
 Aresti, Pedro.- 41 urte.
 Agirre, Antonio. 19 urte
 Aranzamendi, Cristobal. 21 urte. Azken iru oneik Ingalterra'ko
 Hemu'ko kartzelan
 Azkue, Bernardo. 32 urte. “Compañia Guipuzcoana de Caracas'en”
 Makibar, Iñazio. 46 urte.- Portugal'dik itxas lapurretan urtendako
 txalopa baten itto zan.
- 1.750.- Mendibeltzua, Baltasar.- 48 urte. Buenos Aires'en.
 1.752.- Ansotegi, Antonio. 29 urte. Indietako Cartagena'n.
 Ansotegi, Juan R.. 36 urte. Lima'ko Erreñuan.
 1.755.- Axarrieta, Simon. 20 urte Cumana'ko portuan
 Gelaloro, Franzisko.- 53 urte. Peru'ko Los Reyes urian.
 1.756.- Ibarra, Markos.- 22 urte. “Bere eriotzaren barri igazko Azilla'ren
 25'ean jakin zan, bakallau arrantzan ebillala ingelesak baitu eta ara baituta
 (preso) eroiela il zan.”
 Sasturri, Juan Bta. 36 urte.- Ibarra'ren gertaera berbera.
 Escutasolo, Domingo. 58 urte. Indietako Itxasoan ittota.
 Etxebarria, Martin. 49 urte. Cumana'n
- 1.758.- Ibarra, Agustin.- 26 urte. Los Angeles errian.
 Ibarrola, Antonio. 31 urte.- Peru'tik itxasoan ebillala.

- 1.759.- Makibar, Franzisko.- 29 urte.- Tamesis ibaian. Inglaterran.
 1.762.- Zelaia, Iñazio.- Errege Armadan.
 Lizasola, Bernardo. ” ”
 Amillategi, Antonio. 27 urte.- La Habana'ko ospitalean.
 1.763.- Makibar, Martin.- 32 urte.- La Habana'n.
 1.764.- Azkue, Juan. 20 urte.- Inglaterran, preso egoala.
 Mendizabal, Pedro. 20 urte. ” ” ”
 1.768.- Lizaola, Joseph. Ameriketan.
 Etxaburu, Franzisko Xabier.- 36 urte. Lima'n.
 Makibar, Pedro. 29 urte. Itxasoan, El Callao'n.

Eta orrela illen urrengo liburuari ikutu barik. Garbi ikusten da XVII-XVIII gizaldietako giroa ez zala giro atsegina izan gure errian, ez eta erriak bizitasun barria artzeko lakoa. Erbesteko Ibillerak, gerraetakoak, urruneko arrantza arriskutsuko eta abar, emen bertan, itxas-ondoan arrantzan ebiltzala ittotakoen ondamendiak eta abar, erri baten bizibide arriskutsu eta negargarria salatzen datoz. Eta izurriteak, epidemiak.....

Liburuak arrada eragiten dabe askotan.

1.723 urtean amabost ume il ziran naparreriz. Urtean jaioak eta geiago.

1.741 urtean, orri baten, au irakurten da: “En 20 de Agosto de 1.741 llegó la noticia de haber naufragado en un navío de Ballenas, por el mês de Abril....”
 Eta or datoz izenak:

Francisco Irure, 36 urte, ezkondua.

Antonio Makibar, 40 urte, ezkondua.

Tomas Urresti, 23 urte, ezkondua.

Domingo Atxurra, 22 urte, ezkondua.

Manuel Vega, 17 urte.....

Begira baita 1.742 urtera. Aukera barik, jarraian artzen dogu.

Urte orretan zazpi eriotzen barri eldu zan erbestetik, itxaso, ospitale ta kar-tzeletatik. Eta beste amazpi errian. Begira gaixoak, eta ikusi edo oartu il ba-tzuen adiña:

Luziano Etxano, 60 urte baiño geiago. Ala agiriak. “Perlesia”.

Esperanza Fernandez, 25 urte, “pobrea”, ospitalean.

Maria Lizundia, 75 urte, alarguna.

Iñazia Anakabe, “80 urte beteak”.

Madalena Laka, “37 urte beteak”

Lorenza Joaristi, 38 urte.


Franzisko Aranzabal. 74 urte. Bat bateko ezbearrez, etxean.

Maria Burgoa. 35 urte.

Pablo Urkiri.- Bikarioa.

Bautista Garaizabal, 55 urte.

Domingo Ansotegi, 10 urte.
Agustin Etxaburu, 77 urte.
Maria Ines Egia, 64 urte.
Manuel Maguregi, 40 urte.
Pedro Eizagirre, 75 urte. Perlesia.



Likona torrea.

ETXE, JAUREGI ETA TORRE BATZUK

Ez da ezagutzen Ondarroa'n armarridun etxe askorik.

Gaur batzuk galduta egonarren, jatorriz ondarrutar lez liburuetan agertzen diran etxe eta abizenak, edo ta torre eta oiñetxe zar batzuk oneik dira.

Euretariko batzuk armarrria euki eben. Besteenik ez da ezagutzen bear ba da euki ez ebelako.

ABOITIZ.– Ondarroa'n euki ebela jatorrizko etxea irakurten da. Eta ikurditzat lema au euki ebela: Ad vitam aut culpam.

(Auñamendi. Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco)

AGAR.– Ondarroa'n euki ebela jatorrizko etxea. Eta euren ikurdiko esaera: Hon haec sine nomine.

(Auñamendi. Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco)

Jaime Kerexeta'k: Procede del Condado de Venaissim (Francia)

Lopez Mendizabal: Akar'en aldakuntza izan leike izen au.

(Etimologías de Apellidos Vascos)

AGIRREKOA.– Lenago ATEGUREN izenez ezagutua, erri deituraz AGIRREKOA. 1.545 urtean ba egoan etxe au.

ANTIGUA.– Antxiña ormaz inguratu eta gogortua zan.

(“Antiguamente se hallaba fortificada, así como santa Catalina de Lequeitio y san Juan de Gaztelugache en Bermeo.

(“Torres de Vizcaya III-140, Ibarra y Garmendia)

ANTXIKOA.–Errenderi auzoan dago etxe au.

Ba dirudi ez zala gerra-etxe izan.

Markiña'ko Antxia etxeokoekin zer ikusia eukan.

ARANZIBIA.– Ez orain “Antxubixa” izenez ezagutzen dan etxea. Ba dirudi a baiño lenago, Santa Ana ermitaren inguruan, eta Ondarroa’ko lurretan egon zala “Aranzibia” torrea. Gero beratu eta barria egin eben oraingoa dan tokian.

Ipar-kalean be lekutzen da Aranzibia etxea.

AROSTEGI.– Trueba’ren esanetan Ondarroa’n euki eben oiñetxe edo jatorrizko etxea.

ATEGUREN.– 1.545 urtean, AGIRREKOA aitatzean esaten da, lenago ATEGUREN izenekoa zala.

BARROETA.– Trueba’ren esanetan Ondarroa’n euki eben jatorrizko etxea.

ETXEANDIA.– 1.541’ko errotzean agertzen da etxe au Erriberan.

LIKONA.– XVgarren gizaldiaren asieran Lekeitio’tik bialdu egin zituen Likonatarrak.

An burrukaldi eta asarre gogorrak euki zituen Adan de Yarza’tarrekin eta aldatu eragin. (Labayru, Historia de Bizkaia III-50)

Geroztik Ondarroan sortu eben etxea, gaur Kalandia deitzen dan kalearen egalean. TORREBARRIA dauka izena. Etxe onetan jaio zan Loiola’ko Iñaki deunaren ama.

GOITINIZ.– Goitiniz torrea egon zan Erriberan. Jausten egoala ta Udaletxeak erosi eban XVIIIgarren gizaldian, bertan “alondika” ipinteko.

ILLOROKUA.– Goiko kalean. Kale aretatik Kale Nagusira igarobidea dagon tokian.

JAUREGIKOA.– 1.545 urtean ezagutzen zan. Kale Nagusi eta Goiko kale-
ra joten ebal.

MUNITIBAR.– Trueba’ren esanetan abizen onetakoak Ondarroa’n euki eben euren oiñetxe edo jatorrikoa.

PATROKUA.– Errenderi auzoan.

Etxe au Juan Basterrolaza kapitanarena izan zan XVIgarren gizaldian.

1.629 urtean, enkante baten, konkurso baten, Ana Bidarte’rentzat erosi eben.

OLABARRIA.– Burdiñola eta errotak euki zitun Berriatu eta Ondarroa artean, eta Aranzibia’ko jaunak erre eban bere etxea,.

(“Casa con Ferrería y molinos entre Ondarroa y Berriatua, por habérsela incendiado el dueño de la casa de Arancibia, con muerte de hijos y un hermano, según escriben el Lic. Gaspar de Peña y Galdocha y el Sr. Garcia Fernández Cachupin”) (Iturriza, 1-344)

1.541 URTEKO ERROLTZE BAT

ONDARROA URIKO KONTSEJUKO ERROLTZE LIBURUA, BERTAN OITURA ETA USARIOA DAN LEZ KONTSEJUKO ZERGAEN BANAKETA ETA ORDAINKETAK ZEAZTUTEKO.

Deitura ori dauka 1.541 urteko 'LIBRO DE CUENTAS' en agertzen dan zerrendak.

Erriko bizilagunei buruz ainbat jakingarri zeatz artu leikez bertatik, batez be erriko bizi-leku eta ondasunei buruz eta bizilagunen ezaupiderako.

Agiria, erderaz, onela asten da:

Jainkoaren izenean. Ala bedi.

Ondarroako urian, Bere jaiotzako milla eta bosteun eta berrogei ta bat garren urteko Uztaillaren ogei ta bian, ni Min Garzia Galarzakoa, Erregearen Korteko eta bere lur eta jaurrerietako eskribadua, eta uri onetako eta bertako Kontsejuko naizena bertan nagola:

Gozagoko esana beteteko, Ondarroa uriko gure Andra Mariaren Eleiza nagusiko Korretetan, Eleizako kanpaiak jo ondoren Kontseju eta Udal batzarrean alkartuta egozala Kontseju, alkate, zerga-zain eta ziñegotziak eta erriko seme leialak, udaleko gauza garrantzitsuak erabagitekotan oitura eta usuarioa euken arabera, eta batez be erritar eta auzotarren artean bertan egozala Lekoia'ko Iñigo, bertako alkatea, Garro'ko Joan zerga batzaillea, eta Ateguren'ko Julian Otxoa eta Goiti'ko Hurtun, ziñegotziak, eta Apallua'ko Domingo, Uriola'ko Joan eta Errenderiko Frantzisko eta Apallua'ko Joan Ortiz, txalopetako armada-reak;

eta Luzarraga'ko Joan eta Aramendia'ko Lope, eta Likona'ko Ramus, eta

Elorriaga'ko Julian, eta Ubilla'ko Joan, eta Asterrika'ko Beltran, eta Domingo Ansola, txalopa jaubea; eta Ategiuren'go Min, eta Ansola'ko Gregorio pilotoak, eta Goikoetxea'ko Martin, Olea'ko Patxi, Egiarte'ko J., eta Agiriano'ko Joan eta Portuko.....(?), eta Elexalde'ko Joan eta Elorriaga'ko Patxi eta Portu'ko Errodrigo, eta Ergeitiz'ko Joan, bertako bizilagunak.

Orrela batuta, Garro'ko Joan zerga-batzailleak, bere eta sindikoaren ize-nean esan eban, zerga-banaketa eta ordainketa egiteko urian egoan bizilagun eta jaubetasunen liburua, urte buruan urian oiturazko eta usariozko ziran oizko gauzen gorabera agertzen ebana zaartua egoala eta gaurko gitxik ezagutzen zituen bertakoen izenekaz. Origaitik ez ekiela egun barrietan banaketa zelan egin eta erritarren ondasunen izenak be apurtuta egozala eta erroltze aretan ainbat lekutan izentauta egozala, sakabanatuta, orrelakoak, eta an agertu-ala egiten zala banaketa, baiña zerga-batzaille eta kontulariak kaltea eukiten ebela batzuk ordaindu barik gelditzen ziralako. Gauza orrela, ori onduteko eta garbi agertzeko, liburu oso bat eskatzen ebela gaurkoentzat eta etorriko diranentzat balioko izango dana.

Ori agintzea eskatu eben, eta liburu barri orretan erriko ondasun guztiak orrialde baten ipintea, auzokide bakoitzak eukanaren ainbatekoa azalduaz eta erroltze au Alkateak eta ziñegotzien artean eskribaduagaz egitea.

Eta esandako bizilagun eta agintariak eta gizon leialak esan eben lengo Erroltzea....egoala, eta egoki zala bertatik liburu barri au lortzea jaube eta ondasunen deiturekaz. Eta agintzen ebela eta agindu eben liburu zarreko erroltzea zintzotasunez berregitea, eta bakoitzak eukazan ondasunen barri garbi ipintea, orrialde bakoitzean auzokide bakoitza ipiniaz eta bere ondasunak agertuaz, oitura eta usariozko banaketak egin al izateko. Eta uriaren onagaitik agintzen ebela, eta agindu eben, oraingoan eta datozanentzat orrela egitea. Eta orren testigantza eskatu eutsen Garro'ko Joan zerga batzailleak, eta orretan geratu ziran....Illoro'ko Joan Ortiz....., Apallua'ko Abata, eta Aransolo'ko Joan Abata, eleiz gizonak, bai eta Galdona'ko Min, eta Goio'ko Joan eta Isaso'ko Txomin, Ondarroa uriko bizilagunak.

(Gai au erabagi ondoren, Klara' deunaren Kofradiko "beata"tzat eskeini zan Ibiri'ko Domenga'ren ortarako baimen emotea eztabaidatu zan batzar berbertan egon ziranen artean.)

ONDASUN JAUBEEN ERROLTZEAN SARTUTAKO AUZOKIDEEN ZERRENDA

- Portu'ko D.- (Katalin Gabiola, bere emaztea)
- Lekoia'ko Gabriel.- Bizi dan etxea.
- Lekoia'ko Mari'ren ondasunak.
- Inprubidi'ko In^o, bizi dan etxeekaitik,
eta Iparkale'n daukan etxe-lekua.
- Olabe'ko Min, bizi dan etxeekaitik,
- Belendiz'ko Mari, Iparkale'ko atadiko etxeekaitik.
- Egurrola'ko Patxi, bizi dan etxeekaitik.
- Portu'ko Mari, ondartzan daukan etxe-lekuagaitik,
eta bizi dan etxeekaitik.
- Ondartzako Tellaetxeri etxea,
eta ortu bat Lekoia'ko Min'en etxe alboan.
- Aiardi'ko Otxoa pilotoaren familikoak bere etxeekaitik.
- Elexalde'ko In^o, bizi dan etxeagaitik.
- Sustaeta'ko Min, bizi dan etxeagaitik.
- Labeaga'ko Lope, Iparkalen daukan etxe-lekuagaitik,
eta Marzana'ko Mari'k plazan eukitako etxeekaitik.
- Jauregiko Peru eta ...ren oiñordekoak, bizi dira etxeekaitik.
- Karega'ko Min, bizi dan etxeekaitik,
eta ortuagaitik,
- Illoro'ko Peru'ren oiñordekoak, etxeekaitik.
- Aranzibia'ko In^o pilotoaren oiñordekoak, euren etxeekaitik,
eta plazan dagon tokiagaitik.
- Goitiniz'ko In^o, bizi dan etxeekaitik
eta ortuagaitik.
- Elantxo'ko Mikol, bere etxeekaitik,
eta bizi dan etxeekaitik.
- Galdona'ko Txomin'ren oiñordekoak, Aranzibia'ko....
eta ortuagaitik.
- Errenderiko Lope'ren oiñordekoak, Iparkale'ko etxeekaitik,
eta Erdiko kaleko etxeekaitik,
eta ondartzako ortuagaitik.
- Unda'ko San Joan'en oiñordekoak.
- Goitia'ko Min'en oiñordekoak, Iparkale'ko etxeekaitik,
eta Kale Nagosiko etxe-lekuagaitik,
eta Ipar-Kaleko ortuagaitik.
- Urresti'ko Urtun, bizi dan etxeekaitik.
- Arriola'ko In^o, bizi dan etxeegaitik,

eta Garroaldeko ortua,
eta Goiko kaleko etxeak,
eta Iturreta'ko etxeetan daukan zatiagaitik,
eta X'ko Mari eta Ines'eri erositako etxeekaitik
eta Unda'ko Mari'ri erosiakaitik, gero labea egiteko.
eta bere etxearen ondoan Gallastegi'ko Urtun'eri erositako etxe-tokia-
gaitik. (Gillestegi, Errege ontzietako kapitana).

– Urkiaga'ko In^oren oiñordekoak, etxeekaitik.
– Orioso'ko Juana'ren etxeak.
– Unda'ko Mari'ren oiñordekoen etxeak.
– Gorozika'ko In^a, bizi dan etxeekaitik,
eta Gillestegi batxillerraren semeei erositako orubeagaitik
eta Ategiuren'go Peru'gaz batean ibar andian erositako orubearen za-
tiagaitik,

eta Garroalde'ko atadian daukan ortuagaitik.
– Aranzibiatarrak, bizi dan etxeekaitik.
– Eleiz-gizonen etxeak, Arriaga'ko In^o gandik lortuak,
eta Kale Nagosian dauken bodega.
– Urreisti'ko In^oren oiñordekoa eta bere alaba, bizi dan etxeekaitik.
eta Aranzibia'ko Patxi'gaz batean daukan orube zatiagaitik
eta orma ta erdi bitarte Goitia'ko Urtun'en sorubetik dauken orubea-
gaitik.

- Aiardi'ko Aparizio, bizi dan etxeekaitik.
eta Kale Nagosian daukan orube-zatiagaitik.
- Ansola'ko In^oren oiñordekuak.
- Belendiz'ko Otxoa, bizi dan etxeekaitik.
- Likona'ko Agate'ren oiñordekoak.
- Etxebarrieta'ko monjearen ondasunak.
- Aulikiz'ko Kristobal'en oiñordekoen ondasunak.
- Artolazaga'ko Min Likona sokagillearen etxeak.
- Sagarraga'ko Santxo'ren etxeak,
eta ortua.
- Min Abata, Iparkale'n, gorabideen alboan daukan orubeagaitik.
- Kareaga'ko Mari Adan, orubeagaitik.
- Asentsio'ko Mari, bere etxeagaitik.
- Dendaidi'ko Min, orubeagaitik.
- Goitia'ko Urtun, bizi dan etxeagaitik,
eta ortuagaitik.
- Iramategi'ko Mari, bere etxeekaitik.
- Markina'ko Txomin, pilotoa, bizi dan etxeekaitik.
eta ondartzako ortuagaitik.

- Etxebarria'tar In^a ren sendikoak.
- Ansola'ko Txomin'en ondasunak,
eta Iparkale'n daukan ortua.
- Goikolea'ko Mari'ren etxeak.
- Abadia'ko Domeka Marina, etxea eta ondasunakaitik.
- Estakona'ko Kristobal'en oiñordekoak, etxeekaitik,
eta Kale Nagosian, Atadiaren alboko orubeagaitik.
- Iburguen'go Martin'en oiñordekoak.
- Apallua'ko Martin, Kantale'ko etxeekaitik,
eta bizi dan etxeekaitik,
eta ortuagaitik.
- Aranzibia'ko Mari, plazako etxeekaitik,
eta Kale Nagusian daukan orubeagaitik,
eta Ondartzako ortuagaitik.
- Goitia'ko Martin, Mari B.'ren etxeekaitik.
- Arriola'ko Anton, bizi dan etxeekaitik,
eta ortuagaitik.
- Illoro'ko Peru'ren oiñordekoak, etxeekaitik
eta ortuagaitik.
- Gabiola'ko Santxo'ren etxeak.
- Goitiniz'ko Otxoa'ren etxeak
eta barrien barri egiñak,
eta bodegan daukan zatiagaitik.
- Lope Romo'ren bizi dan etxeak,
eta Iparkale'ko orubea.
- Portu'ko Peru pilotoaren alaba bizi dan etxeak.
- Aulikiz'ko Peru'ren oiñordekoak,
eta ospital aurreko orubea.
- Markina'ko Mari, bizi dan etxeagaitik.
- In^o Albis'en oiñordekoak, etxeekaitik.
- Asensio Berroia'ren oiñordekoak,
eta ortua,
eta erdiko ibarreko orubea.
- Illoro'ko In^o ren oiñordekoak etxeekaitik.
eta ortua.
- Mari Agirre, bizi dan etxeekaitik.
eta ortua.
- In^o Goitia pilotoaren etxean
eta Sestona'ko Marigandik lortu eban orubea.
- Ateguren'ko Peru eta Ana Galdona'ren etxeak.
- Asterrika'ko Madalenaren etxeak.

- Illoro'ko In°ren etxeak
eta ortua.
- Agirre'ko Peru Ortiz, bizarkentzaillearen oiñordekoen etxeak.
- Aransolo'ko Mari, alarguna, etxeekaitik
eta Illoro'ko Peru'gaz batean daukan orubeagaitik.
- Madalena Iturrino, ildakoaren etxeen orubea.
- Bera bizi dan Olaso'ko markesaren etxeak,
eta orubea.
- Agiriano'ko In°ren ondasunak.
- Arezmendia'ko Peru bizi dan etxeak,
eta atadiko etxeak, euren ortuagaz,
eta Erribera'ko etxeak,
eta Olaso'ko Marigandik lortutako bere etxe alboko soloak,
eta Arriaga'ko baserria.
- Ana Illoro'ko Goiko kalean daukazan etxeak,
eta Kale Nagosiko etxeak, ortu ta guzti.
- Sagarraga'ko Mari'ren etxeak.
- Lekioia'ko Iñigo'ren goiko kaleko etxeak,
eta Errenderin daukan orubea,
eta R. Gorozikaga'gaz batean daukan orubea,
eta ortua.
- Burgoa'ko Otxanda'ren orubea.
- Baranigo'ko Madalenaren orubea.
- Ateguen'go In°ren bera bizi dan etxeak,
eta etxe aurrean daukan orubea,
eta Kale Nagosiko etxeak,
eta Kale Nagosiko orubean daukan zatia,
eta ortua,
- Aransolo'ko Joana, bizi dan etxeekaitik.
- Orbea'ko Mari, etxeekaitik.
- Egizabal'go Katalin, bizi dan etxeekaitik,
eta ortua.
- Ubilla'ko Zeferino, bizi dan etxeekaitik,
eta plazako orubeagaitik.
- Gorozika'ko Peru, bizi dan etxeekaitik.
- Gorostiaga'ko Otxoa, bere etxeen zatiagaitik
eta Peru Abata bizi dan etxearen zatia
eta ortua.
- Orobia'ko Albira bere etxeekaitik.
- Arrasate'ko Maria bere etxe eta bodega zatiagaitik.
- Mari Romo, erdiko kaleko etxeekaitik,

- eta Santa Clara'n erositako ortua,
eta plazako etxeak.
- Lorriaga'ko Katalin'en etxeak.
 - Gamboa'neko Txomin'en etxeak.
 - Isasoeta'ko Txomin'en etxeak.
 - Txomin Sarasua, arakiña, bizi dan etxeakaitik
eta Isasoeta'ko Txomin'en etxean daukan zatiagaitik.
 - Ansola'ko In^o, bizi dan etxeekaitik.
 - Aranaga'ko Satur, bizi dan etxeekaitik,
eta Asterrika'ko Inese'ri erositakoagaitik.
 - Iraola'neko Mari, etxeekaitik,
eta ospitaleko etxearen alboko ortuagaitik.
 - Lasao'ko Iz, daukan zatiagaitik.
 - Garroa'ko In^o, bizi dan etxeagaitik.
 - Mari Galartza, bizi dan etxeagaitik.
 - Iramategi'ko Aparizio, bizi dan etxeko bere zatiagaitik,
eta goiko kaleko orubeagaitik.
 - In^o Agirre pilotoaren etxeak.
 - Illori'ko In^oren ondasunak, bizi dan etxeakaitik.
 - Thellarilea'ko In^o pilotoaren ondasunak,
eta Garroaldeko ortua.
 - Arezmendiako Loperen ondasunak,
eta atadiko ortua.
 - Asterrika'ko Min pilotoaren bizi dan etxeak.
 - Monguruza'ko san Juan'en oiñordekoenak, bizi diran etxeagaitik.
 - Monguruza'ko Domeka'ren etxeak.
 - Errenderi'ko Beltran'en ondasunak, bizi dan etxeakaitik
eta Aiardi'ko Peru'gandik artu zitun etxeekaitik,
eta daukazan iru ortugaitik,
eta Tellakoetxe'ko etxean azpiko zatian daukanagaitik.
 - Laka'ko Min'en ondasunak bizi dan etxegaitik,
eta ortua,
eta Isasoeta'ko Txomin azpiko denda,
eta Ozonkua'ko Martin'eri erositako etxeak.
 - Ozonkua'ko Martin'en oiñordekoen etxeak.
 - Aroa'ko In^o ren oiñordekoen etxeak.
 - Elgeta'ko Gaspar bizi dan etxeak.
 - Galar'eko Min'en bizi dan etxean,
eta bere emazteagandik artu zitun etxeak,
eta Iparkale'ko orubea,
eta ospitalaren alboan daukan ortua.

- Gorozika'ko Marina'ren oiñordekuak.
- Meabe'ko Otxoa'ren onjak.
- Bilbao'ko San Joan'en onjak.
- Aranzibia'ko Peru'ren oiñordekoak.
-en ondasunak, bizi dan etxeekaitik.
- Portu'ko Gelasio bizi dan tokiko onjak,
eta portuko etxeekaitik,
eta Iparkaleko orubea,
eta Goiko kaleko orubea.
- Arrangiz'ko G^o alferezaren onjak, ospitalarentzat emon ziran.
- Eta Aiardi'ko Marina'k ospitalari emon eutsan orubea, Arezmendi'ko Peru'ren etxe alboan.
- Eta Alferezaren etxe alboan dagon ospitalaren orubea.
- Eta Agüero'ko Mari'ren orubea, ospitalaren aurrekoa.
- Eta Barinaga'ko Katalin, ospitaleko arduradunak bere zatia ospitalari itxitakoan daukan zatia.
- Goitiniz'ko Peru'ren torrea.
- Mari Arriola'ren orubea.
- Aulikiz'ko In^o'ren etxeak.
- Sustaeta'ko Mari'ren etxeak.
- Mari Gorozika bizi dan etxeak.
- Galate'ko Txomin'en torrea,
eta ortua.
- Bermeo'ko Patxi bizi dan etxeak
eta Mari Galar-on'ek Kale Nagosiko etxetan daukan zatia,
eta Portuko etxean daukan zatia.
- Ansola'ko Txomin, itxas-maisua, bizi dan onjaekaitik.
- Errenderi'ko In^o, bizi dan etxeekaitik,
eta Iparkalen daukan orubeagaitik.
- Likona'ko Mari In^o'ren torrea.
- Eta Portu'ko Otxoaren etxea, Ayara'ko etxeagaitik,
eta orain bera bizi dan etxeagaitik.
- Arranotegi'ko Patxi bizi dan onjaetako zatiagaitik.
- Errodrigo Romo'ren oiñordekoak, bizi dan etxeko zatiagaitik.
- Aiardi'ko Mari, bizi dan etxeagaitik.
- Gillestegi'ko Patxi, Ondarribar'ko onjakaitik,
eta Erriberan Batxillerragandik lortu eban orubeagaitik,
eta Iperkaleko atadiko ortuagaitik,
eta Romo'ren etxe alboko lurraldeagaitik.
- Astigarribia'ko Domen'en Kale andiko etxeeakaitik,
eta Erriberako orubeagaitik.

- Luis Aretxaga'ren oiñordekoen onjak,
eta Urkiaga goiko ortua.
- Ategiuren'go In^o'ren etxeak,
eta Koskabil'eko ortua.
- Galdona'ko Min, bizi dan etxeetako zatiagaitik.
- Ana Irarrazabal'en torrea,
eta torre alboan Goitiniz'ko Peru'gandik artutako orubea,
eta Erdiko kaleko etxeekaitik,
eta Goiko Kanean Goitia'ren etxe alboan daukan orubea,
eta Santa Klara'ko bide ertzean daukan ortua,
eta Koskabil'eko basoan daukan ortua,
- Goitia'ko Fortun, bizi dan etxeekaitik.
- Apallua'ko Txomin, bizi dan etxeekaitik.
- Ibarra'ko Teresa, bizi dan etxeekaitik,
eta Berriatua'ko Tomas'eri erositako etheen zatiagaitik
eta kortatzat daukan bodega,
eta ortu bat.
- Eizagirre'ko Kristobal'en onjak.
- Galdona'ko Patxi'ren oiñordekoetatik, bere seme Ibarra'ko In^o'ek dauka-
zan etxeak.
- Lorriaga'ko Iñigo, bizi dan onjakaitik.
- Ynibia nausiaren etxeak,
eta Erribera'ko orubea,
eta plazan Mari.....ren orubean daukan zatia,
eta Iperkaleko orubea.
- F. Ibarra'ren oiñordekuak, Erribera'ko etxeekaitik.
- Apallua'ko In^o, bizi dan torregaitik,
eta erdiko ibarrean daukazan Munibe'ko etxeak,
eta ospitalaren alboko ortua,
eta Gorozika'ko baserria.
- Rodrigo Romo bizi dan etxeak.
- Arano'ko Mari bizi dan etxeekaitik,
eta daukan baratzagaitik.
- Likona'ko Gustabo, bizi dan etxeekaitik
eta bere izeko izan zanaren aldeko portuko etxeak,
eta Goiko kaleko etxeak,
eta aitagiñarrebagandik lortutako etxeak.
- Ategiuren'go Pedro, bizi dan etxeekaitik.
- Gillen Eria'ren onjak.
- Lope Andonaegi, plazako etxeak
eta Iparkaleko orubea.

Errenderiko etxeetan

- Ramiro Alegria, bizi dan onjagaitik,
etaen ondasunakaitik,
eta urian daukan orubea, P. Aiardiaren etheen alboan,
eta Lekoia'ko Iñigo'ren onjaetan daukan zatia.
- Peru Ormaetxea'ren etxeak,
eta Arriola'ren etxe alboan daukan etxea,
eta ortua.
- Peru Illoro, Errenderiko auzoan bizi dan etxeekaitik,
eta urian daukazan onjak,
eta Arantzamendi'ko etxeak.
- Anton Berriatua, bizi dan etxeekaitik.
- Errenderiko Txomin'en oiñordekoak, bizi dan etxeekaitik.
eta ortua.
- Errenderiko P.'ren semea dan P. Elexpurua.
- Errenderiko Patxi, bizi dan etxeekaitik,
eta bere etheen alboko orubeagaitik,
eta Ansobieta'ko etxea,
eta ortua.
- Mari Andonaegi'ren etxea,
eta ortua.
- Goiti'ko Iñigo, Goiti etxeagaitik.

Gorozika'ko etxeak

- Gorozika'ko Iñigo, eta bere etxe eta ingurua.
- Min Iturriza'ren etxe eta ingurua.
- Rodrigo Gorozikaren etxe eta ingurua eta garaixa.
- Domingo Etxebarria'ren Gorozikako etxe eta ingurua.

Eizmendi

- Domingo Eizmendia, bere baserri ta ingurua.

**1.598 URTEKO BAGILLA'REN 14-AN,
MARTIN OTXOA AJORABIDE
ESKIBRADUAREN AURREAN,**

**IÑIGO LERTXUNDI kapitana eta MARI IBAÑEZ
ONDARROA ETA APALLUA eta euren GURASOEN
arteko EZKONTZA-ITUNA.**

In Dey nomine Patris eta Filii et Spiritus Sancti, iru pertsona eta Egizko Jaungoiko bakar bat.

Ezkontzako itun au irakurten dabenak jakin begie, zelan Ondarroa'ko urian batu garen 1.598'ko Ekainilla'ren 19'an, eskribadu naizen nire aurrean eta beian izentatzen diran lekukoak aurrean,

Alde batetik, Grazia Agirre andre ona, alarguna, In° Lertxundi ildakoaren legezko emazte izan eta alargun geratu zana. Eta bestetik Domingo Ondarroa kapitana eta Mari P. Agiriano, bere legezko emaztea, danak erri onetako bizilagunak.

Eta esan eben In° Lertxundi, esandako Grazia Agirre andrearen era In° Lertxundi pilotoaren legezko semea eta Mari Ibañez Apallua, Domingo Ondarroa kapitana eta bere emazte Maria Apallua'ren alaba, legez ezkondu eta uztartuta egozala Erromatar Eleiza Ama Santak agintzen daben eran.

Eta ezkontza doneko zamak andiak diralako eta alik eta ondoen eroan al izateko gurasoak euren ondasunak semeen artean euren bizibiderako banatzera beartuta dagozala, origaitik dotatzen ebezala eta dotatu zituen, emoten eutsezala eta emon eutsen Ezkontza duiña izan egien, jarraian izendatzen diran ondasun, tresna eta marauekaz.

Asierarako, esandako Grazia Agirre andre alargunak esan eban askatasun osoz eta benetako borondatez emoten ebala eta emon eban, eta dotatzen ebela eta dotatu eban In° Lertxundi bere semea eta esandako In° Lertxundi'ren semea, era onetan:

* Ateguren izeneko etxe barriagaz. Goiko kalean dago etxe au, eta bere mugatzat alde batetik I. Aretxaga ildakoaren oiñordekoen etxea dauka eta beste aldean bere aurrean dagon Iparkálera doan mailladiagaz (eskillareagaz).

* Bardin esandako etxe barriaren aurrez-aurre dagon etxea. Etxe orren albo biak eta mugak ezagunak dira.

* Bardin Kale Nagusian dagon beste etxe bat. Alde batetik Sebastian Arriola'ren etxea dauka eta bestetik Min Goitiniz portukoaren etxea. Eta goi aldean Marina Goikoetxea alargunaren etxea.

* Bardin etxeak egiteko sarobe bat, alde batetik Marta San In° Aguero Galarza alargunaren etxeagaz mugatzen dana eta bestetik Marina Ansola Apallua alargunaren etxea.

* Bardin Solagirren dagon maasti bat eta bera jotzen dagon lur-jausitako solo bat. Mugak argi ikusten dira..

* Bardin Mortisur'en dagon beste maasti bat, alboan I. Lopez Muguruza Araxmendia'ren maastia daukana eta beste alderdian In° Gorozika pilotoa izan zanaren oiñordekoena, danok erriko semeak.

* Bardin beste maasti bat Ikaietan, alde batetik Martin Garzia Galarza eskribadu illaren oiñordekoen maastiagaz mugatzen dana, eta beste aldetik esandako In° Muguruza Arexmendiaren maastiagaz batzen dana. Danak erri onetako bizilagunak.

* Bardin Erriberan dagon etxe orube bat, albo baten Domeka Apallua alargunaren etxeekaz mugatzen dana eta bestetik P. Saez Ormaetxea alargunaren etxe orubea, eta goi aldetik Erribera kalea eta Ibai alderako Beko atadia.

* Bardin beste maasti bat Emendiko errekan. Onak, mugatzat, alde baten Brigido Giliastegi'ren maastia dauka eta bestetik Aparicio Ubilla'ren ortua.

* Bardin Bidebarrieta'n dagon maasti bat. Domeka Zubialdea alargunaren maastia dauka alboan, bai eta Fran Oronzua'ren maastia be, danak erriko bizilagunak.

* Bardin sagasti bat Kortaetan. Albo batetik, aurrean, Anton Arriola'ren oiñordekoen sagastia dauka eta bestean Teresa Balzola beataren sagastia, danak erriko bizilagunak.

* Bardin Arizti bat, Goitiniz deitzen dan inguruan dagona, Bizkai Lurraldeko agindupekoa. Bere mugak, alde batetik, Agirre Etxearen mendia eta bestetik Domeka Sagarraga'ren beste mendi bat, oneik be erriko bizilagunak.

* Bardin beste mendi zati bat esandako Goitiniz inguruan, eta mugatzat Jn. Lope Muguruza Arexmendia'ren mendi zati bat daukana eta be aldetik erriko ibaiaren ubidea.

* Bardin Egurrola deiturako lurraldean (Bizkai'ko lurraldean) dagon gaztañadi bat. Alde batetik Gorozika'ko san Juan ermitaren gaztañadia dauka eta bestetik Marina Goikolea alargunak daukan gaztañadia.

* Bardin Santa Klara'rako bidean dagon ortu bat. Mugatzat, alderdi baten, Gaspar Elgeta pilotu izan zanaren oiñordekoen ortua dauka eta bestean Aparicio Ubilla'ren sagasti bat, biak erriko bizilagunak.

* Ondasun guzti oneik Ateguren etxeari dagokiozanak dira eta Grazi andrearen ama zan Marina Agirre'k, bere anai Min Agirre il zanean, eta Grazia berberak bere anai Marinagandik artu zitun. Eta berak amagandik artuta lez orain etxea eskeiñi eta dotetzat emoten dautsa bertako gauza guztiekazazi, zidar, tresna eta barruan dagozan gauza guztiekaz. Bai eta beste ondasun guztiak bertako ardatza eta menpekotasunak sartuta, berak artu ebazan lez, Ateguren;go illen oroitzua egon dedin.

* Eta esan eban, baita, etxe eta ondasunekaz batean, ezkontza onetarako, eta ortik sortu leikezan semeentzako, sei oe eder emoten dautsazala bakoitza iru bidar orniduta.

Bai eta lau katillu, pitxarra bat, gatzontzi bat eta sei koillara, danak zidarrezkuak.

* Bai eta Bizkaia lur-lauan dagon Goitiniz mendian egin daben zatiketa be. Eta onetan Bizkaiko foruak agintzen daben eran, beste anai bientzako zatiak itxita, arbola oin bat eta bere lurra Goitiniz ondoan itxita, Muguruza Arexmendiren mendia eta ibaiaren artean.

Bai eta esan eban ogeita lau abere larri eukazala etxeetan zabaldua eta euren erdia eskeiñi eta emoten dautsela.

* Bai eta esan eban Maria bere errañari eutsan maitasun eta zaletasunak eraginda, emoten eutsala orain eta betiko gona berde bat, terziopelozko gerrikoagaz, tafetanezko kapa bat, terziopelozko gona motz bat eta urredun oial bat, sedazko eun zapi bat, buruko on bi eta besa-zearko batzuk.

* Baita esan eban Peru Otxoa Labiano'ri zentzuan emonda daukazan bosteun urrezko eskutak, eta bere semeari emon nai eta emoten eutsazala, saldu, kobratu eta trukatzeko, lau urtetan eurekaz baliatzeko baimenez, eta lau urte igarota biurtu egin bearko eutsazala ezelako irabazi barik.

* Esandako Domingo Ondarroa kapitanak eta bere emazte Maria P. Agiriano Apalluak, Grazia andrearen bere seme I. Lertxundirentzako ezkontza-gaitiko eskeintza ori ikusita, orren eskarrez esan eban, berenez eta bere senarraren baimena eskatu eta lortuta, agintzen ebala eta agindu eben eta eskeintzen ebela eta eskeiñi ebezan euren alaba Mari Ibañez'entzat ondasun eta gauza oneik, jarraian zeaztuten diran epeetan ordaintzeko:

* Esan eben In° Lertxundi'gaz euren alaba Maria'ren ezkontzarako milla ta berreun dukat agintzen ebezala, era onetan:

Lenengo seirak lenengotik Ondarroa'ko astilleruan egiten eukan txalopa

itxasora bialdu eta irabazietatik atarateko. Eta beste seireunak ezkontzako tratu au izenpetu eta amalau illabeteren barruan artzeko. Eta Cadiz'ko Duarte Equinol'eri saldu eutsan txalopa, orain Indietatik dabillana, lenago etorriko ba litz, txalopa etorriaz batera.

* Baita, Maria Ibañez, alaba, iru bidar goitik bera osorik jazteko eran orniduko dabe, bere nortasunari dagokion eran, au da, iru gona eta gona txiki ezbardin, eta iru kapa, bat burat oialezkoa, beste bat pañuzko baltza terziopelozko gerrikoagaz, eskuz egiña, eta irugarrena bentosiñezkoa, irurak barriak, eta orrez gain oizko jantziak.

* Bai eta zidarrezko katillu, txarra eta gatzontzi bana, onak.

Eta oe bat, estalgarri bikotzekaz, bat sedazkoa. Bai eta sei buruko barri. Bardin mairako zapiak. Eta kutxa bat. Eta Mari berberak, berenetik, oe bat eroango dau bertarako bearrezkoekaz.

Eta alderdi bietakoak esan eben, baldintza orretan egin ebezala eskintzak. Eta In^a Lertxundi eta Mari I. Apallua bere emaztearen ezkontza seme barik amaitzen ba zan, edo ta semeak eukiarren oneik testamentua egiteko adiña aurretik ilten ba ziran, edo ta testamenturik egin barik il, ondasun guzti oneik erdiz banan izatekotan eskeintzen zirala, eta bardin, ondasunak lortu ezkerro, dote ori Mari Ibañez'ek euki egiala.

Eta eriotzaren gertaeran bizi ba da, eta Ondarroa kapitana eta bere emazte Maria Apallua eta semeak iltea gertatuko ba litz, ondasunak I. Lertxundigan edo ta bere ondorengoekana biurtu daitezala, edo legeak agintzen dauan erara.

Eta In^o Lertxundi eta Mari Ibañez Apallua bere emazteak esan eben, onartzen zituela euri eta eurerariko edozeiñeri gurasoak egindako eskintza eta baldintzak, esandako lotueretan. Eta esan eben bear lez erantzutera beartuten zirala euren izatez eta euren ondasun, altzari eta lurrekaz. Eta alegin egingo ebela ondo zaintzen, eta ituna osorik eta zatika be beteko ebela, eta iñoiz eta ezelan be ez zirala orren aurka joaten ausartuko, ala egin ezkerro, gertatu eikezan kalte eta ondorenekaz jaubetuko zirala, ituna egoan eran.

Ondoren In^o Lertxundi'k geitu eban ondasunak emontzailearen mesedean ipotekaten ebazala, zati berezien bat ala bear izan ezkerro, eta berba emon ebala ezer eskuz aldatu edo ta ez saltzeko.

(Eta tratuaren legezko gauzak zeaztuaz jarraitzen dau itunak, argituaz ezkontza bitarteko eskintza dala ta ezin leikela beartu eskeiñitako gauzak erakustera. Eta bakoitzak onez egin al dabena baiño geiago egitera ez dabela beartzen)

Eta onetan, uko egin zituen Justiniano, Constantino, Senatus consulto eta abarren antxiñako legeak.

Lekuko lez, testigu lez egon ziranak: Migel Agierrea, Min Bidarte, Meltxor Abaitua, In^o Basterrolaza, In^o Loubiano.

Eskribadua: Markos Otxoa Ajourabide.

ERRIETAKO BEGIRALEAK 1.635

XVII garren gizaldian oiturazko zan Lurraldetako edo Errege inguruko en aginduz, errietako zuzentza eta agintaritza, bai eta bertako merkataritza eta gizabidetzari buruz azterketak egitera ordezkariak etortea begirale eta azterkari lez eskubide zabalekaz.

Konturik zorrotzena agintean egozan alkate eta errexidoreei eskatu eta arzen eutsen agintzen eben denboran batez be erriko bideak zaintzeko ardurarik euki ete eben eta erriko pixu eta neurriak zuzen ete ebizan arretarik eukiten eben eta orrez gain errota eta ostatuetan ollo edo bestelako ezer sartzen ete zan, edo ta janari eta edariak neurri eta ontasunean jator saltzen ete ziran eta orrelako ainbat zaindu bearrei buruz.

Orrelako agirietatik aldi aretako bizibideari buruzko ainbat ezaupide lortzen dira.

Ara 1.635 urtean, Errege Kontsejuko Alonso Uria'k emondako aginduz Manuel Munibe eta Aranzibia, Santiago'ren ordenako zaldunak egin eban iker-taldian jasotako agiria.

Eta lekukoei deitu eta egia esango ebenaren oi ziran ziñak artu ondoren, erantzun oneik artu ziran:

Erriko agintariei buruzko erantzunak

– Uri onetako alkate eta Zuzentza ondo eroaten dabezala bakoitzak bere zeregiñean.

Ondo ezagutzen dabela salatari lez ibili dan Domingo Goikuria, gitxigora-bera 32 urte ingurukoa.

– Erriko bideak eta errepideak arriz ondo eta bear aiñean beteta egozala.

– Erriko zerga-arauak, arantzelak ondo ipinita dagozala, bai eta lotugarri diran beste gauzak be ondo zainduta.

– Erriko alkate eta Zuzentzari zor jakoen lotsa eta begirunea ondo gordeten dirala.

– Eta azken itaunari buruzko erantzuna: Erriko bizargiñari buruzkoa: Bizargin bakarra dagoala eta bere zeregiña ondo beteten dauala, eta bere azterketak nun egiñak daukazanari buruz erantzun eben ez ekiela nun egiña zan.

Erriko pixuak

Erriko pixuei buruz azterkariak aztertu ondoren erantzun eban:

Liberdiko pixua zortziren bi ta erdi txikiago zala.

Librakoa ontza erdi txikiago.

Libra bikoa amar zortziren txikiago.

Bost librakoa beste amar eta bost zortziren txikiago.

Amar librakoa andiegi.

Ogei ta bost librakoa, libra bi laurden txikiago.

Beste berrogeita amar librakoa, libra ta erdi txikiago.

(Eta Sindikoari milla marauko isuna (multa) ezarri eutsen).

Bertan artzen dan ardauaren neurriak

Neurtu ziran uztaoan bertan artzen zan ardauarentzako udalak emonda Mari Ana Urriola'k eukazan neurriak eta neurri-begiraleak esan eban andiegiak zirala, baiña autortu eben, oituraz orrelaxe eukezala bertan lortzen zan sasoiko ardauarentzat.

(Eta oiturazko zalako ez jakon zigorrik ipini)

Okelatako pixuak

Joan Zuloaga'k eukan aragitegiko pixuak aztertu ziran.

Eta neurri-begiraleak esan eban ontza bikoak zortziren bitan andiago zirala.

Laurdeneko nausia (kuarteroi nausia) sei zortziren andiago.

Liberdiko, iru zortziren (otxaba) txikiago.

Librakoa, iru zortziren txikiago.

Libra bikoa, amar zortziren txikiago.

Bost librakoa, lau zortziren txikiago.

Amar librakoa, ontza bat txikiago.

(Eta zortzireun marauko isuna (multa) ipini eutsen).

Oriotako neurriak

Maria L. Apallua' ren kontura egozan oriotako neurriak.

Begiraleak, azterkatu ondoren esan eban ondo egozala.

Ardautarako neurriak

Txomin Lauzirika'ren ostatua

Ostatu au ikertu zan. Eta salneurri-zerrenda bat ba egoan. Anega eta imiña-ren neurriak be onak ziran, eta zin egin eban ez eukala ez txarri-kumerik ez eta oillorik etxe aretan.

Errenderiko pixua

Ana Andonaegi'k Errenderi auzoan eukan pixuak aztertu ziran. Ana Andonaegi'ren ardurapean egozan. Eta begiraleak esan eban:

Iru librako pixuak ontza bat falta ebala.

Lau librakoak, iru ontza eta zortziren bi txikiago.

Sei librakoa, ontza bat txikiago.

Amar librakua, ontza bat txikiago.

Ogei ta bost librakua, lau ontza txikiago.

(Alaz eta aske geratzea lortu eban)

Burdiñakientzako pixua

Errenderi auzoan burdiñentzako pixua Domeka Urtiz Abaitua'ren ardura-pean egoan.

Pixuak aztertu ondoren begiraleak autortu eban ondo egozala.

Errenderi'n bertan Maria Uribe'k be burdiña pixateko eukan. Begiraleak, aztertu ebazan baita be Antonio Olaregi'k eukazanak.

Kintal erdika bik, biren artean ondo osotzen eben kintala. Baiña ez eban erakutsi txikiagorik.

(Origaitik berreun marauko isuna ipini eutsen)

Uriko markua eta aztagia (balantza)

Begiraleak esan eban ondo egozala.

Uriko ardauarentzako neurri "patroiak"

Begiraleak esan eban ondo egozala.

Ondorenak

Azterketa orreik egin ondoren, eta gauzak orrela ikusita, erritarren utsuneak agintarien ardurarik eza adierazten ebela-ta erreuduntzat artu ziran:

Antonio Gorozika alkatea eta Joan Muguruza Renteria eta Pedro Asterrika, 1.631 urteko agintariak.

Martin Bustinzuria alkatea eta Domingo Gorizika eta Simon Unda 1.632 urteko agintariak.

Lorenzo Brevilla alkatea eta Domingo Aranzibia eta Joan Goitia, 1.633 urtekoak.

Aparicio Asterrika alkatea eta Esteban Txurruka eta Pedro Larruskain 1.634 urteko agintariak.

Gogoratzen eutsen, Erreiñuko legeen eta aginduen aurka, zentzoan etekiñak ordaindu zituela, orretarako eskubide barik.

Orretan bakoitzari 400 marauko isuna ezarri eutsen.

Eta arategian ardurarik ez ebelako euki eta pixu faltsuak erabilten laga ebelako, erritarrei kalte asko egiñagaz, 800 marau zigortzat.

Errenderiko M. Uribe'k burdin pixuaro kintaleko pixuak baiño ez eukazalako, txikiegiak be eukitera beartuta egonda, berreun marau.

Eta egun biko epea emon eutsen, iñok zer esanik ba eukan agertzeko.

Eta agertu zituen aldezketaen ondoren, azken baten 1.631tik 1.634ra agintari izan ziranei, bakoitzari laureun marauko zigorra ezarri eutsen, baiña sindi-koa egin eben arategiko pixuaren arduradun lez eta beste agintariei kenduta, oneri milla marauko zigorra ipini eutsen origaitik.

(Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboa. "Autos y diligencias correspondientes a la vissita general hecha en el año de 1.635 de las Carnicerías, Abacerías, Molinos, tabernas, Mesones, tiendas y pesos, así del Infanzonado como de las Villas del Señorío de Vizcaia". Registro 6 N° 59).

1.639 URTEKO IKUSTALDIA

1.635ko azterketa egin eta barriro, andik lau urtetara, beste ikustaldi bat egon zan errian.

1.639 urteko Maiatzaren 19'an, Geronimo Quixada Solorzano agertu zan errian begirale lez. Eta beragaz batera Joan Dondiz eskribadua.

Errira etorri eta bereala agindu eban ordu bi baiño len azken urteetako agintarien zerrenda agertzeko berari bai eta errian egozan,

Arategi,

Denda,

Ostatu,

Taberna,

Pixudun saltoki,

Errota,

Okindegi,

Udal-pixu,

eunlari,

zirujanu,

bizargin,

zapatari,

albeitar,

serratzaille eta beste ogibideen zuzenbideak.

Egun berean Errenderi auzoan Ana Andonaegi'k bere etxean eukan burdiña pixatzeko pixua, ikustera joan zan. Burdiñolak eukezan ingurutako batzuk antxe sartzen eben euren burdiña eta bertan saldu.

Juan Orbe pixu berregillea (afinatzailea) eroan eben bertan egozan pixu

eta aztagak neurtzera eta onek autortu eban, kintalekoari eta taulei egal bakoi-tzean libra bat falta jakela eta kintal orretako librak 146 izaten zirala, libran amazazpi ontzakoekaz.

Eta une orretan Ana jaubeak esan eban alaxe zala, ibar onetan alaxe oituten zalako.

(Ikustaldiko ondoren, milla marauko isuna ipini eutsen)

Gero Martin Ibañez'ek Errenderi bertan eukan pixua ikustera joan ziran eta berregilleak esan eban emen be 17 ontzako 146 libraz osotutako kintala erabilten ebela.

Geroago jakin zan Errenderi onetan iru pixu egozala burdiña tratuan ebiltzanen artean, eta irugarren pixu ori Domeka Ortiz Abaitua'ren etxean egoala.

Onek esan eban azkenengo ikertaldian pixu ori euki ba eban be, orain ez eukala eta orretan gogor ikusita, bere lantokia ikertu zan eta etxeko beste zatiak be, baiña ez zan aurkitu pixurik.

(Oneri be milla marauko isuna ipini eutsen)

Beste pixuak

Udalak daukazan eta Arrantzalien Kofradiak daukazan pixuak aztertu ziran. Oneik Domingo Armentza'ren kontura egozan.

Berregilleak esan eban, pixuak ikusi ondoren eta neurtu ondoren:

– Libra kuarteroiko pixuari, ontza erdi falta jakola.

– Librakoa ontza bat andiago zala.

– Libra bikoa, ontza bat andiago.

– Bost librakoa, ondo etorralla libran 17 ontzakotan sartuta.

– Amar librakoa, bardin.

– Amabost librakoa, bardin eta gaiñera ontza bi andiago zala.

– Ogetabost librakoa, bardin eta gaiñera liberdi andiago zala.

– Berrogetamar librakoa, bardin eta gaiñera libra bat andiago.

– Berrogetamar librakoa beste bat, bardin eta libra ta erdi andiago.

Ikusi zan aztaga (balantza) alderdi baten ontza erdi astunago zala.

Eta arraiña jaurtiten dan taula batek besteak baiño liberdi geiago eukala.

(Domingo Armentza arduradunari bi milla marauko isuna ezarri eutsen eta beste baterako oarpena)

Erriko neurri patroiak

Neurri oneik be azterkatu ziran.

Azunberdikoa eta kuartillokoa ondo egozan.

Kuartillerdikoa txikiago zan eta okertu egiten zan.

Uztako ardauaren neurriak

Uztako ardaua neurtzeko Udalak daukazan neurriak aztertu ondoren, ikusi da azken ikertaldian baiño andiagoak dirala eta errikoak baiño andiagoak.

Oliotako neurriak

Olioa neurtzeko neurrietan igarri da liberdikoa eta laurdenekoa barriak dirala. Librakoa pixkat txikiago eta laurdenekoa asko txikiago.

Maria Angeles Mizkia'ren oliotarako neurriak

Txikiegi billatu dira.

Onek erakutsi eban bere dendan itxi eban neurtzeko ola. Esan bear da ona eta zeatza aurkituarren, ez eukala ez Bizkaiko ez erriko ezaugarririk.

Gariarentzako neurriak

Erriko neurriagaz neurtu zan laurdengo bat. Eta neurketa Castilla'ko gariagaz egin zan eta neurria txikiago lez aurkitu. Gari berbera pixatu zan eta libra baten laurden ingurua geiagotzen zan.

Txomin Lauzirika'ren ostatua

Ostatu onetan anega eta imiñak neurtzeko egozanak aztertu ziran. Eta imiñarena zerbait txikiago aurkitu zan eta bardin imillauna be.

Eunlariak

Maria Ana eta M. Burgoa'k eukezan kanak neurtu ziran eta ondo aurkitu ziran baiña erriko edo ta Bizkaiko ezaugarri barik.

Okiñak

Mari Ozollo eta Mikela Basterretxea okiñak taulazko bategaz agertu ebezan oituraz ogia egiten ekien pixuak. Esan eben ogia erreta orrelaxe egiten ebela eta barrizailleak bere aldetik ziurtatu eban librak ontza erdi gitxiago eukala eta libra bikoak be ontza erdi.

(Bakoitzari 200 marauko isuna)

Ikustaldiko salaketak

Ikustaldien ondoren, urte onetako salaketaren eta eskabideen oiñarriak oneik izan ziran:

1.- Alkateei eta sindiko izan diranei salatu euren aginte denboran erriko pixuak bastertuta eta jaramonik barik euki zituelako, eta orrela arraiña pixatzen eban Arrantzalien kofradiako pixuak be bear baiño txikiagoak eukiaz, eta ori bertako Abadeak be salatu izan dabela Jaungoikuaren izenean, alaz eta lau urtetan iraun dabela orrelako jokabide bardiñean.

2.- Bideak zaindu eta konpontzeko ardura eta betebearra eukiarren ez dabela jaramonik egin eta batez be erritik Errenteri'ra doan bideari, eta azken egunetan be mandozain bat estu ibili dala bertatik ezin ibillita.

3.- Azken lau urtetan, urte bakoitzean bertako agintariak oitura onak zaintzen alegindu bearrean ez dabela ezer jakin nai izan, eta orretan Antonio Gorozika ezkondua eta Mari Iturriza emakumea naskagarri ibili dirala eskandalu eta zer-esan ugari sortu eragiñaz.

4.- Azken lau urtetako kontuak aztertzean, garbi ikusten dala kontu batzuk jaramon andi barik sartu dabezala, eskubide bagako batzuk be ordainduaz.

5.- Burdiñarako pixuak zaindu eta zuzen eukiteko begiramena euki bearrean, Ana Andonaegi'nean batez be, libra bat gitxiagoz billatu izan dirala, eta orrek batzuri kalte asko eragin dautsela.

6.- Erriko ondasun eta errenten kontua garbi eroan bearrean, ez dirala arduratu eta origaitik eurak aztertzen Markiña'ko Ruiz Ibarra ibili bear izan dala.

7.- Ardaurako neurrietan uts asko egon dirala batez be uztako ardauren neurrietan eta orregaz lapurretazko kalteak egin dirala.

8.- Errenderi'ko Ana Andonaegi'ren etxean be, kanporako salgarri zan burdinkia sartzean pixatu eta kanporatzekuan alde andiaz egin izan dala, libra baten aldia egon dalarik pixaketa bakoitzean.

9.- Salaketa bardintsua egiten zala Ortiz Abaitua'ren kontuan, onek, agintaritzaren zerrendetan pixuak eukiarren, ez erakustearren, eskutatu zituelako.

10.- Salaketa Domingo Armentza'ri. Arrantzalien Kofradia'ko pixuen arduradun lez, aztaga eta taulak eukiarren, pixu txikietan alderantziak aurkitu jakozalako.

11.- Salaketa baita Andres Mizkia, janarientzako olio saltzeko arduradunari, erosi dautsenei kalte egin dautselako, neurri txikiagoak erabili azken lau urtetan.

12.- Salaketa erriko bitxi-dendako arduradunari, gauza batzuk neurtzeko kanak ez daukalako erriko zillurik.

13.- Salaketa baita erriko tabernariari, igazko urtean Errioxako ardauren salmenta bere kontura eukiaz, emengo ardaugaz nastuten ebalako. Onen ziurtapenerako erriko abade dan on Domingo'ren eskutuko salaketa be bitartean egon dala.

14.- Salaketa baita erriko ostatua daukan Txomin Lazurika'ri, anega eta imiñen neurriak sendotu barik eukazalako, eta euretan garagarra emon dautsenei kalte egin dautselako.

15.- Salaketa Mari Ozollo eta Mikela Basterretxea okiñei, ogia egostean erabilten daben pixuak zuzen eukibearrean, aztaga eta tauletan alderantzia eukiaz lan egin dabelako.

Salaketa oneik egin eta egun bateko epea emoten eutsen salatuei euren zer-esanak agertuaz aldeztuteko.

Agintari izanen agerpenak

1.638 urtean Martin Egurrola izan zan alkate eta Antonio Gillestegi eta D. Aranzibia errexidore eta Peru Larruskain sindiko.

Oneik autortu eben azken iru urtetan ez zala egon aragitegirik, ez arrain saltokirik, ez eta olio saltzeko dendarik Andres Mizkia'k daukana besterik, eta onek olioaren ordez baleen gantza saltzen ebala.

Ez egoala ostaru bakar bat baiño eta bera Txomin Lazurika eta andreak eukena zala.

Eta ez egoala tabernarik kanpoko ardaurik saltzen ebanik; erriko uztako ardaurik partikularrak saltzen ebela bertan emoten eutsezan neurrietan eta orrelako neurrietan pare bi egozala eta taberna bietan erabilten zituela, eta gero Andres'en dendan lagaten zituela. Eta onek papera eta tabakotik kanpora ez ebala ondasunezko beste gauzik saltzen.

Errotarik ez egoala emen eta ez inguruan be, baiña ba egoala kontzejuan neurri zuzena, eta erriko bentan iru pixu egozala burdiñak pixatzeko, eta ogitegi bi egozala, Mari Ozollo eta Migela Basterretxea, eta beste eunlari bi egozala, Mariana eta M. Burgoa, eta errian eta bertako agintzapeko inguruan ez egoala ez zirujanorik, ez bizargiñik, ez eta jostunik, ez zapataririk, ez albaiteurik ez eta serratzaillerik be.

Azken erabagia

Egon ziran salatuen arteko batzuen aldezketak eta errukiz erabagitea eskatzen ebenak.

Baiña bakoitzari buruz izentatutako isunak sendotu ziran eta agintariei buruz, azken baten, epai au emon zan:


1.635'n alkate izan zan Antonio Arregia eta Joan Askue eta Peru Arriola errexidoreak eta Domingo Alzola epaikaria gaiztetsitea.

1.636 urtean alkate izan zan Joan Ikoaga eta Martin Basterretxe eta Joan Goikoetxe errexidoreak eta Joan Goitia sindikoa, gaiztetsitea.

1.637'n alkate izan zan Joan Algorta, alkatea, eta Bartolome Basterretxe eta Bartolome Galdona errexidoreak eta Antonio Gorozika sindikoa gaiztetsitea.

1.638'n alkate izan zan Martin Egurrola, eta Antonio Gillestegi eta Pedro Aranzibia errexidoreak eta Peru Larruskain sindikoa, gaiztetsitea, egin jakoezan salaketetan bakoitzeko 500 marau isuntzat ipiniaz, eta euren aurkako iker-taldi onen gorabera ordaindu dagiela urte bakoitzeko alkate eta agintari izanak, danen artean.

(Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboa. Pleitos y Autos. Reg. 8-63 zenbakia. 623-646 orrialdeak)



Etxeandia.

1.704 URTEKO ETXEEN ERROLTZEA

Domingo Joaristi Basterretxea alkate eta epaile zala egin zan etxeen eta bizilagunen erroltze au.

Jaubetasuna

- 1.- Gorozika Basterretxea baserria.
Domingo Joaristi alkatea, jaube.
- 2.- Antonio Urriola. Ziñegotzia.
- 3.- Franzisko Aldaola. Ziñegotzia.
- 4.- Sebastian Aiardia, sindikoa.
- 5.- Domingo Urkiaga.
- 6.- Eskribaduarena.
- 7.- Iñazio Aterrika.
- 8.- Ana M^a Iramategi, alarguna eta
Maria Urkiaga.
- 9.- Mateo Itola. Noiz jausiko dago.
- 10.- Pedro Renteria. Itxita dauka.
- 11.- Nikolas Mugertegi.
- 12.- Antonia Aranzibia.

Bertan bizi dana

Alkate berbera.
Bere andre ta familiagaz.
Bere andre ta familiagaz.
Bere andre ta familiagaz.
Bertan bizi da.
Agustina Goitia, bere semeekaz.
Domingo Dostuate.

Pobreak dira eta bertan bizi dira bakoitza berean.
Juan Madarieta bizi da.
Bertara batzen da M^a Cruz Barbarías bere amagaz Pobrezan bizi da.
Bernardo Lezaola bizi da.
Etxe au gaur abadeen kontura dago, bere gain euken kreditu bategaitik.
Joakin Urkiaga bizi da eta beste gela baten Juan Arriaga, Plentzikua, egunotan kanpotar bategaz ezkondu dana. Etxe au ez da

- 13.– Juana Ozarain, alarguna. orrenbesterako gai, bertan beti lagun bat bizi izan dalako. Alargun au etxe batera joan da biziten eta beragaz batera Maria Arrue, au be alarguna, eta pobrea, bertako gela batera batu da. Biak kanpotarrak dira. Etxea bakar batentzako gai da.
- 14.– Maria Urigoiti. Juan Eiguren bizi da bertan.
- 15.– Bartolome Galdona, parrokoa. Beragaz Ana Ube emakumea bizi da. Sasiolako San Franzisko konbentuaren ospizioa da. Bertan euren sindikoa bizi da. Etxea berea da.
- 16.– Etxe bat. Bertan bizi da.
- 17.– Juan A. Urrunaga. Abendu eta Garizuman etorten dira ango fraileak, konbentuarena. parrokiagaz sermoiak egiteko lotuera daukelako. Benito Andonegi bikarioa bizi da bertan.
- 18.– Durango'ko Agustindarrena. Margarita Oyarán bizi da bertan. Kanpotarra da eta azken urteetan denda bat dauka errian.
- 19.– Jose Anakabe. Bertan bizi da. Eleiz alogera geitzearren, ez dau errentarik ez beste erriko zergarik ordaintzen.
- 20.– Domingo Iturrino, abadearena. Bertan bizi da.
- 21.– Franzisko Urriola. Etxe bizitza bikoa. Baten Franzisko Gorriaran bizi da. Bestean Juan Antonio Santisso, galiziarra. Merzeri bat dauka errian.
- 22.– Madalena Basterretxea, alarguna. Noiz jausiko dago. Karidadez bizi da. Beste gelatxu bat be ba dauka eta bertan Katalina Arriaran alarguna bizi da, eta beste iñor barik.
- 23.– Bernarda Ibarraren etxetxua. Iru bizitzakoa da. Baten Juan Rementería bizi da, emazte eta familiagaz. Bestean Martin Txopite, familiagaz. Irugarrean, Damian Asterrika, emaztea eta familiagaz. Pedro Erkiaga bizi da.
- 24.– Iñazio Pikabea. Antonio Urriola, eleizgizona bizi da bere gurasoekaz. Antonio Agirre'k
- 25.– Ana M^a Garro.
- 26.– Antonio Urriola.

27.- Bartolome Galdona.
28.- Ana M^a Urriola.

29.- Ana M^a Urriola.
30.- Jose Anakabe.
31.- Migel Mugertegi.
32.- Juan Otxoa Brevilla.
33.- Ana Goitia.
34.- Antonio Urkiaga.

35.- Juan Otxoa Brevilla..

36.- Agustina Urrunaga.
37.- M^a Ruiz Mugertegi.

38.- Juan Bta. Ibassetta.

39.- Maria Aulikiz.

40.- Franzisko Iramategi.
41.- Olabe torrea.

42.- Juan Iñazio Anakabe.
43.- Eskribaduarena.
44.- Maria Ateguen.
45.- Bartolome Galdona.
46.- Iñazio Anakabe.
47.- Domingo Aulikiz.
48.- M^a Antonia Urrunaga.
49.- Antonio Urriola.
50.- Franzisko Iriarte.
51.- Iñazio Etxaburu.

karidadez emona dauka, baiña ezingo
dau bertan urte gitxi baiña bizi.
Domingo Jauregi bizi da.
Juan Oliden elgoibartarra bizi da,
otzaragintza emen daukan
lotueragaitik.
Juan Bta. eleizgizona bizi da.
Bertan bizi da.
Ana Mari Kareaga ta alabea bizi dira.
Bertan bizi da.
Alarguna. Bertan bizi da.
Iru seme txikigaz benetan beartsu
bizi da.
Migel Ozerin alarguna bizi da alaba
bategaz.
Bertan bizi da.
Bartolome Galdona, erriko abadea bizi
da.
Iru etxe bizitzakoa, baiña
aurrerantzean ezin izango da orrela
jarraitu, oituraz bikoa dalako.
Bertan bizi dira:
Antigua Manrique, alarguna.
Bta. Urkiaga, emazte eta familiagaz.
Pedro Larrauri, bere familiagaz.
Erriko kartzela etxea da. Juan
Etxebarria bizi da, preboste ordekoa.
Bertan bizi da.
Noiz jausiko dago. Oraingotan bizitza
bi daukaz. Baten Bta. Arrue bizi da,
bestean alargun pobre bat.
Bertan bizi da.
Martin Txopite bizi da.
Bertan bizi da.
Bautista Yurre bizi da bertan.
Pedro Goitia bizi da.
Joan Txopite bizi da.
Bertan bizi da.
Maria Unda, alarguna, pobrea, bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.

52.– Diego Elexondo.
53.– Josefa Urriola, alarguna.
54.– Juan Urrunaga.
55.– Maria Basterretxea.
56.– Domingo Etxebarria.
57.– Franzisko Aldaolea.

58.– Domingo Aulikiz.
59.– Franziska Ana Uriarte.
60.– Juan Basterretxea.
61.– Pedro Eskutasolo.
62.– Martin Txurruka.
63.– Juan Uribe.
64.– Andres Aiardi.
65.– Ana Marurirena
66.– Nikolas Zelaia.
67.– Franzisko Galdona.

68.– Nikolas Zelaia.
69.– Andonegi alargunarena.
70.– Juan Asterrika.
71.– Maria Brevilla.

72.– M. Mugartegirena.
73.– Bartolome Galdona.
74.– Luzia Renteria.
75.– Jazinto Alzaga.
76.– Domingo Gandiaga.
77.– Maria Iziar Larrea.
78.– Franzisko Aladaola.
79.– Iñazio Ansotegi.

Errenderi auzoa

80.– Juan Andonaegi.
81.– Madalena Basterretxea.

82.– Juan Andonaegi.
83.– Juan Andonaegi.

Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bakarrik biiz da. Alarguna da.
Magdalena Aranzibia alarguna bizi da.
Bertan Madalena Lanbota, alarguna bizi da.
Bertan bizi da.
Margarita Iturria alarguna bizi da.
Juan Arrasate, bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Alarguna. Bertan bizi da.
Ezkongaia. Bertan bizi da.
Alarguna. Bertan bizi da. Bai eta Tolentino Basterretxe, bere emazte eta familiagaz, Franzisko'ri laguntzen.
Franzisko Sasturri bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bakar batentzako etxea da, baiña bakarrik ez bizitearren bertan bizi dira Atanasio Agirre ta emaztea.
M. Basterretxea bizi da.
Domingo Sasturri bizi da.
Alarguna. Bertan bizi da.
Martin Arriaga bizi da.
Juan Urrunaga bizi da.
Alarguna. Bertan bizi da.
Esteban Txurruka bizi da.
Bertan bizi da.

Bere etxean bizi da.
Alarguna da. Bere suin Jose Bustinzuriagaz bizi da famili bat osotuaz.
Domingo Etxezarreta bizi da.
Domingo Bernabeitia bizi da.

84.– Martin Mugertegi.
85.– Juan Basterretxea.

Domingo Gerasolo bizi da.
Bertan bizi da.

Gorozika auzoa

86.– Pedro M. Albinagorta.
87.– Jose Ant. Laka.
88.– Lukas Olazarra.
89.– Juan Otxoa Brebilla.

Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Juan Albizuri bizi da.
Domingo Anakabe bizi da.

Eizmendia

90.– Juan Alzaga.
91.– Asensio Txakartegi.
92.– Ikaieta. Domingo Txopite.
93.– Jose Dgo. Sasturri.
94.– Jose Iñazio Asterrika.

Bertan bizi da.
Martin Aiardia bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Jose Makibar bizi da.

Erriko agintariak diñoe Ondarroako udalean ez dirala sartzen biztanle jau-beak baiño eta etxe bakoitzetik bat..

Eta zerga eta bestelako banaketak etxe eta bizilagunen arabera egiten dirala, geienetan fogera osokoz edo gitxiagokoz, erriko jaubetasunak laburrak diralako eta ez diralako ezetara eltzen. Eta biztanleena euren maastien jaubetasuna dala, aurtan lako uzta oneko urte baten 36 edo 40 upel txakolin emon leikezanak. Eta banaketa baten bakoitzari 358 errial eta 28 marau geratu leikioz.

Jaubeen etxe andi batzuk bakoitzak 6 errial ordaintzen dabez, eta orrek beartasun andia sortzen dau, bertan txiro edo ezeuki asko dagozalako. Eta bizi diran etxetxu askok ez daukelako zer emonik. Eta ori urrengo aukera baten ziurtatu al izango dabe zenbatzen etorri diran gizonak, ez dagolako etxe barri-rik egiteko itxaropenik.

1.704 urteko errolltze onetan, 94 etxe agertzen dira gure erriko lez.

Jaubetasunari buruz,

52 etxe jaubek etxe bakarra euken.

10'ek etxe biren jaubetasuna erakusten eben.


4'rek iru etxeena.

2'ek bakoitzak bost etxe eukezan.

Bizitokiei buruz esan bearreko da:

54 etxetan jaube berberak bizi zirala.

40 etxetan erreteruak.



Likona torrea.

1.746 URTEKO ETXE ERROLTZEA

Iraila'ren 5'an egin zan.

Tomas Angulo zan alkate eta epaikari, Antonio Urrunaga sindikoa eta Pedro Urrengoetxea, ziñegotzi. Eskribadua, Pedro Munoa.

Era onetan zenbatu ziran etxeak:

Jaubetasuna

1. Torrebarria, deiturakoa.
Jose Iturralde jaubea.
2. Domingo Burgoa'ren oñordekoena.
3. Iñazio Asterrika.
4. Sindikoarena.
5. Domingo Yurre'rena.
(Noiz jausiko dago)
6. Maria Iramategi. Alarguna.
7. Bernardo Arostegi, lizenziatua.
8. Santiago Zuazaga.
9. Jose Mugartegi.
10. Franzisko Egiguren.
11. Maria Josefa Aremaio.
12. Pedro Angel San Martin.
13. Jose Makibar. Ezkongai.
14. Pedro Angel San Martin.
15. Mikaela Ozerin. Alarguna.
16. Andres Sasturri.
17. Ana Aiardi. Alarguna.

Bertan bizi dana

- Jabier Lizaola, bizi.
Pedro Larrauri.
Franzisko Makibar.
Iñazio Urrestieta.
- Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Franzisko Aramayo bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Lorenzo Aresti bizi da.
Kosme Iramategi bizi.
Domingo Rokabado.
Bertan bizi da.
Pedro Basterretxea bizi.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.
Bertan bizi da.

- | | |
|---|---|
| 18. Manuel Urrunaga, abadea. | M ^a Antonia Egiguren, ezkongaiia. |
| 19. Tomas Angulo, alkatearena. | Jose Odria eta Jose Iturriaga bizi. |
| 20. Antonio Urrunaga sindikoarena. | Bertan bizi da. |
| 21. Juan Bta Iramategi | Bertan bizi da. |
| 22. Iñazio Asterrika. | Don Iñazio Joaristi eta don Jose Laka abadeak. |
| 23. Durangoko San Agustin Konbentuarena. | Juan Bta Yurre bizi da. |
| 24. Juan Bta. Iramategi'rena. | Baltasar Mendibelzua bizi da. |
| 25. Juan Armaolea. | Bertan bizi da. |
| 26. Franzisko Egiguren. | Bertan bizi da. |
| 27. Martin Maguregi. | Bertan bizi da. |
| 28. Ana Maria Elarrola. | Bertan bizi da. |
| 29. Franzisko Urriola'ren konkursokoa. | Pedro Txopite eta Iñazio Aresti bizi dira. |
| 30. Jose Ig. Bustinzuria. | Bernardo Oliden. |
| 31. Jose Urkiaga. | Bertan bizi da. |
| 32. Pedro Ant. Joaristi. | Juan Bta Zelaia bizi da. |
| 33. Tomas Urkiaga. | Bertan bizi da. |
| 34. Tomas Angulo, alkatearena. | Antonio Larrauna. |
| 35. Jabiera Anakabe. | Bertan bizi da bai eta Juan Uribe. |
| 36. Arana Uribe konkursokoa. | Andres Aranzamendi,
Ana M ^a Arriaga alarguna eta Arana berbera bizi dira. |
| 37. Franzisko Jabier Murga. | Tomas Urriola abadea bizi da. |
| 38. Aldaoleatarren konkursokoa. | Iñazio Sasturri bizi da. |
| 39. Tomas Angulo, alkatearena. | Bertan bizi da. |
| 40. Jose Etxebarria. | Bertan bizi da. |
| 41. Maria Oregi, ezkongaiia. | Pedro Etxebarria bizi da. |
| 42. Pedro Urriola. | Bere seme abadea bizi da. |
| 43. Pedro Urriola'rena | Beste bere seme abadea bizi da. |
| 44. Maria Elizondo, ezkongaiia | Bertan bizi da. |
| 45. Bartolome Etxaburu. | Bertan bizi da. |
| 46. Franziska Ant. Iriarte. Alarguna. | Bertan bizi da. |
| 47. Tomas Angulo, alkatea. | Jakobo Etxebarria bizi da. |
| 48. Ana M ^a Agirre, alarguna. | Bertan bizi da. |
| 49. Ana Aiardiarena. | Tomas Angizolea bizi da. |
| 50. Iñazio Leaegi. | Sebastian Eskutasolo bizi da. |
| 51. Ana M ^a Txopite, alarguna. | Bertan bizi da. |
| 52. Pedro Urkiaga. | Bertan bizi da. |
| 53. Pedro A. San Martin. | Ventura Goitia. |

- | | |
|--|---|
| 54. Martin Vega | Bertan bizi da. |
| 55. Sebastian Eskutasolo. | Martin Agirre bizi da. |
| 56. Josepha Maguregi. | Jose Larrinaga bizi da. |
| 57. Pedro Urkiaga. | Pedro Zuloaga. |
| 58. Josefa Maguregi, ezkongaiia. | Migel Zubillaga bizi da. |
| 59. Jabier Goitia. | Bertan bizi da. |
| 60. Jose Iturrino. | Klara Rementeria alarguna bizi da. |
| 61. Petra Maguregi, ezkongaiia. | Iñazio Zelaia bizi da. |
| 62. Domingo Urreta. | Ana Amallobieta, alarguna. |
| 63. Pedro Erkiaga. | Bertan bizi da. |
| 64. Pedro Angel San Martin. | Jose Egurrola, abadea. |
| 65. Klara Garizurieta. | Joakin Garramiola bizi da. |
| 66. Manuel Ansotegi. | Bertan bizi da. |
| 67. Esperanza Aiardia, ezkongaiia. | Bertan bizi da. |
| 68. Martin Aldaola. | Bertan bizi da. |
| 69. Nikolas Deustuete. | Jose Basterretxea bizi da. |
| 70. Katalina Agirre. | Martin Zelaia eta Antonio Lekue bizi dira. |
| 71. Ana M ^a Sasturri, alarguna. | Maria Ibarrolaza, beartsua. Etxea noiz jausiko. |
| 72. Nikolas Zelaia. | Bertan bizi da. |
| 73. Josefa Galdona, alarguna. | Silbestro Irarraga bizi da. |
| 74. Migel Agirre. | Bertan bizi da. |
| 75. Nikolas Zelaia. | Pedro Aresti bizi da. |
| 76. Pedro Makibar. | Bertan bizi da. |
| 77. Juan Antonio Arrasate. | Bertan bizi da. |
| 78. Migel Basterretxea. | Domingo Urkiaga bizi da. |
| 79. Tomas Angulo. alkatearena. | Martin Laka eta Jose Lekue bizi dira. |
| 80. M. Alza. | Domingo Yurreta bizi da. |
| 81. Jose Urkiaga. | Bertan bizi da. |
| 82. Rita Maguregi. | M ^a Arrasate bizi da, alarguna. |
| 83. Ana M. Eskutasolo, ezkongaiia. | Iñor ez da bizi. |
| 84. Juan J. Mugertegi. | Domingo Ibarrola, bizi da. |
| 85. Aparicio Iramategi. | Bertan bizi da. |
| 86. Diego Alegria. | Bernardo Lezaola bizi da. |
| 87. Andres Makibar. | Bertan bizi da. |
| 88. Errenteria deiturakoa.
Franzisko Jabier Murga'rena. | Pedro Urriola bizi da. |
| 89. Lengo berberarena. | Dionisio Egurrola bizi da. |
| 90. Jose Ig. Bustinzuria. | Bertan bizi da. |
| 91. Pedro A. San Martin. | Jose Barrenetxea bizi da. |

- | | |
|---|--|
| 92. Jose Ant. Mugartegi'rena. | Jose Usubiaga bizi da. |
| 93. Jose Iturrino. | Bertan bizi da. |
| 94. Goikomendia deiturakoa.
Iñazio Asterrika'rena. | Migel Badiola bizi da. |
| 95. Andres Sasturri. | Manuel Aranzamendi bizi da. |
| 96. Pedro Antonio Joaristi. | Bertan bizi da. |
| 97. Jose Gabiola. | Bertan bizi da. |
| 98. Jose Gabiola. | Iñazio. Abizenik ez dakie. |
| 99. Jose Gabiola. | Martin Lekue bizi da. |
| 100. Antonio Laka. | Bertan bizi da. |
| 101. Domingo Joaristi. | Bertan bizi da. |
| 102. Tomas Angulo, alkatearena. | Jose Isasi bizi da. |
| 103. Antiguako ermita. | Migel Basterretxea bizi da, errenta barik. |

Laburpena

Erroltze onetan ikusten danez, aldi aretan, Ondarroan 103 etxe zenbatzen zituen danetara.

Etxe jaubeak, danetara 73 zirala, era onetan banatzen ziran:

- 53 lagun ziran etxe bakar baten jaubeak.
- 15 lagunek etxe bi eukezan euren jabetasuneko.
- 3 lagun, iru etxeren jaube ziran bakoitza.
- 1 (batek) bost etxe eukazan bereak.
- 1 (batek) sei etxe eukazan.

Ain zuzen be sei etxeren jaube zana, au da, etxe jauberik ugariena zan erriko alkate.

Beste era baten, 44 famili bizi ziran euren jaubetasuneko etxean.
59 famili maizterrak, erreteruak ziran.

1.766 URTEKO MATXIÑADA

Ala deitu jakon 1.766 urtean, batez be Gipuzkoa eta Bizkaia'n sortu zan erriaren asarre eta jazarraldiari.

Jakiña danez erasoaldi a Esquilache ministroaren politikatik sortu zan. Ministro arek aleki, neurri eta abarrei buruz artutako erabagiak erriaren asarre bizia sortu eben Madrid'en eta andik zabaldu.

Euskalerrian Gipuzkoa'n asi zan, eta ain zuzen be Aizkoiti'n, alekien salneurria eta neurri barrien ezarketagaitik.

Azkoiti'n asi zan Apirilla'ren 14'an, eta andik Azpeiti'ra jo egun bi baiñolen.

Azpeiti'ko Udala estutu eben eta batzarra egitera beartu eta neurri barriak artzera mendetu, batez be gari eta artoaren salneurriei eta pixu eta neurriei buruz.

Azpeiti'ko Udalak agindu eutsen errietarrei eta auzo errietakoei Gipuzkoako Batzar Nagusietako lenengo batzarrera eroango ebela, Gipuzkoa guztirako erabagi orokorrak artzeko, batez be pixu guztiak bardindu, pattarra, olio eta bakallauarentzako lengo sariak, balióak eta neurriak zaintzera beartuaz. Orrez gain bai nekazari erriei egokiezan beste neurri batzuk be.

Lorpen ori ikusita beste erriak be gorakadan asi ziran, euren agintariei asmo bardiñak artu eragiteko. Eta milla lagun batuta Eibar'era urreratu ziran, ango Udalari erabagi bardiñak eskatzen.

Inguruko erri geiagotan zabaltzean, errietako aldrak asi ziran erriz erri eskari orreik zabaltzen eta Motriku izan zan zarata, gogorkeri eta indarkeri leku, Motriku'n eleiz-gizonekaz be asarratu ziran eta eleizetako zerbitzu eta gorabere-tazko ainbat konponketa izenpetu eragin.

Motriku'n artutako erabagiak izan ziran beste errietako eredu.

Azkoiti eta Azpeiti'n, algarada sortu zan lenengo erri bietan atxikadurarik (errepresiorik) egon ez ba zan be asierako egunetan, gero errietara zabaltzean garraztu ziran gauzak. Eta erri areitan be ainbat baitutako gertatu.

Elgoibar eta Motriku'tik euren auzo errietara zabaldu ziran: Markiña eta Ondarroa'ra.

Erri bi oneik, Berriatu tartean zala, izan ziran Bizkai'ko beste errietara zabaldu nai izan ebenak, baiña Markiña'tik Ondarroa'ra burukideren batek bialdutako karta bat arrapatu eben eta karta orrek, gero, eragin andia euki eban egunetara errietan egin ziran baituretan.

Laster urten eben Bilbao'tik, Gipuzkoa'n gertatua ikusi ondoren, gertuta eukezan "bake-miliziak", eta orreik lortu eben Bizkaia'n jokabide orreri indarra ebagi eta nugatzea.

MATXIÑADAKO ITUNAK

Askok idatzi izan dabe Matxiñadako itunei eta erabagiei buruz. Baiña zeaztasun barik.

Bear ba da bere garaian egongo zan agintarien aldeko alegiñen bat "pasa-ko" erasoaldi lez, zabaltasunik ez emoteko.

1.933 urteko Yakintza aldizkarian Gipuzkoako kondaira azterle izan zan Gurrutxaga'ren lan baten au esaten zan: "*Zoritxarrez ez dira ezagutzen matxiñada aretako itunak. Camino doktoreak Motriku'koei buruz diño andik igarri leikezala Azpeitia'ko itunak*"

Geroago jakingo da Elgoibar'ko batzorde batek batu zitula Motrikokuak eta batzorde orrek eroan zitula Bergara'ra ango Udalaka onartu egiezan. Eta Bergara'k, bildurraren bildurrez, ba ekialako 300 gizon armatu baiño geiago Elgoibar eta Mendaro ibarrekoen artean batutakoak Soraluze'n egozala Bergara'ra asarre sartu eta indarrez euren onartzea lortu eragiteko, gizon armatuak eldu baiño len amaitu ebala baieztatzea.

Orrela esaten da Bergara'ko Erabagietako Liburuan (7 Paper txorta, 8 orrian).

Ara, an esaten dan lez, Itun orrein 24 atalen agiria:

Motriku udaletxeko batzar etxean, 1.766 urteko Apirillaren 18'an, Eskribadu onen aurrean, erri onetako Zuzentza eta Errexidoreen artean batetik, eta alekien gorakada bitarte Elgoibar'tik asarre etorri ziran ango bizilagun batzuk bestetik, jarraiko ataletan zeaztu eta esaten diranak onartu ziran:

1.- Asierako, gaur asi eta aurrerantzean gari anega, belloiko ogetasei errealetan saldua izan daitela, eta ogia salneurri orren araberan, eta arto anega diru bardiñeko amabost errealetan, dana betirako.

2.- Errenteru batek bere lurretan errenta dan aiña ordainketarako garirik

ez ba dau, daukazan anegakin bakarrik ordaindu dagiala errenta ori anega bakoitza 22 errealetan baliatuta. Orrez gain erabagi eben erriaren mesedean oraiñarte dagozan neurri guztiak, egon leikezanak galdu eragin eta barriak egitea, eta danak izan daitezala antxiñako neurrikoak, eta ziurtatzen ba da iñok oraingo neurriak erabilten dauzala, ogei dukateko isuna ezarri eta geratzen jakon alekien erdia galdu dagiala.

3.– Asikiñak Udalak banatu dagiazala saltzera atara barik, eta banatzeko aukeratzen danari euneko amar ordaindu dagiozala.

4.– Era berean aurrerantzean uri onetako gaztañadien frutua bertako auzokide eta bizilagunen artean banatzeko, frutu guztia euren kontura batuaz, eta gizon bi aukeratu dagiazala udalak agindu dagien zelan batu eta banatu, euren lana ordainduaz.

5.– Emendik aurrera ez ordaintzeko gaztañaren amarrenik, ez udalarenik ez eta bese jaubeenik, baiña asikiña bai.

6.– Gariaren amarrenaren ordainketa egitean, baliotik kentzeko ereindakoaren balioa, eta ez dagiela amarrenik ordaindu txarriekaitik.

7.– Auntzak askatasunez bazkatu dagiela udal eta jaubeen mendietan.

8.– Portu onetara txaluparen bat edo batzuk alekiekaz sartu ezkerro, bear daben laguntza emoteko, bai eta be bertan geratzeko baimena emon gura daben egunetan.

9.– Iñungo abade edo izateko dagonak ez dagiazala euki Kapellani bi baiño geiago, eta orain daukezanak, bitik gorakoak itxi dagiezala ez daukenei.

10.– Medikuaren errenta ordaindu al izateko Urian eta bere inguruan eskatzen dan sisa kentzeko eta areri erriak ordaindu dagiola bere alogera, kontuan eukiaz iñoiz be ez dala sisarik eskatu bear.

11.– Mendaro'ko ibarrean iñor ez ba dago txakolin azumbrea ogei lauokotan saldu nai dabenik, erritarrak aukera euki dagiela toki orretakoak atsegin daben ardauazko taberna bi ipinteko.

12.– Auzolanean egin bearreko bide konponketetarako bizilagun eta auzokide guztiei deitzeko, baiña ez bigarrenez, danak euren txanda bete aurretik, eta pioi eta itzaiñei oiturazko diran erraziñoiak emoteko.

13.– Gure Jauna eleizakoak erotean igaro bearro dauan erreka andi guztietan zubiak egin daitezala, eta erreka oneik egalak erri ezbarditienak ba dira, bien artean egin dagiezala.

14.– Salbau anega ezin saldu izango dala ogeita amabi kuarto baiño gorago; arrautza bakoitza marau bi; esne azumbrea, Maiatzetik Uztail azkenerarte 6 kuartutan eta beste illetan zortzi kuartotan.

15.– Prebosteari ez ordaintzeko baserrietarako ostera bakoitzagaitik erreal bi baiño geiago eta erreal bat espetxe-sari lez.

16.– Idiak erabilten diran laboreetan idizaiñei, euren kontura jaten ba dabe, zortzi erreal ordaintzeko, eta ugazabaren kontura jan ezkerro bost erreal

eta erdi, eta erri-mutillei zortzi erreal eta kuartillo bat arda, antxiñako usario lez.

17.— *Sutondo (fogera) bakoitzari urteko iru egur karga emoteko sukalderako, Begiraleak aukeratuta, eta geiago bear dabenak orain arte lez ordaindu dagiela, baiña ez iru kargak.*

18.— *Iñor ez daitela sartu egurretan iñoren lekuan eta ala egin ezker sartualdi bakoitzeko amabost erreal ordaindu dagiazala, eta bardin orria egin bear dabenak.*

19.— *Erri barruan bizilagun bakoitzak txal bat euki leikela, baiña kalterik egin ezker jaubeak ordaindu dagiala.*

20.— *Ollo bakoitzak iru erreal balio dagiala eta kapoiak lau; bedarra egiteko kaltea ez daitela aztertu ebagite batetik bestera ezik, eta azterketa karga bakoitzeko iru erreal ordaindu, eta ez geiagorik.*

21.— *Esandako guztiaren egiaztatzea Batzar Nagusiei eskatzeko, eta Alondika eta Burdiñoletako pixuak bardiñak izan daitezala kalteak egiten diralako gaur euren artean igarten dan aldeagaz.*

22.— *Solo bakoitzeko jaube edo errenteruak bear lez itxi dagiezala, bestela ez dagitsela ordaindu abereak egin leiken kalterik.*

23.— *Uri onetako nasara elduten diran españar txalopak ez dagiela ordaindu ezelako eskubiderik.*

24.— *Uri onetara beste lagunak gaurko eldu ezik eta euren aurrean agertu ez, Alkateari eskatzen dautse Txurruka'ren kontura ostatueta jan dagiela, eta ala eldu ezik zortzi, amar edo amabi lagun geratuko dirala bertan.*

Eta orrelaxe erabagi eta agindu eben eta izenpetu Uriko Batzarreko Zuzendaritza eta Errexidoreak: Migel Franzisko Dominguez jauna.— Franzisko Antonio Andonegi.— Ramon Sustaeta.— Pablo Franzisko Aristondo.— Manuel Antonio Zuazola.— Antonio Migel Azinola.— Juan Bautista Andonegi.— Juan Jose Azinola jauna.— Antonio Jose Agirre jauna.— Jose Agustin Osoro jauna.— Juan Antonio Segura jauna.— Antonio Jabier Gainza jauna.— Agustin Gaiza jauna.— Juan Antonio Iturriza jauna.— Gustin Franzisko Etxeberria jauna.— Migel Prudencio Sustaeta jauna.— Ramon Izagirre jauna.— Antonio Ventura Agirre.— Franzisko Txurruka.— Nire aurrean: Juan Bautista Arriola.

(A. Ventura Agirre jauna Elgoibar'ko matxinoen buru zan, Gregorio Agirre errexidorearen semea.)

Postdata.— Bikario jaunak emendik aurrera ezin kobratu al izango dabela ezer ardularitzako eskubide ordez eta beti doan egin dagiala, bardin beartsuei eta aberatsei, eta ezkontzako deiakaitik eta joatearren ez dagiala kobratu belloiko zortzi erreal baiño geiago, bardin Urian eta baserrietan, eta ilten dagozanei lagun egin dagiela abade-laguntzailleak euren beartasuneko diran baserrietan, asteka edo ta edozein ordutan, egunez izan nai gabez, eta batzuk eta besteak bete dagiela zeregin ori, egin ezik amar milla marauko zigorra ezarriaz bakoitzari eta bakoitzeko.

Izenpetuta: Juan Jose Azinola jauna- Miguel Franzisko Dominguez jauna-
Nire aurrean: Juan Bautista Arriola.

GARI JAUBETZE ETA ONDORENAK

Ondarroa'ko paperetan ikusten danez, Apirilla'ren 26'an eta ondorengoe-
tan alegindu ziran erritar batzuk Udaleko gordeleketan egoan garia banatu eta
etxeratzen.

Ekarrita egoan garia "probintzia"tik ekarria zan. Aldi aretan bizkaitarren-
tzat "probintzia" Gipuzkoa zan, berbetako eran. Amairu zelemindun anega
nausiko neurrikoa zan, 40 errealetakoa, baiña egun areitako kale-algarak eta
erriaren iraultza bide, 26 errealetan saltzera atara eben.

Okiñen artean zabaldu zan talde bat eta gaiñerakoa erritarren artean, diru-
dienez, "al ebanak al ebana".

Ez eban asko iraun jaubetu ziranen pozak.

Laster ziran agindu eta pregoiak garia eroan ebanak zin-pean autortu bear
ebela zenbat eroan, eta zer egin eben, eta 40 errealetan ordaindu.

Eta erri onetako sindikoa zan Franzisko Eguiguren'ek agiri au egin eutsen
agintariei:

"Francisco de Eguiguren, síndico Pror general de esta villa de Ondarroa co-
mo mas ai lugar ante Vm paresco y digo que las personas contenidas en este me-
morial con Juramento y en forma presento, el dia veinte y seis de Abril último
pasado y en los siguientes llevaron del trigo que esta Villa tenía enposito las fa-
negas que constan en dcha memoria aprecio de veinte y seis rrs fanega maior de
trece Zelemines y aunque tenía de coste y costo quarenta rs cada fanega, por en-
tonces serbí de dar a dchos veinte y seis rs a causa del tumulto y demás estorcio-
nes que causo en esta villa la gente que se introdujo en ella desde la Provincia co-
mo es Notorio; y aunque los trigos que llevaron al citado precio de veinte y seis
las Panaderas de esta villa y se repartieron ella no deven susanar la Diferencia re-
ferida desde veinte y seis asta quarenta y tres, pero sí todas las demás Personas
que llevaron y consumieron en sus propias familias a causa de que la Villa como
menora no debe quedar perjudicada en manera alguna, atento alo qual=

Suplico a Vmd que aviendo por presentado este memorial mande que todas
las Personas en el contenidas declaren bajo Juramento la Cantidad del pan y
trigo que repartieraon en el citado tiempo al Comun de la Villa y lo que consu-
mieron y gastaron en sus familias propias y lo de esta Ultima Cantidad paquen
a respeto de quarenta y tres rrs y a ello sean apremiados por benta y Renta de
sus bienes, pues a así procede en Justicia la que pido con las Comiciones Nece-
sarias. Juro y para ello D C^a

Francisco de Eguiguren.

Eta idazki onegaz batean garia eroan ebenen zerrenda dua.

Txosten oneri bereala erantzun eutsen, esanez aipatutako pertsonak zinpean autortu dagiela zenbat gari eroan eta zenbat bakotxaren etxean jan. Eta etxean kendu ebena berrogei errealetan ordaindu dagiela, eta erriari banatu eutsena ogetasei erraletan. Eta agindu au iru egun baiño lenago beteteko, eta orretara egin ezik zemaitu euren ondasunak saldu edo enkantera ataratera. Eta orretarako bear añaño eskubideak emoten jakezala erriko udalzaiñari, eta Alkate eta Epaikariari.

Txosten au Uztaillaren 30'ean egiña da eta Domingo Urkiaga'k izenpetuta, Migel Ibarlucea eskribaduaren aurrean.

Matxiñadako nasteen ondorenez, garia neurri andietan eta ogeta sei errealetan eroan ebenen zerrenda.

Izenak	Anegak
Peleciana	4
J. Bta Etxebarria	3
Iñazio Bega	3
Klara Antonia Iturriaga	2
Balzola	5
Ind. Ibaseta	1
Bartolome Aldasolo	0 1/2
Margarita Armaolea	2
Orounza'koak	2
Mariana Laka Urkiaga	3
Theresa Zuazaga	3
Joseph Urkiaga	2
Agustina Dostuate	3
Cathalina Lezaola	1 1/2
Theresa Iturriaga	2
Antonio Launeta	4
Maria Armaolea	5
Isabel Lezaola	1
Benita Urzaga	2
Franco Celaia	3
Iramategiko Seberok	1
Ana Aranzamendi	0 1/2
Franco Lekube	1
Uso	0 1/2
Joseph Larraiñaga	0 1/2
Rucabado	0 1/2

Juana Irigoien	2
Clara Arrube	3
Mariana Gabiola	1
Ana M. Kataegi	1
Daniela Burgoa	0 1/2
J. Iñazio Juaristi	3
Joakin Garramiola	3
Angela Galdona	3
Agustin Aranzamendi	2
Joseph Gabiola	1
M ^a Ant. Lezaola	1
Luzia Zelaia	1
Maria Egiguren	0 1/2
Clara Laka	0 3/4
Manuela Bakariza	1
Marcos Mugertegi	2
Isabel Lekube	2 1/2
Bengoetxea	1
Domingo Angisolea	0 1/2
Bapta Arriola	1
Antigua	1
Juan Egiguren	0 3/4
Joseph Iturrino	1
Meltxor Ulazia	1
Utxupil	0 1/2
Atxaondokua	0 1/2
Margarita Sasturri	1
Urkiaga Juamongua	0 3/4
Larrauri nausia	0 1/2
Daniela Sasturri	0 1/2
A. Areisti	0 1/2
Ana M ^a Goitia	2
Cartme Etxaburua	1 1/4
Patxi Galdua	1
Munabe, Sustaetarentzat	1
Joseph Urriola	2
Goimendikua	2
Iramategikua	1
Urrestieta	1
Jakobe Etxebarria	0 1/2
Agustin Mugerza	1

Antonio Alegria	2
Mariana Makibar	4 1/2
Silbestro Iramategi	1
Ubillakua	1
Franco Anzuriza	1
Domingo Aramaio	0 1/2
Baraikua	0 1/2
Anbrosio Alegria	1
Agirre	0 1/2
Agustin Urkiaga	1
Mariana Aranzamendi	0 1/2
Franziska Iturriaga	1
Olabetxu	1
Pabla Aramaio	0 1/2
Ind. Uribe	0 1/2
Urrunaga	0 3/4
Josepha Mendibelzua	1
Bere serbitsariak	0 1/2
Rosa Atxurra	1
Kosme Iramategi	0 1/2
Juan Bta Iramategi	3 1/2

Guztira	133 1/4
---------	---------

Guzti oneik laster artu zituen salaketak, eta laster agertu euren erantzunak. Batzuk zati bat etxean janarren, beste zati bat erriari saldu eutsela esaten eben.

Besteren batek Sindikoari biurtu eutsala.

Egon zan berak ainbesterik eroan ez ebela ziurtatu ebana be.

Bakar batek, berak ez ebala ordainduko erantzun eban.

Azken baten 43 erreal ordez, geienean autortzetan erriari banatu edo emon eutsala esaten eben, au da "al común", eta orrela 26 erreal ordaindu ebenaz kit-tatzen eben.

Jokabide onek bete jarraipena euki eban, orrelakoetan oi dan lez, agintarien etxikiduran.

Dirudianez "matxiñadako" agindu eta erabagiak, bertan bera galdu ziran laster.

FRANTZETARREN ERASOA

XVIIIgarren gizaldiaren azkenetan, bildur ikaragarria egoan Bizkaiko errietan eta batez be gure errian.

Asiak ziran itxas aldetakoak gerra ontziak euren aurrera urreratzen igarten, batzutan ikustaldi antzera, bestetan inguruen zaindari.

Erririk txikienak be gerra giroa ziurtatu egiten eben, agintarien deien eta aginduen bitartez, erri sarrerak zaindu, gazte eta armak erabili eikezan adiñe-koen artean, 18'tik 60 urte bitartekoetan, armen erabilera erakutsi, armak emon eta gertuketak egiten.

1.793 urtean Korrexidore barri bat bialdu eben Bizkaira, gerra kapitan lez gaiñera. Bizkaitar itxura txarreko.

Bizkai'ko Batzar Nagusiak ez eutsen onespenik emon. Ori, gure ordezkari eta aldunen ustez, Jaurreriaren eta Aldundiaren aginte eta foruen aurka edo gaiñetik etorran.

Batzarrak, Otsaillean, gerra giroko gaiak aztertu eta erabili zituen, kañoi sutauts eta abar erosteak bear bearrezkoak zala, estu ta larri.

Ba egoan fusillen erosi bearra be. Amar milla bear ziran, baiña erosketa au errien konturakoa zan, edota ondasun oneko etxeek eurei egokiena euren kontura erosi bear eben.

Frantzetarren bildurra gero eta larriago eta zabalago zan. Gaiñera frantzetar asko bizi ziran emen eta ori be ez zan atsegin.

Emon ziran aginduak beteteko, erri bakoitzak 50 laguneko gudari taldea eratu bear eban, bakoitzak bere pikua eroiala. Eta domeka eta jaietan, oiturazko ziran kirol, joko eta abar armak erabilteko ikasketa saioekaz aldatzen ziran.

Ondarru lako itxas-erri eta itxas ertzean egozan ainbat muturretan talaiak gertu ziran eta euretan zaindariak ipini.

Erri bakoitzari iragarri jakon nora zuzendu lenengo dei larrian. Ondarroa'ra, esateko, Berriatu, Xemein, Markina, Ermu eta Etxebarrikoak etorri bear ziran edota emen batu.

Itxas-ertzeko errietan bizi ziran frantzetarrei, beste tokietara joateko agindu jakoen, baiña zenbat eta orrelako erabagi geiago artu, itxasertz inguruan frantzetar txalupa geiago ikusten ziran.

Orren aurka jokatzeko, egozan txalupa, patatxe eta era guztietako ontziak gertu eukiteko agindu zan.

Portu-erri bakoitzari bere gizonen ainbateko bat eskatu jakon Armadarako bear ziran bosteun gizon batzeko. Ondarroa'tik 43 gizon aukeratu eta eskeiñi bear ziran.

Gerra zemaia ta mezua

Frantzia'ko Batzar Nagusiak gerra mezua bialdu eutsan España'ri 1.794'ko Martiaren 7'an.

Onek larritasun geiago sortu eban Bizkaia'n.

Laster ezagutu zan gure itxas-aurrean, geldirik barik batetik besterako osterek egiten "Consolación" itxasontzia, Bilbao'ko Kontsuladukoak armatutakoa. Baiña ez eban egun asko iraun bere zeregiñetan. Frantzetar fragata batek atxilotu eban. Bizkaitarren berakaldia jasoteko, bilbotarrak zur ibili ziran eta laster ipini eben bere ordeko bergantin bat, 8 kañoiduna.

Apirillean kañoi otsak entzun ziran itxas-ertzean.

Estanislao Labayru'k, bere Bizkai'ko Kondairan au diño:

"Batzar Nagusiak Gernikan batuta egozala, kañoi otsak entzun ziran, Elantxobe, Mundaka edo Bermeo aldetik, eta bereala urten zan batzartuta egoan Erramun Gazitua gudalburua, bere lagun bigaz, ze gertatzen etc zan jakitera.

Ogoño gaiñera eldu ziranean, talaixeruak esan eutsen iru guda ontzi agertu zirala eta bergantin bat, eta arrantzan ebiltzan txalopei su egiten asi zirala.

Ondarroako alkatearen esanetan, iru itxasontzi andiak 40 kañoidun gudaontziak ziran eta bergantiñak 22 edo 24 kañoi erabillazan, eta bereala asi ziran arrantza txalopen aurka, eta oneitako batzuk erdi ondatuta edo ta egoera txarrean iges egin eben, eta lenengo eraso aldi onetan, danak lortu eben portuetara sartzea. Baiña itxas-errietako bizilagunak ikaratuta egozan, errien muturretaraiño urreratzen ziralako.

Origaitik Batzarrak erabagi eben premiña egoan tokietara ainbat joatea, aurrez Korrexidoreari euren asarrea agertuaz. Baiña au ez zan urreratzen Batzarrak ospatzen ziran tokietara, eskubide eta beste gauzetan eskabide larregi egiñaz.

Abustuaren lenengotan Ondarribia menderatzea ta makurtzea lortu eben frantzetarrek. Iru egun geroago Donostia.

Labayru'ren esanetan, Frantzetarrak Ondarroa'tik zear Bizkaia'n sartu nai ebela jakin zan, eta illaren 13'an, Busturi, Jemein, Markiña, Etxebarria, Zior-tza, Ereño, Gerrikaitz, Nabarniz, Murelaga, Arbazegi, Amoroto eta Gizaburua-ga'ko gudari taldeak inguru onetara zuzentzeko agindu zan.

Gerra arduradunak Ondarroa eta Ermua bitarteko lurraldea arakatu eben, baiña beranduegi zan. Frantzetarrak erabagita eukelako ortik zear aurreraka etortea eta emen oraindik ez egoan kañoirik ipinita, ez eta mendietako trintxe-rarik be, arerioari aurre egin edo oztopoak jarteko.

Bizkai mugetara elduta egozan frantzetarrak, baiña oraindik Bizkai'ko erri-rik zemaituena zan Ondarroa artu barik.

Abustuaren 22'an agindua emon zan errietako tertzioak bertara batzeko, eta 23'an eldu ziran Arratzu, Axangiz, Mendata, Gautezubi, Lumo, Foru, Murueta eta Gernikakoak eta urrengo egunean, domekaz, Errigoiti, Liba-no, Morga, Muxika, Fika, Fruniz, Meñaka eta Gamizkoak; eta 25'ean, astele-nez, Mungia, Gatika, Maruri, Erandio, Leioa, Loiu eta Sondikakoak.

Gizatalde onein arduradun Benito Ansotegi markiñarra zan, eta bere kon-turako zan gizonei emon bearrezkoa ordaintzea.

Sarraldi eguna

Azkenera be eldu zan sarraldi (inbasiño) eguna.

Illaren 28'an, frantzetarrak Itziar gaiñean egozan, eta itxasertz alboa laga-ta, Santa Kutz mendira jo eben eta andik Gorozika auzotik zear Berriatu'ra.

Orrela gure erria, inguruko mendietatik, euren mende eukitea lortuko eben.

Ondarroa'n egozan gudarien nausiak, kezkatuta, gudariei agindu eutsen Lekeitio alderantz atzeratzen ekiteko, Arteta, Zezermendi eta Mendexa'tik zear.

Asiera baten frantzetarrak Berriatu'n eskutatu ziran. Eta andik Kalamen-di'ra urten eutsen bizkaitar gudariei, baiña emen burruka apur bat egiñarren, ezin izan eben bertakoak luzaro eutsi, lerkariak eta tirogaiak eta guda-orniak Ondarroa'n itxi zituelako bertatik ezin atarata.

Oneri buruz Aldundiko paperetan irakurten da: "Pedro Butron jauna Onda-rroa'n geratu zan azken ordurarte, gerrako tresna eta arma txiki ta andiak eta euren gailluak zaindu nairik; eta burdian ipinteko agindu eta ala lortu ba eban be, orrela atarako ziralakoan, arerioak ez eutsan orretarako aztirik emon, eta azken baten txaraka, lartza eta auzoko baserrietako tresneri artean eskutatu zi-tuen.

Labayru'k bere Kondairan diño Abustuaren 28'an sartu zala arerioa Onda-rroa'n, bere goi-aldeak artu eta 700 gizon Gorozika'tik zear Berriatu'ra bial-duaz. Eta Ondarroa zaintzen egozan gudariak, inguratuta ez geratzearren, arri-

ku ori egoalako, Eiguren eta Mendexa aldera urteteko agindua artu ebela Lekeitio zaindu al izateko. Eta arerioak illaren 30' ean urten ebela Ondarroa'tik.

Egun oneitan egon ziran sute ta erasoaldietan sei (6) bizkaitar il ziran, iru (3) zauritu eta euren artean ofizial bat.

Erri guztia erre eben, parrokia eta Antigua'ko ermita ezik. Al izan eben guztia ostu edo lapurtu eben, parrokian be; andrak izorratu zituen. Berriatu'n bederatzi (9) etxe erre eta Ondarroa'tik urtetean ogei (20) gizon eroan ebezan eurekaz, baituta, preso.

Geroago Ondarroa, Ermua eta Berriatua'ko suteen kalteak zeaztu ziranean, ikusi zan Ondarroa'n eun eta bi (102) zirala erretako etxeak, Ermua'n 76 (iru-rogei ta amasei) eta Berriatua'n amabi (12).

Ez zan laguntasun andirik edo berezirik egon kaltetuentzat.

Bein Aldundiak erabagi eban kalteen orde z ordaindu bearko zan dirutza urtero jakin arazteko.

Aldi aretan, Jaurerriak okelaren Bula ordaintzen eban, eta dirutza ori kaltetutako erriei laguntzen eralgitea pentsatu zan. Eta Bizkai'ko Batzarrak erabagi eben iru erriak Jaurerriari ordaindu bear eutsenetik askatu edo libre lagatea.

Zegaitik izan zan Ondarroa'ren aurkako erasoa?

Onetan geienak bat datoz Guiard'ek esan ebanera. Au da, Teofilo Guiard'en esanetan, Mutriku eta Deba'ko portuetan frantzetarrak sartuta egozala, ondarrutarrak arako joaldiak egiten zituen eta Mutriku'tik gerrarako izkillu (arma) eta garia ostu eutsezan eta arutzagotik, Deba'tik, an egozan bergantin bi.

Ori izan zan, bere ustez, frantzetarraren asarreraen biztugarria.

Ba dira onetan diñoenak, Deba'tik koñak barrika batzuk ostu eutsezala eta ondarrutarrak pattar ori Errenderi auzoan eskutatuta euki ebela.

Kaltetuak

Onelakoetan, zer esanak aoa neurri izaten dira.

Baiña denborak igaroz, errezago zeaztuten dira goraberek eta guk papere-tatik jasoko doguz erasoak euki zituenen izenak.

Juan Antonio Bizente Angulo. Parrokiko abade laguntzaillea zan. Frantzetarrendik igesi ioiala, Mendexa inguruan biotzak ler egin eta il zan. Mendexa'n bertan emon eutsen lurra. (Ondarroa'ko parrokiko Illen V garren liburuan, 55 orrialdean).

Antonio Alegria Manuela Badiola'ren senarra. Antonio au be, liburu berteko 55 orrialdearen atzean esaten danez, frantzetarrak il eben.

Baltasar Etxea Teresa Ibero'ren senarra zan. Gorozika'ko Jon deunaren ermitan emon eutsen lurra, frantzetarren bildurrez, parrokiara ekarri ezin izan zalako. Beragaz zitalkeri asko egin eta zauri ugari eragin ondoren, martiri lez, ezelako sakramenturik artu barik il zan. 65 urte eukazan. (Illen V garren liburuan, 55 orrialdearen atzean)

Eta beste ogei gizonak?

Urte bete igaro ondoren, esandako parrokiako Illen liburu berbertan agertzen dira euretariko amarren eriotz agiriak.

Ara zeintzuk eta nun ilda lez agertzen diran:

Gramá'ko espetxean, presondegian:

Argoitia, Manuel. – 59 urteduna, ezkondua.

Ibarrolaza, Jose – 48 urteduna, ezkondua.

Mendizabal, Jose Antonio- 64 urteduna, ezkondua.

Arrizubieta, Iñazio – 67 urteduna, ezkondua.

Retolaza, Jose – 40 urteduna, ezkondua.

Ituarte, Juan Bta. – 62 urteduna, ezkondua.

Ibarrolaza, Ramon – 56 urteduna, ezkondua.

Saint Seren'go espetxean:

Iramategi, Juan Bautista – 56 urteduna, ezkondua.

Aranbarria, Franzisko – 51 urteduna, ezkondua.

Quimper'eko presondegian

Badiola, Mateo – 22 urteduna, ezkongaiá.

Etxeen egoera

Ondamendi bat gertatzen danean erraz esaten da, dana ondatua, erreta, beia jota geratu dala, nai ta gero, egunetara gauzak arindu edo beruna kendu bearra egon, itxuratu eta lenengo irizpideak aunditasuna edo indarra galdu.

Orrelakorik gertatu ete zan Ondarroa'n?

Gernika'ko Artxiboan ba dago andik urte bira, 1.796'ko Abustuaren 10 eta 11 egunetan aztertutako etxeen egoerari buruzko agiri bat.

“Razon de las Casas yermadas por los franceses en la última guerra que están reedificándose en la villa de Ondarroa y numeración de las que pudieron salvarse y todo se hizo en 10 y 11 de Agosto de 1.976, con avivencia de su señor Alcalde.”

Ara agerbide orretan irakurten diran zeaztasunak:

Kaleandi

Jose Iñazio Egiguren, parroikiko bikarioa bizi dan etxea. Bera da jaubea. Lau zati daukaz, frantzetarrak erreta, oraindik barriztatzea amaitu barik.

Zatietako bi, oraindik banaketa be egin barik, Bikario berberak erabilten dauz eta era bardiñean dagozan beste biak Mari Ana Aranzamendi eta Juan Bta Urriolabeitia'k darabillez.

* Bera joten dagon beste etxea Jose Lorenzo Egiguren'ena da. Barriztatzen dabiltz, eta gela bat gertua dauka eta bestea banaketarik egin barik. Bertan bizi dira esandako jauna eta beste famili batzuk.

* Beste bat, barriztatze lanetan au be, Migel Antonio Goitia, oraingo alkatearena da, zabalik eta barriztatze barik egonarren, famili batzuk bertan bizi dira.

* Beste bat, Maria Bautista Garaizabal alargunarena da, eta oraindik banaketa egin barik, baiña famili batzuk bizi dira.

* Beste bat, len labea egoana, Maria Bautista berberarena da, au be oraindik banatu barik dago, baiña famili batzuk bizi dira bertan.

* Beste bat, Etxe aundia deiturakoa, Jose Antonio Etxebarria'rena, goi aldean lau zati daukaz, euretari bitan familiak bizi dira eta besteak utsik oraindik lanak amaitu barik.

* Bera joten dagon beste bat J.A. Etxebarria berberarenak gela bi beteta daukaz, nai ta banaketa barik egon, baiña bizi lagunak sartuta.

* Beste bat, Jose Antonio Bengoetxea'rena, lau etxeoinduna, baiña oraindik tellatua besterik egin barik, barriztatze lanetan.

* Beste bat, Juan Bautista Mendibeltzua'rena, iru etxeoinduna da, euretako bi amaituta eta bizi lagunak sartuta, eta irugarrena oraindik lanetan.

* Beste bat, Mateo Ansorregi'rena. Bera bizi da bertan, nai eta orma nau-sien artean ezelako banaketarik euki ez, tellatua besterik.

* Beste bat, Jose Aulestia'rena. Barriztatze lanetan. Etxe bizitza bi daukaz, bat bera bizi dana eta bestea utsik, eta ganbaran erreteru bat bizi da.

* Beste bat, Jose Egurrola'rena, frantzetarrak su emonarren ez zan erre. Bizileku bi daukaz, baten bera bizi da eta bestean Gabriela Josefa Lekue, ezkongai.

Erribera kalea

Domingo Gandiaga'ren etxetxua da eta tejabana txikia da, Torrebarrian berak erabilteko.

* Beste bat, erriarena eta Jose Goitia'k erabilten daben ostata da.

* Beste bat, Franzisko Aranzamendi'rena. Etxearen berengoa dauka bakarririk bizilagunekaz.

* Beste bat, Maria Jesus Iramategi, alargunarena. Bera bizi da.

* Beste bat, Jose Iñazio Aresti'rena. Berengo zati biak bakarrik zabalik eta tellatuduna.

* Eskabetxeria egiteko kabana, Arrantzialien Kofradiarena da, eta ez dauka bizilagunik, bizilekurik be ez.

* Beste bat, Maria Jesus Iramategi'rena, barriztatze lanetan, baiña oraindik tellatua bete barik. Alaz eta be famili bi bizi dira bertan.

* Beste bat, Agustina Iramategi alargunarena, etxe bitzta bi daukaz, baiña iru famili bizi dira.

* Beste bat, bere alboan, esandako Agustina berberarena da, eta bere anai batek erabilten dau su egiteko.

Goiko kalean

Manuel Antonio Murga'rena da. Tellatua dauka bakarrik, baiña ba dabiltz barriztatzen. Utsik dago.

* Beste bat, Ana Bautista Angulo'rena, egoera bardiñean dago eta oraindik utsik.

* Beste bat, Juan Bautista Arriola'rena, barriztatzen, baiña amaitu barik egonarren, bera bizi da bertan.

* Ateguren etxe barria, Migel Antonio Goitia alkate berberarena, tellatua eukiarren, oraindik barriztatze lanetan eta utsik.

* Beste bat, Gabriel Urrutia'ren jaubetasunekoa, barriztatzen.

* Beste bat, Tomas Urkiaga'rena, frantzetarren sutetik osorik gelditu zana. Berengo etxeoiñean famili batzuk bizi dira.

Iparkalean

Pedro Urreta, il zanaren ardurapeko etxea da. Frantzetarren sutetik osorik gelditu zan.

* Beste bat, Tiburzio Ostolaza'rena. Barriztatzen diardue.

* Beste bat, Katalin Basterretxea'rena. Au be barriztatzen diardue.

Orreik dira esandako zerrendan agertzen diran etxe eta jakingarriak.

Sutetik urte bira ainbeste etxe oraindik barriztatze lanetan jarduteak, ez ete dau adierazten alako utsune baten, jende asko inguruko korta eta soloetako txaboletara lotara joaten zirala jakinda, bitarte orretan beste asko be zela-ala konpondu edo egokituko zirala bizilagunak artzeko eran?

Orrela ezin ukatu frantzetarren zigorra benetan zigor gogor, zital eta itsua izan zanik.

Frantzetarren egoerako kontu geiago.

Esana dogu zelan geratu zan Ondarroa 1.794'ko frantzetarren sarraldi ondoren.

Etixerik geienak erreta, kiskalduta eta lapurtuta. Eta bertako gizonak be, ogeiren bat, eurekaz Frantziara preso eroanda, eta euretatik amar beintzat Frantze aldeko kartzeletan ilda.

Baiña ez zan dana or amaitu.

Esan dogu baita, 1.794'ko Martiaren 7'an Frantzeko Batzar Nagusiak, ango Aginte Batzarrak, "Convention" deiturakoak, gerra iragarri eutsala España'ri.

Orrek ango gudarien emen sartu ta egotea ekarri eban, eta Bizkaiarentzat eta bertako erri txikientzat lepoan artu eziñeko aiña zor egiteko ondorena ekarri eban, ango gudariak emen eukiteak eta gerrako gastuak erakarren diru eskabide etenbakoaren eragiñez.

Ondarroa'k, noiz-nai egiten eutsezan bestelako eskabideen eta erasoen gain, frantzetarren egoera ordaintzeko 2.688 errial illero ordaindu bearra euki eban.

Garbitasun gitxi billatzen da orren goraberan erriko artxiboan.

Egia da artxibo onek gorabera asko euki izan dauzala bere zainketan. Iñoiz zati batzuk erre be egin zirala. Baiña orain arte ez da gauza askorik agertu ta argirik egin.

Eskuratuen artean garrantzi andirik ez dauken paper batzuk aurkitu izan dira, alkarrri lotutako txorta baten, "Avisos y 'ordenes militares" deituran.

Orrelakoak dira:

1.810.— Empire Francaise.— Le General Avril.— Alkateei agintzen itxasoz Sorkalde eta Sarkaldetik agertzen ziran txalopa guztien barri emoteko.

1.810.— Maiatzak 17.— Lekeitio'ko Alkate zan Joseph Agustin Oxangoiti'k Ondarroa'ko alkateari egiña.

Diño:

Santa Kathalina'ko talaieruak diñost, ingelesan bergantin batek Mundakar arrantzako ontzi bat menderatu dauala. Eta bertan ingelesak sartuta, itxasertzez duala portu orreatatik zear, ziurretik talaieruak atzipetu eta emengoa dalakoan bertako txalopak baituteko asmotan. Ori jakin erazten dautsut zur ibili zaitezen eta Mutrikuko alkateari be jakin erazteko eskatuz, beste portuetakoak be jakin dagien.

1.810.— Apirillak 3

Mutriku'ko alkateak Ondarroa'koari

Jakin arazten dautsut goizeko seirak inguruan igaro dirala Deba'tik zear

ortik joan bear diran 350 frantzetar. Nik dakidanez euretariko batzuk, gitxi gorabera 60 inguru, or geratzeko dira. Ori dala ta gaur goizeko bederatzietarako bost burdi gertu euki bearko dozuz euren jantzi eta guda tresnak erabilteko.

Jainkoak zaindu zaitzala. Martin Uzin (izenpetuta).

1.810.– Apirilak 4

Bermeo'tik Thomas Salzedo'k bialdutako idazkia. Bertan esaten da Ondarroatik 180 frantzetar igaro dirala eta Ondarroa'n bertan 64 geratu zirala ofizial bigaz.

1.810.– Apirilak 5

Bermeo'tik Thomas Salzedo'k Ondarroa'ko alkateari.

Bizkaiko gobernadoreak il onen l'ean jakin eragiña.

Gure itxasertzean ingeles eta españar Dibisiño bat agertu dala.

Ori dala-ta, arrantzaliei esateko kontuz ibili daitezala, alkarregaz ezelako artu-emonik euki barik, eta bardin leortarrei be.

Arerioak leorrera sartu nai ba dau, alegiñak egiteko dagozan tresnekaz orrelakorik lortu ez dagien; arrantzale txalopak eurekaz jarduten ba dira, baitu oneik, bai eta orra agertzen ausartzen dan edozelako ontzi kontrabandularia be....

1.810.– Apirillak 24

Mendexa'ko alkatea dan Jose Okamika'k bialdutako txostena Jose Txakartegi'ri buruz.

Jose Txakartegi Urresti agertu da niregana, bere ibillerekaz damututa. Bilbora joan bearra euki dot eta origaitik atzeratu egin da orrelako gertaeretan eskatu bear dan ziña (juramentua) eta beste betebarrak egitea.

Gaur egin da ori, eta origaitik egiaztatutako kopia bat bialtzen dautsut, ortik ertzaiñekaz arduratzen dan kontseilariari bialdu dagiozun. Jose ori bere gurasoekaz solo lanetan dabil menpetasun osoz.

Jaunak zaindu zagizala.

1.810.– Apirillak 19.–

Bizkaiko Kontseiluko lendakari dan Diego M. Larrea Arkaute'ren mezu bat Ondarroa'ko alkateari.

Jakin eragiten gerra langille taldeko 80 gizon, kapitan eta teniente bategaz datozala emen geratzera. Eta neurriak artzeko eurei ezer ez faltatzeko jateko kontuan. Urian ez ba dago bear dabenik barru aldeko eleizate edo uriei deitzeko.

Gasteiz'tik deia Ondarroa'ko erriari.

18.700 errial dirutzaren urte batzutako etekiñak zor jarraitzen dabela.

1.810.– Apirillak 23.

Berriatu'tik Pedro Eizagirre'k izenpetuta, Ondarroa'ko alkateari.

Jakin eragiten 50 anega garirik be ez dauzala batu al izan eta ordezkari bat bialtzeko etxerik etxe joan daiten.

1.810.– Maiatza'k 6

Jaurerri onetako Epaikari berezi dan Juan Jose Bildosola'ren etxera, alboan izentatzen diran gizon ta andreak agertu daitezala il onen 10'eko goizeko be-deratziatarako, agintzen. Deia oneintzat da: Jose Antonio Bengoetxea, Katalin Agirre-Amalloa, Pedro Jose Aranzamendi, Antonio Garramiola eta Jose Iñazio Aresti.

1.810.– Uztailla'k 3

Santiago Abaroa Ondarroa'ko alkateak Mutriku'ko alkateari:

Jauna: Pedro Bernardo Joset'en aginduz, Apirillaren 8-an 48 errial emon neutsazan Jose Franzisko Karrikiri'ri, eta geroago orko udalzaiñaren emazteari beste 24 errial, orko kartzelan Antonia Bereikua, Mari Angela Agiriano eta Maria Clara Leizaola'k egindako gastuen ordaintzat. Eta ba dirudi erri onetatik beste emakume batek beste 20 errial eskatzen dautsezala, eta oneik diñue orko kartzelan egon ziran bitartean ez ebela ezelako erraziñorik artu. Origaitik Joseri ez dagola zetan ezer ordaindu, ez eta kartzelako zuzendariari be, kartzelan ego-tea besterik. Origaitik eskatzen dautsut onetan zer gertatu dan jakin eta ainbat ariñen egia esan dagistazula,

– Ba dirudi Fermin'eri Kostola'n aulestiar batzuk eta beste tokietakuak be urerratu jakozala. Euren izkilluak, geien bat, ezpatadantzarien ezpata zarrak dira, eskopeta banakaren bat be bai, emen ondo armatuta egon ziran ogeiak izan ezik.

Euren antzeko amabikoteren bat areñegun Berriz'en egon ziran eta eurak eta beste ogeitamaretik gora areñegun Ermua'n alkartu ziran eta danak batera Elgeta'ko gainaldera joan ziran eta bart euretatik amaika Eibar'era urreratu eta erraziñoiak eta jantziak atara ebezan.

Jakin neiken edozer beerala jakin eragingo dautsut eta zuk be bardin egin.

1.810.– Uztaillak 17.

Bizkai'ko Polizi arduradun dan Jose Maria Murga'ren Kontseiluko idazkia, esateko Antonio Arriola agertu dala damututa.

1.811.– Gorabera orrein artean ba dago erriko Kontseiluko lendakari lez Juan Bta. Mendibelzuak izenpetutako idazki bat, Bizkaiko Konselluari zuzendua.

Jakiña da beste errietatik, eta emen be bardin gertatuko zan, Bizkai'ko

Konsellutzaritzatik eten barik bialtzen zituela idazkiak, bateko zorrak ordaintzea eskatuaz edo ta zenbat mendi eta ondasun saldu bearrean aurkitzen ziran eta abar eskatzen.

Urte onetako Maiatzaren 12'an "Gazeta"n agertu zan baita errietatik kontu emon bear ebela egiten ziran enkante eta konkurtsuena.

Eta Ondarroako Udaletik erantzun eben, oraingo gobernua izentatu zanetik ez dabela ezelako ondasunik saldu, Burdinkurutze deiturako soloetan ereiteko eukazan anega bi gari baiño, Berriatuko bizilagun zan Juan Jose Alegria'ri, ordez landaredi bat zaindu eta an lortzen zana erriko mendietako Aritz eta Gaztaiña landaretan sartzeko.

Eta Ondarroa'ko udala gogotsu egoala bertako jaubeei erri zorra baso ta mendietan ordaintzeko, Mutrikuk egin daben lez, eta orretarako baimena eskatuta eukala.

Beste idazki baten, eta alboan "no ha enajenado" agertzen dala, diño:

Diego Antonio Basaguren'ek, Bizkai'ko Probintziko Kontsejuko idazkari lez Maiatzaren 28'an bialdutako aginduari erantzunez, Udal onetatik Martiaren 18-an bialdu zala ordurarte erriko mendi ta basoetan egin zana jakin erazten, eta orain arte ez zala beste ondasunik eskuz aldatu, karta aretan esandakoa izan ezik.

Ondarroa'n 1.811'ko Bagilla'ren 15'ekoa da idazki ori eta Juan Bta. Mendibelzua'k izenpetuta.

(Artxiboa: Gernikako Batzar Etxekoa. "Propios y arbitrios" Registro 22-Legajo 76)

Goragokoak sinisgarritasun gitxi adierazten dabela esan dogu.

1.816 urteko Otsaillaren 28'an egindako beste idazki bat billatzen dogu aurrago, orduan alkate zan Juan Bta. Sustaeta'k izenpetuta eta bertan 24 (ogetalau) mendiren saltzea autortzen da.

Ziurretik mendi oneik aurrez berbatuta edo baituta egongo ziran, edo zoren garantizat ipinita, gure erriak ez eukalako ezelako sarrerarik gerrate aretako zorrei erantzuteko, oizko janari ta edarien ziza izan ezik.

Ara emen Gernikako Artxiboan dagon idazki ori, euskeratuta:

("Propios y arbitrios" Registro 12-Legajo 3 n° 42)

Ondarroa'ko erriaren agerpena, 1.808'tik ona erriak jaubetasuna galduaz emon dauzan lurraldeen agergerri:

1.816-Otsaillak 28.

Kontseju gorenetik errietara Urtarrillaren 13'an bialdutako idazki-agindua beteaz, Ondarroa'ko uri onek agertu gura dau 1.808'tik gaur arte jaubez aldatu dauzan lur-ondasunen zerrenda:

LUR ONDASUNEN ZERRENDA


	Azken bost urtetan urteko euki daben balioa, Belloiko errialetan.	Ze baliotan saldu diran. Belloiko errialetan.
Arriaga'ko solo bi	119	6.485
Sakon andi	75	5.000
Armokaiz	99	8.238
Erreka andia	105	11.147
Itxuski eta Arandio	109	12.179
Iramategi azpi	13	1.497
Igorotz	49	4.015
Olabe erreka	63	7.063
Pertikagana	21	1.879
Madalena azpi	37	9.011
Zabalburu	29	2.114
Arteta gane	35	3.998
Goitiburu	99	13.221
Galtzuaran otadia	00	1.952
Arrandola	13	1.705
Bidagorrigana	29	2.997
Urkiaga Zabaleta	113	14.719
Allanda	77	8.101
Kalamendi otadia	00	199
Amesti	14	770
Dostubate goia	33	2.015
Eleizaurre	170	31.240
Akilla	30	4.600
Anakabe	25	3.113
GUZTIRA	1.357	157.258

Frantzesen dekretu eta agindu edo ta Jaurerri onetakoak edo ta Udalarenak beteteko, ezarritako zergak ordaintzeko.

Saldutako zatiak eun eta berrogei ta amazpi milla eta berreun eta berrogeita amazortzi belloiko errial dira eta atara dan kontu-errazoitik azken bost urtetan milla irureun eta berrogeta amazpi errial emoten zituen urteko. Eta udalaren aginduz, alkate lez, izenpetzen dot, Ondarroan 1.816'ko Otsaillaren 28'an.

Juan Baupta Sustaeta.

Ortik ikusten da Ondarroa, aberastasun eta esateko sarrera barik, frantzetarren eta euren ondoreneko aginduak beteteko ezarten eutsezan kuotak eta kontuak ordaintzeko, ez ebela beste biderik euki lurretan eukazan ondasun ordez tartetan negar eragiten ekian eta dakin itxas baltzari begira bizitzea baiño.



Goiko kalea.



FRANTZETARREN ERASOAREN ONDORENAK

Frantzetarren 1.794'ko erasoaren ondorengo egoera argi ikusten da garai aretako alkateak izenpetutako agiri baten.

Oneri buruz, Gernika'ko Batzar Nagusietako Etxeko Artxiboan, 8 bis, 11 zenbakidun Erroltze ezaugarritz, eta "Propios y Arbitrios" deiturapean, ba dago Ondarroa'ko alkate eta Epaikari zan Juan Bautista Arriola'k izenpetutako agiri bat eta bertatik dakiguz ondorengo jakingarriak.

"Erri au eta bertako agindupeko gorputz izan ziran eta nai ta suak pasata geratu, sutatik askatu ziran etxeak.

Sutea legezko Erregearen aurka jagitako taldeak, euren esanetan Frantzeko abertzaleak eragiña izan zan".

Jose Egurrola eta Alipasolo'ren etxe barria

Urte gitxi dira etxe au jaso zala. Uritik urteeran Berriatu'ko bidean dago. Jaubeak erabilten eben Dagonilla (Abustua)ren 28 arte.

Gero ikusirik bere loba eta koñatua dan Juan Bizente Bengoetxea eta onen aita Jose Antonio etxe barik geratu zirala, errukituta bere etxean artu zitun, erria erre ebenetik jende asko dagolako nun babestu ez daukela. Bertan artu zitun baita be Jose Oñaderra, Juan Bta Urriolabeitia, Katalin Basterretxea eta Mari B. Agirretxea, euren familiekaz eta nai eta estutasun andian bizi, ez dauka adorerik kalera bialtzeko.

Etxeandia deiturakoa, Jose Ant. Etxebarria'rena

Onek esan eban, jakiña danez, etxe au ustekabeen erre egin zala igaz, zapatu santu egunetik Berbizkunde jai bitartean.

Irugarren etxe-oiñetik gorako ormak jaso zitula eta tellatua emoten iñar-

duela, frantzetarrak sartu ziralara. Geroago lortu ebala tellatua amaitzea, eta gaur bere orma erre artean, bera eta bere familia bizi dirala. Bai eta Migel A. Goitia eta Franzisko Aranzamendi koñatuak eta euren familiak; Jose Maguregi eta bere familia; M^a Antonia Etxebarria, bere alabeagaz; M^a Angeles Egiguren; Maria Egiguren eta bere semea; Bartolome eta Antonio Badiola eta euron ama. Bertako bee aldean, lur soillean tarte batean, eguna emen igaroten dabela Ana Bta Iramategi bere ama, semeak eta lobeagaz, eta gabetan tejabana batera joaten dirala lotara. Euretako iñok ez dauala errentarik ordaintzen.

Eta esandakoak alaxe zala autortu eben.

Kantale'ko igarobideko etxetxua, Sebastian Arrasate'ren emazte zan Josefa Bakerizatarren jaubetzakoa. Frantzetarrak eurekaz eroan eben Sebastian baituta eta Frantzian dago, espetxean.

Etxe au txikia da. Sukaldea eta sala bat daukaz, eta oe bat naiko da salaren erdia beteteko. Jose Iñazio Egiguren bikarioa bizi da bertan. Onek diño ez dautsela errentarik izendatu eta berak ez dakiala zenbat ordaindu beariko leuken.

Beko etxea lakoa jaube dan M. Bakerizak eta seme txikiak erabilten dabe.

Bodega txikia erabilten dabe sukaldetzat Tomas Urteaga eta Iñazio Zaldunbide eta euren familiak eta oneik, gabetan, Antigua'ko eleizara joaten dira lotara.

Bodega, sala eta sukaldearen errenta kontuan gurasoak dira erabagi beariko dabenak, baiña oneik Lekeition bizi dira, nai ta Dagonillaren 28 arte euren familiakaz emen bizi.

Pedro Ureta'k Iparkalean daukan etxea

Berbera, emaztea eta familia bizi dira bertan. Frantzetarrak erre arte Franzisko Aranbarri'ri alokatuta euken, baiña au preso eroan eben Frantzera. Lengo errenta 14 dukatekoa zan urtean, euretatik 11 jaubeari eta 3 parrokiari, emendik artutako zentzu bat ordaintzeko

Orain ezin dau ezer ordaindu zegaz eztaukalako eta eukazan beste etxe bi ere erre dautsezalako.

Estakona deiturako etxea, Tomas Urkiaga'ren jaubetzakoa.

Tomas jaubeak eta bere emazte Joakina Urrestieta'k autortu eben frantzetarrak sartu arte etxe au 17 dukatean alokatuta eukela, zati bat Bartolome Aramaio eta familiari 10 dukatetan eta beste zatia 7 dukatetan Juan Arkotxa eta emazteari.

Frantzetarrak su emon eutsenean, zati bat erre barik geratu zala, baiña iñor ezin biziteko eran geratu zalako, errenteruak itxi egin ebela. Gero konponketa bat egiña daukala, etxea konpontzeko, baiña txikia izanarren ezin amaitu izan dauala.

Tomas Urkiaga eta Burgoa'ren aterpea (tejabana) , Erribera kalean, ibaiaren egalean.

Tomas'ek diño sute ondoren ormak naiko ondo geratu zirala. Tellatua ipini dautsola bere adiskideen laguntzaz eta bera eta bere familiarentzako bizilekutzat darabillala.

Galarzakoa deiturako etxea, zubiaren egalean, Erre barik geratu jakon zatia.

Bere jaube dan M^a Agustina Iramategi alargunak diño sute aurretik zati orren 22 dukat emoten eutsezala, euretatik amar orain berak bere seme umezurtezekin darabillan zatiagaitik eta beste amar Jose Aulestia'ri alokatuta daukan bodegagaitik, baiña orain ez dakiala zenbat emon leikien.

Erritar asko Antigua'ko eleizan bizi dirala eta txarri txaboletan egindako aterpetan eta antzerako tokietan.

Eta bera be Errenderian bizi dala Patrokua deiturako etxean, ango erreteru dan Pedro Alegria'k ostatu emon dautsalako familiagaz batean.

ERRENDERI AUZOKO BASERRIAK ETA ONDARROA ETA ERRENDERI BITARTEAN DAGON KAMIÑAGA BASERRIA.

Goitia

Baserriaren jaube Juan Bautista Iturrino da. Bertan bizi da, etxea eta jaubetasun osoa erabiliaz.

Etxe onek gaztañadi bat dauka Gorozika auzoan, Aulosa deritxon inguruan. Gaztañadia zatika ebagiten dabe eta bere egurra esolak (estakak) egiteko erabilten da. Berak daukan zatia eta gaur egun adar egokiduna, ikatzetarako karga bi edo iru aiñako izango da eta orain kargako sei errial ordaintzen da.

Artutako goi-aginduetako batek au diño: Etxe asko dirala euren basoak etxetik urrun daukezanak eta alkateak eta agintariak alegin egin dagiela garbi eta zeatz jakiten azken mozketan zenbat karga batu diran, orain ze baturik ez dauken mendietan.

Patrokua

Etxe au eta bere inguruak Migel Ant. Murga eta Andonaegi'renak dira. Xemeingoa da eta gaur egun Madrid'en bizi da.

Pedro Alegria da erreterua. Onen esanetan errenta au dauka: 16 anega garrantan eta 10 dukat dirutan. Aurtendik aurrera beste iru anega arto ordaindu bearko dauz, Kaminibar'en daukan soloagaitik. Solo au len Franzisko Lekue'k erabilten eban errenta bardiña ordainduaz.

Orrez gain etxe au beartuta dago Ondarroa'ko parrokian etxe onen izeneko ofrenda eta eskintzak egitera urteko domeka eta jai guztietan, bakoitzean liberdiko ogi bi.

Onez gain idiki bat gizentzeko bear-izana dauka nausiarentzat, zeziña egiteko, onek oiña ordaindu eta irabazia erdiz-bana izanez. Emendik ugazabari amalau dukat inguru geratzen jakoz.

Orrez gain etxean dagoan aberetza andia jaubearena da, ameteria eran, eta orretatik batez beste 165 errial inguruko irabazia lortzen dau.

Errentak eta irabaziak Xemein`go Bidarte'ra eroan bear dira, eta egun egokirako ugazaba bertan egon ezik, bere etxe-arduraduna dan Andres Bertoita'k artuko dau.

Andikoetxea

Etxe au eta ingurua be Migel Antonio Murga'renak dira.

Jose Urkaregi da bertako errenterua.

Onen esanetan 17 anega gari eta 4 anega arto daukaz errentatzat, eta Bidarte torrera eroan bear izaten dira, anega bat gari izan ezik, an gordeten dalako Ondarroako parrokian urteko domeka eta jaietan liberdiko ogi bat eskintzeko. Orrez gain urtero kapoi bi eroan bear izaten dira ugazabari.

Abere andiak erdiz bana, galtze ta irabazietan, eta urtero 160 errial inguru geratzen dira ugazabarentzat. Diru au be Bidarte torrean ordaintzen da.

Errenta ordainketa egunerako ugazaba Madrid'etik biurtu eziñean, Andres Bertoita etxe-arduradunari itxi bear jakoz.

Gallatekoa

Jaubea: Juan Iñazio Uriarte eta Bedua. , Elgoibar'eko bizilaguna.

Antonio Alegria errenteruak diño urtean 50 dukaten errenta daukala, dirutan, Elgoibar'en ordaintzeko.

Eta beartuta dagola urteko domeka eta jai guztietan liberdiko ogi bat parrokian eskintzera, eta ori urtean anega bat garigaz kittatuten dala.

Antxikoa

Etxe onen jaubetasuna Josefa Iñazi Lizeranzu'rena da, Sebastian Zumaran'en alarguna, eta Eibar'en bizi da.

Bertako errenteru dan Juan Bta Irure'k diño errentatzat urteko lau anega gari, bederatzi anega arto eta 30 errial dirutan daukazala, azken au txabolagaitik.

Beste urtetan Eibar'en egin izan dauala errenta orren eskintza, baiña jaubea Madrid'en dagola eta aurten eskintza ori Berriatu'n bizi dan Simon Lizaranzu'ri eroan bearko dautsala. Au jaubeen aitagiñarreba eta aita da.

Errenteruak diñoanez, Errenderi berbertan beste solo bat dauka errentan,

Peñaflorida kondearena. Urtean bost anega arto da errenta eta au Aranzibia Torrera eroan bear izaten da, ara joaten dalako Simon Zubiaurre kondearen etxearduraduna.

Goikoetxea

Etxe au be Josefa Iñazi Lizeranzu'rena da.

Ana Barrenetxea alarguna da errenteru lez bertan bizi dana.

Urteko errentatzat 21 dukat daukaz, baiña emeretzi ordaintzeko eta beste biak etxe konponketarako geratzen dira. Eta beste kapoi bi urtean. Baiña ugazaba, kanpoan bizi dalako, bere aitari ordaindu bear izaten dautsa.

Etzetik urbil beste lur zati bat dauka. Au mutrikuarra dan Mari Antoni Urriola'rena da, Manuel Antonio Urreztietaren alarguna.

Orren orde, 22 errialeko errenta dauka eta Mutriku'n ordaindu bear izaten dau.

Beste lur zati bat Kamin-ibar'en daukala, Errenderi'tik laster. Lurralde au Murga'rena da eta urtero amar anega arto ordaintzen dautsa Markina'ko Bidarte torrean.

Aldekoa

Baserri au Jose Ormaetxearena da. Debatarra da.

Errenteru lez Iñazio Arrizabalaga bizi da bertan.

Onen esanetan urteko 20 anega gari, 8 anega arto eta 190 errial dirutan ordaintzen dauz, bere aberetza (ganadutza) eukiteko askatasunez.

Orrez gain 6 kapoi, 6 ollanda, eta artzen dan sagarraren erdia.

Errentatzako guztia Deba'n ordaindu bear izaten dau, jaubearen etxean.

Kamiñaga

Etxe au be Jose Ormaetxea debatarrena da.

Pedro Azpiazu da errentan daukana. Onen esanetan 25 anega gari ordaintzen dauz urtero; beste 88 errial txabola (tejabana) baten orde, lau kapoi eta lau ollanda.

Errenta ori Deba'ra eroan bear izaten dau, ugazabaren etxera, eginda dauken lotuera betez.

Orrez gain urte guttiko domeka eta jaietan liberdiko ogi bat Ondarruko parrokian eskintzeko bete-bearra dauka. Eskintza au anega bat garigaz trukutzen da.

GOROZIKA AUZOKO BASERRIAK, ONDARROARI DAGOKIOZANAK

Goxeaskoa

Jaubea: Maria Ana Murga eta Andonaegi, Bilbao'n bizi dana.

Errenterua: Juan Bta. Lizaola

Onek autortu eban urtean errentatzat 16 anega gari eta lau anega arto ordaintzen ebazala; abere nausiak amateria deiturako erabidean eukazala, eta ugazabandreari urtean 15 dukat inguru geratzen jakozala ortik dirutan.

Garia eta artoa Xemein'go Bidarte torrera eroan bear izaten eutsazala, jaubearen anai zan Migel Anton Murga'ri. Au Madrid'en bizi zala, baiña onen etxe-arduradunak jasoten ebala.

Atxondo

Jaubeak: Migel eta Andres Antxustegi, aita semeak. Gorozika'n bizi dira.

Errenterua: Iñazio Garramiola da eta onen esanetan urtean 12 anega gari ta artotan beste bi ordaintzen ebazan eta beste 30 errial dirutan.

Ansorena

Jaubea: Martin Ibañez de Aldekoa'ren emaztea dan Ana Bengoetxea. Mu-relagakoak.

Errenteruak: Zati ezbaridinetan errenteru bi dagoz. Bat, Manuel Bikandi eta familia, eta bestea Migel Etxea eta familia.

Bikandi'k autortu eban berak eukan zatiagaitik 15 anega gari ordaintzen ebazala, kapoi bi, ollanda bi eta amabi errial dirutan abere txikiakaitik. Abere andiak ameterian eukazala jaubeekaz, irabazten zan erdiaren truke, eta origaitik, batez beste, 100 errial emoten eutsazala.

Errenta erdiz bana eroaten eutsela jaubeari eta bere aitagiñarrebari.

Beste errenterua Migel Etxea da. Onek autortu eban beste zatiagaitik 21 anega gari, kapoi bi eta ollanda bi eta 18 errial ordaintzen zituala abere (ganadu) txikiagaitik, abere andiak erdiz banan eukazala ugazabagaz, eta oneri, batez beste, urteko 110 errial emoten eutsazala eta beste ainbeste berak artu.

Onek be, alboko errenteruaren antzera bieie emoten eutsen errentarena.

Etxe onen lurretan ariztegi bi egozan, bat Ubilla-aldia deiturakoa eta bestea Sagastizarreta. Eta azken ebagitean, bertako aritz-motxa ugazabak bere sukalderako eroan eragin eutsala.

Errenteruak autortu ebenez arizti bietan 33 karga ikatzetarako batzen ziran, eta aurreko urtean, auzo onetan egon zan antzerako egurra Mutriku'ko monjen konbenturako erosi ebela karga bakoitza sei errial ordainduta.

Munabe

Baserri onetako jaubeak, Migel eta Andres Antxustegi ziran.

Errenterua: Esteban Aranburu.

Onek autortu ebanez ugazabei 8 anega gari, 4 arto, kapoi bi eta ollanda bi ordaintzen eutsezan.

Abereak, txiki nai andi, jaubeekaz amaterian eukazala eta urteko 125 errial inguru jasoten zituela origaitik, irabazi lez.

Ubilla

Baserri onen jaubea Ana Antonia Angulo zan. Onen senarra, Jose Antonio Eribe, Gipuzkoako Epaitegi nausiko dekanoa izan zan. Azkoitin bizi ziran len, baiña orain Angiozar'era aldatuta dagoz.

Errenterua: Manuel Basterretxea.

Urtean 22 anega gari ordaintzen zitun eta abereetako irabazien erdia, gitxi gorabera 110 urteko errial.

Errenta artzera jaubeen alaba dan Erramona etorten da.

Beazkoa

Jaubeak: Migel eta Andres Antxustegi. Bertan bizi dira. Daukan abeltzari bakarra Kanterakua deitzen dan txarakea da.

Autortu eban txarakea ebagiten asita egozala. Azken urtean 42 karga ikatzetarako atara zirala. Eta esku lana eta erabilketa bere semeak egiten ebala, kargako 6 errialetan, oraingo gerra dala-ta errementariak igazko aiña ordaintzen jarraitzen ba dabe beintzat

Basterretxea

Jaubea: Domingo Juaristi Ormaetxea. Eta il zanez, bere emazte Ana Mari Anakabe'k jasoten dau orain.

Ana Mari onen esanetan, bere basoetan txaraka bat dauka bakarrik. Txarakea otzarak egiteko egurra atarateko moztuten dala eta salduta daukala orain Bermeo'n bizi dan Juan Bautista Uriarte otzara egilleari, 240 errialetan.

Autortzen dau baita, Ondarruko lurretan dagon Kamiñaga inguruan lur zati bat daukala alokatuta, urteko eun errialetan, bertako auzokide dan eta oraingoz Berriatu'n bizi dan Juan Arantzamendi'ri.

ONDARROA'TIK LEKEITIO''rako bide inguruan dagozan GOIMENDI'KO BASERRIAK

Ikaieta

Domingo Goenaga, errenteruak autortu eban, iru urte daroazala etxe orretan.

Etxea bertako jaube diran Maria Bizenta Sasturri, Mari Justina Zigaran, Mari Bentura eta Ana Isabel Asanza, mutrikuarrak, alokatu eutsela, urteko 22 anega gari eta 44 errial dirutan aterpeagaitik, eta ollanda bi eta urte bitarteko bildots bat San Migeletan ordaintzeko.

Errenta ori era onetara banatu bear eban:

15 anega gari esandako jaubeei Mutriku'n.

Beste anega bat, urteko domeka eta jaietan Ondarru'ko parrokian liberdikogia eskintzeko.

Ollandak eta bildotsa Xemein'go Migel Antonio Murga eta Andonaegi'ren arrebari etxe onetako jaube zuzen lez, bere anaiaren aginduz.

Eta beste 6 anega gariak Murga berberaren baimenez, Berriatu'ko Pedro Ituarte'ri.

Errenteruak autortu eban azken Dagonillaren 30'ean frantzetarrak baserriari su emon eutsela, eta etxe barik geratu zalako, bere kontura egin ebala aterpe bat erretako etxeak artzen eban soro zati baten, orretarako tellak eta gañerakoa erosita. Berberak eta familiakoak lan egiñaz jaso ebela, etxegiñak be lagunduta.

Baserriaren ormen gain, etxeko altzaririk geienak erre zirala eta baserri lanetako tresnak, bai eta oraindik jo barik mendian egozan gariei be su emon eutsela, bai eta bere semea baitu eta Frantzera eroan eutsela ta ez dakila geiagoko barririk.

Origaitik ezin daikela lengo errentarik ordaindu, eta konponketa bat egiteko zain dagola, erabagiten dana ordaintzeko gertu dagolako.

Arteta

Errenteru lez, emen bizi zala-ta Mikaela Gandiaga agertzen da.

Bere senarra, Juan Bta. Badiola, frantzetarrak eroan eben baituta, eta Franzian dauke.

Mikaela'ren esanetan, baserri au lengo denboretan, Lekeitio'ko zan eta orain illa dan Iñazio Asterrika'rena zan.

Onek alokatu eutsan bere senarrari 15 anega gari eta 33 errial dirutan, urteko, eta arengandik artzeko eukenak enkantera (konkurtsora) atara eben il zanean.

Urte batzuk dirala enkantean sartu ziranen aukerak erabagiteko, baiña aukerako eskubidedun zan Parrokiko Abade taldea konturatu zala Franzisko Ru-

kabado lekeitiar mendi neurtzailleak oker andia euki ebala emengo neurketan. Gero Manuel Anton Urreiztieta mutrikuarrak sartu nai izan ebala aukera arzen, eta 287 errialetan arautu ebela errenta.

Orrelaxe ordaindu ebala azken urtearte, ziur jakin barik zein zan jaubea.

Dagonillaren (Abustuaren) 28'an frantzetarrak joan zirala bertara eta etxean eukan guztia ostu eutsela, eta bere senarra baitu, eta illaren 30'ean baserri etxea erre eutsela, oso-osorik, bai eta joteko eukezan garien geiena be.

Gero, senar barik ikustean, Frantzeran eroan eutselako, eta beretzako ta se-meentzako aterpe barik ikusita, zela-alako aterpe bat jaso ebala erretako tokian, ongille batzuk lagunduta.

Esandako guztiagaitik orain ezin izango dabela len lez 15 anega gari eta 33 errial dirutan ordaindu. Eta ordaindu al izatera elduta be, lenengo 287 errial Abadeei ordaindu bearko dautsezala, agindutako urteko elizkizunen ordaina zorretan daukalako.

Zezermendia

Etxe onen jauntza zuzena Jose Agustin Ibañez de Renteria, Bilbotarrari dagokio eta onurakorra Domingo Juaristi, baserrian bertan bizi danari.

Onen esanetan baserri onek urtero bederatzi kuarta gari zor daukaz, auntz bat edo bere orde 4 errial, eta beste 9 errial ardien orde, eta abere andien irabazietako erdia, enfiteusis bidez edo kanon lez esandako Jose Agustin'eri.

Ba dirala bost urte inguru Jose Agustin'en etxe-arduraduna dan Jose Santos Ibarluzea Lekeitiokuagaz konponketa bat egin neban, auntza eta ardien orde 4 kuarta bederatzi errialen orde eta abereetako irabaziaren orde, urtean 113 errial ordaintzeko, eta orixe da orain ordaintzen dana garitako beste bederatzi kuartagaz batean. Guztiori Lekeitio'n ordaintzen da, Jose Santos'en etxean.

ONDARROA'REN AGINDUPEKO LURRETAN DAGOZAN EIZMENDI'KO IRU BASERRIAK

Eizmendi erdikoa

Etxe onen jaubea Peñafloredako Kondea da. Bertako onuren jaube eta bizi dana, Jose Antonio Arana.


Onen esanetan gazabari emoten dautsaz ordainbearrekoaren lautik iru ta erdi eta eskintza ori baserri berbertan egiten dau, bertara etorten dalako jaubearen etxe arduradun dan Simon Zubiaurre, ordain txartelagaz, zergari orren billa.

Eizmendi erdikoa

Eizmendi Erdikoa gertatzen da emen be. Jaubea Peñafiorida kondea da eta bertako onuren jaubea bertan bizi dan Pedro Olabe. Onen esanetan alboko etxeak lez ordaintzen dau.

Eizmendi Aldekoa

Etxe onen jaubea Pedro Balentin Mugartegi, markiñarra da. Erreterua Jose Bereikua. Onen esanetan 8 anega gari eta 110 errial dirutan eta kapoi bi daukaz errentatzat eta bere etxean ordaintzen dautsaz ugazabari.



EGOERAREN AGERBIDE BATZUK

Esan lei Ondarroa arimea be galduta, beia jota geratu zala, frantzetarren Irailleko erasoaren ondorenez.

Etxeak erreta,
erritarrak sakabanatuta,
asko igesi al eben tokietan,
beste batzuk baituta....

Azken baten beretik ezin urtenda, nundik asi ezin igarrita.

Baiña ba daukagu urte bereko Azilla'ren 2-an udal agintari eta beste erriko gizonekaz batu eta erebagiak artzen asi zaneke agiria.

Igarten da oraindik frantzetarren kerizpea ikusten zala inguruetan, euren itzaletik ezin urten. Asarrea itto egiten da esaldi eta agerbidetan. Aurrera begira jokatu nai.

Batza a parroko sakristian egin zan, eta bertan artutako erabagitzat au "agindu" edo zabaldu zan:

1.- Erri guztia arerioaren erasoak eragindako etxe guztien sute ondoren geratu dan ondamendi eta naigabe egoera ikusita, eta emen nun bizi ezin bi-llatuta, erritarrik geienak euren familiekaz kanpora joan dirala kontuan euki-ta,

Eta erri maitasunak eraginda lengo etxeetara etorten adoretu eta lagundu nairik, batzarrean erabagi zan:

Lengo denboretan erre edo kaltetu jakoezan jaubeei oiturazko izan dan lez laguntzaren bat emon al izatea, etxeak barrero jaso edo barriztuteko erabagia eta adorea artzen dabenei, erriak dirutan edo bere mendien baliotan, mendi zai-ñaren irizpidean eta Udaleko Sindikoaren azterketa eta on-iritxi ondoren, bein-beingoz 450 erreal belloiko eskintzea, jaso nai dabezan etxe bakoitzagaitik,

bardin suak galdu eragindako len egozan tokietan barriztu edo ta len etxerik egon ez dan lurralderen baten jaso.....

Beartasun lez ipiniaz etxea tellatuz aterpetzea edo ta tellatua etxe irudian ipintea, erriaren laguntza ori amabi illabeteren barruan artu ondoren.

2.- Ikusirik baita errian ez dagola ez zirujanorik, ez odol ataratzailerik ordezkariak izentatzen dira Berriatua'n dagon ogipekoagaz tratu bat egiteko edo aukera obeago bat billatu nai daben besteren bategaz.

3.- Arerioak erria menperatzean erriak jasan daben sute orokorra dala-ta, Sindikoari legezko agintea emoten jako, orretan errudun edo zer ikusia euki daben edo leikien egilleen lagun izan diranen azterketa egin dagien, erriak edozein denboretan be zeñen aurka jo leikean eskubidea euki ta zaindu dagian.

4.- Kontuan eukita erriko eraso eta sutearen ondorenen barri emon eban kazeta baten ez zala aitutzen erriarrak egin eben erriaren aldezketa alegintsurik, iru bateria egozan tokitik azken ordurarte, erriagaz jaubetu arte, euki eben suterik aitatu barik, alkateari agintzen jako, Aldundiko gizonei agertu dagiela jokabide ori, orain arte jakin ez bada be jakitun geratu daitezana.

5.- Erriko abadeak agertutako txosten baten kontua emoten da.

Parroki onetako bost abadek, Abade batzarra osotzen dogun bostak, (seigarrena, Bizente Angulo jauna, il zalako), autortzen dogu, arerioaren erasoan eta bertako sutetik parrokia eta beste bost etxe salbatu zirala ikusita, erriarrak geienak, euren familiekaz, ondo artuak izan diran beste errietara joatea erabagi ebe-la.

Orren ondorenez Parroki au ia eleiztar barik geratu da, artzaiñak ardi barik, eta Aldarako serbitzariak geientsu ortik lortzen eben bizibideko laguntza barik, bestelako sarrerak, amarrenetan, zortzi anega gari eta beste amar-amabi artotan dirala urteko.

Egoera larri onetan, gure zeregiñak emoten dauskun lotueragaitik, eta erriaren egoeraz kezkatuta, ausartu egiten gara zueri arren eskatzen gure egoera larria aztertu dagizuela eta beste denboretan emon izan dauskuzuen lagungarrien bat emon dagizkuzuela, bizi al izan daigun eta Parrokian jarraitu, sute arte euki genduzan bear-izan eta lotuera batzuetatik arinduaz.

Orrela itxaroten dogu zuekandik, Angel Inazio Egiguren; Juan Bixente Bengoetxea; Franzisko Xabier Gelalsoro; Juan Bautista Urkiaga; Jose Lorenzo Arriola.

Eta batzartuak txosten onen eskabideagaz konturatuta, eskabidearen eguna ipiniaz, nik, Eskribadu lez gordeteko erriko beste paperen artean. Eta oraingoz ez zala erabagirik artzen, gai au erriar geiagogaz batu eta aztertu barik.

Geiagoko barik amaitu zan batzarra.


Andik ille bira, beste batzar baten esaten da, erria mediku eta zirujanu barik dagola eta ezin pentsatuta zelako sarrerak billatu eurak ekarri al izateko eta

bildurretan gañera eskola maisua be kanpora botako bear ete daben.
(1.795-I-25)

Eta Udal Batzarra ez egoala iñori ezer emoteko, beste arazo onetan igarten da:

“.....Martin T. Ostolaza'ren txostena irakurten da. Ez da besterik, esateko baiño, bost urte dirala Errosarioko Kofradiako maiordomu autu ebela. Eta lenngo urtean 45 errial kostatu jakola, eta beste iru urtetan, gerrako egoera onetan egin izan diran errogatiba ugarietan oituraz baiño argizari geiago gastatu zala-ta. Berak aurrerratu dauala argizaria 360-380 errialen balioan. Kofradiak ezin leikela ezer ordaindu frantzetarrek sartu ezker ez daukalako sarrerarik, eta origaitik erriari eskatzen dautsala, mesedez errial orreik ordaintzeko”.

Eta Udal Batzarrak erabagi eban Ostolaza jaunari esatea, bere bidetik urten zala eskari ori egitean, gastu ori ez jagokolako erriari. Aurrez kontu artu bear ebala eta Kofradiak ordaindu al ebana bakarrik eralgi eta orrela kontua agertu bear dautsenei. Aurrerantzean Udalarengana ez joteko orrelako eskariekaz.
(1.795-III-15)



Txalopandi zarrak.

1.541 URTEKO ERROLTZE BATEN AGERTZEN DIRAN ONDARROA'KO ABIZENAK.

(Ondarroako parroko liburu ofizialak 1.550 urtean asten dira. Baiña aurrez ba dago Udaletxeko Artxiboan 1.541 urteko Liburu bat, "LIBRO DE CUENTAS 1.541), etxe eta ondasun jaubeen zerrenda agertzen dana, eta an abizen oneik irakurten dira:)

Abadea	Arrasate	Bilbao
Agiriano	Arria	Burgoa
Agirre	Arriaga	
Agüero	Arriola	Dendaidd
Aia	Arronategi	
Albiz	Artolazaga	Etxebarria
Alegria	Asentzio	Etxebarrieta
Andonaegi	Asterrika	Elgezabal
Ansola	Ateguren	Egurrola
Apallua	Aukikiz	Eizagirre
Aranaga	Ayardia	Eizmendi
Arano		Elantxo
Aransolo	Baranigo	Elexalde
Aranzamendi	Barinaga	Elexpurua
Aranzibia	Belendiz	Elorriaga
Aretxaga	Bermeo	Estakona
Aremendia	Berriatua	
Arrangiz	Berroiia	Gabiola

Galar-on
Galarza
Galdona
Gallate
Ganboa
Garro
Gillestegi
Goikolea
Goitia
Goitiniz
Gorozika
Gorostieta

Heria

Ibarguren
Ibarra
Illoro
Inprubidi
Iramategi
Iraola
Irarrazabal
Isasoeta
Iturrino

Iturriza
Izea

Jauregi

Labeaga
Laka
Lasao
Lekuia
Likona
Lorriaga

Markina
Marzana
Meabe
Monguruza

Olabe
Olaso
Orbea
Oriosolo
Ormaetxea
Orobia

Puerto
Renteria
Romo

Sagarraga
Sarasua
Sestona
Sustaeta

Tellaeceri
Tellarilea

Ubilla
Unda
Urkiaga
Urresti

Zumarraga

ONDARROAKO ABIZENAK

Jakiña da eleiz parroketako liburuak Trento'ko Batzarraren ondoren asi ziralara eroaten. Origaitik XVIgarren mendearen erdi aldera zabaldu ziran geienak, batez be bateo, ezkontza eta eriotzei buruz.

Ba dira urte batzuk, gure errian ezagutu izan diran abizen guztien zerrenda atara nebala eurretatik.

Ez osoa.

1.550 urtetik asita 1.800 urte arteko lenengo abizenena.

Baiña itxas liburuzarretan bilatu izan dodaz gure erriko itxas-merkatari, txalopa jaube edo ta gidari eta abar.

Gaiñera len ez neban bigarren abizenik atara. Eta abizen orreik be ondarrutarrak dira, noizbaiten lenenak izanak.

Ba dirudi XVIgarren mendeko abadeak, gaur aiñako ardurarik ez ebela artu liburuak zeatz eroaten.

Urte batzuk aztertu ta sarri ikusten dira beste zerrendak, batzuk lengo bateoak baiño lenago egiñak eta orrela urte ta egunen goraberak naastuten.

Itxuraz abadeen batzuk euren zerrenda berezia eroaten eben, edo zerrenda barik gogoetan euki.

1.550 urtean amar bateo agertzen dira Parrokiko liburuetan. Auzo eta base-rien abizenak nagusi.

Pedro de Asterrika,

Maria de Miskia,

Madalena de Gorozika,

Pedro de Ubea,

Domingo de Unda,

Nikolas de Ayardia,

Maria de Gorozika y Gastua

Gabiola

Puerto Amallo

Zelaia-Berrosasi.

Orra lenengo urte osoko zerrenda.

1.551 urtean ez da iñor agertzen. Baiña urte bete geroago, 1.552-en, oneik agertzen dira:

“En 26 días del mes de Febrero baptizé una criatura de Virriatua, sabe Dios de los padres, pusímosle Madalena a la dicha criatura. Ha por padrinos a Pedro de Zaldua y Madalena de Astuieta.”

Beste bat: “Item en Prima de Junio de dicho anno baptizé una niña a Sancho de Lexardi y su mujer Teresa. Pusímosle por nombre _____ (Orrelaxe, izenik ez da agertzen)

Beste agiri bat izenik barik.

Urrengo au: “Item en 5 de Junio de dicho anno baptizé un muchacho de San Juan de Barrenechea y la madre de dicha criatura era de Amoroto. Al dicho niño pusimos por nombre Miguel.”

1.553 urtean iru jaiotza agertzen dira bakarrik.

1.554'n amalau. Euretariko baten izena bakarrik. Izen berezia: Inglesa. “De una señora de Motrico”. Nunbaiten irakurri izan dot aldi aretan ia oiturazko zala aitatasunik agertzen ez ebenei onelako izena ezartea.

1.555 urtean, sei bateo.

1.556'en amasei. Bat ezelako abizen barik agertzen da. Domeka, de Motrico. Ezkutuan ekarri eban bateatzera Mutrikuko seroreak. Domeka emakume izenetan aurkitzen da aldi aretako agirietan.

1.557'n zortzi bateo. Bat, izenez bakarrik, Catalina. Gurasoa “forastero”.

1.558 urtean amazortzi bateo. Emen be tartean Domeka de Ayardia bat.

1.559'en amabost. Tartean betikoa, Pedro (abizenik ez) de Durango.

1.566'en agertzen da beste izen polit bat: Andrasta.

1.574'n, Arrieta-Donestebe abizenak bateo baten eta gurasoak erromesak, “peregrinos”.

1.577'n ba dago bat Gorozika-Aragoia, abizenduna. Ama “Catalina de Aragoia, moradora de la casería de Goitiniz.”

Ba dagoz tartetan aitaren abizenik ez eta amarenagaz bakarrik, edo ta aitarena bai ta amarenik ez.

Beste batzutan XX eta geiagorik ez. Bateatzera “me lo trajo la serora de Motrico” eta abar. Bateoaren kontzientzi estua, aitatasuna ezkutuan lagata.

Amasei garren gizaldian, esan dodanez, liburuak 1.550 urtean asita dagoz.

Ara bertan agertzen diran abizen ezberdiñak, 1.550tik 1.600 bitartean, bakoitzari eleiz liburuetan lenengo agerpena zein urtetan irakurten dan zeaztuaz.

Grafia gaurko erara aldatuta jartzen dot.

A

Abaitua,	1.592	Aragoia,	1.577	Arriola,	1.565
Abaroa,	1.562	Aransolo,	1.593	Arrizurieta,	1.565
Agirre,	1.561	*Aranzibia,	1.562	Artamiza,	1.555
Aguero,	1.559	*Aranzubia		Askube,	1.561
Aizla,	1.557	Aranzamendi,	1.569	Astigarribia,	1.569
Alzelaegi,	1.594	Aretxaga,	1.554	*Assaola,	1.590
Alipasolo,	1.554	*Arezkurenaga,	1.560	*Azaola,	1.598
Aliri,	1.552	*Areskurandia,	1.562	Assurra,	1.558
Alzaga,	1.565	*Areskurinaga,	1.564	Asterrika,	1.550
Alzola,	1.565	Arezmendia	1.556	Ateguren,	1.561
Amesketa,	1.594	Armenza,	1.562	Aulikiz,	1.554
Anakabe,	1.592	Arraiz,	1.565	Ayardia,	1.550
Andonaegi,	1.561	Apraiz,	1.563	Azkarza,	1.577
Angelua,	1.563	Arregia,	1.567	Azkarretazabal,	1.578
Ansola,	1.560	Arria,	1.562	Azpitarte,	1.561
Apallua,	1.556	Arriaga,	1.556	Azteka,	1.596
Apraiz,	1.563	Arrieta,	1.574		

B

Baraiko	1.578	Beitia	1.599	Berrosorrosi	1.583
Baranbio	1.576	Beitia	1.599	Bidagorri	1.561
Baranigo	1.566	Belendiz	1.568	Bidazabal	1.594
Barrenetxea	1.552	Beltran	1.568	Bilbao	1.565
Barroeta	1.584	Bengoetxea	1.596	Biziola	1.579
Basak, Basas	1.584	Bermeo	1.555	Burgaña	1.583
Basterretxea	1.554	Berriatua	1.561	Burgoa	1.554
Basterrolaza	1.568				

D

Dostuzar	1.593
----------	-------

E

Egia	1.585	Elorriaga	1.568	Etxano	1.586
Eizagirre	1.561	Endaidi	1.562	Etxebarria	1.559
Elexpurua	1.568	Etxaburu	1.561	Etxenagusia	1.585
Elordi	1.598				

G

Gabiola	1.550	Galdona	1.561	Garro	1.563
Galarza	1.577	Galdua	1.565	Gasturia	1.593
Galbei	1.561	Garagarza	1.568	Gebara	1.558

Gerrikaiz	1.587	Goitia	1.561	Gorozika	1.550
Gillestegi	1.557	Goitiniz	1.560	Gonzalez	1.594
Goikoetxea	1.553	Gomuzio	1.559	(de Soria)	
Goiria	1.569	Goronda	1.582		

I

Ibarra	1.555	Ikuza	1.580	Iturriza	1.589
Ibarresarasua	1.586	Illoro	1.563	(Motrikukua)	
Igara	1.565	Imitola	1.577	Izeta	1.599
Ikutarte	1.558	Iramategi	1.553		

J

Jarroloza	1.584	Jauregi	1.556		
-----------	-------	---------	-------	--	--

K

Kareaga	1.556	Karkizano	1.563	Kortazar	1.582
---------	-------	-----------	-------	----------	-------

L

Larrako	1.582	Lertxundi	1.579	Likona (Torrekua)	1.559
Larrinaga	1.579	Lexardi	1.552		

M

Makaia	1.565	Migelez de Ibarra	1.567	Mokoaga	1.587
*Makoaga	1.596	Mizkia	1.550	Muguruza	1.561
*Markoaga	1.563	Mizkiri	1.552	Munibe	1.561
Mendiolea	1.593				

N

Nafarmendi	1.589				
------------	-------	--	--	--	--

O

Obekola	1.554	Olarra	1.579	Oribia	1.562
Olabarrieta	1.584	Olariaga	1.586	Oriosolo	1.569
Olabarria	1.556	Ondarroa	1.579	Orueta	1.562
Olabe	1.558	Ontxa	1.564	Otxoa	1.558
				(de Etxeandia)	

P

Plaza	1.581	Puerto	1.550		
-------	-------	--------	-------	--	--

R

Renteria	1.594	Romo	1.559		
----------	-------	------	-------	--	--

<u>S</u>					
Sagarraga	1.565	Sarasua	1.567	Sausarren	1.554
Santa Cruz	1.576	Sasturri	1.565	Sustaeta	1.588
Saldua	1.588				

<u>T</u>					
Torrealde	1.561	Txurruka	1.563		

<u>U</u>					
Ubeagoitia	1.577	Unda	1.550	Uriarte-Jauregi	1.582
Ubea	1.550	Urbina	1.579	Urreztieta	1.578
Ubilla	1.558	Urkiaga	1.558	Urriola	1.580
Ugarte	1.563	Urkiagabaso	1.564	Urrunaga	1.584
Ugarteburu	1.587				

<u>Y</u>					
Yarza	1.584				

<u>Z</u>					
Zabala	1.579	Zamora	1.591	Zelai	1.550
Zaldua	1.588	Zapatarikua	1.584	Zezermendia	1.598

Danetara, esandako denboraldian, 1.550 / 1.600 bitartean, 859 agiri edo "partida" dagoz. Abizen ezbaridinak 177 dira. Ba dira amaika aldakuntza pitin bat daukenak, letra edo silabaen batena, baiña gurasoen deitura eta abar aztertuta igarten da aozkerako aldakuntzaren baten ondorenak dirala ezbardintasun orreik.

Baiña ba dagoz beste ainbat abizen, amarenak, bigarren lez agertzen diranak ere ta denboraldi aretako agirietan, lenengo abizenetan agertzen ez diranak eta goiko zerrendetan agertzen ez diranak.

Ezin ukatu areik be iñoiz lenengo abizenak izango ziranik. Ara euren zerrenda. Berrogetak dira:

Amallo	1.550	Azkarai	1.579	Balzola	1.560
Astaieta	1.552	Arregiaga	1.584	Berreño	1.565
Aiarza	1.560	Allurralde	1.591	Beltran de Arana	1.568
Antxia	1.564	Aberasturi	1.594	Bekoetxea	1.574
Aia	1.570	(Arabakoa)		Beliotegi	1.589
				(Deba)	

Cassasua	1.580	Ikuza	1.588	Okoillo	1.553
		Ikaieta	1.589	Orongua	1.559
Donestebe	1.574	Iragorri	1.589	Orio	1.574
Egurrola	1.559	Ibiri	1.592	Otegi	1.584
Etxeandia	1.565				
Eibar	1.571	Kurpita	1.592	Pertika	1.596
Etxaniz	1.592				
		Legina	1.561	Solarte	1.594
Gastua	1.550				
Garduza	1.570	Maguregi	1.555	Tellaetxea	1.557
Galbe	1.576	Meabelzu	1.577	Txakartegi	1.591
		Muniosolo	1.593		
Ikaran	1.557	Migelez de	1.557	Urkiri	1.576
Irurre	1.566	Renteria			

PARROKITIK KANPO, BESTE ZERRENDA BAT

Itxasoetako gorabera zarrak irakurtean, sarri billatzen dira abizen batzuk merkataritzan ezagunak ziranenak, edo ta emen euren etxe zar eta armarriak be euki zituen batzuenak. Ezpai barik parrokitiko liburuak baiño aurretik egon ziranak.

Or nebilen beti eleizatik kanpora, orduko abizenen zerrendaren bat billatu nairik.

Eta erroltza bat aurkitu dot Udaletxean: “Libro padron para hazer el repar-timiento y derrama concejil segund huso y costumbre della. 1.541.”

Ez da kaskarrari asko eragin bear konturatzeko 1.541 urtean egozan bizilagun oneik urteak eroango zituela errian. Eun eta sei lagun dira eta zerrenda osorik argitaratzen da, danak jakin dagien gitxi gorabera noiztik euren abizena Ondarroan ba egoan. Orrez gain abizen batzuk azpimarratuta agertzen dira. Zegaitik? Ba azpimarratutako orreik ez diralako agertzen eleizako liburuetan 1.550tik 1.600 bitartean. Beraz gorago agertutako zerrendetan ez diralako sar-tzen.

<u>Abadea</u>	<u>Alegria</u>	<u>Aransolo</u>	<u>Arrasate</u>
Agiriano	Andonaegi	Aranzamendi	Arria
Agirre	Ansola	Aranzibia	Arriaga
Aguero	Apallua	Aretxaga	Arriola
<u>Aia</u>	<u>Aranaga</u>	Arezmendia	<u>Arronategi</u>
<u>Albis</u>	<u>Arano</u>	<u>Arrangiz</u>	<u>Artolazaga</u>

<u>Asensio</u>	Ellexpurua	<u>Iraola</u>	<u>Olaso</u>
Asterrika	<u>Elgeta</u>	<u>Irarrazabal</u>	<u>Orbea</u>
Ategiuren	Elorriaga	<u>Isasoeta</u>	Oriosolo
Aulikiz	<u>Estakona</u>	<u>Iturrino</u>	<u>Ormaetxea</u>
Ayardia		Iturriza	Orobia
Baranigo	Gabiola	<u>Izea</u>	
<u>Barinaga</u>	<u>Galaroa</u>		Puerto
Belendiz	<u>Galarza</u>	Jauregi	
Bermeo	Galdona		Renteria
Berriatua	<u>Gallate</u>	<u>Heria</u>	Romo
Bilbao	<u>Ganboa</u>		
<u>Berroia</u>	Garro	<u>Labeaga</u>	Sagarraga
Burgoa	<u>Goikolea</u>	<u>Laka</u>	Sarasua
	Goitia	<u>Lasao</u>	<u>Sestona</u>
<u>Dendaidi</u>	Goitiniz	<u>Lekuia</u>	Sustaeta
	Gorozika	Likona	
Etxebarria	<u>Gorostieta</u>	<u>Lorriaga</u>	<u>Tellaetxeri</u>
<u>Etxebarrieta</u>	Guillestegi		<u>Tellarilea</u>
<u>Elgezabal</u>		<u>Markina</u>	Ubilla
<u>Egurrola</u>	<u>Ibarguren</u>	<u>Marzana</u>	Unda
Eizagirre	Ibarra	<u>Meabe</u>	Urkiaga
<u>Eizmendi</u>	Illoro	<u>Monguruza</u>	Urresti
<u>Elantxo</u>	<u>Inprubidi</u>		Zumarraga
<u>Elexalde</u>	Iramategi	Olabe	

Zarragoen aukerarik ba gendu, pozik agertuko gendukez. Baiña gaitz.

Zeaztasun geiago

Zeaztuaz, ara udaleko erroltzean agertzen diran abizenak, 1.600 urtearte parroko bateo-liburuetan agertzen ez diranak.

Abadea	Artolazaga	Egurrola	Ganboa
Aia	Asensio	Eizmendi	Goikolea
Albis		Elantxo	Gorostieta
Alegria	Barinaga	Elexalde	Ibarguren
Apallua	Berroia	Elgeta	Inprubidi
Aranaga		Estakona	Iraola
Arano	Dendaidi		Irarrazabal
Arrangiz		Gabaroa	Isasoeta
Arrasate	Etxebarrieta	Galarza	Iturrino
Arronategi	Elgezabal	Gallate	Izea

Heria	Lekuia	Monguruza	Sestona
	Lorriaga		
Labeaga	Markina	Olaso	Tellaetxeri
Laka	Marzana	Orbea	Tellarilea
Lasao	Meabe	Ormaetxea	

ABIZENEN ARGIBIDE GEIAGO

Ondarroa'ko parrokiako bateotako liburuak zabaltzen diranetik, 1.900 bitar-terako bertako abizendegi edo apelliduen zerrenda bat egiteko ardura eta gogoan artu nebazan.

Au da, 1.550 urtetik 1.900 urtera.

Aldi orretan, denbora orretan, Ondarroako parrokiatan bateoa artu eben umeak amalau milla inguru dira. Orduko sinismen, bildur, fede eta giroa ezagututa, ezpai barik esan geinke jaiotako guztiak sakramentu ori artuko ebela.

Bateorik geienak gaur be gure eleiz nagusi edo parrokia danean egiñak dira. Batzuk, batez be amabost eta amaseigarren gizaldietan, Antigua'ko eleizan. Bear ba da aldi aretan Antigua'ko eleizak parroki giroa eukiko eban askorentzat. Beste batzuentzat, eraspen edo deboziñoiko ondorena.

Garai aretan Antigua'k entzute andia eukan batez be itxastarren artean eta inguruetakoa askok jarraitzen eben bertara umeak ekarten, batez be itxastar titulodunak.

Aldi aretako agiri batzuk, partida batzuk, ulergaitzak dira, zeaztasuna galduak. Liburu batzuk zeenak eta zitzak janak, batez be 1.647 eta 1.670 bitarte-koak. Eun inguru; garbi esanda, 97 dira orrela agertzen diranak.

Beste jakingarri bat: 1.608 urtetik eta 1.617 urtean sartu arteko agiriak falta dira, ez dira agertzen.

Antxiñako bikarioak eta arduradunak ez ziran beti zeatz eta esku zabal euren zertzeladak beteten. Orduko denborak, orduko giroak ba euken pekatu berezi bat, sasoiko pekatua, kurtzailluen pekatua; argi gitxi, illuntasuna. Pekatu orretan bikario batzuk jausi ziran eta origaitik sarri irakurten dira liburuetan Kalagorritik etorten ziran gotzain (obispo) ordezkarien eta ikusleen asarre eta gaitz irizpideen agerpenak.

Ez daukagu oiñarririk edo biderik edo motiburik orduko bikarioen aurka ezer esateko. Gure-gurez ezin geinke esan ardurabakoak ziranik. Bestera pentsatzea obe litzake. Baiña, bear ba da, sasoi aretan arriskutsua izango zan zeaztasun askotan sartzea. Errezago, beti be, txikikeriak eta jakin bear ez ziranak irribarrez estaldutea, bikarioak euken aitatasunez eta itzalez zela-ala eskuta-

tzea. Ala ta be, sasoiko biguntasun orrek, denboretako premiña orrek, gero-koentzat irri mintsua agertu eraziten dau. Ezin jakiñaren etsi bearra.

Len zerbait aitatu ba dogu be, gure liburu zarretan, garai aretan, era onetako esaerak irakurri eta billatu leikez sarri, bateora eroandako umien jatorriari buruz.

“...Dios sabe de qué padres”.

“...por mucho que averigué no dí con sus padres”.

“...me lo trajo la serora de Motrico, de una señora de Motrico”.

“...hija de un mancebo forastero.”

Sinismen itsu bateko ondorenak? Fede estuegi baten urratuak? Lege zorrotzei baten bildurrak eragiñak? Sorgiñen denboretako ezaugarriak?

Gure lanetik urteten daben ikasbideak izango litzakez orrelako sustraiak billatzea. Baiña giroa igarten da, orduko giroa, agiri eta paper guztietan.

JAIOTZEN ZEAZTASUN GEIAGO

Esana dogun lez, XVIgarren gizaldian, gizaldiaren erdian asten dira erriko ezaugarriak, jaiotzei buruz, Andra Mari parrokian.

1.550 urtetik 1.600 bitartean, zortzireun eta berrogei ta emeretzi (859) jaiotzen agiriak irakurten dira.

XVIIgarren gizaldian, au da, 1.601'tik 1.700 bitartean milla seireun eta amaika (1.611).

XVIIIgarrenean bi milla irureun eta irurogei ta amaika (2.371)

XIXgarrenean bederatzita milla eta larogei ta lau (9.084)

Ikusten danez, gizaldi batetik bestera aldakuntza andia, aurrerapide ugari ikusten da.

Sendiak ugaritu? Familiak geitzetik datorren ondorena? Edo ta giro areitako gerrak etxetako bakea sortuko ete eban?

Ume bakoitzaren, mutil nai neska izan, jaioten dan bakoitzaren aitaren abizena (apellidua) bakarrik eukiko dogu kontuan, gure kontuak ataratzeko.

Orela, aitaren abizen ori kontuan eukita, gizaldi bakoitzeko edo eundaka bakoitzeko abizen ez-bardiñak onetxek ziran:

XVIgarren gizaldian, 859 jaiotzetatik, eun eta larogei ta zortzi (188) abizen ez-bardin. Beraz oker andi barik pentsatu leike beste ainbeste famili biziko ziralara, gitxienez gure errian.

XVIIgarren gizaldian, 1.611 jaiotzetatik, berreun eta berrogei (240) lenenego abizen ez-bardin.

XVIIIgarren gizaldian, 2.371 jaiotzetatik, berreun eta larogei ta emeretzi (297) abizen ez-bardin.

XIXgarren gizaldian, 9.084 jaiotzetatik, laureun eta berrogei ta bost (445) abizen ez-bardin.

Emen esan lei, familiak geituagaz batera, famili bakoitzak seme geiago sortu ebazala, lengo gizalditik alderantzi andia dagolako ugaritasunaren mese-dean.

Ba dira beste abizen batzuk, aurreragoko gizaldietan, bestelako ibillera, paper eta kontuetatik dakigunez, ondarrutartzat emoten ziran abizenak, baiña bateotako liburuak idazten asi ziranetik agertzen ez diranak, aitaren sustraian beintzat galdutzat emon leikazanak.

Alaxe, Aboitiz abizena. Beinere ez da agertzen lenengo abizentzat 1.550 urtean asi eta 1.600 bitartean. Eta liburu zarrak Ondarroan billatzen dabe eta ipinten dabe bere sustraia eta bere bizitokia, ikurdi edo ta armari ta guzti.

Bardin esan geinke, Albis abizenari buruz. Amaseigarren gizaldian amaren aldeko abizentzat, bigarren abizentzat, billatu lei, baiña ez aitagandiko zuzen lez.

Ala baita Agar, Afeteria eta abar.

ERDERAZKO ABIZENAK

Ondarroako liburuetan agertzen diran erderazko abizenak bana-banakoak dira XXgarren gizaldirarte.

Gitxi ziran lengo gizaldietan gure erri onetan jaiotako orrelako abizendunak. Geienetan agirietan igarten da ze eratako bidez emen agertu edo erakutsi eben jaiolekuko eskubidea.

Ikus batzuk:

Oliveros-Sargueras. 1.627 urtean

Fernandez-Velasco. 1.667 urtean. "Pobres bagantes" diño liburuak.

Gonzalez-Santiso. 1.696 urtean, "Lugo'tik etorriak".

Gonzalez-Nuñez 1.696 urtean, "portugueses".

Orretzek dira XVII garren gizaldian agertzen diranak.

Aurrerago, XVIgarren gizaldian, ain zuzen be 1.561 urtean, egon zan bateo bat, baiña ezin geinke esan ziur erdalduna zanik. Bikarioak bere agirian au ipinten dau: X X Maria. Au da ezelako abizenik ez. "De un mancebo forastero y Maria de Gorozika".

"Un mancebo forastero" ori, kanpotarra izanarren, ez dakigu euskalduna izan zan edo ez. Beraz ezin erderazkotzat artu, gaiñera abizenik ez eutsen ezarri be-ta..

XVIII garren gizaldian oneik aurkitzen doguz:

Fuelles.- (1.705 urtean). "De Madrid, pobres que andan pidiendo".

Valle.- (1.710 urtean). "pobres, de Henares de este Obispado."

Trujillo.- (1.746 urtean). "pobres mendigos"

Vega.- Asturias'tik etorria.

Abizen oneri buruz esan geinke lenengo Vega ondarrutarra 1.618 urtean jaio zala. Gizaldi orren barruan beste lau geiago, au da, danetara bost. Eta XVIII garrenean, beste amabi. Eta XIX garrenean euren aztarrena galdu zan. Bat bakarrik ez.

1.768 urtean Ruiz de Dulanto bat agertzen da, Errioxatik etorrira, Naxera aldetik. Ruiz de Dulanto, Dulanto Ruiz edo Turanto Ruiz be irakurten da agirietan. Danak sendi bateko. Esku-langilleak, pioiak.

1.750 urtean, Trizio bat jaioten da, Cenicerotik etorritakoen semea. Jaiotza bakarra. Geiago ez da agertzen agirietan.

1.784 urtean, Villafriá'tik etorritako Martinez de Llano. Iru jaiotza eta bertan bera amaitu.

1.799 urtean Palentzia'ko odoldun Perez bat jaioten da. Bakarra gizaldi onetan. Urrenguan agertuko dira beste lau.

XIXgarren gizaldiko lenengo 50 urtetan beste sei famili erdaldunen menduak ezagutzen dira.

Jimenotarrak datoz Briviesca'tik. Deituta etorri be. Organu jotzaile. Musikalari, sakristau, maisu, dana izan zan. Gizaldiaren barruan 35 Jimeno bateatu ziran bertan. 1.803 urtean jaio zan lenengua.

Lau urte geroago beste abizen ugari bat agertzen da: Mejias. Ez jakin nundik etorriak diran. "Se ignora" irakurten da partida baten, gurasoen jatorriari buruz. Amasei jaio ziran gizaldiaren barruan.

Beste bat, Salamanca'tik etorritako Talon izan zan. Bakarra jaio zan 1.814 urtean.

Gomez, San Roque'tik etorriak, 1.841 lenena eta geroago bost.

Urte berean jaio zan Ramos bat, Valdepeñas'tik etorria. Oneik be bi izan ziran gizaldi guztian.

Bi izan ziran baita gizaldian jaiotako Ruiz, Ciudad Real'dik etorriak.

Gizaldiaren erditik aurrera ugariago datoz erdal abizenak, baiña geienak seme bakarren bat edo bi agertzen dira ta gero galdu. Ba dira orraitio Santander aldetik etorritako saltzailleak "pasiegoak" Abascal, Lavin, bertan gelditzeko asmoz, batak lau seme eta besteak iru munduratu zituenak gialdiaren barruan gure erri onetan.

Erdal abizenen agerraldi onetan argi ikusten da famili orreik ez zirala bertara etorri, zeregiñen bat betetera baiño, eta denbora gitxi egiten ebela emen.

Ala abizena bertan sustraitzeko denborarik ez eben artu ez emen.

Ba dago abizen bat, erdal abizen bat, Euskalerritik Ondarroa'ra sartua: 1.887 urtean agertu zan Azpeiti'tik. Jakin egin bear Azpeiti'ra noiz eta nundik joana zan.

Gure Lege-zarra galtzeak, gure Fueroak galtzeak ba dauka zer ikusi erdal abizenak agertzeakin. Karabiñeru eta abar ez ziran euskaldunak, erdaldunak baiño.

ONDARRUTAR ABIZEN JATORRAK

Zeintzuk ete dira ondarrutar abizen jatorrak?

Nire ustez, XVIgarren gizalditik Ondarroan ezagutzen diranak, ezelako aitzaki barik ondarrutartzat artu bear dira eta ala deitu leikioe. Jator jatorrak. Eskubide osoz. Orrela, gizaldi orretan, erriko jaiotzak irakurri edo jakin eta bateko nai besteko erri nai parroikiko paperetan edo ta liburuetan agertzen diranak, atakotzat artu eta aitaturko doguz.

Orrela ondarrutar jatorrak dira:

Abadea; Abaitua; Agirre; Aia; Albis; Alegria; Aliri; Alzaga; Anakabe; Andonegi; Ansola; Apallua; Aranaga; Arano; Aransolo; Aranzibia; Areskurenaga; Aretxaga; Arezmerdia; Armentia; Arrangiz; Arrasate; Arregia; Arriaga; Arriola; Arrizurieta; Arronategi; Artolazaga; Asentzio; Askube; Assurra; Asterrika; Ategiuren; Aulikiz; Aiardia; Askartza; Askarretazabal.

Baraiko; Barinaga; Barrenetxea; Basas; Basterretxea; Basterrolaza; Beitia; Belendiz; Bengoetxea; Bermeo; Berriatua; Berroia; Bidagorri; Bidezabal; Burgaña; Burgoa; Bustinzuria.

Dendaidi.

Etxaburu; Etxano; Etxebarria; Etxebarrieta; Egia; Eizagirre; Egurrola; Elantxo; Elexpurua; Elgezabal; Elordi; Elorriaga; Endaidi; Eizmendi; Elexalde; Elgeta; Estakona.

Gabaroa; Gabiola; Galartza; Galbei; Galdua; Gallate; Ganboa; Garduza; Garro; Gasturua; (Gastuna); Goikoetxea; Goikolea; Goitia; Goitiniz; Gorostietta; Gorozika; Gillestegi.

Ibarguren; Ibarra; Ikuza; Igara; Illoro; Inprubidi; Iramategi; Iraola; Irarrazabal; Isasoeta; Iturrino; Izea.

Heria.

Labeaga; Laka; Larraga; Lasao; Lejardi; Lekua; Likona; Lorriaga.

Makoaga; Markina; Marzana; Meabe; Mendiola; Miskia; Monguruza ta Muguruza; Murube.

Nafarmendi

Obekola; Olabarria; Olabarrieta; Olabe; Olarra; Olaso; Onda; Ondarroa; Orbea; Ormaetxea; Orioso; Orobio.

Portu; Puerto; Patroi.

Renteria; Romo.

Sagarraga; Santa Kruz; Sasturri; Sestona; Sustaeta.

Tellaatxeri; Tellarilea; Torrealdea; Txurruka; Txopite.

Ubea; Ubilla; Ugarte; Unda; Uriarte; Urkiaga; Urkiagabaso; Urkiola; Urriola; Urrunaga.

Yarza.

Zaldua; Zamora; Zapatarikoa; Zezermendia; Zelaia.

Ez dira danak. Baiña ez doguz aitatu nai gizaldi guztian jaiotza bat euki ta gero, ondorengo gizaldietan be agertzen ez diranak.

Abizen onetako asko gaur be ezagun dira. Ezagun-ezagunak. Etxekoak. Geienak Ondarroan bertan. Ba dira, orraitio, gizaldi orreitan ugariak izanarren, gero bertatik laster urrundu ziranak. Oneitariko bat da Likona. XVI garren gizaldiaren bigarren erdikadan 24 jaio ziran abizen orretakoak. Urrengo gizaldian bi bakarrik eta emendik aldendu.

Portu, Puerto, askotan ez da garbi irakurten. Amasei jaio ziran beintzat aitatzen diardugun denboran. Urrengo gizaldian, XVII'n bat bakarra eta orain ezagutzen diranak Usurbil'dik agertu ziran 1.874 urte inguruan.

Beste ondarrutar ezaguna zan Sasturri. 11 agertzen dira XVI garren mendean; 41 XVII'an; 27 XVIII'an eta XIX garrenean inor ez.

Unda abizenari be bardintsu gertatu jakon. 15 abizen XVI garren gizaldian; 23 XVII'an eta geiago ez.

INGURUAREN ERAGIÑA ABIZENETAN

Bidezkoa da abizen barriak inguruetatik agertzea, erririk urrenetatik. Gizaldi askotan ez dira gaur lako artu-emonak euki izan. Bakoitza bere erriari lotuago bizitzen zan len. Ori zan euskaldun izatea.

Gaurko aurrerapiderik ez, ibillaldietan erriz-erri ibilteko; alkar ezagutzeak dakarren traturik ez, bizibide aukeratsuen irabazpiderik ez, biderik be ez aukeran norbere etxetik edo erritik aldentuteko.

Origaitik bidezko da urren dagozan erriak izatea odol barria ekarri dabena; famili barriak sortu eta batu eragiñaz.

Ala Berriatua eta Mutriku, auzorik urran lez, eurak izan dira gure erriari abizen barriak ekarri dautsezanak.

Berriatua'tik etorriak dira: Agirre-Amalloa; Albissua; Aldasolo; Antxustegi; Armenza; Azumendi; Bereikoa; Burundarena; Kalzakorta; Korostola; Elu; Garramiola; Gojenola; Ibarloza; Irueta; Irusta; Itola; Iturriaga; Manzisidor; Orobio; Oriosolo; Utxupi; Ugalde eta Ugartetxea.

Mutriku'tik: Ajarrista; Amutxastegi; Aristondo; Astigarraga; Azkarate; Basabe; Basurko; Etxea; Egaña; Epelde; Gabilondo; Iriondo; Idoeta; Imaz; Iturriza; Lezea; Lezeartua; Lekube; Legarda; Lezartaburu; Mendizabal; Mendi-beltzua; Osa; Pagoaga; San Martin; Urkaregi; Urkidi eta Zubizarreta.

Lekeitio'tik: Akarregi; Argintxona; Atxa; Koskorrotza; Garalde; Maruri eta Otxoa-Antezana.

Baiña zabaldu gaitezen geiago. Obeto zeaztu. Onela ikusiko dogu gure erriari eskua luzatu eutsen erri eta inguruak zeintzuk izan ziran.

BIZKAI'KO ERRI ETA AUZOAK

Esana dogun lez ba dira abizen batzuk asiera baten ondarrutar jatortzat izentatu doguzanak. Baiña euretariko batzuk euki eben utsune bat, urteetako utsunea. Eta gero kanpotik etorten asi. Erraz igarriko da ori abizen batzutan. Gaur ezagutzen doguzan abizenen iturria, geientasun baten, erri oneitan dago

Abadiño: Arginzoniz, Garitaonandia, Ortuzar eta Salazar.

Akorda: Gandarias.

Amorebieta: Artabe, Belaustegigoitia.

Amoroto: Atxurra, Agirreoa, Ajubita, Aldekoa, Arrasate, Goiogana, Markue-Erkiaga eta Txakartegi.

Arrankudiaga: Korta.

Arratzua: Zaldunbide.

Arteaga: Obieta eta Ozamiz.

Aulestia: Ibañez-Aldekoa eta Legarra.

Barinaga: Aranzeta; Pagate.

Basauri: Arteagagoitia.

Berriatu: (Gorago esanda dira bertokoak)

Bermeo: Arrospide; Artaza; Belaustegi.

Bedarona: Zarakondegi.

Berriz: Artalarrea.

Bilbao: Arenaza; Eskoriaza; Gimón; Iraragorri; Iturrioz; Kortesena; Larrea eta San Antonio.

Bolibar: Olea.

Deusto: Artola; Zarraga.

Durango: Lasuen; Olano.

Ea: Endeiza; Jauregi; Urzaa.

Ereño: Iduriaga.

Erandio: Arauko.

Ermua: Alegria; Zengotita

Etxebarria, San Andres: Azpillaga; Ibarrola; Igartua; Lejardi; Zigarán.

Galdakano: Astegia

Gernika: Mendibe

Gerena: Ibaibarriaga

Gizaburuaga: Okamika

Gorliz: Areaga

Ibarrangelua: Bakeriza

Jemein: Agirretxea; Aulestiarte; Azumendi; Barroetabeña; Beristain; Gazagaetxebarría; Ibarrolaza; Larruskain eta Urrosolo.

Lekeitio: Gorago zeaztuta dago.

Mallabia: Amillategi

Markina: Aldazabal; Arkotxa; Aulestia; Azpiri; Barinaga-Rementeria; Balenziaga; Garmendia; Idueta; Ituarte.

Mendeja; Abaroa; Amallobieta; Amesti; Egiguren; Goitiandia.

Mundaka: Bediauneta; Launeta

Munitibar: Urrutia

Mungia; Larrauri; Madariaga; Zuazaga.

Muskiz (San Julian): Saras

Otxandio: Aspe.

ARABA'TIK

Ba dira Araba aldetik etorriak be. Ez asko. Baiña batzuk bertan gelditu ziran eta gaur be bertan jarraitzen dabe.

Aramaiona: Aginagalde.

Erretolaza: Martinez de Luko.

Legutiano (Villarreal): Izarra

Urrunaga: Nafarrete; Ortiz de Zarate; Zaitegi; Otxoa-Antezana (Abizen au, Bizkai'ko Lekeitio'tik etorri zala esan dogu gorago eta alaxe izan be, baiña andik etorri ziranak jatorriz Urrunagakoak ziran).

Zalduendo: Garzia

NAPARROA'TIK

Azpiroz: Otermin.

Elizondo: Elexondo (XVII garren gizladian lau jaio ziran eta geiago iñor ez)

Illarraga: Itxaso (XIX garren gizaldian 23 jaio ziran emen. Ondarroan "napar txikixa" neko deitura euken. Ospetsua izan zan bizarkentzalle, aginatarzalle ta abar izan zan bat)

Lekunberri: Agirre-Baliere. XVIIIgarren mendean 6 jaiotza agertzen dira. Agirre asko ezagutuarren, Baliere'gaz lotutakorik ez da geiago ezagutzen.

Orbaizeta: Beretorbide.

Saldias: Berrio

Santesteban: Etxaide

Sesma: Garrafa.

BEE-NAPARROA'TIK

Lurralde aretatik etorria da gaur be oraindik gure errian ezagutzen dan abizen bat: Korpeon.

GIPUZKOA'TIK

Gipuzkoarren odola ugaria izan da Ondarroan.

Gorago Mutriku aitatua dogu, auzoerri lez. Baiña gaur emen ezagutzen di-

ran abizenik ugarienak Azkoititik etorriak dira. Odol barri, bero eta ugaria sartu zan bertatik. Eta ez txori antzera gaur pikoka egin eta gero iges egiteko. Azkoitiarrak etorri eta gelditu egin ziran eta abizen bakarren bat kenduta, besteak ondarrutar jator lez uste dira.

Abizen bakoitza noiz etorri zan ikusteko, bear ba da Azkoititik gure errirako erriz aldatzea ezagutzeko, balioko dabe abizen bakoitzaren atzean, emen lenengo jaiotzako agerbidearen urteak zeaztutea. Ala egiten dogu, bereakoen erreskadan.

Aizarne: Ulazia; Zulaika.

Alegria: Larrauri.

Alzola: Bernedo; Ondarza.

Amezqueta: Gorostegi

Angiozar: Belarroa.

Aretxabaleta: Agirre-Elejoste

Asteasu: Gaiztarro

Astigarribia: Lekue

Ataun: Barandiaran; Urrestarazu.

Azkoitia: Alberdi, 1712 urtean; Albissu, 1.684; Alkorta, 1.817; Aranburu, 1.790; Aresti, Arizti, 1.719; Argoitia, 1.764; Arrizabalaga, 1.758; Artetxe, 1.821; Arzamendi, 1.682; Azpiazu, 1.777; Badiola, 1.729; Beristain, 1.814; Etxaniz, 1.745; Irueta, 1.784; Izurrategi, 1.813; Joaristi, 1.655; Landa, 1.837; Larreandia, 1.741; Lete, 1.770; Makibar, 1.698; Uzia, 1.835; Unanue, 1.701; Usobiaga, 1.732.

Azpeitia: Bikandi; Elustondo; Gereketa; Odriozola eta Rodriguez.

Deba: Aizpurua; Arakistain; Arrue; Berastegi; Elezgarai; Idiakes eta Irala.

Bergara: Gallastegi; Iturbe; Uribe.

Eibar: Lasarte; Unzueta.

Elgoibar: Abadea; Alzolabeia; Arano; Arraskaeta; Basaguren; Elgoibar; Guenetxea; Larrañaga; Larrinaga; Lizundia; Osoro; Urizar eta Urruzuno.

Errexil: Usandizaga.

Donosti: Durana.

Itziar: Esnaola; Uranga; Zendoia.

Idiazabal: Abendaño.

Getaria: Etxabe; Uranga; Zendoia.

Lasarte: Treku.

Legorreta: Irigoien.

Lizartza: Olarreaga.

Mendaro: Balzola; Irueta; Makuso; Odria; Zubikarai.

Ondarribi: Landaribar.

Orio: Berridi.

Oñate: Arregi; Elorza.

Pasai Aldanondo.

Plazentzi (Soraluze): Laskurain; Maiztegi; Sajarrista.

Urnieta: Barrena.

Zarautz: Agirresaroe; Areizaga; Ostolaza; Solabarrieta.

Zumaia: Agirrezabalaga.

Ara or, gain gaiñetik, zeaztasun geiagotan sartu barik, Ondarroa'ra batetik eurak bizi nairik eta bestetik gure erriari bizia emoten eta odol barria ekarten etorri ziranen sorlekuak.

Ondarroa itxas erria izanik, arrantzale erria zala eta dala, esan eikean itxas ertzetik etorri bear zirala bertarako lagun barriak. Ez da ala. Gorago ikusten denez, banakak dira Lekeitio, Elantxobe (Ibarrangelu) , Bermeo, Mundaka, Getari. Orio, Ondarrabi, Pasai eta beste portudun errietatik etorriak. Geientsuenak barrutik datoz, baserri errietatik, itxas arnas billa. Bear ba da garai aretan, itxas ertz eta inguruak, bizimodu larria eroanarren, barruko batzuk baiño bizibide amesgarriago, urteera geiagoko eta ogibide errezagoko eukiko eben.

Gure erri oneik bizi ziran estutasun eta premiñen beian be, bear ba da, baserri erriak baiño arintsuago izango ziran gizonarentzat.

Gertatu eikean barruko lagunak, baserrietako lagunak, itxas zeregin eta arrantzara etorri barik, meatz lanetara, burni lanetara eta bestelako zerbitzutara etortea.

Ezin dogu aztu, Bizkaia'n, Enkarterri ingurua kendu ondoren, Markiñalde onetan egon zirala burdin olarik geienak, Artibai gure ibaiaren inguruan.

Ikus zer diñon Jose Angel Garcia Cortazar'ek bere "Vizcaya en el Siglo XV" liburuan: *"La conclusión sobre el tema de la producción de mineral de hierro en Vizcaya es evidente y sencilla: El Señorío basó en el siglo XV toda su fuerza económica, derivada del comercio, en el hierro. La entraña de su territorio, hecha de mineral, favoreció al desarrollo de innumerables ferrerías en todo el territorio de Vizcaya. Las más importantes, con todo, estaban localizadas en la zona donde aún continúa explotándose con éxito el mineral: Somorrostro. Y de ellas es, junto a las situadas en las cercanías de la Rentería de Amallo, en Ondarroa, de quienes la historia ha guardado noticias más concretas."* (141 orrialdean).

Aita Henao'ren esanetan (bere "Antigüedades de Cantabria'n) Ondarroa'ko ibaian beera, urtero, larogei milla kintal burni-gai baiño geiago leorreatzen ziran, inguruetakoa amar burdiñola andi eta beste ainbeste txikien lanerako.

"Le Commerce maritime normand" liburuan be igarten da sasoi aretako

Ondarroa' ren burdin meazkietako irabazpidea. Normanditik koipea eta eun zuria, tela zuria ekarten eben inguru oneitara. Eta emendik burdiña eroan.

Beraz, Ondarroa' ren inguruan esku lanaren premiña egoan, esku-biarren premiña, eta ziurretik lan orrek gizonen eskabidea eukiko eban. Ez litzake arinkeriz pentsatzea, Ondarrura etorri ta bertan gelditutako asko, orrelako lanetara etorriak izatea.

Ortik gaiñera, sasoi aretan, arrantzatik kanpora be, itxasoak gizon premiña eukan. Barriro be, "Vizcaya en el siglo XV" liburuak, 256 orrialdean, argibide apur bat emoten dau onetan: "Getaria, Lekeitio, Bermeo, Ondarroa eta Bilboko txalopak garia eta gatza eroaten dabe Génova'ra, Korzega eta Zerdeña'ra joaten ziran eta Arles'ko garia eroaten eben Barzelona'ra. Etenbakoa zan baita be Genoba'gazko merkataritza. Sarri bizkaitar mariñelak izaten ziran genobar txalopetako erabiltzailleak". (*"Barcos de Guetaria, Lequeitio, Bermeo, Ondarroa y Bilbao llevan trigo y sal a Génova, iban a Córcega o Cerdeña y transportaban a Barcelona el trigo de Arlés. Tambien era intenso el comercio con Génova. Incluso formaban parte los vizcainos como tripulantes de naos genovesas"*).

Bear ba da beste atalbururen baten, ondarrutarren ibillerak gogoratzean, esaera edo uste au ziurtatzeko era izango dogu.

ONDARRUKO EZIXENAK (« DESIXENAK»)

A	Akerra	Anix	Arimeie
A la mar	Akit	Ankamotz	Arlanka
Abadesagasti	Akilla	Ankandi	Armilla
Abarketeri	Akula biriardi	Ankoker	Armitxa
Abarketeruneku	Akuli	Antiuku	Armola
Abarineku	Akulu	Antonburu	Arotz txikixe
Abaro	Albertingu	Antonimarineku	Arpeiandi
Abarosagasti	Alegre	Antxi	Arrabaleku
Abiabia	Alemana	Antxubixe	Arrainsaltzalle
Abioi	Alkatineku	Antxustei	Arrakero
Abuelo	Alli	Antzomendi	Arrara
Adur	Allos	Antzone	Arrautzi
Aeroplanu	Altzaprakak	Antzosoloku	Arri
Agerre	Altos Hornos	Añatza	Arrialperra
Agorrixe	Amabarrixaneku	Apa	Arrigorri
Aguazil txikixe	Amalau	Apaiza	Arrixa
Aingeruku	Amatxikixe	Apallu	Arro
Aingiri	Ameiñe	Aramayoneku	Arrokero
Ainkamotz	Amerikanu	Aramayotarra	Arteondo
Ainkandi	Amillo	Arantzei	Arteta
Aita piedadeku	Amor amor	Arantzi	Artibai
Aititte	Amu	Arbelaitz	Artoburu
Aita totu	Andi	Arbolax	Artzeluz
Aixegorra	Andiketxe	Ardau	Asterrika
Aizkide	Andikoerreka	Ardi	Astillero
Aizmendi	Andixe	Ardikaka	Asto baltza
Akarrei	Angel pinttori	Argala	Astolfo
Akello	Ania	Argizaiola	Atanasio

Atano	Barkilleru	Bolu	Dongre
Atia	Barrabas	Bombero	Donosti
Atila	Basakatu	Borobil	Don Pelotas
Atilano	Basarri	Botechia	Don Pepe
Atune	Baxeri	Boterita	Doña Blanca
Atxaspi	Bateko	Botero	Doatio
Atxillo	Bateko urri	Botxin	Dorote Messina
Atxondo	Beali	Brankalta	Drakula
Atxukale	Bedar gozo	Brollan	Dueleru
Atxuri	Begi txiki	Brix	Durdu
Aulikiz	Bekotorre	Brontxe	
Auntza	Belarrimotz	Burdiñi	È
Aurora barata	Belero	Burgo	Earra
Austin Peru	Belgi	Burriola	Ederra
Automobillaneku	Benzuela	Buru	Educacion y Des-
Axerdi	Berde	Buruandi	canso
Axeri	Berdela	Burubille	Egi
Axi	Berderoi	Buruzuri	Egia
Axune	Bermixo	Bustarri	Egoi
Azaburu	Berril	Bustenbaltz	Elantxobe
Azal	Berritu	Buzu	Eleterioneku
Azalenuku	Berrosasi	Buzuneku	Elizabet Tailor
Azillona	Beru		El noy
Azkarate	Betule	C	Elque
Azpiltza	Bibillo	Capitan Tirantes	Emendiko Erreka
Azurmeie	Bibotax	Carro-carro	Emo
Azurruz	Bikoñatuak		Ena
Ayon	Billotz	D	Enaneku
	Binda	Danbala	Enani
B	Birgen	Dando	Epan
Badiolaku	Birritx	Datiles	Eriño
Ballar	Bixi	Deun Andoniku	Erlojero
Baltza	Bizkaia	Dienesi Sagu	Erlojeru
Baltxa Morena	Bizkaitarra	Diopil	Erramu
Balzola	Bizkargiku	Dio Txikixe	Errebaleku
Baraiku	Blanko	Diru	Errebiro
Barata	Blaxiro	Dito	Erreroneku
Barateru	Blaspotoneku	Dibi	Errosa txikito
Barbantzero	Bolero	Dixa	Errotabarri
Barbara Suabe	Bolin	Doctor Urrutia	Erruperto
Barberu	Bolsillo	Domingo Paz	Eskribauku

Esku-zikiri	Galantxo	Goxogoxo	Ixkiri
Espan	Galdakano	Gozikarra	Ixku
Espanandi	Galdu	Guardia zibille	Ixurdi
Espartxa	Gallego		Itziar
Estasio	Galtzuan	H	
Estrapu	Ganadu	Hijo	J
Estrellitaku	Gantzero	Hombre	Jaiki
Eteño	Gantzeroneku	Huebon	Jain
Etxalde	Garbantzero		Jaungoiku
Etxekalte	Garbi	I	Jaungoikuaz bizi-
Euli	Garli	Ibarre	dana
Euskalerria	Gardotza	Ibarri	Jerusalengo alabak
Eusko	Garrami	Ikaita	Jimmy
Euzkadineku	Garratza	Ikaran	Joakin Bizkaitara
Expresa	Garro	Ikatza	Joe el risueño
Ezin aberastu	Garrokua	Ikomelau	Jokin zarra
Ezkerra	Gatzatu	Igarra	Jontxu Antzosolo
Ezkerti	Gatzero	Igualdadia	Jose Petra
Estabalerio	Gatzerre	Ila	Jose Salbadorreneku
	Gaxapu	Ilbixi	Jose Urrufiñoneku
F	Gaztañei	Illan	Joseson
Famau	Gaztañerre	Indianu	Jospa Dolos
Fatty	Gaztauneku	Indio	Jospatxati
Firpo	Gaztelamatza	Indixoneku	Jospifiñaneku
Fit	Gazti	Ingelesa	Jospifiñazi
Flora Sabino	Gazturu	Inkiña	Jostun polita
Flor de Mayoku	Gerraku	Inkiñaneku	Juan zentellas
Forala	Gerren astilleru	Iñazio Etxeburuku	Juana apaiza
Foteru	Gertaleike	Ipurdi	Juana mala
Fraile	Getari	Iramategi	Juanbaistaneku
Francisco Alegre	Getxo	Iruspan	Justo Morokil
Frantzesia	Gili-gili	Irutxidi	
Frutu	Gimeno	Isabelitaku	K
Fugi	Ginbeleta	Isasi	Kabedo
Fumantxu	Gixona	Islaotxu	Kabeza de Oro
	Goikotorre	Ito	Kabia
G	Goitiz	Itsu	Kaikui
Gabarreruneku	Gonandi	Itsuki	Kaiser
Gaizto	Gorra	Iturran	Kaixo
Gala	Gorri	Ixidor Amerikanu	Kaixu
Galante	Gorrixa	Ixki	Kaixu

Kakamerke	Kastillanu	Konde Goitiz	Laperu
Kakañi	Kastoneku	Kone	Lapiko
Kakapoto	Katoliku	Konkistau	Lapitz
Kakapu	Katon	Konkistauneku	Lastur
Kakati	Katu	Konpitero	Lasuneru
Kakatza	Katubaltza	Kontulaxe	Latarde
Kakote	Katukumi	Kordobes	Lateiko
Kaku	Katuzarra	Korkotxa	Lateru
Kalberra	Katxarrero	Korpion	Latxanbre
Kalbo	Kauto	Koskor	Lauto
Kalbozuri	Kaxarra	Koxu	Lekeitio
Kale	Kaxketa	Koyote	Lekunberri
Kalegarbitzalle	Kele	Kresala	Lemuan
Kalidadia	Kelmiño	Kristo	Lenteji
Kaltxas	Kikirri	Kuadrau	Leon eta Roka
Kaltzandi	Kiko	44	Leon totu
Kamaleon	Kimeno	Kuarteroi	Lepo
Kamiña	Kinaro	Kuartillo	Lerrus
Kamisa blanca	Kintiñeneku	Kuatro ojos	Liki
Kanario	Kiños	Kuba	Limun
Kandelas	Kiñuneku	Kuen Elisabet	Lindru
Kandido-Kandida	Kipulas	Kuen Mary	Liñu
Kanikas	Kirikixu	Kuku	Lionpepe
Kankilloi	Kirriski	Kukutxi	Liorreko patroï
Kanpanero	Kirru	Kursallu	Listran
Kanpax	Kitarra	Kurtiñas	Lito
Kanpaxi	Kixarra	Kurumiño	Lobo
Kantaleko	Kixket	Kurutzeneku	Longiños
Kantidadia	Koastei	Kutxillo	Lorentxanton
Kapelax	Koiko		Lorentzaneku
Kapi	Koipe	L	Loroño
Kapone	Koji	Labako	Loru
Kaporala	Koju	Labazain	Lotixe
Karapito	Kokeñi	Lahostia	Lukaseneku
Kariño	Kokobaltz	Laidon	Lupiñi
Karmen gaizto	Kokona	Lainmediata	Lutxarreru
Karmengu	Kokorro	Laka	Luxafrera
Karpanta	Kokot oker	Lali	Luze
Karretxiel	Kolaxoneku	Lanbasa	Luzeletrikeru
Karril	Koltxilli	Lanzia	Luzengi
Karruajes	Komodagañeku	Lapas	

M	Mari Milagros	Mikalla	Musugorri
Madre de familia	Mari Mutriku	Millan	Mutil gazti
Madriles	Mari Zistrin	Millan maxuneku	Mutilzarra
Mafu	Markesa	Millan probe	Mutriku
Mahoma	Mar-mar	Millan txiki	Mutu
Maistro	Mariñela	Millantontxiki	Muturra
Makabeo	Markina txiki	Minbrillo	
Makala	Marragero	Miner	N
Makarroi	Marraxero	Miren Kepaku	Nabarriko
Makatzat	Marrero	Mirril	Nabo
Makau	Marruko	Mis Aspirina	Nakarra
Mala	Martin Ederra	Mitxel	Napartxikixe
Malangu	Martina Martiña	Mixkia	Napoleon
Malaletxe	Maspe	Moeno	Negrita
Malfraile	Mas que Franco	Moji	Negu
Malutax	Matazi	Moko	Neron
Mallabia	Mater Dolorosa	Mokoplaust	Neskatxiki
Malluki	Maternidadeko	Moku	Neskazale
Mamarro	Odolosti	Molin	Nikolau
Mamolo	Matrallu	Molotov	No ve
Mamu	Matutino	Momatxe	Noizurtengo
Mamu zarra	Matxa	Montxet	
Mandazketa	Matxin	Montxoko	O
Mandeuli	Matxoko	Monu	Obiko
Manduzain	Matxote	Morena	Obillo
Manfru	Matxinplaka	Morkoni	Ogeiko
Mangada	Maunezko Jaun-	Moro	Ogo ogi
Manolete	goiku	Morokil	Ojalatero
Manton	Mazillas	Morrosko	Okabixo
Mantxi	Meana	Moskorrondo	Okan
Mantxikano	Media oreja	Mosolu	Okaso
Mantxu	Mediko txikixe	Motela	Oker
Mantxuneku	Meie	Moto	Okerra
Mantziñe	Mekeke	Motxalli	Okil zarra
Mantzebo	Melilla	Motza	Okolo
Mamuneku	Melon	Motzakillante	Okotz
Maño	Memexioneku	Muchachita	Olagarro
Maedine	Mendixarra	Muli	Olandesa
Marduanekeu	Mermixo	Mundil	Olebist
Maribizar	Miaja	Murtzia	Olesko Amabirgiñi
Mari Gonzalo	Mielgi	Mustu	Oleskoetxe

Oleskopopi	Panizo	Perrero	Pongolas
Olgeta naiko	Panpero	Pesetillas	Popakoxu
Olgetako maisu	Pañuelos	Peskadilla	Popax
Ollarra	Papardo	Petterre	Popeye
Ollo	Papel	Pieduro	Popoker
Ondarru	Papi	Pikaro	Porros
Ondarru Mutriku	Paputz	Pin	Porru
Ondokin	Paraguero	Pin-pon	Poteruku
Ongi etorri	Pardela	Pintxe	Poto
Opaiko	Pareteru	Pintxori	Potolo
Operia	Pasai	Pioli	Potro
Opel	Pasajero	Piotarraneku	Potxeri
Orein	Pasiegi	Pipax	Poxperra
Orixopoto	Pasitos	Piperra	Poxpolu
Ortulau	Paskas	Pipia	Poxpota
Ortzereako	Pastel	Pipita	Pozo
Orubixa	Pastela	Pipitsei	Prakaman
Ospitale	Patillas	Piruli	Prakamotz
Ostatubarri	Patxa	Pistoli	Prakazar
Otanbi	Patxikoneku	Piston	Prantzesa
Otel	Patxikontra	Pitillas	Prapra
Otero	Patxikotxorro	Pito	Prestame
Otoxo	Patxi Millan	Pitotxiki	Pulmones
Otsakil	Patxitxarro	Pitua	Puntillas
Otsu	Patxitxitxarro	Pitxi	Purgatorixu
Otxa	Paxio	Pitxilikoti	Putxades
Otxana	Pazientzixe	Pitxirri	Puxiki
Otxoa	Pelatzin	Pitxitxi	
Ozollo	Pelele	Pitxo	R
	Pelelin	Pitxon	Rada
P	Pelloneku	Pitxu	Raku
Paandi	Penaltiku	Pixeruneku	Rapatxin
Padarra	Penano	Pixketas	Reinaku
Pagate	Penta	Pixki	Rico
Pagateru	Pepelion	Pizpiriti	Rioja
Paketera	Pepeneku	Plakatxa	Rocamora
Palas	Pepetxurru	Plantxero	Romanones
Paleton	Pepita de Mallorca	Plentiñaneku	Roskopei
Paloma	Periku totu	Politena	Rotxil
Panadero	Pernales	Polka	Rubixi
Panderito	Perratzalli	Polonimantxu	Rusia

S	Sibiñas	Terror	Turrut
Sagastaneku	Sietekilos	Teodoro Norte	Turubioneku
Sagasti	Sillero	Teresa Papo	Txabat
Sagradaku	Sinko	Tex Richard	Txaeru
Sagu	Sinpurineku	Titi	Txaket
Sakillu	Soga	Tititta	Txairu
Sakris	Sokote	Tobaneku	Txakillo
Sakristau	Solera	Tocino del cielo	Txala
Saku	Soltera ezkonsu	Tokayo	Txal Baltza
Salau	Sopaprisa	Toki	Txamako
Saldu	Sopas	Tolete	Txan
Salmeron	Sopelana	Tolla	Txanboi
Samar	Sor Lorentza	Tollero	Txanbolin
San Juan Celestino	Sor Ventura	Topo	Txangille
San Lorentzoku	Soraya	Toroto	Txankespati
San Pedroku	Sota ta Aznar	Torreku	Txanpon
Sanberde	Soteratxurru	Toto	Txanterreka
Sandia	Soteritaku	Totolo	Txantxako
Santa Teresaku	Soterotxu	Totomotz	Txantxala
Santakutz	Soxo	Totu	Txapasta
Santamortero	Suabe	Toxu	Txapel
Santana	Susana santi	Tramana	Txapero
Santaneku		Trapero	Txapin
Santi	T	Tratari	Txaplatas
Sapi	Takimiño	Tratra	Txario
Sarbu	Takota	Tripazuri	Txarraka
Sardinzar	Talaxeru	Triste	Txarritxiki
Sardoi	Talo	Troku	Txartela
Sargento malo	Tanbo	Trongu	Txartxa
Sas	Talopari	Trntxo	Txasio
Sasi	Tanbolinteru	Trosto	Txastela
Sasixaneku	Tanborrero	Trotixa	Txati
Sedazko señori	Tankredo	Tubal	Txatu
Sekuneneku	Tataña	Tuela	Txeke
Serbus	Tatxer	Tuer	Txentxe
Serkaku	Tatero	Tuespoto	Txermola
Serori	Tatua	Tuerkas	Txibiene
Serotetxe	Tarzan	Tuerra	Txika de toto
Serreru	Teleru	Tuertu	Txikerra
Sesermendi	Tenple	Tukuman	Txiki
Sestero	Tente	Tundas	Txikitina

Txikito	Txotxiki	Z
Txikixe	Txotxiñe	Zabala
Txikorro	Txulo	Zaindu
Txileno	Txurdiñe	Zaldupe
Txilibito	Txurrero	Zamora
Txilibristo	Txurru	Zapatandi
Txilinbaltz	Txus	Zapatazar
Txillareta	Txutxu	Zapatazuri
Txiller		Zapatera
Txillo	U	Zapateru
Tximi	Ulegorra	Zegama
Tximisti	Ulegorri	Zestero
Txingau	Ulezuri	Zikin
Txipristin	Ultzi	Zintzo
Txiri	Unidad	Zoragarria
Txiringi	Urdai	Zubillo
Txiringilla	Urdin	Zubixalde
Txirleri	Urepela	Zumaya
Txirli	Urko	Zurdazkaxi
Txirlo	Urrezko señori	Zurdi
Txirriñe	Urrutxa	Zurdo
Txirtu	Urtxoriaku	Zurrau
Txispas	Utama	Zurumurru
Txist	Utxupil	
Txitxarra	Uztel	
Txitxarro		
Txitxiñe	X	
Txixu	Xakre	
Txokolate	Xare	
Txokua	Xarra	
Txolakas	Xarrastero	
Txolin	Xebito	
Txomiño	Xeme	
Txomorro	Xexe	
Txonpas	Xostro	
Txonpe	Xoxu	
Txopite		
Txordo	Y	
Txorierreka	Yo cuidare	
Txorixa		
Txorixo		

ONDARROA ETA ARTIBAI

Ondarroa Oiz mendiaren oiñetan kokatu eta lekutzen dan erritxo da.

Bere ingurua kare arritza andiz osotua dago, itxasorantz makurtzen, baiña gogortasun sendoz.

Mendi beratze onetan sartzan diran gaiki ta izadiaren egiturako atalak, euren gogortasuna bitarteko, inguru goiberatsu bat osotu ta itxuratzen dabe, aldatz aundi, mendarte estu eta biurriekaz.

Ondarroa izena bera ez ete da ondar-arrua, au da, ez ondar-zabaldi, ondar-bitarte baiño, ondar-sakonaldi baiño?

Ezin ukatu Ondarroa´ren egituran, Artibai ibaia bere egitura eta itxuratzearen ardatz danik.

Oiz mendiaren saietzetatik dator gure ibai au.

Arta ibai? Arta ori gure toki askoren ezaugarria da.

Arri-ibaia? Arri-arte ibaia?

Baiña ezagutu daigun lenago gure ibaia.

Artibai-ren sortzea Oiz mendiaren sorkaldean ezagutzen da.

Oiz´en jaio eta Errekalde mendí artean zear dator, Markola, Munategi eta Apatiola´n batutako urekaz.

Ziortza´ko Kolejiata ospetsuaren oiñetan, Bolibar´auzoan (Bolibar Ziortza eleiz-ateko auzune bat izan da istorian zear) erreka biren urak geitzen jakoz. Kortaguren eta Elosua´tik datozanak alde batetik eta Mojonarriaga´tik bera Uberuaga´n batzen diranak.

Iruzubieta´n, bide kurutze eta erreka kurutze dan lautada astean, Arrangiz´tik bera datozanak alkartzen dira, eta Kareaga torre zarraren albotik zear, Bekobentaraíño luzatu, Markiña-Xemein´go lurretan, Lekoniz´tik datozan urak Usatorre inguruan artu eta Arretxiñaga´n sartzan da.

Orrarte Artibai bizkaitarra dala esan lei.

Beste alderditik, Urko eta Max'etatik jeisten diran urak Barinaga'n batzen dira eta Urkaregi eta Arranoatetik datozenak Etxebarria'ko Ander deunaren eleizatean.

Eta danok Arretxiñaga'n alkartzen dira Bolibar'tik zearkakoekaz batean.

Geroago Berriatu'ren lurraldean sartu aurretik, Amalloerreka'ko urak bertaratzen dira eta orrela jarraitu, Okola'n beste erreka txiki batzukoekaz, eta Arragüeta'n bera datozanekaz ugarituta Ondarroa'n sartzen da.

Ogei ta amazortzi kilometro inguruko bidea darabil Artibai'k sortzen dan lekutik itxasora bitartean.

Ibaiaren itxas-bide eta sartze orretan kokatzen da Ondarroa, ibaiaren azken ur-kakoaren ezker aldian, sarkaldera begira, erri-ertzean ibaia kaitzat artu eta erabiliatz.

Ondarroako etxarte eta bizitokiaren zabaltzea, oso-osorik, ibaiak eta bere lurralde biurriaren topografiak baldintzatuta egon da.

Ondarroa'ko etxadia Errenderi Auzoa igaro eta Iturribarri'n indartuaz, ibaiaren ezker aldetik lerrokada luzean, mendi-oiñeko lurralde estu baten itxuratu zan, eta ibaiak mendiaren gibela inguratuz bira egitean, itxas-olatuen baregarri ziran ondar-zabaldien gain aldian lekutu.

Orra Ondarroa, Bizkai lurraldearen egalean, Gipuzkoa'ren mugan, Kantauri itxasoari begira ta kresalez beteta, Artibai ibaia itxasoan sartzen dan aoan.

Gradoetan lekutzeko:

14°13' luzerako gradoetan.

43° 18' zabalerakoetan.

ARTIBAI IBAIAREN INGURUKO LANGINTZA ZARRA

Artibai ibaiaren urekaz baliatuta, ainbat lantegi edo ola egon ziran lengo denboretan inguru onetan.

Burdiñolak batzuk, errotak besteak.

BURDIÑOLAK

Burdiñolen artean ogei ta iru ezagunak ziran.

Euretariko batzutan ekoizpenak eta egiturak, Ondarroa'ko ERRENDERItik artzen eben erbestera itxas-bidea. Aldi bateko Ondarroa'ren bizimodua, arrantzatik baiño geiago ezagutzen zan inguruko meazki eta tresnen garraio edo erabilketatik. Oстера luzeak egiten zituen emengo itxasontziak Frantze aldera edo goragoko errialdetara bertako burdinkiak eroan eta andik eun, janari eta abar merkaturako eta errien elikaturarako ekarten.

Ogei ta iru burdiñolen artean, lurraldez lurralde, oneik zenbatuten ziran :

Ziortza'ko lurretan:

Markola,(Gerea inguruan)

Olatxua,

Armaolea,

Olaburu, (Iruzubieta inguruan)

Unzukola.

Jemein'go lurraldean

Kareaga,

Otaolea,
Arizmendi,
Ubilla,
Azpiltza (Azpieta)
Plaza (Au zan andiena eta beste txikiago bat eukan alboan)
Amallo erreka,
Agorria,
Olazar,
Amallobieta,
Egurrola,
Gabiola,
Olazar bekua,
Ogiola.

Burdiñolak, Etxebarriko lurraldean

Oloroki,
Ansotegi.

Berriatu'ko lurraldean

Obekola,
Andonaegi.

* J.A. Garcia Kortazar'en esanetan, Somorrostro'ko burdiñolen gain, Ondarroa'ko Amallo inguruko burdiñolen entzuterik ugariena geratu da Bizkaiko kondairan.

De ellas es (de las de la zona de Somorrostro) junto a las situadas en las cercanías de la Rentería de Amallo, en Ondárroa, de quienes la historia ha guardado noticias más numerosas. ("Vizcaya en el siglo XV, de J. A. Garcia Cortazar.)

* Aita Henao'k, "Antigüedades de Cantabria"n diñonez, urtean larogei milla kintal burnigai ataraten ziran Ondarroa'ko ibaian bera, ingurutako amar burdiñola andi eta beste ainbeste txikirentzat.

ERROTAK

Artibai ibaian batzen diren urekaz baliatuta, sei errota ezagutu ziran inguru onetan:

Gerea'n	Bat.
Markiña-Xemein'en	Lau.
Ondarroa'n	Bat.

AUZOAK

Ondarroa'k bere erri barruko auzo lez, iru daukaz.

Kontuan euki bear da, 1.983 urtean Ondarroa eta Berriatu banatzean, Ondarroa'k Berriatu'ri itxi eutsala,

EIZMENDI (Mereludi edo Milloi gaiñean)

Lau baserri etxe eukazan :

Olabe,

Argingoa,

Eizmendi (bikoitza).

Arrezkero iru auzo oneik dira bereak :

ERRENDERI

(Baserri etxeak :)

Kamiñaga

Alliri (Bidekoa) Paper batzutan Kamin-ibar be deitzen da).

Andikoetxe

Antxikoa

Beltxiorrenekua

Kitarranekua

Patroikua

Pagate (Goikoetxe zarra)

Beste baserri batzuk, nai ta batzuk utsik, oraindik ormaz zutik dagozanak, eleizan Ondarroa'ko parrokian sartzen ba dira be, erri legez Berriatua'koak dira.

	Erriz	Eleizaz
Santana	Berriatua	Ondarroa
Saroe	B	O
Ibarguen	B	O
Goitiz	B	O
Zaldu	B	O

GOROZIKA

(Baserriak:)

Alfonsokua
 Antzorena 1
 Antzorena 2
 Atxondo
 Barrenengoa (Allenda)
 Basterretxe
 Beaskoa
 Mokaro
 Munabe (Utsik)
 Serotetxe
 Ubilla
 Urkiaga Baso (des-egiña)

Beste batzuk, eleizaz Ondarroa, baiña lurrez, erriz, Berriatua dira :

	Erriz	Eleizaz
Akilla	Berriatua	Ondarroa
Baraikua (bi)	B	O (Des-eginda geratu ziran)
Burgoa	B	O
Iramategi barri	B	O
Iramategi zar	B	O


ASTERRIKA

Antiguetxe
 Arteta
 Ikaita barri (Goimendi auzoa)
 Ikaita zarra
 Zezermendi
 Konde Etxebarri (Konde Korta, Gorostidi)
 Galtzuaran

Beste batzuk, eleizaz Ondarroa'n sartuarren, erriz Berriatua dira:

	Erriz	Eleizaz
Arriaga (*)	Berriatua	Ondarroa
Ikatza	B	O
Urkiaga	B	O
Aipasolo	B	O
Asterrikakua	B	O
Beketxe	B	O
Aldekoa (Abadetxe)	B	O
Serotetxe	B	O
Zelaikoa	B	O
Goiketxe	B	O
Errementarikua	B	O
Orueta	B	O
Orueta barri	B	O
Anakabe	B	O
Itola	B	O

(*) Arriaga baserriaren erritasuna, Berriatua eta Ondarroa'k luzaro erabili eben euren arteko eztabaidetan, mugarrira etxe barruan goalako.



Zubi barri.

ZUBIAK

Errenderi auzotik asi eta kai bitartean dagozan zubiak oneik dira :

Errenderikoa.

Egurrezkoa izan zan luzaro. Gero, gure denboretan, zementuz gogortu eben. Estua da, baserrietako burdiak igaroteko aiña.

Zaldupekoa.

1.975 urtean amaitu eta zabaldu zan, lenago urte batzutan egon zan egurrezkoaren orde. Bere deitura ofiziala Antigua'ko Ama da, baiña bere izate eta zergaitia ibaiaren beste aldean egiten dan futbol zelairako bide izatea zan eta gaur egun inguru aretan batzen diran kiroldegi eta beste zerbitzutarako bidea da. Erriak Zaldupe'ko zubi lez ezagutzen dau.

“Zubi barria” .

1.858 urtean egiña da, eta 1.859 urtea emon lei amaitutzakoa.

Zubi au Juan Luis Luzarraga eta Jose Leon Izagirre gaituak asmatu eben. Luzarraga'k arkitektu lez izenpetu eban eta Izagirre'k “director de caminos vecinales y regente en Matemáticas” lez.

Bere aurrekontua (presupuesto) 164.691,84 errealekoa zan eta beste 22.238 errial geitu ziran gaikiak eta laneko goraberen eragiña kontuan artuta. Orrela, 186.921 errialetan atara zan enkantera, errematera.

Egiteko epea, 1.858'ko Bagil edo Ekainillaren 1'erako amaitzekotan.

Lagun bi aurkeztu ziran egiteko gertu. Biak markinarrak. Bat Patxi Alkorta eta bestea Pedro Ugalde. Bakoitzak amar ontzako urre ipini zituen ziurtapen gisa.

Enkantea, erremata asi eta araututa egoan lez, bakoitzak bere lenengo eskintza egin ondoren, seiña bidar joan ziran eskintza ori beratzen eta azkenean Pedro Ugalde'k amore emon eban. Baiña andik egunetara, legeak agintzen eban epe barruan Pedro Ugalde barriro aurkeztu zan erremateko kopurua euneko bostean beratzen eta bere erantzugille lez Jose Andres Barinaga Etxebarria'koa eta Andres Plaza Berriatu'koa izentatzen.

Bizkaiko Aldundikoak bere bigarren eskintza ori aztertzen iñarduen artean, erantzugilleen akatsa izango zalakoan, irugarren bat be aurkeztu eban, oraingo onetan Jose M^a Olasolo markina.

Aldundikoak baiezkoa emon eta bereala ziñatu eban bere azken eskintza 1.857'ko Ekainillaren 19'an, 164.297 errialeko kopuruan zubia egin edo amaituko ebala onartzen.

Gauzak orrela, lanak asi ziran. Eta lanak naiko aurreratuta egozala, 1.858'ko Maiatzaren 7'an euri-jasa egon zan eta uriolak ainbat kalte egin eban eginda egozan lanetan, batez be erdiko pillarrian eta eskuma aldeko orma bularean eta zimenduen ziurtasunerako eutsigarrietan.

Ekaitza Bizkai guztikoa izan zala ta kalteak onartu eutsezan eta gaituak egin eben zeazketan 54.602 errialetan baliatu eben kaltea.

Zubi egilleak ontzat artu eben "konponketa" ori eta lortu eben zubia amaitzea. Orrela 164.297 lenengo errealei, 54.602 geitu bearra egon zan kalteen ondorenez. Beraz zubi-barria deitzen dana 218.899 erreal kostatu zan.

Zubi au egin zanean, laneko alogerak oneik ziran :

Langillea	Egunean amar ordu xe-errealetan	Orduko xe-erreal
Peoia	6 erreal	0,60 orduko
Arri-tolestzaillea	8 „	0,80 „
Argin maisua	10 „	1,00 „
Argin ofiziala	8 „	0,80 „
Arotz maisua	10 „	1,00 „
Arotz ofiziala	8 „	0,80 „
Errementaria	10 „	1,00 „
Burdi-zaiña	16 „	1,60 „

Esan bear da "reales vellon" zeaztuten zala, au da "xe-errealak".

Jakingarria

Zubi-barri bat bear zala pentsatu zanean egin zan gaur "zubi-barri"tzat daukaguna. Baiña asko kostatuko zala eta len egoan zubia, au da "zubi-zar"tzat ezagutzen dogunagaz baliatu eta bera egokitzea pentsatu zan lenengo. Esan be egiten zan zubi ori egoera txarrean egoala eta barriztu bearra eukala, geien be bear aiñako lodierarik ez eukalako okertuta egoala-ta.

Eta zubi orrek bere aurre-puntetan iru metro eukazala ta orregaz baliatuta, bestela zubi barri bat egitea lez kostatuko zalako, zubiaren gaiñaldia beratu eta moldatu eikeala, arku barriak egiñagaz, orretarako zubiaren gaiñaldian balda-txoak atarata bata bestearen gain.

Orrela egiñaz, zubi barririk egin barik, “zubi-zarra” egokitu eta burdiak ibilteko eratuaz naiko izango zala.

Ortarako aurrekontua (presupuestoa) 92.427 errialetan zeaztu zan.

Asmo ori ikusita arrantzaleak asarre agertu ziran, zubia beratu ezkerero, euren txalopak erabilten zituen maste luze eta beste tresnekaz zubi barriaren azpitik ezin igaro al izango ebela ta, eta ain zuzen arraiña atarateko mollak gaurko zubi-zar eta zubi-barri bitartean egozala, au da, orduko zubitik ibaian zear zerbait goratxuago.

Orrelako arrazoi eta asarreak ikusita, azkenean zubi barri bat egitea erabagi zan, gaur “zubi-barri” lez ezagutzen dana.

Ikusten danez, Ondarroa’ko zubi-zar entzutetsua, margolaririk ospetsu eta onenak margotu eta munduko museo eta erakustokirik ezagunenetan agertu izan dana, apo-apoan egon zan beratu edo ez, eta bere erromaniku egitura zaindu eta salbatu ba zan, ez zan izan bere arte eta bitxitasunagaitik, arrantzialiei edo euren txalopei portu barruan egiten jaken kalteagaitik baiño.

“Zubi-zarra”

Ondarroa’ren ezaugarri lez agertzen da.

Arrizkoaren aurretik egurrezkoa egon zan eta zabaltzen zana, txalopak ibaian gora nai bera ibili al izateko. XIVgarren gizaldian ba dira zubi orren aztarnak.¹

Arrizkoa XVIIgarren gizaldiaren erdi aldera egin zan ²

Geroago, 1.788 urtean, “itsasoaren gora-berako erresakak” kalte asko eraginda, zubiaren alboko lurrak zotin egin eta okertu ziran eta Ibero erri-lanetako maisu entzutetsuari deitu eta konpondu bearra egon zan.

1.936 urtean nazionalak sartzean, aidean lertu eben eta barriro egin.

1.953 urtean uriol andi batek tatarrez eroan eban, urte aretako Urrillaren erdiko ekaitzetan.

Gaur ikusten dana 1.961 urtean jasoa da.

1.- “accediendo a las súplicas de los ondarreses que habían tendido un punte de madera en su ría para el paso y comunicación con Guipuzcoa...” (Juan Nuñez de Lara.- 1.347-VIII-6)
Egurrezko zubi onen zati bat zabaldu egiten zan itxasontziak igaroteko eta origaitik ordaindu egiten zan.

“que percibiera cinco dineros por cada uno que pasase por el puente de madera construido sobre el brazo del mar“(1.335)

2.- Trueba’k diño 1.740 urtean egin zala.

Zubi au egin al izateko Ondarroa’ko erriak mendi oneik saldu zitun:

Ondartza edo Arrigorri'ra koa

1.927 urteko Maiatza'ren 1'ean zabaldu zan.

Urte luzetan, Zumardi edo Alamedatik ondartzarako bidea, batel baten bitartez egiten zan, osterea ordainduta.

Batela gizon bakarrak erabilten eban. Pasajeroa deitzen eutsen.

Geien be udako zerbitzua zan.

Baiña Ondarroak toki orretan zubi baten premiña eukan, kontuan eukita, itxas-ondamendi ugari gertatzen ziralako barrako sarreran, ondartza aurrean, itxasoak eraso gogorra eragiten ebalako bertan, eta arriskuan gertaten ziran gizonei laguntza emon al izateko, erreztasunik ez zala egoten eta askotan origaitik gizonak galtzea negartu bear izaten ala.

Orrelako gertaerak kontuan eukita, zubi bat egitea pentsatu zan.

Bizkai'ko Aldundia gertu egon zan lenengotan laguntzeko, baiña aldunen aldaketa baten atzeratu zan.

Zubiaren aurrekontua (presupuestoa) 120.775 pesetakoan zan.

Ortik Aldundiak 70.000 peseta ordaintzeko zitun, baiña gero eziñean egoala ta Ondarroa'ko Udalak erriko gizonen artean batu eban dirutza ori eta Aldundiari zatia ordaindu, Aldundiak udalari amar urtetan urteko 7.000 peseta ordaintzekotan, aurrez udalari bera erabilteko eskubidea emonaz, bertatik igarotea txori (txakur) txiki bat kobratzeko baimenagaz.

Zubi onek lenengo izena Alfonso XIII euki eban. Gero, politika edo erriko gorabera bakoitzean, alako deitura.

Denborak igaroaz zubiak arduradunarentzako aiña emoten ez ebala ikusita, ordainketako txabola kendu eta bertako igarobidea aske itxi zan.

Zubiak erdiko zatia burdiñazkoa dauka, zabaltzen dana, eta beste zati bat zementuzkoa. Burdiñazkoak 30 metro daukaz eta zementuzko alboak ogei metro inguru.

Kairako zubia

Aurten zabaltzeko da. Au da, 1.993 urtean. Zubi galanta egituraz eta itxuraz. Galtzairuzkoa. Txori-Erreka eta Antzo-solo bitartean asten dan porturako bide barri zuzenaren Artibai ibaiaren igarobidetzat egiten da. Calatrava ingiñeruru ospetsuaren egitasmoa da.

Zubi onek 71,5 metrotako argipekoa dauka.

Galtzairuz egiñiko egitura.

Zubi-oiñak, bideak, 23,7 metrotako zabalera dauka geienez eta 20,9 gitxienez.

*Igorotxo, Arantzadi'ko Madalenaren Kofradian.

*Gebauretxueta, Lekoia baserriaren gaiñean.


*Egiguren etxearen ingurukoa, Asterrika auzoan.


Zubiaren premiña geien bat, urakaitik zala esaten zan, iturrietarako ur guztiak erriaren beste aldean agertzen ziralako.

Orreitatik, kotxeentzako arantz onako karril bi daukaz, 7 metrotakuak. Oiñeztarrentzako 4,8 metrotako bidea Iparraldetik eta 4 metrotakoa Egoaldetik.

Oiñeztarrentzako egoaldeko ibilbidea eta kotxeenak zuzenak dira eta oiñeztarrentzako iparraldekoak arku baten irudia artzen dau.

Zubi onen asierako aurrekontua 548.766.285 pesetakoa izanarren, aldaketaren bat euki eban, oirarrietako alde baten utsune bat igarri zala ta bera zuzentzeko.





Zubi zar.

ZUBIRIK ZARRENA

Zubirik zarrena.....Baiña noizkoa?

Ezin ukatu Ondarroaren egoerak, mendi arte bitartean ibaia eukala, alde batetik besterako ibilbidea eskatzen ebara.

Jakiña, uri legezko sorpeneko agiriak gauza guztiak zeatz-meatz ez agertzea, ez da arrigarri.

Baiña sortzeko agiritik laster ezagutzen dira agiri geigarriak lez, utsuneak beteten.

Ala, esateko, Errenderi auzoari buruzkoa Lara'ko Juan Nuñez'en mesede baten igarten dan lez: "*Ontzat ikusten dogu Amallo'ko Errenderi, betirako Ondarroa'ko uriaren barruko izatea*" (1.336-XI-10)

Eta urte batzuk geroago, ormak jaso eta uriko atea ipintzeko baimena emon ondoren, zubiaren aipamena dator.

Bertan igarten da errian egoan zubia diru-eroangarri zala, erri-kalte zala. Egurrezkoa zan, eta txalopei ibaian gorako bidea erraztuteko zabaltzen zana.

Urteak urte ezin eutsi bere egiturari eta azkenean be zubi-barri bat egitea pentsatu zan.

Baiña betiko burukomiña : Nundik eta zelan?

Batetik Ondarroako erria beti izan zan edo ezagutu zan erri pobre. Eta zubi batek, batez be gure ibaiaren zabalera jakinda, ain zuzen be itxasora urreratuaz zabaltzen datorrelako, eralketa andia bear eban.

Alaz eta erriko agintariak bat bateko erabagia artzera ausartu ziran.

Ba eukezan euren jaubetasuneko mendi batzuk.

Or Berriatu'n, Madalena Kofradian, Igorotxo mendia.

Or Lekoia ganian beste mendi bat, Gebauretxueta.

Or baita Asterrika auzoan, Eguren etxearen inguruan dagona, bestea.

Eta mendi orreïn truke lortzen zanagaz zuba egin al zalakoan, mendi orreik saltzeko baimena eskatu zan.

Udaleko I Liburuan ala irakurri daiteke:

"...asierako, jakiña da uri onen agindupekoan, ibai eta ubide ganean, alde batetik bestera igaro al izateko eta Gipuzkoa aldera joateko, zubi bat dagola.

Zubi ori noiz lurra joko dago, egurrezkoa dalako eta ur-jasa askori eutsi bear izaten dautsalako, oker eta kalte andiak leporatuta. Eta erri onek dirurik ez bestelako era onik ez daukalako, lur lau batzuk besterik, arrizkoa egiteko Castilla'n egiten dan antzera auzotarren artean bere ordainketa banatuta emen eziña danez, erri bakoitzak orrelakoak bere kontura baiño, gure lurraldean oiturazko dan eran. Errien konturako da emen zubi eta bideen konponketak bakoitzaren kontura egitea, Bizkaiko Foruak be ala agintzen daualako eta auzoko probintziak be era berean egin.

Ori ikusita uri onek orretarako ez daukalako beste baliagarririk Madalenako Kofradian dagon Igorotxo mendia, beste bat Lekoia etxearen gaiñekoa, Gebauretxeta, San Bixente Kofradian, eta irugarren bat Asterrika'ko San Lorentzo Kofradia, Eguren etxearen alboan, ain zuzen be danak Berriatu'ko eleiz-atearen agintaritzapekoak, nai eta eurak salduarren bertako abereentzako bearrezko belardi ta larre geratzen diranez, ala egitea pentsatu da, erriak beste biderik ez daukalako eta bere bizilagunak bear bearrezko dabelako. Orrela egiñaz, gaiñera, ba dakigulako zuba barri egitea lortzen ba dogu, garrantzi andiko gertatzen diran zarraren konponketetako gastuak bein da betiko amaitu leikezala.

Eta esandako euri-jasaen gain itsasoaren goraberak be, batez be asarratzen dan egunetan, gogor joten dabe, eta utsune andia igarten da zubirik barik ibilbiderik ez dagolako eta ain zuzen be ura eta iturria beste aldean egotean kalte andia sortzen dalako, eta ordeaz alde nausian bear aiña urik ez, batez be euririk ez dagonetan.

Oneik eta bete bear-izan asko gogoan eukita, Jainkoak gorde bedin gure Erregearei eskatzen dautsalagu lur oneik saldu edo eskuz-aldatzeko baimena emon daigula, esandako errazoa ontzat artuaz eta ain ezaguna dan mesedera-ko."

Eskari au ainbat lasterren egitea erabagi zan, eta orretarako Juan Andonae-gi Bidarte'ri eskatu eta agindua emon gai onetaz arduratzeko, beragan konfiantza osoa dogulako eta gure begiramen betea merezi daualako.

*(Ondarroa. Udal Artxiboa. Libro I de Decretos, 121 orrialdean.
1.689'ko Uztaillaren 254'ko Batzar erabagia)*

ONDARTZARAKO “ZUBI” IBILTARIA

Ibaidun erriak dauken aukeretako bat izaten da.

Batel, txanel, motordun edo abarrez alde batetik bestera ostera egin al izatea.

1.877 urtean, Pio Unanue’k. 17 errial kobratu zitun Ondartza’tik Arrigorri-rako eskillarak egiten ibili ziranak, bere batelean egin zituen osterakaitik. Bide a guztira 778 erreal eta 29 marau kostatu zan.

Ez dago ziurtasunik aldi aretan bera izango zanik edo ta bestela bere bate-len bategaz orretan arduratu zalako izan zan.

Baiña ziurra da 1.884 urtean Udaletxeak Bitor Urresti’ri agindu eutsala ontzi barri bat egitea, batez be uda denboretan edo “bañu” denboretan batetik besterako zerbitzua egin al izateko. Txanela, kateak, arpeoa, erramuak eta kandau ta guzti eskatu eban Udalak.

Itxuraz Udal-zerbitzua izan zan beti.

Batel onen erabiltzaille izan zan urte askotan Gillermo Amutxastegi pelotari entzutetsua izan zanaren aita, Domingo.

Origaitik “pasajeru”n semea deitzen eutsen Gillermo berberari be eta bere esanetan, txiki zala, berak be aitaren ordeztartu zitun egun batzuk batel orretako erramulari lez.

Batel zapala izaten zan, erdiko jarrilekoen aldeztabor eta estiborreko karelosoaren barrukaldean jendearentzako jarrilekotzat ol zabala eukala.



ERREKAK ETA ITURRIAK

Errekak

Txorierreka
Antzosolo-erreka (Mando-erreka) (Mandazka)
Zaldu erreka
Iramategi erreka
Arragueta

Santana
Mandazketa (Arkatxa'ko mandazka)
Kamiñaga erreka
Emendiko erreka
Galtzuaran erreka
Urkixa erreka
Mantxoarri

Iturriak

Arrigorri
San Juan Txurru
Iturribarri
Andiketxe (Atxabal)
San Pedro Txurru
Mustu Txurru
Galtzuaran
Anakabe

Zaldupe

(Arrigorri, Mustu-Txurru, Anakabe eta Zaldupe'koak metal urak dira).

Mando-askak

Erabilketak mandoz egiten ziran denboretako mandaskak geratzen dira oraindik. Mandasketa izenez ezagutzen dira. Ala Antzosolo'n, Emendiko erreka azpian eta Errenderi inguruan.

KALE ETA KANTOIAK

Ondarroa'ko kale zarrak, zarrenak, Eleiza nagusira joten daben goi bideko iru dira "Kale nagosia, Ipar kalea eta Goiko kalea. Eurekaz batean euren ingurutako kantoiak.

Kaleen zenbakiak Eleiz-Nagusi aurretik asten dira.

Gure gizaldiaren aurreko kaleak oneik ziran:

Kale nagosia edo Kale andia. Bietara irakurten da paperetan.

Ipar kalea.

Goikoa kalea.

Erribera, edo ibarra.

Arrabal txikiña.

Ipista kalea.

Kantale.

Tranpa.

Kale-kurutze.

Kanttoipe.

Ipar kale izena XV garren mendeko dokumentuetan be irakurten da.

Kanttoipe'n asi eta Lekeitio-bide nai Kai-bide edo alde guztia gure gizaldiaren asieran urari kenduak dira, bai eta Iñaki deuna kale aldetik Markiñalde-rakoa be.

XXgarren gizaldian sartuta egoan politika giroa, anai arteko guda eta abarrek, izen barriak ipini edo ta gudako ta politikako gizonak goraltzeko garra ezagutu eraso eban.

Batez be gure erriaren ezaugarrien kaltean.

Orrela ainbat general, komandante eta gerra giroko izen ipini ziran.

Demokrazi denborako lenengo Udalak, 1.980 urteko Urrillaren 31'n egin-dako udal batzarrean, kale batzuen izenak lengo jatorretara biurtzea erabagi eban, beste batzuei, batez be barriei, euren lekuko izen egokien bat erantsiaz.

Ara erabagi orretan zeintzuk izenen aldaketa onartu zan:

Ordurarteko izena

Calle de D. Domingo Aguirre
 Calle del Comandante Velarde
 Calle de D. Jose Ant^o Garramiola
 Prolongaciòn de la calle anterior
 Calle del General Mola
 Calle del Generalísimo Franco
 Calle de la Nueva España
 Alameda de Navarra
 Calle del Conde de Rodas
 Calle Columna T.C. Tutor
 Ramal de la c/Tutor que se dirige
 hacia Gorozika y Zaldupe
 Calle de D. Jose Cruceño
 Calle del General Primo de Rivera
 Calle de Dn. Marcelino Oreja
 Calle de San Ignacio
 Avda, Nt^a Sr^a de la Antigua
 Calle del Matadero
 Dársena de Eguidazu
 Calle del Marqués de Arriluce
 Calle de San Juan Txurru
 Travesía de Chori Erreca
 Prolongación de la anterior Travesía
 desde la curva de Arrigorri hasta Katei
 Calle de Iturribarri
 Plaza de D. Pedro M^a Unanue
 Zona del Astillero
 Travesía entre la calle de San Ignacio
 (nº 17 y 19) y la calle Marqués de
 Arriluce Ibarra
 Zona situada entre las calles de
 D. Domingo Aguirre y Comandante
 Velarde, al final de las mismas
 Paseo de San Cristobal
 Calle Magdalena

Izen barria

Txomin Agirre kalea
 Ipar kalea
 Kale Andia
 Kamiñalde kalea
 Nasa kalea
 Itxas-aurre kalea
 Kanttoipe kalea
 Nafarroako Zugazia
 Arana tar Sabin kalea
 ” ” ” ”
 Zaldu bide
 Erribera kalea
 Arta bide
 Iparragirre kalea
 Iñaki Deunaren kalea
 Antiguako Ama kalea
 Arategi kalea
 Egidazu kalea
 Artibai kalea
 San Juan Txurru kalea
 Txori Erreka kalea
 Arrigorri bidea
 Iturribarri kalea
 Pedro M^a Unanue'ren enparantza
 Astillero
 Ikastola kalea
 Pixape
 Kafeko Atze kalea
 Madalena kalea

Azalpen edo jakingarri lez esan bearreko da “Goiko kaleari” 1.936 urtean ipini eutsela Txomin Agirre izena, urte aretan “Kresala” eta “Garoa”ren egille-ari Ondarroa’k egin eutsan omenaldi jaietan.

“Itxas-aurre”kalea, gerra arte calle del Puerto, Portu kalea deitzen zan eta gerratean ipini eutsen Franco’rena. Eta izena aldatzean ikusirik portuak ba daukala bere toki berezia, Itxas-aurre izena egokiagoztat uste izan zan.

Kanttoipe kalea, gerra aurretik Uribarri kalea=calle del Ensanche deitzen zan, gizaldiaren asieran kale ori egin zanetik. Gero “Nueva España” ipini eutsen.

Erribera kalea, gerra aurretik Ibarra kalea deitzen zan, au da Ibarra kalea=Calle de la Ribera. Gero gerrate inguruko izenen artean Jose Cruceño izena ipini eutsen. Izenak aldatzean Ibarra izena baiño erriak Erribera geiago erabilten ebala-ta, azken izen au jarri.

Conde Rodas kalea gerra ostean ipinitako izena da. Lenago Ibarra kalearen jarraipentzat etsiten ziran bertako etxe biak.

Marcelino Oreja’ren kale zati bat “Travesía de las Escuelas = Ikastola zear kalea” deitzen zan. Orain Iparragirre.

Lengo zarrak diño Iparragirre’k kale onetan abestu ebala, bertako kafete-txe baten, Ameriketara joan aurretxoan, “Boga-Boga” abesti ezaguna.

Orrek ez dau esan nai Iparragirre “Boga-Boga”ren egille izan zanik, baiña bai ori abestuten zale zana eta gañera arrantzalienen maitale batetik eta geien bat Bizkai’ko eta Euskalerriko ezaugarri dogun Gernika’ko Arbolaren kantari izan zalako.

Artibai kalea lengo Arrabal Txikiña deiturakoan asten da. Lenengotan “Marques de Arriluce Ibarra” ipini eutsen, baiña kale ori Artibai ertzean dago-lako, Artibai.

Eta gorago joanda, erreka egaletik gorantz joanda, lengo Kamiñazpi inguru-an zabaldua dan kale barriari, ibai ondoan egiten dalako, Ibai-ondo izena.



Erriberako etxeak.

ONDARROA'KO ETXE ETA LUR JAUBEAK 1.814 URTEAN

- Antonio Nafarrete.– Txakoliña artzen eban eta ikatza be egiten eban.
Antonio Ibaseta.– Etxe baten jaube zan eta ortuak.
Andres Antxustegi.– Bost etxe.
Antonio Garramiola.– Etxe bi eta soloak.
Ana M. Etxebarrigarai.– Etxe bat.
Angel Arkaute.– Etxe bi eta euren inguruak. Txakoliña egiten eban.
Antigua'ko ermita.– Etxe bat.
Antonio Burgoa.– Ortu bat.
Bautista Badiola.– Etxe bat eta inguruak. Txakoliña egiten eban.
Bernardo Ansorregi.– Etxe bat eta inguruak.
Bartolome Juaristi.–Etxe bat eta inguruak.
Peñaflorida Kondea.– Etxe bi. Gaztaiña batzen eban eta ikatza egin.
Karmen Goiogana.– Solo bat.
Parrokiko abadeak.– Solo bat.
Domingo Ibaseta.– Etxe bat, labea eta inguruak.
Domingo Ibaibarriaga.– Etxe bat eta soloak. Txakoliña artzen eban eta gaztaiña be bai.
Domingo Idoeta.– Etxe bi eta inguruak.
Eriba.– Etxe bi. Txakoliña egiten eban.
Patxi Launeta.– Etxe bat eta ortua.
Franzisko Gelalorso.– Etxe bat eta ortuak. Txakoliña egiten eban.
Felipe Ibaseta.– Etxe bat.
Felix Usobiaga.– Maasti bat. Txakoliña egiten eban.

Gabriel Urresti.– Etxe bat eta soloak.
 Gregorio Markaribar.– Etxe bat.
 Geronimo Unanue.– Solo bat eta maasti bat. Txakoliña egiten eban.
 Gorozikako ermita.– Etxe bat eta bere soloak.
 Iñazio Urresti.– Solo bat.
 Jose Azpiri.– Etxe bat eta ortua.
 Jose I. Egiguren.– Etxe bat eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Jose L. Egiguren.– Etxe bi eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Juan Bta Sustaeta.– Etxe bi eta inguruak.
 Juan Bta. Mendibeltzua.– Etxe bi eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Jose Arrieta.– Etxe bat eta inguruak.
 Juan Bixente Bengoetxea.– Lau etxe eta inguruak. Txakoliña egiten eban.
 Jose Aulestia.– Etxe bi eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Jose Burgoa.– Etxe bat.
 Juan Bta Urriolabeitia.– Etxe bat.
 Juan D. Gandiaga.– Etxe bi eta inguruak. Txakoliña egiten eban.
 Juan Bta. Iturrino.– Etxe bi.
 Jose Mugartegi.– Etxe bi eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Jose Ant. Agirre.– Etxe bi eta maastia. Txakoliña egiten eban.
 Josefa Uribe.– Etxetxu bat.
 Jose Migel Azurduy.– Baserri bat.
 Jose J. Ormaetxea.– Baserri bat. Txakoliña egiten eban.
 Jose Ant. Arano.– Baserri bat.
 Juan Bta. Olabarria.– Baserri bat.
 Juan Guenaga.– Solo bat.
 Juan I. Uriarte.– Baserri bi.
 Juan K. Urreta.– Etxe bi bizilagun barik.
 Jose I. Aristi.– Etxetxu bi eta soloak. Txakoliña egiten eban.
 Lorentza Larrauri.– Etxetxu bat.
 Lorenzo Badiola.– Iru solo.
 Migel A. Murga.– Iru etxe ta inguruak.
 Migel A. Goitia.– Zazpi etxe eta soloak. Txakoliñik geien egiten ebana.
 Klara Urkiaga.– Etxe bat eta inguruak.
 Maria Ant. Arriola.– Etxe bat eta maastiak. Txakoliña egiten eban.
 Isabel Iramategi.– Etxe bat eta soloak.
 Manuel Urrestieta.– Etxetxu bat eta inguruak.
 Martin Lauzirika.– Etxe bat eta soloak.
 M. Iñazio Azpiazu.– Etxetxu bat.
 Andres Barroeta.– Etxe bat.
 Manuel Guenaga.– Etxe bat eta soloak.
 Juan Ibañez Aldekoa.– Baserri bat.

Maria Ant. Etxebarria.– Soloak.
 Maria Amallobieta.– Etxetxu bat eta soloak.
 Pedro Aranzamendi.– Etxe bat eta tejabana bat.
 Prudencia Gelalorso.– Etxe bi eta tolarea. Txakoliña egiten eban.
 Pedro Juaristi.– Etxe bi eta soloak.
 Pedro Jose Goitia.– Etxe bat, amaitu barik eta maastia.
 Pedro San Martin.– Tejabana bat eta inguruak.
 Ramon Unzeta.– Etxe bi amaitu barik.
 Ramon Azkarraga.– Baserri bat.
 Sebastian Arrasate.– Iru etxe eta euren lurrak.
 Santiago Eizagirre.– Etxe bat.
 Sebastian Abaroa.– Etxe baten erdia.
 Sebastian Iturraran.–Etxe bi ta lurrak.
 Teresa Bustinzuria.– Etxe bi ta lurrak.
 Etxebarria'ren alarguna.– Iru etxe ta lurrak. Txakoliña egiten eban.
 Zabala'ren alarguna.– Bost etxeetako bere alderdia.
 Aranbarri'ren alarguna.– Etxe bat eta lurrak.
 Otermin'en alarguna.– Etxe bat eta soloak.
 Bakeriza'ren alarguna.– Solo bat.
 Erriak, etxe bat eta basoak.

BESTE ONDASUNAK

Etxe eta lurren jaubetasun eta emaitzen gain, ba egozan euren ogibide eta zeregiña zala-ta ordaindu bear izaten eben erritarrak. Zerrenda onetan agertzen dira orrelakoak.

Zerrenda onetan agertzen dan utsuneak adierazten dau itxas eta arrantza bitzizak eta orretazko ondareak ez ebalu erri ondasunekaz loturarik.

Ara ordaintzen ebenen zerrenda :

	Errialetan
Domingo Ibaseta.– Upelgille zeregin eta dendari gintzagaitik:	130
Domingo Gandiaga.– Upelgille izateagaitik eta Aldundiari aurreratutako zentzu bategaitik:	54
Patxi Askarretazabal.– Erriko osagille izateagaitik:	80
P. Iturrino.– Oiñetako konpontzaille (zapatari) izateagaitik:	20
Jose A. Ugartetxea.– Errementari izateagaitik:	20
Jose A. Madariaga.– Udaletxeko idazkari izateagaitik:	80
M. Iñazio Aspiazu, errementari eta dendari izateagaitik:	140
Manuel Ibaseta, zirujanu ordaindua izateagaitik:	60
Erramun Jimeno, organu jotzaile eta umeen maisu izateagaitik:	40

Ant. Nafarrete, ostatulari eta dendari izateagaitik:	100
Katalin eta Narzisa Etxebarria, alkar arteko dendagaitik:	120
Kontxa Aristi, dendari izateagaitik:	40
Angel Lopez Arkaute, bere dendagaitik:	50
Felix Usobiaga, gozo-gintzagaitik:	40
Jeronimo Unanue, tabernari eta dendari izateagaitik:	120
P. Ibaseta, tabernari izateagaitik:	20
Jose Aulestia, ostatulari eta Aldundiari aurreratutakoa:	74
Txomin Idoeta, arotz ogibideagaitik:	20
Jose Arriola, arotz ogibideagaitik:	20

Orrez gain ba egozan Aldundiari zentzoan dirua aurreratuta eukenak .

Andres Antxustegi'k,	600 errialeko zentzua	36
Ana Arriola'k,	400 errialeko zentzua	24
Juan Bta. Sustaeta'k	400 errialeko zentzua	24
Jose Ant. Bengoetxea'k	400 errialeko zentzua	24
Antonio Garramiola'k	400 errialeko zentzua	24
Jose L. Egiguren'ek	400 errialeko zentzua	24
Juan Bta. Mendibeltzua'k	400 errialeko zentzua	24
Jose I. Aristi'k	400 errialeko zentzua	24
Jose A. Arantzamendi'k	400 errialeko zentzua	24
Santiago Abaroa'k	400 errialeko zentzua	24

Laburpena :


Erriak, etxe eta jaubeen ondasunen errenta diru eta abarren ordez dirutan edo janaritan batzen zana dirutara biurtuta eukan balioagaitik (Ikus 1 laukia)	31.009,30
errial batzen zitun, eta ogibide, gintza eta merkataritzako kuotetan	<u>1.444</u>
Danetara, lur, gintza, ogibide eta zentzuen ordez, eta abade, parroki eta prebostearen amarrenak be kontuan eukita errial ordaintzen zitun erriak Bizkai Aldundirako.	<u>32.453,30</u>
Diru orreik, orduan oiturazko zan lez, errealak ziran.	

(Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboa, 4 Erreg. 93 Zenbakia)

1 laukia, Lur jaubetasunen ekoizpena

ANEGAK

	Dirutan	Garia	Artua	Indiar	Baba	Gaztain	Sagar	Txakolin Erradak	Ikatz Kargak	Dirutara bihurtuta
Jaubeen errentak	15.360,01	168,5	11	00	00	9,5	00	85 1/8	—	23.101,13
Jaubeak euren konturako uzta		450	546	18	18	90	150	390	—	
Emondako amarrenak	495	075	093	03	03	06	015	039	—	6.987
Partikularren mendien emaitzak	—	—	—	—	—	—	—	—	80	320
Udal mendien emaitza	211,17	—	—	—	—	—	—	—	20	301,17
GUZTIRA	16.066,18	693,5	650	21	21	106,5	165	514 1/8	100	31.009,30



Etxe-barru bat.

ONDARROA'KO JAUBETASUNEN BALIOA 1.823 URTEAN

Bizkai'ko Aldundiaren Iraila'ren 26'ko agindua beteaz egin zan zerrenda au kontuan eukita 1.823 urtean Batzar Nagusiak emondako erabideen zerrenda eta kontuan eukita baita erri onek 1.794 urtean jasan eban frantzetarren erasoko ondamendia.

Etxe jaubeak	Jaubetasuna errialetan	Jaubeen zentzoak	Balioa zentzoak kenduta	Zerga %10 kenduta Errial. Marai	
GOROZIKA					
Santiago Abaroa	1.036	80	956	95	22
Andres Antxustegi	1.972	208	1.764	176	11
Antzorena'k	776	84	692	69	8
Goxeaskoa	377	40	337	33	24
Baserri onetako erreteruak	112		112	11	8
Ubilla	353		353	35	12
Serotetxe	82		82	8	8
ERREENTERIA					
Pagarrenekoa	116		116	11	22
Patrokua	312		312	31	8
Beltxorrenekua	347		347	34	24
Andikoetxea	360		360	36	

Etxe jaubeak	Jaubetasuna errialetan	Jaubeen zentzoak	Balioa zentzoak kenduta	Zerga %10 kenduta Errial. Marai
Antxikua	165		165	16 18
Kitarranekua	277		277	27 24
Goitikua	287		287	28 24
Kamiñaga	428		428	42 28
Murga	360		360	36 ..
GOIMENDIA				
Arteta	397		397	39 24
Arteta'ko Lorentzo'k	12		12	1 8
Ikaieta	397		397	39 24
Bertako errenteruak	96		96	9 22
Zezermendi	540		540	54
Galtzuaran, kaleko ondasunak sartuta	376		376	37 22
EIZMENDIA				
Arano	410		410	41
Olabarri	410		410	41
Mugarategi	290		290	29 4
Errota	32		32	3 8
KALEAN				
Antonio Garramiola	424		424	42 14
Bernardo Ansozregi	130		130	13
Urriolabeitia, Alarg.	61		61	6 4
Berberak, Zuazaga'rena	22		22	2 8
Barbara Aramaio	81,5	16,5	65	6 18
Domingo Ibaseta	202		202	20 08
Jose L. Eiguren	466	166	300	30
Bixente Bengoetxea	710		710	71
Karmen Egurrola	198,5	90,5	108	10 32
Vda. don Prudencio	607	253	354	35 16
Jose Arriola	187		187	58 24
Eriba andrea	727		727	72 24
Juan Bta. Mendibeltzua	552		552	55 8
J. Iñazio Aristi	623	143	480	48

Etxe jaubeak	Jaubetasuna errialetan	Jaubeen zentzoak	Balioa zentzoak kenduta	Zerga %10 kenduta Errial. Marai	
Jose Mugartegi	424	188	236	23	22
Pedro J. Arantzamendi	336		336	33	22
Franzisko Azpiri	418	92	326	32	22
Jose J. Ormaetxea	40		40	4	
Antonio Nafarrete	642,5	33,5	609	60	30
Maria A. Arriola	1.204	899	305	30	18
Zabala'ren alarguna	650	412	238	23	28
Lorenzo Etxaniz	211,5	86,5	125	12	18
Domingo Ibaibarriaga	171,5	118,5	53	5	12
Lauzirika'renak	322	109	213	21	12
Jose And. Madariaga	367,5	184,5	183	58	12
Antonio Arantzamendi	294		294	29	16
Jose Burgoa	89		89	8	30
Alzaga	57		57	5	24
Iñazio Zubikarai	9		9	1	32
Antonio Etxebarria	449		449	44	30
Martin Balzola	379	166	213	21	12
Juan B. Sustaeta	1.215	291	924	92	16
Manuel I. Azpiazu	394		394	39	14
Migel Ant. Goitia	1.283		1.283	128	12
Bikario jaunak	268		268	26	28
Launeta'ren alarguna	85	66	19	1	30
Peñaflorida kondea	905		905	90	18
Klara Zelaia	326		326	32	23
Domingo Idoeta	432	139	293	29	12
Ana M. Etxebarriagarai	485	40	445	44	18
Jeronimo Unanue	392	160	232	23	8
Urrestieta	149		149	14	30
Franzisko Gelalorso	483,5	303,5	180	18	
Domingo Madariaga	134		134	13	14
Ana M. Etxebarrria	185	33	152	15	8
Domingo Agirre	77		77	7	24
Santiago Izagirre	77	8	69	6	30
Felipe Iturrino	130		130	13	
Pedro Jose Goitia	102	32	70	7	
Florentina Ostolaza	318,5	106,5	212	21	8

Etxe jaubeak	Jaubetasuna errialetan	Jaubeen zentzoak	Balioa zentzoak kenduta	Zerga %10 kenduta Errial. Marai
Manuel Guenaga	146		146	14 20
Felipe Etxaburu	328	165	165	16 12
Gabriel Urresti	164	99	65	6 18
Lezea	252		252	25 8
Ospitala	60		60	6
Antigua'ko ermita	160		160	16
Sebastian Arrasate	420	113	307	30 24
Franzisko Basterretxea	372	231	141	14 4
Domingo Alkorta	8		8	28
Antonio Badiola	8		8	28
Antonio Ibaseta	104	56	48	12 28
Juan Guenaga	128		128	12 28
Bernardo Badiola	13		13	1 12
Felix Usobiaga	8		8	28
Jose Ant. Agirre	213	165	48	4 28
Franzisko P. Atxa	300		300	30
Mari Etxebarria	75		75	7 16
Andres Amallobieta	48		48	4 28
Jose A. Burgoa	120		120	12
J. Andres Arrasate	354		354	35 14
GUZTIRA	32.761,5	5.528,5	27.233	2.723 18

Ziurtatzen da zerrenda au egiten ez dala bitartekorik egon, ez azpikeririk, ez bekaizkeririk, ez atzipenik, ordezkariak euren jakituri eta kontzientzipean lortu daben bardintasuna baiño.

Eta ala izenpetzen dabe 1.825'ko Abenduaren 5'ean, Andres Antxustegi, Santiago Abaroa, Sebastian Arrasate, Domingo Ibaibarriaga, Juan Bta. Sustaeta eta Domingo Jose Madariaga'k.

Idazkaria: Jose Andres Madariaga.

1.825 URTEKO ERROLTZEA

Bear ba da frantzetarren erasoen ondoren zentzuz eta zeatz egin zan lenengo erroltzea 1.825 urtekoa da.

1.796 urtekoan bizilagunen gorabera andirik ez da agertzen. Beste onetan bai.

Bertan diñonez, "Intendencia de Policía" k bialdutako agindua beteteko egin zan erroltze au.

Erroltze onetan, txiki ta andi, kale ta baserri, 1.368 (milla irureun eta irurogei ta zortzi) bizilagun eukazan danetara Ondarroa'k.

Eta bertan ikusi eta igarten danez, Ondarroa euskal odoldun erri jatorra izan zan.

1.368 bizilagun orreitan Ondarroan bertan jaiok 1.068 lagun ezagutzen dira. Beste irureun albo erri eta ingurutatik etorriak dira, era onetan:

Bizkai errietatik etorriak	185
Gipuzkoa'tik etorriak	101
Araba'tik etorriak	5
Naparrak	1
Errioxa'tik	2
Katalunia'tik	6

Zerbait geitxuago zeaztu giñei:

Araba'tik etorrien artean, bat Maeztu'tik etorritako emakumea zan, Ruiz de Alda abizenekoa. Alarguna zan eta ondarrutar neska serbitzari bategaz bizi zan emen.

Beste bi Urrunaga'tik agertu ziran. Bat, 23 urtedun neska, otseiña, Maria Nafarrete eta bestea Landaburu abizeneko mandazaiña, 39 urteduna.

Beste bat Agurain (Salvatierra)tik etorri zan: Dolores Etxebarria, jostuna, 17 urteduna. Zortzi illabete eroiazan errian.

Eta bostgarrena, Gasteiz'tik etorritako bat, 26 urteduna, arrantzale lez ebillan.

Naparroa'tik etorria mandazaiña zan. Euskalduna, Juan Migel Arregi, Arruiz'en jaioa.

Errioxa'tik etorritako bat Castañares'koa zan, mandazaiña, Sebastian Otxoa, 36 urteduna; eta bestea San Asensio'tik etorria, 35 urteduna, arrantza txalopan ebillan emen eta 30 urte eroiazan bertan. Bere emaztea, M^a Bautista Beitia, dendaria zan.

Kataluinar seirak, Font abizendun osagillea, bere emaztea eta lau seme alaba ziran. Osagille orrek 58 urte eukazan, eta lau urtetan bizi zan emen. Elgoibartar neskame bat euken serbitzuan.

Adiñari begira

Adiñari begira, bizilagunen urteie begira, oartuten da kopuru txikia biziten zala 50 urtetik gora.

Danetara berreun eta berrogeita amairu lagun dira (253) berrogetamar urte-tik gorakoak bertan bizi ziranak.

Era onetara zeaztuta:

50 / 60 urte artekoa	157 lagun bizi ziran.
60 / 70 artoetan	75
70 / 80 artoetan	20

Eta ortik gora, bat bakarra agertzen da, berak 100 urte eukazala gaiñera: Rosa Loiola zan. Ez zan sortzez ondarrutarra, baiña 60 urte eroiazan emen errotzea egin zanean. Nikanor Zaldunbide eta Josefa Basterretxea'ren familian bizi zan.

Erriz-erri nundik etorriak

Arabarren, naparren, errioxatarren eta kataluniarren jatorria gorago aitatu dogu.

Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak zeaztu daiguzan jarraian.

Bizkaitarrak jarraiko uri eta eleizate.eta ingurutatik etorriak ziran:

Amoroto	7
Arrankudiaga	2
Aulesti	11
Begoña	1

Berriatua	95
Bilbao	2
Bolibar	2
Elorrio	3
Erandio	1
Etxebarria	5
Gerena	9
Gernika	1
Gerrikaitz	1
Izpaster	3
Jemein	3
Lekeitio	5
Lumo	1
Mañari	1
Markiña	28
Maruri	1
Mendexa	2
Munitibar	1
Ubidea	1

Guztira Bizkai errietatik etorriak 186.

Gipuzkoa'ko errietatik etorriak:

Asteasu	1
Astigarribia	3
Azkoiti	7
Azpeiti	5
Bergara	1
Deba	5
Donostia	1
Eibar	3
Elgoibar	8
Itziar	4
Mendaro	5
Mutriku	53
Ondarribi	1
Pasai	1
Urrestilla	1
Urretxu	1
Zarautz	1

Guztira, Gipuzkoatik etorriak 101

Erriko bizi-lagunen ogibidea

Ogibideak zeaztuten asi ezkeru, etxeoandra, alargun, zar eta umeak kendu ezkeru, onokoak ezagutzen dira:


Abadeak	2
Albaiteruak	2
Alogerekuak	30
Amugiñak	1
Arakiña	1
Argiñak	3
Arotzak	7
Arrain saltzille andrak	14 (freskerak)
Arrantzaleak	263
Bidai arduraduna (korreoa)	1
Botikarioak	2
Dendariak	5
Errementariak	1
Errotariak	1
Eskola maisua	1
Eskola maistra	1
“Eskolastikoak”	3
Euleak	3
Giltz zaindaria	1
Gozo egilleak	3
Iruleak	1
Itxastarrak	2
Jostunak	29
Kaltzerdiegilleak	4
Laba-zaiña	1
Morroiak (baserrietakoak)	9
Musikalariak	2
Nekazariak	151 (Baserritarrak eta kale baserritarrak)
Neskameak (Otseiñak)	18
Okiñak	7
Organu jolea	1
Osagillea	1
Ospitalekoak	5
Tabernariak	2
Tratulariak	8
Udalzaiña (aguazilla)	1
Upelgilleak	5

Zapatariak	3
Zirujanoak	1
Zirujano-laguntzaile	1
Zeztugilleak (Otzaragilleak)	3

Urte orretan, 1.825'n Andres Arriola zan alkate.

Eta udal-idazkaria, (eskribadua) Jose Andres Madariaga eta udalzaiña (aguazilla) Domingo Arriola, biok markiñarrak.





Eleiz azpia.

ONDARROA ETA MADOZ

Madoz, Paskual Madoz iruñarra, XIXgarren gizaldiaren asieretan jaioa, jakintsu argi eta politikari zeatza zala esaten da. “Diccionario Geográfico, Estadístico, Histórico” deiturakoa idatzi eban.

Orretan ogeiren bat langille erabili zitun beragaz. Bere irizpideak zuzen oinarrituak dirala esaten da, giroan giroko eta lekuan lekuko.

Ara **ONDARROA** portu, **ONDARROA** ibai eta **ONDARROA** uriari buruz berak diñona.

ONDARROA portua. Kantauri itxasoko izen onetako kaia, portua, Bizkai lurraldean, Markiña'ko auzitegi eta Bilbo'ko itxas komandantzipekoea da, Ferrrol'eko eskualdekoea. Zabaluneko 43'18"tan lekutzen da eta Matzaku muturretik 6 leguatarara dago. Bertatik itxasoratzen da bere izen berbera daroan ibai txikia; bertarako sarrera erraza da arrantzako txalopa txikientzat, baiña ondo txikia daukalako ez da merkataritzako ontzientzako egokia.

Artilleriko bateri bigaz aldeztuta egon zan, baiña Askatasun gerra ezker ez dauka orrelako izkillurik, eta osta-osta igarten dira lengoen urratsak.

ONDARROA ibaia. Bizkai'ko ibaia. Oiz mendi altsuaren besangaren sorkaldean jaioten da eta Urko, Max, Urkaregi eta Arranoate eta erreka txikietako urekaz osotzen dator.

Esandako besangako iturrietakoak, Markola ondoan eta Munategi eta Apaoliola mendien maldetan, ibai txiki batera elduta datoz Errotabe'n bera datozean eta Ziortza ezkerretara itxita, Bolibar'erako bidea daroe.

Bolibar'en beste erreka txiki bi alkartzen jakoz, bat Kortaguren'go belardi eta Elosua'ko txaraketatik datorkiona ezkerretik, eta eskumakoa Oiz'en besanga berbertatik eta Mojonarriako mendi bitartetik.

Bolibar'tik parroikia eskuman itxita, Iruzubieta'ko zubira dator, eta emen

eskuma aldetik beste erreka bat geituten joko, Oiz berbertan jaiogarren, Ge-rea'tik zear eta Arrangiz mendartetik datorrena.

Iruzubieta'tik Markiña'ra dua, eta ezker aldetik Usatorre'n Lekoniz'tik dato-
tozan urak artzen dauz.

Urko eta Max errekek Barinaga'ra eltzen dira alde batetik eta bertako san Pedro parrokia baiño 25 oin berago alkartzen dira, parroki au peninsula baten antzera geratuaz.

Barinaga'tik Etxebarria'ko Ander deunera doa bere bidea eta emen eskuma aldetik Urkaregi eta Arranoate'tik dato-
zan urak alkartzen jakoz, eta Arretxiña-
ga'ko ermita arte jarraitu, Xemeingo parrokia eskumatara itxita, 260 oiñetara.

Esandako ermitatik, Iruzubieta'tik datorren ibaiagaz batuta, mendiarte bat-
zuen artetik Berriatu'ra doaz, bere parrokia baiño ordu laurden lenago Olaza-
rra'n Amallo erreka alkartzen jakola, au be Arranoate'tik datorrana, eta azke-
nez Ondarroa'ra eltzen da, uria ezkerretara itxita, itxasoan bere portutik zear
sartuaz, 7 legua ta erdi igaro ondoren.

Inguruko zortzi erroteri indarra emoten dautsa ibai onek, arku bakarreko
zazpi zubi txiki daukaz, 14-16 tellaen urak daroaz eta arraiñetan ugaria da.

ONDARROA uri. Udaletxea, Bizkaian; Bilborako 8 legua; auzitegietan
Markiña dagokio; auzitegi goragorako Burgos. Euskalerrria. Gasteiz'era 13 le-
gua, Calahorra'ko gotzainpeko. Gipuzkoa'ren aldetik, Bizkai'ko azken erria
da; Gernikako Batzarretan, urien arteko 11 garren jarlekua dauka eta 84 suka-
de lez ordaintzen dau.

Mendiarte estu baten be-aldean lekututa dago luzera andiko mendi batzuen
artean, eta bere izeneko ibaiaren itxasoratze inguruan.

Giro epel eta osasuntsua dauka, eta bere gaixorik ugariak zurruak dira.
Bera joten daben aizeak Iparra, Egoa eta Sarkaldekoka dira. 144 etxe daukaz,
bere lau auzo diran Eizmendi, Goimendi, Gorozika eta Errenderi sartuta.

Udaletxea dauka, espetxea, ospitale txiki bat, antxiñakoa su batek erre on-
doren; mutiltxuentzako eskola, 100 lagun batzen dirala eta 2.200 errealetako
alogeraz, uri barruan iturri bi daukaz eta iru bere inguruan. Parrokia, Andra
Mariaren izeneko, ogibide osoko bost abade eta ogibide erdiko beste batek da-
rabillena, danak Abade batzarrak aukeratuta izentatuak; zazpi ermita, bi san
Juan Bateatzaillearen izenekoak eta besteak Antigua'ko Amarena, lenengo pa-
rrokia izan zana; santa Klara, san Lorentzo, Gurutze Santu eta Ama Errukitsua-
rena, euretariko iru erri barruan dagoz eta besteak inguruetan.

Mugak: Iparraldean Itxaso, sorkaldean Mutriku, Ego eta Sarkaldean Be-
rriatu. Bere inguruan ainbat mendi dagoz gaztaiñaz eta aritez beteak, eta iru
iturri, euretariko bat ur-metal.

Lurra, gaitasun onekoa eta Ondarroa ibaiak indartzen dau.


Bideak: Lekeitio, Markiña eta Motriku'ra daroenak, egoera eztabaidatsuan.

Bidalgoa (korreoa) Bergara'tik artzen da, ortakoaren bidez, astelen, eguen eta zapatuetan, eta erritik eguazten, bariku eta domeketan kanporatzen da.

Emaitzak: Gari, arto, baba, babatxiki, patata eta gaztañak; olo, garagar eta txakoliña artzen dira; aberetan abelgorri eta ardikiak azten dira; eiztarientzat erbi, eper eta neguan itxas-paitak egoten dira, eta arrantza saillean lebatz, atunki, besigu, sardiña, antxoa, otarrain eta beste arrain txiki guriak artzen dira eta orretan dago bertako gintzaren oiñarria: Itxastarrak euren Kofradia dauke.

Bizilagunetan 246 auzokide eta 1.173 arima zenbatuten dira, baiña auzotarrren kontuetan 330 auzokide be batzen dira eta bi milla inguru arimetan.

Udal aberastasuna: 20.094 erreal eta 1, marau.



Aiiz osteko babesa.

ONDARROA ITURRIZA'REN KONDAIRAN

Juan Ramon Iturriza eta Zabala'k bere Fuentes para la Historia de Vizcaya, kondairan, bigarren liburuko XIIgarren atalburuan, au diño Ondarroa'ri buruz.

Ondarroa uria, Ondar ahua (edo ondartzaren itxas-urtera)ren laburpena, ondar aoa agertzen dauana, Kantauri itxasertzeko malda baten dago, bere inguruan itxasoratzen dan ezker-aldean, Bilbao'tik amar leguatara, Lekeitio'tik bi laburrak eta Motriku'tik batera.

Sorkaldetik, Ego eta Sarkaldetik bere lurretan jendez bete zan Berriatu eleiz-ateagaz mugatzen da eta bere 84 sutondotako biztanlegoa Alkate bat, Errexidore bi eta Sindiko batek jaurritzen dabe. Gernikako Batzar Etxean amaikagarren jezarlekua dauka.

Arrantzale eta itxastarren bizileku zala, Uri nortasun eta Logroño'ko Forua emon eutsan Maria Diaz de Haro, Bizkaiko Andre, don Juan Errege-kumearen alargunak, Lizarra'n 1.327'ko Iraillaren 28'an izenpetutako mesedez.

Mesede ori baieztu eben Juan Nuñez Lara eta bere emazteak Bermeo'n 1.335'ko Azilla'ren 10-ean, amar urterako burujaubetza emonaz, ormaz inguratu egien eta Alfontso XI garrena, ešandako Juan Nuñez eta Maria andrearen aurka Bizkaira etorri zanean itxaso eta leorrez euki zitun kalteagaitik; eta baimena emon eutsan itxas-gaiñean eginda euken egurrezko zubi azpitik igaro bear eban ontzi bakoitzagatik bost diru kobratu al izateko, eta diru erdi zubitik igaroten ziran abere bakotxagaitik, eta Amallo'ko Erreenteri be betiko uri barruko izan eitela.

Era berean bigarrenez ziurtatu zitun Juan Nuñez berberak Ondarroa'ko mesede eta eskubideak Dueñas'en, 1.346'ko Abustua'ren 6'an, eta Tordesillas'en Bizkai'ko Jaun zan Juan Erregekumeak; II garren don Juan'ek, bere zaindarien bitartez Valladolid'en 1.412 urteko Uratrilla'ren 30-ean, eta adiñe-

ko egin zanean 1.420'ko Martia'ren 15'ean; eta IV garren Enrike'k, Segovia'n, 1.463'ko Apirilla'ren 24'an, eta itxas-txisten (lantzen) ordez ordaintzen zitun 40.000 marauetatik, 20.000en mesedea itxi eutsan, bertakoak Erregetzari egingako zerbitzuagaitik, eta erre ziran etxeak barriztuteko laguntzarako; Fernando eta Isabel Errege Katolikoak Madrid'en 1.495'ko Martiaren 10'ean bai eta 1.564'ko Urtarrilla'ren 12'an Madrid'en Felipe II jaunak.

Andra Mari izeneko parroki-eleiza dauka, ondartzan oiñarritua, eta origaitik goi luzera andiko da sorkalde aldetik, baiña motza sarkalderantz; 1.480 urtean asi zan bere eraikintza, erriaren egokitasunerako, lengo parrokia goi-lurretan egoalako, eta erriaren egaletik 120 pausutara, gaur egun Antigua izenez ermita lez geratua; parrokiak 111 oin daukaz luze eta 93 zabalean, iru eleiz-barru, bobedak lau pillaretan oiñarrituta, sei aldare, organoa, 178 illobi eta aterpea, burualdean, bere zerbitzurako sei abade dagoz, amarrenen irugarren zatia daukela eta beste biak parrokiak berak eta prebostetzak, gaur egun bertako patroiz lez Erregearen eskubideko dana.

Ondarroan dagozan ermitak zortzi dira: Antigua'ko Andra Maria, Bizkai eta Gipuzkoatik gogo eta munduko premiña askotarako laguntza eskatzen pertsona asko bertaratzen dirana; Jon Bateatzaillea, ospitalean; izen bereko beste bat Gorozika auzoan; Santa Ana, Errenderi'n; Klara deuna itxas-ertzean; Lorentzo deuna Asterrika'n; Ama Errukitsuarena, Zubian eta Gurutze deunarena mendian.

Uriak, bere armarrizat arku bidun zubi bat eta bale bat txalopa bateri jarraitzen agertzen dau. Erre egin zan 1.463 urtean eta origaitik bere orube batzuk bazter-soil geratuta dagoz eta bizilagun gitxi daukaz.

Erri-buru eta ormen barruan iru kale eta plaza txiki bat dagoz eta euretan eta erriberan 84 etxe, eta Gorozika eta Asterrika auzoetan 36, euretatik amazortzi Berriatu'ko agintepean, baiña Ondarroako Andra Mari parrokiako eleiztar, au da, danetara 120 etxe, jaunartzeko 800 lagunekaz. Ospitale bat, arategi bat, taberna bi, Mediku bat, lenengo irakaskintzako eskola bat, botika, zirujanoa, kañoi bateri bi itxas-ertzean, euretako bat Berriatu'ren lurretan eta arlanduzko arku bidun zubi eder bat, 1.740 urtean jaso, itxas egala alde batetik bestera igaroten dabena, uretako sei oin beär dabezan itxasontziak lotzen diran tokian.


Felipe II garren Erregearen denboretan 50/60 itxasontzi urandiko ibiltan ziran Ondarroatik Mediterraneo, Frantzia, Ingalterra eta Ipar aldeko beste tokietara, urtero eun mariñel baiño geiagoz lagunduaz errege-aramadarako, Aita heñao'k bere "Antigédades" liburuko 41 Atalburuan esaten daben lez, baiña orain ez dagoz bere portuan iru-lau ontzi zamadunak baiño merkataritza beeratu dalako, eta auzokideak landutako lur apur batzuk daukez, txakoliñerako maastiak eta amazazpi txalupetan arrantzaten dan lebatz, atun, besigu eta sardiñaz bizi dira.

1.638 urtean ondarrutarrak lau zama-ontzi berrogetamar gizonekaz, Bizkai

aldeko beste urietako gizonekaz batean, Frantzetarrak inguratuta euken Donostiren laguntzara joan ziran, eta arein estuntza ori askatu bear izan eben; eta Laredo'n leorreratu zanean, iru zama-ontzi gertu zitun 30 mariñelekaz.

Kapitan, pilotu eta Errege Koroetzari itxas eta leorrez lagundu dautsen gizon argien sorleku da; euren artean Martin Garzia Likona, doktorea, Erregearen Aolkaritza eta bere Epaitegiko entzulea, oraindik be zutik dagon itxas-egalean oiñarritutako Likona torrearen jaubea. A. Balda'ko markesagaz ezkondu zan eta Maria S. Likona sortu eben, Loiola'ko Iñazio deunaren ama izango zana, Aita Henao'k bere "Averigaciones" etako irugarren liburuko 41 Atalean esaten dabenez.

OARRA.— 1.794 urteko Abustuaren 28'an, arratsaldeko iruretan frantzetarrak Ondarroan sartu ziran; eleiza laidotu eben, sagrarioa apurtu, bai santuen irudiak be eta illaren goizeko amarretan iges egin eben bertatik, uri zoritxarrekoari su emon ondoren; sutetik iru etxe bakarrik askatu ziran.



Artibai eta zubi zarra.

ONDARROA E. LABAYRU'REN KONDAIRAN LIBURUZ LIBURU ETA ORRIZ ORRI

IV garren SANTXO Nausi, Naparroako erregeak, 1.027 urtean Iruña'ko gotzaingoaren (obispaduaaren) mugak izentatzen dauz eta beste muga batzuen artean au diño : “Eta Deba deitzen dan ibai bat, eta Deba'tik Gorzisa arte”.

(Gorzisa ori, dirudienez, Gorozika da)

(I Liburua, 252 orrialdea)

Kapitulu berbertan, eleizen sortzeari buruz, Ondarroa'ko Andra Mari agertzen da erregeen ardurako lez, “realenga”

(I Lib. , 253 orr.)

Bizkaia'ren mugaiei buruz:

“Bizkaia'k Motriku eta Deba galdu zitunetik, eguerdi aldeko ertzik urriñena Berriatu eleizatea da eta Ondarroa'ko itxas-ertza”.

(I Lib. , 268 orr.)

Ondarroa (ibaia) Oiz'en iparraldean jaioten da, Ziortza, Bolibar eta Geria eleizatetatik igaroten da, eta bertako mendietako erreka batzuk artzen dauz. Urko eta beste mendietakoak be artu ondoren Markiña bustitzen dau eta Berriatu igaro arro-arro, Ondarroa'ko portuan illaz. Ibai onek Ondarroa eta Berriatua artean Estaduko itxasontzi asko euki ebazan, bertako itxas lantegietan egiñak. Bere ibillera zazpi legua ta erdikoa da.

(I Lib. , 446 orr.)

Pedro Lepe, Kalagorriko gotzaiña 1.691 urtean Markiñan egoala, Lekeitio'ko Arrantzalien Kofradiako araudiak egiaztatu zitun eta indulgentzia emon edo agindu bertan anaidiko egiten sartzen ziranei.

Baiña sarri arauak erraz astuten diranez eta euren lenengoko izaera galdu, 1.819 urtean Kalagorriko gotzain zan Atanasio Puyal'ek, sei ataldun agindu bat emon eban.

Asieran esaten eban arrantzaleak mesede eta baimen batzuk ba eukezan be domeka eta jai batzutan itxasora arrantzan urteteko, baimen orreik esku zabalez erabilten zituela, besperatik urten eta domeka goizetan biurtuaz, eta orreri muga ipini naian zeaztu eban:

1.- Besigu eta atun denporan, euren arrantzara domeka eta jai berezietan urten al izateko portuak eukezan mesedeak, iraunean jarraitzen ebela, aurrez Parrokoari adierazota.

2.- Lebatz arrantza be lagaten dala egun orreitan, aurrez Bikarioaren baimena eskatuta eta onen gain geratzen zala baimena emon edo ez.

3.- Galerazoten ebala zapatu arratsaldetan eta jai besperetan Gito erako arrantzara urtetea, arrain sasoian denboraleekaitik urten eziñez ez ba ziran. Eta ori Bikarioak baimena emon ondoren, beti be sareak txalopan sartzea eta urtetea, eguneko besperak eta errosarioa esan ondoren egiñaz.

4.- Galerazoten zala baita sardiñatara masiagaz joatea, edo txibi, berdel, amarrats, kabra eta beste arrain txikietara, txalopetan nai kañaberaz domeka eta jaietan. Eta treñeruei be zapatuetan "ardorera" joatea; baña manjuba aukera igartean urtetea baimendu, baiña sareak zabaldu eta arrantzarik lortu ezik, bereala biurtzekotan.

5.- Zapatu arratsaldetan ez da urtengo sareekaz lebatzetara, edo ta txibitara karnatatzako, edo ta gina eta ainguratara, baiña arrain oneik batzutan bearrezko gertaten diranez, ekaitzak egon diralako edo ta premiñak estutzen dabenetan bikarioak baimena dauke eurak erabagiteko.

6.- Bikarioei agintzen jake agindu oneik meza bitartean irakurri dagiezala eta euren eleiztarrei jaiak zaintzeko dauken loturea irakatsi dagiela.

(I Lib. , 528-529 orr.)

Errietan dagozan arrain kontserba kabanak izentatzean:

Ondarroa'n Eduardo Nafarrete,

Zelaia jauna

eta Genoba'ko arrantza Alkartearena.

(I Lib. , 535 orr.)

Ostra tokiak iragartean Kanala (Sukarrieta) eta Portugaletekoak onentzat. Azken oneik Kanalakoak baiño txikiago izanarren, aokera oneko dirala esan ondoren, "ondoren Plentzi dator eta Ondarroa, Txuri Erreka eta Saldupe'ko ostrategiekaz.

(I Lib. , 536 orr.)

Burdiñolak: Oiz eta Ondarroa'ko Erretereri bitartean dagozan olak: Markola, Olatxua, Armaolea, Olaburu eta Unzukola. Kareaga, Otaolea, Arizmendi, Ubilla, Azpiera eta Plaza, Amallo erreka, Agorrija, Olazar,

Amallobieta, Egurrola, Gabiola, Olazarbekua eta Ogiloin. Oloroki eta Ansotegi eta Obekola eta Andonegi.

Oar baten adierazten da: Markiña-Jemeingo burdiñoletako gaiak Gostolamendi baserri andian gordeten dira; Santa Kutz markesaren jaubetasuneko da, Olatz (Motriku) auzoan, nai eta Xemein'en agintepeko. Arritu egiten da bat zelan aukeratu eben ain goietan dagon toki bat burdin azokarako.

(I Lib. , 577 orr.)

Errotak: Ondarroa'n bat.

(I Lib. , 591 orr.)

Armarridun leiñu jatorrak. Ondarroa'ko lez oneik agertzen dira:

Albiz.– Armarrria: zidarrezko zelai baten aritz berde bat eta bere oiñean otso ibiltari bi enborra igaroten.

Andonaegi.– Urrezko zelaia eta arbola berde bat basurde baltza enborra aurretik igaroten.

Garro.– Lau zatitan banatutako armarrria: lenena ta laugarrena urretan zearkako oial batek ebagita, bat goian eta bestea be aldean; bigarrena ta irugarrena urdiñean, arlanka bat, ezkerretara izar bat daukala eta argi-izar bat, eta itargi erdika ertzak gora begira.

Romo.– Gorrian, Kurutze berde bat, Kalatraba'ren antzera loreztatua eta bere besoetan bost urrezko koka.

(Andonaegi etxeak Berriatu'n be ba dauka bere armarrria eta Ondarroa'ko etxearen ezbardin agertzen da. Berriatu'koaren armarrria au da: Lau zatitan banatua. Lenengo ta laugarren zatia lautada gorrian urrezko gaztelua daukala, eta bi eta irugarrenetan urrezko lautadan aritz berdea.)

(I Lib. , 752 eta jarraiko orriak)

1.334 urtea.– Alfontso jauna Bizkaia'n leorrez sartu zanean, Jofre almirantea bere ontziekaz itxasertz onetara urreratu zan eta iñor baiño geiago Maria andre "onak" oraintsu Ondarroa izenez sortu eban erria kaltetu eban.

(II Lib. , 332 orr.)

1.327 urtean Maria Andre onak Lizarra'n emon eban Ondarroa uri izateko agiria eta agiri ori Juan Iñiguez Bolibar eskribaduak idatzi eban, uriko bizilaguntzat Amalloko baserritarrak eta Gorozikarrak emonaz, azken oneik Gipuzkoako mugan egozanak, eta Ondarroa'ko Anaidian Pedro G. Aranzibia izan eta bertako baserritarrei trukean eresia emonaz.

Ondarroaren sortze onek erakusten dau ez dala egia orduan don Juan bizi izatea, esan dalako Maria andreak bere agintaritzza itxi ebalu mesede onen ondoren bere semeagan.

(II Lib. , 325 orr.)

1.350.– Azkenez Eduardo III garrenak, Azilla'ren 11'an, lau gizonei eskubidea emon eutsen Swyne'ko portuan Kantauri Kolko eta Flandes'etako

batzuekin baketze, geldi-egote eta asarreen konponketatzaz itz egin egien, eta areitzaz bakoitzaren garaian itz egingo da, baiña portuak Bermeo, Gaminitz (Plentzia), Bilbao, Lekeitio eta Ondarroa ziralako, eurak ziralako Gipuzkoarekin batean eta lau uriekaz batean, Ingalterra'ren aurkako alkartea osotzen ebenak.

(II Lib. , 358 orr.)

Bizkaiko Anaitasunean ekiteko zelan batu bear dauan zeaztuteko, diño: Eta bardin Bilbao'ko gizonen amargarren taldeak urten dagiala sutondoetan (fogeretan) zenbatuta. Eta bardin Lekeitio'n, eta bardin Durango'n eta bardin Ondarroa'n.....

(II Lib. , 505 orr.)

1.408.– Bizente Ferrer deunak bere sermoi eta misiñoetan erabili eban ibilaldia. Lenengo Araba, gero Gipuzkoa eta Ondarroa eta Lekeitio'n, eta beste erri batzuen artean Berriz egin ondoren, Bilbao'ra joan zan.

(III Lib. , 8 orr.)

1.453.– Kalagorri'ko gotzaingoak (obispaduak) 36 legua eukazan, Soria'ko Cigudosa'n asi eta Ondarroa arte.

(III Lib. , 226 orr.)

1.479.– Bizkai'ko Anaidia sortu zan garai aretako “banderías eta malferías” eta batzar artean Ondarroa'ko ordezkari Juan P. Meabe izan zan.

(III Lib. , 296 orr.)

1.481.– Bermeo'ko Eupeme deunaren eleizan Errege Katolikoek kontulari zan A. Quintanilla'k zin egin eban Bermeo'ri eta Bizkai'ko beste uri guztiei eta Orduña'k eukazan mesede eta usuarioak zainduak izango ziralako, ezelako beste aldaketa eta zergarik ipini barik.

(III Lib. , 326 orr.)

1.487.– Urte onetan ikerketa bat egin zan eleiz eta parrokien artean ikusteko zeintzuk ziran erregeak eskubideak eukezenak, euren edo Jaurerriaren sormeneko ziralako. Eta besteen artean....”Ondarroa'ko Andra Mari, bost milla marau, amarrenen irutik bataren ordezkari Martin R. Aranzibia izan dau”.

(III Lib. , 396 orr.)

Bizkaiko Itxas-ertza.– Itxas-ertz eta muturrak.

Saturraran, Bizkai eta Gipuzkoa'ko muga banakatzailea, Ondarroa'ren sorkaldean.

“Puntacoach” Ondarroako ibaiaren itxasoratze tokian.

Klara deuna edo atxandi, ezker aldean. Au eta lengoaren artean dagoz Ondarroa'ko barra eta ibaia.

Barundo, Txanterreka eta Endaidi, Ondarroa eta Lekeitio bitarteko iru itxas mutur dira.

(III Lib. , 508 orr.)

Itxas aingura lekuak.

Ondarroa eta Lekeitio artean, Endaidi eta san Nikolas bitartean, ondarra

dago ondoan eta ura 100 oiñetakoa. Ementxe ainguratu zan 1.812 urtean Poffan Hone almirantea bere eskuadrako 3 ontzi, 5 fragata eta 3 bergantiñekaz, Ondarroa eta Lekeitio artean. Bitarte onetan itxasertza goi-luzeko da eta aldapatsua, eta bere ertza arriz betea.

Ba dagoz bertan leorreratzeko toki aukerako batzuk edo ta lekuko gaiak itxasoratzeko, esateko Zigar-eskiña eta Peru deiturakoak, bai eta Sausaten izeneko kolkoa, ondarrezko be sakona daukana, eta Portutxiki, Portuondo, Barurdo, Txanerreka eta Endaidi deiturako portu txikiak.

(III Lib. , 509 orr.)

Ondartzak.— Ondarroa'n asten dira ondartzak.

Portu aurrean egin diran lanekaz, asko aldatu dira bai onetakuak.

Kalara deuna muturraren egalean zear egoan Ondarroa'ko ondartzadun zabaldia garbitu egin da eta etxegintzarako erabilten da.

(III Lib. , 510 orr.)

Bizkai'ko torre-etxeak.

Likona bakarrik aitatzen da Ondarroa'n Labayru'ren zerrendan.

(III Lib. , 539-548 orrialdeak)

Zaldun, ezkutari, aitonen- seme eta besteak.

XV garren gizaldian etxe eta torre eroate eta alkar arteko gudaketen giroko izan ziranak....

Santxo Adan de Yarza eta bere anai Fernando, Adan zarraren semeak, 1.417 urtean, beste zortzi gizonekin batean burrukatu eben Lekeitio eta Ondarroa bitartean Aranzibiatarren sei gizonegaz.

(III Lib. , 551 orr.)

Bizkaiko familien armarriak.

Olabarriaga, Ondarroa eta Berriatu'ko muga. Gorrian, iru ertzekoan ipinitako zortzi puntadun urrezko iru artizar artean ega-leoi erpekari bat.

(III Lib. , 528 orr.)

1.515.— Sutondo eta fogerren gaia zala ta batzar batzuk egin ziran Bizkaia'n, Durango eta Bizkai'ko urien artean.

Ondarroa'ren ordezkari Domingo Puerto ibili zan.

(IV Lib. , 66 orr.)

1.529.— Itun bat egin zan Kalagorriko gotzain eta Bilbao, Durango, Tabira, Otxandio, Busturi, Bermeo, Arratia, Ondarroa eta Uribe'ko artzipresteen artean, erabilten deitura kendu eta Gotzaingo Maian osotasun baten agertzeko, eta artxipreste ordezkari "bikario" deitura erabilteko.

(IV Lib. , 175 orr.)

1.569.— Ondarroa'ko Andra Mari eleizako patroetza.

Iturri bardiñetik jakiña da patroetza ugariena dala, eta eragozpen batzukaitik bertako abadeekan aldatu zala eta oneik betikotzat ala artu. Maria Diaz de Haro'ren sormeneko lez, erregetzakoa da.

1.416 urteko deietan esaten da : Ondarroako Andra Mari, bost milla marau balio dauz eta Martin Ruiz Aranzibiai eroaten dau, preboste lez, iturik biren ordez.

(IV Lib. , 395 orr.)

Erregetzako errenta.

Bizkai'ko errietatik Erregearen diruzain orokorrak Erregetzarako batzen eban dirua, danetara 321.200 marau zan.

Ondarroa'tik 20.000 marau.

(IV Lib. , 435 orr.)

Mutil eskabidea soldadutzarako.

1.582 urtean Tercera iralarako Erregeak Bizkaia'ri 300 gizon eskatu utsazan, edo ta al ebanik geien, aurrez lau ordainketa edo paga ordainduta.

Bizkaia'n esan zan indarrez ezin eikeala iñor beartu orretarako, eta Korrexidoreari jakin eragin borondate onez eun emongo eutsezela.

Eun orreitatik Ondarroa'ri bost lagun izentatu eutsezan. Erriak eukezan sutondoan (fogeren) neurrian egin zan eskintza eta Ondarroa'k 54 sutondo eukazan eta orren arauz 2.835 marau ordaintzen zitun.

(IV Lib. , 499 orr.)

1.585.- Urte onetan, Lekeitio'n ango parroko Santa Ana'ren kapillaren jaubetasuna zala-ta asarre ibili ziran Maria Arteita, Martin Likona'ren emaztea eta Martin P. Bengolea eta Maria P. Yarza bere emaztea.

Oneik, egun baten, kapilla orretako burdin sarearen aurrean errezaten iñarduan Mari Arteta jo, zauritu eta eleizatik kanpora atara eben.

Ori zala ta eleizako agintariak itxi egin eben Lekeitio'ko eleiza eta erri guztia meza barik egotera zigortu.

Felipe II'garrenari orren asarreak agertu eutsezanean Bengolea'ri agindu eutsen Korteko kartzelara joateko eta auzia erabagi ondoren Martin Bengolea eta emaztea urte beteko erbesteratzeraz zigortu zituen eta amar milla marau ordaintzera.

Erroma'ko Rota'ra be eroan eben auzia eta andik Maria Arteita'ri ezagutu eutsen kapillaren jaubetasuna eta bertan indarrez obiratu eben Ana Gillestegi'ren gorpua andik atarateko agindu.

Onetan epaikari eta bake eragilletzat Ondarroa'ko abade zan Pedro Agiriano batxillerra izentatu eben.

Eta onek Bulaetan agintzen zana bete eragiñaz, 1.596 urteko Uztaillaren lenengo eguneko goizeko zazpiretan Ana'ren gorpua atara eta bere senarra egoan Vera Cruz'eko kapillan sartzea agindu eban, eta biaramonean Arteita'ren alargunari Santa Ana'ren kapillako jaubetasuna leentasun eta ospe guztiekaz biurtu.

(IV Lib. , 524-525 orr.)

Fray Martin Coscojales'en liburuak.

III garren tomoa ainbat eskribu eta mesede batzen dauzan liburu lodia da. Bertan dator Ondarroa uri sortzearen agiria.

(IV Lib. , 605 orr.)

1.650.- Urte onetan zozketara atara ziran Logroño'ko Kolejiatan Kalagorriko gotzaingoko artxipresteak nun jarri bear eben lekuak. Ondarroa'ko bikarioari eskuma Aldeko 14 garrena gertatu jakon.

(IV Lib. , 630 orr.)

1.605.- Lope Otxoa Andonegi ondarrutarra, itxas eta gerra kapitan ospetsua il zala. 1.560 urtean jaio zan eta Markina-Etxebarriako Torre Bidarteko Ana Bidarte eta Solarte'gaz ezkondu zan.

(V Lib. , 34 orr.)

Gilelstegi abizenekoak Bizkaian almirante bi egon izan dira. Bat, Juan, lekeitiarra, Andres'en anaia eta bestea Rodrigo, ondarrutarra. Biak aldi bereko, alderantzi gitxigaz.

(V Lib. , 65 orr.)

Oñaztarrak eta ganboatarrak.

Ondarroa, beti, ganboatarra.

(V Lib. , 93 orr.)

Itxasontziak. 1.667 urtea.

Esaten da egurrik ez dagoalako, gaitza zala Españan gerrako ontziak egin al izatea eta zerbait egin eikeala Cuatro Villas eta San Vicente de la Barquera'n, baiña azken onetan egiten ziranak ezin eitezala 450 toneladatik gorako egin, eta akats oneik gainduteko bearrezko zala Bizkaiko itxasontzietako maisuekana joatea. Ondarroa'n egin eikezala 500 toneladakoak eta bardin Deba'n.

(V Lib. , 444 orr.)

1.667.- Augustindar mojak.

Markiña'n, Durango'ko konbentuaren menpetasuneko monja batzuk egozan. Etxe txiki baten bizi ziran eta ain txikia zalako Santibañez prijoreak erabagi eban Juan Andonaegi eta Bidarte, Ondarroa'ko etxeko semeagaz batean, merzedekoak bizi izan ziran etxea bere ortu eta inguruagaz emotea.

Juan Andonegi zaldun ospetsua da, asko ikasia eta borondate onekoa eta ez dau eragozpenik bere paperak eta eskubideak eta akziñoak emoteko.

(V Lib. , 445 orr.)

1.681.- Aldundian Lope de Andonegi'k errietan egozan kañoi bateriak ikertu ondoren bialdutako txostena irakurri zan. Beste erriak lagata, au esaten da:

Ondarroa: Gaillu bi, gaitasun txarreko kañoi burdiantan ipinita dagoz eta barrien premiña dago. Sutaute lau upel dagoz, baiña bustita eta gaitasun txarreko, balio barik. Lerkari au ornidutea komeni da eta parapetoak egitea.

(V Lib. , 508 orr.)

1.682.– Juan Castañiza'k San Iñazio jaietan egiñiko liburua ospatuz, esaten da”

27 orrialderako Castañiza'k olerki au egin eban, deunaren ama jaio za uriaren goran:

Oh Ondarroa famosa! Sitio ameno....

(V Lib. , 517 orr.)

1.639.– Bizkai'tik itxaso nai leorrez egurra kanporatzea galerasoten da, bai eta arto, garagar eta beste alekiak kanpora bialtzea, orretarako urietara mezuak bialduaz.

(V Lib. , 570 orr.)

1.639.– Gipuzkoak itun bat egin eban Laburdi'ko portuekaz eta Frantzeko Erregeak ontzat emon eban eta itun onek lotzen zitun uriak zeaztu ziran. Eurak ziran Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe'ko muturra, Mundaka, Bermeo uria, Bakio, Armintzako sarrera, Plentziako uria, Algortako ondartza, Portugaleteko uria, Bilbao uria, Santurtziko Kontzejupeko sarrera, Zierbanakoa eta Muskiz'ko san Julian eta Pobeña'ko ondartza eta Castro Urdiales'era arte sartzen diran Bizkaiko tokiak.

(V Lib. , 573 orr.)

1.721.– Ondarroa, Markina eta Elorrio eta Gipuzkoa'rako ibilbidetan iru zainketa oso ipini ziran, lau gizonezkoak, bertako alkateen agindupean eta bakoitzari belloiko lau erreal agindu jakoezan, Jaurerriak sutondoen araberan ordaintzeko. Orrez gain Korrexidoreak beste amabi zaindari ipini zitun muga zear.

(VI Lib. , 121 orr.)

1.704.– Sutondoak. Fogerak.

Urte onetan Ondarroa'k 84 sutondo eukazan.

(VI Lib. , 26 orr.)

1.725.– Aldundiak mendien ikerketa zeatz bat egitea agindu eban, baso eta landarak ikusi, landaregiak ikertu eta bidean zelan egozan aginduaz.

Orretarako gizonak izentatu ziran inguru guztietan.

Berriatua, Markina-Etxebarria eta Ondarroa'ko urikoak aztertzeko Juan Jose Andonegi aukeratu zan.

(VI Lib. , 141 orr.)

1.740.– Portuetan egozan itxasontzi txiki ta andi guztiak ikertu ziran.

Ondarroan oneik agertu ziran:

14 tonelada ta erdiko ontzi bi.

16 toneladako bat,

3 txalupa, bakoitza 3 toneladakoak,

9 txalupa,

3 txalupa alturakoak.

(VI Lib. , 226 orr.)

1.774.– Urte onetan Ondarroan Hilario Ibaseta doktorea jaio zan, osagillea, “Real Sociedad Vascongada”ko irakasle izan zana eta Fernando VII garrenaren onorezko. 1.795 urtean 21 urte bakarrik aukazala, Bizkaiko tertzioekaz joan zan Frantzetarren aurka, eta gerra artean ezagutu ziran gaixotasuntzazko itzaldi bat idatzi eban.

(VI Lib. , 425 orr.)

1.779.– Bizkaiko portu eta urietan egozan gerrarako gogor-lekuen barri emon zan.

Ondarroan kañoi bi egozan, bat amazortzikoa eta bestea amarrekoa, biak ia ezetarako gauza ez zirala, eta azken ordu baten erabilteko lakoak, erdi indarrez. Kintal bat sutauts bialdu zan eta balaen bear izana egoan, bai eta sulari, lana eta beste gauzena. Alkateari agindu jakon bear zana gertuteko eta tresnak garbitzeko.

(VI Lib. , 460 orr.)

1.791.– Antonio San Martin eta Burgoa, Lekeitio’n jaiok eta Ondarroa’ko abade zanak liburutxo bat argitaratu eban urte onetan, berreun eta larogei orrialdeduna, deituraz: “El Labrador Bascongado o antiguo labrador español” Madrid’en Benito Cano’reu etxean egiña, eta bere denboran gorespenez onartua izan zan eta Bizkaian ez zan egon etxe jauntzakorik berari jarraituz ortu eta basoak moldatu ez zitunik.

(VI Lib. , 528 orr.)

1.794.– Dei batzuk artu ziran esaten frantzetarrak Ondarroatik sartu nai ebela Bizkaia’n eta Abustuaren 13’an agindu zan Busturi, Jemein, Markina, Etxebarri San Andres, Ziortza, Ereño, Gerrikaitz, Nabarniz, Murelaga, Arbazegi, Amoroto eta Gizaburuagakoak alde onetara etorteko.

.....

Bizkaiko mugan egozan frantzetarrak eta barriro aztertu zan Ondarroa’tik Ermu bitarteko lurraldea, baiña berandu zan frantzetarren aurrerakadari eusteko.

Bizkai mugan egozan frantzetarrak eta oraindik Ondarroa itxasertzetik Bizkaiko erririk zemaituena, artzeko euken. Illaren 13’an urreratzen asteko agindu jakoen gudariei, bertan sartzeko eskatu jakoen.

.....

Abustuaren 28’an sartu ziran Ondarroan (emengo eta bertan egozan armatuen buru Juan Gillermo Kortazar izan zan), aurrez goiak artu eta 600 gizon Gorozikatik zear Berriatu aldera bialdu ondoren. Gudarien taldea inguratuta geratu ez zedin, Eiguren eta Mendexa’ko goi aldera atzeratzea agindu zan, Lekeitio aldeztu al izateko.

Erasoaldi onetan egon ziran suteetan sei bizkaitar il ziran, iru zaurituta gelditu eta beste lau baituta. Frantzetarrak bederatzi ildako euki zituen, eta bost burdikada zaurituen artean, euren artean galoidun bat. Erri guztiA erre eben,

parrokia eta Antiguako eleiza izan ezik; ostu eta zabartu eben al izan eben guztia, parrokian bertan be, emakumeak izorratu zituen, Berriatu'n bederatzzi etxe erre eta Ondarrutik urteetan bertako ogei lagun baituta eroan zituen.

Atzerritarrak Ondarroan sartu zirala jakiniaz batera, Aldundiak Ondarroa aldera bialdu zitun Bilbo, Deusto, Portugalete, Laukiniz, Fika, Meñaka, Gamiz, Gatika, Maruri eta Larrabetzu eta Mungia uri eta eleiz-atetako lagunak.

Muga aldera bialdutako laguneren artean egon ziran baimenik eskatu barik euren etxetara biurtu ziranak, eta ori jakitean Aldundiak agindu eutsen bereala biurtzeko agindutako tokietara, eta oraingoz parkatu arren, beste bein orretan jarduten zanari eriotzako zigorra emongo eutsela.

Kalamenditik Ondarroan sartu ziran frantzetarrei aurre emoten ekin eutsen bizkaitarren artean Errigoiti'ko abade zana il zan.

(VI Lib. , 569-570 orr.)

Ondarroa, Ermua eta Berriatu'n frantzetarrak egin ebezan sutetan zeaztu zan Ondarroan erretako etxeak eun eta bi izan zirala; Ermuan irurogeita amasei eta Berriatu'n amabi, eta laguntza berezirik ez ba egoan, zerga barriak arte ez kobratzeko.

(VI Lib. , 631 orr.)

Sutondoak.– Fogarak.

1.704 urtean, Ondarroak 84

1.796 urtean, „ 84 1/2

(VI Lib. , 682 orr.)

1.801.– Ondarroa'ko uriak bertako jatorriko zan Loiola'ko Iñazio deunaren gomuta ospatu nai izan eban, lotuera bienpean, bere eguna jai ospatzea botoa egiñaz, eta orretarako batzar orokorrean batu ziran bertako jaunak: Jose Lorenzo Egiuren, alkate eta epaikaria; Migel Antxustegi eta Jose Egurrola, errexidoreak; Sebastian Arrasate, sindikoa; Jose Etxebarria, Agustin Antonio Arakistain, Prudencio Gelaloro, Domingo Irueta, Juan Domingo Gerediaga, Domingo Garramiola, Jose Mugartegi, Andres Gelaloro, Franzisko Launeta, Martin Tiburtzio Ostolaza, Juan Bta Urriolabeitia, Juan Bta Arriola eta Gabriel Urresti.

Jaiaren agindu ospetsua idatzi zan, Uztaila'ren 31'n meza abestu sermoi eta ibildeunagaz eskintzea erabagiten eta botoa baliagarri izan zedin, inguruko bikario jaun dan Jose I. Egiuren'eri eskatuz, Gotzaiñagana jo egiala apaltasunez eskatzen erriak egindako botoa egiaztatu egiala bere osotasunean, au da: Loiola'ko Iñazio deunaren eguna, uri onetako jatorriko lez, betebear bietako jai izan daitela, sermoi eta abarrez, bakar bakarrik sardiñatan ebiltzan txalopei egun onetan itxasora joateko baimena emonaz.

Gotzaiñaren ordez probisore jaunak goratu zitun erri onetako bizilagun zintzoen gurariak eta esandako guztia ziurtatu eban, baiña bete-bear zeatz lez eta lan egite geratzean kontzientziak estutu barik, Ondarroa, Bizkaiko uri lez jai au ospatzera lendik be beartuta egoalako XVII garren gizaldian santu orren

patroetza emon jakonetik Errialde guztiaren gurari orokor eta botoz 1.680 urteko Martiaren 8'an Gernika'n egindako Batzar orokorrean.

Abadeak, euren aldetik, atsegiñez gertu ziran agindua betetera eleiz batzordeak ontzat artu eban lez, eta urte onetan asi zan Ondarroa'ko parrokia Udalak agindutako jaia osperik andienaz ospatzen bere odoleko gizon argi, Likonatarren etxe argiko semea.

(VII Lib. , 8 orr.)

1.809.- Bizkaia'k bertan sartuta egozan frantzetar gudarien illeroko janean 416.900 erreal gastatzen zitun eta gastu ori erri guztien artean banatzen asi zan. Ondarroa'ri 2.688 erreal izentatu eutsezan illeroko.

(VII Lib. , 233 orr.)

1.810.- Thouvenet frantzetar gudalburuak, azken Martian bere menpe eukazan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'ri zerga bat ezarri eutsen. Bizkai'ri 2.300.000 erreal, era onetan banatuta:

Uri eta errien artean banatuta, Bilbo be sartuta,	1.215.746	erreal.
Bilbao'k bere merkataritza aldetik	924.020	„
Eta Bizkaiko abadeak	160.234	„
Guztira	2.300.000	„

Zerga ori Martian asi eta Maiatzaren azkenerako ordainduta egon bear zan. Baimena emon eutsen erriei euren ondasunak saltzeko, zerga ori ordaindu egien.

Ondarroa'ri, bear ba da lengo ondamendia gogoratuta, 2.420 erral izentatu eutsezan.

(VII Lib. , 269-270 orr.)

Begoña'ko Ama kalez kale.


Frantzetarrek Bizkaia'n egin zituen triskantzak kontuan artuta, batez be 1.794 urteko erasoan Ondarroa eta Ermua erriak erreaz, Begoña'ko Errepublikak erabagi eban 1.794'ko Abustuaren 12'an Begoña'ko Andra Mariaren irudia ibildeunez ataratea, Errosarioa abestuaz, abade eta erlijiosoen alkarteak eurekaz zirala, orrela eskintza umil baten bidez Errukiaren Amari bere laguntza eskatuaz.

Paula'ko Frantzisko deuna eta Ana deunaren ermitetan Salbeak Santiago eta Frantzisko deun parroketako abeslari taldeak abestu zituen. Ana deunetik Bilbao'rako bide barria artu zan eta Artekale'tik zear zuzen igo Begoña'ra, bertan beste Salbe bat abestu eta amaituaz.

Abadeak, ordaindu nai izan eutsezan euren eskubidekorik ez eben artu, esanaz erri eta aberri ondamendietan eurak be esku artu bearra eukela.

Oarra: Argi dago kronika onetan urteko eguna txarto dagola., Ondarroa eta Ermua'ko ondamendia Abustuaren 28 eta 29'an izan zalako 1.794 urtean.)

(VIII Lib. , 271 orr.)



Delmas'en marrazki bat.

ONDARROA DELMAS'EN ESANETAN

1.027 urtean Gipuzkoa'n sartzeko Bizkai'tik zati bat banandu ezkeroztik, Bizkai lurraldean lekutzen dan azken portua da.

Denbora zarretan bere garrantzia Lekeitio eta Bermeo'ren kideko zan, baiña euskal itxasertzeko portuak euren antzeko mesedeak artzen asi ziranetik, eta batez be Bilbao, bere gorapenez, ia emengo aberastasun eta merkataritza guztia bereganatzen asi zanetik, Ondarroa'ren garrantzia igarteko eran beratu zan.

Ondarroa, edo Ondar-ahua'k euskeraz ondarraren ao esan nai dau; izen ori, ezpai barik, portu sarreran eta uriaren oiñetan batzen dan ondartzatza ugaritik datorchio.

Uri mesedea Maria Diaz de Haro, Andre Onak emon eutsan 1.327'ko Iraila'ren 28'an, eta gero, 1.335'n don Juan Nuñez Lara'koak eta bere emazte Maria Diaz de Haro'k ziurtatu, uri zala, amar urtetarako prebostatze eskubidea emonaz ormaz sarratzeko, eta Alfontso XI garrena Bizkaia'n sartu zanean egin eutsezan kalteen ordaiñez.

Beste errege batzuk ziurtatu eben mesede ori eta geroago mesede ugari eskeiñi bertako bizilagunei, onein arteetik artu zituen laguntzen ordeztze eta ainbat alditan euki zituen sute eta kalteakaitik.

Uria Berriatu eleiz atearen lurretan jendeztatu zan. Sorkalde, ego eta sarkalde beragaz mugatzen zan; Gernika'ko Batzarretan urien arteko amaikagarraren jarrilekoa dauka eta bere etxeetan 2.123 arima batzen dira.

Lekutzen dan tokia latza da, itxasoak jotzen daben malda baten, zabaltzeko lurralde barik; orrela bera osotzen daben lau kale eta erriberak estuak dira eta aldapatsuak, eta etxeak eta egitura itxura makaleko. Oneik zoritxarra euki eben aldi ezbardin bitan: 1.462 urtean ia etxerik geienak galdu ziran uste bako sute baten ondorenez, eta geratu ziran banakak eta barriro jaso ziranak, erreta laga

zitun frantzetar guda taldeko buru baten azpikeriak, ezelako arrazoi barik eta burukeri baten su emon eutsen 1.794'ko Dagonillaren 28'an.

Orrela etxeetan txiro dala, aipamen berezi bat merezi dabenak agertuko doguz eta uri zoritxarreko onen beste berezitasunak.

Eleiz-etxe eroso eta egoki bat jasoteko lurralde barik, ondarrutarrak eurena ondartzatza gainean jasotea pentsatu eben, orain Andra Mari izena daukana.

Ala 1.462 urtean asi eben eraikintza andi au gizaldiak gizaldi okertu ez dana. Orrela bertan bera itxi eben ondar gainean gauza sendorik ezer jaso ezin leiken sinistea.

Eleiz onek 111 oin daukaz luzeran eta 93 zabaleran, eta iru zati daukaz, lau pillarek eutsita, sei aldara eta organoa. Gotiko erakoa da, nai eta nastekatua; ez dauka torrerik, amaitu barik itxi zalako eta ez barru ta ez kanpo ez dauka ezelako meriturik.

Balkoe antzera ataurre lako ingurua dauka eta bertatik itxas ikuspegi ederra dago, bai eta plaza nagusi, pelota toki eta bere oiñetan dagon erriarena. Eraikintza onek ondartzatza aldera, sorkaldera daukazan zimenduak aztergai onak dira euren luzera eta sendotasunagaitik.

Beste etxe bat, bere zaartasunez eta istori oroipenez nai eta denborak eta gizonaren eskuak biurrikeri asko bertan egin, au baiño garrantzitsuago ba dago erri barruan, ibai gainean, Markiña aldera doan bidean; Likona torre ospetsua da, Euskalerritik zaarrenetarikoena, jauntxoen aldi ta egiñetan ezaguna eta gerralari eta jakintsuen sorleku.

Bertan jaio zan Loiola'ko Iñazio deunaren ama, Marina Saez Likonatarra. Etxe onetatik aldeztuten ziran abizen onetako buruzagiak sarri, Enrike IIgarrenaren agintepean inguratzen ebezan arerio indartsuetatik, eta bertatik datoz antxiñako "agure" eta gizon aberatsak, XI garren gizaldian dekanien eskintzak egin eta Bizkaiko Jaunak ziurtatzen zituenak. Torre au, gaur, ondatua dago eta bere inguruak Markiña'rako bideak etenda.

Istorirako garrantzitsu dan beste torre bat uritik laster dago: Aranzibia torrea. Onen garrantzia, antxiñetan garrantzi andikoa izan zan, uriari Haro'ko Maria Diaz'ek emondako mesedean, lur jaubetasun baten trukea dala-ta, euren jaubeari "don" aurre deitura emotèn jakolako, jakiña danez garai zarretan deitura ori ez zan erabilten printzipe edo altasun andikoentzat ezik.

Asierako denboretara eroaten gaituen etxe oneitatik gain, ba dago oraindik Ondarroa'n Antiguako Gure Andrearen antxiñetako eleiza, bertako parrokietatik lenena, goi goietan egon eta erritik laster dagolako, lenago itz egin dogun Santa Mari aiña jendea bertaratzen ez dana.

Portu onek antxiñetan merkataritza ugaria euki eban Galizi, Portugal, Andaluzi eta Mediterraneo itxaso eta Ingalterra'gaz; merkataritzako eta errege armadarako beratko astilleruetan egiten ziran itxasontziakaitik ospetsu zan eta bertako semeak itxasoetan ibiltzen ziranetako alegintsuen arteko egozan.

Bere merkataritza galtzen joan da, nai eta eurretan oraindik ontzi eder ugari egin, baiña itxasoetarako bertako gizonen osperik ez da edozelan be galdu. Atzo gaur lez, denbora zarretan guretan lez, ondarrutarra beti izan da itxas mutilla; bertan bizi eta bertan ilten da; ez dau beste luzapenik ikusten itxasoetako bere arrantzarena besterik, ez beste mendirik bizi dan etheen goian ikusten diranak baiño.

Itxas zabaletan eta bere lurraren lotuerari esker, ume-umetatik asten dakian erramutako ekite, eta kaletarako bideratzea dala-ta, bein soñiak indartzen jakozanetatik, ez daki Kantauri itxas ertzean, eta bear ba da Penintsulako itxaseretzean be, itxastar egin, sendo eta abillagorik, edo ta arrantzale ausarti eta burutsuagorik. Ondarrutar erramulariak ez dauke garailerik estropadetan; euren izena gogoratzen Finisterre'tik Cordouan'era. Ez dago beste porturik be txalopa eta arrantzale bardiñekaz itxasoan ainbeste emaitz atara eta gertaeretan irabaziko dautsanik.

Berrogei ta bost txalopa andi eta beste neurrietakoekaz, urtean itxasotik eun eta irurogei milla arrua baiño geiago ataratea lortzen dabe, batez be atunki, lebatz, besigu, sardiña, antxoa, aingira eta merotan.

Arrain ugari portura ekarri eta sartu eta eroslerik portura urreratzen ez diranetan, neke gitxi artzen dabe ondarrutarrak euren txalopa ariñetan barriro artu eta merkatu billa auzoetako portuetara joaten erosle billa. Olakoetan beste portuetan saldu bear izaten dana bertako Kofradien errekaragoa euren gain artuta, baiña origaitik alai eta pozik biurtzen dira etxera eguzkia goietan eskutatzen asiagaz batera, arraunak itxas sakonean indartsu sartu eta olatuen eragiñean itxasoetako miragille lez txalopa aizetsu daroela.

Arrantza onen garbiketarako Ondarroa'k Kantauriko beste portu baten ez dagon lako garbitokia dauka. Bertan ur ugari dauka, alboko mendi batzuetan batu eta burdiñazko tutuen bidez bertako ormen inguruan zear dagozan aska luze batzuetara txurruen bidez banatzen dala, loituten asi ala be giltzen bidez kanporatuaz. Arrain asko orretara erabilten da, askaetan, eta ondo garbituta itxi eta orrela bialtzen da Peninsulako erdi aldera, Bilbao'ra, edo ta inguruko errietara. Beste zati bat eskabetxerako erabilten da, garbitokiaren alboan dagon orretarako kabanen.

Bañuetarako portu lez, egun baten Bizkai'tik onenetakoen izatera gertuteko deitua da. Bere aurrean eta urbil Saturrarán'go ondartza dago, pendiz gitxi-koa eta oso ziurra, beti ur ugarigaz. Bere alboan etxe batzuk jasoteko asmoa aurrera eroaten ba da, baiñu zaleentzat erririk atsegiñena biurtuko da. Nai eta oraindik erosotasun batzuk euki ez, España barrualdekoak ba dakie bertara famili osoak urreratzen, bai eta Oñate, Markiña, Berriatu, Durango eta beste eskal errietatik.

Ondarroan bizi modua merkea da; giro atsegiña, bertako ortuetako janari ugari eta bere ibilbideak benetan ederrak. Ondarroa'tik Motriku'ra, Saturra-

ran'go ondartzatik zear, eta itxasoak, ikuspegi zoragarriak agertzen dabez. Berriatu aldekoak, ibai inguru politetik zear Aranzibia torre artekoa, ur, baso, lore, baserri eta bertako landaretze sendoak etenbako zer ikusi atsegiña emoten dabe.

Erri barruan ostatu onak dagoz, iturri ugari eta ur ederreko; plaza zabal eta pelota lekua. Eskolak ondo orniduak dagoz eta Arrantzalien Kofradia ondo era-tua.

Ondarroa eta Bilbao amar leguak aldebanatzen dabez, baiña ibiltaria darabilen burdiak Bizkai'ko lekuri aberatsenetatik zear joaten diranez, Durango eta Markiña'ko urietatik zear eta Zaldua'ko baiñuetxe ingurutik, Ziarrotza'ko Kolejiata ikusten dala, bai eta beste toki oargarriak be, ibillera labur egiten da.

Ostera bakoitzean zazpi ordu igaroten dira eta jezarleku bakoitza 36 errealetatik berrogeira kostaten da. Bidezka eder batez alkartzen diran Motriku eta Ondarroa bitartean ez dago legua batik.

Aberria arrotu egiten da emen jaio diran semeekaz. Bertan zabaldu zitun mundurako begiak, beste gizon ospetsuen gain, Martin Garzia Likona, diplomatiku argiak; 1.454 urtean Frantze eta España arteko auzi lez agertzen zan Bidasoako arrain lekuen ituna lortu eban. Bere zeregiña ain ondo bete ebalako errialde bietako gobernuak esker ona agertu eutsen. Margarita Balda'gaz ez-kondua zan eta alabatzat Marina Santxez Likona euki eban, Jesus'en Lagundi-ko Sortzailearen ama izango zana.

Ondarroa'k itxastar ospetsu asko emon izan dautsoz España'ri. Rodrigo eta Diego Gillestegi, Egoaldeko armadako generalak XVII garren gizaldiaren lenengo irukadan. Mundu aurrean euren gaitasuna, adorea eta nortasuna erakutsi eben espainarren ama orokorraren aurka jagiten ziranen gogoak eurekanatzen.

(Guia del Señorío de Vizcaya. Juan Delmas.— 1.864 urtea. 101-105 orrialdetan)

TRUEBA ETA ONDARROA

1.860 urtean, Ondarroa'ko alkate zan Paskual Sustaeta'k Bizkai'ko kronikalari zan Anton Trueba'ri eskatu eutsan Ondarroa'ko jakingarriak batu ta bialtzeko, ondarrutarrak euren istoriaren ezaugarri zur bat euki egien.

Eta Trueba'k, ekian lez, zintzo erantzun eutsan.

Zati luze bat Juan Ramon Iturriza'ren Historia General de Vizcaya'n esaten ziranena zan. Au da, Marina Diaz de Haro'ren erri sorpeneko mesedea., Parrokiari buruzko zerbait, frantzetarren erasoaldiko gertaera eta abar.

Bakoitzari berea emonaz, Iturriza'ren atal berezi bat sartu dogunez, ez doguz birritan gauza berberak esan nai.

Baiña Trueba'ren idazki berbertan, azken aldian, "Diferentes Noticias de Ondarroa" sail txiki bat dator, eta an esaten dana gitxiago ezagutzen dana da eta zati ori agertzen dogu, euskeratuta.

Martin P. Likona'k 1.414 urtean aldatu eban bere etxea Lekeitio'tik Ondarroa'ra, Lekeitio'n Adan de Yarzatarrekaz euki eban asarraldi odoltsuagaitik. Ondarroa'n il zan 1.422 urtean.

Juan G. Likona izan zan bere oñordeko ta au Mari Yañez Asterrika'gaz ezkondu zan eta 1.453 urtean il.

Antxiña santa Ana ermitaren alboan egoan Aranzibia torrea, gaur dagon lekura aldatu zan, Berriatu'ko bidera. Aldaketa au XV garren mendean egin zan.

Etxe onen deiturak, len portu alboan egon zala adierazten daua dirudi. Iburguen'en ustez Aranzibia itzak portutik beste aldean edo orrelako zerbait adierazten dau.

Itxasotik laster, Berriatu eta Ondarroa artean, lengo denboretan etxe ospetsu bat egon zan. Benetan altsua zan eta Santxo Madalbearen Otxoa Arumeti bizi zan bertan. Olabarriaga izena ipini eutsan. Torrea joten burdiñola bi eta errota bi egin zitun. Bere armarriak oneik ziran: Arranodun ezkutu bat erdian berezko koloreko ega-leoi arrapakari bat eukala, iru ertzeko antzerako zortzi zatidun urrezko iru goiz-izar eukazala.

Bere arerio arro eta indartsu zan Aranzibia'ko jaunak erre eta erraustu eban etxe au eta bertan il ziran Otxoa Arumeti'ren emaztea, arreba bat eta seme bi eta euren laguntzara urreratu ziran beste lagun batzuk be il ziran.

Otxoa'k lortu eban iges egitea eta Arratia'ra aldatu zan eta an bizi izan zan, ganboatar taldeko zala, talde onetako buruekaz batean.

Etxea zabaldu eban Zeberio'n be; an burdiñola eta torre bat jaso zitun eta Olabarrieta izena ipini. Gero bere taldekide batzugin etorri eta ganboatar taldeko buru zan Abendaño'ko torrea erre eutsan eta barruan egozan beretarreko berrogei ta iru lagun.

Bere emazteak, Munitibar'ko Garazi'k, sutea baiño len iges egin eban bere seme eta alaba bigaz, bere lurraldea zan Gerrikaitz ibarrera. An bere aita Munitibartarren familiko buru zan.

Eta Garazi'k bere senideen laguntzagaz etxe bi jaso zitun, bakoitza bere burdiñolegaz Arratia lurraldean eta bateri Olabarria deitu eutsan eta besteari Olabarrieta.

Olabarria'ra ezkondu zan bere alabetako bat Gonzalo Belendiz'egaz eta oneri be gero Arteaga'ko etxea erre egin eutsen.

Beste etxea Ariz edo Larizko Gonzalo'ri emon eutsan eta a Sagarminaga 'ko Toba'gaz ezkondu zan eta ezkontza orretatik seme guztiz adoretu bi euki zitun.

Gonzalo'ren armarriak torre bat sutan eta bertan idazki au eukana: Geiegi erretearren il egin zan. Armari oneik etxearen sutea eta bere amarena iruditzen eben.

1.443 urtean Martin Ruiz Ganboa, bere jarraitzaille ugarigaz Aranzibia etxearen aurka jarki zan, Aranzibia'ko Pedro Ortiz bere senide eta anaiak Ondarroa'tik kanpora bialdu ebelako Juan S. Guenteniz, Martin Ruiz Ganboa'ren arrebeagaz ezkondu egoana, Olaso'ko bakelarietakoa.

Aranzibiatarren laguntzara Arteagatarren oiñetxeko ezkulari guztiak eldu ziran eta 800 lagunetara batu ziran aranzibitarren aldekoak, danak ondo armatuak.

Arerioak erabillan lonbarda batek joko zitun bildurrez, etxetik zerbait aldendutako aldatz baten lubaganak eta esiak egin zituen.


Arerioak bi millatik gora ziran, eta Aranzibiatarren aurka erasoaz, esien barrura sartu eragin eutsen eta etxe-oiñeko andiki zan Pedro Ortiz Aranzibia il eben. Eriotz onek zurbildu zitun oiñatar guztiak eta oneik ogei lagunarte

ildako euki ondoren, amor emon eta kanpora urten ziran armekaz, eta ondoren etxe erretea egin zan.

Ondarroako gizon argien artean Antonio San Martin Burgoa goratu bear da, abade eta bertako eleizako ogipideko zana. Gizaldiaren azkenetan “ El Labrador vascongado” deiturako liburua idatzi ta kaleratu eban. 296 orrialde 8'ko neurrian. Madrid'en irarri zan txukuntasun osoz, Benito Cano'ren irarkolan, 1.795 urtean.

Bere egillea asko dakiana da eta Bergara'ko Errege-Seminarioaren lenen-gotako sortzaille eta zuzendari izan zan. Etxe onen eraikintzan Peñafloidako konde argi eta ongilleak, bere ondasunetako eun milla dukat eralgi zitun.

Jakingarri oneik Ondarroako alkate dan Paskual Sustaeta'ren aginduz jaso dodaz. Bilbao'n 1.860ko Irailla'ren 28'an. Antonio Trueba, Jaurerriko kronikalaria.



Kalandi sarrera.

HUMBOLT ETA ONDARROA

Izkuntzalari ospetsu bat, G. Humbolt, Zumaiatik Markiña'rako bidean Ondarroa'tik zear igaro zan 1.801 urteko Maiatzaren 3-an.

Ezaguna da bere Euskalerritik zearko ibilaldiaren egunerokoa.

Eta Motriku'tik igaro eta Ondarroa'n sartzean diño:

Ondarroa. Izen bereko ibaiaren alboan.

Motriku'tik Ondarroa'rako bidea ona da, bide estua baiña ona, eta suge antzera doa itxasertzeko mendi altuen egaletik zear.

Itxas ikuspegi jainkotiarra. Ondarroa'k erromantiku egoera dauka.


Ibar berdetsu atsegin batetik agertzen da bere ibaia itxasorantz duala eta ibaiaren egal baten dago erria, antxiñako eleiza zar bategaz.

Beste eleiza batzuen antzera onek bere eraikintza bakana dauka. Antxiñako torretxe baten antzera eraikia da, lau kantoiduna; ez dauka kanpai torreric, baiña bai 3-5 goi-buru, tellatua baiño gorago, egalik luzeen bietan kokatuta.

Ibaia zubi zar batek kokatzen dau. Itxas-ertz onetako leku margozkarri egokiena da.

Ondarroa baiño aurreratxuago, ba dago toki bat, aitz zorrotz soil garbiduna, itxasorantz sartzen eta benetan itxas-arte edo kolko zoragarri bat osotzen.

Ondarroa Bizkai'ko sarrerako ate edo lenen erria da.



Eskoletxe zarra.

LENENGO MAILLAKO IRAKASKINTZA LENGO GIZALDIAN

Billatzen aleginduarren ez dot aurkitu lenengo maillako irakaskintzari buruzko agiririk Udaletxeko paperetan 1.672 urte arte.

Urte orretan, Udaleko batzar baten au esaten zan : Udalaren eskabidez Eskolako mutiltxoan maixu izateko eskintzen da Domingo Bixente Iturrino eta Aretxaga, ikaslea, gaitasun, menpetasun eta apaltasun andiko gizona. “Hombre de mucha capacidad, sujeción y humildad” diño erderaz. Bere eskintza irakurri, idatzi eta Dotriña erakustera mugatzen zan. Itxuraz zenbaketarik ez, gai ori ez dalako agertzen bere eskintzan.

Ez da esaten umeen eskola orduan sortzen zanik, eskolarako maixu lez eskintzen zala baiño. Beraz, ba dirudi eskola ba egoala ordurako, edo ta izan lei Udalak orduntxe sortzea eskola au eta bertarako maixutzat mutil ori aukeratzea. Udalaren eskabidez, esaten da.

Beste gauza jakingarri bat : Mutillen maixu. Ez ete egoan nesken eskolarik? Leikena da ori, eta ziurrago alaxe izango zan. Kontuan euki bear dogu Euskalerrian luzaro egon zala emakumeei idazten ez erakusteko giroa, bestela denpora asko galduko ebela itxura bako karta eta idazkiak egiten-eta.

Jakiña da orrelako aitzakia erri askotan erabilli zala eta origaitik erri askotan mutillentzako irakaskintza ipiniarren, neskentzako ez zala ezer gertuten.

XVIIIgarren gizaldian

1.729 urtean maixu barri bat aukeratu zan, Jose Jaio, murelagatarra. Urteko aloger lez 52 dukat agindu eutsezan, iru zatitan ordaintzekotan, eta orrez gaiñerra lau ikatz karga egiteko aiña egur. Etxea libre. Oneri agindu jakona au zan:

Umeei irakurten, idazten, zenbatuten eta Dotriña erakustea, eziketa ona emonaz. Eta umeak eskolan lez kalean be geldi eta naste barik eta zaratarik atara barik euki eta ibilten erakustea.

Iru urtetarako aukeratzen zan, eta berak utsik barik eta kanpora joan barik bitarte orretan bere zeregiña beteko eban berba emon eban.

Geiago, eskolarako artzen zitun jarrilekuak artutako eran biurtzera beartuten zan, orretarako bere itza emonaz, ala gertatu ezik bere ondasunekin eranztzungo ebala.

Ikusten danez irakaskintza makal eta asiera-asierakoa zan emongo zana, baiña egia da oraindik argi bagako denporetan bizi giñala be.

ITXASKETA ESKOLAREN PREMIÑA

Alaz eta ba dirudi arrantzalien artean, edo ta itxastarren artean, egon zala itxasketa buruzko eskola bat sortzeko guraria.

1.806 urteko liburuetan alaxe ikusten dogu.

Urte orretako Otsailla'ren 21'eko batzarrean, gaztediaren irakaskintzaren kezka agertu zan, esanez egitasmu edo plangintza bat bear zala gazteei lenengo letrak erakutsi eta Itxasketako ezaupideak be irarteko, eta orretarako ardauari petxa ipintea erabagi zan.

Eskola orreri Martian emongo jakon asiera, bertako maixu lez erriko seme zan Candido Jose Lezea izentatuaz. Urteko alogertzat, 400 dukat belloiko, etxea libre eta egur burkada bi agindu eutsezan.

Danok dakigu urte orreik, gerrak bitarte, txarrak izan zirala gure errientzat, erriak zearo pobretu eta al barik geratu ziralako.

1.809'ko Uztaillean maixu orrek gogoratu eban, urrengo Martian beteten zitula bere tratuko lau urteak, eta beste tratu bat egin nai ebala.

Orduan sortu ziran iztillu eta nasteak.

Batek esan eban erria ez egoala eskola orreri eusteko egoeran, inguru guztian ez egoalako Maixurik Lezea'k aiña irabazten ebanik.

Ille bete geroago deitu eutsen, eta bere alogera beratu bear zala eskatu. Maixua makurtu zan orretara, urteko 50 dukat beratzeko gertu agertuz. Baiña beste ordezkari batek esan eban erria pobrea zala eta ezin eikeala ezelako begirapenik euki irakaskintzagaz. Eta egia au zan : Maixuari zör eutsezala oraindik 1.807 eta 1.808ko alogerak.

Onak Korrexidorearengana jo eban. Arek zorrak erreditu ta guzti ordaintzeko agindu ta azkenean erriak Arriaga baserri inguruan eukan soloa saldu ta aregaz ordaintzea erabagi eban.

Erria politikan nastuta ebillan. Origaitik maixuak be ba eukazan arerioak, bai eta aldekoak be.

Arerioak esaten eben Itxasketa eskola gazteentzat ipini arren, lenengo sei illabetetan euki zitula batzuk, eta arrezkero umeak bakarrik batzen zirala eskolan.

1.814 urtean maixua kendu eben eta eskola sarratu.

Urte bete geroago barrero esaten da gazteak ez daukela ezelako irakaskintzarik ez eziketa onik eta zerbait egin bear zala, besterik ezean lengo maixuagaz ituna egiñaz, baiña irabazten zitun 400 dukaten ordez, 200 bakarrik irabazita.

Alaz eta Iraillean erabagi zan 300 dukat ordaintzea.

1.819'an maixu barri bat aukeratu zan, lengoaren asarez. Zazpi agertu ziran zeregin orretarako eta aukeratu zana urte baterako bakarrik, "ikusite arte bere irakaskintza eta gaiñerako jokabidea maixu maillako gertaten ete zan".

Baiña orrez gaiñera beste 13 baldintza edo betebear leporatu eutsezan. Jakingarriak dira:

Maixuarentzako baldintzak

1.- Goizeko zortziretatik amaiketara, eta ordu batetatik lauretara, ezelako utsik barik eta bere ordez beste iñor laga barik, eskolan egon bear zala. Bitarte orretan, txikienetik nausienara, eguneko ikasgaia artuko eutsela banan-banan, bai eta idatziak zuzendu eta kontuak egiten erakutsi, orretarako zenbakiak berberak ipinita, lau erregelak jakitera eltzeko eran, ikasleak zigortuz eskolara joaten ez ziranetan, edo zarataka ebiltzanetan, edo ta euren zeregiña alperkeriz beteten ez ebenetan, zigorra neurritz emonda, itsutu barik, eta ez makillekin, bestelako astinkaiekin baiño (no con Palos sino con Azotes)

2.- Jai egunetan eleizkizunetara joan bear zala mutil guztiekaz, asiera bertatik, bera danen buru egonaz, bearrezko lotsaz eukiten aleginduaz. Orrez gaiñera egunero, illuntzeko Errosariora joan bear zan ikasle guztiekaz.

3.- Zapatu guztietan kalez-kale ibili bear zala Errosarioa abestuten, eguraldi ona gertaten zan guztietan, Parrokitik asi eta bertara biurtu arte, azkenean bertan Salbea abestuaz.

4.- Maixuak ez ebala beste ardurarik eta irabazpiderik euki bear irakaskintza baiño eta ondo zaindu bear zitula beste gauzak, bere ikasleak ez bakarrik irakaskintzan, bai eta oitura onak artu eta zarrei lotsa eta menpetasuna gorde ten.

5.- Ez zirala beartuten lau urtetik berako umeak eskolan artzera.

6.- Irakaskintza emoteko tokia, eskoletxea, Maixu berberaren konturakoa izango zala, eta itxurazkoa bear zala, erri-agintarien gogoko zana.

7.- Lau illabetetik lau illabetera, ikasleak maixuagaz batera, Udaletxera joan bear zirala, euren aurrerakuntza erri-agintarien aurrean erakusten, eta euren lan eta paperetako idatziak bestelako jendeari erakusteko aukera eukiko ebela, orrela danen on-iriziz maixuen lana ezgutzeko eran.

8.- Eleizak eraturako ibillaldi guztietan Maixua bere ikasleen artean joan bearko zala, mutillak illaretan eroanaz, berak kandela edo beste ezer atu barik, umeen ardura obeto beteteko.

9.- Abendu eta Garizuma denporan, dotriña erakutsi bearco ebala bere ikasleen artean euskeraz, bai eta ikasi naiko eben beste ume eta gizonei.

10.- Umeak, eskolan eta eskolatik kanpora gazteleraz berba egin bearco ebela eta orrtara beartuteko erastuna erabiliko zala, eta zapatu bakoitzean azkenengo eroan mutillagandik Maixuak berak artu eta jasoko ebala, aurrez bearezko zigorra emonda.

11.- Ez aita, ez ama, eta ez beste ume arduradunak ez ebela eskubiderik eukiko Maixuari emoten zitun zigorrekaitik ezer esateko, neurriz emonak ba ziran, eta iñok orrela egin ezker, Maixuak eskubidea eukala Alkatearengana joateko, onek Maixuagaitik txarto esaten ebenei legezko zigorra ipini al izateko.

12.- Erregetzak aginduta eukan lez, Maixuak bere irakatsiak Torcuato Torio'ren liburutik emongo ebazala.

13.- Maixuari ez emoteko ezelako kontratu idatzirik, eta esandako baldintzak bete ezik, bere izentapena bertan bera itxiko zala balio barik.

Agiri onen alboan au irakurten da: Dekretu au 1.819'ko Gabonilla'ren 26'an izenpetu zan.

Orra irakaskintzari buruz zelan jokutzen zan gure errietan oraindik azken gizaldian.

NESKEN IRAKASKINTZA

Ba dirudi nesken eskolarik, ofizialik beintzat, ez zala egon Ondarroan XIXgarren gizaldiaren erdi ingururarte.

Eta asierako etorri nai eban maistra bateri eta bere baldintzei buruzko agiri au aurkitzen dogu:

1.848 urteko Urrilla'ren 24'ko Udal Batzarreko Agiritik.

(Udal Artxiboa, Aginduetako 8 garren Liburua)

“Alkateak jakin eragin eban, azken zapatuan Ea erriko Irakaskintzako Begirale Batzordetik eta bertako bikarioaren karta bat artu ebazala, Ondarroara nesken irakasle etorri nai daben Maria Marina Sagarberria'ren zuzentasun jarduera eta beste gaitasunei buruz.

Agiri orreik onak dirala eta origaitik Udal-Batzarrak ao batez onartu daua la maistratzat izentatzea, urteko 1.333 erreal eta amaika marau ordainduta, ordainketak iru illabetetik bein egiñagaz, beste alogerdunei egiten jakoen lez, eta orrez gain bere ikasleak emon bearko dautsezan ordainketak geratzen dirala, baldintza oneitan:

1.– Ez da beartuko eskolan bost urte bete bagako neskarik artzera.

2.– Neska bakoitzeko ezin kobratu al izango dau erreal bat baiño geiago illeko, au da, idazteko gai ez diranei itz-atalka (silabaka) irakurten erakutsi arte, eta emendik idaztera aldatu, zenbatu, josketa, kaltzeta eta borda-lanetara aldatuko dira, dana erakutsi bearko daualako aurrerantzen joanaz batera. Eta orrelako ikasleei illeko erreal bi kenduko dautsez, jakin eragiñiaz joste eta bordaketa lanak maistrearen mesederako geratuko dirala, bai eta kaltzeta be, berak ipinten ba dautse aria eta beste gauzak, baiña neskak orrelakoak etxetik eroaten ba dabez, lanak be eurentzat izango dira.

3.- Irakaskintzako orduak araudietan iragarriak izango dira, bai opor egun eta jai egunak be.

4.- Illeroko azterketak egitera beartuko da, edo ta Begirale Batzarrak agintzen dabenetara, baiña orreik ez dira bakarrik onura bagako joste, bordaketa eta kaltzetarenak izango, bere zeregiñak eskolara doazen guztien artean banatu bearko dauzalako.

Eskolara doazen nesken artean aurrerapiderik igarten ez ba da, eta euretan eziketa utsunerik igarriko balitz, Uriak berari jagokon erabagia artzea bere kontu geratzen da

Ainbestegaz amaitu zan batzarra, bertako agiria izenpetzen dakien guztiak izenpetzen dabela, eta nik egiaztatu.

Izenpetzailleak:

Jose Pablo Zabala, uriko konstituzio arauzko lenengo alkatea.

Antonio Arantzamendi,

Pedro Jose Urkiza,

Baltasar Manzisidor,

Antonio Guenaga,

Nire aurrean, Jose Andres Madariaga.

ITXASKETA ESKOLA

Lekeitio'n Nautika Eskola Ofiziala 1.862 urtean asi zan, orretarako aurrez Uribarren eta Abaroa jaunak eskoletxea gertu eta erriari eskeiñi ondoren.

Baiña F. Okamika'k bere "La Villa de Lequeitio" liburuan diño, orrek ez dauala esan nai aurrez itxas erakusketarik egiten ez zanik.

Bardintsu esan leike Ondarroari buruz.

Gaur egun Itsasketa eta Arrantza Ikastetxe ederra dago. Baiña noiz asi ziran Ondarroa'n arrantzalienezako eskolaren premiña ezagutzen?

Orretazko lenengo agiria 1.806 garren urtearen asieran billatzen dogu. Udaleko Aginduetako V garren Liburuan (Libro V de Decretos) au esaten da: Gogoratzen da Urtarrillaren 18-an Udal batzarrak erriko alkate, Zuzentza eta Errexidoreei, bertako Bikario jaunagaz eta Jose Antonio Bengoetxeagaz batean, erriko mutillak lenengo Irakaskintzan eta errian ain premiñazko zan Nautikan gertuteko egitasmo bat agertu egiela eta orretarako Maisua aukeratu.

Jaun oneik esan eben Maisu orrentzat urteko laureun erreal belloiko, etxe ordaindua eta sutako egurra bear zirala.

Ori jakinda erriko udal gizonak pentsatu eben eraketa ori gertutea bearrezko izanarren, erriak azken denboretan gertatu ziran zoritxarren ondorenez, ez eukala dirurik orrelako ezarketa bateri erantzuteko, erritarrei zerbait leporatu ezik, azken baten erriaren mesedean zalako irakaskintza ori. Eta origaitik erabagi eben ardauari azunbreko laureneko ziza geitzea eta alaxe egin be, zerga ori urrengo Abenduko 9-an astekotan. Eta erabagi eta agindu eben Erregearen oniritzia eskatzea orretarako, zeregin ori idazkariari aginduz.

Ementxe asten da aurreragoko atalean azaletik azaldu dogun Lezea maisuaren irakasle bizitza bakana.

Erabagi au beteaz, lenengo irakaskintzako maisu lez eta Nautika Eskolako irakasle lez, Kandiko Jose Lezea izendatu eben, lau urtetarako itunagaz.

Aukeratze onen bitartean zer egon zan ez jakin, nai ta politika aizea aidean igarri.

Lezea liberala zan eta bere aurrean erregezale zan arerio gogor eta setatsu bat eukan, jazartuten aspertuko ez zana.

Lezea bere zeregiña beteten asi ondoren, bere ituna 1.810 urtean amaitzen zalako, 1.809'ko Uztailleko udal batzarrean eskari bat egitera ausartu zan. Udal liburuan, egun orretako batzarreko atalean, irakurten da: Kandido Jose Lezea, lenengo irakaskintza eta Nautikako maisuaren txosten bat irakurten da. Bertan diño datorren Martia'ren 8'an amaitzen zala bere itunaren epea, eta beste itun bat egin nai ebala, uriak egoki eritxon epe barri baterako.

Bereala Antonio Garramiola'k erantzun eutsan uria ez egoala lengo Ituna amaitu eta barririk egiteko eran, ezin eikealako ainbeste zama lepoan artu eta ori batzar onetan esaten eban lez urrengokoetan be bardin gogoratuko ebala.... Inguruko errietan ez egoala iñor Lezeak lez 400 dukat belloiko kobratzen zitunik eta etxea ordainduta eta egur karga bi gaiñera. (Udal Artxiboa, Libro V de Decretos)

Ez zan auzia orretan geratu.

Urte bereko Dagonillaren 20'an, liburu berbertako agirian esaten da, Lezea'ri deitu ondoren, erriko egoera txarra zalako, bere alogeretik, mesede lez, zerbait beratzeko eskatu eutsela eta Lezea'k berrogei ta amar dukat urtean beratzeko gertu egoala erantzun.

Eta ziñegotzi zan Ostolazak batzar berean eskatu eban, ezelako parkamenik ez egiteko irakaskintzan, erria beartsu zalako eta ori jaso eziñeko zama zala erriarentzat.

Eskaerak orrela izanarren, erri jokera beste bat zala laster igarten da.

Irailaren 24'an Lezeak salatu eban erriak 4.192 erreal zor eutsazala.

Ostolazak laster emon eban bere iritzia : Errege baletan (bonoetan) ordaintzeko eta bein ordaindu ezkeru ituna amaitzeko. Alkateak, bere aldetik jakin eragin eban, agintea eukala itun barri bat egiteko. Ori entzun ondoren Garramiolak bera be Ostolazagaz bat etorrela.

Kontuak garraztuten asi ziran.

Lezeak gora jo eban, Korrexidorearengana.

1.810'ko Urtarrillaren 31-ko batzarrean irakurten da: "Korrexidorearen agindu bat irakurri zan agintzen 1.807, 1.808 eta 1.809-ko alogeretatik Lezea'ri zor jakozan dirutzak ordaintzeko".

Udal batzarrak erabagi eban, ordaintzen aleginduko zala erantzutea.

Eta bereala batzarrak erabagi eban estutasun orretatik urteteko, Arriaga inguruan eukan soloa saltzea eta or artzen zan dirutzatik ordaintzea.

Aurrez erabagita egoan solo ori enkantera ataratea.

Amar egun geroago Lezea eta Garramiola arteko eztabaida eta asarrea zabaltzen asi zan erriko osagileekana be. Osagilleak J. Askarretazabal eta M. A. Ibaseta ziran.

1.810^oko Otsailaren 11-ko batzar agirian esaten da:”...Lezea, Juan Askarretazabal osagilleak eta Manuel Andres Ibaseta alogerekuak ziñatutako txosten bat irakurri zan udal batzarrean esaten Antonio Garramiola’k iñork agindu barik, Bizkaiko Aldundira zuzendu zala esaten udal au pobrea zalako alogerak beratu bear zirala. Diñoenez Garramiola’k erriko ordezkari bat guzurretan artu dau euren aurkako jokeraz. Origaitik Garramiola’ri lotsa erakutsi bear jakola.

Garramiola’k Ondarroa’ren izenean au esaten eutsan Aldundiari:*

“Ondarroa’ko Udalak, bear dan lotsa eta deduz, diño: frantzetar gudariak eragindako zorretan laguntzeko, bai eta lendik dagozan zergak eta betebearrak osotu eta orretarako gogo zuzen oneik bete al izateko neurriak artu dauzala esaten datorkizu; lenengo maillako gaike lez zergak ipintea mingarri ba da be, beste erremediorik ez egoala ikusten ebalako, orretarako Aldundiak azken Azilla’ren 25^ean emondako baimenaz baliatuz jokatu ebala.

Baiña urteera ori be sarratu da eta orain ez dago beste biderik bertoko langille bateri alogera kentzea baiño, ezetarako gai ez dalako eta beste menpeko batzuenak beratzea, oneik bearrezkoak izanarren, errenta larregi daukezalako, estutasun gitxiagoko denboretan be egokitu bearrekoak.

Lenengo talde orretakua Itxasketako maisua da. Berari agindutako 450 dukat eta etxe errenta kendu leikez, ez daukalako ikaslerik, eta euki be ez dauzalako, eskola zabaldu zanetik lau urteetan, lenengo sei illabetetan ezik. Ala ta be beti artu izan dau bere alogera nai ta lenengo asikerako ikasgaiak besterik erakutsi ez, eta orrez gain kontuan euki bearreko baita, aurrerago lenengo ikasgaietako maisu izan zan Ramon Ximeno’k beste eun dukat artzen dauzala.

Bigarren taldekoak osagillea eta zirujanoa dira, nai ta erri guztietan bearrezkoak izan. Lenengoak 650 dukat daukaz eta bigarrenak 200, eta ori uriaren aldetik; orrez gain kontuak artzekoa da, Kofradiatik eskuratzen dabeza-

1* *El Ayuntamiento de esta villa de Ondarroa con el más profundo respeto y consideración expone que desearo de contribuir al contingente asignado por Ud. para subvenir a los gastos de las tropas francesas y a los demás impuestos y obligaciones a que anteriormente se halla sujeta, ha tomado todos los medios que ha creído capaces de llenar los justos deseos llegando al extremo de gravar los mantenimientos de primera necesidad y que aunque se fatiga también en proporcionar arbitrios para que no se verifique el doloroso caso de proceder a la venta de sus montes y terrenos concejiles no halló ninguna por lo que se vió precisado abalarse de la facultad que V.I. le concedió en este particular y señaladamente en el Capítulo 1º de la vereda expedida el 25 de Noviembre último. Se ha agotado también este recurso y no queda otro que el suprimir el salario de alguno de sus dependientes por ser absolutamente inútil y el de minorar el de otros que aunque necesarios gozan y disfrutan unas rentas tan orbitantes que aun en circunstancias menos estrechas que las presentes exigen su reforma o el que se tratare de arreglarlas. De la clase del primero es el actual Maestro de de Nautica, pues prescindiendo de que su salario asignado a 450 ducados incluso en ellos la renta de casa, no tiene ningún discípulo ni ha tenido en estos cuatro años en que se estableció, sino los primeros seis meses y*

nak sartuta milla dukat eukiko dabezala, eta ori 450 familien artean, ziurretik beste iñok lurralde onetan eukiko ez dabezana lez.

Origaitik, eta biztanlegoa be gitxitua dagoalako, Frantziagazko azken gerratean euki eban sutearen ondorenez, etxe-jaun batzuk, txalopa jaube batzuk eta arrantzale talde bat baiño ez dagola, neguterik geienean arrantzara urten eziñez etxean gelditzen diranak, sekulako miserian geratu eta biziaz.

Ori ala dala Udalak ez dauka beste urtenbiderik neurri osagarri ori artzea baiño. Alaz eta bildurra dala eurentarikoak auzietara jo leikela, (nai eta Itxasketako irakasleak bere ituna amaitu baiño len ala egin eta onartu jakolako) eta bildur origaitik Aldundi orretara joten dau eskatzen udalaren asmoa ondo ikusten dauala autortzea eta baimena emon Itxasketako maisu arduraduna kentzeko, ezetarako ez dalako eta bai uri onentzako eta bertako biztanlego beartsuarentzako zama astun, eta lenengo ikasketetako maisutza esandako Ramon Ximenori bete eragin daukazan eun dukateko alogeraz, eta orretara ukatuko ba litz, beste lagun egoki eta gai bat aukeratu aloger bardintsuago bategaz itunduta (daukan biztanlego urria kontuan eukita).

Eta mediku eta zirujanoagaz eta edozein bere menpekoekaz bardin egin eta orretara makurtu ezik dauken izendapena gai dan besteren batzukana aldatuaz.

Udal onek eskabide au onartzen jakingo dozun itxaropena dauka, eta zeruak zure bizitza zaindu dagiala opatuz agurtzen zaitu.

Ondarroa'n, 1.810'ko Otsailla'ren 1'an.

Udaleko ordezkari lez = Antonio Garramiol¹

Lau egun geroago, 1.810'ko Otsailla'ren 4'an, Bizkaiko Aldundi orokorreko aldunak erabagi eben, ez egoala orretarako baimenik. Eta Garzia-Aldama-Larrea eta Diego Ant. Basaguren'ek izenpetutako agiria bialdu.

² *estaba llevando siempre este salario por solo ejercer la enseñanza de las primeras letras a lo que se agrega que también disfruta de cien ducados don Ramon Ximeno por haber sido antes maestro de primeras letras. De la segunda clase son el médico y el cirujano que aunque indispensables en todo pueblo para la conservación de sus habitantes gozan 650 ducados el 1º y el 2º 200. los cuales contribuye esta villa, sumados a los que han por separación de la Cofradía de mareantes compone igual cerca de mil ducados y esto en 450 dotaciones que apenas disfrutan otros de su oficio en este solar. Por lo mismo y porque el vecindario está corto, como que por el incendio que sufrió en la última guerra con Francia quedó reducido al de unos pocos propietarios, mestres de chalupas y a una porción de marineros que no pudiendo dedicarse al ejercicio de la pesca la maior parte del Invierno por lo riguroso de la estación viven constituidos en una gran miseria se ve el Ayuntamiento en la necesidad de echar mano de este remedio pero como recela que los interesados promuevan litigios a pretexto de escrituras que se las ha otorgado (aunque el Maestro de Náutica, faltándole todavía casi un año para el cumplimiento de la que se hizo quando se le admitió) acude este ayuntamiento al amparo, protección de V.I. suplicándole rendidamente se digne abilitarlo o autorizando para que inmediatamente pase a suprimir el empleo del referido Maestro de Náutica como enteramente inutil y gravoso a esta Villa y su pobre vecindario, y haga ejercer el de primeras letras al expresado Dn. Ramon Ximeno con el salario de los cien ducados, o en caso de que se niegue a ello, maestro otro sujeto apto y capaz para el intento, y asimismo para que pueda acordar otro salario más equitativo (atendiendo al corto vecindario) con el médico cirujano y cualquier otro dependiente y en defecto de no conformarse cause su nombramiento en otro capaz para el desempeño de estos destinos. Así lo espera este ayuntamiento de la justificación de V.I. cuya vida guarde el cielo m.a. Ondarroa 1 de Febrero de 1.810. Como comisionado del Ayuntamiento. Antonio de Garramiola*

Ori ikusita Ondarroako udal batzarrak erabagi eban Garramiola Bilbora bialtzea, txosten zeatz bategaz uri aretako auzitegian egiteko zan batzar berezi batera joateko izan zala, ango Auzitegiak azken Urtarrilla'ren 4-an batzuk egin zituen larregikerien orde z biztanlegoari ezarritako isuna kentzen alegintzeko eta ez beste ezetarako.

Eta udal batzarra arrituta geratu zala ordezkaria bere zeregiñetik kanpoko arduretan jarduteaz, batez be txosten aretan izentatzen ziran gaituen aurka, eta onein arteko ezelako barrikuntzarik ez artzeko erabagia artu zan, euren aldetik eta borondatez egoera onetan ezelako mesederik egitea artu nai ba dabe euren borondatez egiña izan daitela, eta ez bestela.

Orregaz udal batzarra banatu zan.

.....

Ikusten danez 1.810 urtea azpikerizko jokoen urtea izan zan. Guda usaiñean ebiltzan batzuk euren taldeak bialtzen zituen erriz erri al eben tokietan kalteak egiten eta orreitan geientsuena Ondarroa izan zan, iru-lau bidar orrelako era-soak ezagutuaz.

Martiaren 24-an Parrokiko sakristian batu ziran erritarrak eta eraso orreik ikusirik, orrelakoetan pertsona batzuek eta euren ondasunak euki leikezan kalteak galerazteko, orrelakoei aurre egin bear jakoela erabagi eben eta orrela bizitzako ziurtasun bat lortu. Orretarako aldezketa erabagiak artuaz.

Erria zaindu eta aldeztuteko talde bat aukeratu zan eta euren buru Santiago Abaroa alkatea, Pedro Jose Aranzamendi kapitan eta Kandido Jose Lezea, teniente.

Itxuraz aukeratze onek nortasun geiago eta erri-ezaupide geiago emon eutsan Lezea'ri.

Orrela 1.814'ko Urtarrilla'ren 1'ean alkate aukeratzea lortu eban, konstituziñoiko alkate. Baiña orretarako maisutza itxi bear.

Andik laster bere alkatetza legetik kanpo geratu zan, agindu barrietara Ondarroan bederatzi lagun aukeratu bear ziralako gero eurak alkatea aukeratze-ko. Eta berbera aukeratu eben. Baiña urte berean, Dagonilla'ren 14'an, "konstituziñoiko udalak" kendu zituen eta oraingotan barriro alkate barria aukeratu bere orde z.

Berak bereala barriro maisutza eta itxasketako irakaslegotza eskatu eban, baiña eskabidea ontzat artu ez, alkate izatearren berberak itxi ebalako zeregin ori.

1.819'ko Azilla'ren 1'ean barriro maisurik ez egoala-ta maisu batentzako baldintzak iragarri ziran errian. Lezeak bere eskubidea eskatuarren, jaramonik egin barik maisu barria aukeratu eben.

Urte neketsuak ziran.

Udaletxeko Aginduetako VI garren liburuan, 1.823'ko Bagilla'ren 1'an au irakurten da:

“Egun onetan Bizkai Aldundiko txosten bat irakurten da: Bertan esaten danez Korrexidoreak Aldundira adierazo eban, jakin ebala Ondarroan, ziñegotzi lez jarraitzen ebala Kandido Jose Lezea’k eta au errege-zaleen aurka gertu ziran txalopa armatuetako kapitana izan zala gobernu-iraultzaille denboran. Eta une onetan orrelako iñork udaleko lan-posturik lortzerik ez zala egoki eta origaitik udalean eukan kargutik kendu eta Errege-zale jator dan beste batek ordezkatu bear ebala”

Alaz eta Lezea abilla zan politika eskutuetan eta maisu lez jarraitzen eban 1.832 urtean. Orduko udal batzar baten esaten zan: Lezea bederatzi erreal kobraten egoala, seiren orde, eta geiago artuta egoana biurtu bear ebela”.

Onelaxe jokutzen eban Ondarroan ezagutu izan dan lenengo Itsasketa Eskolako maisu bakarrak.

UDALETXE BARRIA

XIXgarren gizaldiaren sarreran Ondarroak solo ta baso batzuk eukiarren, ez eukan bere jaubetasuneko udaletxerik, ez eskolaetxerik, ez alondikarik.

Udal batzarrak alokatutako etxe baten egiten ziran, esaten ebenez, batzarrak egiteko toki estuegi; bardin eskola-etxea eta alondika, irurak errenta ordaindu bear izaten ebenak ziran.

Origaitik orduko udal arduradunak kezkatuta ebiltzan. Erriari itxura emon nairik, besterik ezean. Batetik orrelako etheen edo ta aterpeen jaubetasuna lortuaz eta bestetik urteko ordainbearrak arindu nairik.

Baiña guraria zan bat eta egiñak bestea.

Udal liburuak irakurtean, ikusten da luzapen asko egon zirala lenengo erabagiak artzen eta erabagi orrek ekintzara eroan bitartean.

Ala, 1.850'ko Martiaren 8'ko batzarrean esan zan ba zirala ogei urte baiño geiago udaletxe barri bat egitea pentsatu zala, bertan lenengo irakaskintzako eskola eta maisuaren etxea be sartuaz, bai eta pixu-zeatz edo alondika batentzako etxea be, danak bakoitza bere askatasunez.

Ordurarte erritar etxe jaubeen tokietan eukezala egitura orreik, eta udal batzarrak egiteko be txiki zala eta itxurabakoa udaletxetzat erabilten eben etxea, eta era bereko zirala maisuaren etxea, eskola etxe eta alondika.

Udalak planu bat, egitasmu bat egin ebala 1.831 urtearen azkenetan Madrid'eko Real Academia de San Fernando'ren onartzea lortu ebana.

Baiña edozetatik begiratuta be errientzako ondamendiko anai arteko gerra sortu zanetik, gerorako itxi bearra egon zala egitasmu ori erria zorretan geratu zalako.

1.850'ko Martia'ren 19-ko udal batzarra

Milla bederatzireun eta berrogeta amarreko Martia'ren emeretzian batzar bat egin zan errian.

Bertan batu ziranak :

Pedro P. Ibañez de Aldekoa, alkatea.

Franzisko Ventura Aranzamendi, alkate ordekoa.

Jose Antonio Badiola,

Jose Domingo Arana,

Antonio Guenaga,

Jose Luis Unanue, laurak ziñegotziak eta

Jose Narciso Balzola, sindikoa.

Ezin agertua erakutsi eban Jose Ramon Ibaseta'k.

Udala osotzen eben esandako gizonen gain, baita batu ziran:

Juan Bautista Susaeta,

Martin Aristi,

Pedro M^a Ituarte,

Juan Bta. Garramiola,

Migel Iñazio Antxustegi eta

Juan Azpiri, azken sei oneik erriko aberatsenen aldetik.

Batu eta Udalak illaren 8-an artutako erabagia jakin eraso zan., au da, Udaletxe barria premiñazko zala egitea. Alkateak esan eban orretaz eta erriko osabideatzaz jarduteko Gobernadorearengana joan bear ebala, eta beretzako txosten au eroiala :

(Txosten orretan esaten zan Udaletxe, eskoletxe eta alondikari buruz gorago esan dana)

Etxearen planoak Madrid'eko Real Academia de San Fernando'k 1.831 urtearen azkenetan aitzaki barik ontzat artu ebazala. Gero, gerra bitarte, egitasmu ori atzeratu edo bastertu zala. Baiña lan ori egitea bearrezko zala eta orretarako Udalak pentsatuta eukala zerga batzuk, iru gaikienak bakarrik, era oneten ezarte :

Errioxa'ko arda u oia, kantarako bakoitzeko errial bat.

Aguardientea, pattarra, azunbreko errial bi.

Olio, arru bakoitzeko errial bat eta erdi.

Orrela, zerga orreitan zortzi milla (8.000) erral batu eikezala urteko.

Eta uste zala, eraikintza guztia, udaletxe, eskolaletxe, maisuaren bizileku eta alondika 70.000 errialen inguruan egin al izango zirala.

Edozetara be, beste egokitasun eta aurerrapide asko alboan itxita, Udala bere zerbitzurako etxe eder baten jaube egingo zala.

Egitasmoa Mariano Jose Laskurain arkitektoarena zala eta 1.831 urtean onartuta egoala.

Gobernadorearen erantzuna

Txosten orreri gobernadoreak 1.850'ko Ekainilla'ren 21'an erantzun eutsan, esanez,

Udaletxea egiteko egitasmoa onartzen ebala eta ala biurtu, baiña....

1.- Ardau, pattar eta olioari buruz eskatzen ziran zergak, beste lendik etozan zergaekin bateratuta agertu bear zirala eta zergaen enkante edo erremata baten leiatu, orduan oiturazko zan lez, lanak eta lanen ondoren guztiak ordaindu arte eta orrela egiñaz gero barriro beratu edo kendu.

2.- Udalak bere aurrekontuetan zortzi milla erreal (8.000) sartu bear ebazala orretarako eta eraikuntza artzen eben etxegilleak kontu guztia ordaindu arteko dirutzari % 5'eko etekiña geitu.

3.- Udalak lanak ikertzeko iru begirale berezi ipini orde, au da argintza, arotz eta igeltzeritzako lanentzako bakoitzarentzat bat aukeratu orde, iru sailentzako gaitu bakar bat aukeratu bear ebala, bere begiralanetan, bere ikerlanetan egingo zitun egunak aurrez iragarri eta zeaztuta, bestela ezin mugatu izango zalako arduradun bakoitzari orreri buruz leporatu bear jakon dirutzarik.

4.- Udalak, sail bakoitzeko arduradunari, bere ardurapean, inguru onetan ondasunen jaube izatea eskatu bear eutsala eta lanak amaitzeko epe bat ipini bear eutsala, eta ala ezik Lurraldeko gobernura kontua emon, beti be lenengo enkantea artu ebanaren izenean besteren bateri amaitzea agintzeko, eta orrela gerattu ezkeru, bere bermatzaileak euren ondasunekaz erantzun al izateko.

Enkanteak (erremateak)

Bear ziran baimenak lortu ondoren, enkanteak 1.850'ko Uztailla'ren 7'an egin ziran.

Orduan udaletxetzat erabilten zan etxearen aurreko plaza txikian, arratsaldeko eleizkizunak amaitu ondoren.

Igandea zan.

Maiburu Pedro Prudencio Ibañez de Aldekoa. alkatea, eta bere inguruan ziñegotziak eta sindikoa.

Idazkariak, alkate lendakariaren aginduz, euskeraz agertu eban batzar aren zergaitia, udaleko ormetan eta Bizkaiko boletiniñean be agertu zalako.

Lenengo argintzaren enkantea egin zan, bere baldintza, neurri eta aurrekontuaren arabera 33.751 erreal eta erdien aurrekontupean eta gobernadoreak ezarritako baldintzak geituta.

Eskintza edo beratze bakoitzean 675 erreal beratu bear ziran.

Argizarizko kandela biztu ondoren, Markiñako bizilagun zan Iñazio Arrate asi zan bere eskintzak egiten eta beratze bi egiñaz beretzat geratu zan argintza lana 32.401 erreal eta erditan, andik zortzi egunetara leku berbertan edo eleizpean egin bearko zan azken errematean besterik gertatzen ez ba zan. Orduan lenengo berakada euneko amarrekua izango zan.

Arrate'k baldintzetan eskatzen zan lez, ontzako urre bi ipini zitun ezaugarritzat.

Ondoren arotz-lanena egin zan.

Aurrekontua 32.287 errealetakoa zan, eta beratze bakoitza 645 errealetakoa.

Kandela biztu ondoren, erriko seme zan Primo Lezeak agertu eban bere eskintza, eta bigarrenen beste batzuk, zazpi bidarrez egin ziran beratzeak.

Berakada guztiak egin eta esandako Lezea geratu zan 27.767 erreal eta lau marautan egitekotan.

Lezea'k, une berbertan, ontzako urre bi itxi zitun, urrengo igandekoan zer gertatu ikusteko.

Luzapenik barik Igeltzeritzako lanena zabaldu zan. Oneik 7.311 errialetako aurrekontua eiken.

Kandela biztu eta beratzeak asi ziran bakoitza 146 errial eta 8 marautan eta lenengo Pedro Mari San Sebastian, itziartarra agertu zan. Bera bakarrik agertu zan eta bertan emon eban ontza erdiko urrea.

Au be urrengo domekan ziurtatzeko.

Esandako diru kopuruak ziurrak izanarren, baldintzetan agertzen zan lanak egiñala barriak be sortuko zirala eta egin bearko zirala, nai ta lenengo enkante onetarako zeaztu barik egon, gerokoa arkitektoaren ikuspegiaren ardurapeko izango zalako.

Bigarren enkanteak

Oraingoan, Eleizpean, au da, Eleiz atadian egin ziran, 1.850'ko Uztaillaren 14'an, arratsaldeko eleizkizunak amaitu ondoren.

Aurreko igandean lez alkatea eta ziñegotziak izan ziran maiburu.

Argintza lanean, aurreko igandean Iñazio Arrate'ren izenean 32.401-1/2 errealetan geratu zan.

Iñok obatzekotan euneko amar beratzen asi bearko zan.

Kandela biztu eta Pablo Pradera Markiñarrak egin eban bere eskintza. Eta kandela amatau arte ez zan beste iñor agertu.

Origaitik Pradera geratu zan lanekaz 29.161 errial eta 14 marauetan.

Bereala aurkeztu zitun urrezko ontza bi, bata 1.774 urtekoa, Karlos IIIgarrenaren izenekoa eta bestea Felipe IVgarrenaren denborakoa, 1.797 urtekoa.

Eta Iñazio Arrate'ri bereak biurtu jakozan, bata Karlos IVrenarena 1.807koa eta bestea 1.808koa.

Jarraian, era berean, arotz lanena egin zan.

Aurreko domekan Primo Lezea'k artu eban 27.767 erreal eta lau marautan. Baiña oraingoan ez zan iñor agertu eta lengo kopuru beretan geratu zan.

Orren atzetik Igeltzeri lanetakoa, emen be euneko amar (% 10) beratuaz.

Lenengotik Jose Mari Burgoa ondarrutarra agertu zan. Eta ondoren beste sei beratze egin ziran.

Azkenean be Jose Mari Burgoak beregaz eustea lortu, 5.702 erreal eta 6 marautan.

Lenengo igandean artu eban Pedro Mari Sebastian'eri biurtu jakon bere urrea eta oraingoan Jose Mari Burgoak Fernando VIIgarrenaren 1.820koa eka- rri eban.

Agirian esaten da jende ugari batu zala bigarren enkante au ikusten.

Egiturako baldintzak

Beste oiturazko baldintza batzuen artean esaten zan, ormetan, eguerdi- alderako arriak, alondikako leio erdi-biribilletan eta eleizpean ipini bear ziran zutabe biak Urlo'ko arriolatik ataratakuak izan bear zirala.

Eta Urlo'ko erreteruak alkateari egindako karta bat agertu zan, bere bal- dintzak zeaztuten.

1.- Inguruan egiten ziran kalteak berari ordaintzekoak izango zirala.

2.- Arri andiak atara eta geratzen ziran txikiak bere mesedean geratuko zirala.

3.- Arria ataraten berak lan egin nai ba eban, bera zala lenena.

4.- Arri ataratzailleak berriatuarrak oiturazko eben baldintzetan lan egingo ebela, eta Udalak ordezkarien bat ipini bearko ebala arduradun, arri-olea Uda- lari zabaltzen jakolako.

Orrez gain baserritarrak esan eban arria atara aurretik kendu bear zan lurra, ez ebala nai bere soloan zabaltzea, alkarregaz berba eginda onartzen eben tokian baiño. Eta jakiña, onek be ze ikusia eukiko eban enkantean.

- Esku-oemetarako arria, Arrigorri'ko arriolatik atarako zan.

- Eleizpe eta inguruko be-arlosak, Amallo'ko arriolatik atarako ziran.

Baiña ba egoan baita emen lanak egitean eskatuko zituen beste lanetarako utsunea, lanak artzen zituenak aurrekonturik kanpora euren baliotan onurakor izango zituenak.

Ala arotzak, esateko, ainbat zeregin eukazan argiñei egin bearreko lanetan, eta orretan ez egoan salneurri mugaturik, kontzientzikoak baiño.

Eta bardin igeltzeruak eta argiñak be, ez ekien asieratik zelako zimenduak artu bearko ziran, garai aretan ez egoalako sakonean norarte jo bearko eben aurrez zeaztuteko aukerarik.

Baldintzetan igarten dana au da : eraikintza, egitura ez luzatzea, albait ari- ñen amaitzea eta origaitik erriak, lanak amaitzean, saritu egin zituen iru gintza arduradunak eta ordainketan epetan luzatu ba ziran be, esan lei, amar urtetan, urte bakoitzean arda, olio eta pattarren zergak emon zituen errealekaz ordain- du zala egitura guztia.

Igarten da, sail bakoitzeko lan artzailleak, lagunak billatu ebezala gero eta lan zati batzuk eragin, edo ta ordainketak egin al izateko aurrerapenak.

Lanak amaitu eta bigarren urtean Laskurain'ek, bakoitzari berea zeaztuz, onela izenpetu zitun kontuak:

Argintza	44.465 erreal.	Jose Bustindui
Arotz-lanak	37.782 erreal.	Primo Lezea
Igeltzeritza	9.413 erreal.	Jose Mari Burgoa

Esan bearreko da Arotzari, kanpoko ate eta leioak bear lez ez amaitzeagaitik, 1.026 erreal beratu eutsazala kontuetan arkitektoak.

Edozelan be Udala pozik geratu zan lanak eta ordaintze-zeregiñak ondo ebatsi ziralako, eta arkitektoak kontuan esaten dau: “.....*en virtud del acuerdo altamente plausible a la vez que humanitario hecho por esa corporaciòn en pro de los rematantes de las mencionadas obras...*” Au da, txaloak udalari bere aldetik 7.000 erreal geitu zitulako gintza bakoitzaren egilleen artean banatzeko. Eta bakoitzak eukan neurrian, bakoitzarentzako banaketa onela geratu zan:

3.600 argiñentzako

2.800 arotzentzako

600 igeltzeruentzako

Eta erabagi ori artu zanean oraindak zortzi urte falta ziralako ordainketak amaitu orduko, bakoitzaren urteko kopurua au izan zan :

Argiñei	450 urteko
Arotzei	350 urteko
Igeltzeruei	75 urteko

(Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboa.—Erri-lanak saila)

ARMARRIA

Erririk geienak arrotasunez erakusten dabe euren armarría, eskudoa.

Ulertu egin bear izaten dira armarrí asko, eurak bizitzan zear, au da, kondairan euki izan daben bizi-lege antzeko, oitura, egitada edo gertaeren bat eza-gutzeko.

Ondarroa'k, itxasertzeko erri dala, eta itxas bizitzan oiñarrítu eta egiña, uri izateko duintasuna emon eutsan mesede berbertan agertzen dan lez: "*puebla de pescadores*", au da, arrantzalien bizileku, armarría artu eta eukitekotan itxas giroko izatea zan legezko.

Euskaldunak arrogarritzat euki eben denbora zarretan bale-eiza, edo oker esanda be, bale arrantza.

Izan be aldi bateko tresnakin txalopa, korda, arpoi eta abarrekaz, eta ontziak eurak bale jarraipenetan bear eben indarraren eragiña ezagututa, ibiltan ziran lez ibilteko gizonak eta ontziak bat eginda baiño indar eta pixu geiago eukin izabere orrein aurka jokatu al izateko, biotza, adore eta zerbait geiago bear zan.

Askotan, itxura danez, bizi bearreak eroaten zitun gure arrantzale zarrak balearen atzetik tatarrez eta biziaren arrizkuz ibiltera.

Balea izaten zan, aldi areitan, errietako aberastasuna, bere gantz, koipe, aragi, azur, min, bizar eta abarrekaz denboraldi baterako premiñen asegarri.

Origaitik erri batzuk euren duintasun lez armarríak baleetan oiñarrítuta iruditzen zituen.

Ez dira Euskalerrían itxas kai edo portu guztiak euren armarríetan balea agertzen dabenak. Gure itxasertzean Mutriku eta Getari Gipuzkoan eta Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa Bizkaia'n. Eta euretan be ez beti bardin, ezaugarri barriak atara nai izaten dituelako iruditzen edo marraztuten dituen artistak, egia eta izana zela-ala biribilduaz.

Orrez gain, denborak aurerra edo luzatu-ala, paperetan atara izan diran irudi asko ez dira jatorrak.

Ondarroa'ko azken paperetan balea ura dariola ikusten da, izabere orreik ekien lez ura goruntz jaurtiten. Baiña ba dirudi ez litzakela orrela agertu bear Ondarroa'ren kontuan.

Arrantzalien artean eukitako auzi bateko paperetan esaten da, Ondarroa'ko armarrian bale bat agertzen dala, ildakoa, txalopa batek lotuta dakarrela.

Orrela dala, ilda ekarrela, zurrutzadaka ura jaurtiterik ete leike?

Itxas zabalean baleari jarraitzen agertzen diran txalopetan, leikez ur-zurrutzada eta parrastada orreik, baiña Ondarroako txalopa portu barruan agertzen da, bertako zubi egalean. Beraz, gaitz izango zan balea molla egalera bizi-rik ekarri al izatea, baleak euren bizitzako azken gogortada eta etenetan euken arriskua jakinda.

Bizkaiko Aldundian gordeten dan agiri baten au esaten da "*esta villa tiene por armas un puente y una chalupa con una ballena muerta atada a ella*". Au da, uri onek armarrizat zubi bat eta ildako bale bat dauka txalopa batek lotuta dakarrela.

Armarri ori parroko aldare nausiaren atzeko eleiz bular, absidean dagola, epistolako aldean, Ebanjeliokoan Bizkaiko daukazala. Ori gaurko egiturako egurrezko aldare nausian be ikusten da, atzean dagozanaren antzirudi lez egiña, baiña jatorra, esan dogun lez, atzean dago, arrian egiña. Eta ildako balea adierazten dala gogoan euki bearreko da bera iruditzean.

Beste gauza bat dira armarrien inguruetan ipinten diran idatzi eta azalpenak.

Ondarroakoan au agertzen da: M.N. y M.L. Villa de Ondarroa. (Muy noble y muy leal Villa de Ondarroa). Gaurkoetan euskeraz: "Gutziz zintzo eta guttiz leial Ondarroa'ko uria".

Gaitz aurkituko litzake artxihoan deitura ori erabilteko argitasuna emon leiken agiria. Gutziz ori, muy ori, ez da edonun billatzen, legez eta jatortasunez artuta.

Karlisten gerratean beste era bateko deiturak egon ziran. Lekeitio'ri, esateko, fidelísima erabilteko bidea emon eutsen lez, Ondarroa'k "La muy esforzada" eukan, au da, gutziz adoretsua eukan.

ALKATEAK

XVIII ETA XIX GIZALDIETAKOAK

- | | | | |
|--------|--|--------|--|
| 1.701. | Joseph Andonaegi. | 1.720. | Sebastian Ayardia. |
| 1.702. | Joseph Bustinzuria. | 1.721. | Domingo Egurrola. |
| 1.703. | Jose Etxebarria | 1.722. | Manuel Andonaegi. |
| 1.704. | Domingo Joaristi. | 1.723. | Juan Brevilla. (Il egin zan eta bere ordez, Antonio Urriola) |
| 1.705. | Juan Joseph Andonaegi. | 1.724. | Pedro Urriola. |
| 1.706. | Juan Brevilla.– Ignacio Asterrika. | 1.725. | Manuel Leaegi. |
| 1.707. | Pedro Urriola. | 1.726. | Joseph Andonaegi. |
| 1.708. | Juan Otxoa Brevilla. | 1.727. | Jabier Bustinzuria. |
| 1.709. | „ | 1.728. | Pedro Urriola. |
| 1.710. | „ | 1.729. | Juan Joseph Andonaegi. |
| 1.711. | Bartholome Armaolea. (Itxas kapitana). | 1.730. | Dionisio Egurrola. |
| 1.712. | Joseph Bustinzuria. | 1.731. | Joseph Etxebarria. |
| 1.713. | Franzisko Aldaolea. | 1.732. | Pedro Urriola. |
| 1.714. | „ | 1.733. | Jabier Murga. |
| 1.715. | Pedro Urriola | 1.734. | Domingo Joaristi. |
| 1.716. | Domingo Joaristi | 1.735. | Joseph Etxebarria. |
| 1.717. | „ | 1.736. | Pedro Urriola. |
| 1.718. | Franzisko Andonaegi.– Pedro Urriola. | 1.737. | Martin Txopite. |
| 1.719. | Sebastian Ayardia.– Franzisko Andonaegi. | 1.738. | Juan Jose Elorriaga. |
| | | 1.739. | Pedro Urriola. |
| | | 1.740. | Joseph Bustinzuria. |
| | | 1.741. | Manuel Leaegi. |

- 1.742. Felipe Angulo.
1.743. Domingo Urriola.
1.744. Joseph I. Bustinzuria.
1.745. Pedro Urriola.
1.746. Felipe Angulo.
1.747. Pedro Urriola.
1.748. „
1.749. Joseph Etxebarria.
1.750. Joseph I. Bustinzuria.
1.751. Juan Martinez Albinagorta
(Cadiz'en) Ordezko Andres
Sasturri.
1.752. Juan Leaegi. (Cadiz'en). Bere
ordez Pedro Urriola.
1.753. Joseph I. Bustinzuria.
1.754. Lorenzo Zelaia.
1.755. Pedro Urriola.
1.756. Juan Bta Etxebarria.
1.757. Tomas Urkiaga.
1.758. Fco. Jabier Armaolea.
Ordezko: Lorenzo Zelaia.
1.759. Jose Mugartegi.
1.760. Migel Antonio Murga.
1.761. Joseph I. Bustinzuria.
1.762. Santiago Etxebarria.
1.763. Jose Ant. Bengoetxea.
1.764. Domingo Urkiaga.
1.765. „
1.766. Domingo Urkiaga.
1.767. „
1.768. Juan Bta. Etxebarria.
1.769. Migel Antonio Murga.
1.770. Joseph Ant. Bengoetxea.
1.771. Franzisko Armaolea.
1.772. Pedro Arriola Egurrola.
1.773. Santiago Etxebarria.
1.774. Franzisko Armaolea.
1.775. Domingo Joaristi.
1.776. Migel Angulo.
1.777. Pedro Urriola Egurrola.
1.778. Fko. Xabier Armaolea.
1.779. Santiago Etxebarria.
1.780. Andres Guelaloro.
1.781. Fco. Xabier Armaolea.
1.782. Santiago Etxebarria.
1.783. Andres Gelaloro.
1.784. Jose Ant. Bengoetxea.
1.785. Santiago Etxebarria.
1.786. Migel Angulo
1.787. „
1.788. Jose Ant. Etxebarria.
1.789. Migel Anton Goitia.
1.790. Pablo Antonio Arizpe.
1.791. Juan Bta. Arriola.
1.792. Juan Bakeriza.
1.793. Migel Anton Goitia.
1.794. Prudencio Gelaloro.
1.795. Juan Bta. Arriola.
1.796. Migel Anton Goitia.
1.797. Jose Egurrola Alipasolo.
1.798. Juan Bta. Arriola.
1.799. Jose Ant. Etxebarria.
1.800. Agustin Ant. Arakistain.
1.801. Jose Lorenzo Egiguren.
1.802. Jose Ant. Bengoetxea.
1.803. Domingo Gandiaga.
1.804. Santiago Abaroa.
1.805. Jose Ig. Aristi.
1.806. Prudencio Gelaloro.
1.807. Andres Antxustegi.
1.808. Santiago Abaroa
1.809. „
1.810. „
1.811. Juan Bta. Mendibelzua.
1.812. Jose Ig. Aristi.
1.813. Antonio R. Etxebarria.
1.814. Candido Jose Lezea.
1.815. Sebastian Arrasate.
1.816. Juan Bta. Sustaeta.
1.817. Gabriel Urresti.
1.818. Antonio Garramiola.
1.819. Juan Bta. Sustaeta.

- | | | | |
|--------|--|--------|---|
| 1.820. | Andres Antxustegi.– Pedro Arteagagoitia (konstituzio legezko alkatea). | 1.855. | Domingo Lekue. |
| 1.821. | Antonio Garramiola. | 1.856. | Pascual Sustaeta. |
| 1.822. | Franzisko Paula Atxa. | 1.857. | „ |
| 1.823. | Andres Antxustegi. | 1.858. | „ |
| 1.824. | „ | 1.859. | Jose Domingo Arana. |
| 1.825. | Andres Arriola | 1.860. | Jose Domingo Arana. Pascual Sustaeta. |
| 1.826. | Andres Antxustegi | 1.861. | Pascual Sustaeta. |
| 1.827. | Juan Bta. Sustaeta. | 1.862. | „ |
| 1.828. | Juan Lorenzo Eguguren | 1.863. | Antonio Arriola. |
| 1.829. | Juan Bta. Sustaeta. | 1.864. | „ |
| 1.830. | Jose Pablo Zabala. | 1.865. | Martin Aristi. |
| 1.831. | Franzisko Aranzamendi. | 1.866. | „ |
| 1.832. | Baltasar Manzisidor.– Ekaini-llaren 9'an kendua. Ordezko: F. Arantzamendi. | 1.867. | Franzisko Okamika. |
| 1.833. | Manuel M. Murga. | 1.868. | „ |
| 1.834. | Pedro M ^a Ituarte. | 1.869. | Pascual Sustaeta. |
| 1.835. | Domingo Jose Madariaga. | 1.870. | „ |
| 1.836. | Franzisko Aranzamendi. | 1.871. | „ |
| 1.837. | Martin Aristi. | 1.872. | Estanislao Ibaseta. |
| 1.838. | Candido Jose Lecea. | 1.873. | Eduardo Nafarrete.– Gero Fernando Ituarte. |
| 1.839. | „ | 1.874. | Esteban Etxebarria. |
| 1.840. | Migel M. Murga.– Fko Pablo Atxa. | 1.875. | Antonio Arriola. |
| 1.841. | Jose Pablo Zabala. | 1.876. | Pedro Arriola.– Gero, gobernuko aginduz, Eduardo Nafarrete. |
| 1.842. | Jose Andres Gazagaetxebarria. | 1.877. | Pedro Jose Zelaia. |
| 1.843. | Martin Uriarte. | 1.878. | „ |
| 1.844. | „ | 1.879. | „ |
| 1.845. | Martin Aristi. | 1.880. | „ - Gero Eduardo Nafarrete. |
| 1.846. | Agustin Abaroa. | 1.881. | Eduardo Nafarrete. |
| 1.847. | Martin Uriarte. | 1.882. | Jose Jabier Ituarte. |
| 1.848. | Jose Pablo Zabala. | 1.883. | „ |
| 1.849. | „ | 1.884. | Pedro Jose Zelaia. |
| 1.850. | Pedro Prudencio Ibañez Aldekoa. | 1.885. | Martin Mendezona. |
| 1.851. | „ | 1.886. | Jose Ant. Garramiola. |
| 1.852. | „ | 1.887. | Candido Arriola. |
| 1.853. | „ | 1.888. | „ |
| 1.854. | Jose Pablo Zabala. | 1.889. | „ |
| | | 1.890. | Eduardo Nafarrete. |

- 1.891. ”
1.892. ”
1.893. Severo Markuerkiaga.
1.894. ”
1.895. ”
1.896. ”
1.897. ”
1.898. Candido Arriola.–
 (Aldiz-aldiko)
1.899. Jose Antonio Urkizu Unanue.
1.900. ”
1.901. ”
1.902. ”
1.903. ”
1.904. Segundo Ibaibarriaga Zelaia.
1.905. ”
1.906. ”
1.907. ”
1.908. ”
1.909. Fernando Iturribetia.
1.910. Juan Uranga.– Felix Lekuona.

PELOTA TOKIA

Ondarroa, euskal erri lez, gaitz biziko zan erriko pelota toki barik.

Jakiña, eleiz ormetan egongo zan tarteren bat.

Baiña erri itxurarik ez pelota toki barik.

Ba dirudi egon zala edo egon zirala nun jokatu tokiak, bateko edo besteko ormaetan, eta gure errian, geien bat, eleizpean.

1.782 urtean, udal batzar baten au esaten zan.

Erri jokoetarako plaza bat egitea bearrezko zala, origaitik auzo errien barregarri giñalako, eta orretan ez lotsatzeko, plaza bearrezkoa zala ikusita, burututa egoan lez orma andia egitea, lendik pentsatu eta zeaztuta dagon lez.

“ en consiguiante habiéndose tratado de que era preciso y aun necesario hacer al menos una plaza para las diversiones públicas, pues que lo contrario era una irrisión y que la gente de los pueblos cincunvecinos hacían burla y mofa de ello, y para evitar esto, y viendo ser cosa necesaria, acordaron se execute el Paredon segun y como anteriormente se ideò para la erección de dicha plaza y se halla enmarcado...”

(Lib. 18 de Decretos. Abustuak 18.)

1.783 urtean eztabaidak egon ziran plaza egiten iñarduanagaz eta ba dirudi egille berbera gertu egoala egindakoa ordaindu eta bere zeregiña bertan bera lagatera. Eta ala erabagi 1.783 urteko Abustuaren 12'ko batzarrean “ekintzaren sendotasunaren mesedean”.

1.786 urtean Udalak Juan Bta. Arriola plazaren egilleari eskatu eutsan Uztaillerako amaitzeko lurrez betetzea eta Martin Pagate'k amaitu egiala plaza orretan pelota tokirako zeaztuta egozan errenkadak egitea.

Agirian esaten danez, Udala beartu egin zan plaza au egitera, Gotzaiñak beregana erritik eldu ziran asarre bateuen ondorenez, Begiralea bialdu eta gale-

raso ebelako dantzak eta jokoak eleizpean ospatzea. Origaitik erriak lurra erosi ta plaza egitea erabagi eban orrelako jolas eta jokoetarako, Eleizpeko zarata eta nasteeekin sortzen ziran asarreak ixiltzeko. Eta Udalak azunbre bakoitzean ezar- ten zan sisako zortzigarrego bat onetan eragilten eban.

(...que Martin de Pagate concluia las hileras que tiene executadas del juego de pelota que se inserta en dicha plaza con quasi ninguna costa. Y en atención al estado ia de ella, que dió principio con el loable fin de evitar las danzas y diversiones públicas que se hacian en el pórtico de la Iglesia Parrochial delante del Santísimo Sacramento con mucha irreberencia por cuió motibo algunas personas celosas de la honra de Dios dieron quexa al Sr. Provisor y este prohibió por medio el Visitador el que se pudiesen hacer semejantes danzas y diversiones públicas en dicho paraxe y como no había otro, deseosa la Villa de evitar por todos los medios posibles semexantes imcombenientes, tomó la determinación de comprar terrenos y erixir Plaza..... y acordaron que con el mismo método que hasta aquí se vaia concluyendo, para ello señalaron un ochabo del en que se remate la sisa en cada azumbre.)

(Lib. 18 de Decretos. Bagilla'k 5.)

Itxuraz pelota toki ori urte batzutan beko arlosa barik egon zan eta ala jokatu.

1.787 urteko erabagi baten au irakurten da: “*era berean Udalak erabagi eban pelota jokorako tokiari arlosak ipintez ogeita amar oiñetan.*”

Beraz XVIII garren gizaldiaren azkenetara Ondarroan pelota toki itxuratsu bat egongo zan, aldi aretako oituretan.

Baiña plazan ez zan bakarrik pelotan jokatzen.

Errian artzen zan garia be, beintzat kaletarrak artzen ebena, plaza onetan jotzen zan.

Ala irakurten da 1.827 urteko Uztaila'ren 11'ko Udal batzarreko agirian.

Erritar batzuk baimena eskatu ebela plazan garia joteko eta oraiñarte egin eben lez baimena emon zan. Bai baldintzak ipini be. Anega bakoitzeko zortzi marau ordaindu bear, eta dirutza ori ez zala beste ezetan eralgiko plaza ondo zaintzen baiño. Eta gari jole edo euren burdiak arlosetan kalterik egiten ba eben, esandako zortzi marauen gain beste zortzi erreal ordaindu bear ko ebezala konponketarako.

Erriko paperak irakurtean tartetan billatzen dira pelota jokoak sortzen eben zaletasunaren ezaugarriak. Batez be zemai (desafio)ko jokoak ziranetan. One-lakoetan eleizako jarrilekuak eroaten ziran plazara. Udal kontu liburuetan one-lako ordainketak aurkitzen dira:

1.838.— Dos reales y 20 maravedís a tres hombres que se emplearon en llevar y volver los bancos de la Iglesia a la plaza en partido de desafío que hubo.

Pelota toki a 1.866 urtean beratu zan.

“Demolición del frontis y pared vieja de la plaza o juego de pelota”, esaten da.

Eta urte berbertan asi ziran barria egiten.
Egiteko ardura artu eban argiña Domingo Alegría zan. Ez ekian firmaten.

10.520 peseta kostatu zan jasotea, zati bitan ordainduta:

5.000 pta Maiatzaren 21' ean.

5.000 pta Bagilla'ren 30' ean eta egun berean geigarria, 520 pta.

Pelota toki luzea zan.

Aurreko orma gaurko pelota tokiak ezker orma daukan tokian eukan, gaur Udaletxea dagon toki inguruan, korretako egalean.

Eta ezker orma, luzea, gaurko plaza azpiko dendak dagozan gaiñean.

Bere zimendu eta oiñarriak, zati batenak, antxiñako ormaetan. Beste zati bat ondar gaiñean.

Egitura onek eukiko eban bere eragiña geroko urteetan.

Gure zarren esanetan, ondarrutar zeztuzko pelotari izan ziranak bertan ikasi ta jokatzzen eben.

Amabi kuadro eukazan.

Baiña ondarrutarrik geienak eskuzko jokalariaik ziran. Eurak euken trebetasuna igarten da urte batzuetako jaietan.

Ala 1.898 urteko Andra Mari eguneko jaien kontuetan 55 peseten ordainketa billatzen da kontu liburuetan, egun orretako pelota partidua jokatu ebenen ordaintzat.

Simon Txakartegi 10 pta.

Genaro Urresti 10 pta.

Pedro Ituarte 10 pta.

Pasai'ko arrantzalea 20 pta.

Pelotak 5 pta.

Ala diñoie urte aretako kontuak.

1.904 urteko Urrillean bertara joaten ziranak konturatu ziran ezkerreko orma zartiatzen eioala.

Eukazan neurriak ez etozan ondo zimenduekaž.

Eleiz "korreta"ko orman eukan kantoia eteten asi zan.

Beko ertzak asi jakozan uts egiten eta orrek tartetan arrailkadurak atara.

Oker unea gero ta andiago joiala igarten asi ziran orma biak alkartzzen ziran tokian, laugarren kuadroarte, gero amabigarrenerarte gitxiagotzen joanaz.

Itxuraz olatuak batzutan eta mare andietako urak pelota toki azpiraiño elduten ziran eta azpiko ondarra erabili.

Gaurko bizilagunak kontuan euki bear dabe, oraindik gaur Kanttoipe lez ezagutzen diran etxadi eta abar, ondartzak edo ibai-egalak zirala. Geroago egin zala itxas-alde eta adar orren ormaz inguratu eta betetzea. Beraz pelota tokiak "oiñak aidean" eukazan.

Gauzak orrela ikusita, pelota tokiaren barruak eta saietzak arrakalatzen asteen, jendea bildurtu zan. Agintariak zer esanik ez.

Zelaia injiñeruak bere irizpidean esan eban orrez gain ba egozala egitura-ren alkartetzako akatsak be.

Aldi aretan Zelaia inkiñerua, “don Bitoriano”, sartu barri zan errian udaleko lanetarako gaitu edo tekniku lez. Don Pedro Gimón agertzen zan arkitektu lanetan. Eta beste inkiñeru bat, Alfredo Acebal, tartetan.

Baiña or ebillan oraindik azpi jokoan urte bete aurrerarteko inkiñeru izan zan Pepe Soriano. Gizon ospetsua, baiña errira nekez etorten zalako udalekoak kendu ebena eta Zelaia’ri bidea emon.

Politika giroa be bero-bero eta bizi-bizi ebillan errian. Urte areitan “bizkaitarrak” egozan agintzen Udalean.

Pelota tokiaren goraberan lenengo irurak eritzi bardin antzeko izan ziran. Baiña laugarrena ez. Eta ba eukan bere kide sutsu bat udal gizonen artean: Garramiola.

Orrela karlistak eta abertzaleak kalean baiño beroago ibiltzen ziran Udaletxean. Edozer gai alkar zirikatzeke aitzaki.

1.905’ko Dagonillaren 13’an, Andra Mari eguna baiño egun bi lenago, batzarrean batu ziran erriko arduradunak. Eta orduko agiriak, erderaz, guk euskeraz jakin arazten dogun au ipinten dau: Ondoren Alfredo Acebal arkitektuaren iritzia irakurten da, pelota tokiaren egoerari buruz. Onen eritzia len don Pedro Gimón eta Bitoriano Zelaia’k agertu eben eritziagaz batera etorrelako, egunik galdu barik pelota tokiko ormak oso-osorik beratzesa erabagi zan, etorri edo sortu leikezan ondorenen ardura eta kezka kentzeko.

Orduan Segundo Ibaibarriaga zan alkate eta Bonifazio Larrañaga, Jose Aretxaga, Pedro Usandizaga, Paskasio Arrizabalaga eta Jose Antonio Agirre ziran ziñegotzi edo kontzejalak.

Geroago asmatu zan pelota tokia gaurko erara, gaur dagon tokian jasotea.

Gaur ezkerreko orma dagon tokian, lau kuadrotik aurreko orma bitartean kartzela eta antzerako tokiak egozan, Oraingo orma egitean, areik estalduta geratu ziran.

Arririk geienak lengo pelota tokikoak erabili ziran.

Lengoaren orma zarra beratzeko, banan-banan atara ta erabilteko agindua emon eta zeregin ori artu ebanak ortarako berba emonarren, ba dirudi goitik bera al ziran eran jaurtiten ebazala.

Beintzat 1.906’ko Urtarrillean egindako batzar baten onelako salaketa agertzen dau Garramiola jaunak: “Nire asarrea agertzen dot lana agindu lez egin ez dalako. Erremata artu ebana beartuta egoan arriak banaka atara eta bera eoateko, ortarako gailluen baten bidez, eta ez goitik bera jaurtita, arlandu asko askatu eta beko arri-zabalak apurtzen.”

Esan bear dogu Garramiola au pelota tokiaren beratzearen aurka jardun


zala, bere esanetan, inkiñeru zan Zelaia'k ba eukazalako inguruetan berari ikutu egiten eutsen lur zatiak, bere amarenak ziralako, eta arei ikuspegi zabalago bat emoteko aukera egon eikela-ta bitartean.

Dana dala lengoa beratzea erabagi ta bereala bete zan zeregin ori, ez-bear andiren bat gertatuko zan bildurra egoalako. Ontaz teknikoak esan eben plaza berbera itxiarren beko bidean beti gertatu eikeala ibiltarien bat eta gaitz izango zala zoritxarrik ez gertatzea.

Beraz pelota tokia, lengoaren arlanduak batu eta gaur dagon tokian egin zan, lengoa baiño zerbait laburrago, luzera gitxiagoko.

Onak be ez eukan itxiturarrik. Jaietarako zela-ala ikusleak ordaintzera beartzeko aiña sarratzen zan.

1.908 urtean zabaldu zan.



Zaldupeko astilleru zarra eta garbitokia.

SAGARDAUA ETA TXAKOLIÑA ETA BESTE EDARIAK

Noiztik ezagutzen ete zan sagarra Ondarroan?

Zeatzago edo ta egokiago izango litzake, bear ba da, noiztik ezagutzen ete zan Euskalerrian jakin nai izatea.

1.014 urteko agiri bat ba dago beintzat, ordurako sagarra ezagutzen gendula, edo obeto esanda, ba gendula adierazten dauana.

Naparroa'ko Santxo Andiak, Leire'ko Monastegiari egindako eskintza baten au irakurten da: "Itxas ertzean, Hernani deiturako lurraldean, monastegi bat eskintzen dautsuet bere lur, sagasti, arrain eta abarrekaz".

1.025 urtean don Garzia Aznarez eta doña Gaila bere emazteak Olazabal'go monastegia opaldu eutsen San Juan de la Peña lez ezagutzen danari. Olazabal ori Gipuzkoa'ko Alzo'n egoana zan.

Eta Gaila andre berberak eskeiñi eutsan Ezkioga'n eukan beste sagasti bat, Iñigo Garzezén arimaren aldeko eleizkizunen orde.

Eta La Peña'ko monastegi berberari eskeiñi eutsezan 1.050 urtean Bergara'n Arizeta deiturako eleizak eukazan lurralde eta sagastiak.

Urte batzuk geroago, eta gure inguruago, Bizkai'ko Lope kondeak san Millan de la Cogolla'ri, Astigarribiko monastegia opaldu eutsan eta emen be "bere eleiza, larreak, sagastiak eta arrantzako portuak" esaten da.

Gogoratzeko da don Lope'ri egin eutsen kantatxoa:

Conde don Lope el Vizcaino,
rico de manzanas,
pobre de pan y vino.

Orreik orrela, orain egin geinke asierako itauna: Noiztik ezagutzen ete zan sagarra Ondarroa'n?

Edozetara be, agiriak agiri, gure uri sortzailleak ez dau zeaztuten bere eskintzetan sagastirik. Maastiak bai aitutzen dira, baiña sagastirik ez.

Ondarroa uri sortzaille lez agertu zan Marina D. Haro Andre andiak, uri iraspen (fundasiño) agirian, ez dau sagarrik aitaututen, eta bai maastiak.

“...e dó a los pobladores de Ondarroa dentro de estos términos sobre escriptos tierras e viñas...”

Agiri berbertan, lentuago, au esaten dau: “...e si estos pobladores fallaran a ningun ome en su uerta e en su viña que faga daño, peche cinco sueldos para el dueño...”

Baita beste au: “...e por do que fallaren agoa para regar piezas, o viñas, o molinos, o huertas e que les tomen”.

Nun dagoz sagastiak?

Edo ta “tierras” barne sartzen ete ziran sagastiak?

Dana dala, or dagoz usteak eta sisnisteak eta esaerak.

Larramendi jakintsuaren esanetan, erderazko manzano itza be sagar ardaudatik dator. Au da, mats-arno, matsanoa. Baiña orreri ez dautse siniste askorik emoten izkuntzalariak.

Sagardaua gertutzailleetan, Normandie uste da gorenentzat. XIIIgarren gizaldian billatzen dabez orretazko paperak. Baiña euskaldunok ba doguz zarragoak.

Rozter, frantzetarrak diñonez, Frantziko sagar-ondoak Bizkai'tik eroanak dira. Emen Bizkaia ori Euskalerritzat artu bear da, aldi baten euskaldun guztioi bizkaitar deitzen euskuelako. Eta aren esanetan leikena da Normandiako sagarraren urratsik XIIIgarren gizaldia baiño aurrerago ez billatzea.

Beste batzuen eritziz, ala Herman-Lachapele batenak lez, sagar motarik onenak itxastarrak eroan zituen Bizkai'tik. Eta sagardaua ez zan zabaldu Normandian XIVgarren gizaldirarte, eta gero Normandiatik eroan eben Ingalterra, Alemani eta Ameriketara.

Beste au be jakiña da: Gure Arrantzale zarrak, Terranoba'ra joaten ziranean, ainbat sagardau upel eroaten zituela euren txalopetan, euren edaritzat eta baita angoei legotrean eragiten eutsezan lanak sagardautan ordaintzako be. Ori ei zan angoentzat alogerik onena.

Eta jakiña da ondarrutarrak ba ekiela alde areitara joaten.

Baiña egià au da: Sagardauari buruz ez dala barri askorik billatzen Ondarroako liburuetan. Bear ba da erriak bere edari jatortzat artuta eukan, noiz nai erabilli eta lortzen eban edaritzat, eta erri barruko ondorentzat ikusiko eban.

Ukatu eziña da erriak arduratzen zirala sagardaua egiten zanean bere garbitasuna edo ta osotasuna zaintzen. Zigortu egiten ziran sagardauari ura sartzen

eutseneak. Zigortu egiten ziran, baita be, Foruan ala agintzen zalako, zugaitzak eta maastiak iñaustea.

Zigor gogorra euken, batez be matsondo, sagarrondo, gaztaiñondo eta in-txaurrondoei kalte egiten eutsenak, bai eta jateko frutua emoten eben beste zugatzenak be.

(Bizkaiko Forua, 15 garren legea, 34 atala)

Zenbat txakolin artzen zan gure Ondarroan?

Ez dakigu. Dakiguna au da: Erriak urterako bear ebana errian gorde eta lagaten alegintzen zala.

Beste gauza bat: Txakoliñaren mesedean kanpoko ardauei galerazo egiten eutsen sarrera, ala komeni zanetan, txakoliñari kalterik egin barik urteera emotearren.

Orrelako erabagi bat 1.659 urteko Urriaren 12'an aurkitzen dogu. Txakoliñaren uzta zaindu al izateko.... *"que desde aora no se haga operaciòn de vino ni por mar ni por tierra, a menos que la villa de licencia para ello."*

(Udaleko Artxiboa. "Libro I de Decretos")

Txakoliñaren zeazketan ikerketak irakurten dira urte batzutan, batez be zenbat egoan jakin nairik.

1.703 urtean irakurten da: Txakoliña be amaitu dala eta arda klareta ekar-teko.

Orrela 1.700 urtean 1.686 azunbre egozala esaten da.

1.710 „ 2.050

1.711 „ 2.595

1.712 „ 3.820

1.713 „ 4.311

Ardau klaretea saltzeko askatasuna emoteko, txakolindunak zin egin bear izaten eben euren artutakoa amaituta eukela.

1.749 Azilla' ren 2'an gure Udalak erabagi oneik artu zitun:

Txakoliñarentzat salneurriak eta sisak ipintea era onetan:

Udaleko uzta 70 barrikatik goratzen ez ba zan txakoliñaren azunbrea 20 laukotan salduko zan eta sisa barik.

Uzta 70 barrikatik gora, baiña 260 barrikara eltzen ez ba zan, azunbrea 20 laukotan salduko zan eta azunbreko lauko bat sisatzat.

Uzta 260 barrikatik gora ba zan, saltzaille eta erosleak itundutako, prezio-an salduko zan eta azunbreko lauko bat eukiko eban sisa lez.

Orrez gain, kanpotik ekarrirako txakoliñak, salduta egoanak, 12 marau eukiko zitun sisatzat azunbreko eta bodegetan oraindik saldu barik egoanak 32 marau ordaindu bearko zitun sisatzat.

Ardau batzailleei, sisa ipini al izateko, zenbat euken ziña eskatu, orrela zeresanak eta lapurretak galerazi al izateko.

Andik zazpi urtera, beste salneurri oneik erabagi ziran:

Uzta 150 barrikatik igaroten ez ba zan, azunbrea 24 laukotan saltzea eta sisa barik.

Uzta 150 tik gorakoa izan, baiña 200era eldu barik, 24 laukotan azunbrea saldu eta azunbreko lauko bat sisatzat

Uzta 200 barrikatik gorakoa ba zan, 20 laukotan azunbrea saltzea, eta beste lauko bat azunbreko sisatzat.

1.785 urtean beste erabagi oneik artu ziran : “ *que no se traiga en tiempo alguno Chacolí de Mixoa, (Mixoa, Mutrikuko auzoa da) en poca ni mucha cantidad, pena de que cualquiera que coxiere al introducir, lo tenga para sí, pues se da por perdido para el Dueño, y lo mismo si coxiere después de introducidos.*

Que durante se está de venta el Chacolí se venda Clarete solamente a aquellas personas que tengan certificado del médico Cirujano, de serles perjudicial el uso del chacolí, y que la vendedora sea ponerla a la satisfacción de la justicia y Regimiento. Que también deberán procurar de no dar para persona que no tenga dicho certificado, que sea permitido a los del Regimiento el dar Pellejos de Clarete en tiempos de Misa de los Sres Eclesiásticos y a los que tengan que dar Convite a las Compañías de las chalupas por aquellos muchachos que lleguen a obtener soldada entera y no a otro alguno, teniendo como deberán tener los Sres Regidores bajo su llabe quanto vino foráneo se vaya introduciendo, dando a los vendedores su pellejo para los enfermos segun baia consumiéndose.

Que no pueda haber menos de dos tabernas de chacolí y siempre que no obiese más de una haga poner la otra, sea echando suertes o como mejor le pareciese. Que en los lances de haber queja de ser malo el chacolí que está de venta, se reconozca por la justicia si es de tan baja calidad como que no deba venderse en precio corriente, se observe ínterin se venda lo demás, tomando los de la Xª razón de estado en que dejan las tales barricas y que después de la buena calidad se vendan al precio que pusiera la Xª.”

(Udal Artxiboa. Libro Decretos 1.781-1.789. 13-VIII-1785)

Geroago urte berean, au irakurten da Abenduaren 4^{ko} Udal Batarrean:

“...Que el vino foráneo que se introdujera en esta villa en tiempo de sierra vaia directamente a la Alhóndiga de ella, que se guarde en custodia y tengan la llave los Regidores. Que ningún particular pueda llevar pellejo alguno a su casa so pena de perderlo y a más de dos ducados de multa. Que cualquiera particular que necesitare vino pida permiso al Alcalde y a dichos Regidores y con su licencia lo lleben desde la Alhóndiga, sin que tenga facultad alguna de llevarlo sin este Requisito. Que dicho vino que así se repartiere ha de ser tan solamente para el consumo de cada una de las casas y su familia, pero no para operario que trabaja en las labores de campo, ni oficiales que toman obras por su cuenta, quienes no podrán dar bajo la misma pena y multa vino clarete

alguno, ni otro foráneo a sus jornaleros u oficiales, sino tan solamente el chacolí de la propia cosecha.

(Libro de Decretos 1.781-1.789. 4-VIII-1.785)

Eleizako liburuetan be ba dagoz, txakoliñari buruzko jakingarri batzuk.

1.818 urtean Bizkai'ko Aldundiak itaun (galdera) batzuk egin eutsezan parrokiei, jakin nairik Parrokiak zelako sarrerak eukazan. Ogei itaun ziran eta Parrokiak erantzun ebazanen artean, txakoliñari buruzkoan au esaten zan: Abadeena eta beste zati batzuk kenduta, eleiz berberari jagokozan amarrenan irugarren zatiari buruz, txakolin kontuan, au zala autortu bearrekoa:

Urtea	Radak	Azunbreak	Kuartilloak
1.813	16	-	-
1.814	5	4	1
1.815	4	3	1
1.816	0	0	0
1.817	6	0	3

Ikusten danez txakolin utsuneko urteak egon ziran.

Neurriei buruz, batez be “rada’ri buruz azalpen eu egiten da: “Se previene que la rada de chacolí se compone de diez azumbres de diez y siete onzas el quartillo, que el precio corriente de cada rada es veinte reales y se advierte para mayor claridad que el azumbre de chacolí se compone de cinco quartillos de diez y siete onzas”.

(Parrokiko Artxiboa)

Geroago, gure gizaldirako txakoliña galtzen igarten dogu gure inguruan. Eta sagardauaren goramen bat igarri gendun gu txiki giñala, eta Bilbo eta inguruetan Ondarroako sagardauak entzute ona euki eban toki guztietan erakusten ebelako “Sidra de Ondarroa” kartela. Onetan esanbearra dogu, sagardau guztia ez zala gurea, gure inguruak be ba eukala ze ikusi orretan, baiña sagardaua itxasoz bialtzen zan eta Ondarroako balandretan eta ortik gure erriaren izena agertzea.

Ondarroari eta inguruari mugatuta esan geinkena au da. Ogei ta zortzi sagardau egiteko tolare ba egozala gure erri ta inguruan. Tolare jaube lez agertzen ziranen izenak oneik ziran:

Agirre, Antonio.	Juaristi, Antonio
Alkorta, Rafael.	Juaristi, Jose.
Aranbarri, Antonio.	Larrañaga, Feliciano.
Azpiazu, Gregorio.	Lizarzaburu, Migel
Beristain, Manuel.	Markuerkiaga, Severo.
Txurruka, Raimundo	Rementeria, Juan.
Eizagirre, Jose D.	Sainz, Paulino.
Gabilondo, Juan de Dios	Uriarte, Domingo
Gorostidi, Domingo.	Uriate, M ^a Ignacia.

Guenaga, Jose Tomas.
Guenaga, Silverio.
Ibaibarriaga, Domingo.
Ituarte, Domingo.

Urkizu, Doroteo.
Urresti, Antonio.
Urresti, Hilario.
Urresti, Iñazio.
Urresti, Juan.

Ainbat baserrik be tolarak eukezan. Euren artean, Alliri barri, Alliri Zar, Anakabe, Andiketxe, Antxikoa, Antzone, Arriaga, Asterrikakua, Basterretxe, Beaskoa, Eguren, Goitiz, Iburguen, Ikaitabarri, Iramategi, Kitarranekua, Konde Etxebarri, Patrokua, Ubilla, Urkixa Goiko, Zelaikua, Zezermendi.

Gure ingurua aberatsa izan zan motetan. Eta gure erri eta inguruko sagastietan batzen ziran sagar motak izen oneik eukezan:

Adan-sagarra, Adar-mendela, Akabazi, Aixardi sagarra, Alemanixe, Allaluzi, Andoañe, Asoilokoa, Balantzategi, Ballestei, Baraiku, Bereza, Billafranka, Bost kantoi, Burgo, Diburtzio sagarra, Dornegixe, Dultzea, Errege sagarra, Errero sagarra, Garau andixe, Garratza, Gaza, Gorri garratza, Gorri txikia, Ibare sagarra, Ipurdi zabala, Ipurditxu, Lastur, Libra, Lomaixi, Madari sagarra, Moko baltza, Panpandoka, Sagar mingotza, Sagar zuria, San Frantzisko, San Juan sagarra, San Pedro, Tirtirrixte, Txakala, Txernebille, Txabillu, Txistu sagarra, Txori sagarra, Urdiña, Urte betea, Urte bixa.

Sagardautegiak be ugari egon ziran errian, bape bagako kalerik ezagutzen ez zala.

Ainbeste sagar eta sagardautegi, gure zarrak euken beartasun eta estutasunetan ba ekien itxasotik etxeratuta gure aterpeak nun eukezan. Lagun artea, atsedena eta itxasoko barriak alkarri kontatzea eurretan egiten eben.

Tartetan onelako pregoiak be entzuten ziran errian:

Gaur, esan bearrrik ez nun,
sagardau superiorra egongo da,
txori andiaz iru baso
edo akaso
lau baso.

Eta noz nai, baiña batez be sardiña denboretan, sagardautegiak betien bete, sardiña errien koipe eta usaiñetan; gure edari maitagarriari urtien urtetako goralbenak egiten eta barriztuten.

Amaitzeko eta Txomin Agirre ospetsua gogoratuaz, ara berak zelán azaltzen dauzan sagardautegiak:

“Erri onetako kale estu, oker da aldatsuetan itxas gizonen gozategi edo ardangelak non dagozan berialaxe igarri leike, ostro berderik ikusi ez arren: naikoa da zaratarik andiena non dagoan entzuten geratutzea.

Alderdi guztietako sagardantegi ta ardantegiak, danak izaten dira bardin zamarrak, itxas errietan beintzat. Sagardantegia bada, kale-artan bertan edo arri malla bat igonda idoroten dan kortea edo tresna zarrak gordetzeko gelatxu bat,

beian lurra, goian amarauna ta egur biren gañean upel batzuk erreskadan dituela; sagardaoa ona izan dedilla ta non jarririk egon ez arren ezta izaten ardurarik. Ardantegia bada, mai luze-luze bat, maia beste luze diran aulki bi alboetan, zaragi bat edo bi bazter baten da lurrezko pitxar mordo ta leiarrezko edanontzi batzuk ormearen kontra josita dagoan arase zar batean. Ezta geiago bear izaten.

Olango etxe zuloetan sartuta egoten dira arrantzaleak nekaldi gogor asko igaro ta gero, ukalondoak zamau bageko mai koipetsuaren gañean dituela, tabako bedar garratz merkiena erreaz, ketan da deadarrez beti.


Beste edariei buruz ziur esan leike Ondarroan ez zala baimendu aguardiente deiturako pattarrik XVIII gizladiaren azkenak arte.

1.785 urteko Abenduaren 4-ko Udal batzarrean, erriaren aldeko ziñegotzi zan Jose Egurrola'k agertu eban erri guztia eskatzen ebillala eta berari ala adieraso eutsela, komeni zala errian pattarra salgai ipintea, ortarako premiña egoalako, batez be kontuan eukita arrantzaleak geientan goizaldetan itxasoratzen zirala neguko giro gordiñetan eta "espíritu bizigarri" onen premiña egoala, batez be itxastarrentzat. Eta besterik ezean urte beterako baimentzeko, kalterik ezagutu ezkerro barriro galerazotekotan.

(..... "don Jose Egurrola, diputado del común puso presente que todo el común estaba clamando y le habían dicho que se pusiera aguardiente en esta villa, mediante la necesidad que había en ella "de ese espíritu" para fomento de los pobres mareantes, que las más veces, antes de amanecer tenían que hir a su pesca en los rigores del invierno y en vista de ello, sin embargo de que no hay exemplar de haver havido en esta villa aguardiente de venta en público, antes bien prohibición absoluta de ello, no obstante esto por complacer con el común y sin perjuicio de que si se experimentasen desòrdenes en ello o que de ir decaíéndose las Casas y familias por este cicio se reformará y quitará en el año inmediato, acordaron se saque a remate solamente para un año.

(Libro (?) de Decretos de 1.781 a 1.789)

Eta urte batzuk geroago 1.809 urtean (Aginduetako 5 liburuan) irakurten da errirako ekarten dan pattarra, aal dala, frantzetarra izan daitela.



Ospitale zarra.

OSPITALAK

Noiztik ete datoz ospitalak Ondarroan?

Ospitalak, au da, bat baiño geiago, antxiña erri askotan egoten ziran lez.

Bat Goiko kalean beti ezagutu izan dana.

Arta inguruan, itxas gaiñean egon zan bestea, erritik urrun.

Bata erriko beartsu edo nok lagundu ezeukenentzat.

Bestea izurrite eta gaxoaldi larrietarako.

Udaletxeko liburuen artean zarrenekoan, 1.541 urteko liburuzka baten, erriko etxe, solo eta lekuen zerrenda egitean esaten da : Zerrenda a lengo zar baten batuketa dala, zar-zarrez galdu edo ezereztu zalako.

Ango lerroetan onelakoak irakurri leikez:

In° M. Aulikiz'en oiñordekoen etxea eta ospital aurrean euken lur zatia.

Bai eta Maria Ortiz Iraola'ren etxeak eta ospital alboan daukan lur zatia.

Bai eta Myn Galarza bizi dan etxeak eta ospitala jotan daukan ortua.

Geiago, G. Arrangiz alferezaren etxeak izan eta ospitalari emon eutsazanak.

Bai eta onen emazte izan zan Marina Aiardia'ren soloa, onek ospitalari emona. Solo ori Peru Arezmendia'ren etxe alboan egoana zan.

Bai eta Alferezaren etxea jotan dagon ospitalaren orubea.

Bai eta Maria Agüero'k Katalin Barinaga ospitaleko zaindariagaz daukan etxe zatia, Katalin'ek berea ospitalarentzat itxi ebalako.

Bai eta In. Ortiz Apallua'k ospital inguruan daukan ortua.

Bardin F. Ibarra'ren oiñordekuak ospital aurrean dauken lurra.

Beraz 1.541 urteko kontuetan eta erroltzetan ospitala etxe eta lurraldeen inguru ezaugarritzat ipinteak, ospitalaren ezaguera zabala adierazten dau, eta urte orretan agertzen diran ospitalari eskeinitako etxe eta lurrak, argi erakusten

dabe ospitala urte orren aurretik ba egoala eta ba eukala erritarren artean eragiña.

Geroago 1.612 urtean, nai eta dirutza nekez banandu, Domingo Garro, Lima'ko Errege-ordearen kontulari izan zanaren azken naia dator ospitalagaz gogoratzen. Onek beste laguntza askoren artean, 22.000 dukat itxi zitun ospitalarentzat eta konbentu bat Ondarroan sortzeko.

Garro'ren dirua 72 zatitan banatu zan eta Udaleko Kontuetako lenengo liburuan au esaten da:

"Item 3.086 reales dados a P^o de Aranzibia mayordomo del Ospital de san Roque(?) de esta villa el 8 de Enero de 1.642".

1.648 urtean, oituraz Urte barri egunean erriko kontuak agertu eta agintari barriak aukeratzeko egiten zan batzarreko agirian au diño:

"En la sala del Hospital del Señor san Juan.... congregados al son de campana segun lo an de husso y costumbre y para tratar y conferir las cosas tocantes al Servicio de Dios Nuestro Señor y bien de la utilidad de la villa"

Urte orretan, liburuetan agertzen diran erri eta parroko Kofradien zerrendan, oneik agertzen ziran:

Eleiz fabrika,
Ospitalekoa,
Santa Klara,
Bakartadeko Ama,
Mendiko Santa Kutz,
Gorozikako san Joan,
Arimena,
Santa Ana,
"Santisimo".

1.694'ko zerrendan Errosarioko kofradia geitzen da.

1.686 urtean, Parrokiko Ildakoen zerrendan, Marta Etxano ospitaleko serora zanaren eriotza agertzen da.

Ondarroako ospitala, itxura baten, kanpotar eskale askoren "gau-pasarako" toki egokia zan. Bai eta azken arnasa bertan emoteko be.

Orrelako eskaleei "*pobre ostiatim*" deitzen dautse, au da, atez ateko eska-leak.

Ala 1.711 urtean Martin Frances 60 urteduna il zan bertan. "*Pobre ostiatim*".

Urte berean, au da, 1.711'n, Angela Salsamendi, legazpiarra, 40 urteduna.

1.712 urtean Joachin Telleria, 40 urteduna.

1.712 urtean Maria Arritola, 70 urteduna.

1.712 urtean, Pedro Narea, aulestiarra, 68 urteduna.

Esandako guztiak "*pobre ostiatim*".

Eta Santiago'rako erromesak be ba ekien euren bidean ospital au billatzen.

Ala 1.713 urtean Santiago'ra oster a egin ondoren etorran frantzetar bat, Bartholome Ferrette, 40 urteduna il zan bertan.

Itxuraz eskaleen bertaratze ori nabarmendu egin zan eta 1.754 urtean, alka-teak galerazo egin eban erbesteko eskaleak ospitalera joatea.

Maastietan kalte asko egiten eben salaketa egoan eta bizimodu txarreko andrekin ibiltzen zirala.

Ba dirudi ordurarte ospitalean zaintzen zirala gaixo batzuk eta geroztik zeregin ori galdu ebal a eta giza-laguntzaz beste era baten geiago arduratu.

1.751 urtean Andra Mari parrokian illobi barriak egin ziran eta illobien banaketan Ospitalari 68 garren illobia izentatu eutsen epistola aldean.

1.788 urtean San Juan ospitaleko patroetzari buruzko eztabaida egon zan. Eleiz-gizonak eta udaleko gizonak eztabaidan. Alkateak, alkate izateagaitik udalekoei egokiela patroitza ori, abadeen ze ikusi barik edo ta udaleko gizonei zeaztasunez ikututen ete eutsen jakin nai izan eban. Eta alkatearen konfiantzako ziran jakintsuei aolkua eskatze erabagi zan.

Eta XIX garren gizaldira sartuta Udaleko liburuetan, tarteka, atara leikez jakingarri batzuk:

1.877.- Tomasa Ansola zan ospitaleko zaindaria.

45 peseta eukazan iru illabeteko, au da, egunean erreal bi, "*por el cuidado de los pobres del hospital*".

Eta beste 37,50 iru illabeteko, kaleak garbitzearren.

1.880.- Tomasa berberak 68,50 eukazan iru illabeteko, ospitaleko ardura-gaitik.

1.884.- Tomasa berberak urteko 276 pesetako alogera eukan.

Urte onetan ospitalean anditze lanak egin ziran.

1.892 urtean, Tomasa Ansola'k 328 peseta eukazan urteko.

1.898 urtean Rafacla Anakabe zan zeregin ori egiten ebana eta urteko 390 peseta zan bere alogera.

1.881 urtean Jose Beristain arakiñak 182 libra okela eroan zitun bigarren iru-llabetekoan, au da, Apiril Maiatz eta Bagillean. Guztira 85,58 peseta balio eben.

Urte berean eta denboraldi bardiñean, Salome Zelaia okiñak 363 libra ogi eroan zitun. Balioa, guztira, 64,25 peseta.

Domingo Garro'ren diru banaketa egin zanean, "Ospital de san Roque" esaten dana, itxuraz idazkerako utsen bat izango zan, gure ospital jatorra beti be san Juan izeneko a zalako.

Auzi zaratatsu bat

1.829 urtean, Pedro Etxaburu eta bere emazte Maria Isabel Iramategi'ren oiñordekoei auzitegi bidez eskatu eutsezan ospitalean eukezan zorrak ordaintzeko.

Auzi orretan euren oiñordeko zan Pedro Etxaburu'k autortu eban bera arrantzale gixajo bat zala, ez ekiala irakurten be, eta legeekiko ezaupiderik ez eukala.

Baiña lurralde askoren jaube zan.

Enkantera, subastara atara ziranak oneik ziran:

Antigua azpiko soloa. Area bat eta 162 estadu eukazan neurriz.

Antigua ganeko soloa. 197 1/2 estadu.

„ „ beste bat. Area bat eta 191 estadu.

Korteta soloa eta alboko bide azpikoa. Area bat eta 206 estadu.

Arriandieta azpi.

Arriandieta.

Mortisur.

Itsasagirre.

Trintxa alboan, santa Klara'ko bide azpian.

Santa Klara'ko txaraka.

Atxondope.

Artetako arria, Atxondope azpian.

Goikokaleko etxea.

Kamiñibar.

Amuingoa etxea, Goikokalean.

Enkantea parroikiko eleizpean egin zan.

Orrelakoetan oiturazko ziran argizariak biztu aurretik, bertara batu ziranei euskeraz azaldu eutsezan jakingarriak.

Bideetako bat, oiñezkoen bidea, Barrena deitzen zala esan zan. Eta beste bat, Letaña bidea.

Atxondope mendi utsa zan, lau gaztain-ondo bakarrik egozan bertan, iparraldean Goixizkoa baserriaren gaztañadiagaz mugatzen zan.

Artetako arria deiturakoa, Atxondope baiño berago egoan.

Bigarren ospitala

Bigarren ospitala Artape'n egoñ zana, izurrite eta kutsaduradun gaixo aldietan erabilten zan. Geienetan San Lazaro deitzen zan. Ondarrutarrentzat "lazaretua".

Ondarroa'n 1.855'ko kolera izurritea zabaldu zanean, asko izan ziran, famili osoak, erritik alde edo iges egin ebenak.

Eta gaixoaldia igaro zanean, etxeratu nai izan ebenean, erriak neurriak artu zitun danak batera barik, erritik deitu-ala etorri eitezan.

Erritik iges egin ebenen zerrenda au da:

1.- Antonio Uribe.

- 2.– Pedro Zelaia.
- 3.– Martin Arza bere familiagaz.
- 4.– Agustin Lekue´ren familia.
- 5.– Agustin Abaroa´ren alarguna, bere semeagaz.
- 6.– Jabier Ituarte eta bere arrebak.
- 7.– Franzisko V, Aranzamendi eta familia.
- 8.– Roman Ibaseta eta bere arreba.
- 9.– Maria Ramona Arakistain, Maspe´ren alaba, bere arrebeagaz.
- 10.– Antonio Garitano bere seme eta koñateagaz.
- 11.– Juan Bikandi, bere familiagaz.
- 12.– Ana Ursula Agirreoa.

Emen agertzen dan zenbakia, biurtzeko sorketan eurei gertatu jakena da.

Izurrite denborak benetan larriak izaten ziran Ondarroa lako erri txiki baten. Geienetan osagille bakarra egoten zan bertan eta ezin eldu gaixo guztiak zaintzera.

Izurrite edo gaixo kezkarrien sortze eta kutsadura jakiten zanean zaindariai ipinten ziran kanpotarrei nai erritarrei, kanpotik ba etozan, erri barruan sartzen ez lagateko.

Zaindariai Iturribarri aldeko atadian egoten ziran Markiña aldetik etozanentzat, Goiko kalearen goi aldeko sarreran Lekeitio aldetik etozanentzat, geroagoko bide barria egin arte, Astilleru ganean Gipuzkoa´tik etozanentzat eta ibaian gertuten zan txalopa baten itxasoz etorri edo sartu leikezanentzat.

Eta iñor ustekabean sartzen ba zan, lazaretoan eukiten eben berrogeirakoa (“kuarentena”) igaro arte.

Izurrite bitartean edo ta arriskua zabaltzen zanean, udalaren aginduz alkitran barrikan erreten ziran kale eta karkabaetan eta ota burdikadak.

Udaletxean be erritarrak egoten ziran gau ta egun, txandaka, ze gertatuko adi eta euren kontura egoten zan garbantzuz, arroz, aragi banaketa, bai eta alkanfor ugari be banatzen zan errian.

Beste aldetik itxasotik ekarten zan arraiñik be kanpotarrak ez eben erosten, kutsaduraren bildurrez eta erria benetan egoera larri eta errukigarrian geratu zan.

Udal gizonak diru-aurrerapen bat eskatu eben, erritarrei zela ala lagundu al izateko.

Gaisoaldi orrek irauten eban artean il kanpairik ez zan jotzen, bildurrak eragiñik euki ez egian gaisoetan.

Erriak aukeratuta eukiten zitun ildakoen kanposantura eroatzailleak eta begiak itxiagaz batera eroaten zituen, etxeetatik atara beintzat, eta kanposantuan 24 ordutan euki kanpoan.

Diñuenez egon ziran andik ildakotzat eroan eta bizirik etxera etorri ziranak.

Aldi aretan 3.000 bizilagun inguru eukazan Ondarroak. Eta urte orretan danetara 156 lagun il ziran, baiña euretatik 67 Abustuan eta beste 45 Iraillean. Urteroko bataz-bestekoa 30 eriotzena izaten zan aldi aretan.

Esan bear da Iraila'ren 23'an amaitutzat emon zala izurritea eta parrokira ekarrita egoan Antigua'ko Amari, eskar onez, Te Deum eta guztiko Meza Nagusi bat eskeintzea erabagi zan bere elizara biurtu aurretik.

Illeen artean bertako osagille zan Pedro Jose Lekue, 45 urtekoa il zan, bai eta Juan Jose Izurrategi, botikarioa, jaiotez azkoitiarra.

Abustu eta Iraillean il ziranen zerrenda au da:

Urteak

VIII-5.- Abaroa Urresti, Catalina	Ezk.	51	
VIII-6.- Arriola Gabiola, Juan Jose	Ezk..	34	Berriatukoa
VIII-6.- Badiola Elordi, Jose Antonio	Ezk.	44	
VIII-7.- Burgoa Lizundia, Domingo	Ezk.	55	
VIII-8.- Badiola Esnaola M ^a Teresa.	Ezkong.	12	
VIII-9.- Larrinaga Maguregi, Julian	Ezkong.	13	
VIII-10.- Zaldumbide Pagoaga, Salvador	Ezkong.	8	
VIII-11.- Larrinaga Abaroa, Pelegrin	Ezkong.	17	
VIII-12.- Urquieta Urquieta, Ventura	Ezk.	70	Markiñakoa
VIII-12.- Eguiguren Aristi, Jose Ig.	Ezk.	65	
VIII-12.- Alberdi Lecue, M ^a Dominga	Ezkong.	20	
VIII-12.- Anzuriza Iramategui, Jose P.	Ezk.	37	
VIII-13.- Eguiguren Aristi, Jose M ^a	Ezk.	56	
VIII-14.- Hernandez de Ubago Vergara, Esteban	Ezk.	42	Mendigorriakoa
VIII-14.- Maguregui Lete, M ^a Eusebia	Ezk.	45	
VIII-14.- Aispiri Ansoregi, Bernardo	Ezk.	36	
VIII-15.- Arriola Ansotegui, M ^a Manuela	Ezk.	78	Markiñakoa
VIII-15.- Dulanto Ruiz Echaburu, M ^a Josefa	Ezk.	30	
VIII-16.- Garramiola Ituarte, Maria	Ezk.	70	
VIII-17.- Goitia Zelaia, Juana Ant.	Ezk.	65	
VIII-17.- Lete Iturraspe, Jose Francisco	Ezk.	55	
VIII-18.- Gallastegui Urquiaga, M ^a Josefa	Ezk.	42	
VIII-18.- Eguiguren Urquieta, Clara	Ezk.	36	
VIII-18.- Egurrola Garramiola M ^a Josefa	Ezk.	44	
VIII-19.- Arrizabalaga Urreistieta, Jeronima.	Ezk.	44	
VIII-19.- Arrizabalaga Ulacia, Vicenta	Alarg.	48	
VIII-19.- Ibarloza Ibaseta, M ^a Fernanda	Ezkong.	12	
VIII-20.- Gallastegui Urquiaga, M ^a Josefa	Ezk.	58	
VIII-21.- Badiola Abaunza, Quintin	Ezk.	45	
VIII-21.- Zubicarai Burgoa, Jose Martin	Ezk.	33	
VIII-22.- Ituarte Goitia, Francisca F.	Ezk.	24	
VIII-22.- Bedialauneta Laca, Beatriz A.	Ezkong.	10	

VIII-22.- Aramaio Zubicarai, Generosa M ^a	Ezkong.	7	
VIII-22.- Lecue Ibaseta, Pedro Jose	Ezk.	45	
VIII-23.- Errasti Elguea, Juana	Ezk.	60	Aretxabaletakoa
VIII-23.- Alegria Olave, Ignacio	Ezk.	38	
VIII-23.- Amallobieta Zavala, Andres	Ezk.	60	Berriatukoa
VIII-24.- Larrinaga Sasturri, Jose Miguel	Ezk.	58	
VIII-24.- Osa Erquiaga, Sotero	Ezkong.	11	
VIII-24.- Ibarloza Burgoa, Ana	Ezkong.	74	
VIII-24.- Zajarrista Laca, Francisco	Ezk.	55	
VIII-24.- Gandiaga Azpillaga, Ignacia	Ezkong.	64	
VIII-24.- Izorrategi Arteche, Juan Jose	Alarg.	62	Botikarioa. Azkoitikoa
VIII-25.- Elguea, Juliana	Alarg.	82	Aretxabaletakoa
VIII-26.- Urresti Badiola, Aniceto	Ezk.	42	
VIII-26.- Anzuriza Goitia, Catalina	Ezk.	70	
VIII-26.- Goitia Urresti, Juan Jose	Ezk.	55	
VIII-26.- Odria Arriola, Bentura	Ezk.	29	
VIII-27.- Urrosolo Garramiola, Juan Jose	Ezk.	40	
VIII-27.- Azpiri Ansorregui, Juana Antonia	Ezk.	36	
VIII-28.- Aguirre Iramategui, Francisco	Ezk.	60	
VIII-28.- Zaldumbide Pagoaga, Alejandra	Ezkong.	18	
VIII-28.- Unanue Iramategui, Pia Josefa	Ezk.	37	
VIII-28.- Zelaia Urquiaga, M ^a Josefa	Ezk.	58	
VIII-29.- Arriola Goicoechea, Jose	Alarg.	80	
VIII-29.- Larrinaga Ibarra, Andres	Alarg.	70	
VIII-29.- Zubicaray Eguiguren, Venancio	Ezkong.	10	
VIII-29.- Burgoa Solabarrieta, Paula	Alarg.	40	
VIII-30.- Arano Doistuate, Lorenza	Alarg.	64	
VIII-30.- Goitia Goitia, Ramona	Ezk.	29	
VIII-30.- Jauregui Lecue, M ^a Concepcion	Ezk.	50	
VIII-30.- Pagoaga Abaunza, Narcisa	Ezk.	45	
VIII-30.- Arambarri Maguregui, Rosa	Ezk.	47	
VIII-30.- Arteche Arrasqui, Antonio	Ezk.	68	Azkoitikoa
VIII-30.- Arrizabalaga Zelaia, Dominga	Ezk.	32	
VIII-31.- Pagoaga Abaunza, Ana M ^a	Ezk.	50	
VIII-31.- Zubicaray Eguiguren, Tiburcio	Ezkong.	7	
IX-1.- Azpiazu Aldazabal, M ^a Ines	Alarg.	75	Motrikokua
IX-2.- Bereicua Badiola Francisco	Ezk.	38	
IX-2.- Beitia Iturriza, Salome	Ezk.	39	
IX-2.- Egurrola Zelaia, Isidro	Ezkong.	8	
IX-3.- Goitia Sendoia, Anselmo	Ezkong.	12	

IX-3.-	Aranzamendi Zelaia, Clara	Alarg.	80
IX-3.-	Guelalorso Vicuña, M ^a Ana	Alarg.	60
IX-3.-	Arregui Arcaute, Jose Manuel	Ezk.	35
IX-3.-	Urquiola Badiola, Francisco	Ezk.	26
IX-4.-	Larrinaga Urquiola, M ^a Antonia	Ezk.	46
IX-4.-	Iturrino Ansorregui, M ^a Antonia	Ezk.	66
IX-4.-	Eguen Aguirre, M ^a Teresa	Ezk.	38 Bolibarkoa
IX-4.-	Galdoz Anguisola M ^a Josefa	Ezk.	35
IX-5.-	Ibaseta Asumendi, Josefa	Ezk.	66 Berriatukoa
IX-5.-	Arano Bengoechea, M ^a Josefa	Ezk.	32 Berriatukoa
IX-5.-	Arambarri Urquiaga, Josefa M.	Alarg.	68 Motrikukoa
IX-5.-	Guelalorso Vicuña, M ^a Bta.	Ezkong.	64
IX-6.-	Burgoa Solabarrieta, M ^a Josefa	Ezk.	45
IX-6.-	Arambarri Echebarria, Cecilia	Ezk.	49
IX-6.-	Badiola Aspiri, Santiago	Ezkong.	7
IX-6.-	Echano Gandiaga, M ^a Dominga	Ezk.	68 Berriatukoa
IX-6.-	Badiola Arrizavalaga, Martin A.	Ezkong.	12
IX-7.-	Idiaquez Alberdi, Javier	Alarg.	72 Itziarkoa
IX-7.-	Bedialauneta Sustaeta, M ^a Cleofe	Alarg.	46
IX-7.-	Iramategui Urriolabeitia, M ^a J.	Ezkong.	38
IX-8.-	Uriarte Ascaiturria, Martin	Alarg.	60 Aulestikoa
IX-8.-	Burgoa Larrandia, Jose M ^a	Alarg.	66 Jemeingoa
IX-9.-	Badiola Gandiaga, Micaela	Alarg.	76
IX-9.-	Alegria Irurre, M ^a Antonia	Alarg.	58
IX-9.-	Osa Bedialauneta, Antonio	Ezkong.	12
IX-10.-	Anchustegui Gabiola, M ^a Jesus	Alarg.	76
IX-10.-	Jauregui Bereicua, Catalina	Alarg.	70
IX-12.-	Zubicarai Iriondo, Ignacio	Alarg.	80 Itziarkoa
IX-12.-	Gabiola, Catalina	Ezk.	70 Amоротokoa
IX-12.-	Unanue Iramategui, Jose Luis	Ezk.	48
IX-13.-	Alegria Elordi, Domingo	Ezk.	70
IX-13.-	Pagoaga Garramiola, Ramona	Ezk.	23
IX-14.-	Iramategui Iturriaga, Francisca	Ezk.	72
IX-14.-	Arrasate Echebarria, Josefa M.	Ezkong.	29
IX-15.-	Echaburu Iramategui, Valentin	Ezk.	78
IX-15.-	Lerchundi Larrinaga, Gabriela	Ezkong.	7
IX-22.-	Bedialauneta Alcorta, M ^a	Ezkong.	23
IX-22.-	Ugartechea Olabarria, Benita	Ezk.	52 Berriatukoa
IX-25.-	Urreta Maguregui, M ^a Ignacia	Alarg.	78
IX-29.-	Zelaia Ibaseta, Juan Baut.	Alarg.	78

Erriko osagilleak

XVIII garren gizaldian “zirujanu” bat egoten zan errian osasunaren arduradun. Eta osagille “erdika” bat, au da Ondarroa eta beste auzoko erriren bateko arduradun izaten zana.

Ala, 1.749 urtean, esateko, bederatzi urtetarako ituna egin zan Agustin Etxebarria osagilleagaz, Ondarroa eta Motriku’ko duintasun osoko osagille “titularra” izateko.

“Zirujanua” izaten zan erriko osasunagaz geien arduratu bear izaten zana.

Onegaz ituna egiten zanean, berak bakarrik erritarrei bizarra kentzeko eskubidea eukitekotan izaten zan. Baiña erritar askok ez eben nai izaten orrelakorik eta ortik sortzen ziran asarreak.

1.710 urtean Joseph Uribarrigaz sei urterako ituna egin zan.

Urtean 50 dukat ordaintzen eutsazan udalak, lau illabetetik lau illabetera ordainduta.


Erri barruan etxeren batera joaten ba zan, erreal erdika bat ordaintzen jakon etxean eta egiten eban odol-jalgitze (sangria) bakoitzeko erreal bi.

Errenderira joan bearretan, ikertaldi bakoitza erreal bat.

Orrez gain bizilagun guztiak beragaz bizarra kentzeko bear kunea euken urtean famili bakoitzak sei erreal ordainduta, bizarra kendu edo ez. Baiña famili baten iru bizardun baiño geiago egozanetan edo etxetik kanpora bizi, irutik gorakoak beartuta egozan etxe-jaun lez ordaintzera.

Batzuen itunetan garbi esaten da bizarra kentzea zortzi egunetik bein izango zala.

XIX garren gialdiaren azkenetan asi ziran errian duintasun osoko osagille bi egoten. Eta euren urtekoaren zati bat arrantzalien Kofradiak ordaintzen eban eta beste bi Udalak.



Agintariak.

BIZILAGUNAK

Ondarroa'ko bizilagunei buruz urteetan zear billatzen diran zeaztasunetari-ko batzuk oneik dira:

1.473 urtea.– IV garren Enrike'k erriari egindako mesedeen ziurtatze agi-rian esaten da 1.472 urteko sute ondoren uria “*yerma del todo punto*” geratu zala, au da benetan uts.

1.514 urtean, 167 sukalde (foguera) eukazala agertzen da. Sukalde bakoitzeko batez beste 5 lagun emon ezkeru, 835 lagun dira.

1.650 urtean, udaleko zergen banaketa egitean esaten da Ondarroa'k 57 fogera daukazala.

1.655 urtean. Domingo Garro'k Ondarroa'ri itxitako diruen kontura fraile-en konbentua ez egitearen alde eleiz eta uriko “kabiloak” ebiltzanean, Ondarroa ez zala elduten 100 bizilagun-buru edo “vecino” tara esaten da.

XVII garren gizaldiaren azkenetarako Ondarroa ez dala eltzen eun (100) auzolagunetara irakurten da Aita Henao'ren “Antigüedades de Cantabria” 171 orrialdean.

1.728 urtean, Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan (Pleitos y Autos, Reg. 20-141) urte orretan Ondarroa'ko txalopetan ebiltzan 18 urtetik 50 bitartekoan zerrenda, era onetan zeaztuten da:

1.– Antonio Urrunaga'ren txalupa.

Onek esan eban 7 lagun ebiltzala bere txalopan 18tik 50 urte bitartekoak. Bera, patroia, unore asko eta betiko gaixoagaz ebillala, odol jario ta guzti, eta gitxi janda.

2.– Franzisko Urriola'ren txalupa. Bera jaube eta patroia. 62 urtedun.

Onek autortu eban adin orretako iru bakarrrik ebiltzala bere txalupan. Bes-teak ortik gora edo berakoak.

- 3.– Franzisko Gorria' ren txalupa. Berbera jaubea.
8 ebiltzala adin orretakoak, zarrena 38 urtekoa eta gaztena 25 urtekoa gertatzen zirala. Besteak 50tik gora edota 18 tik berakoak.
- 4.– Franzisko Urriola' ren bigarrena. Patroia, berbera.
Ez diño besteak zenbat ziran baiña adin orretan sartzen ziranak, iru.
- 5.– Antonio Urriola' rena. Bera patroia. 61 urteduna.
8 lagun ebiltzan 50-tik 18 urte bitartekoak.
- 6.– Lazaro Agirre' rena.
Berbera patroia, 36 urteduna. 6 lagun ebiltzan adin orretakoak.
- 7.– Joseph Etxebarria' rena. 51 urte eukazan, eta berbera patroia. 4 lagun adiñean sartzen ziranak.
- 8.– Martin Aldaola' rena. 39 urteduna. Berbera patroia.
Bost lagun ebiltzan eskatutako adiñekoak.
- 9.– Iñazio Ansolegi' rena. 60 urte.
Zortzi lagun 50-18 urte bitartekoak.
- 10.– Domingo Sasturri' ren txalupa. 60 urte jaubeak.
Bost lagun ebiltzan adin orretakoak.

Beraz amar txalopetan 57 lagun ebiltzan 50-18 urtetakoak. Esan eben igaztik aurtenera il, edo ittotakoen artean 16 lagun galdu zirala.

Eta erritik kanpo, Erregearen ontzietan 13 ebiltzala. Eta bestelako jaubedunen ontzietan, Buenos Aires' era joaten ziranetan, 10 lagun. Eta urte aretan Buenos Aires' etarako txalopen baten sartzeko asmotan erbestera urten ebela beste 5 lagunek.

Beraz errian, 50 urtetik 18 urtera bitartekoetan eun eta bat (101) lagun zenbata eikezan itxasoan ebiltzanak.

Esandako amar txalupen gain erriko portuan egozan beste oneik:

* Lau txalupa meazkia (minerala) erabilten ebenak.

* Txalupa bi burdiña erabilten ebenak, baiña sei txalupa oneik ondartzeta eta iatza ingurutan lotuta egozan Udabarrirarte. Eta eurak erabilten zituen gizonak goragoko txalupetan neguan ibiltzen diran bardiñak dirala.

1.739 urtean. Ondarroan egozan arrantzale (mariñel) en erroltza baten era onetan banatzen dira bertakoak:

10 / 19	urtekoak	8
20 / 29	„	5
30 / 39	„	25
40 / 49	„	6
50 / 59	„	6
60 / 69	„	3
70 / 79	„	7
82	„	1 (Perleziak jota)

Beraz kontuan eukita Ondarroa geientsu arrantzale erria izan dala beti, ain kopuru txikiak erriko bizilaguntza txikia adierazten dau.

(Artx. Gernika. Batzar Nagusiak. Pleito y autos.Reg.162)

1.808 urtean. Arma zerbitzua beteteko, ortarako gai diran gizonen zerrenda egitean esaten da 17-60 urte bitarteko gizonetan oneik egozala Ondarroa'n:

26 ezkongai edo seme bako alargunak.

29 ezkondu edo semedun alargunak.

1.825 urtean, errietako erroltzeak egin ziran. Ondarroa'n, erri eta baserri, kale nai mendi, itxas eta leor, adiñeko, gazte eta umeak zenbatuta, 1.368 lagun bizi ziran.

1.855 urtean. Kolera izurritea gertatu zan errian. Uda orretan, Dagonil, (Abustu) eta Iraillean, eun lagunetik gora il ziran. Eta garaiko paperetan esaten da erri onek ia iru milla bizilagun eukazala.

Ondarroa'ren kondaira idatzi dabenak, bakoitzak bere denboran, zeatzasun oneik emon zituen:

Iturriza'k 1.793 inguruan idatzi eban inguru onetako kondaira eta Ondarroa'ri buruz diño emen 800 Jaunartzeko lagun egozala (*800 personas de comunión*).

Madoz'ek 1.845-1.850 bitartean mugatzen dau bere Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico eta an diño 1.173 arima egozala urte aretan.

Baiña bere esanak zeaztuaz onela agertzen dau: 84 sukalde lez ordaintzen ebezala erriko zergak; 144 etxe eukazala, auzoetakuak be zenbatuta, 246 auzo-lagun eta 1.173 arima. Alaz eta partikularren kontuetan auzo-lagunak 330 dira eta bizi-lagunak, arimak, 2.900 (152 orrialdean)

Juan E. Delmas'ek bere "Guia del Señorío de Vizcaya"n 1.864 urtean argitaratuan, 2.123 arima egozala.

Ba dirudi Ondarroa XVIII garren gizaldiaren erditik aurrera gorakada bizian ezagutu zala. Kontu egin XVIII gizaldian 2.371 jaiotza inguru egon zira eta XIX garrenean 9.084.

Orrela XX garren gizaldian 4.000 (lau milla) bizilagunegaz sartu giñan eta gorakada ori nabaria da gizaldi onen zear, lenengo 25 urteak igaro ondoren, 1.928 urteko zenbakietan esateko eran: 4.744 lagun eskubidezko egozala eta bizitez 5.053. (*Anuario del Comercio, Industria, Profesiones y Tributaciòn del Pais Vasco. J.L. Viciola Garamendi.*)

Ba dirudi biztanlegoa geitzeak ez dauala adierazten erriko bizimodua atsegiña zanik.

1.900-1.936 bitartean Bizkaitik Argentinara 388 lagunek urten eben bizi-modu erosoago baten billa. 388 lagun orreik 16 errietakoak ziran eta euretatik euneko amarra Ondarroatik urtenak beteten eben, ain zuzen bostgarren erria kopuru orretan.

Ara zeatz-meatz erbesteratuen jatorriak:

Lekeitio ta ingurua 81

Balmaseda 67

Bermeo 51

Bilbao 44

Ondarroa 38

Au da bost erriren artean 281 erbesteratu eta beste amaikaren artean 107.

(Emigración vizcaína a la Argentina 1.900-1.936)



NUN ILTEN ZIRAN ANTXXIÑAKO ONDARRUTARRAK?

“Ondarrutarren ibillerak” atalaren jarraipena da au.

Atal aretan urterik urte izentatu izan dira Europa eta Ameriketa zear ebiltzan ondarrutarren izenak, euren eriotz lekutik atarata.

Ez dira an danak sartu.

Zerrenda luzea egiten da.

Andra Mari Parrokiko liburuak irakurtean, benetan arritu egiten da bat Ondarroa lako erri txiki baten, XVII eta XVIII garren gizaldietan zelako eriotz-barriak eltzen ziran jakinda.

Leike itxas erri izateak ondamendi geiago ekartea errira, barruko errietan gertatzen ziranak baiño.

Aleginduko gara len azaldutakorik ez agertzen, ez bidartzen.

Urtez urte joanaz, ara beste batzuk.

1.662.– Iru ildako gerraontzi baten Lisboa'n eta beste bat Mugartegi kaptanaren galeoian.

1.624.– Bi gerra ontzi baten eta beste bat Terranova'tik etxera etorrala, itxasoan 30 egunetan gaixo egon ondoren.

1.625.– Aranzibia pilotoa, moroak aitzetara joan eragin eutsen patatxe baten.

1.637.– R. Apallua, Okendo'ren Armadan; F. Urkiaga, Flandes'eko ubidean; T. Alzola, Frantziatik gaiso etorrala.

1.640.– A. Asterrika, Ciudad de los Reyes'en; beste lau Flandes'etan eta beste bi Okendo'ren Armadan.

1.646.– J. Otxoa, Santo Domingo urian; F. Aretxabaleta, Cadiz'en; J. Armenza, Magon'go gazteluan; J. Alzola, Etna ugartean.

1.649.– S. Agirre, Napolea'en; M. Aranzibia, Pinzon'go aitzetan; D. Orbea Messina'n egon zan eraiketan; F. Aranzibia, Messina'n, galeoi baten ondamentian.

Beste liburu baten, Libro V de Finados y Confirmados deiturakoan, beste onelako batzuk irakurri leitekez:

1.671.– Franzisko Aranzamendi, itxasoan ittoa.

1.675.– Ramos Aulikiz, Madrid'en.

1.676.– Pedro Urkiaga, Indietan.

1.677.– Juan Sustatxa, Andaluzian.

1.679.– Agirre, Domingo, Veracruz'en.

1.680.– Juan Bta. Apallua, soldadutzan.

1.682.– Domingo Elexpurua, Sevilla'n.

1.689.– Ondarroa'ko ibaian, bateletik jausita, Agustin Iturriaga, 24 urteduna.

1.691.– Lukas Iturriaga, Franzisko Vega, Manuel Iriarte, Antonio Egiguren, Martin Manrike eta Jose Sasturri. Donosti'tik urten eben itxas lapurretan, kortso erabidean eta geiago ez ziran agertu. Illetak Uztaillean egin ziran.

1.695.– Andres Alastra, 15 urteduna, Tomas Sota kapitanaren ontzian etorrala uretara jausi eta bertako mariñelak bere billa ibiliarren, ez zan egunetan agertu.

1.696.– "Abustuaren 23'an eldu zan barria eta kanpaiak jo ziran, baleetara eta bakallautara Azillean urten eben iru mutil il ziralako. Frantzetar ontzi baten ebiltzan eta irurak gaisoak artuta il ziran. Franzisko Iramategi, Lorenzo Txopite eta Domingo Armenza ziran. Lenengoak 30 urte, 14 bigarrenak eta 27 irugarrenak.

1.697.– Pedro Sasturri, bakallau arrantzako txalopa baten, tira bira egin eta itto zan.

1.700.– Arrantzako txalupa baten portura etozala 4 itto ziran. Franzisko Iriarte, 70 urteduna; Mikel Ibarra, 34 urteduna; Diego Elizondo, 28 urteduna eta Iñazio Oteiza, 14 urteduna.

1.702.– Ind. Urkiaga. Erri eta erbesteko gizon batzuekaz Donibane Loitzun'erako urten eta Zumaiä'ko abran txalopak tirabira egin eta nai ta beste guztiak bizirik artu, au itto zan. 30 urteduna zan.

1.712.– In° Arriaga. Bibao'ko ibaian, txalopa batetik bestera joaila, jausi eta itto.

1.719.– Juan Galdona'k autortu eban ez Palermo'ko ospitalean il eta inguru artean Merzedeko fraileak euken kanposantuan lur emon eutsen Juan Albisu, 28 urteduna, Martin Basterretxea, 56 urteduna eta Juan Bta. Agirre, 48 urte eukazan ondarrutarrei.

1.727.– Egun onetan (XI-20) lantzoi arrantzan ebiltzala, itxasertzean txalupa batek tirabira egin eta amar lagun itto ziran.

Pedro Goitia, 69 urteduna.

Juan Orizate, (60 urte); Jose Albizuri (20 urte) eta Juan Goitia (46 urte) udaleko sindikoa illaren 21'ean aurkitu zituen.

Jose Goitia (22 urte); Pedro Isasi (36 urte); Agustin Asterrika (63 urte) eta Kaietano Goiri (30 urte) illaren 22'an aurkitu zituen.

Jeronimo Goitia (34 urte).

Patxi Asterrika (23 urte) . Au illaren 26'an aurkitu eben.

1.728.– Martiaren 20'an, barratik arrantzara urtetean, txalupa bat galdu eta iru oneik itto ziran: Domingo Dostuarte, 60 urteduna, bere gorpua Apirillaren 1'ean agertu zan ondartzan. Pedro Agirre 48 urteduna, bere gorpua Saturrarango ondartzan agertu zan Martiaren 31'an, eta bere emaztea zan Ana Dostuate, 38 urteduna, onen gorpua Arrigorri'ko aitzetan agertu zan Martiaren 27'an.

1.766.– Juan Ant. Arrasate. Otsaillaren 20'an itto zan eta arratsalde berbertan lurra emon.

Jose Iturriaga.– Bardin, egun berean itto zan.

Lorenzo Txopite.– Egun berean, 20'an itto eta 23'an agertu zan bere gorpua.

1.768.– Joseph Lizaola.– Ameriketan il zan.


Franzisko X. Etxaburu.– Lima'n il zan.

Pedro Maquibar.– El Callao'n, itxasoan il zan.

(Eriotz oneik, esandako Libro V de Finadoa'en agertzen dira).

Erraz igarten da euretan Ondarroa erri txiki eta beartsuak zelako bizimodu erabili eban gizaldi orreitan, biziaren orde z biza irrizkatuaz, olerkari batek gogoratu eban lez.

Ondarroa'ren bizi-kondaira argi ikusten da illen azken eskintzetan.



Portuko toki bat.

ILLEN IBILIAK JARRAITZEN

Ildakoen Parrokiko V liburuko agiriak asko erakusten ba dabe, ez dira orretan makalago VI eta VII garren liburuak.

VI garren liburua 1.770 urtean asten da eta 1.845'n amaitu.

Eta liburu berbertan bereiztu egiten dira umeen agiriak 1.828 urtetik 1.856 bitartean.

Liburu onetan guztira, 1.467 agiri sartzen dira adiñekoenak eta bein umeak zeaztuten asten diranetik asita, au da 1.828-1.856 denboraldian 566 umetxoek datoz.

Aldi arteako eriotza eta jaiotzen arteko aldia ikusteko esan daigun 1.770 eta 1.779 bitartean, au da, 30 urtetan, 1.037 jaiotza gertatu zirala eta 479 eriotza. Au da, jaiotza bakoitzeko 2,18 eriotza.

Denboraldi onetan 14 lagun il ziran 90 urtetik gora eukezanak, euretatik bost gizonak ta 9 emakume.

II eta jaioen kopuruak

	Illak	Jaiokak
1.770	11	38
1.771	13	23
1.772	24	33
1.773	10	26
1.774	12	23
1.775	9	35
1.776	7	22
1.777	11	40
1.778	12	24
1.779	11	32

1.780	9	32
1.781	8	24
1.782	14	33
1.783	22	31
1.784	9	44
1.785	12	36
1.786	8	30
1.787	15	44
1.788	13	39
1.789	26	30
1.790	34	43
1.791	14	33
1.792	17	27
1.793	14	47
1.794	31	32
1.795	61	28
1.796	14	37
1.797	10	52
1.798	18	38
1.799	10	61

Ondarroa'n 1.811 urtean asi ziran eleizatik kanporako lur-emoteak egiten. Au da, gobernuak emondako legeak beteaz, osabide aitzakiz, eleizatik kanpo obiratzeak egiten. Orrela 1.811 urtean zabaldu zan kanposantu barria eta urte orretan lau lagun sartu ziran bertan:

- XI-16 Maria Dostuate.
- XII-20 Jose Goitia
- XII-20 Franzisko Aranbarri
- XII-23 Bizente Ondarra.

Berreun lagun inguru obiratu ziran bertan jarraiko amaika urtetan eta 1.823 urtean barriro parrokian obiratzeak asi ziran. Kontuan eukitekoa da 1.813 urtean bakarrik 80 lagun il zirala.

1.829 urtean batzuk barriro kanposantura eroaten asi ziran eta beste batzuk "uriko ortuan" diñoen paperak, "*en el huerto de la villa*". Itxuraz ariñegi bete zan kanposantu egin-barria eta beste urteeraren bat billatu zan urtenbidetzat.

Azalpen oneik egin ondoren, erbesteko ainbat tokitan illak edo ta itxasoe-tako ondamendi, tirabira edo zoritxarretan galduak urtez urte aipatu daiguzan:

- 1.770.- Nikolas Aresti, Honduras'en.
- 1.771.- Lorenzo Garramiola, Veracruz'en.
- 1.772- Franzisko Ibarrola, Lima'n.

Jeronimo Iramategi, Indietako Cartagena'n.

Manuel Ibarrola, Buenos Aires'en. "Orixima" itxasontzian, barruko 'gizon guztiekaz batean.

Iñazio Etxaburu.- Buenos Aires'en M. Ibarrolagaz batean.

1.773.- Felipe Iramategi, Indietan.

1.773.- Blas Dostuate eta Jabier Arrasketa. Ondarroa'ko barran, Santiago Etxebarria'ren txalopak tirabira egitean.

1.774.- Jose Eskutasolo, Indietan.

1.775.- Jose Urriola, Indietan.

1.780.- Juan Urresti, Indietan.

Jose Antonio Garramiola, Indietan.

1.782.- Martin Beitia, Txile'ko Santiagon.

1.783.- Nikolas Odria, Txile'ko Santiagon.

Jose Urrestieta, Indietan.

Franzisko Iramategi, Montevideo'n.

Iñazio Aranzamendi, Montevideo'n.

1.786.- Juan Laka, itto egin zan portura etorren txalopak euki eban zorit-xarrean,

1.789.- Martin Iramategi, Txile'n.

1.794.- Franzisko Iramategi, Nikolas Martija eta Domingo Urtiaga, irurak Puerto Cabello'n.

1.795.- Frantzetarrek Ondarroatik baituta eroan eta ango kartzeletan il ziran:

Manuel Argoitia,

Juan Bta. Iramategi,

Jose Ibarrolaza,

Ramon Ibarrolaza,

Jose Antonio Mendizabal,

Franzisko Aranbarria,

Iñazio Arrizubieta,

Jose Retolaza,

Juan Bta. Ituarte,

Mateo Badiola.

1.796.- Tomas Beitia, Montevideo'n.

1.797.- Franzisko X. Alegria, Habana'n.

Domingo Arana, "San Felipe Neri" fragatan.

1.799.- Gregorio Gomastegi, Lima'ko ospitalean.

Santiago Etxebarria, Lima'ko ospitalean.

1.800.- Barrako sarreran Campeon eta Zanganua txalopak tirabira egin eta bertan itto ziran:

Juan Bta. Ituarte, ezkondua, 28 urteduna.

Juan Agirre,	„	39	„
Pedro Isidro Ibaseta,	„	26	„
Martin Bengoetxea,	„	34	„
Joakin Alegria	„	33	„
Pedro Aspiazu	„	45	„
Jose Berridi	„	33	„
Andres Lete	„	54	„
Juan Bta Zulaika	„	30	„
Juan Gabiola	„	38	„
Andres Bergara	„	48	„

Prudencio Etxebarria, ezkongaiia, 20 urteduna.

Emeterio Etxebarria,	„	19	„
Juan Retolaza,	„	26	„
Nikolas Garramiola,	„	17	„
Emeterio Agirre,	„	16	„
Jose Ibaseta	„	24	„
Jose Iñazio Gabiola,	„	18	„
Pedro Bergara	„	15	„

(Azaroa'ren 28'an gertatu zan)

1.801.- Juan Bta. Alegria, La Guaira'n.

1.804.- Felipe Guenaga, La Guaira'n.

1.805.- Domingo Zaldumbide, Jersey'n.

1.806.- Simon Anzuriza, Cameron'en

1.808.- Juan Domingo Iturrino, La Habana'n

Angel Garramiola, Cuba'n

1.810.- Juan Arkotxa, Saturrarán'en itto zan, lapatara joanda.

1.810.- Iru lagun itto ziran Bilbao'tik Juan Blas Ozerin'en txalopan etozala:

Jose Ozerin, 36 urteduna; Franzisko Elordi, 30 urteduna eta Migel Illoro, 26 urteduna.

1.812.- Bartolome Mendiola, Buenos Aires'tik 50 leguatar.

1.813.- Migel Juaristi, Lima'n.

Domingo Azpiazu, Lima'n.

Marzelino Iramategi, "santa Barbara" fragatan, Habana'tik urtenda.

1.814.- Franzisko Amillategi, Puerto Rico'n.

Manuel Aranbarri, Limona'n, Ameriketán.

1.816.- Portuko barran, Ana Mari Etxebarria'ren txalopa ondoratuta:

Domingo Beitia,	50	urteduna,
Jose Arkotxa,	18	„
Martin Argoitia,	48	„

Jeronimo Basterretxea,	52	„	
Mariano Bastarretxea,	15	„	
Jose Ibarloza,	66	„	
Franzisko Solabarrieta,	60	„	
Jose Ant. Solabarrieta,	13	„	. Danetara zortzi lagun.

1.817.– Antonio Bedialauneta, Habana'n.

1.820.– Antonio Gabiola, Habana'n.

1.830.– Felipe Larrandia, “san Jose” txalupan, LLanes'ko sarreran.

1.831.– Jose Domingo Garramiola, Londres'ko ibaian.

1.833.– Jose Ventura Azpiazu, La Habana'n.

1.838.– Manuel S. Idueta, La Habana'n.

1.839.– Portuko barran, Pedro Zelaia'ren txalupan ebiltzan:

Domingo Ozerin,	35	urteduna,
-----------------	----	-----------

Jose Ozerin,	13	„
--------------	----	---

Juan Zelaia,	25	„
--------------	----	---

Jose Zubikarai,	44	„
-----------------	----	---

1.841.– Zipriano Gainza Lete, 13 urteduna, itxasoan.

1.841.– Jeronimo Ibarloza, D. Madariaga'ren txalopan ebillala, Matzaku aurrean itto zan.

1.841.– Jose Bengoetxea'ren txalopan ebiltzala tirabira egin eta itto ziran: Jose Antonio Burgoa, 16 urteduna eta Antonio Ibaseta, 64 urteduna.

1.842.– Ramon Aranzamendi, Erroma'n.

1.842.– Jose Bedialauneta,

Domingo Arakistain. Biak Baiona'ko barran, merkataritzan ebillan txalopan.

1.844.– Matias Aristi, Saturrarán'go aitzetako etxe aurrean.

1.845.– Anizeto Lekuona, baián itto zan.

1.845.– Hermenegildo Nafarrete, Cuba'n.

Orañarte esanak aipatutako VI garren illen liburukoak dira.

Ekin daiogun VII garrena aztertzeari.

VII garren “Libro de Difuntos” 1.845 urtean asten da eta 1.888'n amaitu.

Liburu onetan 1.979 dira adiñekoen eriotzei buruzkoak eta 828 umeenak (txikienak). Danetara 2.787 eriotz, 43 urteetan, Beraz batez beste urteko 64,8 eriotz.

Oar bat, 1.864 urte arte ez da agirietan agertzen ze gaisogaz il dan bakoitza.

Urte orretako Urtarrilleán asten dira zeaztasun ori emoten.

Liburu onetan eriotzik geien gertatutakoak oneik dira:

– 1.855 urtea. 156 adiñeko eta 48 ume il ziran. Danetara 204. Kolera izurritea gertatu zan urte orretan.

– 1.868 urtean 122 il ziran danetara: 64 adiñeko eta 68 ume. Difteria izurritea egon zan.

– 1.885 urtean 119 eriotza. Umeen artean naparreriz il ziran asko.

– 1.887 urtean 130 eriotz. Umeen arteko elgorria, askoren gaitz.

Denboraldi onetan oraindik jarraitzen eban Ameriketarako garrak, bai eta Cuba'ko gerrak be.

Orrela urtez-urte eriotz oneik aurkitzen doguz etxetik kanpo:

1.846.– Jose Laka, La Habana'n.

Pedro Unanue, abeslari ospetsua. Trieste'n.

Pedro Bedialauneta, itxas zabalean, La Habana'tik etorrala.

1.846.– Lau txalopa ondoratu ziran Arbide'n. Bertan itto zan Jose Solabarrieta.

1.848.– Eduardo Egiguren, Cuba'n.

1.849.– Jose Pagoaga, itto, lapatara joanda.

1.850.– Esteban Mendizabala, Ameriketean.

1.850.– Jose Iñazio Alkorta. Portuan itto.

1.850.– Jose Ant. Arakistain.– Pedro Zulaika'ren txalopak tirabira egin, eta 14 lagunetatik berau bakarrik itto zan.

1.852.– Pedro Alegria, La Habana'n.

1.853.– Juan Martin Aranzamendi. Ameriketean. Berrogei urte baiño geiago ara joan zala eta bere barririk ez zan geiago jakin.

1.854.– Bonifazio Etxebarria eta Baldomero Madariaga.– Hamburgo'n itto Lekeitio'ko F. Arana'ren bergantiñean ebiltzala.

1.854.– Sor Marta Ikaran, Frantzian.

1.854.– Hipolito Arteagagoitia.– Montevideo'ko ospitalean.

1.854.– Pedro Jose Alkorta.– Ondartzan itto zan.

1.856.– Juan Migel Landaribar.– La Habana'n.

Isidro Pagate.– Amberes'eko kanalean.

1.857.– Cosme Badiola,

Franzisko Badiola,

Juan Ant. Arkotxa.– Irurak itxas andian itto ziran, Juan Bta. Solabarrieta'ren “Nuestra Sra del Carmen” txalopan.

1.857.– Jeronimo Badiola, Cadiz'ko ospitalean.

1.858.– Jose Manuel Ubiloz eta Gregorio Lezaola, La Habana'ko ospitalean.

1.858.– Raimundo Argoitia.– Itxas andian itto zan, maste bat apurtu, bera jo eta uretara jaurtita.

1.858.– Antonio Zubikarai.– Ibaian itto.

1.858.– Bartolome Amesti.– Zubibarrirako arriak gabarran eroaten ebillala, gabarra ondora joan eta bera itto.

1.858.– Juan Migel Landaribar. “San Pantaleon” bergantiñean ebillala sukar oria batu ta il.

1.860.– Juan Cruz Solabarrieta.– Itxas andian.

1.860.– Pedro Felix Dulanto Ruiz'en txalopa ondoratu itxas andian eta Pedro Felix berbera,
Antonio Aramaio,
Jose Basterretxea,
Joakin Ibarloza, eta
Agustin Uzin, itto.

1.860.– Itxas andian, Franzisko Arrasate'ren txaloparen ondoratzean, Juan Bta. Arrasate eta Juan Pelaio Arrasate. Aitaren gorpua billatu eben. Semearenik ez.

1.861.– Jose Ag. Solabarrieta, La Habanatik etorralla.

1.861.– Cosme Egaña, Uribe'ren txalopan, itxas zabalean itto.

Domingo Lekue.– Donosti'ko sarreran itto, arrantzan ebillan txalopa ondoratuta.

1.865.– Matias Urkizu, pilotoa, Txina'ra joiala.

1.867.– Tomas Usobiaga, La Habana'n, sukar oriaz.

1.868.– Jose Franzisko Arakistain La Habana'n.

Antonio Lersundi, Laredo'n, arrantzara joanda.

1.868.– Urtarrilla'ren 22'an, Juan Jose Larrinaga'ren "San Antonio" txalopak tira bira egin Donosti'tik urteeran, eta 19 lagun itto. Txalopa au besperan Donosti'n sartu zan, ekaitzaren indarrei igesi.

Ittoak oneik ziran:

Juan Bta. Alegria.	44	urteduna.
Julian Larrinaga,	50	„
Sebastian Otxoa,	43	„
Juan Jose Bereikua,	47	„
Jose D. Arostegi,	47	„
Jose Angel Zuazaga,	34	„
Jose Ant. Aranzamendi	41	„
Jose Julio Aranzamendi	30	„
Pedro J. Aranzamendi	15	„
Bernardo Solabarrieta	38	„
Franzisko Azpiri	33	„
Iñazio Txakartegi	35	„
Rafael Ibaseta	23	„
Pastor Zulaika	33	„
Bartolome Ibaseta	20	„
Juan J. Izurrategi	27	„
Antonio Larrinaga	26	„
Pedro Mendizabal	20	„
Martin Arostegi	20	„

1.870.– Jose M^a Egaña Antxustegi, La Habana'n.

Franzisko Mugartegi, La Habana'n , sukar oriz.

1.871.- Tomas Eiguren, itxas zabalean, Markoz Eizagirereren txaloparen tirabiran.

Bertan baita, Iñazio Badiola eta Jazinto Txurruka.

1.871.- Tiburzio Etxano, Cuba'n.

Eulalia Guenaga, Alcala'n.

1.875.- Jose Manuel Osa, Itxas zabalean, ekaitzak jota.

1.875.- Justo Bengoetxea, La Coruña'ko ospitalean.

1.875.- Casimiro Urreisti.- Itxas zabalean, ekaitzak jota.

1.875.- Benito Burgaña, Baiona'ko barran itto.

1.877.- Antonio Argoitia, La Habana'n.

Benito Ibaseta, Cuba'n.

1.878.- Aize gogor batek tatarrez erabili eta ondoratu eban Pedro Arkotxa-ren txalopa itxas zabalean eta bertan itto ziran:

Pedro Mari Arkotxa, 42 urteduna, ezkondua.

Franzisko Gazagaetxebarria, 48 urteduna, ezkondua.

Migel Arkotxa, 18 urteduna, ezkongai.

Domingo Gazagaetxebarria, 16 urte, ezkongai.

Remigio Otxoa, 18 urte, ezkongai.

Manuel Bernedo, 20 urte, ezkongai.

Jose M^a Alegria, 50 urte, ezkondua.

Pedro A. Urrutia, 17 urte, ezkongai.

Manuel Uzin, 22 urte, ezkongai.

Danok Apirillaren 20'an itto ziran.

1.879.- Urtarrillaren 13'ko ekaizpean Jose Aranzamendi eta Juan Jose Urrosolo, itto.

1.880.- Apirilla'ren 17'an,

Nikolas Lersunsi, 36 urteduna.

Ramon Badiola, 37 urteduna.

Domingo Urkiza, 12 urteduna. Irurak Nikolas'en ontzi txiki baten ebiltzala itto ziran.

1.881-III-26.- Juan Bautista Solabarrieta. Itxas zabalean itto zan, txalopeak tirabira egin ondoren, laguntza eldu arte ezin eutsi izan ebalako txalopa inguruan.

1.884-XII-7.- Candido Burgoa, 52 urteduna. Pasaia'tik iru leguatar, itxa-soaren brastada baten txalopa erdibitu eta ezin iraun izan eban laguntza eldu arte. Txalopako beste lagunak aurrean itto zan, otz eta nekeari eutsi ezinda.

Ikusten danek, sarri gertatzen ziran itxas ondamentiak eta sarri ittoen zerrenda luzeak, andre alargun, umezurtz eta abarren egoera larriekaz.

Orrelakoetan Arrantzalien Kofradiak ba eukazan bere laguntza larriak. Eta udalak be bai.

1.868 urteko Otsaillaren 23-ko batzarrean ba dago jakingarri bat. Alkateak azaldu eban “San Antonio” txaloparen zoritxarra. 19 gizon ittoak. Eta Udalak bere oiturazko laguntza emon bearke ebala.

Ondoren Fermin Ozamiz osagilleak berba eskatu eta esan eban ondo eratu-tako karidadea eta Ebanjeliokoa, zoritxarrean jausitako pertsonen premiñak betetean dagola. Eta errian ba egozala famili batzuk benetan egoera onetan egozanak eta egoki eta zuzenena eurei laguntzea zala, ba egozalako ittotakoen familietan beste batzuk senide eta auzokideak eukezanak bizitzako laguntzak eskintzeko eran eta laguntza oneik uts egitean orduantxe eskatu dagiela besteak egiten daberen lez.

Beste udal gizonak esan eben ittotakoen familiei erriko dirutzatik iru milla erreale emoteko, iru illabetetik bein 500 errial emonaz, iru millatara eldu arte.

(Udal Artxiboa. Libro 9 de Decretos. 1.868-II-23)

Gizaldi onetan egon ziran iru-lau izurritealdi, kolera, difteri, elgorri, naparreri eta abarrenak. Orrelako denboretan agiriko da Ondarroa lako erri txikiak uri burutatik urrin, osabidetzako ezelako azpiegitura egoki barik, umez betetako famili ugariak naastean, etxe bizitza bi edo irurentzako “komunak” eta abar, etxe barruetako ur barik, eta ainbat orrelako aitzakiz, erritarren ardura eta borondatean itxi bearke ebazala unean uneko urtenbideak.

Orrelako batzuk igarten dira erriko liburuetan. Artu daigun urte bat, 1.885.– Naparreri izurritea egon zan urte onetan.

Eta udal liburuetatik onelakoak atara al dira:

Otsailla'k 5.– Amar peseta ordaindu Juan Etxebarria'ri, izurriak jo eta ildako baten gorpua ospitaletik kanposantura eroaten erabili zitun jantziak osagillearen aginduz erretakoen balio orde.

Otsailla'k 26.– Domingo Badiola'ri 29,25 peseta, era onetan banatuta: 30 erreale ospitalean il zan baten kutxa egiteagaitik; 48 erreale gorpua kutxan eroatearren; 6 erreale mandatari bateri Barriatu'ra joateagaitik; boste erreale ogi ta ardautarako; 12 erreale garbiketarako egiteko alogera era 16 erreale kanposantuan kutsatuentzako egindako lau illobigaitik.

Martia'k 17.– 78,25 peseta F. Naberan'eri, Erriko Ongintza Batzordearen aginduz Andres Badiola'ren alabaren etxeko atadian zaindari egotearren emeretzi egunetan, eguneko kuartilliuta erdi arda eta liberdi ogi sartuta.

Egun berean: 194 peseta, Eustakia Etxaburu'ri, erriko ospitalean 75 egunetan kutsatuekatz gaixo-zain egotearren, au da, 27 egunetan bakoitzean amabi erreale eta berrogeta amasei egun eta erdi, eguneko zortzi errealeko sariz.

Martiak 18.– Amar peseta Salustiana Etxaburu'ri, karidadez, ospitalean naparreriz kutsatutako bere amar semeekatz egotearren.

Apirillak 7.– Domingo Badiola'ri, kutsatutako gorpu batentzako ilkutxa egin eta il etxetik kanposantura eroatearren.

Apirilla'k 23.- 28,75 peseta Eustakia Etxaburu'ri, beste andre bategaz batean ospitalean egondako kutsatuen oetako zapiak garbitzearen, eguneko lau erreal eta beste sei egurretarako eta arda eta ogitarako.

Apirilla'k 28.- Jose M^a Aranburu'ri, ospitaleko tabikea barrizatzearen bertan naparreriz kutsatuak egozala, lan, gaiki eta ogi eta arda sartuta.

Apirilla'k 30.- 8,50 peseta Lukas Aristi'ri, Udalaren aginduz ilkutxa bat egitearen naparreriz kutsatutako gorpu bat bere etxetik kanposantura eroan alizateko.

Maiatza'k 1.- 66,35 peseta Domingo Arrate'ri ospitaleko tabikeak konpondu eta zuritzen ibili ziran igeltseru eta pioientzat, gaikiak sartuta, bertan kutsatu barik egon ziralako, bertan sartuta 6 kilo ikatzen balioa.

Maiatzak 12.- 34,75 Joakin Garmendia'ri, Udalaren aginduz o^e bat ospitalera eroatearren bertan il zan gaixo batek erabili ebana erre ondoren.

Maiatzak 27.- Osasun Batzordearen izenez lau ildako kanposantura eroan ebezanei ordaintzeko 50 peseta.

Bagilla'k 12.- 35,50 peseta Joakin Garmendia'ri, kutsatutako baten gorpua kanposantura eroatearren, kutxaren balioa sartuta, bai eta iru egunetan gaisoaren etxeko atadian egon zan zaindari batentzako eguneko amar erreal sartuta.

Bagillak 30.- 22,50 Manuel Elordi'ri, kutsatutako gaiso baten atadian iñor sartu ez egian zaindari egotearren, eguneko amar erreal ordainduta.

Bagilla'k 30.- 24 peseta Jose Garmendia'ri bere etxetik kutsatutako gorpu bat kanposantura eroatearren, kutxaren balioa sartuta, eta eroantzaille bakoitzarentzat 4 peseta sartuta.

Bagilla'k 22.- Jose Agustin Unzueta'ri, 289 peseta, 578 pertsoneri naparriaren aurkako ezketagaitik.

Uztailla'k 8.- 8,50 peseta Anselmo Aretxaga'ri, gaisoen jantziak egosi eta garbitzearen. 14 peseta Joakin Garmendia'ri, Santa Klaran lau egunetan egon zalako Zaragozatic ondarrutar lez etorrira bere alaba zaintzen uri aretan naparri izurritea zabaldu ondoren.

86ko Urtarrilla'k 15.- 6,60 peseta naparreriz kutsatutako bateri okela, esne, azukre eta garagar urundua emotearren eta ospitalerako burdikada bat egur ordaintzeko.

Sukar oria (Cólera morbo)

Urrilla'k 12.- 522 peseta Osabidetza Batzordeak izentatutako sei gorpu eroateen alogertzat. Oneik Abustuaren 14'ko goizeko amarretan asi eta Urria'ren 11'ko goizeko amarrak arte zerbitzu orretarako adi eta gertu egon ziralako, bakoitzarentzat eguneko sei errearen orde.

EDARIAK

Gure gizaldiagaz amaitu ziran maastiak Ondarroan, baiña Korteta, Arriandieta, Mustu-txurru, Arta eta beste zeinbat tokitan maastiak egozan eta sagastiak.

1.625 urte arte ez zan Ondarroa'n ardaurik sartzen oituraz beintzat eta urte orretan asi ziran ekarri nairik. Orretarako Udalak gizon bat bialdu eban Elorrio'ra ara ardaua eraoten ebenekaz berba egitera.

(“Item se enbió a Lucas de Icaran a la villa de Elorrio en busca de quien proveyese de bino y ocupó dos días y por ello cinco reales.”) Udal aginduak. 1.625

1.629 urtean Andaluzia'ko ardaua eta Galiziako Ribadabia'koa ekarten asi ziran, itxasoz.

1.659 urtean ardau ori ekartea galerasoten asi ziran. Orretarako Udalak agindu zorrotza emon eban. Emendik aurrera ardaurik ez ekarteko ez itxasoz eta ez leorrez, orretarako udalaren baimen berezi barik,

“que desde aora no se haga operación de vino ni por mar ni por tierra a menos que la villa de licencia para ello.” Udal aginduak, 1.659.

Berreundak urte igaro dira, erriko txakoliña amaitu arte ardaua saltzera ataraten lagaten ez ebela..

“Que durante se está en venta el chacolí, se venda clarete solamente a aquellas personas que tengan certificado médico cirujano de serles perjudicial el uso del chacolí”

Udal aginduak, 1.785-VIII-13

Au da, txakoliña saltzeko egoan bitartean, eta nekez amaitzen zan, bertokoa urri ebillanetan, Motriku'ko Mijo auzokoa be ekarten zalako, klareterik iñori ez saltzeko osagille-zirujanoaren ziurtapena agertu ezik txakoliñak kalte egiten eutsala adierasoten.

Alaz eta ba egoan utsuneren bat edo beste ardaua, nai eta mugatuta, edan al izateko. Meza barri eguna gertaten zanean libre egoten zan, bai eta arrantzaleak, txalopa zaintze eta abarrekaitik urtean txaloparen kontura eukiten zituen "txalopa-janetan". Bat edo bi izaten ziran jataldi orreik. Alaz eta ba egoan muga: Soldata, aloger osoa irabazten ebenak euken bakarrik orretarako eskubi-dea, ez soldata-erdika eta abarrek. Au da, mutil egiñentzat eta gizonentzat bakarrik egoten zan ardaua, ez txalopetako mutil gaztetxoentzat.

Baita galerasota egoan nai ebenak etxera zaragia eroatea. "Iñok ez dagiala etxera zaragirik eroan, galdu nai ez ba dau eta beste dukat biko isuna leporatu."

"Que ningun particular pueda llevar pellejo alguno a su casa so pena de perderlo y a más dos ducados de multa." (Udal aginduak, 1.785-XII-4)

Iru taberna egoten ziran errian eta tabernariak euren kontura euken illuntzetan kale-kantoietakako argi-ontziak biztutea. Beintzat ala agertzen da 1.797 urteko agirietan, bai eta 1.828 urtekoetan be. Alaz eta 1,856 urtean bost tokietan saldu eikean. Baiña ba euken zaintze eta muga arda saltzean : Klaretea saltzen ebanak galerasota eukan napar baltza saltzea.

Galerasota baita ardaua errira ekarten ebenak, taberna jaube edo arda saltzaille izatea.

Galerasota baita txakoliña saltzen zan tokietan ardaua saltzea be.

Mandozaiñak ekarten eben ardaua errira, eta bein erriko bidean sartu ezke-ro, au da, kaletan zear asi ezkerro, galerasota euken burdia (karroa) iñun geldit-zea. Kamiñalde'tik sartzen ziran, Kale Andia igaro, Erriberako bide-kurutzean bira egin eta beratu eta Zubi ondoraiño iñun geratu barik ibilteko agindua euken.

XIX garren gizaldiaren erdi aldetik aurrera, bide barriak egitean, tabernak be geituten asi ziran, ardauren zerga (inpostua) izan zalako bide orreik egiteko erriak billatu eban ordaintzeko era.

Orrela, 1.885 urtean ba egozan 28 taberna.

Sagardaua be ugari egoten zan eta txakoliña baiño beranduago galdu zan, Baiña zeaztu daigun zerbait.

Noiztik ezagutzen da txakoliña Ondarroan? Noiztik sagardaua?

Ondarroa uri lez sortzeko agiriak ez dau aitaturten bere eskeintzetan sagas-tirik, bai maastiak.

"...e dó a los pobladores de Ondarroa dentro de estos términos sobre escritos tierras e viñas..."

Agiri berbertan, :

"...e si estos pobladores fallaran a ningun ome en su uerta e en su viña que haga daño, peche cinco sueldos para el dueño..."

Beste baten au:

"...e por do que fallaren agoa para regar piezas, o viñas, o molinos, o huertas, que les tomen".

Nun dagoz sagastiak?

Sortzeko agirian ez aitatu arren, Ondarroa beste erri euskaldunak ez lakoa ete zan?

Rozter, frantzetarrek diñonez, Frantziko sagar-ondoak Bizkai'tik eroanak dira. Jakiña da esaera orretan Bizkaia zabal artu bear dala.

Beste batzuen eritziz eta idatziz, gure arrantzale zarrak Terranoba'ra joaten ziranean, ainbat sagardau upel eroaten ebezala euren txalopetan euren edaritzat eta baita angoei leorreatan eragiten eutsezan lanak ordaintzeko. Eta jakiña da ondarrutarrak ba eukela alde areitara joateko oitura.

Baiña egia da sagardauari buruz ez dala barri asko billatzen gure liburuetan.

Ukatu eziña da erriak arduratzen zirala sagardaua egiten zanean garbi ataraten. Bizkaiko Forua, bere 15 lege eta 34 atalean, aginte gogorrekoa zan orretan.

Zenbat txakolin artzen zan Ondarroan?

Ziur dakiguna au da: erriak urterako bear ebana errian gorde eta lagaten alegintzen zala.

Txakoliñaren mesedean kanpoko ardauei galerazo egiten eutsela sarrera, ala komeni zanetan.

Gorago agertu dogu 1.659 urteko erabagia.

Txakoliñaren uztaren ardura egoten zan erriko agintarietan. Ala,

1.700 urtean 1.686 azunbre egozala esaten da, erriko bodegetan.

1.710 „ 2.050

1.711 „ 2.595

1.712 „ 3.830

1.713 „ 4.311

Ardau klaretea saltzeko askatasuna emoteko, txakolindunak zin egin bear izaten eben euren artutakoa amaituta eukela.

1.749 Azilla'ren 2'an gure Udalak erabagi oneik artu zitun:

Txakoliñarentzat salneurriak eta sisak ipintea era onetan:

Udaleko uzta 70 barrikatik goratzen ez ba zan txakoliñaren azunbrea 20 laukotan salduko zan eta sisa barik.

Uzta 70 barrikatik gora, baiña 260 barrikara eltzen ez ba zan, azunbrea 20 laukotan salduko zan eta azunbreko lauko bat sisatzat.

Uzta 260 barrikatik gora ba zan, saltzaille eta erosle artean saltzeko neurrian eta sisatzat azunbreko lauko bat.

Orrez gain, kanpotik ekarrirako txakoliñak, salduta egoanak, 12 marau eukiko zitun sisatzat azunbreko eta bodegetan oraindik saldu barik egoanak 32 marau.

Ardau saltzailleei, sisa ipini al izateko, zenbat euken eskatu, orrela zer-esanak eta lapurretak galeraso al izateko.

Andik zazpi urtera, beste salneurri oneik erabagi ziran:

Uzta 150 barrikatik igaroten ez ba zan, azunbrea 24 laukotan saltzea eta sisa barik.

Uzta 150 tik gorakoa ba zan, baiña 200era eldu ez, 24 laukotan azunbrea saldu lauko bat sisatzat gainduta.

Uzta 200 barrikatik gorakoa ba zan, 20 laukotan saltzea, eta beste lauko bat sisatzat.

1.785 urtean artutako erabagiak, gorago irakurri leiz.

Udal liburuetatik kanpo ba dagoz txakoliñari buruzko beste jakingarri batzuk.

1.818 urtean Bizkai'ko Aldundiak zeaztasun batzuk eskatu eutsezan eleiz eta parrokiatako arduradunei. Ogei itaunen artean txakoliñari buruzkoa be ba egoan. Abadeena eta beste zati batzuk kenduta, parroki berberari jagokozan irugarren zatiari buruzkoak.

Eta erantzunak oneik izan ziran:

Urtea	Radak	Azunbreak	Kuartilloak
1.813	16	-	-
1.814	5	4	1
1.815	4	3	1
1.816	0	0	0
1.817	6	0	3

Oi dan lez uztaren goraberak, utsune eta abar.

Neurriei buruz, batez be "rada'ri buruz azalpen eu egiten da: "*Se previene que la rada de chacolí se compone de diez azumbres de diez y siete onzas el quartillo, que el precio corriente de cada rada es veinte reales y se advierte para mayor claridad que el azumbre de chacolí se compone de cinco quartillos de diez y siete onzas*".

(Parrokiko Artxiboa)

Bear ba da Amarrenak emotean eleiztarrak zintzotasuna erakutsiko ebela kontuan euki ezker, baliagarri izan leike Parrokiko agirien artean dagon "Razon de la Tazmia de la Parroquial Santa Maria de Ondarroa, 1.828."

An ikusten da txakoliñaren amarrenak, baserritarren artean, iru baserrik bakarrik ordaintzen zituela:

Burgo baserriak,	35 azumbre
Zalduburu baserriak,	5 „
Arteta baserriak,	36 „

Ordez ainbat dira kaletarrak, berrogeita bat, txakolin amarrenak eskintzen ebezanak.

Ara urte orretako zerrenda:

Aguirre Jose Antonio	23 azunbre.
Aranzamendi Franzisko	30 „

Arrasate Sebastian	87	„
Arriola M ^a Antonia	1	„
Arrizabalaga Migel	4	„
Azpiazu Manuel	13	„
Azpiri Franzisko	21	„
Badiola Mikaela	12	„
Badiola Bta	88	„
Balzola Martin	40	„
Basterretxea Franzisko	90	„
Bengoetxea Bizente	30	„
Egiguren Jose Iñazio	15	„
Eizagirre Santiago	21	„
Etxaburu Felipe	7	„
Etxaniz Lorenzo	30	„
Etxabarria Ana	4	„
Garramiola Antonio	10	„
Goitia Paula	71	„
Guenaga Manuel	27	„
Gelaloro F. Xabier	80	„
Ibaibarriaga Domingo	60	„
Lekue Gabriela	36	„
Lezea Candido Jose	21	„
Meabe Ana Maria	30	„
Mendibelzua Juan Bta	51	„
Mugartegi Jose	66	„
Mugerza Bentura	5	„
Oñaederra Santiago	24	„
Osa Ramon	20	„
Ostolaza Florentina	36	„
Pagoaga Manuel	28	„
Pagoaga Pedro	28	„
Pagoaga Ramon	3	„
Solabarrieta Martin	14	„
Unanue Jeronimo	5	„
Urkiaga Manuel	15	„
Usobiaga Felix	40	„
Zubikarai Iñazio	<u>84</u>	„
Erritarrenak guztira	1.270	„
Baserritarrenak	<u>76</u>	„
Danetara	1.346	„

Kontu egin kopuru au ez dala txakoliñaren kopuru osoa, amarrenetan emoten zana baiño.

Geroago zerbait goratuarren, gure gizaldiaren sarrerarako txakoliña zeatz galdu zala Ondarroan esan giñei.

Sagar eta sagardauari buruz esan geinkena au da: Gizaldiaren azkenetara sagardau ugari ezagutuarren, bideak ugaritu eta erosotu ala, ardaua gero ta errezago sartzan asi zala errian, sagardauaren kaltean.

Era berean piñua ezagutzen asi ordurako, sagastiak piñadi biurtzen asi zira-la.

Ondarroa ta Berriatu, sagar kontuan, bateratu egiten ziran. Bateko nai bes-teko sagardau eta tolarak bardin.

Inguruko sagardaua balandratan bialtzen zan Bilbora. Eta an "Sidra de Ondarroa" lez entzute berezia lortu.

Inguruko sagardau egille eta tolare jaubeak, gizaldiaren sarreran izen oneik eukezan:

Agirre, Antonio; Alkorta, Rafael; Aranbarri, Antonio; Azpiazu, Gregorio; Beristain, Manuel; Txurruka, Raimundo; Eizagirre, Jose D; Gabilondo, Juan de Dios; Gorostidi, Domingo; Guenaga, Jose Tomas; Guenaga, Silverio; Ibaibarriaga, Domingo; Ituarte, Domingo; Juaristi, Antonio; Juaristi, Jose; Larrañaga, Feliciano; Lizarzaburu, Migel; Markuerkiaga, Severo; Rementería, Juan; Sainz, Paulino; Uriarte, Domingo; Uriate, M^a Ignacia; Urkizu, Doroteo; Urresti, Antonio; Urresti, Hilario; Urresti, Iñazio; Urresti, Juan.

Eta gure erri eta inguruko sagastietan batzen ziran sagar motak ugari ziran eta onelako izenak emoten eutsezan:

Adan-sagarra; Adar-mendela; Akabazi, Aixerdi; Alemanixe; Allaluzi; Andoaiñe; Asoilokoa; Balantzategi; Ballestei; Baraiku; Bereza; Billafranka; Bost kantoi; Burgo; Diburtzia sagarra; Dornegixe; Errege sagarra; Errero sagarra; Garau andi; Garratza; Gorri garratza; Gorri txikia; Gozoa; Ibarre sagarra, Ipurdi zabala, Lastur; Libra; Lomaixe; Madari sagarra; Moko baltza; Panpandoka; Sagar mingotza; Sagar zuria; San Frantzisko; San Juan sagarra; San Pedro; Tirtirrixte; Txakala; Txernebille; Txabillu; Txistu; Txori sagarra; Urdiña; Urtebetea; Urte bixa.

Sagardautegiak, sagardandegiak, edozein egaletan aurkitzen ziran errian. Txomin Agirre'k, bere Kresala'n, onela ikusten zitun:" Sagardandegia bada, kale-artan bertan edo arri mailla bat igonda idoroten dan kortea edo tresna zarrak gordetzeko gelatxu bat, beian lurra, goian amarauna ta egur biren gañean upel batzuk erreskadan dituala; sagardaoa ona izan dedilla ta non jarririk egon ez arren ezta izaten ardurarik".

BIDEAK

Ondarroa'ren ardura eta kezka bizia izan zan luzaro baten Motriku'rako bidea.

Beste itxas-erriak lez, Ondarroa'n bideetan ikusten eban bere portu eta arrantzaren etorkizuna.

Origaitik Udal eta Arrantzale Kofradiaren ekiña, betiko ekiña, orretan.

Ikus ortazko agergarri batzuk:

1.775-I-30.- Udal batzarra. Berriatu'ri idazkia, Arrigorri'ko bidea ezin ibilteko eran egoalako.

1.776-I-30.- Sindikoaren idazkia berriatuarrei: "Udalak atzo artutako erabagiz agindu eusten sindiku lez zueri idazteko, zuen lurraldean dagon bide ori ezin ibili eta igaroa dala esaten, zubiaren ertzean asi eta Arrigorri'ko muturre-raiño eta nigaz alkartzea eskatzeko bide ori konpontzeko erabagia artu dagizuen. Jakin egizue lengo baten, egun berean, zaldi talde batzuk jausi zirala aldatz orretan, eta atzo be Motrikuko emakume bat, Eleixaurren ibiltarientzako egiña dan be aldeko bidea lañan-labana dagolako eta benetako arriskuan sartzen diralako bertatik dabiltzanak."

1.786-III-1.- Arrigorrirako bidea, Gipuzkoa'ren mugaraiño konpontzea eskatzen, uriak erdia ordainduta eta beste erdia Arrantzale Kofradiak egingo dauala-ta.

1.786-III-19.- Gabriel Kapelastegi'k jakin eragiten dau Gernika'ko lanak amaitu bezin laster etorriko dala bide ori ikertzera.

1.786-VI-5.- Astillerutik Gipuzkoarako bide konpontzearen aldeko agirian esaten da uste dala Korrexidoreak onartuko dauala, bideetarako zortzirena ezarten dana orretan eralgitea.

1.786-VI-25.- Durango'ko Nikolas Landazuri'ri eskabidea bidea konpontzeko konturako diru-zentzoan 2.100 dukat aurreratu dagiazan.

1.786-VII.- Gipuzkoa'ri asarrea, Motrikurako bidea Mijoa auzoan egoera txarrean dagolako.

1.786-III-12.- Antonio Launeta, Santa Klara Arrantzalien Kofradiako Maiordomuak, Lorenzo Larrinaga, Tomas Larrinaga, Tomas Urkiaga, Domingo Zuazaga, Antonio Sasturri, Xabier Arrasketa, Franzisko Aranzamendi, Baup-tista Agirre, Iñazio Aresti, Joseph Goitia, Pedro Abaroa, Juan Bta. Uribe eta Jose Laka, txalopetako jaubeak izenpetutako txostena.

Bertan diñoe Deba eta Motriku, Bergara'rako bide nagusian, bideak egiten dabilzala merkatariak euren portuetara joan daitezcan arraiña eroatera, eta Astilleru gainetik Motriku arteko bide ziur eta eroso bat egin ezik, mandozaiñik geienak Motriku'n geratuko litzatekezala, Ondarroa'ko portuari kalte andia erakarriaz. Ba dirala iru urte inguru mandozain batek bere zaldiak eta arraiña bide onetan galdu ebazala, mendiz bera aitzetara jausi zalako.... eta origaitik bide ori egitea eskatzen dabela, zoritxarrik egon ez dedin eta mandozaiñak eze-lako bildur eta aitzaki barik etorri daitezcan eta Kofradiak itxaro leikezan onurak lortu.

1.788-II-2.- Gipuzkoako bidearen lenengo eta bigarren zatiaren konponke-ta bere kontura artuta daukanaren idazkia: "Arriola berezi-berezia aurkitu dala mendietako pendizean, bide zabaltze eta zulatzetan, danetan benetako arri gogorra dalarik, eta osoan ez ba da be zati batzuetan burututa dagon emeretzi erreal eta erdia birritan be kostatuko dala jakin eragiten"

1.788-III-14.- Ibero tar Frantzisko azpeitiar gaituari etorri daitela eskatzen, bide eta bidea egitea pentsatuta dagon ingurua aztertzeraz.

1.788-VIII-20.- Migel Sustaeta'ren idazkia esaten, bideko azken zati bi bere kontura artzeko gertu dagola, Ibero'ren aurrekontuan esaten dan baiño merkeago.

1.788-X-12.- Azkoiti'ko Domingo Izagirre'ren txostena, Arrigorri'ko bideko bigarren eta irugarren zatiko egiturari buruz.

1.788-XI-9.- Manuel Oyarzun'ek Arrigorri'ko bidearen begirale lez laguntzaren bat eskatu.

1.789-I-18.- Astillerutik Gipuzkoako mugarako bideari buruz Korrexido-rearen debekua eztabaidatzen da. Denborarik ez galtzeko 2 eta 3 garren zatietako paperak berari bialtzeko.

1.789-III-17.- Batzarra asi eta bereala Migel Angulo, erri onetako ardura-dun lez eta Berriatuko Jose Ibarra eta Domingo zabala, alkate eta ziñegotziaren artean izenpetutako ituna irakurri zan. Uri au, Ondarroa, bide ori bere kontura egiteko gertu agertzen da erri bien muga dagon Astilleru eta Ama Errukitsua-ren ermita dagon lekutik Mutrikukoagaz bat egin artekoan. Orretarako Berria-tu'k saldu egiten dautso Ondarroa'ri astilleru gainean mugatuta geratzen dan mendia, bide orretan berak ordaindu bearko ebanaren orde z bidea egin eta bera zaintzen, itun orren bidez Ondarroa geratzen dala ardura orregaz.

1.789-III-25.- Bide konponketa artuta daukanak eskatzen dabe bideko egalak egiteko inguruan dagon arria erabilten baimentzeko, nai ta ez kare arria erabili barik.

1.789-XI-2.- Bide konponketa geiegi luzatzen duala eta zati batzuk igaro eziñean dagozala esaten da eta origaitik konpontzalleei ainbat ariñen tarte batzuk konpontzeko, kalterik gertatu ez dedin, bestela neurri berezi batzuk artu bearko dirala zemaituaz.

1.807.- Udal batzarreko gaietan: Arrigorri, Errenderi eta Bidebarrieta'rako bideen egoerari buruzko asarrea agertzen da.

1.818-I-25.- Zubitik Motrikurako muga arterako bidea egoera ezin txarra-goan dagola.

1.819-V-2.- Domingo Ibaibarriaga, abots eta bizilagunak jakin eragin eban Gernikako Batzarretan errietatik Durango'rako bideak zelan egin bear ziran erabagi zala. Egiturako, Lekeitio'ko bidea eta Ondarroa artekoa eta ingurutako errietakoa bigarren saillean geratu zirala.

Lekeitio'k beste errien onura eta egokitasunei begiratu barik, toki galdue-tatik zear egin nai zitula bide orreik, ezelako ontasunik besteentzat ekarri barik, batez be Berriatu, Xemein, Markiña, Etxebarri, Ziortza eta gure portu onentzat.

Origaitik Markiña'n batzarrak egitea eskatzen eban eta orretarako ordezkariak aukeratu ziran.

1.819-V-16.- Illaren bian Markina'n egiteko dan bideetazko batzarrerako, Jose Luis Murga aukeratu zan.

1.828-VIII-16.- Bermeo'ko bidea egin eta konpontzeko uriak ordaindu dagiala berari dagokiona, orretarako, alkar arteko ordainketarako irurogei milla erreale batzeko Kutxari.

1.851-III-26.- Udal batzarra, Ondarroa eta Motriku arteko bideari buruz. Batzar onetan Ondarroa eta Motriku'ko ordezkariak, Otsaillaren 24'an Arbelaitz'en batu eta uri bien arteko bidea egin aurretik artutako erabagiak irakurri ziran.

1.- Bide ori zabaltzea lortzen ba da, ezin ipini al izango dala ordainketarik bertan eta Gipuzkoaren aldetik urrean dala Mendaro aurretik, eta Bizkai aldean Berriatu'tik ona.

2.- Bide orretan ezin ipini izango dala kanpoko arda Tabernarik batez be Motriku'ko Madalena inguruik Ondarroa'ko porturaino; bakar-bakarrik Mijoa auzoan bertan artzen dan sagardau eta txakoliña saltzea laketu, eta akordu onek indarra euki dagian aurrez bakoitzaren lurraldetako Aldundietatik orretarako baimena eskatzea, urietako zergak kalterik euki ez dagien.

3.- Gipuzkoan bideak zabalik egonaz uri onetaraño eta Bizkaian Ondarroa'raiño, eta uri bien artean geratzen dan bitartea laburra dalarik, eta kontuan eukita bide au bientzako onuragarri izan leikela, uri bakoitza beartuta geratzen da emendik aurrera bide ori egitearen alde alegiñak egitera eta orretarako Aldundi biak alkartu eragitea, egoki ba deritxe.

Itun au Motriku'ren ordez izenpetu ebenak:

Antonio Etxabe Sustaeta, alkatea.

Pedro Larrañaga, ziñegotzia.

Franzisko Andonaegi, ziñegotzia.

Jose Antonio Osa, idazkaria.

Eta Ondarroa'ren aldetik:

Pedro Prudencio Ibañez de Aldekoa, alkatea.

Franzisko Bentura Aranzamendi, alkate ordea.

Jose Andres Madariaga, idazkaria.

Itun onen kopia bat Aldundira bialtzea erabagiten da, egitasmoa batez be Portu onetarako onuragarri eta bear bearrezkoa dalako.

Mutriku'rako bideak, onuragarri izateko, Bizkaia'n Markiña'tik Ondarroa'ra etorranagaz alkartzea eskatzen eban.

Asera baten gaituak eragozpen ugari ikusten eben lotuera ori lortzeko. Batez be Artibai ibaiaren gaiñetik igaroteko zubia zan buruauste.

Ondarroa'n, erriberan, kale artean zubi barri bateri sarrera emoteko trabak egozalata, egoan zubi bakarra, erromaniku erako zubiari bere arkoak beratu eta beragaz baliatzea pentsatu eben. Baiña arrantzaleak beste arrazoi andi bat erakusten eben portu eta ibai zan Artibai gora ibili bear izaten zirala euren txalopen aga eta maste luzeekaz.

Orrela arrantzaleak euren aldeztuten gogor ekin eutsen:

1.854-I-29.- Udal batzarrean Arrantzalien Kofradiako idazkia irakurri zan. Fernando Ituarte'k izenpetzen eban Kofradiaren izenean eta bertan esaten zan:

Jakiña da, zabaldua dalako, uri onetatik Gipuzkoa'ko mugararteko Bizkai'ko bidea, beste gauzen artean, zubia ainbesteko baten beratuta egiteko dala.

Beratze orrek Portu onetan dagon gintza bakarrari mesedea ekarri orde, kalte andiak ekarri leikioz, zuek eta erri osoak ikusten daben lez, batetik zubi orretatik doan garbitokirako uren tututegia etengo daualako, bai eta sareak edo ta belak eta txalopetako ainbat tresna sekatzera atara eta eskegiteko zerbitzua galdu eragingo daualako, eta azken baten Erreterira karga artzera sarri joaten diran zama txalopentzako kaltegarri litzakelako.

Orrela Arrantzalien Kofradia gaur "zubi-zarra" deitzen dana egoan lez itxi eta barri baten alde agertzen zan.

Udaleko gizonak irakurri ta esan eben ez eukela eskubiderik erabagiteko eta idazkia inguru onetako bide barriaren Zuzendaritzari bialtzea erabagi zan.

Azken baten Arrantzalien eskabidea kontuan euki zan eta Artibai ibaiaren gaiñean zubi barri egin zan, 1.858 eta 1.859 bitartean amaituaz.

Lekeitio'rako bidea

Lengo gizaldian, Bizkai'ko bideen artean, ba egoan beste utsune bat: Lekeitio eta Ondarroa bitartekoa.

Ba egoan bidezka bat, Lekeitio, Mendeja eta Goimenditik zear Ondarroa'ra sartzen zana. Baiña orrek ez eukan mesede andirik, oiñezko eta burdi txikientzat ezik.

Alako baten asi ziran erriak alkartu bearreko ardurak, eta egin zan taiuketa.

Ondarroa'ko udalak, 1.864 urteko Maiatzaren 19'an, Lekeitio'ko bide onen taiuketa ontzat artzea erabagi eban.

Udal batzarreko erabagiak au diño:

Udal batzarrak, ao batez autortu eban, nai eta orrek neke asko artu eragin, gertu egoala uri au urtero lau milla erreal emotera, orretarako atarako ziran lau milla ogerlekoren mozkiñei euneko bostean erantzun al izateko.

Azken baten bide barria 1.875 urtean zabaldu zan.

Bideak eta edariak dauken alkar arteko zer ikusia, erriak ardauei ezarritako zerga obeto zaindu al izateko euren artean egiten zituen itun eta konponketetan igarten da.

Gure inguruko bideak asmatzean egindako akordu bat 1.857 urtean Ondarroa, Berriatu, Xemein, Markina, Etxebarri eta Ziortzako ordezkarien artean egin zan.

Emeterio Baskaran, Markina eta inguruko eskribadu zanaren aurrean batu ziran Manuel Maria Murga, Jose Andres Madariaga, (Ondarroa'tik) eta Jose Iñazio Anakabe, Franzisko Aretxabaleta, Pedro Eizagirre, Pedro Mari Rekalde, Diego Mugartegi, Migel Jose Ibaseta, Joakin Urkidi, Juan Kruz Arrate eta Juan Pablo Fruniz, osagillea eta abar.

Eta erabagi oneik artu, besteen artean:

1.- Ondarroa'ko urian ezin kanpoko ardauarentzat eta pattarrarentzat tabernarik ipini, gaur daukazan kaletatik kanpo, txakoliñari buruz oraiñarte onartu dan oitura jarraituz.

Markiña'k be ezin ipini al izango dau tabernarik iru puntu oneik sarratu edo mugatzen daben tokitik kanpora: Karmeldarren konbentua, Merzedetarren konbentua eta gaur Egurbide jaunaren etxea dagonetik kanpora.

Berriatu'n, Zubiaurre eta Torre bitartean bakarrik, biak barruan sartzen dirala.

Xemein'ek ezin euki al izango dau tabernarik Bekobenta, Idarraga eta Iruzubieta'ko Olaetxean besterik.

Ziortza'n gaur Iruzubieta'n daukana zainduko da eta Bolibar'en eleiza albokoa.

Etxebarri'n, gaur Ibarluzearen aurrean daukana.

2.- Esandako tabernetatik baten bat Ondarroa'tik Berriz'era egin bear dan

bidetik kanpo edo aldentuta kanpo geratu ezkerro, edo Etxebarrira geroago egin nai dan luzapenetik kanpo, bakar bat eskatu al leikie bide barriaren egalean eta len taberna egoanaren parean, al dala, gaur tabernak dauken bitartea zainduaz eta beti be taberna barria eskatzen dauanan lurraldea izanda.

3.- Etxebarri'k pentsatuko ba leu egitura barriko tabernaren bat zabaltzea gaur bere parroki eta Urkarregi bitartean, batzartuak ados datoz Etxebarrik taberna ori egin al izateaz ibiltarien mesedean, baiña beti be bideetako zergae-tarako araudi onetan onartzen dana zainduaz.

Beste amabi erabagi be artu ziran, danak ardaua nun itxi, errematak zelan egin, arauak beteten ez dabenei zelako zigorrak ezarri eta abar.

Egun onetako itunaren gain beste bat egin zan Markiña'n Domu Santu egunean, ardauaren zergaren errematak alik obetuen egin al izatea billatzen.
(Udal Artxiboa)

URAK ETA GARBITOKIAK

Uren auzia zarra da Ondarroa'n.

Esan lei XIX garren gizaldirarte ez zala garbitokirik be egon.

Artibai ibaiak berea emoten eban eta mare berakoetan, ur gozoa etorran artean egin bear izaten ziran garbiketak, ibai ertzeko toki arritsu eta basa bakoak billatuta.

Zaldupe ingurua zan onetarako egokiena, tokirik garbien lez, eta itxas ura nekezago eltzen zalako: Bestela Zaldu erreka eta ingurutako mendiarteak, erreka zuloak ziranak.

1.903 urtean egin zan garbi toki barria, geroago gure egunetan 1.960 inguruan etxe barriak egiteko osorik beratu eta kendu zana.

Baiña gure lan au 1.900 urte arteko Ondarroa'ko kondaira da eta beste agerrialdirik egotekotan jarraitu bearko litzake.

1.822 urte arte ez da urari buruzko agiririk Udaleko paperetan.

Urte orretan arrantzalien Kofradiaren eskabidea irakurten da, udalari eskatzen errian ur gitxi dagola eta alegin egiteko Burgo'ko iturritik Astillerura ura beratzen, ekarten, egokien deritxozan bideak artuta.

Eta onetan Udalak autortu eban bizilagunak premiñazko eta bear bearrezko dan urik ez eukela, errian kontsumo asko dagolako ez bakarrik biztanleentzat eta itxastarrentzat, bai eta arrain freskua gertuteko be, udako sasoian ur gozoagaz arraiña garbitu bear izaten dalako, geiago iraun dagian eta galdu ez daiten, ur gazagaz garbitu ezkerro gertatzen dan lez.

Eta ori orrela Aldundiari eskaera bat egitea erabagi zan.

1.825-X-11.— Burgo'tik Astillerura ur ekarteari buruz.

Udalak batzarrean erabagi eban, ongarri, merkeago, eroso eta bide laburragoa zala Burgo deritxon iturritik Astilleruetara beratzea, ortarako gaitu batek

bear dan planoa egin eta bere arabera al danik ariñen lanak egiñaz, uriak auke-
ratu dauzan ordezkariak garbitokitizat egingo zan etxeak zelako bereizketak
eukiko dauzan erabagiaz, dagokion garbileku, zaldien edantoki eta bizilagunen
edangarrizta kontuan eukita, orretarako kanpoko ardauari eta edozein mota
ardauri orain uriak geitzen dauzan 24 marauen gain beste lau ezarrita, eta kon-
tuan eukiaz, betirako be garbi geratu daiten, iturriari Burgope deituarren, urak
uri onen aginte eta jaubetasunean urteten dauala.

1.826-VI-18.- Zaldupe'n egin bear dan garbitoki lanak errematara atara
ziran. Baldintzak: Ardauari lau marau azunbreko ipini eta iru illabetetik iru
illabetera ordainketak egin.

Garbitokiko lanen egitura Martin Usatorre motrikuarrak artu eban, baiña
arek Etxebarri'ko Domingo Mendibe'ri emon eutsan bere eskubidea eta Men-
dibe onek bere erantzugille lez Jose Joakin Solozabal Etxebarritarra eta Jose
Malax-Etxebarria mutrikuarra aurkeztu zitun.

1.827-IV-29.- Udal batzarrean Iturribarriko iturria egokitzea komeni zala
ta orretan ekitea erabagi zan.

1.827-IV-29.- Arrantzaleak garbitokian sareak be garbitu leikezala ta eska-
bide ori egin eben. Eta Udalak baietza emon eutsen baiña Baraikuko urak
arrain garbitokira eroan bitartean.

1.828-I-20.- Arrantzalien Kofradiako txosten bat irakurten da.

Bertan diño garbitokirik ez daukan portu bakarra Ondarroa dala eta alegi-
ñak egiteko lonja ingurura ur gozoa eroaten.

Eskabide orreri erantzun naian, erabagi zan alkateak ainbat ariñen Lekeitio
eta Motriku'ra idazteko, zelako eskubideak eskatzen diran erri orreitan garbito-
kiagaitik jakiteko.

Astillero garbitokia

Ainbat udal batzarretan ikutu eta erabili zan garbitokien gaia . Ala bataz beste:

1.826 urteko Urtarrillaren 22'an.

1.826 urteko Otsaillaren 24'an.

1.826 urteko Martiaren 11'an.

1.826'ko Ekainillaren 18'an, baldintzak aldatzen.

1.826'ko Uztailaren 2'an. Erreka bietatik uste zan aiña urik ez etorralla ta
lanak geratzen.

1.826'ko Dagonillaren 26'an, arkitektoak eskatzen daben beeratzeko eska-
bidearen azterketa barria egiten.

1.826'ko Irailla'ren 10-ean, lanen egillea eta arkitektoa ezin konpondu
ziralako.

1.827'ko Apirillaren 20-an, lanen aldaketa egon dalako kostuen goratzea
eskatzen.

1.828'ko Apirillaren 27-1n, konponketa batzuk egin eta lanen kittapena eskatzen.

1.828'ko Maiatzaren 15'ean, lanen kittapena egin eta egindakoa eskuratze-ko.

1.868-III-24.— Udal batzarrean Arrantzalien Kofradiko talde baten idazkia irakurri zan. Buenaventura Etxano, Martin Aristi, Franzisko Arrasate, Jose Antonio Badiola, Migel Egurrola, Rafael Antezana, Ramon Txakartegi, Pedro Antonio Bedialauneta, Iñazio Aremaio eta Juan Jose Egurrola'k Arrantzale eta Itsastarren Kofradiaren izenean Udal Batzarrari adierazten dautse Kofradiak Pedro Jose Zelaia'k zubi-barri egalean ipini nai daben eskabetxeri kabanarako bear dauan ura Kofradiako uretatik emotea erabagi dabela.

1.868-X-11.— Udal batzarrean E. Nafarrete'ren idazkia irakurten da. Nafarrete kabana barria egiten ebillan Markiña'rako bide egalean eta ur gozoa bear ebala ta Udalari Emetiko Errekatik etorran uretik bear ebana emotea eskatzen eban.

Udalak, batzarrean eskabidea onartu eta eskatzen ebana agindu eutsan.



Lenengo urak.



ERREGEAREN GORAPEN ETA ALDARRIKATZEA

Lengo gizaldian Ondarroa, politikan, erri banakatua izan ba zan be, karlatar aldeko geiago zan.

Eta gerratea asi zanean, goikoen aginduz, Carlos V erregetzat aldarrikatze-ko aukera egon zan.

1.833ko Urrilla'ren 9'an Udal batzarra osotu bear eben gizonak batu ziran. Baiña udaletxetik kanpo. Ez diñoie paperak zegaitik. Alaz eta Errege aukeratze edo Errege gorapena egin zan.

Ala irakurten da egun orretako Agirien liburuan:

“...Batzartuak jakin eben alkateak Aldunditik berbazko mezua artu ebala. Eta esan eban gaiak eskatzen eban ospetasun betez gure Jaun don Carlos M^a Isidro de Borbon eta de Borbon Erregetzat ezagutzen ebala eta ala Errege eta Jaun lez Karlos V garrentzat autortu, eta agintzen ebela Aldundira txosten bat bialtzea era orretan alkateak eta idazkariak izenpetuta.

Une onetan eldu zan batzarrera Antonio Garramiola, uri onetako bizilagun ziñegotzia, eta Agindu au jakiñaz batera bera be ezaupide eta autorpen orren aldeko zala beste guztien antzera.

Bereala, eta edozer gertatuta be, esan eban mezu bi bialdu cutsezala udalzain bitartez Candido Jose Lezea'ri, eta bere menpetasunik eza eta batzarrera be ez etortea kontuan artuta, irugarren dei bat bialdu jakola Sindiku eta Juan Bta. Sustataren bidez, eta oneik autortu ebenez lenengo erantzuna gaixo egoala izan zala, gero alkatearen etxea ez dala udaletxea, eta azken baten ez zala aurkeztuko.*

Illaren azkenean beste batzar bat egin zan gai beratzaz, au da, Errege goraberatzaz jardun eta erabagiteko.

Batzarreko esanetatik igarten da aurreko batzarra alkatearen etxean egin zala eta salaketak egon zirala orrela eskutuan batzea, maltzurkeriz batzea zala-ta.

Barrero gure Erregetzat Karlos V garrena jauna aldarrikatu zan.

Zeaztasun geiagoz udal batzarrean au esan zan:

“.....Egia dala Alduna illaren 9'ko goizean etorri zala eta alkatea egun bereko gabeko amaiketari, eta bereala Udal batzarrera deitu ebala Alkatearen etxean.... (liburuan esaera konpondua dago eta ezin da ulertu) eta zerrendan izendatzen guztiak batzartuta egozala ao batez egin zan Karlos V garrenaren gorapena. Bertan irakurri zan baita Valdespina markesaren deia eta aldun jaun-en deia be eta beste bat Juan Goikoetxearena eta erregea aldarrikatzeari buruz aldunak arpegiratu eutsen alkateari erriaren borondatearen aurka egin zala, erriak agirian egitea nai ebalako eta ez eskutuan, eta onen aurka egon zala alkatea, egin zan lez egitea nai izan ebalako alkateak.

Eta batzartuak alkatearen agerpena kontuan eukita esan eben alaxe izan zala eta onartzen dabela bere azalpena, esanez erriak ez ebala nai leporatzen dautsen zabaltasunik, eta bera ukatu egin zala eskutatzerara.

Ortik ikusten da ez alkateak, ez udalak, ez ebela maltzurkeriz jokatu, batzartuen adostasunez baiño, eta uste barik zerbaitetan uts egin ba dabe, agindu onen bidez zuzentzen dabela eta ala bear ba da barrero be aldarrikatzen dabela Karlos V garrena gure Erregetzat.

(Libro 7 de Decretos)

“...en este estado enterados todos los concurrentes de la Orden verbal que su merced ha recibido de la Diputación general de esta M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya=Dijeron unánimemente que reconocen con toda solemnidad que se requiere por Rey nuestro Señor a Dn. Carlos Maria Isidro de Borbon y Borbon, y proclamado como a tal Rey y Señor Carlos V, ordenando, como ordenan, que para los fines conducentes se pase oficio a la misma Diputación suscrita por el Sr. Alcalde y Secretario.

En este estado llegó don Antonio de Garramiola, igual vecino concejante de esta sobredicha villa quien enterado de esta Decreto se aderió a el reconocimiento y proclamado así como los demás. En seguida y para todo evento dijeron que Dn. Cándido José de Lecèa se le han pasado dos avisos por medio del Ministro Alguacil y en vista de su inobediencia y no presentación a este Ayuntamiento se le ha pasado otro recado atento con el Provisor Síndico gral. y Don Juan Bta. de Sustaeta, a quienes según su relación les ha constestado al principio que está indispuesto, luego que la casa de su merced no es Sala de Ayuntamiento y últimamente que no se ha de presentar”.

GERTAERA NEGARGARRI BAT ERREENTERIKO PATROKUA ETXEKOETAN

1.662 urtean gertaera negargarri bat gertatu zan Markiña'n emengo seme bigaz.

Gertaera ori Maria Lope Renteria'k agertu eta kontatu eban urte orretako Abustuaren 31'n, Ondarroako alkate zan Aparicio Goitia eta eskribadu zan Joan Bustinzuriaren aurrean egindako salaketan.

Maria Lope Renteria ori Juan Andonaegi Bidarte Renteria'ren alarguna zan.

Bere esanetan, il aretako amazortzian, barikuz, Markiña'ko urian il eben bere seme zarrena zana. Seme ori familiko etxe eta loturen eta maiorazgoen eskubidedun zan, urtean milla ta berreun dukat baiño geiago emoten eben ondasunena, burdiñola, errota, baserri, baso eta ezelako zorrik ez euken jaubetasunena, ogeitabat urteduna eta ezkongaiia. Zaldun andi zan, balio andiko mutilla, eta origaitik uriko agintari eta epaikari

Eta egun orretan lagun ugari batu ziran kuadrillan, arma ta guzti, eta mutilla ezelako txarrik pentsatu barik berè anai gazte Juan'egaz Markiña'ko Arrabalean dagon Bidarte Torreko gure etxean sartzera eioazala, egun areitan ni etxe aretara joanda negolako, esandako seme ta besteekaz, itsukeriren bat gerattu zan.

Kuadrilla aretako lau mutillek Uriko atean itxaron eutsen eta bisarma bategaz sama guztia ebagi eutsen etoikeri ta zitalkeriz.

Eta ilda beratu eben.

Orrez gain anai gaztea txuzoagaz jo eta gorputz guztia zauritu ondoren ildakotzat laga eben eta ori egin ondoren iges egin.

Eta Markiñako alkatea agiri eta azterrenak artzen asi ordurako batzuk baitu ta preso ba dauz be, bildur naz gauza garbirik eta zuzentzarik lortuko ez ete dodan, euretariko batzuk kapa eta espatadun zaldunak diralako eta alkarregaz senitartean sartuak.

Origaitik, zuzentza egitea nai ebalako, gertaera ori salatzen ausartu zala esan eban Maria Lope Renteria, ildakoaren amak.

Eta geitu eban biaramonean obiratu ebela semea Ondarroako parrokian euken sepulturatan eta seme gazteagoa, iltzat itxi ba eben be, iges egitea lortu ebala, nai ta benetan zaurituta geratu.

Agerpena orretan gertatu zan.

Ez jakin neska kontu edo familiko goraberen bat tartean egongo ete zan, edo ta etheen bekaizkeriren bat, orduan sarri gertaten ziran lez. Beintzat salaketan esaten dana gogoratu: iltzailletako batzuk kapa ta espatadun zaldunak zirala eta alkarregaz senitartean sartuak.

Dana dala, arazo au ez zan bereala ixildu.

Errenderi'ko Mari, Maria Rentería zalakoz agertzen zana, ez zan bereala gelditu ez eta alegiñetan etsi.

Semea il eta bereala Ondarroa'ko Alkate eta eskribadu aurrean egin eban salaketa.

Baiña Bizkai'ko Korreximendu'ko Artxiboan dagozan Ondarroa'ri buruzko fitxaen artean, ba dagoz amaika fitxa eta euren agiriak gai oneri buruz.

Guk fitxak euskeratuko doguz eta onetan arduratuak bertan sakondu al izango dabe euren jakin-miña. Baiña fitxak, ama baten ardura, kezka, larrialdi eta alegiña erakusten dabenik ezin ukatu.

Ara eurak:

1.662.- 08/28.

Mari Lope Renteria'ko alargunak suspertutako gaizkintza auzia, Markiña'ko auzokide zan Marina Aretxabalaga'ren aurka, Jose Andonaegi bere senarraren erailketa eta bere seme Juan eta Ondarroa'ko bizilagun zan Juan Gartzia Andonaegi koñatuari egindako zauriakaitik.

1.663.- 08/09

Juan Gartzia Andonaegi Bidarte Renteria, esandako abizenen etxejauntzako zanaren alargun zan Mari Lope Renteria, Ondarroa, Berriatua eta Xemeingo bizilagun zanak, ama lez eta Juan Andonaegi'ren zaintzaille lez suspertutako Gaizkintza Auzia, Epaikidetzari agindu oneik Markiña'ko bizilagun dan Maria Iturriza'ren aurka doaz, guzurrezko testigantzagaitik.

Jakin eragiten da lege auste ori Antonio Olaetxea Aranburu eskutatzearren

izan dala, beste batzuekaz batera Jose Andonaegi'ren erailtzailletzat salatua zalako, eta bere seme txiki zan Juan'eri zauriak eragitearren.

1.663.- 08/10

Gaizkintza auzia.

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizilaguna zanak, berenez eta bere seme Juan'en ize-
nez, Rafael Olaetxea Aranburu arotza, Markiña'ko bizilagunaren aurka eta
bere ezkontideen aurka, Jose Andonaegi Bidarte Renteria'ren eriotzagaitik eta
Juan bere anaiaren zauriakaitik suspertutako Gaizkintza auzia.

1.663.- 00/00

Gaizkintza billaketa

Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen oneitako etxejauntzen jau-
bea, Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizilagunaren alarguna dan Maria
Lope Renteria'ko Mari'k berenez eta bere seme Juan'en izenean, Xemein'go
bizilagun dan Diego Urkiza Otaola'ren eta bere ezkontideen aurka suspertuta-
ko gaizkintza billaketak, Jose Andonaego'ren erailketa eta Juan bere anaiari
eragindako zauriakaitik.

1.663.- 08/19

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen
oneitako etxejauntzetako jaubea, dan Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizi-
lagunaren alargunak, Juan Andonaegi'ren ama eta zaintzaille lez suspertutako
gaizkin auzia.

Auzi au uri onetan bizi dan Mari San Juan Aranburu'ren aurkakoa da,
guzurrezko autormenagaitik, Diego Aranzeta, bere emazte, Mari Beltran Are-
txaga'ren emazte, Irarraga'ko tabernarien gaingo eta bertako neskamien orreta-
rako eragiñagaitik. Gertaerak bere seme Rafael eta Antonio Olaetxea Aranburu
eskutatearren izan ziran, Diego Urkiza Otaola'gaz batera salatuta egozala Jose
Andonaegi'ren eriotza eta eskalearen seme gazte dan esandako Juan'en zaurie-
kaitik.

1.663.- 08/20

Gaizkintza auzia.

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen onei-
tako etxejauntzen jaunaren alarguna danak Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go

bizilagunak , berenez eta bere seme Juan'en izenean, Juan Urriola arotza, Markiña'ko bizilaguna eta bere ezkontideen aurka suspertutako Gaizkintza auzia, Jose Andonegi'ren eriotza eta bere anai Juan'eri eragindako zauriekaitik.

Eskaleak Anbrosio Urkiza'ren aurka sartutako salakuntza sartzen da, erailketagaitik salatutako bere seme Dirgo Urkiza Otaola, Xemeingo bizilaguna eskutatzearren, bai eta Juan Kaminos, Nikolas Galdona, Antonio Iturribalzaga, Antonio Agirre Barraikua eta san Juan Deustua, itxas-gizonak, Mutriku'ko bizilagunak, esandako Diego'ri igez egiten laguntzearren.

1.663.- 08/20

Gaizkintza auzia.

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen oneitako etxejauntzen jaunaren alarguna danak Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizilagunak , berenez eta Juan bere semearen izenean, Juan Urkiza Otaola, Xemeingo bizilaguna eta bere ezkontideen aurka, Jose Andonaegi'ren eriotza eta bere anai Juan'eri eragindako zauriekaitik suspertutako gaizkintza auzia.

1.663.- 08/30

Gaizkintza auzia.

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen oneitako etxejauntzen jaube dan alargunak, Juan Andonaegi'ren ama eta lez suspertutako Gaizkintza auziak.

Auzi oneik Andres Iturribalzaga, san Juan Deusto, Antonio Agirre Barraikua eta Juan Kaminos, itxastarrak eta Mutriku'ko bizilagunen aurka egiñak dira, Diego Urkiza Otaola'ri Frantzita iges egiten laguntzearren.

Diego ori, Markiña'ko bizilagun diran Rafael eta Antonio Olaetxea Aranburu eta beste batzuekin batean Jose Andonaegi'ren eriotza eta eskalearen seme txiki dan Juan'eri eragindako zauriekaitik salatua dago.

1.663.- 09/04

Argibide orokorra

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen oneitako etxejauntzen jaube danaren alargunak Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizilaguna danak , berenez eta bere seme Juan'en izenean, Juan Urkiza Otaola, Xemeingo bizilagun eta ezkontideen aurka Jose Andonaegi'ren eriotza eta Juan bere anaiari eragindako zauriekaitik suspertutako auziaren argibide orokorra.

1.663.- 09/10

Gaizkintza auziak.

Maria Lope Renteria, Juan Garzia Andonaegi Bidarte Renteria, abizen oneitako etxejauntzen jaube danaren alargunak Ondarroa, Berriatua eta Xemein"go bizilagun danak , ama lez eta Juan Andonaegiren zaintzaille lez, Rafael eta Antonio Olaetxea Aranburu, Markiñako bizilagunak, eta Diego eta Juan Urkiza Otaola, Xemein'go bizilagun eta ezkontideen aurka suspertutako auziak, Jose Andonaegiren eriotza esandako semeari eragindako zauriakaitik.

1.663.- 09/26

Errege Zuzentzak, agindu bidez suspertutako auzia, Xemein'go bizilagun dan Juan Urkiza Otaola'ren aurka, Ondarroa'ko bizilagun zan Jose Andonaegi'ren erailketa eta bere anai Juan'eri eragindako zauriakaitik.

Auziaren tokiz aldatze eta gaizkintza auzia, Franzisko eta Pedro Abaituak suspertuta 1.662'ko zauriekaitik Juan Urkiza Otaola'ren aurka, Jaurerriko Urrun-aldietako tenientearen aurrean eskatu zan. Maria Lope Renteria'ren eskabidez, Gernika'n, Pedro Luna'ren aurrean, 1.663'ko Irailla'ren 22'an, egin zan tokiz aldatzea.

Beste auzi bat

Eriotze eta zigorren ondoreneko aitaturako auzien aurretik ba dagoz aztarrenak Errenderiko etxe eta famili au ingurukoekaz autuetan ibili zaneakoak.

Ala, Korreximenduko artxibo berbertan, 920.25167 zenbakipean ba dago urte batzuk lenagoko beste bat.


Ara :

1.647 / 04 / 21

Mariana Plaza, Xemeingo bizilagunak, Ondarroa'ko bizilaguna dan Joan Garzia Andonaegi Renteria'ri sartutako auzia, Andonaegi'ko ur-arka (presa) egitearren, orregaz kalte egiten eutsalako aurretikoago ziran "Olabarri'ko errota eta olaei.

Jakin erazten da Juan Plaza Laranga'k baimena emon ebala ur-arka orren gainean egurrak ipinteko.

Agiri onegaz batera ba dago beste au : Valladolid'eko Errege Txanzilleriaren bete-erazle agindu bat, Andonaegiko errota eta olaen berreikuntza eta lekutzeari buruz, 1.614 urtean.



Errenderi auzoa.

DOMINGO GARRO

Amasei garren gizaldian jaiotako ondarrutarra.

Ziur ez jakin zein urtetan. Ondarroa' ko parroko liburuak erooten asi baiño lentxuago.

Ondarroa'tik Sevilla'ra joan zan eta an bere kontura euki eban Merkatuko goraberen bat.

Andik Peru'ra joan zan eta ango Errege-ordearen kontulari izatea lortu eban eta zeregin ori beteaz bizi.

Calatrava'ko jantzia erabilteko eskubidedun zalduna.

Eriotzaren barri ba dago Ondarroa'ko illen liburuan. Au irakurten da 1.620 urtean: Azillaren 11'an il kanpaiak jo zirala Peru Erreiñuko Lima'n Domingo Garro il zalako.

Azken naia, testamentua, 1619'an egiña zan.

Ainbat diru itxi eban Ondarroarako. Lagaten eban dirutzaren erredituak 1.603 urtetik asita artzeko eskubidez.

Orrela kapellani eta Ekintza onetarako urteko 200 dukat itxi zitun, esanda cukazan errenten gaiñetik, eta euretatik 50 dukat Ospitalarentzako eta beste 20 dukat urte guztian eleiza "bietan" egozan argiontzietako orioa ordaintzeko.

Beste 2056 marau urteko ikasleentzako.

Zati bat Teoloji edo Kanonak ikasteko gai izango zanarentzako. Ikasketa oneik Salamanca edo Valladolid'en egin bear ziran.

Beste zati bat artista edo Teoloji ikasleentzat, Alcalá de Henares'en ikasi nai ba eben urteko 100 dukat izentatuaz.

Gramatikako ikasleak jesuiten edozein ikastetxetan ikasteko, urtean 40 dukat.

Beste dirutza bat baita neska umezurtzen bat ezkontzeko edo baituen bat (kautiboen bat) askatzeko.

Beste dirutza bat premiñan egozan pobreentzat.

Dirutza, baita, eskola maisu batentzat, umiei kristiñau ikasbidea, irakurten, idatzi eta kontuketak erakusteko.

Beste dirutza bat Aldare nausiaren eskumatara egoan San Andres'en aldar-
ran mezak esateko.

Beste dirutza bat konbentu bat sortzeko, lenengo aukera jesuitei emonaz,
gero augustindarrei edo ta frantziskotarrei.

Ba egoan dirutza bat bere oiñordekoak erabili egien "la hazienda que tenía
en Ondarroa". Bere borondatez Domingo Aretxaga'k erabilteko, eta onen on-
doren bere seme eta oiñordekuak, edo ta Frantzisko Aretxaga kapitanak, bere
anaiak. Baiña oneik il ziran oiñordekorik barik. Eta testamentuan esaten zanez
konbentua sortzen ebenak erabilteko geratzen zan oiñordekoen faltan.

Orrela dirutza orretako 337.500 urteko marauak, Durango'ko augustinda-
rren eskuetan geratzen ziran, oneik tratu bat egin ebelako, Ondarroan konben-
tua sortu ordez, Durangotik erria serbiduteko.

Urteekaz Ondarroa zirikatzen asi eban dirutza orrek, eta auzietan sartu zan
augustindarrekaz eta azkenean be Ondarruk lortu eban dirutza ori beregana
biurtzea 1.758 urteko Maiatzaren lenengotik asita.

Orrela Ondarroan 1.759 urtean asi ziran 1.620 urteko testamentuan Domin-
go Garro'k itxitako dirutzaren onurak artzen.

Berandu baiño diru orreri esker egin ziran parrokian oraindik egiteko ego-
zan bobeda, koru eta beste gauza asko.

PEDRO MARI UNANUE

Au dala esan izan dabe Europa'ko antzokietan ezagutu izan dan euskal abeslari andietan lenena.

Zori on bat euki eban. Bere denborako izan zirala Bellini, Donizetti, Rossini eta abar, garai aretan musikalaririk ospetsuenak eta eurekin lagun edo kide izateko aukerak, bidea zabaldu eutsala ospe eta entzute arrigarri bat lortzeko Europa guztian.

Eta Rubini lako abeslariak lagun izan zitun eta arek ez eban ezpairik euki autortzeko Europa'ko tenoreen artean leenetako izateko erako zala.

Garai aretan ba zan Españan tenore ospetsu bat: Manuel Ojeda. Alaz eta Eres-antzeriari buruz agertu zan liburu baten garbi esaten zan: Ojeda, Espainiako tenorerik oberena zala, baiña Unanue'ren ondoren.

Unanue'ren bizitza labur joan zan. 1.836 urtean "Norma" abestu eban; andik ia amar urtera "Medea" Trieste'n. Eta antxe il.

Bitarteko amar urte areitan Madrid eta Andaluzia'ko tokirik onenetan abestu ondoren, San Petesburgo, Bergamo eta Trieste'n, bitartekoak ixilik lagata, txaloz goraka amaitu zitun bere jardunaldiak.

Madrid'ek kale bat eskeiñi eutsan.

Pero Mari Unanue Iramategi, Ondarroa;n jaio zan 1.814'ko Andra Mari egunean eta Trieste'n il, 31 urtedun, 1.846'ko Urtarrillaren 2-an.

UNANUE ABESLARI OSPETSUAREN FAMILIA
UNANUE- IRAMATEGI

FRANCISCO JERONIMO UNANUE OÑAEDERRA FRANCISCA XABIERA IRAMATEGI ITURRIAGA
Itziartarra Ondarrutarra


Gurasoak: Ignacio Unanue ARRONA Gurasoak: Juan Bta. Iramategi
 Damiana Oñaederra MUTRIKU Clara Antonia Iturriaga

Ondarroa'ko parrokian ezkondu ziran 1.798 urteko Maiatzaren 21'ean.

Seme-alabak:

Jaiotzako urtea	Izena		Jaiotza eguna	Bateokoa	Eleiz liburua
1799	JUAN BAUTISTA	Unanue Iramategi	I-10	I-10	7 Lib. 133
1800	JUAN JOSE	„ „	XI-25	XI-25	8 Lib. Fol. 5
1802	JUANA JOSEFA	„ „	XII-25	XII-25	8 Lib. Fol. 18
1805	PEDRO FRANCISCO	„ „	III-25	III-25	8 Lib. Fol. 26
1806	RAFAELA	„ „	VII-5	VII-5	8 Lib. Fol. 31
1807	JOSE LUIS	„ „	VIII-24	VIII-25	8 Lib. Fol. 35
1808	MICAELA EUSTAQUIA	„ „	IX-20	IX-20	8 Lib. Fol. 39
1811	AGUSTIN MARIANO	„ „	II-18	II-18	8 Lib. Fol. 47
1812	M ^a JOSEFA CANDIDA	„ „	III-25	III-25	8 Lib. Fol. 51
1814	PEDRO MARIA (abeslaria)	„ „	VIII-15	VIII-16	8 Lib. Fol. 59
1816	JOSEFA JULIANA	„ „	I-9	I-10	8 Lib. Fol. 64
1817	AGUSTINA JOSEFA	„ „	IV-28	IV-28	8 Lib. Fol. 68
1818	PIA JOSEFA	„ „	IV-28	IV-28	8 Lib. Fol. 72
1820	JOSE DAMIAN	„ „	IX-27	IX-27	8 Lib. Fol. 81
1822	JOSE AMBROSIO	„ „	XII-6	XII-7	8 Lib. Fol. 90

Esan bearreko da, Bateotako 8 garren liburua, Ondarroako parroko liburuetatik andiena dala, bataiorik geien agertzen dirana, baiña baten be ez dator ba-koitza zein kaletan jaio zan. Dirudienez geroago etorri zan ori agertzeko agindua.



Pedro Mari Unanue.

TXOMIN AGIRRE

Ara euskal idazle bat, lengoak eta gaurkoak irakurri eta goratzen dabena.

Norbaitek idatzi eban bere eungarren jaietan:

“Bizi dala ezagutu ez genduan arren, aren lerroetan beste idazle bizkaitarrengan aurkitu ez genduan alako zera sumau genduan gure gaztearoan. Erriaren izkera bera, jatorra, bizi-bizia, arrotz jozkeraz nastau bakoa idoro genduan. Txomin Agirre-ren lerroak irakurri eta gure amama zanaren izkerea entzun, bardintsu zan guretzat: itzurrenez, esanez, keraz, itz-geigarriz, erri-aizez. Orretan bakana eta bakarra izan da, agian, Domingo gurea. Berbarako, Cervantes andiak bere aldiko izkera bizia, gaztelania aberatsa, txorta mordo ederrean batuta utzi baldin ba eban, gure artean orixe berberori egin izan dau Agirre ondarrutarrak.”

Domingo Agirre eta Badiola 1.864'ko Maiatza'ren 4'an jaiotako Ondarroa'n. 1.920'ko Urtarrilla'ren 12'an il Zumaia'n.

Abade eredu, soñez makal, baiña langille, Zumaia'ko karmeldar monjaetan igaro zitun bizitzako urteak.

“Auñamendiko lorea”, “Kresala” eta “Garoa” iru euskal liburu elaberri (nobela) idatzi zitun.

“Kresala” bertako “Arranondo”gaz Ondarroa'ren goragarri izan zan eta da: errionetako oitura, izakera eta abar bizi-bizi agertzen diralako.

Orrez gain olerkari izan zan eta sermolari.


Ondarroa'k kalea eskaifi eutsan, jaiotako kalea, gizaldietan Goiko-kale lez ezagutu zanari bere izena emonaz.

Kalandiko etxe tipiku baten orman Lukarini ospetsuak egiñiko bere irudi bat be ipini zan 1.936 urtean. Ikastolen artean ba dago bat bere izena daroana, bai euskal oitura erakunde bat be.

Bere eungarren urtean eta 125 garrenetan, Lore Joko eta Literatura leiaketa eta jaiak eratu ziran bere omenez.


Luzaro gogoratuko da Txomin Agirre Ondarroa'n eta Euskalerrian.

Txomin Agirre, Manuel Bizente Agirre, mutrikuarra eta Madalena Badiola ondarrutarraren seme izan zan. Izentzat Domingo Ascensión ipini eutsen, bateo eguna Igokunde eguna gertatu zalako eleiz-jaietan.



Txomin Agirre.

II - FEDE ETA GOGO



Andra Mari Parrokia.

ANDRA MARI PARROKIA

Ondarroa'n gaur parroki lez ezagutzen dana, XVI garren gizaldiko egitura da. Ba dirudi zerbait aurreratxuago asi zala bere eraikintza.

Iturriza'ren Kondairan 1.480 urtean egiña dala irakurten da.

Delmas'ek bere aldetik 1.462 dakar.

Franzisko Sesmero'k beste au:

“Eleiz onen eraikintzak argitasun bat emon lei Bizkaia'n bargoñar artearen eragiñari. Ondarroa'ko Andra Mari, Artibai ibaia itxasoratzen dan toki berbertan oiñarritzen da, aitez beteriko leku baten, esteria andiko eta luzera andiko eraikintza da.

Aitz gaiñetik jaso ziran gaur oraindik ezagutzen diran bere arkudiak, eurentariko bi puntu erdikoak eta kanpokoak arku beeratudunak, abetzar (pillare) andiekaz banatuak. Oiñarri orrein gaiñean eratu zan eleiz berbera eta bere 1.480 urte zeaztapena uste da tellatuak ipinitako urtea izango dala, au da, bere estalkien amaierakoa”.

(F. Sesmero. “El arte del renacimiento en Vizcaya)

Juan Irigoien'en ustez, 1.480 urtean, asierako egitasmoa itxi zeinkean, bear ba da diru ezagaitik, urte batzuk lenago sute ikaragarri batek erria osorik erreta laga ebalako. Eta erriak dirurik ez eta norbaitek, lanak asi ziran anditasuna kontuan eukita, bultzada bat emon nai izan eutsala bere eraikintzari.

Eta, itxuraz, orduntxe sartuko zan Bizkairako Pizkunde artearen giroko lana izango zanaren arnasa, bargoñatarren alegiñez.

(J. Irigoyen “Vagabundeo Náutico IV) (La Gaceta del Norte)

Izan be gogoratzeko da Ondarroan sute ikaragarri bat egon zala 1.462 urtean eta Enrike IV'k 1.463 urteko mesedetan sute ori gogoratzen dau eta erriak ordaintzen eban zerga parkatu eutsan.

J. Irigoyen'en ustez izan lei eleiza onen eraikintza 1.335 inguruan asi eta gero Bizkaia'n gertatu ziran egoera larri eta indarkeriekaitik egiteari laga eta 1.475 urtean barriro ekitea.

Eleiza oneri buruz ba dago edo egon izan da "jentillen" gogoeta. Onetan, Pierre Narbaitz'ek, erriaren ustez jentillak zer ziran azaldutean, au diño:

"Qu' est-cequ'un "gentil"? "Un homme sauvage, doté de force extraordinaire, vivant à la montagne, dans une maison éloignée; capable de lancer à grandes distances divers rochers dès lors célèbres dans le pays; le païen qui en général vivait en paix avec les chrétiens, mais à l'écart: l'habitant des hautes montagnes qui abusait de la générosité des chrétiens et qui vivait ordinairement dans les cavernes; le premier cultivateur du blé, le premier forgeron, le premier meunier, celui qui collabora efficacement, grâce a una force étonnante, a la construction des premières églises chrétiennes (Muxica, Ondarroa, Marquina, Elgueta, Zumarraga, Oñate, Opacua, Zurbano, Urdiain, Ataun, Oyarzun);.....

(Le Matin Basque ou Histoire ancienne du peuple vascon". Pierre Narbaitz)

"Zer dan jentil bat? Gizon basati bat, indar berezi baten almenez, mendian bizi dana, urruneko etxe baten; lurraldeko aitz ezagun asko urrunetara jaurtiteko gai dana; berez kristiñauekaz baketan bizi zan paganoa, baiña zur; mendi goietan kristiñauen eskuzabaltasunaz baliotuta, geienetan koba zuloetan bizi zana; gariaren lenengo ereintzalea, lenengo sugiña, lenengo errotaria, bere indar arrigarriari esker, lenengo kristiñauen eleizen eraikintzan lagundu izan dabena."

(Narbaitz berberak autortzen dau textu au Barandiaren'en Mitologia Vasca'tik eratua dala.)

Edozetara be Ondarroa'ko eleiza kanpoz amaitu zan, nai ta barrua luzaro utsik geratu.

Ba dirudi 1.505 ordurako kanpoko eraikintza egiña zala. Borgoñar ertiliarien lana erakusten daben egitura ederra. Bere "kortzeleko" irudi eta guzti.

"Baiña ez dira bakarrik borgondarren eskola erakusten daben irudi baka-rrak, xurrut arriak, erdiaroko ezaugarriak, egitura jator eta zoragarriz egiñak; eleizaren goi-alde guztia inguratzen daben arkugaiña, eskudeleko be aldea kardinaz ornidua eta azkenez Pantokratorra bere giltz dauan begi ederraz, tiaraz apaindua, ezker eskuan mundu-ezaugarria dauala, eta begi orrek erakusten dauzan erdi-beteko obo biak, apainduraz beteak, euretariko baten Eguzkia eta Itargia agertzen dirala."

(Sesmero, esandako liburuan)

Eleizaren goi-aldeko eskudelean eta torre puntetan lotu ziran irudiei, Ondarroa'n "mamuk" deitzen dautse.

Beste batzuk atze-aldean, erreskadan dagozanak, apostoluen irudiak dirala uste izan dabe luzaro. Baiña leike ori eleiza berberaren anditasunetik, euretara

urreratu ezaren irudimenaren sorpena izatea. Eta fedearen eragiña, fede itsu bateri lotutako erri baten.

Dana dala atze orretan dagozan irudiak erri-gizon eta artisten begiko irudiak dira.

Danetara ogei dira.


Zortzi banaka, tentekako torretxoetan. Euretatik zazpi andrazko itxurako eta kapadun bat.

Erreskadan dagozanak amabi dira, atze-alde goiko ormako gazteluaren inguruan.

Onela zeaztu eta itxuratu leitekez:

- 1.– Erregea.
- 2.– Soñularia, oboe jotzen.
- 3.– Soñularia, rabel jotzen.
- 4.– Kontularia, maiordomua.
- 5.– Erromesa, kapa eta kalabazagaz.
- 6.– Arrabalduna. (Balaztaduna)
- 7.– Beste arrabaldun bat.
- 8.– Bular andidun etxeoandrea.
- 9.– Erregiña.
- 10.– Fraile bat, esku liburuagaz.
- 11.– Neska zerbitzaria.
- 12.– Gaztegai bat.

Irudi orreitako bat, zortzi banaketako bat da Ondarroa'ko Mitolojian erri oituren zaindari lez gogoratzen dana. Ez jakin nundik eta zegaitik "Leokadi" lez ezagutzen dana.



Santa Klara ermita zarra.

PARROKIKO ILLOBIAK

Andra Mari parrokiko illobiak 1.751 urtean banatu ziran, 1.749 urtean eleiz barruko illobietan egin zan barriztapen ondoren.

Eleizak bere eskubidetzat illobietan oiturazko zan ogi eskintza egiteko lotuera ipini eban, “bakoitzak al bestean” arima pielen arimakari edo il-otoitze-tarako.

Parrokiko artxiboan gordeten dan banaketak onela diño:

“Año 1.751.– Trato de repartimiento de Sepulturas que se hizo en la Iglesia Parroquial de esta villa de Ondarroa, con asistencia del señor Cabildo, Mayordomo de la Fábrica, los Señores Justicia y Rgto de dicha villa a los vezinos, moradores y habitantes en ella. Con la obligación de ofrecer el Pan acostumbrado en la sepultura según la posibilidad de cada uno para sufragio de los fieles difuntos, con los números que les corresponden....”

Ebanjelio aldean

1. Galletecoa.
2. Andonaeguicoa.
3. Gollengua.
4. Licoacoa.
5. Munabecoa.
6. Elgorriagacoa.
7. Torrebarrikoa.
8. Aguirre-Iramengoa.
9. Galdona Escutasolo.
10. Galanchotecoa.
11. Plazacoa Xabiera.

12. Churrucacoa.
13. Ansolacoa.
14. Sachristan.
15. Hurrunagacoa.
16. Azterrica.
17. Baraniego.
18. Ormaechea.
19. Lazuricacoa.
20. Herleegui.
21. Micaela Belaoch.
22. Clara Catarro.
23. Anacabecoa.
24. Oronzocua.
25. Arsuaga.
26. Cantalecoa.
27. Urriola.
28. Galarzacoa.
29. Frante Pillar.
30. Pillar.
31. Apallocalo.
32. Urrestieta.
33. Goiticoa.
34. Azterricacoa 1° Azt.
35. Basterrechea Gorocica.
36. Ansonecua Gorocica.
37. Aguirrecoa-Iparcale.
38. Elorriaga-Calle Antigua.
39. Pehante Pillar.
40. M. Ursaga
41. Urriola Echebarri.
42. Oriocoo.-calle Andia.
43. Biazcoa-Gorocica.
44. Guillestegicoa.
45. Dubelaricoa- Ribera.
46. Urquiaga-Arriba.
47. Galarzacoa-Puente 2.
48. Alliricoa.
49. Careagacoa.
50. Clara Catarro.
51. Echebarria.
52. _____

53. Illorocoa.
54. Herramenteria.
55. Undacoa.
56. Alipasolo.
57. ?
58. Portalecoa.
59. Casanueba Caminos.
60. Arribicoa.
61. Casa Junto Ospital.
62. Aranzamendi.
63. Solar junto Illorocua.
64. Icaita.
65. Solar Arrazcoaga.
66. Iziarcoa-Iparcale.
67. Olanocoa.
68. Joseph Odria.
69. Churrucacoa la nueva.
70. Orueta.
71. Ozollocoa.
72. Goyenechea.
73. Larrauri.
74. Juana Ibarra.
75. Yurre.
76. Basterrechea.
77. Chopite.
78. Juan Ibarra.
79. Lorenzo Juaristi Ayardia.
80. Armenzacoa.
81. Ibarrola.
82. Joseph I. Lizundia.
83. Zelaya.
84. Arechagacoa.
85. Saroe.
86. Uchupil.
87. Manzanal V b g.
88. _____
89. _____

EPISTOLA aldean

1. Muguruza.
2. Apallotorrea.
3. Olazcoa.
4. Arancibia torrea.
5. Undacoa.
6. Herramucoa.
7. Echeandia.
8. Goiticoa.
9. Besteechea Azterrica.
10. Maquibar.
11. Labacoa.
12. Aguirrecoa.
13. Idiaquezcoa.
14. Jaureguicoa.
15. Arancibia en la villa.
16. Patroecoa.
17. Ayardia.
18. Bustinzuria.
19. Besteechea Renteria.
20. Arana (Casa grande)
21. Arteta.
22. Echezarcoa.
23. Galanchote-Larroscaín.
24. Zezermendicoa.
25. Icazacoa.
26. Sansarrangoa.
27. Iramategui.
28. Apallo torrea.
29. Frente Pillar.
30. Frente Pillar.
31. Elizondo, junto Echaburu.
32. Idiaquezcoa.
33. Ubilla.
34. Burgañacoa.
35. Bustinagacoa.
36. Galarzacoa. Iturrino.
37. Zabalagacoa.
38. Sagarragacoa.
39. Pilar Aldecoa.
40. Ubee.

41. Aanecoa.
42. Beratecoa.
43. Goseascoa-Gorocica.
44. Solar I. Urrunaga.
45. Renteria.Am. Ayardia.
46. Arriolacoa.
47. Telleria.
48. Asensiocoa Anchon.
49. Hurrunagacoa.
50. Sagarragacoa 2°.
51. Bta. Aranaga.
52. Elorriaga. Casa Nueva.
53. Ana M. Chopite.
54. Aldecoa Asterrica.
55. Cantalecoa.
56. Egiguren Calle Andi.
57. Azterricacoa 1°
58. Basterrechea-Ipercale.
59. Asenziocoa. Carcel.
60. Goitiniz.
61. Ant. Sasturri.
62. Min Echevarria.
63. Serora Azterrica.
64. Zelaicoa-Azterrica.
65. Ibarguren.
66. Provetucoa.
67. Alzeluzcoa.
68. Hospital.
69. Marracazcoa.
70. Goicoechea-Azterrica.
71. Bta. Garro.
72. Magda de Urrea.
73. Galarza-Marrerucoa.
74. _____
75. Ibarrecoa Echeburua.
76. Burgoa.
77. J. Bta. Sacristan.
78. Dgo Anguiz.
79. _____
80. Clara Aranzamendi V b g.
81. Igo Aranzamendi.


82. M^a Zuazaga.
 83. _____
 84. Ana Zuloeta.
 85. Hermita Santa Cruz.
 86. Bta. Amallobieta.
 87. Xabier Arrazqueta.
 88. _____
 89. _____
 90. _____

Banaketa au egin aurretik, ba dakigu zeintzuk eukezan illobi edo sepultu-
 rak barriztapena egin aurretik eta nortzuk obiratzen ziran euretako batzuetan.

1.686 urteko "Memoria de Aniversarios y Missas perpetuas" izeneko agiri
 baten billatzen doguz illobien izen eta euretan sartutako gorpu batzuen izenak.

Aiara.
 Aiardia.
 Alipasolo.
 Ansorena.
 Arrazkarakoa.
 Arriola (Likona)
 Asterrikakoa. (Beitia, Goitia)
 Allikiz.
 Azpec.
 Baraniego.
 Basterretxea.
 Beazkoa.
 Beitia.
 Burgoa (Ibarra, Lizaranzua, Dostua.)
 Errbalekoa.
 Estakona. (Ramos Likona).
 Etxaburu.
 Etxeandia. (Urriola, Likoaga, Zabalakoa.)
 Etxebarria (Anakabe)
 Etxebeste kapitana (Kareaga)
 Goikoetxea (Asterrika)- Burgañoakoak.
 Ibarra.
 Illorokua (Elantxo)
 Iramategi. (Amallobietatarrak)
 Iturrino. (Aretxaga)
 Jausoro (Emazabal)

Joaresti.
Laka (Gorozika)
Likoakoa. (Iparkale)
Makoaga.
Munibekoa.
Olaarkoa (Zubialde)
Oronzokua.
Ozollokua.
Plaza etxea.
Renteria. (Ana Bidarte)
Sasturri. (Sasturri, Alzolatarrak)
Ubilla.
Urriola (Kapitana)
Urrunaga menor. (Gorozikakuak)





Parroki barruko lanak.

PARROKI BARRUKO LANAK

Jakiña da eleiza nagusiari tellatua egin eta aterpea gertuarren, barru uts geratu zala.

1.744'ko Uztailla'ren 12'ko Udal batzarrean agertzen da orretazko kezka eta ardura.

Ain eleiza ederra, kanpotik eta barrutik ain uts eta ain egoera larrian.

Batzar ori, ziurretik, urteetako kezka baten agergarri izan zan. Ordurarte nai ta ezin.

Au esan zan orduan:

Parrokiko fabrikako errenten kontura ozta-ozta elduko zala bobeden irugarren zatia ordaintzera. Beraz erriak be.....

Beartuta egozala parrokiko egitura zaintzera eta orretarako gertu egozala erriaren ondasun eta errenten kontura iru milla dukat belloiko zentzu bat ataraterata eta lepoan artzera.

Orrez gain esan eben eleiza kanpotik ain eder izan eta barrutik tejabana bat irudiala, bere tellatuak egurrezko zutabe okertuen gain beratzen ziralarik, ur eta txingorra barrura sartzen zala eta abar.

Eta parrokiko fabrikako errenten kontura 1.500 dukatetan zortzea bai eta eleizak eukan zidarrezko zerbait saltzea be, erri diruekaz batera, alkarren laguntzaz konponketa on bat egin al izateko.

Eta premiña ori ezagututa arduaren zergari laurden bat geitutea.

Orrez gain arrantzalien Kofradiak orretarako txalopa bakoitzaren mareko laurden bat urte batzutan eskeintzea erabagita eukala, eta mariñelak ez ziran beste bizilagunak ogei urtetan eskudo erdiña emotera beartu zirala.

Komeniko zala baita erbestean bizi ziran erritarrei laguntza eskatzea. ¹

Eta onen arabera, urte orretan 1.744-ko Irailla`ren 29-an atara zan enkante-
ra eleizako zeruak, bobedak, egitea.

Jose Iñazio Ibero arkitekтуak 66.076 errealetan balio eban egitasmoa.

Lanen egitura, enkantean, bere gain artu eban Antonio Larraza, elgoibartar
argin maisuak 54.800 errealetan.

Bere lankidetzat lekeitiar bat artu eban : Migel Zubillaga.

Eta lanak amaitu ziranean, dirutza orren zati bi erriak ordaindu zitun eta
eleiz-fabrikak bestea.

Orrela erriak 36.533 erreal.

Parrokiko diruetatik 18.266 „

Orrez gain 1.749 urtean, korurako malladi barria eta koruen egitura egin
ziran, 585 errealen kostupean.

Arotz egitura Domingo Urreta`k egin eban.

Urte oneitan egin zan baita eleiz barruko illobien barriztapena.

Beste atal baten agertzen da lendik etozan illobi batzuen jaubetasuna eta
1.751 urtean illobi barriztatuen banaketa.

¹ Sesión del 12 de Julio de 1.744.

Lo primero dijeron que por quanto los intereses que se pueden sacar a cuenta de las rentas de la fábrica de esta iglesia Parroquial de dicha villa apenas pudiera llegar a la tercia de la composición si poderla en la Bobeda y deseando su decencia, a que en conciencia estaban obligados, que darian y dieron todo su poder absoluto y necesario en tal caso al dcho don Pedro de Urriola Egurrola su Alcalde, don Ignacio de Asterrica, don Joseph Ignacio de Bustinzuria y don Felipe de Angulo para que a cuenta de los bienes efectos y rentas de esta dicha villa puedan sacar a censo tres mil ducados de vellon para ambobedar dcha Iglesia Parroquial y ponerla decente, y pidieron a mi el escribano dispusiese el poder necesario y que en derecho se requiere a favor de los dichos.... para y por sí y en nombre de esta villa saquen a censo los dichos tres mil ducados de Vellon sobre estos vienes y efectos de esta dcha villa, para cuió efecto quiso que se disponga de l dcho poder para los dchos señores, apoderados en virtud de este decreto estan pronptos a su otorgamiento confensando confesaron ser la mayor y mas sana parte de dcha villa.

Lo segundo, tambien ordenaron y declararon que no siendo suficientes los arbitrios con que piadosamente puede contribuir esta villa al reparo y decencia de dicha iglesia parroquial que se halla en suma necesidad, pues siendo por fuera de obra primorosa, era en lo interior una tejabana, convirtiendo sus tejados sobre sus postes gruesos, de madera y armazón de materiales dañados, biéndose rotas las vigas de ellas, entre vijías de forma que el agua y granizo salpican a los Altares y demás parajes, cuió reparo y composición en quanto pueda toca a la fábrica de dcha Iglesia y teniendo presente el memorial entregado por el ilustre Cabildo de esta Parroquia en esta razón, reservando el gasto ordinario para el culto divino dieron también todo su poder necesario a los dchos don Pedro de Urriola Egurrola, don Ignacio de Asterrica, Dn Joseph Ignazio de Bustinzuria y don Felipe de Angulo para que juntamente con los Beneficiados del citado ilustre Cabildo, sus comisarios acudan al sr. Provisor y Vicario Gral de este Obispado y saquen su lizenzia para gravar las rentas de dcha fábrica en mil y quinientos ducados de vellon de censo y para poder vender alguna plata labrada que tiene dcha Iglesia y no se usa en ella; las cuales dichas necesidades impitan como la tercia parte de su coste el más moderado para comparación de las dchas Bobedas que se pretenden hazer, para cuió tanteo y planta de espera, luego a Ignacio de Ibero, maestro mayor y principal del Colegio de Loiola y obtenida dicha lizenzia puedan sacar los dos mil y quinientos ducados de vellon de censos y vendan dcha plata y así por lo que reza a esta dcha villa decretaron y pidieron a mi el presente escribano disponga el poder necesario para este efecto, a favor de los dchos señores para luego hazer su otorgamiento.

(Libro VI de Decretos)

Lan ori Felix Akerregi mendexarrak egin eban eta 4.950 erreal kostatu zan.

Denboraldi orretan egin zan korretaren egitura be. Eta illobiak egin zitun berberak egin be.

Egille au lanak amaitu-barri eukazala il zan. Eta bere emazteari ordaindu eutsezan 110 erreal erreal korreta ori egiten euki eban eralgi bearragaitik.

1.750 urtean Arimen aldarea egin zan. Iñazio Ibarretxe lekeitiarrak egin be.

Itxuraz ordurako ondarrutarrak arrantzaliekaz eta erritarrekaz tratua egiña euken lan oneitarako laguntzak, bete arte beintzat, ogei urtetan emon eta batzen joateko. Eta lekeitiar arotzagaz egindako tratuan igarten ordainketak diru orreik batu-ala egingo zirala eta berak ba ekiala ori. Baiña Korrexidorearengana jo eban bitartekotasuna eskatzen. Eta ondarrutarrak erantzun eutsen berak jakiñan gaiñean izenpetuta eukala orretazko ituna.

1.750 urtean Juan Leaegi eta Juan Albinagorta'k "amados ijos de esta villa" 400 peso bialdu zituen lanen laguntzarako. Eta ikusirik bi milla ta piku erreal garbian geratu zirala Leaegi'k egin eban azken diru bialtzetik, eleizako iru zatietako koruko eskubanda egurrezkoa egitea erabagi zan, burdiñazkoa egiteko aiña dirurik ez egoelako, Loiola'ko mailladiko arri itxura emonaz, orretarako kare arriaren itxuran geratu eragingo eban berun antzeko margoa emonaz.²

1.755 urtean esan zan Erdiko koroa ez egoala egoki, abadeak eta eleiztar laikoak naastuten ziralako bertan eguneko otoitzak egiteko orduetan, eta eleizkizunen lotsarako komeni zala itxitura bat egitea, eleizari bere anditasun itxurarik galdu eragin barik. Eta orretarako Kataegi'k gordeta eukazan diruak el-tzen ez ziralako, ukar lez 50 peso emoteko.³

² *Sesión 31 de Julio de 1.753*


.... En consideracion de haber quedado dos mil y más reales líquidos de resto de la última remesa echa a esta villa por don Juan de Leaegui, Alcalde próximo pasado, en poder de la Viuda de Antonio de Cataegui difunto comisario de las obras echas en los texados y corredores altos de esta Iglesia atendiendo a la más precisa obra presente se manda hacer en antepecho del coro de las tres naves con balastrado de madera que asemeje al de piedra segun la escalera de Loiola dándole color aplomado que imite a la piedra caliza. Por no haber fondos suficientes para hacerla de fierro. Y para hacerlo se confiere facultad y comisión en forma al Señor Alcalde actual don Pedro de Urriola.

Al memorial que presenta la Viuda de Feliz Aquerregui vecina de Mendaja se conceden graciosamente, para alivio del dispendio que tubo en hacerlos Carrejos de la Iglesia ciento diez reales de vellon.

³ *Sesion 26 de Enero de 1.755*

Habiendo considerado la suma indecencia con que se halla el Coro principal de esta Iglesia Parroquial, mezclándose los Sres Eclesiásticos con los Seculares que aun interrumpen los oficios diurnos, para q sobre los rr que estan en depósito en poder de Ana M. de Cataegui, viuda vecina de esta, se pueda pagar la mitad del importe de la zarradura de dicho Coro, mirando con el zelo de siempre al adorno de dicha Iglesia, por no alcanzar a más los efectos presentes, se señalan cincuenta pesos de limosna los que se entregarán del Alcance que se hiciese al Sindico pasado y a Pº Mugartegui, quando ambos den su respectiba quanta.

Ikusten danez denboraldi onetan egin zan korretaren egitura be. Eta illo-
biak gertu zitun berberak egin be. Egille au lanak amaitu eta bereala il zan. Eta
bere emazteari ordaindu eutsezan an sartu zitun 110 erreal, 1.753 urteko Uztai-
llaren 31'ko udal batzarreko agirian irakurten dan lez.



Argi begi ederra.

PARROKIKO LAN GEIAGO

Udaleko liburuetan utsune andi bat igarten da Parrokiko lanei buruz 1.754'tik 1.785 bitartean.

Eta kontuan euki bear da bitarte orretan egin zirala Aldare Nagusia, bai eta Pedro deunaren altarea be.

Ba dirudi, baita, gaur Ander deunaren kapilla lez ezagutzen dan koro azpiko erretaula, lenago aurrekaldean egon zala, gaur Jose deunaren aldarea dagon tokian, eta koro azpira eroan, eta arako burdin esitura ta guzti egin zala. Paper batzuetan "Capilla del Comendador Garro" izenez agertzen da.

Edozetara be 1.785'ko Urrilla'ren 9'ko batzarrean agertu zan txostenetik dakigu, bitarte orretan egin zala esandako Aldare Nagusia eta bere alboko Pedro deunarena be eta biak Santiago Etxebarria'k egin ebazala, geroago Pedro deunaren alboko Errosarioko aldarea egiten iñarduan lez.

Ain zuzen, orretaz, aldi aretan alkate zan Etxebarria berberaren agerbidea zeatza dala uste dogu:

1.785-ko Urrilla'k 9.- (Udal batzarra)

"Alkateak jakin eraso eban (Santiago Etxebarria zan alkate) Pedro deunaren altareagaz ondo etorriko zan alboko aldare bat egitea komeniko zala, taiu-keta zuzen bat egiñaz bere balioari buruz.

Alkateak esan eban ez bere ordekoak Agiri bat egin ebala Juan Bta. Arriola eskribaduaren aurrean, uste izanik alkatea zala parrokiko patroia, alkatea barik Uria izanik, eta agiri orren bitartez Pedro deunaren aldareagaz ondo etorriko zan aldare bat egitea agintzen jakola, taiutze zuzen batez ordainduta, baiña norbaitek Gotzaingora jo ebala ori jakin erasoten, eta orrek berari kalteak ekartzala, aldare ori egiten diarduala. Origaitik Udalari eskatzen eutsala, al eban eran gotzaingora jakin eragiteko kalterik euki ez egian.

Aldare nagusia berak egin ebala, baldintza bardiñean, gaur ezagutzen dan edertasunez. Eta bardin egin ebala Pedro deunarena be, zatika ordaintzekotan, urteko eun peso, bestela sekula ez zalako egingo, eta orrela eleiz-fabrika bere errentekaz erraz erantzuteko eran zala.

Une onetan asita daukan lanak gastu asko eragin dautsazala, eta ori ikusita erabagi eben Udalaren izenean Gotzaingora idaztea, aitatu dan guztia jakin eragiñaz eta gitxi gorabera ze kostatu eikean adierasoaz, Alkate berberari asitakoa amaitzen lagateko, kontuan eukita len gogoratu diran lanak be berak egiñak dirala eta orrez gain erriko bizilaguna dala.

Altar colateral

9 de Octubre de 1.785

..... en este estado el Alcalde puso presente que su segundo le habia otorgado una escritura por testimonio de Juan Bta de Arriola Escrivano vecino de esta Villa, y que esta se le otorgó en creencia de que el Alcalde era Patrono siendo que lo era esta N. Villa, que alguna persona ha dado quexa de ello al Provisor, que el asunto era hacer un Colateral que haga juego con el de san Pedro que se halla en la Iglesia mayor de ella a justa tasación y en esta consideración empezó dcho Colateral y se le han seguido muchisimos perjuicios y que esta N. Villa tome en el particular los medios que tenga por combenientes, suplicando al Sr. Provisor en el particular lo que le parezca, para que no quede perjudicado, y en vista de lo expuesto por su Merced y que el Retablo Maior se construío por su merced con el primor que se descubre, que el Colateral de dicho san Pedro lo hizo igualmente, haviéndose cobrado del primero por plazos, que sin este requisito jamás se hubiera verificado, que el Colateral se obligó a hacerlo y cobrar su importe a cien pesos en cada un año y que de este modo se hubiera hecho, sin sentirlo, y la fábrica pudiendo subenir a sus obligaciones con el Rimo de sus Rentas, que en este estado viendo que a su merced se le han seguido muchos gastos en la obra que ia dió principio a ella acordaron que los Señores de Justicia y Rgto a nombre de esta villa escriban a dcho Sr. Provisor poniendole presente todo lo que se ha dicho y que en esta consideración informándose su Merced de todo y lo que pueda costar dcho Colateral se le prefiera a dcho Sr. Alcalde en dejando como a quien ha cumplido con las obras que bien hechas menciona y como a Vecino que es de esta Villa.

(Libro V de Decretos)

ASTE SANTUTARAKO "MONUMENTOIA"

Gure denborak arte, len garrantzi berezia eukiten eban parroketan Eguen Santu egunean "Jesus kartzelan sartzeko" (erriak esaten eban lez)gertuten zan "Monumentua".

Ondarroa'n Pedro deunaren aurrealde guztia beteten eban Monumentu andia gure gazte denboran be ezagutu zan.

Gure parrokiakoa 1.805 urtean egin zan, Juan Bta Belaunzaran arkitektu ospetsuak iruditu ebana beteaz.


Arazoa bera gordeteko tokiak emoten eban.

Monumentu ori erdizbana ordaindu eben Udalak eta Parrokiak. Eta bera gordeteko sakristiaren gaineko koroan itxitura berezi bat egin zan urteetara eta antxe gordeten zan, zatika tolestuta, urte guztian.

Orrela 1.807'ko Martiaren 30'eko batzarrean alkateak jakin eraso eban Bikarioak esan eutsala, erdia ordaintzeko borondatea euki eban ezkerero, berak orrentzako tolestuta ipinteko tokia billatu ebala.

Udalak erabagi eban, urte aretan toki berezirik gertuteko dirurik ez eukala eta sakristi gainean al zan eran sartzeko xirrintola (polea) bategaz jasota, beian langa batzuk ipini eta gero monumentu zarraren zapiekaz estalduta, kontu andia artuaz arratoirik ibili ez daiten, edo ta ondo sartzen dan leku aretan ikusiaz, eta igarriko ba litz okertu leikena edo alperrik galdu, orduantxe artuko dala erabagia kutxa bereziak egitea agintzeko.

(Libro V de Decretos)



Kortzeleko irudiak.

PARROKIKO LAN BATZUETAKO KONTU BAT

J. Leaegi eta Juan Albinagorta'k bialdutako diruagaz zertzuk lan egin ziran egiaztatzen Pedro Urriola Egurrola eleiz fabrika arduradunak, kontu au gertu eban.

Artua

10.541,06, au da, amar milla ta bosteun eta berrogei erreal eta sei marau, esandakoak bostna eskudotako 140 dobloetan bialdutako diruaren truke.

040,00 Franzisko Xabier Murga'ren ukarra.

286,17 Illobi zarretako egur zarren ordez lortua.

10.867,23

Ordainduak

– Migel Zubillaga eta Antonio Larraza'ri koruko argi zuloa atara eta konpontzearren	600,
– Iñazio Ibarretxe'ri, koruko leiartza (bidriera)	090,
– Pedro Maquibar'eri, orduariaren lekua egitea	019,
– Lan ori egiteko bria, estopa eta uriña.	013-08
– Errizaiñari Lekeitio eta Markiñan iragarkiak ipintea	10
– Bateotako ur-bedeinkatu ontzia aldatzea	71-17
– Bedia'ra ostera bat	006
– Eskribaduarengana ostera eta agiri bi	016
– Felix Akarregi'ri egurrakaitik	286-17
– Eleiza lurrez beteten ibili zirane	011

– Sakristiko leiartza (bidriera)	150-27
– Eskribaduari lanen amaitzea egiaztatzen	008
– Sakristiko leioak konpontzen	016
– Felix Akarregi eta senideei, illobi barrien egitura	4.950
– Domingo Azkarraga'ri, aldara nagusi eta sakristiko lanekaitik	4.627-02
	<u>10.875-3</u>



ELEIZAKO KANPAIAK

Ondarroa'ko Parrokiko kanpai torrean kanpai andi bi dagoz, geldiak, eskuz edo soka tengadaz joten diranak.

Beste bi, biraka joten diranak edo dabenak, au da "kanpai bueltakuk" deituak.

Kanpai andietako bat 1.801 urtean egin zan. Ala irakurten da eleiz fabrika-ko liburuetan.

1.801. urtea.– 123 erreal eta 25 marau Tomas Agirre Amalloa'ri, kanpai torrerako egindako kanpaia jasoteko gertutako tresneri, bere lan eta kanpai barri andia jasoten erabilitako idiakaitik.

1.200 erreal kanpai egilleari.

1.065 erreal Bikarioari, ni kanpoan nitzala emonak, kanpaia urtu eragiteko.

Beste 8 marau Mateo Ansorregi'ri emonak kanpai egilleari emondako ol zabalekaitik.


1.804 urtea.– 440 erreal Jose Lastra kanpai egillearen aginduz, Markiña'ko Jose Ibaseta'ri emonak, kanpai andia urtuteko.

Baiña kanpai ori urratu egin zan, zartiatu eta barria egin bear.

Gaur dagozan kanpai bueltako bietatik bat 1.832 urtean egiña da eta bestea 1.895 urtean. 1.832 urtekoa jai andietan joten zan 1.895'ko domekero.

Kanpai geldi biak, biak Gasteiz'en egiñak dira.

Bat, doñu goiko edo ots goikoduna, Esteban Etxebaster'enean, 1.882 urtean eta bestea, ots bekoa daukana, 1.916 urtean Hijos de Murua etxean.



Eleiz atzea, kanpotik.

ANDRA MARI PARROKIAREN ELEIZ-BARRUTI MUGAK

Parroki onetan sartzen diran eleiztarren mugak oneik dira:

IPARRALDEAN.—Itxasoa

SORKALDEAN.—Zati bat itxasoa.

Beste bat, Motriku'ko parrokiagaz. Onegazko muga, Bizkaia eta Gipuzkoaren lurraldeko mugan egiten da, eta ortik goruntz Santa Kutz ermitaraiño eltzen da, Akilla, Burgo eta Santa Kutz ermita eta bera jotzen dagon etxea Ondarroako parrokian sartzen dirala.

EGO ALDETIK.—Motriku'ko parrokiagaz edo bere laguntzaille dan Olatz'ekoagaz, eta Santa Kutz ermitatik asi eta Gipuzkoagazko muga berbera da Urkiaga Baso arte. Emen amaitzen da Ondarroa eta Berriatu'k jarraitu.

SARKALDETIK.—Berriatu'ko parrokiagaz. Muga esandako Urkiaga Baso eta Urkiaga Basotik jeisten diran urak Santa Ana aldera Markiña'ra duan bide artekoa parrokiarentzat geratzen dala, bai Gorozika auzoa be, baiña Berriatu'ko parrokiarentzat geratzen dira Munabe, Allenda eta Urkiaga Baso; eta esandako tokitik zuzen zuzenean jota itxasorarte Anakabe azpirarte, mugaren lenengo ertz edo

punta lez, eta orrela esandako Anakabe eta Itola Berri-
tuko parrokirako gelditzen dira eta esandako mugen
barruan baita Urkiaga eta Goiti be.

(1.865 urteko Agiria)

Gernikako Batzar Etxeko Artxiboa. Reg. 7 Leg. 4

Agiri onen geigarrietan esaten da:

Parroki onetako eleiztarrak Ondarroa'k erri lez dauka-
zan bardiñak dira. Andra Mari izenekoa da. 2.123 ari-
ma sartzen dira.

(Abade maillan, igoerako parrokia da. Parroko bat eta
laguntzaille bat)

UDALA ETA PARROKIA TARTEKAKO GAIAK

Urtea

1.625.– Andra Mari parrokia “Santa Maria la Mayor” deitzen da paperetan.
(Udal Liburuak.– Libro 6 de Decretos)

1.630.– 275 erreal gastatu zituen emendik gotzaiñagana Santo Domingo de la Calzada’ra bialdu ziran ordezkariak, gotzaiñari eskatzen bigarrenez eta ainbeste denboran preso eukezan emengo abadeak ainbat ariñen askatzeko parrokian euren premiña andia egoala-ta.

1.648.– Urte onetan parrokian egozan Kofradiak:

Eleiz fabrikarena.

Ospitala.

Santa Klara.

Bakartadeko Ama.

Mendiko Santa Kutz.

Gorozikako San Juan.

Arimena.

Santa Ana.

Santu Gurena (Santisimo)

Kofradietako maiordomuak urtero aldatzen ziran.

Eleiz fabrikako maiordomua, aurreko urtean alkate izana izaten zan.

Esandako Kofradien gain 1.694 urtean Errosariokoa be agertzen da, bai eta askatzaillea (redencion) deiturakoa.

(Lib. I. de Decretos)

1.658-XII-8.– Andre Mari Sortzez garbia aldeztuteko ziña egin eban erriak.

(Lib. I de Decretos)

1.663-II-2.– Errian abade bakar bat egoala ta geiago eskatu Gotzaingora.

(Lib. I de Decretos)

1.671-X-11.– Udalaren eskabidez umiei irakurten, idazten eta Dotriña erakusteko Domingo Iturrino gaztea gertu, “gaitasun, menpetasun eta apaltasun andiko ikasle zana.

(Lib. I de Decretos)

1.673-I-7.– Urtero Antigua;ko eleizan meza bat eskintzeko erabagia artu zan San Gregorio Ostiense egunean, Maiatzaren 9’an, eta meza ondoren eleiz barruan edo kanpotik konjuroak egin lau alderdietara, alekiak eta frutuak zaindu daitezcan.

(Lib. I de Decretos)

1.703-I-7.– Udal batzarrean erabagi zan Durango’ko Augustindar fraileei erantzutea Ondarroako erriagaz daukazan bete-bearrak beteaz, errira sermolari bat bialtzean autor-entzulea izan daitela eta euskalduna, urteroko garizuma eta Abenduan utsik egin barik.

(Lib. VI de Decretos)

1.704-VIII-29.– Udal batzarrean esan zan Franzisko Alipasolo erriko semea, Indietako Erreiñutako Guanajarito’n bizi zanak idatzi ebal, erantzuteko mesedez parrokia zelako egoeran egoan, alik eta zeatzen, berak bere izenean eleizan zerbait egin nai ebalako.

Udalak erantzun eban zerbait egin nai ba eban, bere izenean kapilla bat egiteko gertu egoala. Aurrez parrokiko abadeei ori adieraztea erabagi zan.

Egun berean bikarioari eta beste iru abadeei jakin eraso ta baiezkoa emon eben.

(Lib. VI de Decretos)

1.746-III-27.– Erabagi zan Felipe Angulo’ri eskubidea emotea berak egokien uste eban eran Gotzaingoari eskatzeko Urtarrillean emon agindua, alka-teak dantzarik itxi ez egiala bein abemaritakoak jo ondoren, exkomunikatze zemaiez, ezereztu edo kentzeko.

(Lib. VI de Decretos)

1.747-XI-14.– Jakin zan Obispaduko Bikario Nagusiak agindu ebal erri onen eta bertako alkatearen ezkomunikatze zemaia iragarten eban erabagia, indar barik laga zala.

(Lib. VI de Decretos)

1.754-XI-24.– Parrokiko abadeak eskatu eben Galtzuaran’en kanon bat ordainduta, etxe bat bere soloekaz egiteko baimena eskatzene ebela. Udalak erantzun, oraingoz, beste zerbait pentsatu arte, ez dauala aintzat artzen eskari ori.

(Lib. VI de Decretos)

1.763.– Jose Antonio Bengoetxea alkateari zor jakozan 482 erreal parro-kian egin eban pulpito barraigaitik, sindikoak ordaindu egizala erdiak aurtengo

urtean eta besteak urrengoan eta orrela parrokiak ez eukala zetan ezer eskatu aurreko urtean Aldare Nagusirako egindako errejagaitik.

(Lib. VI de Decretos)

1.766-VI-7.– Jose Etxezabal, bikarioaren idazkia Udalari, bere asarrea agertzen egiteko asmoa egoan Udaletxe barriagaitik.

(Lib. I de Cédulas Reales y del Señorío)

1.788-IX-7.– Udalak erabagi eban Klara deunaren egunean, eta Andra Mari egunean, antxiña lez, jaiak argiak biztuta egiteko (con luminarias) eta orrelaxe egin eben. Alkatea eta beste ziñegotziak jaietan egon ziran ezelako naste eta asarraldirik egon ez egian.

Eta aurrerantzean, bestelako agindurik egon ezik, Santa Clara egunean, Andra Mari bespera eta jaietan eta Irailleko Andra Mari bespera eta jaiean bardin egiteko, agintariei eskatuz zaindu dagiela jaiak garbi egin daitezaten eta garbi ipini dagiela jai tokia eta argien kostua udalaren kontura izan daitela.

(Libro ? de 1.785 a 1.789)

1.788-XI-14.– Udal Batzarrean esan zan Bikarioak ate bat egitea agindu ebala irugarren koroan ñori sartzen ez lagateko. Eta betidanik oitura zala itxastarrak ara joatea. Ziurtatu dala atea egin dala eta itxi be bai eleizkizunetan arrantzaliei bertaraten galerazoteko. Origaitik Bengoetxea jaunari eskatu jakon Uriaren izenean bikarioari eskatzeko Meza Nagusi eta Bespera bitartean ate a zabalik laga dagiela oitura lez arrantzaleak bertara joan daitezaten, eta ze erantzun artzen daben lenengo Udal batzarrean jakin eragiteko.

(Lib.....de Decretos. N. 18)

1.789-IX-13.– Alkateak esan eban Zarautz'ko konbentuko Misiolariak idatzi dautsela erri onetan amabost eguneko misiñoiak egin nai dabezala, Domu-Santuetan amaitzeko eran.

Zazpi urte diranez azkenak egin zirala, Udalak erantzun eban bere aldetik ez egoala eragozpenik.

(Libro ? de 1.785 a 1.789)

1.792- XI-18.– Parrokiko abadeak Udalari eskatzen eutsen Berriatu'k udalari itxi eutsan Astilleruko gaztañadiko frutuen amarrena eurei emoteko. Baiña Berriatu'k be ez ebala len amarren ori ordaintzen eta orretaz aolkua eskatzea erabagi zan.

1.793'ko Urtarrillean eldu zan erantzuna, esanez, ez egoala amarrenik zetan ordaindu.

(Azal bagako liburua)

1.793-XII-23.– Udal batzarrean erabagi zan Eguen eta Bariku Santu egunetan oiturazko ziran freskagaiak emotea kentzea.

(Azal bagako liburua)

1.794-VII-13.– “Vera Cruz” kofradiko araudiatzaz jardun zan, Kofradi ori parrokiatan eratu nai zalako.

(Azal bagako liburua)

1.794-VII-13.- Menpetasunezko agiri on bat Gotzaingora bialtzea, eskatzen Antigua'ko Kofradiari egin eutsan galerazpena, bertako egunean an batzen ziran kofradikoei bazkaria kofradiaren kontura emoteko, kendu eta bazkari ori emoten jarraitzen lagateko.

(Azal bagako liburua)

1.795-I-25.- Frantzetarren erasoaldiaren bildurrez Santander'era bialdu zan parrokiko zidarteria, barriro ekarte.

(Azal bagako liburua)

1.806-II-21.- Zarautz'era Misiolariak eskatu Udalak.

-IV-27.- Zarautzik Udalari erantzuna Uztailla'ren 20'n etorriko dirala. Udalak erabagi misiolariak Juan Bta. Sustaeta ziñegotziaren etxean eukiko ebela ostatua.

1.809-I-29.- Sermolaria eskatu Udalak Durango'ko Augustindar fraileei, Garro'ren dirutza truke eginda euken ituna betez.

Durango'ko konbentuko arduradunaren erantzuna, konbentuko fraile guztiak konbentutik kanpo bizi ziralara, eta sermolaria be, frantzetarrek an sartu zira-netik beste nunbaitera joana dala. Jakin eraso eutsela Ondarroa'ko guraria, baiña erantzun ebala ez eukala ez paperik ez libururik eta ezin etorriko zala. Nagusia bera Mañari'n bizi zala, frantzetarrek konbentu guztia soldaduz beteta eukalako.

1.811-II-14.- Parrokiko zidarkien zerrenda.

Parrokian egozan zidarkien zerrenda egin zan. Bertan egozan bitxiak oneik ziran:

- Zidarrezko kurutzea, ibildeunetarako.
- Zidarrezko Kurutze bat aldare nagusirako eta sei argilari, danak zidarreztuak.
- Beste egurrezko kurutze baten, zidarrezko Kristoa.
- Zidarrezko kustodia bi, bat apainduraz betea, biak urreztatuak.
- Zidarrezko kopoi bi.
- Zazpi kaliza zidarrezko, euretatik lau urreztatuak, danak euren patenakin.
- Olio santuak erabilteko iru tokidun kutxa bat.
- Zidarrezko plater bat, bost urardo ontzigaz.
- Zidarrezko intsentsu ontzi bi.
- Zidarrezko pertza bere isopoagaz.
- Zidarrezko argontzi txiki bat.
- Zidarrezko iru oleo-emole.
- Zidarrezko txilin bat.
- Jaunaren irudi bat brontzean, zidarrezko apaindurekaz.
- Monumentuko kutxarako zidarrezko giltz urreztatu bat.
- Parrokiko banderarentzako beti erabilten dan kurutzea.
- Errosarioko Amaren zidarrezko koroe bat.
- Bakartadeko Amaren zidarrezko koroe bat eta bere babespekoa.

Orretzek dira parrokiak daukazan zidarrezko gaiki bakarrak. Bitxien artean, urreztatutako katea falta da. Ontza bat eta zortziren bi pixatzen zitun, azkenengo Abenduko 18'an Manuel Atxutegi'k egiaztatu eban lez, ziuurretik goikoen aginduz Bilbora bialdu ziranean beste parrokien batekoekaz naastu zalako.

Era berean 1.795'ko beste zerrenda bat ikusi zan. Urte aretan Bizkaiko gastuetarako bialdutakoan, garaiz emon zan egiaztapenean agertzen zan eta Aldundiak emon eban baliaketan 113 marko, sei ontza eta lau zortzirengo balio ebenak. Euren agiria gordeta dago Aldundiari erakusteko.

1.816-III-17.- Gardoki bilbotarra kardenal aukeratu ebelako Te Deum eta argi apaingarriak ipintea, eta jaiak illaren 19'an, Jose deunaren egunez egitea.

1.817-V-15.- Alkateak Udal batzarrean esan eban Parrokiko abadeak idatzi eutsela, aspaldian, sei urtetik ona beintzat, domeka eta jaietako ogi eskintzan utsune nabaria igarten zala.

1.790 Urtean itundu zirala abade bakoitzari 73 erreal eta 20 marau emoteko, erriak ardaua azunbreko 10 marau zergatzen ebanean, eta orain geiagoan zergatzen dala eta euren geldia.

Orrez gain azkenengo kittapenean zordun geratu zala Udala parrokiagaz eta zor ori ordaintzeko.

Ori ikusita, domeka eta jaietako ogiari buruz esan eben eurek ez ekiela ezer eta jakin erasteko ze oitura eta eskubide dauken orretan, gaia aztertu eta erabagi al izateko.

Bigarren puntuan, auzo erriekaz aolkatu eta ikusiko dabela zelan jokatu.

Eta zorrei buruz gertu egoala udala kittapena egiteko.

1.817- Abadeen txosten bat irakurri zan udal batzarrean. Sepultura dauken bizilagun guztiak beartuta egozala domeka eta jaietan ogia eskintzera, baiña azken iru urtetan irutik bi aiña beeratu zala eskintza ori.

1.790 urteko konponketa kaltegarri izan zala eurentzat, bizimoduak gorakada andia egin dabelako. Beste artzekodunei ordaindu dautsela eta eurei ez.

Ori ikusita udal batzarrak erabagi eban 15'ko agiria bertan bera itxi eta urrengo batzar baten onetaz jardutea.

1.818-XII-6.- Erregiña aurduin dala eta bederatzii illabetetan sartuta eta ainbat ariñen errogatibak egitea, bere erdibitze onaren alde.

1.818-IV-1.- Parrokiko fabrika auzitan ebillala Anbrosio Alegriagaz, ibai onetan zear eta Erreteritik lagun batzuk kanpora atara eben meazkien kintaleko erreal erdikoaren ordainketari buruz, olagizonak euren meazki-pilloak jaso ondoren, eta Bizkaiko ordezkariari eskatzen eutsen udala zala Parrokiko fabrikako patroe nagusi eta alegin egiteko auzi onetan fabrika orren alde arduratzen.

1.833-VI-24.- Abadeak udal-gizonak aintzat ez artzea.

Besperen ondoren batu zan Udala, Abadeak goizeko meza nagusian, eskintza artzera aldaratik ez jaistean udal gizonei egin dautsen ez-ikusia eztabaidatzeko.

Udal agirian au esaten da:

Mezatarra batu diran guztiak konturatu dira abadeak ez dirala urreratu oituzko diran eskintza biak artzera. Eta abadea azken Ebangelioa irakurten egoala, subdiakonoa ogiaren eskintzara urreratu dala, baiña udal agintari eta beste lagunenik egin barik meza amaitu eta sakristira joan dirala.

Alkatea kanpoan dagolako, bere ordezkoa gaur jarri dala lenengoz bere aulkian. Garramiola subdiakonoak, Zabala jauna alkate zala ba ekiala aren aukeraketa egin ondoren, bere zorion jaira joan eta gero andik alkate eta beste udal gizonak Eleizara joaten, baiña orrelako oiturekaz aztuta, eta alkatea eta beste udal gizonak euren etxeetan itxita, besperiei asiera emon eutsala, eta origaitik eta goizean gertatutakoagaitik, eta Garramiola lendik daukazan ekintza batzukaitik, Udaleko gauzetan geiegi sartuta ibilteaz eta abar, susmoa daukela aztuera baiña beste zerbait bitartean geiago dagola mendeku (bengantza) lez, batez be kontuan eukita alkatea Garramiola'ren aitari egindako legezko salaketa batzukaitik alkatetzatik kanporatua izan dala .

Ori orrela udal batzarrean erabagi eben, gai ontaz aolkatzea eta Abade taldeari jakin eragitea.

Abade taldeak erantzun eban:

Eleiz abade taldeak garbi jokatu nai izan dauala beti, eta bere bearkunetan zeatza izaten alegindu dala.

Jakin dabenez, atzoko batzarrean zerbait erabagi ebela, goizeko meza nagusitan euki eben nai bako aztutzea zala-ta, uste izanik naita egiña izan zala. Eleiz Abadeak ziurtatzen dabe aztutze a berezkoa izan zala, ezelako aitzaki barrik, eta sekula be ez agintariei min emoteko asmoz ez beste iñori. Ori orrela ziur dagozala atzo artutako erabagiak indar barik itxiko dabezala, eta aurrerako biderik ezetan artu barik.

Idazki au Juan Bizente Bengoetxea-Franzisko Jabier Gelaloro-Pedro M^a Garramiola eta Domingo Antonio Garramiola abadeak izenpetzen eben.

Udal batzarrak azalpena ontzat artzea erabagi eban.

1.842-XII-18.- Abade bat ilda egoalako, udalean eztabaidatu eben 1.843 urterako geiagorik edo ordezkorik bearko ete zan eta geiengoan ustez erabagi zan laurek bete egiela parrokiako zeregiña.

1.846-VIII-23.- Abadeen eskarija irakurri zan Udal batzarrean, Misiñoiak asiko zirala parrokian eta oitura zala kanpotik autor-entzule bi ekartea gogoratzen.

Ituarte'k esan eban misiolariak eta autor entzuleak ekarteko, beti be lurraldeko politika gaietako buruaren baimena lortuta. Manzisidor'ek bere aldetik misiolariak ekarteko, baiña ez egoala zetan kanpoko auto-entzulerik ekarri. Beste batzuen esanetan, batzuei ordaintzen ba zan besteei be ala egiteko.

1.855.- Udalari Parrokiak bialdutako urteko kontua:

Domingo Antonio Garramiola abadeak izenpetuta, kontu au agertu zan:

494 erreal, abade ogipidekoen artean banatzeko.

36 erreal, urteko Misereren ordez.

56 erreal, Tinieblak abestutzearren.

56 erreal Markos deun eta Asentzioko Letani eta Mezaen ordez.

30 erreal Bariku Santu eguneko sermoitara eta ibildeunera joateagaitik.

65 erreal eta 10 marau, Kapillako iru meza abestuen ordez eta domeketan Antigua'ra igotzeagaitik.

12 erreal Santa Clara'ko Meza eta basoetarako bedeinkapenagaitik.

4 erreal Erroke deunaren meza eta ibildeunaren ordez.

284 erreal kolera izurrite denboran Antigua'ko Amari egindako bederatziiurrenagaitik, beste bat Erroke deunari eta eguraldi txarren aurkako erreguekaitik.

1.868-XI- 15.-Alkateak gogoratu zitun parrokian egindako lanak. Eleiz fabrika diru barik dagola eta falta dana udalak ordaindu bearko ete eban eztabaidatu zan. Batzartuei itandu eta erantzun eben ala egitea, baiña fabrikak dirurik eukiteko aukerarik lortzen ba eban, udalak emona biurtzekotan.

1.872-X-26.- Udal batzarrean beste gai batzuk aztertu ondoren, erabagi zan Parrokiko Bikario jaunari agiri bat bialtzea era onetan.*

“Udal au beartuta aurkitzen da bere asarrerik biziena agertzera Espiritu Santuaren Irakaskintzatik bakar bakarrik politikoen erretorika-gai diran itzaldi batzuk entzun izan dauzalako, alderdikeri itsutasunez bakoitzaren ikuspegi soillak agertuaz, orrela Ebangelioaren agerlari dan baten bake eta maitasun era-

* Libro n 9 de decretos. De 1.853 a 1.878

26 de Octubre de 1.872

Sesion.-”acto continuo dispuso el Ayuntamiento poner un oficio al Señor Vicario de esta villa, cuyo tenor es de siguiente signo:

El Ayuntamiento de esta villa, se ve en la imperiosa necesidad de significarle el disgusto que le causa oír desde la Cátedra del Espíritu Santo palabras propias solamente de discursos políticos, donde la pasión de partido lleva miras interesadas, así la misión de paz y caridad exclusiva de un ministro del Evangelio se convierte en alarma de las conciencias, con grave daño para aquella Religión de caridad que nuestro señor Jesucristo enseñó principalmente en la Cruz, rogando por sus encarnizados enemigos.

Motiva esta circunstancia el haber escuchado desde el púlpito recuerdos de combate que despiertan sentimientos belicosos en las masas populares, tan peligrosos como inoportunos en una época que aún nos presentan recientes sangrientos combates del campo de batalla. Hoy como nunca debe el sacerdote velar por la alarma entre los hombres de la nación Española tan expuesta a verse arruinada por las discordias intestinas. Se ha oído también sobre la prisión del Soberano Pontífice, faltando a la verdad, desde el sitio destinado a la manifestación de solo la Verdad. Cuando hace pocos días el Papa fue saludado en público por numerosos eclesiásticos, ¿cómo puede decirse que está preso, nada menos que desde lugares tan sagrados? Por otra parte si sube a profanar el púlpito algunos de los que han ido a hacer armas o fomentar la rebelión en los montes o en los campos debe interrumpirse en su sermón y el Ayuntamiento de la villa está dispuesto a poner en práctica todos los medios conducentes para conseguirlo. Así pues, Sr. Vicario Ecc^o, se dirigen los representantes de este Municipio, con el fin de que haga valer la autoridad sobre los predicadores que pretenden abusar de su ministerio, confiando de su sabiduría y celo de Ud. el que se obtendrán los más felices resultados en beneficio de la tranquilidad y de la verdadera religión que profesamos.

Ondarroa a 26 de Octubre de 1.872.- Firmado Eduardo de Nafarrete.

Al Sr. Don Domingo Antonio Maria de Garramiola, Pb^o Cura y Beneficiado de esta Villa y Vicario así bien de ella y su partido.

kusgarria, kontzientzi askoren ardulari eta kezkarri biurtuz, Jesukristo gure Jaunak, batez be Kurutzetik erakutsi eban maitasun erlejiñoa, areriorik gogorenentzako be begirunea eukanari, kalte andia eragiñaz.

Asarre au pulpitotik entzun diran jokabide baten oroitzak gogoratzetik dator, erritarretan gerra bateko berotasunak dabezanak, arriskutsuak eta lekutik kanporakuak, oraindik be guda lekuetako erasoaldi odoltsuak gogoratzen doguzan unetan. Gaur iñoiz baiño geiago zaindu bear dau abadeak barruko asarreen ondorenez beia jota geratzeko arriskuan bizi dan Españaiko gizonen arridura. Egia bakarrik erakusti bear dan tokitik Aita Santuaren baituera be azaldu izan da, guzurretan. Aita Santua egun gitxi dirala abade batzuk agurtzen ebela ikusita, zelan esan leike orrelako toki sakratutik preso dagola? Beste aldetik pulpitorra bera laidotu leiken iñor igoten ba da, gerra biztuten edo ta mendietako edo zelaietako iraultza goratzen, bere sermoia eten eragin bear da eta Ondarroako Udala gertu dago ori lortzeko egin bear diran alegin guztiak egitera.

Ori orrela, Bikario jauna, Udaleko ordezkariak zugana zuzenduten gara, bere zeregiña laidotuta baliatzen diran sermolarien artean zure agintea agertu dagizun eta zure zurtasun eta arduran sinistuz uste dogu daukagun egizko erlejiño eta fedearen bake alde onurarik onenak lortuko dirala.

Ondarroa'n, 1.872'ko Urrilla'ren 26-an
Eduardo Nafarrete (Alkatea)

Domingo Antonio Maria Garramiola, abade eta Ondarroa'ko ogibideko eta bertako eta inguruko eleiz barrutiko Bikarioari.

1.878-VIII-31.- Erritar batzuen kexak egon ziralako, Zakarias Usobiaga'ri Iñazio deunaren egunean batu eban diruaren kontua eskatu jakon. Guztira irurogei ta amar erreal ziran eta bertatik amar erreal emon jakozan berari batzearen orde.

1.885.- (Onelako kontuak urtero agertzen dira)

40,05, au da, berrogei peseta ta txakur txiki bat Apostolu, San Migel, Nazareno jantzi ziran gizonei, Eguen eta Bariku santuz ibildeunean ordena ipinten alegindu ziran gizonei eta Bariku Santu egunez "fariseo" jantzi ziran lau gizonei, antxiñako oitura zainduaz.

1.886-II-1.- 224 peseta Loiolako lanetarako, kontuan eukita san Iñazio amaren aldetik uri onetako jatorrikoa zala eta bertako patroia ama emengoa zalako.

1.886-II-28.- 22 peseta Eduardo Nafarrete'ren etxeko kantoian san Iñazio-ren oroitarria ipinteko.

1.898.- Ibildeunetan (prozesiñoetan) ibilten dan "San Migel" aingeruaren jantzia.

Beronika Iriondo'k josi eban eta kontu au Udalak ordaindu"

Oiña eta egoak	25,00
Aforruak	5,00
Egitura	20,00
Guztira	<hr/> 50,00

ELEIZ INGURUAN. OITURAK

Eleiz bizitza inguruan egin izan da lengo urtetan Ondarroa'ko bizitzarik geiena.

Orain berrogetamar urteko jakingarri batzuk dira oneik:

KANPAIAK

Bost kanpai dagoz kanpai torrean.

Tellatuan, "bueltake" txiki bat. Txiliña deitzen dautse. (Meza-txiliña, erro-sariotarako-txiliña.)

Itxasora begira egiten dan ormako zuloan: "Bueltake txikia" 1.895 urtean ipinia.

Antzosolo'ra begira egiten dan orma zuloan: "Bueltake andia" 1.832 urtekoa.

Barruan, bien artean aurre osoa beteten dabela: Geldiko bi. "Bajua" 1.916 urtekua. "Altua" 1.882 urtekua.

NOIZ ETA ZELAN JOTZEN DIRAN

Egunero :Goizan, albakoan : Bederatzi dangada, "altuagaz":

Eguerdian, amabietan, amabi dangada, "bajuagaz":

Illuntzean, "Abemaritakoetan", bederatzi dangada "altuagaz":

Gabean: Arimenak. Iru "dobлеко", "altua" eta "bajua" batera erabiliaz. Gero bajua ta altua txandaka jotzen ekiñalditxo bat eta "akaberia".

"Altua" --- - - - -

“Bajua” - - - - - , eta akaberia biak, bata bestearen ondoren bitarte barik joaz.

Txiliña.— Meza eta beste eleizkizun txikietara deitzeko erabilten da txiliña. Geienetan, eleizkizuna baiño ordulaurren lenago jotzen da lenengoz, eta gero bost minututik bost minutura beste bitan.

“Buelakoak”.— Domeka eta jai txikietan, “buelako” txikia erabilten da.

Jai andiagoetan, Urte-barri, Andra Mari martiko, san Jose, eta antzekoetan, “buelako andia” bakarrik.

Jai andietan, Errege, Pasku, Gorpuzti, Andramari eta abar, “buelako” biak batera. Orrez gaiñera, buelakoak jotzen direnean, nai ta bat bakarra jo, beste kanpai biak be jo egiten dira.

Goiza ba da, lenengo, beti, albakoa jotzen da ta gero beste kanpaiak. Illuntzean be, lenengo abemaritakoa, eta gero besteak.

Astelenetan, lenengo meza arimena izaten da. Origaitik albakoa jo, eta meza aurretik lenengo txilin aldia jotzen danean, “bajuagaz” iru dangada jotzen dira, abadea elizara sartu dala adierazoteko.

Meza au arimen altaran esaten da. Sakristauak sakristiko atetik abestuten ditu meza zatiak eta erantzunak.

Meza ondoren, eleiz barruan bost “errespontsu” kantatzen dira. Sakristaua kurutzegaz eta abadea kapa baltzagaz. Errespontsuak : Errosarioko aldarea egiten dan aurrean, albatetako sarrera onduan, sakristi aurrean, arimen aldarea baiño lentxuago eta azkena erdi-erdian. aldare nausi aurrean.

Zapatuetan Lenengo meza, Errosarioko aldarean. Meza abestua. Meza onetan organistek jo ta abestu bear izaten dau.

Egunero: Bederatzietako mezatarako sarrera, kanpai “altuagaz” egindako jotaldiaz : - - - - -

Domeka eta jaietan, meza ixillen sarrera, meza asterakoan, kanpai “bajua-
ren” iru dangadaz iragarten da : - - -

Eleizakoetan (Gure Jauna etxera gaxo bateri eroaten) Kanpai “altuagaz” sei danbada bitartea lagata:

- - - - -
Eleizakuak eta azken igortza “oleaziñoia” batera ba dira:

Eleizakoetan lez, lenengo seirak, eta gero, bitarte bat ondoren, neurri bardiñean beste iru.

Eleizakoak, kaleko batentzako ba dira, kanpaia jo eta amar minutu inguru jentea batzeko zai egoten da abadea. Gure Jauna kalera urteterakoan, lau txilindun esku-txiliña jotzen joaten da sakristaua, esku baten parola eta korporalak daroazala eta bestean txiliña.

Eleizakoak baserrietarako ba dira, min bakardun txilin andiago bat eroaten da.

Agoliña (Agonixa) Kanpai geldi “altuagaz” iragarten da:

Bina-biñako joaldiak: --, --, --, --, --, --,Orrelaxe joaldi bat egin eta gero, gizona, emakumea edo abaderen bat dan jakin erazteko ezaugarria:

Andrazkoena, bi: - -

Gizonena, iru : - - -

Abadeena, bost: - - - - -

Eriotzak

Lenengo “altua” eta “bajua”gaz, baterakoak - - gero goikoa eta bekoa txandaka bitarte baten eta barriro bikoitzak jo eta azken erremata, akaberia. Emen, bikoitzak, “doblaturak”, andrazko, gizonezko edo abadea dan kontuan eukita bakoitzari dagozkionak.

Illetak

Gorpu jazotea gertaten danean, abadeak eleizatik billa urteeran, “abateixa” jotzen da “ “Altuagaz” sei danbada: - - - - - eta gero bikotzak “doblaturak”, bakoitzari dagokiozan lez, eta gero goikoa eta bekoa txandaka jotzen jarraitu gorpua eleizpera eldu arte. Geldiroago edo ariñago jo igarri egiten da illeta ze “klasetakoa” dan.

Baserrietako illetetan ez da abadearen urteerako abateirik jotzen, Gorozi-ka’ko auzoko norbait danean, Zaldu burura gorpua agertzen danean jotzen dira “doblaturak”. Gero, kaleko maira eltzean, (Mari Toba’neko etxe aurreko maira gorpua eldutean) abateia jo eta beste illetetan lez gañerakoa.

Asterrikako gertakizunetan, “Arri-Andietan” bera “Pepe Txurru”nera agertzean, “doblaturak”. Gero, Ospital ondoko maiara eldutean, abateria eta kalekoetan lez.

Sua iragarteko Sua edo ta ondandien bat iragarteko, kanpai geldi biak naste borratean jotzen dira.

Konjuroetan Bardin. Eta ondoren, abadeak, eleizpetik konjuroak irakurri.

Garizuman: Arratsaldeko iruretan” Penitentzi kanpaia. “Altuagaz” jarraiko jotaldi bat: - - - - -

ERIoTZAK

Ildakorik geienak “karmeldar” jantziagaz jazten dira. Atzeko barik. Aurrea bakarrik. Andrazkoak “frantziskanak”.

Illa etxean dagon artean, ordu berezi batzuetan an gertatzen diranak, au da, albakoan, eguerdian, abemaritakuetan eta abar, “errespontsuak” errezaten ditue.

Gauela : Gauela egiteko oiturea dago.

Amarrak inguruan, andrazko errezatzaileak, 15 eskutapeneko errosarioa esaten dau, eta gero letaniak eta beste santu askori otoitzak “ difuntuaren onerako eta bere salbasiañorako”

Gau erdi ingururako geienak euren etxetara joaten dira eta senide urrenak gelditu.

Illa, geienetan, senideen lepoan ataraten da etxetik.

Eleizarako ibilaldian: Kanpaiak; Abateixa, il-kanpaiak, eleizararte.

Illeten mallak : 1^a eta extra

2^o

3^a

Gorpuaren aurretik akolituak. 1^a eta extretan: Iru, kurutze eta zirirolekin. Abadeak be erdiko kapaduna eta beste bi zetroekaz. 2 maillakoetan, akolitu bat, kurutzea bakarrik eta kapadun bat. Besteak erroketeekez. Eleizan azken erresponentsurako kapak jazten ditue beste bik, eta egurrezko zetroak.

Abadeen atzetik gorpua. Geienetan lau lagunek eroanda.

Gizon eta andrazko egiña ba da, kaja baltza.

Mutik gazte eta neskatillentzat : urdiña.

Iñuzente eta gazteagoei, kaja zuria.

1^a eta extretan, etxeratutako koñata edo erregin bi, kaja ostean, bakoitzak kandelar bi kandelak biztuta daroezala. Bestelakoetan, bat kandelera bigaz.

Andrazko oneik dolu andiko jantziak, au da, goitik berako oial baltzekaz.

Andrazko onein atzetik, gizezkuak, erreskadan, senitarteko urrenetik asita. Bein senitartekoak amaitu ondoren, beste gizezkoak moltsoan. Ondoren andrazkoak. Eta atze-atzean, andrazko senideak.

Eleizpean, “erresponentsuak” esan eta gorpua kanposantura eroaten da. #

Batzuk, askok, gora igoten dabe, gorpuari laguntzen, eleizan, abadeak, illetak latinez errezaten dituen artean.

Eleizan, erdi erdian, “tumba” bat ipinita egoten da. Aren atzean lagaten ditue andrazkoak eroandako kandelarak.

Senideak, gizezkoak, aurreneko aukietan jarten dira, baiña lenengo aukia, alkatearena, utsik lagata. Au illetetara joan ba da, nai ta senide izan ez, bere lekuan jarten da.

Andrazkoak, senideak, etxeko “sepulturan”.

Oial baltza ipinten da etxeko sepulturan, beian, eta bere gañean argizariola biztuta, eta aurrean, oial gaiñean, bandeja bat, eskintza edo ofrendako diruagaz.

Eleizpean mai bat ipintzen da eta seroreak edo sakristauak artzen dau mezen agindua. Danetara be peseta bat ordaintzen da mezako. Familikoak, senideak eta nai daben guztiak ataraten dabe meza. Orretarako etxe bakoitzaren edo famili bakoitzaren izena emoten da eta peseta ori ordaindu. Baserritarrak euren oitura berezia eukiten dabe eta bakoitzak zenbat izenpetu, urrengo okasiñoan era berean erantzuten dabe besteak.

Meza oneik atarateko batzen dan diruagaz abadeak gelditzen dira, “mezak eskintzeko”. Baiña ataratzalleen izendegia, “lista”, etxekoei bialtzen jakoe, urrengoan jakin dagien nortzukin erantzun bear daben.

Sasoi baten mezako 0,90 ipinten zan eta beste txoriandia “amen-kirie-eleisonetarako” gorde.

Ondretan be mezak bardintsu ataraten dira. Baiña “entierruko: eguncan meza eskiñi eben guztiak ez dabe oneitariko beartasunik artzen.

Beraz, batzuk, entierruan eta ondretan ataraten dabez mezak. Beste batzuk entierruan bakarrik. Eta erantzun be alaxe egiten da urrengo gertaeran.

Zenbat abade ainbeste diru ipinten dira, peseta bikotan, pesetetan edo errial bikotan, illeta zelako alako dirutan.

Meza amaitu eta erresponsuak esan bitartean, serorea sepulturara joaten da, an etxeko lenenari diru-bandeja artu eragin, eta beragaz batera erdira eroan, "tumba" ondoan egoten dan kurutze ondoan. Beriala, gizonen "filla"tik etxeko-koen batek urteten dau, eskintzako bandeja ori artu, eta abadiekana urreratu (erdikoagandik asita) eta bakoitzari eskuan mun emon ondoren bakoitzari bere dirutxoia laga eskuan. Eta barriro zain dagon etxeko emakumiari bandeja utsa emon, eta sepulturara joaten da an lagaten.

Illeta nausia or amaitzen da. Baiña beriala "Amen Kirieleison"ak asten dira.

Erdiko abadea bertan gelditzen da eta besteak eleizako beste egaletan banandu, erresponsuak esaten. Aita gure bat amaitutzean, akolituak abots lodiz esaten dau: Amen, Kirieleison, Kriste eleison, Kirieleisooooon...." Eta olako bakoitzean andrazkoen, erreskadan, banan-banan, bakoitzak zenbat eskiñi nai ainbeste "paternoster" abadeari errezatu eragiten dautsoz, bakoitzean bere limosnagaz kurutzea ikutu, mun emon eta limosna ori kutxan sartuz.

Senitarteko urrenak erdiko abadeagaz egiten dabez euren eskintzak. Besteak egokien gertaten danagaz.

Illeta au egin ondoren, geroago, astegunetan nai ba da, era danean, eta igandetan nai ba da, tokaten dan egunean, ondraz egiten dira. Ondraz, arratsaldean egiten dira lenengo, bezpera ondoren illen nokturnoa abestuz eta urrengo goizean maitiñak eta meza abestuagaz.

Geroago, mankala jasotea eta urtekua be egiten dira, baiña oneik goizean bakarrik eta azken bi oneitara andrazkoak bakarrik joaten dira oituraz.

Sepulturako zaintzeak bearkun asko daukez atzetik:

Sepulturara joatera beartzen dabe, argizaiola biztuten dan eleizkizun guztietan. Besteen artean :

Astelenetan, lenengo meza, arimena.

Egunero : Bederatzieta meza eta arratsaldean ondraz gertatu ezker, ara be bai.

Zapatuetan : Lenengo meza, Errosarioko meza. Eta illuntzeko salbea.

Domeketan : Meza nagusia eta bezperak.

Garizumako barikuetan, illuntzeko eleizkizunera. Ama Doloretakuaren bederatziurrena, arimen bederatziurrena eta abar.

Ortiz gaiñera, domeka eta jaietan eta jai-erdietan, "ofrenda" egin bear izaten da. Ofrenda orretan, kredo ostean, meza emolea aldareko eskillaratik andren lekura urreratzen da eta ara joaten dira sepulturako urtea dauken andrazkoak eskintza egiten: 0,60; 0,30 edo 0,20 lagaten dituez papertxoan batuta. Eleizkizuna ze eratako aukeratu eben alako ofrenda urte buruan.

UMIEN ILLETAK

Geienak arratsaldetan egiten dira, meza barik, ume kozkondua izan ezik.

Kanpaia: Txilin-txilin. (Ala deitzen dautse buruz argi ez diranei be: zu txilin-txilin eroango zaitue”.

Txilin-txilin au kanpai “buelta” altua eskuagaz jotzen egiten da, — geratu barik jarraian, eta alaxe abadeak eleizatik gorpu billa urten, eta beragaz ospital ingurua igaro arte, kanposanturako bidean. Eleizan ez dabe sartzen.

Kaja zuria. Abadea erroketeagaz. Gizonezkorik ez da joaten, oituraz. Andrazkoak egiten dabe illeta au. Abade bakarra eta beragaz kanposantura. Andik berakoan eleizan sarrera bat egin eta errosario bat errezaten dabe.

UR BEDEINKATUA

Zapatu guztietan, illuntzean, bikarioak urak bedeinkatzen zitun, ur bedeinkatu ontzi bietan, ortarako lengo zarra kendu eta barria ipini ondoren.

Une berean, bandejatxo baten, ogi koskortxuak bedeinkatzen ziran. Ogi oneik, urrengo goizeko lenengo ordutik, ur bedeinkatontzi egalean lagaten ziran. Eta mezatan Jaunartu ebenak, etxerakoan, zatitxo bana artzen eben.

GARI BEDEINKATZEA

Garillean egiten zan.

Abadea eta akolitua joaten ziran.

Gorozika auzora joan bear zana, goizetik, Zaldu-burutik asi eta Iramategi biak, Gorozikako baserri guztiak, Munabe eta Allenda’k, eta gero Baraiku, Burgo eta Akilla’tik zear errira biurtu.

Etxe bakoitzaren aurretik bedeinkatzen ziran soloak eta igaliak, eta akolituak eroaten eban otzaran olloak artu be bai edo ta beste zein jaietan etxera erogan agindu.

Asterrika auzora, Anakabe’tik sartu ta Ikaita eta Arteta’n bera amaitu. Ara be goizetik.

Errenderi auzoko baserriak arratsaldean egiten ziran.

Bedeinkatzaileak : Aste Santuan meza emole tokaten zan abadeak egiten eban Errenderi. Diakonoak, Gorozika eta epistolakoak Asterrika.

KORRETA BUELTADUN MEZA NAUSIAK

Jai andietan, meza aurretik eleiz inguruari bira egiten eutsen abade guztiak, jantzita. Ortarako eleizpean txistulariak zain egoten ziran eta abadeak eleizako ateraño kantuz joan eta gero txistulariak joaten ziran aurretik, “Iñaxio” jotzen. Erriko agintariak be eleizpean zai egoten ziran, eta abadeen atzetik eurak joan eta gero eleizan sartu. Bestelako jenderik ez zan joaten. Au egiten zan jaiak: Urte Barri; Errege-eguna; Pasku; Asentsio, Bigarren Pasku; San Iñaxio; Andra Mari Martiko; Kontseziño eta Natibitate.

PASTIKUM (PAX TECUM)

Meza nagusietan, Agnus ondoren, bakea eskintzean, meza emoleak mun emoten eutsen burdiñezko edo zidarrezko “Agnus” biri. Eta jarraian akolituak eurekin urtetan eben: Batek aurreko aulkietako guztiei emoten eutsen mun eragiñez, eta bestea korora igoten zan, lenengo organisteari eskiñi eta gero koro-koei emonaz. Gizonak amaitu eta barrero aldarera eroaten ebezan, andrazkoei emon barik.

AZKEN ONESPENA

Abadeak meza osteko bedeinkasiñoia emotean, askok eskuagaz kurutzea egiten dabe aidean eta gero Kurutze Santuaren egin. Eta gero, azken Ebangelioa irakurri eta azken aldian belaunikatu ondoren zutik jarrean, zar askok alkarri esaten dakie: Jaungoikuak daitzula egun on.

MARIÑELEN MEZA

Neguan, besigu denporan, domeka eta jaietan, arrantzalien meza egoten zan goizaldean. Askotan, urteera itxas-mareagaz egin bear izaten zalako, mare egokia noiz, ordurako esan bear izaten zan meza. Meza onetara arrantzaleak bakarrik joaten ziran, eta bein gau-erdia ezkerro, edozein ordutan esaten zan. Olako egunean arrantzaliei deia jotzen eutsenak, ordu bete lenago jotzen eben deia, itxasorako deia, meza entzun egien.

Deia jotea korretako ate nausian asten zan. An jotzen eban lenengo deilarik ateko burdiña iru bidar eta gero andik deilariak kalez kale zabaltzen ziran, ate egokia edo zaratea atara eikien tokietan malluagaz ate edo ormak jotzen, gizonak itxasorako itxartuteko.

JAI BEREZIETAKO OITURA BATZUK

URTE BARRI.— Oiturazko kantua : Urte barri barri
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
emon bear sarri.

ERREGE EGUNEAN.— Eguerdian, bazkari bitartean, gizon “ondraduak” bizi ziran etxietako atadietan txistulariak jotzen eben eta eskupekoa artu.

KANDELARIOZ.— Kandela bedeinkatzea amarretako mezatan. Familiarik geienak bedeinkatu nai izaten zituen kandela bi, etxean zerbait gertatu ezkerroz be kandela bedeinkatuak eukiteko. Ekaitz egunean, edo eleizakoetan, eta illetetan erabilten ziran kandela oneik.

- SAN BLAS.— Gozoki eta janari txikien bedeinkatzea. San Blas aria be bai. Ari au zaman lotu eta bederatziruenean euki bear izaten da.
- GARIZUMAN.— Musikarik ez da jotzen dantza lekuak. Arratsaldetan, bezperetan, sermoia. Sermoi au koajutoreak egiten eben txandaka.
- PENTEKOSTES.— Aurreko larunbatean, goizean bedeinkatzen dan ura etxe guztietara eroaten zan.
- TRINIDADE.— Amarretako meza nagusia Antiguan.
- SAN JUAN.— Goizeko seiretan, albako meza San Juan ermitan. Antxe bedeinkatu be lora txortak. Txorta oneik balcoietan ipinten dira edo ta atadietan. Gorozika auzoan, jai eguna. Meza nagusia. Arratsaldean, illuntzean, Auresku dantza bertatik erri-raino. Zaldu buruan maia ipinten eben, azukrizauzko ura saltzen. Gorozikan bertan, erroskak.
- SANTIAGO.— Meza nagusia Santa Klara'ko ermitan.
- SAN IÑAZIO.— Meza nagusi ostean, erromeria bertan, eguerdiartean.
- SAN BARTOLOME.— Meza nagusia. Meza ondoren, "Likona Torrea"ren aurrean kontziertua.
- SANTA CLARA.— Antigua'n meza nagusia. Bezperan, konpletak Santa Clara'ren ermitan. Abade guztiak joan bear izaten eben. Bere egunean Meza nagusia. Eta ondoren, Auresku eta erromeria. Egun onetan abestuten zan "Bieta Santa Clara" edo gerotxoago, "Erderaz zara Clara".
- SAN LORENTZO.— Asterrika'ko jaia. Meza nagusia. Erriz Berriatua, baiña eleizaz Ondarroa.
- SAN BARTOLOME.— Antigua'n meza nausia.
- SANTA TERESA.— Antigua'n meza nausia, sermoi ta guzti.
- SANTA BARBARA.— Antigua'n "makinista-fogoneruen" meza.
- SANTA KUTZ.— Maiatzean eta Iraillean, Santa Kutz'en meza.
- SAN ROKE.— Goizeko zortzi ta erdietan, parrokitik kapa ta guzti urtetan eban abdeak "Aita Piedade"ko eleizara. An meza emon eta barriro eleizara biurtu.
- SAN ANDRES.— Iru abadeko meza abestua, kapillan.
- SAN PEDRO TXIKI.— Ildakoen meza nausia. Gero "Saliña Saliña" dantzak kaletan.
- SAN PEDRO EGUNEZ.— Meza nagusi bi. Bata bederatzietan, ordu bete aurreratuta, oizkoa. Eta bestea, San Pedro'ren aldaran, amarretan, sermoi ta guzti.

URRILLEA'N.-

Errosarioko egunez, kalez kale ibildeuna arratsaldean. Urte guztian, lenengo domekan, arratsaldean, bezpera ondoren, korretan bueltia, letaniak abestuten. Egun onetan, illen ondrak gertaten ba ziran, ondra oneitan aurreko bankuan gertaten ziranak joan bear izaten eben kandelak artuta, ibildeun onetako buru.

DOMU-SANTUZ.-

Arratsaldean, bezperak ondoren, illen nokturnoa. Eta gero, ia arratsalde guztian, "amen kirie-eleisonak". Arimen egunez goizeko bostetan mezaz asi. Bederatzieta meza nausia, sermoiagaz.

Arimen bederatzurrrena. Altara nausian kajoidun kuadru andi bat ipinten zan. Atzean argiak biztu, irudiak eta suaren indarra igarteko. Kuadru orrek esakera au euken: "Miseremini mei, miseremini mei,

saltem vos amici mei,
quia manus Domini tetigit me."

Eleizkizun bakoitzaren ondoren, bastertu egiten zan kuadroa.

KONTSESINOZ.-

Bederatzurrrena.

Neskatillak abestuten eben, beian, armonio baten inguruan korroan batuta. Geienetan erderaz.

Egun berean, arratsaldean eleizkizuna. Ibildeuna. Neskatiak aingeru jazten ziran, argiak, zintak eta lorak eroateko. Oiturazko kanta: "Euskalerriko seme guztiak". "Sortzez beterik".

Egun onetan neskatiak askok, zigarro puroak eskintzen eutsezan begiko mutillei.

Eguerdian, txistulariak, bazkari bitartean, neskati-llen atadietan txistua jotzen eben.

GABON ZARREZ.-

Illuntzean, Te Deum.

Gabeko amabiak jota, itxasontzi jabeak urte guztian sareak ezkegiteko tokia aukeratu bear izaten eben, eta ortarako, amabiak joaz batera, eskubidea artzeko, estakak sartzen zituen gero agak ipiniko zituen tokietan.

ATUN SASOIAN.-

Erriko ermitetan, bostak inguruan, erriko andrak batzen ziran, gizonen alde, itxasoetan ebiltzan gizonen alde, errosarioak errezaten. Ala, San Juan'en, Aita Piedadekuan, Arrigorri'n, Gardotza'n eta Antigua eta Santa Clara'n. Ortarako kanpaiak jotzen zituen ermita bakoitzean.

ANTXOA SASOIAN.–

Aste santuko santuak jazten zituenak, ba ekien santu arein jantziak lotutako orratzak baporetako andrei eskintzen, eurak be itxasora eroaren ziran sariei lotu eta bedeinkatuta eukiteko.

BATAIOAK.–

Ama askoren borondatez, umeak jaio eta beriala bataiatzen ziran. Orretarako, aita-besutakoak billatu ta kittu.

Gero amak ez eban kalera urteten, “eleizan sartzea” egin barik. Ortarako bera joaten zan umeagaz, eta abadearen onespina artu ondoren, bere bizi oia egiten asi.

ASTE SANTUA

Ama Doloretako egunez asten da Aste Santua. Andren eguna geien bat be. Goizean meza nausia ta sermoia. Illuntzean, eleizkizun ondoren, “korretan bueltia” Ama Doloretakoaren irudiagaz.

Erramu igandez, eriñotz eta palmen bedeinkasiñoia. Abade eta alkate ta kontzejalenzat, palmak. Erriak, eriñotzak. Eriñotz oneik atetan ipinten dira, edo ur bedeinkatu ontzietan, bedeinkatuta gero. Itxas ontzietako tximini eta beste toki agiritan be bai. Eriñotz adarragaz, erdibitu ta kurutzeak be egiten dira eta ate eta ontzietan josi.

Eguasten santuz, Aita Eternua bere ermitatik eleizara eroatea, Mare puntan beti.

Egunez: Goizean eleizkuzina. Egun onetarako Kristo eta apostoluak jantzi egiten dira, eurak iruditzeke. Arratsaldean, gaurko egunez eta biarkoz, Kristo'k Aita Basterretxearen pasiñoia kantaten dau arabeen antzeko doñu bategaz. “San Juan”ek eukiten dautsa alboan kandela bat biztuta, ondo irakurri daian. Kristo'k abots eder eta argia euki bear izaten dau. Berak bertsoa esan eta beste guztiak “Damu dot Jauna” erantzun.

Barikuz.– Goizeko eleizkizunen ondoren, apostolu jantzi diranak, oraindik egueneko jantzi zarragoekaz, Santa Kutz mendira igo bear izaten dabe, kurutzetakoan bidetik. Oitura bat da.

Arratsaldean izaten da eleizkizun andia. Apostoluak “Pasiñoia” abestu, eta beste eginkizunak egin ondoren, kurutzetakoak. Amabigarren estasiñoian, eleizako ate nausia zabaltzen da eta erromatar gudari “palaziegoak” asten dira atean puntxoagaz beia jotzen. Alaxe, zela-ala eleizan tokia egin eta an sartzen dira, lenengo, aurretik bi. Euren ondoren, Beronika iruditzen dabena, Iru Mariak, Maria Madalena (au beillegia izan bear da eta ule luzeduna), Kristo eta Zireneo, San Miel aingerua eta ondoren erriko agintariak, eta azkenean be beste erromatar gudari bi. Kristo illaren kaja ondoan geratzen dira oneik, an tinko gelditu beia zaratatsu jo ondoren. Eleizkizunak aurrera jarraitzen dau.

Ibildeunean danak parte artzen dabe. Kare edo egurrezko iruđietan, San Juanxu, Ortu Santua, Kristo txikia, Jesus illa bere kajan, Ama doloretakoa. Bizietan, len esandako guztiak.


Santuen azpian, ume txikiak be eleizgizon jantzita joaten dira. Egun onetan, apostoluak, ezaugarri bereziak eroaten dabez, au da, ultza, kate, soka, eskillara eta abar.

Gabaz, eleizan, santuak adoratzea. Erri geiena joaten da ortara.

Egun onetan, kale kantoietan, batez be eleiz inguruan, Mendaroko erroška saltzalleak egoten dira erroška saltzen.

Bein arratsaldeko ibildeuna egin ondoren, andrak pozik gelditzen dira, euren esanetan, bein santuak “oriatu” ezkeroz, aizetu ezkeroz, antxobia itxasontan laster agertuko dalako.

Onetan, ilargiaren gora berak indarra daukanik ezin ukatu.



Arrisko irudiak.



Organoa.

ORGANOA

Ondarroako udal paperetan organoari buruz agertzen diran lenengo jakin-garriak 1.761 urtean agertzen dira.

Batzarrik batzar batzen diranak agertzen joango gara:

1.761-XI-15.– Udal batzarrean alkateak jakin eraso eban gertatu eikeala urte onetan itxastarren aldeko zerga eta umeen ikasterako laguntza lortzea Garro Komendadorearen azken naitik, eta uriak gura izan ezker, laguntza orreitatik zerbait kendu leikela Eleizan Jaungoikoaren gurtza eta aintza geiagorako izan leiken eta ipini gura dan organorako.

Danak batera esan eben aurtendik asita, urrengo urteetan be, lagaten ebela uri oneri itxas lantzen eta umeentzako ardauaren zergatik geratzen jakona, organu ori egin eta eginda gero erosi ta organu jotzaillea ordaintzeko, eta auke-ratzeko eta zeaztapen onetarako beti eukiko ebela gaurko alkateak eta ondoren-goak lan orretako patroe lez dauken botoa.

(Libro VI de Decretos)

1.763-VII-17.– Erriko taberna arduradunak 1.761 urtetik eukala egiteko itxaropena dagon organoarentzat laga bearreko agindu bat eta 61 eta 62-an alkate izan diranak agindutakoaz eta aurtengo seireun erreal orretarako dagozala, eta emendik aurrera orretan batu leikezanak be uria ados dagola orretarako erabilteko, beste zerbait agindu arte, azken baten Jaungoikoaren aintza geiagorako dalako.

(Libro VI de Decretos)

1.782-VIII-18.– onartutako ORGANU JOTZAILLEAREN BETEBEARRAK

– Jai egun guztietan meza nagusira joan bearko da, eta besperetara, eta

organoa jo eta koroa zuzendu, zeregin bata eta bestea bere gain eukiaz, eta nai eta eleizak jai batzuetan organo jotea baimendu ez, koro zuzenketa beti egin bearke dau.

– Eta astegunetan be Eleiza Ama deunak organo jotea agintzen dauan guztietan, orretara joan bearke da eta koroa zuzentzera eta erriaren aldezko mezak abestutera.

– Orrez gain illeko irugarren domeketan, Minerba deiturakoan sartuta egon ezik eta irugarren domekan ezinda beste egunen bat izentatzen danetan, organo jo bearke dau eta meza abestu, Sakramentu Altsuarena ospatzen dan guztietan, orrelakoetan Organo organu jotzailleak jo eta Sakramentu Santuaren meza abestuz.

– Bai eta organo jotera joan eta Andra Mariaren meza abestu bearke dau zapatu guztietan, eta Sortzez Garbi , Jaiotz-egun, Garbikunde, Igokunde, Giza-kunde, Errosario eta Andra Mariaren Zaindaritza egunetan.

– Bai eta organo jo eta Agurra (Salbea) abestu bearke dau urteko sapatu guztietan, oiturazko edo iragarten dan orduan.

– Bai eta besperetara joan bearke da astegunetako bespera nagusi diranetan eta Abadeak bertaratzen diranetan.

– Era berean Uriak Parroki bietan edo beste eleizetan agindu leiken jai guztietara, errogatibak izan, edo beste edozelako izenepeko jai gertatu, erriak agindu eta bere kontura egiten dabenetan.

– Eta gorago esandako arrazoi berberetz, eta Agindu onetan gertatzen diran gertaera bereziak kontuan eukita, Komendadorearen arimaren alde ospatzen diran iru mezatan organo jo, meza eskeiñi eta Koroa zuzendu bearke dau, au da Espiritu Santuaren Paskoan, eta Kurutze Santuaren Agerpen eta Garaipen egunetan.

– Era berean organu jotzaillea joan bearke da Uri onetako Arrantzalienen Kofradiak Pedro deunaren eta Klara deunaren egunetan ospatzen dauzan eleiza edo ermitako jaietara.

– Bardin erriko pertsonak Parrokian edo Antiguan organo ta guztiko mezak agintzen dabezanetan eurentan jo bearke dau, bakoitzeko lau errearen ordaiñez, Antiguan danetan eta parrokikoetan. erreal bi.

– Orrez gain aldare nausiko jaietara joan bearretan, sotanagaz joan bearke da edo ta Musikalarien erabidez, Abata jantziz jantzita.

– Orrez gain bere bear kuna izango da uriko nai daben edozeñeri kantu laua erakustea, ortan jakintzatu nai ba dau.

– Organu jotzaillearen zeregin berezi lez etsiten da organua garbi eukitea.

– Bai eta iñoiz kanpora joan bearra gertatean, joan aurretik baimena eskatu bearke dautsa alkateari eta lortu, bear dan denborarako, baiña zortzi egunez bakarrik emongo da, eta urtean birritan bakarrik, eta kontuan eukita baimen bitartean gerta leikezan jai egunetarako ordezkioa ipini bearke dabela, eta gaiso

jausiko ba litz be ta amabost egun iraun, besterik ezean jaietarako ordezkoa ekarri bearko dauala.

– Orrez gain, Eleizkizunetara egin leikezan utsune bakoitzeko, bere alo-gertzako izentauta daukazanetatik, amaika erreal belloiko kentzea.

– Organu jotzaille ardura uts geratzen danetan, etorri nai dabeneztat eta leiaketa egin al izateko deiak zabaltzeko eta zeregiña bizibide eta oitura one-kotzat artu leikenari lenengo emotea, orretazko agerbide kontuan eukiaz. Eta bigarren gaitasunari, abotsean be, orrela gertaera guztiak kontuan euki eta zere-giña onen eta aurreratuenari emonaz, kontuan eukita baita be Lorentzo jaunak bere senideei buruz esandakoa. (Lorenzo Zelaia jaunak, organu jotzaillearen alogera obetzeko dirua itxi ebanak, bere baldintzetan esaten eban merezimendu bardiñetan bere senideak leentasuna euki egiela). *

1.782-XI-10.–....Utsik dagon organu jotzaille arteko leiaketa amaitu ondo-ren, erriko alkate eta sindikoak eta bertako bizilagunak aukeratutako aztertza-ille Arantzazuko Koruko Maisu eta organu jole dan Aita Jose Larrañaga izan dalarik, agindutako erabidea kontuan eukita egin nai izan eben izendapena era onetan:

* *Obligaciones del organista- (Ayuntamiento 18 Agosto 1.782) Libro de Decretos de 1.781 a 1.789). Ha de asistir todos los días calendos o de fiesta a misa mayor y visperas y tocar el órgano y regir el coro, de forma que ha de tener uno y otro encargo, esto es de tocar el órgano y regir el coro y lo último ha de ejecutar, aunque la Iglesia no permita en algunos días de precepto el que se toque el órgano.*

Item deberá en los días de labor asistir tanto a tocar el órgano quando permita nuestra Santa Madre la Iglesia, como a regir el Coro y cantar las Misas pro populo.

Además deberá tocar el órgano y cantar la misa en la que se celebrará del Santísimo Sacramento en los terceros domingos de cada mês, no estando ocupados con el nombre de Minerba o en qualquiera otro día que por impedimento en el tercero Domingo se designare, de modo que se ha de tocar el Organu por el Organista y cantar la misa del Sacramento.

Ha de también asistir tocar el órgano y cantar la misa de nuestra Señora los sábados y los días de la Concepción, de la Natividad, de la Purificación, de la Ascensión, de la Anunciación, el Rosario y el patrocinio de nuestra Señora.

También deberá tocar el órgano y cantar la Salbe todos los sábados del año a la hora de costumbre o que se señalase.

Igualmente deberá asistir a visperas de dias de labor quando son solemnes y asista el Cavildo.

Que así bien deberá a toda función que ordenase esta Villa en las dos o qualquiera de las Parroquias, vien sean de rogatiba, misa baxa de qualquiera causa u otras funciones baxo de toda denominación, que ordene y costee la villa.

Que por lo mismo establecido en el capítulo anterior y por las especiales circunstancias indicadas en este Decreto, haia de tocar el órgano, officiar la misa y regir el Coro en las tres Misas que se celebran por el alma de dcho Comendador que están asignadas en los dias de Pasqua de espíritu Santo e Inbencion y exaltación de la Santa Cruz.

Asimismo ha de concurrir el organista a las funciones que celebra la Cofradía de Mareantes de esta N. Villa los dias del Sr. San Pedro Sra Santa Clara sus funciones tanto en la Parroquia como en la hermita.

Asi bien encargándose por personas particulares misas en la Parroquia o en la Antigua con órgano , haia de tocar este y pagársele quatro reales, por hacerlo en esta última Iglesia y dos en la Parrochial.

Asi bien ha de ser obligado a asistir a las funciones del Prebisterio con sotana y pelliz o vien vestido de Abad a uso de Músicos.

1.782.- ABURUMENA: Ondarroa'n, 1.782'ko Azaroa'ren 9'an, Erregeztzako izeneko Eskribadu eta une onetan Udal onetako naizen aurrean, eta beian aipatzen diran lekukoen aurrean, Aita Jose Larrañaga, fraile agurgarria, Arantzazuko Andra Mari eleizako Koruko Maisu eta organu jole nagusia dana agertu zan, eta esan eban:

Ondarroa'ko eleizako organu jotzaille izentatu ebela emengo alkate eta Epaikari oi dan Santiago Etxebarria eta bertako Sindiku eta Arduradun orokorra dan Jose Antonio Bengoetxeak, orretarako Udalak eta Zuzentzako gizonak eta beste erritarrak aukeratu zitulako. Eta azterketarako dei agiriak ipini zirala il onen 3-tik 6 bitartean azterketak egiteko Organu jole, Organu eta Kantu lauerako musika oiñarri, eta Koroari lagundu eta koro ori eta abotsaren zuzenketa gai zirala.

Azterketa onetera agertu ziran:

- Jose Joakin San Martin, Frantzeko Erreiñuko Ziburu'n bizi dana;
- Errekalde tar Manuel, Markina'n jaioa eta Getaria'n bizi dana;
- Baltasar de la Calle, Huercanos'en jaio eta Logroño'ko irian bizi dana.
- Mateo Albeniz, Logroño'n jaio eta bertan bizi dana, 17 urteduna;
- Ramon Gimeno, Bribiesca'n jaio eta Añana'ko Gatzagan bizi dana;
- Franzisko Iñazio Ibarbia, Zumaia'n bizi dana , eta
- Kalixto Argaiz, Markiña'n jaio eta Bermeo'n bizi dana.

Esandako guztiak organu jole ogibidea daukenak esandako bizi lekuetan.

Arreta andiz eta zuzentasun osoz aztertu ondoren Organu jole, Organurako eta kantu lauerako oiñarrietan, eta Koroari laguntzan eta bakoitzaren abotsean be, era onetako erantzuna lortu ebela:

Esandako Jose J. San Martin:

Organoa josten, laugarren izkia.

Además ha de ser de la obligación del Organista el industriar en canto llano a qualquiera persona de esta Villa que lo desee y quiera instruirse.

Tambien se establece por encargo preciso del organista el tener el órgano aseado.

Así bien que en caso de ofrecerse ausencia al organista de esta Villa, antes de hacerla ha de pedir y conseguir licencia del Sr. Alcalde que por tiempo fuere y solo se le ha de conceder por ocho dias y con la calidad de que no se le puede repetir sino dos vezes al año y con calidad precisa de que para los dias festivos y que recaiesen interin una y otra ausencia haia de poner sustituto, y si ocurriera enfermedad, que dure quinze dias, haia de traer sustituto al menos para los dias festivos.

Que en lo demás qualesquiera faltas que hiciere a funciones de la Iglesia por cada una de ellas se le rebaje de lo que así se le bá asignado para su renta, once reales de vellon indispensablemente.

Que en los casos de vacante de Organista se haian de fixar editos para la convocación de pretendientes y procederse a oposición, y adjudicarse la plaza al que se estimase en primer lugar de buena vida y Costumbres, Cuió informe legitimo deverá siempre atenderse. Y en segundo lugar a la avilidad, y aun en la voz, de forma que se atiendan todas estas circunstancias y confiera el encargo al mexor y más aventaxado, obserbandose lo que lleba determinado en quanto a la preferencia ordenada por dcho dn Lorenzo de sus parientes.

(Don Lorenzo de Zelaia, que dejó capital para mejorar el sueldo de organista y en sus condiciones figura que en igualdad de méritos sus parientes puedan tener preferencias.

Organuko kantu eta Kantu laueko oiñarrietan, lenengo izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, lenengo izkia.

Abotsean, lenengo izkia.

Esandako Errekalde tar Manuel:

Organoa joten, bigarren izkia.

Organuko kantu eta Kantu laueko oiñarrietan, lenengo izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, lenengo izkia.

Abotsean, lenengo izkia.

Esandako Baltasar de la Calle:

Organoa joten, seigarren izkia.

Organuko kantu oiñarrietan,boztgarren izkia.

Kantu lauean, seigarren izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, seigarren izkia.

Abotsean be seigarren izkia.

Esandako Manuel Albeniz:

Organoa joten, zazpigarren izkia.

Organuko kantu eta Kantu laueko oiñarrietan, zazpigarren izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, zazpigarren izkia.

Abotsean be zazpigarren izkia.

Esandako Ramon Jimeno:

Organoa joten, lenengo izkia.

Organuko kantu oiñarrietan, irugarren izkia.

Kantu lauean, bigarren izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, bigarren izkia.

Abotsean, laugarren izkia.

Esandako Franzisko Ibarbia:

Organoa joten, irugarren izkia.

Organuko kantu oiñarrietan, laugarren izkia.

Kantu lauean, bigarren izkia.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, bigarren izkia, Jimeno´ren antzera.

Abotsean, irugarren izkia.

Esandako Kalixto Argaia:

Organoa joten, irugarren izkia, F.J. Ibarbia´ren antzera.

Organuko kantu oiñarrietan, laugarren izkia, Ibarbia´ren antzera.

Kantu lauean, irugarren izkia, Jose San Martin´en antzera.

Koroari laguntzen, beste guztien izki bardiña.

Koroa zuzentzen, irugarren izkia, San Martin'en antzera.

Abotsean, bigarren izkia.

Zazpi lagunetatik, bakoitzaren gaitasunak oartu ondoren eta neurtu ondoren, lenengo tokian Manuel Errekalde jarri ebela gaitasunik geien eta aurreratuen lez Organuko arduradun geratzeko une onetan. Orrela nabaritzen ebala bere kontzientzipean eta Jainkoak ulertu eragin eutsan lez, eta bertan egon ziran lekukoekaz batera izenpetzen ebala. Lekuko lez Parrokiko abade eta bikario zan Jose Goxeaskoetxea; Jose Antonio Aboitiz, abade baita be eta bardin Jose Joakin Olazarra, danak errian bizi ziranak.

Eta egiaztatzeko bertan bizi dan Eskribadu bakarra naizen onek izenpetzen dau.

(Izenpen geiagok jarraitzen dabe)

Aipatzen dan Aburumena ikusita, danak batera ados jarri eta euren autarkia eta irizpidea Manuel Errekalde, Markiña'ko seme eta Getarian bizi zanaren alde emon eban eta orrela beretzat itxi eben organurako ardura.

Eta nik., eskribadu lez, besteekaz batera nik be neure irizpidea emoteko erri onetatik artutako eskaria beteaz, (il onetako udal batzarreko agirian agertzen dan lez) auzi guztiaren jakitun geratu ondoren, esandako Alkate, ziñegotzi, Sindiku eta lagunekaz bat nator une onetan Organuko ardura Manuel Errekalde'ri emoten, bera izan dalako lenengo lekurako bigarren barik agertu dan gertuena.

Orrela amaitu zan batzarra eta egiaztapen lez danak izenpetu eben eta nik be bai, Eskribadu lez.

1.786-III-12.- (Udal batzarrean)

.....Manuel Errekalde organu jotzaillearen txosten bat irakurri zan esaten organoa konponketa premiña larrian egoala, bi ezik arratoiak egur guztiak jan dautsezala eta arratoi aldra andia dabillanez, azkenez auspoak jaten asiko dira kontua arin artu ezik, danagaz amaituko dabe.

Eta ala eritxi ezkeren komeniko litzake garizuman konpontzea, jaietan eta astegun askotan be organo jotzerik ez dagolako.

Zuen eskuetan mun dagitsue morroi apal eta begiko dan Maruel Errekalde'k.

Eta ori jakinda esan eben oraingo alkateak konponketa ori egitea ainbat ariñen agindu dagiala, Parrokiko diruekaz ordainduta, ortarako maiordomoari eskubidea emonaz, komeni dalako lan ori ainbat ariñen egitea, Jaunaren gurtzaren onerako dalako.

.....

Gauzak orrela, 1.794 urtean frantzetarrak Ondarroan sartu eta egindako erasoaldi, sute eta abarren ondorenez, erritik urtetean, ainbat gizon eroan zituen eurekaz baituta eta euren artean Manuel Errekalde, parrokiko organu jotzaillea.

Urrengo urtean jakin zan au Frantzian baituta (preso) egoan tokian il zala. Bitarte orretan, organoari buruz egon ziran ainbeste gorabera udal batzarretan.

1.795-II-1.– Jakin eragin zan organoa frantzetarrak be naiko oker itxi ebe-la, eta organu jolea be Frantzian egoala eurak baituta eroanda. Bere aitagiñarre-ba zan Markos Rekalde gertu egoala Manuel Errekaldere semeak joten ekite-ko eran, orretarako gertuta egoalako, organoa joten eta kantatzen eta koroa zuzentzen asten zanetik aitaren errenta berari emonaz, bai eta aitak eukazan beste bete-bearrak be berak egitekotan, etxera etorri bitartean.

Ori ikusita, eta kontuan eukita Abadeak beste denboretan baiño organu jole premiña geiago eukela, lengoa etxera etorri bitartean ezin ebelako zeregin orre-tarako dei barririk egin, erabagi zan Jose Markos orrek konpondu egiala orga-noa bere kontura eta illoba organu-joleztat artu, eta lanean asten danetik aitari egokion alogera emonaz, beti be aitak eukazan betebearrak beteaz.

1.795-IX-27.– Jakin zan Errekalde organu-jotzaillea Frantzian il zala, frantzetarrak baituta eroan eben lekuan, eta organu-joletzarako leiaketa iragar-tea erabagi zan eta bide batez lenengo irakaskintzako maisu batena be bai.


Organu-jole lez Errekalde'ri emoten jakona zaindu eta maisu lez urteko milla ta eun erreal eta erriak egurra eukanean sei karga egur eta bestelakoetan 18 erreal dirutan, beartasun lez jarrita neguko egunetan sua biztu egian umeak berotzeko. Eta iragarkiak ipinteko Bilbao, Bergara, Gasteiz, Logroño, Donosti eta Tolosan.

1.795-XI-8.–illaren 5 garrena pentsatu ba zan be leiaketa egiteko, egun ori atzeratu egin dala 17 arte.

1.795-XI-15.– Lenengotik organu jotzaillearen leiaketan gertatua azaldu zan, au da, organua dagon lez egonda ez dagola iñor bata besteagandiko gaita-sunik bereiztu leikeanik. Sindikoaren eskabidez ala autortu ebala Fray Manuel Unzueta, leiaketako epaikari etorri zanak eta bertan batu ziran lekukoak. Ori-gaitik Udal Batzarrak erabagi eban leiaketa atzeratzea bear lez konpondu arte eta bakoitzaren gaitasunak leiaketa baten igarteko eran ipini arte.

1.796-IV-18.– Udal batzarrean.....erabagi zan San Asentsio'ko parrokian egoan Ramon Ximeno organu jotzailleari deitzea, organu jotzaille eta umeen irakasle lez etorri nai ba eban, aurerragoko iragarkietan zabaldu ziran baldintza bardiñetan. Ainbat ariñen erantzun dagiala, beste batzuk etorri nai dabelako, baiña eskatuta eukan lez aldakuntzarako laguntzarik ez eutsela emongo.

(Ximeno au etorri zan errira. Baiña urte batzuetara Udalagaz auzitan ibili zan.)



Antiguako Ama errian 1.904.

ORGANU BURUZ JAKINGARRI GEIAGO

1.809-XI-5.— Udal batzarreko ordezkariak esan eban Markiña'n izenpetu ebela agiri bat Udal au eta Ximeno organu-jolearen arteko auzia konpondu al izateko.

Eta Ximeno bertan egoala, bat etorri ziran Ximeno'ri bere alogera ordaintzeko eta onek aurten eta datorren urtean ordaindu dagiazala emen egon dan bitarteko etxearen errentak, urteko bederatzi dukaten kontura, eta epaikaritzako auzia erdiz bana ordainduta geratzen ebela.

(Lib. 5 de Decretos)

1.815-I-8.— Udal batzarrean esan zan Ximeno'k bere ardura itxi ebalako, uts geratzen zala organu-jolearen tokia eta leiaketa batera deitzeko.

(Lib. de Decretos 1.812-1.827)

1.815.— Ximeno'k eukan zerbitzua leiaketara atarateko, eta ortarako Maisu azterlari on bat billatzeko, alkateari ardura ori emonaz. Ximeno'k 200 dukat artzen zitun urtean.

Eta parrokkiko abadeei eskatzea jaietan organu-jolea izango danari ogia emoteko, Ximeno'ri emon jakon lez.

1.815.— Urte onetan Juan Etxebarria aukeratu zan organu-jolezat.

1.823-VII-1.— Organu-joleak alogera igotea eskatzen dau. Ezin dala geiago emon erabagi zan. Baiña aita il jakolako, kontularia zanetik bere semeak artuko daben alogeraren erdia kobratu dagiala, bakarrik ibilteko era erakustekotan.

1.824-V-14.— Juan Jose Etxebarria erriko organu-joleari alogera jasoteari buruz eztabaidatu zan. Eta batzartuak gai onetaz jakitun geratu, bai eta Juan Jose organu joleak erakusten eban gaitasun eta bere jokabide ona kontuan be eukita, emen egon dan denboraldian erakutsi dabenez, Garramiola ezik beste guztiak ao batez erabagi eben lendik eukanaren gain erreal bi jasoteko poio lagungarritzat eta laguntza ori luzatu egingo dala urrengo datozanentzat be

erriko semeak ba dira, jarrera oneko ba dira eta orrela beartu egiten dala erriak aukeratu:ako lau ikasle eukitera berak urte bitan ezer kobratzeko eskubiderik artu barik, eta orreik igarotean beste lau sartuko dirala baldintza bardiñetan, baiña orreik bein urte bi bete ezkeru Maisuak eskatu daikeena ordaintzera bear-tuta geldituko dirala.

(Lib. de Decretos....1.812-1.827)

1.830.- Organu-jolea aukeratzeko leiaketak egin ziran.

Nikolas Segura jauna etorri zan azterlari.

Juan Jose Dimas Usobiaga, aukeratu zan.

Segura jaunak, bere eskubide lez, 324 erreal kobratu zitun bere lanagaitik.

Ordez Ana M^a Etxebarria'ri. leiaketa egunean egin zan gastuagaitik, 412 erreal.

1.859-V-1.- Utsik egoan organu-jolearen lanpostua. Leiaketara deitu zan. Agertu ziranen agerbide eta curriculum-ak ikusita, udal batzorderik geienak Zornotza'ko organu-jole zan Jose Franzisko Arrasateri emon eutsen euren abotsa. Ordez Garramiola ziñegotziak Arantzazu'ko Koruko Zuzendari zan Fray Pedro Bengoa'ri emon eutsan berea.

1.863.- Jose Franzisko Arrasate organu-jolea il eta bere utsunea beteteko leiaketa iragarri zan.

Luis Badiola musikalaria ekarri zan azterketa egiteko, eta onek etorri ziranen aukera au emon eban:

Clemente Ugarteburu jauna, beretzat onena.

· Kalixto Usobiaga, bigarren.

Kaietano Usobiaga, irugarren.

Udalak Ugarteburu jauna izentatu eban, artezkariaren irizpidea beteaz.

1.864.- Ugarteburu organu-joleak organu konponketa eskatzen dau.

Udala asarratu egin zan beragaz. Eta agiri baten irakurten da: "Ez dau euki bere betebearrak beteten ardura andirik, eta bere jokabidea ez da ain ona izan, eleiz-gurtzan (kultoan) akats asko leporatu dautsezala.

1.879.- Urte onetan D. Domingo Usobiaga aukeratu zan zeregin orretarako eta gizaldiko urtetan bera ezagutu zan zeregin orretan.

Organoei buruz esan geinkeana au da: Dirudienez parrokian iru organu ezagutu izan dirala.

Bat, lenengoa, erosi zanetik ia gizaldi barrirarte iraun ebana.

Bestea, 1.868 urte artekoa. Eta irugarrena gaur oraindik ezagutzen dana.

Oneri buruz esan geinke 1.864 urteko Abenduaren 7-an, garai aretako organu jotzaille zan Klemente Ugarteburuk Udalari organu barri baten premiña agertu eta eskabide ori egin eutsala.

Andik lau urtera egindako batzar baten, 1.868'ko Martiaren 16-an Paskual Sustaeta ziñegotziak Ugarteburu'k eginda eukan eskabidea gogoratu ondoren, udal batzarrean egozanen erosteko asmoa sendotu eban. Ordurako Getaria'n

egoana ikustera joan ziran, eta atsegin izan, baiña Ondarrurako aldagaillu geiagokoa burutu eben.

Urte bereko Maiatzean, il onen 20'ko batzarrean organu barriaren aurrekontua onartu zan: 49.500 erreal eta organu zarraren tutuak.


1.868 urte bereko azkenetan, organoa goiko koroan ipini zan, barroko era-ko zarraren kaixari erantzita.

Egillea: A. Cavaille-Coll eta Comp. Pariskoa.

Tekladiak: 54 eres notadun bi eta 30 notadun Be-subila daukaz.

Tekladietan, erabilkera mekanikoa dauka eta be-subilean, aize erabilkera.





Antiguako baseliza.

ANTIGUA'KO ELEIZA

Ondarroa'ko lenengo eleiza, ezpai barik, gaur Antigua izenez ezagutzen dana zan.

Antxiñako gizaldietan oitura zan lez, neke ta estualdiei begiratu barik bear ba da fedeari gain-gaiñetasuna emon nairik, erriaren goi goian, etxe guztien gain, erri gaiñeko mendi tontortxoan jaso.

Bizkaia, eta batez be itxas ertzean egon ziran lez, obeto zaintzearren, edo sasoi aretako erbestetarren asarre eta indar-aldietatik eustearren, ormaz inguratuta egon zan, segurutik, bere lenengo denboretan. Gaztelu bat lez. Ala da ustea, nai ta gaur itxurak ezagutzea gaitz izan.

“La Iglesia de Santa Maria de la Antigua, que se encuentra en una eminencia sobre la villa, se hallaba antiguamente fortificada, así como Santa Catalina de Lequeitio y san Juan de Gaztelugache, en Bermeo.”

(Ibarra y Garmendia: “Torres de Vizcaya”)

Ez dakigu noiz egin zan eleiza au. Ez daukagu egin zan urteko ezaugarri bakar batik. Ingurutako eleizetatik ez daukagu bere artu-emon edo jakingarri-rik. Denboretan galdu egiten gara onetan, ziurtasunik billatu eziñik.

Aita Jose Lizarralde'k diño: Antigua deitua ezaugarria, itxas ertzean luzaro eleiza bakarra izan zan sinistean oiñarritzen dala.

“El aditamento de la Antigua está justificado en toda la costa por la creencia de que su iglesia fue la primeramente edificada en toda la costa marítima y única durante largos siglos.”

(“Andra Mari. Reseña histórica del culto a la Virgen Santísima en la provincia de Vizcaya” J. Lizarralde.)

Gaur ezagutzen dan erriko parrokia, Ondarroa'ren iraspenaren (fundasiño-aren) ondoren egiña dala ba dakigun lez, fundasiño orretako agirietan erriari

emoten jakon eleiza eta eleizarentzako laguntasuna, nai ta ala deitu ez, Antiguakoarentzat izango zala uste izan bear, orduko eleiza edo parrokia bera zala-ko.

(“...é más les dó la Eglessia de Ondarroa con su cementerio, é los dos tercios de la diezma que sean de la Eglessia, segund que las an los de Bermeo é lo al que finque conmigo.”

Maria Diaz de Haro'ren iraspeneko agirian.

Beintzat Ondarroa'ko parrokiako lenengo liburuak asi ziranean, (1.550 inguruan) oraindik Antigua'ko abade izendapenez be egoten zan parrokian egozan abadetako bat.

Eleiza bera, egitura, argi ikusten da ez zala izan gizaldietan gure denboretan ikusten dan neurrietakoa. Erdi ingurutik gorako geigarria erraz igarten da bere izatean.

Gizaldietan euki eban kanpai-torrea ezin eikean torretzat etsi. Eleiz alboan, orma nagusiaren lepoan, kanpai bi gordeteko aterpea deitzea egokiago litzake lengo kanpai tokiari. Eleizpe ingurutik, lurretik iru-lau arri mailla igo eta edozeiñen aukeran egozan kanpaiak. Ala, fedearen berotasunez eta bultzadaz, edozelako “promesa” bat egitera edo betetera joaten ziranak, kanpaiak joteko era eukiten eben, iñoren eta ezelako eragozpen barik.

Ama Birgiñaren irudiaren tokia be, orma nausian ataratako zulo bat zan, geiagoko toki barik. Gero, gaurko torrea egiñeran, toki zabalago eta aukeragokoa atara jakon bertan, Bastida arkitektoaren ardurapean.

Gaur dagon imagiña, irudia, ez da ziurretik lenena izango. Ba dira diñoenak gaur dagonaren aurretik beste bat zala, eta urteak ori sinistu eragiten dabe. Orain dagona, parroki barria egin zanean, arako asmotan egin zala. Baiña orduan be zerbait gertatuko zan eta goian laga zala gaurko au. Orrela izanik, ia laureun urte eukiko leukez irudi orrek.

Azken urtetako oiturari jarraituz, soiñekoz jantzita agertzen eben len. Orrela, itxura baten, zutunik dagolakoan gelditzen da ikuslea. Baiña irudia, berez, jarrita, exerita dago. Ezkerreko belaun gaiñean Jesus umea dauka. Eskumako eskua bedeinkaziñoia emoten igarten da. Ezkerrean, sagar bat dauka. Era berean, Jesus Umeak be igali edo frutu ori erakusten dau.

Irudi onek 0,82 metro daukaz luzeran.


Aita Lizarralde'ren ustetan, irudi au Ondarroan ezagutzen dan irugarrena da.

Zegaitik? Ba Parrokian ez dagolako “Andra Mari” irudirik. Ez jakin zegaitik, lenena galdu eta Eleiz Nagusirako egiña izan zana geratuko zan goian, ango Andra Mariaren ospea zaintzeko.

Orrela, antxiñako zarra bat, Parroki barruan Andra Mariaren Igokundea irudizat egiña bestea, eta irugarren au, orain Antiguan dagona, nai ta itxura baten parrokirako egiña izango zana, goian geratuta.

“Parece extraña la conjetura pero la vamos a expresar. Esta imagen debió de tallarse en el siglo XV, cuando se estaba construyendo la iglesia parroquial. ¿Por qué no suponer que fue hecha para titular de ella? Hay que buscar una razonable explicación a la presencia de una efigie que después ha venido gozando de los favores del pueblo devoto, y la aplicación más obvia es que, habiendo desaparecido por una u otra causa la Antigua, entró en la posesión de la fama de ésta la que había sido hecha para la iglesia matriz, que carece hoy de su Andra Mari. De otra forma precisaría suponer la existencia de tres imágenes: la primitiva Antigua, la que se ejecutó para la advocación de la Asunción de Nuestra Señora en la parroquia, y la tercera ésta que ocupa ahora el santuario de la Antigua. Lo cierto es que sólo existe en Ondarroa una imagen mariana medieval y ella, tallada al tiempo que se construía la parroquia.”

(“Andra Mari”, P. Jose Lizarralde)



Antiguako Ama.

ANTIGUA IZENA

Gure egunetan, izen eta deitura lez euskaldundu dabe batzuk izen au: Antxiñe.

Edozetara be urrunera begiratu edo gogoratu eragiten dauskun deitura. Baiña Antigua'ri buruz esan daigun zerbait.

Ba dirudi antxiñetan, gure ermita eta parroki zarrak aldatzen joan, eta euren ordezeko barriak egin zituenean sartu zala deitura au, orduko eleiza barriei izen barriak ipini eta lengo zarrei, aurretikoei, deitura ori lagateko. Lendik be egonarren, zeatzago erabilten dira gaur Andra Mariaren Jaiotza, Sortze, Neke, Igokunde, Agurtza eta beste ainbat deitura bere izateari begira edo ta tokietako deituretan. Euskalerrian or doguz, Begoña, Estibaliz, Arantzazu, Arrate, Gardotza, Erdotza, Idurre, Itziar, Uxue, Muski eta abar.

Neketakua, Doloretakua, esate baterako, Kurutzearen irudiekaz batera sortu zala, esaten da.

Sortzez Garbiarena, Sorkunde, illunagoa da.

Euskalerriko Antiguak ez dira asko.

Or dogu, ospetsu, Zumarraga'n. Bera dala ta itz egiten danean "parroki zarra" edo "lenengo parrokia" esaten da.

Bizkaia'n ezagunenak Urduña, Lekeitio, Ondarroa eta Gernika'n.

Lekeitio'n XVI garren gizaldirarte, Andra Mari soiñ-soil deitzen eutsen.

Gernikakoa Batzar Nagusien kondaireagaz lotuta billatzen dogu. "So el Arbol de Gernika que está cerca la iglesia de Santa María la Antigua, a donde se acostumbra de facer la yunta general", irakurri al izango dogu XV garren mendean.

Urduña'ko Antiguatzaz jardutean "la primitiva parroquia" esaten da.

Ondarroa'n beko parrokia egin zanean asi ziran goikoari la Antigua izena emoten.

Araba'n be or dagoz Baños de Ebro, La Puebla, Mendiguren, izen onetako eleizak daukezanak. Labastida bertan, sakristian gordeten dan Toloño'ko Andra Mariari "la Antigua" deitzen dautse.

Urte batzuk dira Panama'ko Santa María la Antigua Unibersidadea bere sortuerako ogeigarren urtea ospatuten ibili eta ortarako bertako irakasle batek, Angel Revilla'k "Santa Maria la Antigua. Un viaje al pasado" izenez (Editorial "La Antigua"- Panama, Mayo 1.985) liburutxo bat argitaratu eban. Bizkai'ko Antigua'ko Ama izenekoen argazki eta fitxak, bai eta eurak dagozan errietako argazkiak be sartzen dira bertan.

Baiña deitura dala-ta, ba dauka len aitatu dogun jendearen uzteagazko alderantzi bat. Bere esanetan Antigua izena ez dator beti parroki zar edo lenagoko ermitetatik. Semantikako azalpena da.

Eleizaren lenengo jaietan Andra Mari'ren ospakizun bi egiten ei ziran: Igo-kundea (Asunsiñoia) eta Aur-itxaropen edo iragarpenekoa. Eta gero, Andra Mariaren beste deiturak ugarituaz euren jaiak sortu ziranean, lenagoko deitura biei edo bietakoei zaindu jakoela Antigua deitura ori, oraingoak beste deiturekin ezagutuaz.

Batera nai bestera izan, ondarrutarrak Antigua'n euki daben fedeagaz jarraituko dabe.

ANDRA MARIAREN IRUDIA

Gizaldietan zear Antigua'ko Andra Mariaren irudiak, denboren eragiña euki dau bere egituran, bai eta borondate oneko esku askoren ikutua be, eder, txukun eta iraunkor zaindu nairik, nai eta ez beti borondatea aiñako lorpen onagaz.

Bizkai Eleizbarrutiko Museoko zuzendari Juan Mari Apellaniz jaunak Ondarroa'ko parroko etxe, irudi, tresna eta abarren egoerari buruz emon eban irizpidean, Antigua'ko Amaren irudiari buruz au esaten eban:

Irudia egoera negargarrian dago. Leike XIV garren mendekoa izatea. Koroia kendu dautse, begi jatorrak kristalezko beste batzuekaz trukatu, besoei eutsi al izateko eun-txatalak (bendak) ipini dautsez eta zetarako sartu dautsezan erraz igartea gaitz dan ainbat ultzez bete dabe.

(Informe del Museo Diocesano sobre el estado de algunos objetos y edificios religiosos de la Parroquia de Ondarroa (Vizcaya) 5-XII-1.972. Juan M^a Apellaniz. Director.)

Ori orrela, ondarrutarrak ainbesteko maitasun eta fedez maitatzen daben irudia sitsak baiño zerbait geitxuagok be jan eta galtzen eroiala ikusita, Santillana del Mar'eko Santander eleizbarrutiko Museora eroan zan, ango barriztatzailleak ikusi eta konpondu egien.

An, eroanaz batera igarri eben, burua moztuta eukala, zatitxo bat ebagita, ustez koroea bertan tinkotzeko.

Kristalezko begiak ez ziran bere jatorrak.

Zulo andi batek indargetuta, zamea dindilizka jausteko arriskuz.

Gorputz guztia ultze andiz beteta, dirudianez jantziak lotu eta ataraten zanetan aizearen erasoan bildur barik erabilteko.

Alanbre lodi bategaz gerria lotuta osorik eustearren, eteten eta zabaltzen asia zalako.

Bere be aldean oin bat falta, bestea ikutu orduko austu edo jausten zala.

Aidean eukan besoa esparadrapoz lotuta.

Soiña zementoz betea lepoan, ikutuaz batera askatzen zala.

Ori lenengo ikustaldi baten.

Gero, geldiro aztertzean, ikusi eta ziurtatu al izan zan irudia gitxienez sei bidar apaintzen erabilia zala.

Garbi-garbi oartzen jakozan sei margoaldi, errepinte eta euren ondoren agertzen zan bere sortzeko kolorea.

Santillana'ko Museoko lantegian oarpen guztiagaz erabili eben irudia, al zan guztiagaz zaindu eta berreskuratzeke. Orrela irudiak bere sortzean eukan zamako kollarra berrekarte lortu jakon.

Gauzak orrela, eskutuan egoan jakin-min bat: Noizkoa da irudia?

Santillana'n egoala irudia, artean aitu diran askok ikertu eben eta euren irizpidea au izan zan: XV garren gizaldia baiño aurretikoago dala, eta bere egi-tura XIII eta XIV garren gizaldien bitartean mugatu bear dala.

OITURAK ETA SINISTEAK

Lengo oiturei jarraituz, Antigua'k euki izan dau erri-fedearen sinistetan bigungarri bat: Belarriko miñak kentzeko sendagaia.

Bere argi-ontzitik artutako orixoagaz igortziten jakozan belarriak gaixoari, minduari, orio barria eroanez argiontzira, eskeintza berezi lez. Eta gero, eleizaren alboan egoan torre txikiko eskillarak igo, kanpai artera joan, kanpai bien erdian gaixoaren burua ipiñi, eta iru Agur Mari errezatu ala, kanpaiak jo, euren durundiagaz eta fedearen sinisteitsuagaz belarriko min ori osatzeko.

Etziran bakarrik erritarrak onetan ekiten autsenak, premiñak jo ta gero. Auzo errietako asko be etorten ziran euren umetxoekaz, osakai orren billa.

Eta emakume gaixo eta biotz bigunen ondoan, sarri ikusi izan doguz gizon lerdinak be, bizarrez eta ulez betetako gizon mardulak be, eskariz edo eskarrez, erreguz edo zorrez, borondatez edo promesaz, irudi orren aurrean makurtzen.

Bere sasoiari aberatsa zala, diño, Antiguako eleiza.

Ez dago bertan ez pitxirik, ez edergaririk, ez dotoretasunik, aberats zala erakutsi leikenik.

Ba dakigu lenagoko gizaldietan, azken naietan, testamentuetan, bertarako zerbait lagaten ebela askok. Baiña geienetan be, edergarrietarako barik, argitarako edo gurtza edo kultua zaintzeko izaten ziran.

Bear ba da eleiza aberatsa ez izateak, mesede egin eutsan erriaren fedeari.

Eleiza eratsua da. Atsegiña. Baiña ez andi naikoa.

Aldare txikiak ingurutan. Oraintsu kendu egin dira aldare nausiaren inguruan "prebiterio"aren egaletan egozanak, erdikoa bakarrik lagata, gaurko liturgi arauz.

Antiguako irudiak, imagiñak, santu zaarrenak dira: san Roke, san Augustin,

tin, san Bartolome eta santa Barbara. Orain eraspen edo debosiñoiko irudia dan Teresa deunarena, eun urte baño zerbait geitxuago ekarria da.

Korupean beste aldare beartsu bat dago : Jesus Nazaretarrarena.

Oitura asko denporekaz galtzen joanarren, oraindik Antigua'k lotu egiten dau parrokia, jai berezi batzutan. Alaxe, letañak, Asentsio eta san Markos'etako letañak, Antiguan eukiten dabe iru egunetatik bat.

Irutasun edo Trinidad egunez eta san Bartolome egunez be, Antiguan eskintzen da eguneko Meza nagusia. Meza bi oneik antxiñako arrantzalien eskintza edo aginduen bat beteteko geratuak dira.

Orrez gain, Udalak 1.673 urtean artutako erabagi bat beteaz, urtero Maiazaren 9'sn Gregorio Ostiense deunaren egunean Antiguan eskintzen zan meza eta meza ondoren eleiz barruan edo kanpotik konjuroak egin lau alderdietara, alekiak eta frutuak zaintzeko eskaria.

Ziurra da baita Antigua'n igandero egoten zala meza domeketan. eta Udalak ordaintzen eutsan zerbait bertaratzen zan abadeari lagungarritzat...

Ez jakin noiztik, baiña jakiña da Andra Mari egunean Antigua'n bertan igaroten zala jai egun osoa, Antigua'ko kofradiak bertan bazkaria gertuta.

Alaz eta gotzaiñaren ordezkari batek, egun orretako jai galeraso eban an ospatzea, edo beintzat bazkaria an egitea.

Debeku ori gogorra izan zan ondarrutarrentzat eta 1.814 urteko Bagilla'ren 21'ko udal batzarrean Alkateari agindu eutsen alegintzeko gotzaiñaren ordezkariagandik (urte aretan Kalagurri gotzain barik egoan) antxiñako oitura ori zaintzeko baimena berreskuratzen eta dakigunez alegiñak ondoren ona euki eban. Baimena lortu zan (Lib. VI de Decretos).

Urrengo urtean, oitura ori barriztatu ondoren urtearen asieratik asi ziran jai orretaz gogoratzen. Ala (1.815-I-8) Antxutegi ziñegotzia eta Antigua'ko Kofradiako maiordomuak Udalari jakin eragin eutsan bazkaria baimenduta egoan ezker ba ebillala tresnak jaubetzen, batez be pitxarrak eta abar, baiña orreik ekarten alegindu ziranak saldu nai zituela, edo bestela bera kargutu egiala euki eben gastuagaz eta ori Udal batzarrak jakitea gura ebal. Ori entzunda batzartuak esan eben kostupean erosteko Udalaren izenean eta artzearen ziurtasun agiriz Antxustegi berbera arduratu egiala eurekaz eta bardin bere ondoren ardura ori euki egienak.

Andik urte bira (1.817- VIII-12) ko batzarrean topiñen gorabera azaldu zan. Itxuraz jatekoa gertuteko topin eta tresnak jaubetzeko aukerarik ez zan egon eta udal batzarrean erabagi zan egun orretatik Andra Mari egun bitartean ez egoala eurekaz jaubetzeko betarik, eta bazkaria gertutekotan bijili eguneko bazkaria egin bearko zala edo bestela urte aretakoagaitik bazkaririk ipini ez.

1.818-XII-22'eko Udal batzarrean eskatu zan Frantziagazko gerra zala ta, erria ezetara eldu eziñean ebillalako Bariku Santu eta Antiguako Amaren eguneko "bizigarriak" kendu egin bear zirala eta batzartuak ados geratu ziran eze-gaitik eta ezelan be ez egiteko egun orreitan orrelako ospakizunik.

1.844-II-17'an jakin eragiten da Maiordomuari erre egin jakozala paper guztiak.

Edozetara be, bazkari nai ortako aukerarik barik, eguna Antiguan igaro nai jaia errira aldatuta ospatu, Antigua'k ez dau galdu ondarrutarren sinisterik ez maitasunik.

Sarri ezagutu ziran itxasoan estu eta larri ibilitako gizonak ortozik eta iñoiz belauniko be Antiguara igoten, promesaren bat beteaz.

Izan be fedearen kontzientzian eta fede estu baten ikusmenean, imagiña onek zenbat kantu eta zenbat kontu entzun eta artu daben jakiteko, ondarrutarren premiñak eta ondarrutarren estualdiak ezagutu bear dira; itxasoaren ekaitzak eta itxasoko orruak sentidu eta bizi; urrunggaitzaren kezka igaro bear da; itxasoko laiño eta olatuen buztia norberegian artu.

Ondarroaren bizikieran, bere arriskueta eta bere zeregiñetan, bere jokoe-tan, bere arrantzueta, bere bizimodu guztian, jokera bat ezagutu izan da: Antiguan batu zoritxar nai zorion guztia.

Ba daukaz eleiza onek eta Irudi onek ainbat erri-siniste eta ezaugarri.

“Ondarrutar jendeak askotan entzuna du edestitxo polit au: Bein baten Antiguako Eliza, Ama Birjiñarik gabe topatu oi zuten.... Lapurren batzuk ostu zutelakoan, erritarrak oro, andre, zar eta gazte, egun guztian ara ta ona, billakutzen ibili ondoren, gaberako, berriz, bere betiko lekuan aurkitu omen zuten; baña.....Ura izatekoa!.....irudiaren soñeko barrenak busti-busti eginda ta lokatzez txipristinduta zeuzkala....”

(“Andre Mari Euskalerriko mendietan” Aita Emiliano Barandiaran)

Au idazten dodan onek be beste ainbeste ikusi eta ikasia daukat.

Gure amuma zarrak, amuma izan barik be ondarrutar emakume gazte asko be bai, albakua jo orduko joaten ziran sarri Antiguara. Kontuan euki albakua, goizeko bost eta erdietan jotzen zala.

Oraindik illuna nausi zala Antiguara eldu eta bertako eleizpean egon be bai, otzak ilten, batzutan belauniko, bestetan kukulumutxu jarrita, atea noiz zabalduko, errosarioak esan eta erreza ten.

Eta eleiz atea zabaldu orduko, zuzen zuzen Irudiarengana urreratu, begiratu eta mar-marrean eta asarrez berari ekin be bai, errixetan berari jardun be bai; nun ibili zara orain be, nun? Begiarte itzala daukazu, lo-errea igarten jatzu, oiñak be bustita..... Ai ene gure gizonak! Gaur be denboralen bat edo gale-rreren bat egon al da itxasoan?

Orrelaxe itz egiten igarten ziran, iñoren lotsa barik.

Eta ondoren, otoi eta erregu, gizonen kezka, erritarren ardura larriz dardara, baiña beti Amari eskartsu.

Esakera zarra da, Antigua'ko Ama Birgiña onek lau aizta eukazala: Lekei-tio'kua, Orduña'kua, Andikona'kua eta Begoñakua. Beste batzuk, Begoñakoaren ordez, Ziarrotza'kua emoten dabe laugarrentzat.

Euskalerriko eleiza askok euki daben lez, Antigua'ko eleizak be euki dau bere istori eskutua, sasoi bateko buru eta irudipenetan oiñarritu eta zabaldua. Fedeak baiño, sasoi batzuetako giroak iruditu eragindako kondaira txikia. Gure amuma zaarrak sarri kontaten ekiena. Gaur bertan be, oraindik, billatu leikez Ondarrun olako sisnisteak itsu-itsuan gordeten dabezanak. Ala ta be, Ondarru'ko eleiza barria egiten ziranean, etzala egiten Ama Birjiña'k nai eban tokian eta egunez egindako lanak, gabean beste alde batera eroaten zirala.

J.M. Barandiaran'ek batuta dakar esaera eta siniste au bere "El mundo en la mente popular vasca" liburuan. Irakurri berari : *"De la Iglesia de Nuestra Señora de la Antigua, situada en paraje elevado a pocos pasos al W de la villa de Ondarroa, se cuenta la misma leyenda que en tantas variantes hemos repetido en las páginas anteriores.*

Los vecinos de Ondarroa trataron de construir un templo en el sitio que hoy ocupa la iglesia parroquial; mas los materiales reunidos de día en aquel lugar, eran transportados de noche por algún poder misterioso a sitio más elevado, donde por fin, entendiendo que así sería la voluntad divina, fue construida la iglesia, hoy llamada de Nuestra Sra. de la Antigua". (Contada por la anciana de 80 años, llamada Sebastiana de Ochoa Antozana, de Ondarroa)

Gorago aitatu doguzan Ama Birjiña'ren gabeko ibillerak, Barandiaran berberak be batzen ditu aitaturako liburuan. Ara berak diñona, Sebastiana berberaren aotik berak entzuna:

De la Virgen de la Antigua de Ondarroa, cuyo santuario se halla en paraje elevado dominando a aquella villa, cuentan que en otro tiempo se ausentaba de noche, en épocas de tempestad, a proteger a sus devotos que navegaban en el mar. Volvía a la mañana a su hornacina y traía las ropas mojadas. Esto ocurría hace 68 años, siendo serora de la ermita una mujer llamada Dominga Matxoko, quien observaba las salidas de la imagen y las refería al pueblo".

Orrelakoxe fede itsuan bizi ziran gure amuma zarrak. Eta amumak ez ziran beste asko.

BATEKO TA BESTEKO ABERASTASUNAK

1.811 urtean Bizkaiko Agintarien aginduz, eleizetan egozan zidarrezko gaikien autorpena egin zan.

Antigua'ko eleizari dagokionez, 1.811-ko Otsailla'ren 14'an, zerrenda au bialdu zan:

- Kaliz bat bere patena eta txalingo (kutxarilla) bat.
 - Zidarrezko koroe bi, ganetik urreztuak, arri eder batzugin, bat Andra Mariarena eta bestea altoan eukan Ume Jesusena.
 - Zidarrezko amairuki edo arra bi.
 - Buruntza (zerkillo) bi, bat ganetik urreztatua eta bestea zidarrezkoa Andra Mariaren arpegirako.
 - Errosario pare bi, zidarrean kateatuak.
 - Intsentsu ontzi bat, bere zidarrezko kollaregaz.
 - Beste zortzi txalingo zidarrezkoak, kalizenak, eta beste intsentsu ontzi, txalingo ta abar parrokian gordeten diranak.
- Kaparik eta kasullarik ez zan aitatzen.
- Ikusten danez, Antigua'k ez dau euki zidar eta urretan aberastasun andirik.
- Ez eta aldare eder aberatsik.
- Ez eta koruko organeotan be.
- Biotza eskeiñi dautsan erri baten kutun izan da. Ondasunetan erri txiro, beartsu, nai ta aberats beretzeko maitasunean.

Eleiza bera XVII garren gizaldian anditu eben. Gaur 20 x 13,80 metrokoa da neurriz.

Barruz zati bakarreakoa,

Arrantzale ezaugarriak aldare nagusian. Beladun itxasontzia erdi-erdian, dindilizka, Mariñelen eleiza ezaugarri, itxastarrena.

Parroki izan zaneke bateotarako urontzia ba dago. Bekoa zabaltzean izate ori galdu ebanarren, gero be ba ekien ingurutako itxastarren ume jaiobarriak ermita onetara ekarten Deba, Mutriku eta ingurutatik, eta beko parrokiko liburuetan dagoz euren bataioko agiriak, bertan garbi agertzen dala Antigua'n artu ebela bateoa.

Belarriko min eta burukomindunak ba ekien ermita onetara etorri, ermitaren alboko aterpean egozan kanpai andi bien artean burua sartu eta kanpaiak alik indartsuen jotek ekiten, miñak uxatzeko itxaropen eta fede biziz.

Azkue'ren esanetan, buruan zai asko eukiten eben umeak, kaspadunak ekarten zituen bertara Murelaga'tik.

Beste era baten arrantzaleak, batez be txalopetako maistresak, ba ekien Andra Mariaren jantzietan orratzak sartuta eukiten, arrain sasoiari txalopetan erabilten ebezan arrantzarako sareetan lotzeko.

ANDRA MARIAREN IRUDIA PARROKIRA EKARTEAK

Ez sarri, baiña gizaldietan zear ba dakie Antigua'ko Amaren irudia erriaren txalo eta agurren artean, edo ta arraen eta negarren artean, parrokira ekarten.

Premiñen bategaitik edo eskerrak emoteko, bitartekotasuna eskatzen edo mesedea eskatzen, edo ta gora igo ezin eben zaarrak be bera ikusteko aukera eta atsegiña euki egien, iñoiz Antigua'ko Amaren irudia errira ekarri zanetan, Ondarroa'k ikutu berezi bat artzen eban, goitik berako arrada, erri osoari biotza jo eta taupadaka erabili izan eben zerbait.

Ala iñoiz, lengo erara, Misiño andiren baten, erri osua alkartu izan eben, maitasun baten baretu, nai ta aurrez itsukeriz edo txikikeriz, edo familien estutasunez bananduta ezagutu.

Ala baita lengo gizaldietako izurrite ikaragarrietan. Garbi ikusten da ori 1.855 urteko Indi gaixo edo kolera izurrite bildugarrian.

Beste alde, len be ba ekien inguruetatik jentetza andiak bertara erromes etorten. Onelako bat, errikoiena, gure gizaldian sartuta laster egin zan, 1.904 urtean.

Oraindik bizi dira, orduan ume, gurasoekandik alako atsegiñez egun a gogoratzen ezagutu ebenak.

Egun aretako jai nagusia, pelota tokian egin zan. Ez oraingoan, lengo zarrean baiño, oraingoa baiño luzeago zan pelota toki aretan.

Guk erri kondaira eta istori legez bertsolari bateri lagako dautsagu ikertaldi aren barri emoten.

Orduko ekarrialdiari buruz, Jose Manuel Imaz bertsolariak amabost estrofako bertsotan abestu eta gogoratu eban berak ikusi ebanaren zerbait. Fedearen makurpen, lotsa eta bildurra igarten da bertsolariaren kantaldi batzutan, baiña ori be kondaira da gure bertsolari zarretan.

Jaun-goi-ko- ak sal - bau zai- za- la A - ma Bir-ji- ña Ma - - ri-
 a - Mi- se - ri- kor-di- a ren A - ma guz-tiz da mi- ra- ga- rri- a. Mi- se-
 ri- kor- di- a - ren A - ma guz-tiz da mi- ra- ga rri - a - - kon- fi -
 an- tza o - su- a - re - kin na- go Zeu- ga- na ja - rri - a.

757.- JAUNGOIKOAK

Andante mosso

42.

Jaun-goi - ko- ak sal- ba zaiz a - la A- ma E- ré -
 gi- ña Ma - ri - a, mi - se - ri- kor - di - az - ko
 A- ma, guz- tiz da mi - ra - gar- i - a, kon - fi -
 an- tza o - so - a - re- kin na- go zu - gan- a jar - i - a.

Por Apolinar Azpilaga, de Ondañoa (B).

Antigua'ko salbea. Doñuak.

ANTIGUAKO SALBEA

Kantu eta abesti, koplak eta bertso zar asko gogoratu eta abestuten dira Ondarroan.

Baiña ondarrutarrak geien erabili, abestu eta biozkadarik gertuenak ataraten dautsezan kantua, Antiguako Amari Salbea da.

Donosti'ko egunkari baten, 1.977-ko Otsailla'ren 27'an, gipuzkoar erri-koplakari bategazko alkarrizketa baten agertzen zan, kantu ori, bertso orreik, berak sortu edo asmatu zitula 1.915 inguruan.

Zelan sortu, Ondarroa'n lengo gizaldian be abestuten ba ziran, 1.898 urtean jaio zan batek, gizaldi orretako urte bi baiño ez ba zitun bere lepoan eta berak autortzen eban lez emeretzi urte arte plazaratzen asi ez?

Ondarrutarrak ez dakie zeiniek egiñak diran. Ardurarik be ez. Eurak ba dakie kantu ori aoz-ao gaurko gurasoenkandik ikasi ba eben be, areik eurak baiño zarragoetatik ikasi ebela esaten eutsela eta eurentzat lez gaurkoentzat be biozkada nasaigarria dala.

Lan onetan, bertso orrein doiñu bi agertzen doguz. Azkue'k berak Apolinar Azpillaga'gandik Ondarroa'n batu ebana eta erriak geiago erabilten dauana.

JAUNGOIKUAK SALBAU ZAITZALA

- 1.- Jaungoikuak salbau zaitzala
Ama Birgiña Maria,
miserikordiaren Ama
guztiz da miragarria,
konfiantza osuarekin
Zugana nago jarria.
- 2.- Jaungoikuak salbau zaitzala
berriz ere dizut esarten,
zure graziaren premiñan
gu beti gera gertatzen,
zu bezelako beste amarik
ez degu inñun billatzen.
- 3.- Suspiruz eta sentimentuz
beti negarrez gaude gu,
negarrezko balle triste onek
zenbat dolore bizi su,
zure begi piadoso oyek
gugana itzuli itzazu.
- 4.- Balle triste onetatikan
irtetzen geradenian,
erakutsi egiguzu Jesus
gure begien aurrian,
zure sabeleko frutu ori
guztion zorionian.
- 5.- O Clementisima deitzen dizugu
Ama guztiz garbia,
O Piadosa zen andia dan
zure miserikordia,
penen artetik zugana nator
dultze Birgiña Maria.
- 6.- Anima galdu ez dezakigun
eskaten dizut gogotik,
apartatutzen lagundutzeko
pekatuaren bidetik,
Jaungoikuaren Ama Santua
erregu egizu gugaitik.
- 7.- Pekatariok egon gaitzen
gu beti prebenituak,
izan gaitzen alkantzatzeko
guztiok merezituak,
gure Jaun eta Jesukristoren
promesa mendu santuak.
- 8.- Begira ezazu, Ama maitea
gu nola bizi geraden,
arrisku eta tentaziua
besterik ez dago emen,
zure anparoan artu gaitzazu
betiko glorian, amen.

ANTIGUA'KO LAPURRETA

Antigua'ko Amari buruzko esaera, bertso, kontakizun eta abarretan, sail andia aukeratu leike.

Guk, "Leiendak 1.879-1.891'tk, bertan dagon lez, au agertu nai dogu:

Iru ordu barru zazpi urte juanak izango dira Antiguako kanpaiak ondarrutarrei deitzen eutsela Salberako. Itxas gizon guztiak etorri zian egun artan bes-tetan baño goizago. Arratsaldeko ordubiyetatik erri guztia ebillen alde batetik bestera biyaramoneko jai andiaren sentian. Zar eta gazte, emakume eta gizonak Antiguako aldats garratza igoten asi zian. Neure amona zarrak, apari tresnak Jesus baten garbiturik, neskaxa bat egiña, eskutik oratuta eruan nituan aringa aldats-gora. Eleizazpira eldu giñanian, ozta ozta sartu al izan genduan, alako jende tartian, eta bein eleiza barruan, entzun genduan Salbe santua, zeruko ain-geruak baño obeto kantatua, Ama Birgiñaren arpegiyan gure begiyak ipiñirik. Salvia amaitu ta jendea urteten asi zanian, sartu ziran korupian gizon batzuk eskopetakaz. Itandu neutsan amonari zertara etozan alan gizon areik.

–Goazen kanpora eta an esango deusut, eta bertatik urten genduan eleizatik, eta jarri giñan eleizaurrean eguan intxaurpian, eta ala egiztaten asi zan:

Gaur lako egunen illun abarrian gure antxiñakuak etorri zian Salbera, Ama Birgiñagana biyotzak amodioz beterik. Gaur legez eleiza guztia argiz beterik eguan: Birgiña Santiaren arpegiak zeruko eguzkien argitasunagaz diztiatuten eban, ederturik bere ta semiaren jantzi urreariz loratuakgaz, eta urre gorri gar-bizko koroiakaz, Ondarruako seme batek, aita done Agustinek eremutar (bakartiarra, padarra) Filipiñeetako ugarteeko komentutik eskiñi ta bialduak. Salbia entzunik, jatsi zian guztiak etxeetara, biyamoneko jaian oroitzia ipiñita.

Gauerdiko lo gozuan euazala, esnatu zan uriko jende guztia Antiguako kanpaien otsurru (errepika) gogorragaz; gizon bat legez, urten eben kalera erdi

jantzirik, eta itanduten eutseen alkarri: Zer dago Antiguan? Zer esan nai dau kanpai otsuru ain gogor eta jarraikuak? Guazen ara. Eta gizonak eta emakumeak korrika al guztian igon eben aldatsa, eta erdi itorik arnas ezin egiñik, ikusi eben, miragarritzkoa, kanpai biyak, eurak bakarrik otsurrututen ebela, eleizako atia zabal zabalik euan, baita altarako argi guztiak biztuta, eta eleiz barruan iru gizon, guztiz itxura txarrekuak. Bata urbedeinkatu ontziyaren alboan euan, bestia eleizerdiyan, eta irugarrena altara gañian Ama Birgiñaren koroiari oratuten eutsala ezker eskuagaz eta Jesus umiarenari eskumagaz eta irurak zirkin ezin egiñik.

Uriko alkatia deituagaz, eratsi zitueezan uraistegira (udaletxea? presondegia? epaiturgia?) eta ikaragarritzko legautsia (krimena) ezagutua izan zanian, andik egun batzuetara eruan zitubezeen an gure aurrian dagon mendi gañera, estu-estu loturik, eta an il zitubezeen, soka bat saman orapildu eta arbol adar baten loturik.

Txarto dabilzenak, txarto amaituten dabe.

Iru lapur gaiztuen soñekuak eureen makilletan ipiñi zitubezen eleiz onen iztaiziñeetan (gangaetan) eta oraindiño soñeko oneek ikusi leikez gaurko egunian ipini zian tokiyan.

Andik ona lau gizon eskopetadun etorten dira urtian urtian, Uriko Bilgumaren (Batzarra) aginduz, Ama Birgiña gordrtzeko alako lapurren eskuetatik.”

Ipuin au kontatu, idatzia kontatu ebanak, bere azken azalpenean au diño: “Bizkaitarren artean azkenengoa, erdaldun tartian sartua eta bein edo bein baño euskeraz egiten dabena” dala.

Dana dala, orrela dator kontakizuna LEIENDAK (1.879-1.891) deiturako liburuan.

(“KLASIKOAK” liburu saillean)

SANTA CLARA

Noiztik ete dabe ondarrutarrak Santa Clara ganako eraspén edo debosiñoia?

Ba dira ezaugarri bizi-bizi batzuk: Arrantzalien Kofradiaren izena, antxiñetatik. Izen onetako Kofradi bakarra, gañera, itxasertz guztian.

Berari eskiñitako eleiza.

Parrokian bertan, San Pedro'ren altare gañean, Santa Clara'ren irudia.

Zaletasuna eta maitasun sortu zitun beintzat deun onek gure errian.

Manuel Lekuona jakintsuaren esanetan, iru irudi gotiko ezagutu izan dira Euskalerrian Santa Clara'renak. Gaur bi gelditzen dira: Zerain eta Ondarrukoak. Bestea, Errenderin egon zana, galdu zan.

1.936ko gerratean ondatu egin zan gure erriak santa oneri eskiñitako eleiza. Ermita jatorra. Itxas gañean. Gaur, len ermita orrena zan zelai egalean, txikiago bat egin zan, 1.958'n. Len, ermita zarrean, ba egozan bertan beste santu batzuen irudiak. Ermita ori apurtzean bertako Santiago Antiguara eroan zan. Eta Santa Clara, barriri len lez itxasora begira ipini, bera dalarik bertako irudi bakar.

Urtero anditasunez ospatuten zan bere jaia, Dagonillaren 12'an. Ordurako txalopa andiak etxera etorten ziran Santander eta Asturias aldeko itxasoetatik, atunetako denpora erdiak egin ondoren. Azkenetan, ez da ain zeatz zainduten jai ori, baiña oraintxe be arrantzale asko egun orretarako etxeratzen asten dira, nai ta gaur txalupa arin eta egokiagoak euki.

Jai besperan konpletak esaten ziran, illuntzean, eta jai egunean Meza Nagusia, sermoi ta guzti. Eta andra gizonak, bete betean asten ziran "Erderaz zara Clara" abestuten.

Atsegin izaten da, beti be, erbestetarrak zelan ikusten gaituen gure kantaen

bitartez, eta origaitik, Lekuona jaunaren pentsakera ikusi daigun, berak Donostian egindako itzaldi baten agertua: “*Konpletak amaitzera zijoazen... Ez al zuten apaizak azkenenکو Pater eta Ave esan, organistak bere armoniuan hieroglifiko labur bat egin ondoren or ekiten diote Eleizan dauden guzti-guztiak elkarren leian, velut agmine facto, kantuari. Santa Clara'ren kanta!...An beian, elkarren gainka datozen olatuen burrundara, ez da izaten ain indartsu. Naurri ederrean danok, ori bai; baiña alako burrundara ikaragarri batean. Emakume eztarriak ia danak; itxas gatzetan garratzutako ezdarri bortitzak... Esan zitekeen, Eleizatxo aidean jaso nai zutela, paperezkoa bai litzan. Bizkar-ezurrean gora ikaragarritzko zirarra eragiten zigun tarteka-tarteka doñu ukigarri arek, emakume aien ezdarri ukituetatik alako bolaran ateratzean.*

Kantu ederra. Kantak ederrago. Ez gutxi ere.”

Meza ondoren, erromeria, aurreku ta dantzak, zelaian.

Ba egoan Iparkaletik bertarañoko bidea: erdiko bidea. Edo ta beste bidea, “Mustu txurru” igaro ta Antigua'ra joaten dana.

Lengora jota, noizkoa ete da Santa Clararen ermita?

Ermita barria egin zanean, lengo zarraren ateko arria ipiñi zan barriro. Eta arri aretan ikusten dan urtea ez da zarrena.

Santa Clararen iru imagiña gotikoak, Lekuonaren eritzian, XIII edo XIV garren gizaldikoak dira. Beintzat Errenderikoa zana, Zeraingoa eta Ondarrukoa.

Kantak be, Lekuona berberaren eritziz, XV garren gizaldi ingurukoak izan bear dabe, euren esakera, gai eta doñutik.

Egia esan, gaur abestutzen dan letra, ez da lenengotakoa. Ideetan bai eta neurrian be bai. Baiña itzetan zerbait aldatua da, pixkat orraztua. Arrese Beitia otxandiotarrak orraztu zitun eta ez ain azpaldi. Gizaldi onen asieran.

Santa Clararen irudia maiteki begiratzen eban Zubiaurre pintore ezagunak be. Ba dakit iñoiz esana zala gustora atuko ebala tarteren bat irudi ori dotoretzeko.

Santa Claran ba zan beste irudi bat, Erdi Arora begira ipinten ekiana: Santiago. Santiagoko erromesen bideak ezagunak dira. Baiña askoren eritziz ba egoan beste bat itxasertzetik joaten zana, nai ta bide ori askok erabilli ez. Itxas gaiñeko Santiago'ren irudi onek, ez ete dauka zer ikusirik gure ermitaren urteetan?

Er-da-raz za- ra Kla- ra, eus-ke-raz Ar- gi- gi- a, zeu za-ra ze- ru- e-
 tan i- zar bat ar- gi- a, zeu ze- ra ze- ru- e- tan i- zar bat ar- gi- a.

KOPLA GOTIKOAK

On Manuel Lekuona'k, ainbestean goratzen dauzan Santa Clararen kopla gotikoak, -bere esanetan kantu ederra, koplak ederrago- antxiña kantaten ziran bertso oneik dira:

- | | | |
|--|---|--|
| 1.- Bieta Santa Clara,
euskeraz argia,
zu zara zeruetan
dontzella garbia. | 5.- Aita San Frantziskua
padrino arturik
esposa izan ziñan
aitaren ixilik. | 9.- Ogi bakar batekin
ditu janaritu,
ogi bakar batekin
ta erdia gelditu. |
| 2.- Amaren sabeletik
santuen grazia,
munduan izateko
ejemplu garbia. | 6.- Amazazpi urtegaz
monja sartuta ziñan
monja sartuta ere
Klara izan ziñan. | 10.- Uso txuri ederra
zeruan ze barri?
-Zeruan barri onak
orain eta beti. |
| 3.- Alkargana baturik
arri koskortxuak
erreza oi zenduzan
errosariuak. | 7.- Eskuetan daukazun
gauzaren andia!
Kustorio batean
Jesusa bizia | 11.- Monjen erregaluak
intxaurrak oi dira,
aiek ere guztiak
ai piñak ba lira! |
| 4.- Palma eder bategaz
Erramu goizian
agertu izan ziñan
Asisko kalian. | 8.- Asisko konbentuan
zinduten ikusi,
ikusi eta bertan
moruak igesi. | |

Kantu oneik, edo denboretan zerbait aldatuta, izango ziran lengo gizaldietan gure aurretikoak abestuten zituenak.

Gaurkoak Felipe Arrese Beitia'ren ikutua dauke. Parrokian Errosario'ko aldarea konpontzen ibili zanean, orraztutea pentsatu eban eta bai egin be, berba batzuk txukundu eta bertso "zirikalari batzuk" aldatuaz.

Edozetara be lengo doñu eta betiko garrez, Lekuona'k esaten daben burrunbaraka, beste oneik abestuten dira:

ERDERAZ ZARA KLARA (Felipe Arrese Beitiaren konponketa.)

- | | | |
|---|---|--|
| 1.- Erderaz zara Clara,
euskeraz argia,
zu zara zerubetan
izar bat arbia. | 7.- Amazortzi urtegaz
agur munduari,
eginda izan ziñan
celda maitelari. | 13.- Zu ikusita duaz
moruak igesi,
zugaz sakramentua
ebelako ikusi. |
| 2.- Augaitik mariñelak
dauke guraria,
gaur emon dakitzula
zor yatzun gloria. | 8.- Jesus zalako zure
gutziz maitagarri,
biotza emon zeuntsan
osorik berari. | 14.- Berrogeta amar monja
ditu janaritu,
ogi bakar bategaz
ta erdia gelditu. |
| 3.- Zure umetasuneko
denora guztia
izan zan erreguzko
ejemplu bizia. | 9.- Jesusgaitik zenduan
bizitza gustian
jardun nekiak artzen
zeure gorputzian. | 15.- Andiak izan ziran
zure mirariak,
orregaitik zaukaguz
gure gidarizat. |
| 4.- Alkargana baturik
arri koskortxuak
zenbatu oi zenduzan
errosariuak. | 10.- Baru silizio ta
lurraren gañian
lo egiñaz uda eta
negu gogorrian. | 16.- Zeruan amatzat askok
zaitube alabetan
lurrian gurasotzat
ez gitxik ondretan. |
| 5.- Saritu izan zaitu
Birgiña Mariak,
sendatu dituala
zure erabagiak. | 11.- Franziskoren alaben
erreligiñua,
jarteko izan ziñan
lenengo autua. | 17.- Elixia Jesusen
laguntzat kontetan,
bitarteko dogula
guk Klara kantetan. |
| 6.- Palma eder bategaz
Erramu gozian
agertu izan ziñan
Asisko kalian. | 12.- Ta millaka askoren
orain gurasua
zarialako zara
santa indartsua. | 18.- Zaindu izan gaituzun
zure mantupian,
eskerrak gure Ama
ta urrengo artian, |

SANTA KLARA TA ZERBAIT GEIAGO

Santa Klararen ermita, Kalare deunarena, Ondarroa'tik Lekeitio'rako bide gaiñean dago, Arta deiturako lekuan, bide estu eta maillatan gora jota.

Bai eta Antigua'tik zear, Arriandietako bide kurutzean, Mustu txurrutik zear ermitarañoko bidea artuta.

Len ba zan Iparkale egalean asten zan bide bat, "letaña bide" lez ezagutua, Asentsio asteleneko letaña bertatik joaten zalako ermita onetara. Baña bide ori galdu zan.

Lengo ermita gaurkoa dagon zelai berean egoan, erdirago; andiago zan baiña 1.936ko gerratean apurtuta geratu zan eta arrezkero bere ordezeko barria egin, txikitxo, aldarea eta bost-sei lagun barruan sartzeko aiñakoa.

Bertan dagon Klara deunaren irudia gotikoa da, lendik etorrana. Zubiaurre margolari anaietako batek esaten ekian irudi zoragarria dala ondo egiña.

Ondarroa'ko arrantzaleen Kofradiak santa onen izena daroa. Bear ba da arrantzale Kofradietako bakarra da izen ori eroaten.

Arrantzale Kofradi au XVI garren gizalditik ezagutzen da; bere araudi idatzia 1.593 urtean onartu izan zan, baiña bere lenengo atalean au irakurri lei:

1.- Lenengotik esan eben, Jainko gure jaunaren zerbitzu eta bere Eleiza eta Klara deunaren ermitako Jainkotiar gurtza zabaltzeko, bere izenez eta noiztik ez dakigun denboretatik datorren eta gaur arte irauten dauan esandako Kofradiaren zaintza, jagote, euste eta anaitasuna indartzeko.....onartzen zirala arauak.

Ermita lenagotik be ba egoala, erraz ikusten da.

Eta aldi aretan Aita Santiu zanak Kofradi onetako arrantzaliei domeka eta jaietan arrantzara urten al izateko emon eban baimen-bulan be esaten da arrantzale orreik euren kontura zainduten ebela azpalditik itxas gaiñean euken Klara deunaren ermita.

1.541 urtean egin zan erriko etxe eta jaubetasunen erroltze bat. Eta Parroki inguruko "korretan" egin zan batzarrean batu ziran zeatzasunak onartzeko. Eta batzar ondoren, beste gai berezi bat egon zan erriak onartzea gura izan zana: "Auto de Lizencia que se da a Domenja de Ibiri por beata de la Cofradia de Santa Clara" diño agiriak eta bertan "...dixo que Domenja de Ibiri se abía ofrezido por su persona en servicio de Dios Nuestro Señor de ser freyra en la hermita Cofradia...."

Eta antxe, erri batzarrean onartu eben orretarako.

Beraz, ordurako be ba egoan ermita ori.

Klara deunaren ermitako "beatak", ermita zaintzearen gain, ba euken beste zeregin bat: Gauetan, batez be eguraldi txar eta ekaitz egunetan, argia edo sua biztu bear izaten eben ermitaren egalean, itxasoan ebiltzan txalopetako gizonak zuzen errirutzen jakin egien.

Arrantzale Kofradiak gogotsu euki eban Klara deunaren ermitaren ardura eta zerbitzua.

Bere liburuak ikustatzen asi ezkerro, bereala igarten dira ermita orreitako betebearrik txikienak be bere konturako zirala. Ez bakarrik ermitarenak, bai eta parrokiako albo aldara batena be, ain zuzen Pedro deuna be-aldean eta goian Klara deunaren irudia dagozaneakoarena.

"San Pedro eta Santa Klara"ren altaran erretoko argizaria", edo ta "Sakristauari eskupekoa, San Pedro eta Santa Klara'ren aldareko zidartegiz atarateko." Sarri irakurten dira orrelakoak. Edo ta "Santa ermitarako kanpai barria" 1.340 erreal.(1.795 urtean); "Santa Klararen irudia Eibar'era andra bik eroatea" (1.795); "Eibartik irudia biurtzea", 18 erreal. (1.796)' "Irudia urreztatu eta margoztutea", 60 erreal; "Santa Klara'ren aldarako estalkiak egiteko, euna erostea".(1.797).

Orrez gain urte bakoitzean ainbat meza, konpleta eta abar bere konturako ziran.

Ermita onen inguruan egun guztiko jaia ospatzen zan zaindariaren egunean, bai eta Santiago be.

Bertan egoan baita Kristobal deunaren irudia. Gaur Santiago eta Kristobal deunen irudiak, ermita zarra apurtu ezkeroztik, Antigua'ko eleizan gordeten dira.

KURUTZE DEUNA

Erri deituraz Santa Kutz.

Lurrez Berriatu'ko jaubetasunean. Eleiz legez Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

Lope Isasti'k 1.625 urtean agertu eban "Compendio General de Guipuzcoa"n, Motriku'ko ermitak izendatzean aitatzten dau onen izena be, esanez Motriku'k eukala "cumulative con la anteiglesia de Berriatua que se llama Santa Cruz".

Beintzat Gipuzkoa eta Bizkaia'ren aldebanatzeko muga, zuzen eroan ezke-ro, eleiz onen barrutik igarotzen da. Gipuzkoa'ren zatian aldarea geratzen dala eta beste guztia Bizkaia'n.

Jakiña da ermita onen inguruan dagon eskutukoa, frantziskotar fraileak Canarias ugartetara Ebanjelioaren barria eroateko konbentu bat emen egon ete zan edo ez. IV garren Sixto Aita Santuak Goitiniz Aita ondarrutarrari 1.484 urtean emoniko bula baten an agertzen da ustez eleiz au danaren egoera.

Santa Kutz onen erri sinistea On Jose Migel Barandiaran'ek liburuetan be jasoa da.

"Aita Kutzekoa Santa Kutzen agertu zala esaten dabe ta gero paraje laua-gatik Pagoetan eleixia ein gura ebela. Baña egunez eiten ebena gabaz atzera Santa Kutzera jutun zala.

Zelat egiten eutsela Doixtu baserriko batek gabian, eta zeozer ete ebillen ikusi ebala eta oidua entzun ebela:

Aida txuri ta belxo,
Zelatian daganari
begiak ertengo al dio.

Eta laugarren gizaldian be segidu ebela tuertuak Doixtu'ko familian. Eta gero eleixia Santa Kutzen egin ebela.

(Barandiaran'ek gertaera ori berari Angel Barruetaña'k Burgo baserriko bizilagunak esanda lez agertzen dau)

Ermita onek beti euki dau bere ormei batuta etxe bat. Bai eta solo bi be agertzen dira.

Etxeagaitik errenta ordaintzen eban bertan bizi zanak. 1.798 ko paperetan 146 errialeko errenta eukan. Eta iru urte geroago 176 irakurten da.

1.828'n esaten da etxea eta solo bi daukazala.

1.825 urtean egindako zerrenda baten, bertako tresna eta gaikien artean oneik agertzen dira:

– Damasko zurizko kasulla. Beste gorri bat eta urdiña irugarrena.

– Alba, amito, zingulo, korporale eta abar.

– Kaliza, patena eta txalingoa.

– Aldararako izarak, eta beste zapitxoak.

– Kanpai txiki bat, ermitako torretxoan.

– Maia

– Argontzia (farola) argi egiteko.

– Aldare aurrekoa

– Oial morea

– Kristo Kurutzatua, aldarean.

– San Antolin eta Santa Luzia'ren irudiak.

– Serorearen etxea, ermita joten.

– Solo bat, bedar eta arritzaduna, dana zati baten, Iparraldean Nafarrete'ren soloagaz mugatzen dana, Sorkaldean Doistugorena'koagaz eta Sarkaldean erriko soloagaz.

1.893 urtean, Dolores Ibarloza andreak, orretarako batu zitun ukar eta eskupekoen bitartez, oso osorik barriztatu eban eleiza eta oraindik 641 peseta geratu ziran ermitarentzat.

Urtean iru meza esateko oiturea egoan. Maiatzaren 3 eta Iraila'ren 14'an, biak Kurutze Santuaren gorapeneko egunak eta irugarrena Luzia deunaren egunean, Abenduaren 13'an.

Erritik ermitara bitarteko Kurutzak, arrizko kurutzak, bost 1.901 urtean egin zitun Domingo Iriondo argiñak eta 460 peseta kostatu ziran eta 1.902 urtean beste lau 360 peseta. Ordain agiriak Josefa Pagoaga'k ordaindu lez agertzen dabe.

Ba dago oitura bat Aste Santuan. Apostoluak iruditzen jazten diranak, "Aita Eternua" Bariku Santu egunean bere Zubizarreko ermitara biurtu ondoren, Ermita onetara igoten dira kurutzen bidetik, erritar askok laguntzen dautsela.

CANARIAS'ETARAKO MISIOLARIAK GERTUTEKO IKASTETXEA ONDARROAN?

Aidean dabil zalantza eta itaun ori frantziskotar fraileen kondaira-idazleetan..

Ez datoz danak bat.

Oiñarria : IVgarren Sixto Aita Santuaren Bula bat.

Bula orretan Goitiniz eta Ondarroa ziur izentatzen dirala esaten da.

Baiña batzuk Goitiniz ori Godinez'en biurtu dabe eta Ondarroa ori Orduña'n.

Beste batzuk Sixto IVgarrenaren Bula ori, Araba eta Kanpetzu'ko Santa Cruz erriari dagokiola.

Wading'ek bere Anales-etan Hondarrua ordeztu Hondairua itzuli dabelako, beste batzuk ortik Hordunia asmatu.

Baiña Modesto Sarasola Aitak, "Vizcaya y los Reyes Católicos" liburuan garbi diño :

"Una Bula del Papa Sixto IV, de 23 de Junio de 1.484 nos da a conocer la existencia de un convento franciscano **inter villas Hondarroa et Motico**, entre las villas de Ondarroa y Motrico..... El destino de este convento era la formación de misioneros franciscanos para la evangelización de las Canarias."

(1.484'ko Ekainillaren 23'ko IVgarren Sixto Aita Santuaren Bula batek erakusten emoten dausku Hondarroa eta Motico urien arteko konbentu baten egoera, au da Ondarroa eta Mutriku artean. Konbentu onen zeregiña Canarias'etara Ebanjelioko barri ona eroateko frantziskotar misiolariak gertutea zan.)

Irizpide orren alde agertzen da Angel Uribe, Aita Frantziskotarra bere "La

Provincia Franciscana de Cantabria. I. El Franciscanismo Vasco Cántabro desde sus orígenes hasta el año 1.551” liburuan.

Eta orren alde iru-lau bidar idatzi eban Iñazio Omaetxebarria Aitak “Misiones Franciscanas” aldizkarian (1.944) eta “Misionalia Hispánica”n 1.957”n.

Eta diño e batzuk bat edo beste esanarren, Ondarroa’ko Santa Kutz izeneko konbentua egon zala, eta fray Alonso Zamora bere agintari zala. Fraile au Alonso Bolano Aita eta Andres Cumas’ en oiñordeko izan zan eta areik eskubide bereziak eukezan Canarias ugarteak kristiñautzeko.

Eleizak bere denboretan euki eta emon zitun eskubideetan, ba dirudi frantziskotar fraileak artu zituela Canarias isletan Ebanjelioa erakusteko eskubide zabalak, eta onetan arduratu ziran fraileen artean, Bolaño Aita, Alonso Zamora Aita eta abarrek, eskubide bereziak eukezala euren kontura eta askatasunez ortarako taldeak gertu eta eratuteko.

Itxuraz IVgarren Sixto Aita Santuaren Bula dalakoan..... bere seme kutun Goitiniz’ko Joan Txikien Ordenako jarraitzaliei egiñean, diñotso : Berari egingako eskabidean argi agertzen dala etxe bat zabaldu ebala Kalagurriko gotzaingoan Ondarroa eta Mutriku artean, Kurutze Santuaren izenean.

“...*quamdam domun de Sancta Crux nuncupatam inter villas de Hondarroa e Motico, Calagurrutan dioc...pro usu et habitatione fratrum dicti Ordinis....*”

Eta geroago diñotso, konbentu orretan zortzi, amar edo fraile geiago artu eikezala.

Eta Bula au 1.484’ko Ekainillaren 23’an emona da Aita Santu orren XIIIgarren urtean eta barriztu eta ziurtatu egin eban VIII Inozentzio Aita Santuak, bere aginteko lenengo urtean.

Ori orrela, ikusten da XVgarren bigarren erdialdean Ondarroa eta Mutriku artean, eta zeaztuta gaiñera Ondarroa’ko lurretan, frantziskotarren konbentu edo ermita bat egon zala, 1.484 urte aurretik ezaguna zala eta Canarias islaetarako misiolarien gertuketarako Ikastetxe edo Seminario antzeko izan zala.

Eta Onetan Burgos’ko “probintzi” deiturako frantziskotarren artxibu zarrean Ondarroa’ko Santa Kutz konbentua deitzen dala.

Orrez gain egon be ba dagola Ondarroako lurraldetan, emendik Mutrikura duan bide zarrean, Kurutze deunaren ermita ori, ain zuzen be Ondarru eta Mutriku artean dagona, nai eta gaur ermita utsa agertu, antxiñako fraileleku izan eikean padarrarentzat etxe geigarri barik.


Eta nai eta jakin ez zenbat urte iraun eban Ikastetxe orrek, Burgos’ko probintziko fraileen artxiboko agirien artean, ba ei dago txosten bat konbentu ori Castilla’ko fraileen Bikarioaren agintepera aldatu zanekoa. Eta dirudianez aldaketa ori 1.514 urtea baiño lenago egingo zan, kontuan eukita geroago gertatu ezker, Castilla’ko nagusien orde z Burgos’koa izango zala jaube egingo

zana, urte orretan eratu zalako Ordena barruan Burgos'ko "probintzia" deitura-koa.

Paperak orrela agertuarren, arrigarri da Santa Kutz inguruan fraileen bizileku azterrenik ez agertzea.


Egon izan dira, eta onetan ibili zan Omaetxebarria Aita, Burgo baserrian urratsik agertzen ete dan aztertzen. Baiña....bosteun urtetik gora dira ori zala ta ez da gaitz urratsak galtzea.

Alaz eta beti gogoratzen da Isla areitan euskal itxastar eta garailariak sarri ezagutzen zirala eta euskaldunak azpalditik euki ebela arako joera.



Irispide onen iturriak:

- * Misiones Franciscanas. 1.944
- * Sarasola, Modesto.- Vizcaya y los Reyes Católicos.
- * Aspurz, Lázaro.- Manual de Historia Franciscana.
- * Lejarza, Fidel.- Los Archivos españoles y la Misionología, en M.H.
- * Pou y Marti Jose M^a.- Antonianum.



Santa Kutz ermita.

SANTA KUTZ DALA TA.....

Lope de Isasti, lezotarra izan zan. Bertako abade, beste zeregin batzuen artean. 1.625 urtean “COMPENDIO HISTORIAL DE GUIPUZCOA” idatzi eban.

Liburu orretako XXIV atalburuan, Mutrikuko gorabera batzuk irakurri leitezke.

Kapituloaren buruan au diño : Motriku'ko uri leiala dala-ta, bere deitura, leku, antxiñatasun, eleiza, ermitak eta bertako etxe gogoragarriak eta etxe jauntzak.

Mutriku eta Ondarru, auzo lez parekatzean, “idiak idia aurkitu” esaten da, au da, zabaltasun baten alkarren antzeko, alkarren kideko.

Orrela ikusita, Ondarroarentzat egoki bertako argibide batzuk. Esateko itxas-bizitzari eta portuari buruz diño : Itxas portua, nasa (molla) dauka eta bertan irureun toneladaz betetako txalopak sartzen dira. Eta galeoi eta edozein motatako itxas-ontzi, txalopak, egiten dira, Sevilla'ra burdinkiz beteta edo lurreko beste gauzekaz beteta joaten diranak; eta urte batzutan Terranoba'ra be joateko dira bertakoak bakallautan, eta etxean geratzen diran gizonak, oiturazko arrantzan ibiltzen diran baleen jarraipenean ekiten dautse, gaitasun andia daukelarik eurak arrapatu edo ilten; eta ori oiturazko da portu aretan, euki be armarritzat daukenean, gizon bat arpoia bategaz balea zauritzeko asmotan igarten da eta beste gizon bat txalopa atzean erramu bategaz txaloparen gidari doala.

Ez al da orixe berberori gure gurasoak eta etxeak edo auzokideak Ondarroagaitik aoz ao mende batetik bestera esan dauskuena?

Baiña atal onetako naia ez da duintasun ori agertzea.

“Santa Kutz” (Gurutze deuna) ermita dala-ta, ermita orrek lengo denboretan euki eban zeregiñari argitasuna billatu eta emotea bai.

Eta Lope Isasti'k bere liburuan au diño Motriku'ko ermitak izendatzean: Bizkaian dagon Berriatu eleiz-ateagaz batean Mutriku'k daukan mendian, Kurutze deunaren izeneko ermita dago, eta gaiñera ospital bi daukaz Mutriku'k, bat Madalena izenekoa eta bestea Kurutze deun izenekoa, bere errenta eta ospitale izateagaz, bertaraiño eltzen diran frantziskotar fraileentzako sindiko ta guzti.

“Hay otra (ermita) en la montaña, jurisdicción de Motrico, cumulative con la ante-iglesia de Berriatua en Vizcaya, que se llama Santa Cruz; y dos hospitales de la Magdalena y Santa Cruz, con renta y casa de hospitalidad con síndico para los frailes de san Francisco, que allá llegan.”

Lope Isasti'ren autorpen onek ez al dau emoten argibide apurrik, ezin argitu dan Ondarroa eta Mutriku arteko Santa Kutz frantziskotarren ermita eta konbentu izan zanezorik?

Nai eta lurrez Berriatu'ko lurrean egon, gogoratzeko da ermita ori Ondarroa'ko parrokiaren mendeko dala.

“AITA ETERNU”

Ondarrutarrak deitura bat baiño geiago emoten dautsez, errian bertan, “zubizar” entzutetsuaren egalean dagon ermita oneri.

“Aita Piedadi”

“Aita Eternu”

eta abar.

Ermita txikia da, 6,30 x 6,10 metro neurritakoa.

Bere aurrean eleizpe edo aterpe lakoa, kalea bertatik igaroten dala.

“Aita Piedadekua” deiturak ba dauka edo ba eukan bere zegaitia.

Lengo zarrak esaten eben aurreko aterpe orren gainaldeko orman, gaur zementoz estalduta ba dauka be, Ama Birgiña Errukiorraren irudia egoten zala, Jesus bere altzoan eukala. Itxuraz galdu zan.

Gaur barruan daukan irudia, Jesus eskuak lotuta, buruan arantzazko koroia daukala da.

Aste Santuan kalez kale erabilten da irudi au.

Len, Andra Mari biaramonean, San Roke’ren omenezko meza eskintzen zan urtero, abadeak parrokitik bertara jantzita urten eta kalean abestuten joaten zirala.

Bestelako egun askotan borondatezko mezak esaten ziran, batez be arrantzalienak.

Eta Ondarroan atuntsu denboran, gizonik geienak Kantabria aldera ille bi ingururako joaten ziranean, beste erriko ermitetan lez, kaletako andrak bertan batzen ziran gizonen alde eta oroitzaz errosarioa errezaten.

Ermita onen antxiñekotasuna adierazteko esan lei parrokian, aldare nautsian, egurrezko erretabloak eskutatzen dauzan arrizko irudi eta apaingarrien artean, ba dagola azpadura bat ermita onen irudia agertzen dana. Eta erriko

armarrian agertzen dan zubizar ondoko etxe irudia, ermita onen aurrealdea da.

1.866 urteko Urrilla´ren 28´ko udal batzarrean, alkateak jakin eragin eban ermita au egoera txarrean egoala eta komeni zala ainbat ariñen zerbait egitea. Eta erabagia au izan zan : Udaleko batzorde bat etxerik etxe eskean joatea eta batzen zanetik bear zan artekua udalak ordaintzea.

Ondarroa´k bere sarreretako atea euki zitunean, emen egon zan erri-sarreako ateetako bat.



“Aita Eternua”.

SAN JUAN (OSPITALEKOA)

Ospital etxearen geigarria.

Goiko kalearen egalean.

Ermita txikia, baiña errikoa.

Ortze ospatuten ziran lengo denboretan udal batzar batzuk, bai eta erriko eta parroikiko Kofradien batzarrak.

Errogatibetan, lenengo eguna, orraxe egiten zan.

Ortze urteko san Juan eguneko lora eta bedar txorta bedeinkatzeak, goizeko seiretako mezatan.

Ortze goikokaletarrak euren errosarioak udako egun larrietan.

13,20 x 8,60 metrotakoa elizatxoa. Irudi bakarra, Jon bateatzaillea. Koro ta guzti, korutik ospitalerako atea eukala.

SAN JUAN (GOROZIKA'KOA)

Gorozika, Ondarroa uri sortu zanetik, Ondarroa'ko auzo da.

Ondarroa'tik kilometro bi ta erdira, baiña ondarrutarren begiko auzo eta ermita.

Ermitak 13,20 x 12,48 daukaz metrotan.

Bateotako ur-ontzia euki eban, baiña denborekaz lurpean sartuta.

Udalak ba ekian lengo denboretan begirune berezia eukiten egun onetan gorozikarrekaz.

1.820'ko Bagilla'ren 19-ko udal batzarrean, Gorozikako ermita gogoratu zan eta erriko auzo zala kontuan artuta eta erromeri ospetsua egiten zalako,

urte aretatik aurrera alkatea bakarrik bertako jaira joan barik, idazkaria eta beste udalzain bat be bertara joatea erabagi zan eta iruren bazkaria egun orretan jaiko tabernako eskubidea artzen ebanaren konturako izango zala, ardaua sisa barik saltzeko oitura egoalako.

Bear ba da orrek sortu egin eban eztabaidaren bat eta andik amar urtera gauzak aldatu ziran.

1.830 urteko batzarrean San Juan egunean bear eben ardaua erriko sisa barik edateko euken eskubidea kendu nai izan zan. Ori eztabaidatu zan udal batzarrean. Baiña urte orretan lortu eben erdia bakarrik ordainduta saltzea. Gero, denboretan oitura osorik galtzeko.

Gorozika'n ostatu eta jatetxerik egon ez danez, San Juan eguneko abade, alkate, abeslari, erri-zaindari eta abar etxe bitan banatzen ziran bazkaritarako, urtetik urtera banakatuta, au da, agintari nagusiak etxe baten eta bestelakak bestean, eta urrengo urtean alderantziz.

Goizeko bederatzi ta erdiak inguruko urtetan ziran erritik alkate, abade ta laguntzailleak txistulariekaz batean eta Gorozikan igaroten eben eguna ta illuntzean erriratu, erromesak Zaldubide ertzean alkartu eta erromeri alaian erriko plazara joan, an amaitzeko.

Gorozikako San Juan'ek karetxentzako osasuna emoten ekiala-ta, iru bari-ku jarrikoetan bertaratzen ziran, bertan ur bedeinkatu ontzian buztita iru Agur Mari esatera.

Kalean goizeko seiretan bedeinkatzen ziran egun onetako lore txortak eta Gorozikan meza nagusitan.

Geienak txortetan onelako bedarkiak sartzan ebezan:

Zinta bedarra;

trumoi bedarra;

eriñotza, milloia ta moskotxa be tartean dirala.

Orrez gain, bakoitzaren etxepean sartzan diran ale eta frutu guztien orriak, au da, gari, arto, kipula, sagar, brisku, melokotoi, okaran, iku, madari eta abarrenak.

Oiturak ez ziran bardiñak etxe guztietan. Batzuk lore orrein lurruna erabilten eben beiari errapea gogortzen jakonetan biguntzeko

Ba ei ziran itxasaldean trumoiota jotan ebanetan, zatitxu bat erreten ebenak itxasaldeari begira eta Santa Barbara'ri erreguka.

LORENTZO DEUNA

Parrokiko liburu zarretan, 1.579'ko baten, "diez de Agosto dia de Lorente" irakurten da.

Gaur askorentzat, san Lorentzo.

Eta esakera:

San Lorenzo esku baten sua,
Asterrikan otz ez dana berua.
San Lorentzok esku baten su bizia
eta bestean prest illintia.

Lurrez Berriatu izanarren, eleiz legez Asterrika'ko ermita Ondarroako parrokiaren menpeko da.

Ain zuzen Ondarroa'ko parrokiko bateo liburutetan, 1.550 urtean, bateoak liburutetan agertzen asi ziranekoan, lenengo agertzen dan izena Pedro de Asterrika da.

Len, gari bedeinkatzeak etxerik etxe, edo obeto, baserririk baserri egiteko oitura egoanean, Ondarroa'ko parrokiko abadeak era onetan banatzen zituen iru auzoak:

Aste Santuan meza nagusitan meza emole gertatzen zan abadeak Errenderi auzoko baserrietako soloak bedeinkatzea bere arduruan eukiten eban.

Ebanjelio esale gertaten zana, diakonoa, Gorozika auzora joan bear izaten zan.

Epistola esalea, subdiakonoa, Asterrika'ra.

Ermita onetako Kofradian sartzen dira Goimendi auzoko ondarrutar baserriarrak eta Asterrika auzoko berriatuarrak.

1.745 urteko Berriatu'ko etheen zerrendan ogeita amairu etxe sartzen ziran auzo onetako lez.

Ermita 16,50 x 14 metrotakua da. Iru alderditara zabaltzen ditu urak bere tellatuak.

Irudiak: Lorentzo deuna, Edurretako Ama, Barbara eta Jeronimo deunak, irudi zarretan.

Ermita bera 1.500 ingurukoa dala uste dabe gaituak.

Bere leioak, gotiko`tik pizkundera bitartekoak.

Erretablo goiko kalbarioa, XVI garren asierakoa.

Maruaga lautuak (posteak) ertzetan zur-landunak, XVI garrenekoak.

Jaia, Dagonillaren (Abustuaren) 10-ean.

Ondarroa'ko parroikiko abadea eta Berriatu'ko alkatea batzen ziran bertako jaian.

Ermita onek euki eban berrogetamar matro gorago, Errementarikua baserri egalean, bere "santutxu" deitzen dana.

Bidarien otoitz eta ukar (limosna) batzeko asmotan zabalduak ermita txikia, Mendexa'tik Ondarroa'rako bide zarraren egalean.

Gaur auzoko baserri bateko tresneria gordeten da bertan, baiña igarten da len irudia (imajiña) egoten zan orma zuloa.

AMA BITARTEKOA

Batzuk Bitarteko Ama.

Beste batzuk Bidarteko Ama.

Batzuk Antigua'rako aldatzean, bide artean dagolako.

Besteentzat, Ama bitartekaria, fedez.

Edozetara be Antigua'ko ermitatik 100 metrotara, bide zarretik Antigua'rako bidexka artzean.

Oraintsu errea da, edo erre eben , 1.969 inguruan.

Idurreko Ama lez, itxasoan billatutako imajiña zala esaten zan.

“Ama Birgiñan zulo” lez, Arta azpiko aitzetan, urondoan dagon aitz-arteko zuloan aurkitu zala esaten ekien zarrak.

Ez zan bertan mezarik eskeintzen, baiña asko izaten ei ziran Antigua'rako osteran, aldatzean, nekatuta, bere aurrean errosarioko zatiren bat otoiztuten ekienak, Antigua'ra birikak nasaituta eltzeko asmotan.


SANTA ANA

Gaur Santana baserria dagon orma joten egon zan.

Berriatua'ko lurretan, baiña parrokiiz Ondarroa'koaren menpeko.

Ondarrutarrentzat ba eukan toki orrek bere ezaupidea. Kontu egin, erriko sarreretako ateen izenetan be, “portal de Santa Ana” lez ezagutzen zala sarrera bat.

Leike Peñafloridako kondearen denboretan gaurko etxea egitea eta ermita bere barruan sartu. Beintzat baserri au Konde orren jaubetasuneko izan zan. Arantzibia torrea be, gaur ezagutzen dan baiño zarragoa antxiña oraingo Santana baserriaren inguruan zala esaten da.



Ama Bitartekoa.

BEATAK ETA SERORAK

Orrelaxe deitzen eutsen antxiña ermitetako arduradun eta zaintzaleei.

Batzutan beatak, bestetan serorak.

Ondarroa'ko Santa Klararen kantu zarraren asieran lez: "Bieta" santa Klara...

Origaitik ermitetako etxeei, serotetxeak deitzen eutsen: seroren etxeak.

Etxe oneik, batez be bakartadetako denboretan, zer esan ugari sortu eta ipinten eben.

Ortik etorri zan monjen klausurako etxeak edo konbentuak sortzea, ermita bakarretako lotura kendu eta etxe zabalagoetan batzea.

Ondarroan, dakigunez, santa Kutz'en egon zan serotetxea. Asterrikan be bai.

Antigua'n iru (3) serora edo "beata" egoten ziran.

San Juan'go ospitalean, beste iru.

Santa Klaran bi.....

Eleizak zaindu, garbitu eta abarrez batera, ba ekien egite batzutako lekuko, testigu izaten.

Esateko, Antigua'n, parroki izatea galduta be, ba ekien bateoak eta ezkonzatzak bertan ospatzen . Eta "serorak " testigu.

Eleiz liburuetan tartetan onelakoak agertzen dira:

1.575.- *"Y en este dicho Anno de mil quinientos setenta y cinco, a los quatorce dias del mês de Junio en la Antigua desta dicha villa belé a Domingo de Ibarra piloto y Maria Estibaliz de la Rentería estando presentes por testigos Aparicio de Ayardia y Sancho de Apraiz y las seroras della.*

Ba ekien beste zeregin bat beteten be. Eskutuko umeak....., guraso bakoak, bateatzera eroan beintzat.

Ondarroa'ko Bateotako lenengo liburuan irakurri leiz serorak andik edo emendik ekarritako umeen bateoak.

“Baptizé una criatura de Virriatua, sabe Dios de los padres”.

Beste bat : X. Inglesa. De una señora de Motrico.

Orrela, bata eta bestea, serorak ekarritako umeak.

Aldi bateko serorak euren ermitetako bakartadeko izatea galdu ba eben be, “espirituz” or jarraitzen eben, toki bateko edo besteko “errezatzaille” biurtuta.

Guzurra esatea al da ondarrutar andren zeregiñik premiñazkoena, etxeko biarrak lagata, eta askotan eurak be egin barik, errezatea izaten zala, ez bakarririk, aldretan baiño, eta erritik kanpora be ingurutako ermitetara joan, errezaten, Gardotza nai Idurre'ko Ama Birgiñari ikertaldiak egiten?

Ondarroan, lengo denboretan, meza edo eleizkizuna amaituagaz batera, famili bakoitzaren illobi (sepultura) ingurutan aldretan batu eta abots garbian zenbat “paternoster” errezatu ete zituen orrelako andrak?

JAIK ETA ESAERAK

Jai askok euren esaera berezia eukiten dabe. Bai eta bestelako gertaera batzuk.

Zabal diran batzuk agertuko doguz:

Urte barri

Urte barri barri
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
emon bear sarri.

San Anton I-17.-

San Anton
besigua al monton.

Kandelario II-2.-

Andrak andra andi
kandelarioetan dira agiri.

San Blas II-3.-

Batek ur-zintzezin, edo erroxinegin (estornudar)
egiten dabenean, ondarrutarrak San Blas! esaten dabe.

Santa Ageda II-5.-

Besperan esaten da:
Santa Ageda, Santa Ageda,
biar da Santa Ageda.

Andra Mari III-25.-

Andra Mari Martiko,
neguari emon ostiko.

San Jose III-19.-

Lenengo agertzen diran zelaietako lore oriei,
“san Jose lorak” deitzen dautse eta batu ala jan egiten dira.

Txingorra jasuten danean, “San Jose’ren konpitak” esaten dautse. (Confites)

San Gregorio V-9.-

San Gregorixo,

	belarriko miñak kentzeko eroan botella bete orixo.
San Juan VI-24.-	San Juan, nekez etorri ta arin jua.
San Pedro VI-29.-	San Pedro, gizonak ardaa edateko.
Madalena VII-22.-	Madalen Arantzeiko odol zikiñak garbitzeko.
Santiago VII-25.-	Santixa, gizonak baiño andrak ordixa.
Santa Ana VII-26.-	Sikatu plana querida santa Ana, sikatu papel querido san Migel.
San Roke VIII-16.-	San Roke (ardaua) edango leuke nork emon ba leuke.
Andra Mari IX-8.-	Andra Mari Gardotzakoari bezperak kantatu orduko, artu jakea leporako.
Kurutzeko eguna IX-14.-	Santa Kutz udak egin dau putz.
Santa Teresa X-15.-	Teresa Teresa esnia edatera Santa Kutz mendiko zelaira.
Domu Santuru XI-1.-	Arima pielak kandela argitan.
Santa Katalina XI-25.-	Santa Katalina noiz da, besigutarako goiz da.
Santa Barbara XII-3.-	Santa Barbara, santa Kutz, Jauna balia zakiguz.
Natibitate XII-25.-	Natibitate ase ta bete.
San Esteban XII-26.-	San Estebantxe, beti len letxe.
Iñuzenteak XII-28.-	Iñuzentien ogia, Jauna, miserikordia.

	Iñuzente potente. Bixar san Bixente.

Iñuzente potente
txakurak buztana tente.

San Silvestre XII-31.-

Urtearen azkenean beti san Silbestre.

San Txilibristo,
besigua ezpanetik dindilizka.

JAI ALDAKORRAK

Auts eguna

Auts eguna, lapak jateko eguna.

Aratuzteak

Aratuzteak, fotezko torradak jateko eguna.

(Kandelario egunez, aiezko torradak jaten dira)

Pasku-eguna

Pasku,

antxobia laster asiko jaku.

Asentzio

Asentsino,

lenengo berrogei kredo ta mezia gero.

Maiatza

Etorriko da Maiatza

jango doguna lebatza.

Etor-egun

(Pentekostes) astelena.

Oletan,

neskatillak olgetan

OITURAZKO BESTE ESAERA BATZUK

Eguraldi laño buztiari, sirimiri antzekoari,

antxoa denporaldian ba da, **antxoa edurra** deitzen jaku,

atun denporaldian ba da, **atun bitsa**.

Arimen eguna, arimapilen eguna deitzen da.

Norbait zorongo dabilenean, “txilin-txilin eroango zaitue” esaten jaku.

Txilin-txilin ume txikiak eta zentzu-bakoak obiratzen dira.

Umeak lorik ezinn dabenean: Leokadi etorriko jatsu. (Leokadi deitzen dautse eleizako kortzelian dagozan “mamuetako” bateri.

Ume bat loari eutsi ezinda dagonean: Marixe Beikaneko dator Arrigorriin bueltan.

Jaiotzetan : Gizonezkoa jaioten ba da, **antxoa txikia** ekarri dabela esaten da. Andrazkoa ba da, **mielgia**

Ondarru ta Mutriku idiak idia arkitu.

Bat argala ba da: Luzi ta flaku

Kosme gizaju, gogoratzen jaku, edo beragaitik esan.

Mutrikuarrei destaiña: Mutriku txabillu erreberu, katillu bete salda beru.

Mutrikuarrak bardin esaten dautse ondarrutarrei, erriaren izena aldatuta.

Baserritarrei irrika: Baserritarra tirri-tarra,
jo popan da errekarra.

Mutillak alkarri Asarratzen ziranean:
Pobri, zeruko lori,
aberatsa, inpernuko lebatza.

Zemaietan Norbaitzuk alkarri zemaika ibiltzen diranetan, eta joko dabela agindu, erantzuten da:

- Joten ba zaitut gero, ia....
- Ia, Bedaru baiño arutzago Ia.

Ezin ikusia. Norbaitek askoren ezin-ikusia daukala igarten danean,
“antxo txikiak baiño kontrario geiago” daukazala, esaten da.

Patxi kontra Beti aurka dabillan bateri, Ondarroa'n “okerretako panela”
esaten dautse.

Eta ziurtasun barik, nora jo ez dakian bateri, “algareteko lemakani”

OITURAK

Ondarroa'ko oiturak, geienak, eleiz jaietatik datoz, edo arein inguruan erabilten dira.

Urte-barri.– Umeez aldretan edo banaka be bai kalean kantari ibiltzen ziran:
Urte barri barri,
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
emon bear sarri.

Errege eguna.– Erregetako kantuak ainbat dira. Batzuk ingurutakoen bar-diñak.

Besperan kantaten ziran, etxerik etxe, aurrez baimen ordez, “Ave-Maria, kanta ala erreza” itanduz, atea jo ondoren. Etxean il-barririk edo gaixorik ba egoan, errezateko agintzen eben, eta orduan abestu ordez, Aita gure bat errezaten zan. Bestela abestu, eskupekoa emon arte.

Errege eguneko eguerdian, txistulariak “gizon ondraduen” atadietan jotzen eben, eskupeko billa.

Kandelario.– Kandelak bedeinkatzen ziran eleizan. Etxe guztietan euki nai izaten zituen urtean bedeinkatutako kandelak, “okasiñoren” bat gertatzen ba zan be.

Etxeetan aiezko torradak jateko oitura egoten zan.

San Blas.– Erroska eta janarien bedeinkatzea eleizan. Eurekaz batean, aria eroaten zan. Gero ari ori etxeko guztiak ipintzen eben bakoitzaren saman, katarrik ez batzeko. Bederatzi egunetan euki bear izaten zan. “San Blas'eko aria” deitzen eutsen.

Santa Ageda.– Besperan, santa-eskaleak ibiltzen ziran kalez-kale, kantari.

Aratuzteak.– Atuzteak, karnabalak.

Etxeetan fotaz (ogi arolez) egindako torradak jateko oitura egoan.

Santa Ageda egunean lez, kuadrillak ibilten ziran eskean, kantari, janaldien bat egiteko.

Txalupa jaubeak diru apurra emoten ekien egun oneitan, urteko txalupa garbiketa eta pintaketa ordez.

Auts eguna.–Lapak jateko eguna.

Eleizak auts artzea.

Egun onetan asi eta Pasku eguerdiraiño txistu eta musika soiñiak eta dantzaldiak galerazota egoten ziran.

Erramu igandea.– Eriñotz bedeinkatzea.

Eriñotz adarrekin kurutza txikiak egin eta txalopetako tximinetan edo toki ikusgarri baten ipinten ziran. Bai etxeetako atadietan be. Orrez gainera eriñotz bedeinkatua gorde egiten zan, okasiñorik gertatu ezkeror ur bedeinkatua zabal-tzeko.

Aste santua.– Aste santuan ibildeunak egiten ziran. Eta bertan erabilten ziran San Juan Ebangelariari (San Juntxu deitzen dautse errian) eta Doloretako Amari, euren kapaetan orratzak eta zintak ipinten eutsezan, gero “bedeinkatuta gelditzen ziran orrek” arrantzarako sareei ipinteko.

Kristo eta Apostoluak gizon biziekaz iruditzen ziran, bai eta Madalena, Jerusalemgo Alabak, Beronika, Zirineo eta abar. Eta lau “palaziro” be jazten ziran (**palaciegos** nunbait). Bariku santu goizean “apostoluak” ortozik igoten ziran Santa Kutz eleizara.

Egun oneitan, kaleetan, erroska saltzailleak egoten dira.

Pasku eguna.– Pasku goizean, Gloria abestutean, portuko bapore guztiak euren txistuak eta turrinak jotzen zituen.

Trinidad eguna.– Antigua'n egoten zan meza nausia.

San Juan.– Bezperan, suak.

Kaleak alkarri zemaia ibiltzen dira, antzerako kantu bat, kale bakoitzak bere izena eta besteena aldatuz:

Bat eta bi, Kalandixak irabazi,
iru eta lau, Kanttopek galdu dau.....

Goizean, lore bedeinkatzea San Juan ermitan. Lore orreik balkoietan ipinten dira, trumoi bedarra tartean dabela, orrelako ekaitzak lan txarrik egin ez dagian.

Egunez, Gorozika auzoan ospatuten da jaia. Illuntzean, ango erromesak jaistean, Zaldu bidean asi eta erriko plazaraino, dantza eta aurreku antzerako ibilladia egiten da.

San Pedro.–Arrantzialien aginduko meza nagusia, erdiko aldare nagusian barik santu orren aldara aurrean.

San Pedro txiki.– Atunetara urten aurreko jaia ospatuten zan. Orain ez

da egun oneri itxaroten, baiña len oiturazko zan egun ori igaro ondoren urtea.

“Saliña-Saliña” deitzen dan kantua dantzatuten da kalez-kale.

Saliñetatik etorriko da
gure eskola maixua,
ai Saliña, Saliña, Saliña,
ai Saliña maixua!

Santiago.— Santa Klara ‘ren ermitan meza nausia eta erromeria.

San Iñazio.— 1.801 urte ezkeroztik, jai aundi.

Meza nagusi ostean, Likona torre aurrera joaten ziran agintariak, eta Musika Taldeak konziertu bat emoten eban.

Gabean, Iñaki deuna kalean jotzen ziran dantzarakuak.

Atuntsu denporan.— Gizonen oroitzan erriko mariñel andrak inguruko kapilletan batzen ziran, arratsaldetan, errosariaua esaten. Alaxe egiten eben Idurre, Gardotza, Aita-Piedade, San Juan eta beste ermitetan.

Santa Klara.— Bieta Santa Clara,

euskeraz argia,

zeu zara zeruetan

dontzella garbia.(Antxiñakoa) izar bat garbia.

Erderaz zara Klara,

euskeraz Argia,

zeu zara zeruetan

(Arrese Beitia’k orraztua)

Bezperan konpletak abestuten ziran ermitan, eta egunean egun guztiko jaia ospatuten zan bertan, iru abadeko meza nagusi ta guzti. Armoniuma Antiguako eleizatik eroaten eben burdian.

Andra Mari.— Arrantzaleak atunetatik jaiak igarotera etorten ziran.

Antxiña Antigua’n bertan egiten ei zan egun guztiko jaia, Kofradiaren kontura txal bat il eta janak bertan egiñaz. Baiña ori galerazo egin ei eben. Geroztik erriko jaiak ospatuten dira egun oneitan. Arrantzale eguna deitzen dana, azken gerra ezkeroz ipinia da.

Antxoa sasoi amaitueran dendetako zorrak ordaintzen ziran lez, egun oneitan be ekarten zan diru apurragaz, atun—diruagaz, kitzatze batzuk egin al izaten ziran.

Irailleko Andra Mari.— Andra Mari Arrate’ko edo Gardotza’ko izenez eza gutzen da. Erriko bigarren jaiak ospatuten ziran. Oraintsu kenduak dira, arrantzaleak jaietara etorri nai eta sasoi oneko egun asko galtzen zituelako eurakaitik.

Santa Teresa.— Urrillak 15. Ba dago ume kanta bat,

Teresa Teresa

esnea edatera

Santa Kutz mendiko

zelaira.

Alaz eta meza abestua, Santa Kutz ermitan (mendian) ez da egoten, Antigua’ko ermitan baiño.

Domu-Santuru.— Santu guztien eguna.

“Arima-pilen” oroitzako egun itzalak izaten ziran egun au eta biaramona.

Santa Barbara.— Abenduak 4. Baporak asi ziranean, “makinista-fogone-ruak” bear izaten ziran eurretan eta oneik Santa Barbara artu eben zaindari. Ortik egun onetan santa orren irudi aurrean Antiguan eskeintzen dan meza.

Sortzez garbi.— “Kontseziño eguna”. Neskatillak zigarro puroak eskintzen eutsezan euren begiko mutillei.

Txistulariak be “neskatillen” atadietan tanboliña jotzen eben eguerdi ostean, eskupekoak batzen.

Gabonak.— Gabon gabeen, gabon-kantak abestuten zituen mutil eta neska taldeak, etxerik-etxe, aurrez “Ave Maria, kanta ala erreza” esanez. Gaixo edo illik gertatu ezik, kantatzeko agintzen eben barrutik eta alaxe ekin, eskupekoa agertu arte.

Inuzente eguna.— Guzuz eta antzerako ziriak sartu baiño, geiago egiten zan aza-muskarrak soka bategaz lotu, egal baten amua ebalatzen, eta kalean ikusten ziraneu amu ori jantzietatik sartu eta irrika astea:

Eup! Inuzente!
Inuzente potente,
bixar San Bixente.

Gabon zar.— Gabeko amabiak joteko zain egoten ziran txalupa-jaubeak eta arduradunak. Orduan erabilten ziran arizko sareak eskegiteko toki asko bear izaten zan, eta egun onetan urte guztirako toki-eskubidea artzen zan. Origaitik, toki egokietan gertu egoten ziran gizonak, eta amabiak jotzen asi orduko, estakak sartzen asi, eurak begiz jota eukien tokian. Orrela urte guztirako agak an sartzeko eta sareak legortzeko tokia eukiteko eskubidearen jaube egiten ziran, ezer ordaindu barik. Molla egalak edo erreka ondoko tokiak izaten ziran orrela aukeratzen ziranak.

Kanpaiak.— Meza edo eleiz jaietatik kanpora, iru bidar jotzen ziran “Ave-Maritakuak”. Goizeko bost eta erdietan (albakua), eguerdian eta illuntzean. Orrez gaiñera “Arimenak” deitzen ziranak jotzen ziran egunero. Oneik “Kurutzekotik Kurutzekora aldatzen ziran. Au da, Maiatzaren iruan asten ziran gabeko bederatzietan jotzen, eta Irailla’ren 14’an (Kurutzeko eguna) amaitu. Ortik kanporako denporan gabeko zortziretan jotzen ziran.

Onek ba eukan bere zerikusia, dantzaz orduak eta gazteak etxeratzeko orduak eta abar, “arimenen” kanpaiagaz neurtuta ibiltzen ziralako.

Eriotza.— Gaixoaldietan eta eriotzetan, kanpaiak laster iragarten dabe zein negaitik jotzen diarduen.

Emakumearen ezaugarria, eleizakoan edo illetako kanpaien ondoren, bi-koitz bat jotea izaten da. Gizonezkoena danean, iru.

Eleizakoak ziranean, kanpai bakarragaz sei dangada jotzen ziran eta gero gizona edo emakumea zan ezaugarria.

Illetak diranean, kanpai “doblekoekin” igarten da. Dobleko bi andrentzat eta iru gizonentzat. Abadeak diranean, bost.

Umeen illeta barriz, “txilin-txilin”egaz, kanpai txikiagaz iragarten da.

II kutxak.– Gaur danentzako bardiñak erabilten dira, baina oraintsurarte, kolore ezbardiña ipinten zan:

Gizon edo andra ezkonduer, kutxa baltza.


Mutil edo neskatilla, kutxa urdiña.

Ume eta “iñuzentiei” kutxa zuria.

Illetak.– Oraintsurarte lepoz eroaten ziran illak eleizpera. Lenengo kurutzeta eta abadeak, gero ilkutxa, ondoren andrazko bat edo bi, bakoitzak kandela bi eroaten, eta gero etxeoak, banan-banan, zarrenetatik gazteenetarako erreskadan, eta senitarteko ordena zainduz, eta gero gizonak. Eta azkenean andrak. Etxeko andrazkoak, danen atzetik joaten ziran.

Bataioak.– Umea jaio eta laster bataiatzeko oitura egon da Ondarroan. Ume eroantzaillea eta aita besutakoak baiño ez ziran joaten. Eta bolo-boloa egiten zan denporak egon ziran.

Bataio ondoren, umearen ama umeagaz joaten zan, osatu ta laster, “eleizan sartzera”. Ori egiñarte kalera be ez eben urteten.



Gorozik'ko San Juan.



Asterrika'ko San Lorentzo.

ARTXIBOAK

Erriko artxiboak eta eleizakoak, au da udalekoak eta parrokoak. batzuk Bilbao'n eta beste batzuk Derion dagoz.

Bilbao'n 1.993 urtean eroanda, gizaldi onetakoak bakarrik errian itxi eta beste guztiak ara. Beraz liburu au agertzen dan urtean, eskuartean darabillez erriko liburuak sailkatu eta itxuratzen eta zaleentzako erraz eskuratzeko eran ipinten.

Jakiña da urtean, udaletxean su egon zanean, bertako liburu zarrak bus-tialdi gogorra eroan ebela eta batzuk galdu be bai.

Gernika'ko Batzar Etxean egoan Ondarroari buruzko beste sail bat, batez be erroltze, erri lan eta abarrei buruzkoak, esandako Bilboko artxibora eroanda dagoz, eta gaur Gernikako artxibategi orretan geratzen diranak, "Consejo de Provincia", propios y arbitrios", "Culto y clero" eta antzeko sailletako paperak dira eta gaiñera gitxi.

Orrelakoen artean auzi bat dago, Domingo Agirre erriko bizilagun eta arrantzaleak, 1.810ko Maiatzaren 14'an Lekeitio'n egozan frantzetar gudari batzuk errira etorri eta erriko tabernetan eta etxeetan eurak bear eben aiña edaririk ez egoalako, berari zema eta indarkeriz salgai eukazan amabi upel sagardauagaz beteak kendu eutsezala ezer ordaindu barik, eta gerrako gertaera lez erriak ordaintzeko alegiñetan erabili eban auzia.

Udalean geratzen diranak gizaldi oneri buruzkoak dira.

Parrokoak Derio'ko Eleiz Barrutiko Parrokietako Artxibora eroanda dagoz. An, eskuz erabiltea gaitz edo kaltegarri izan leikezanak, filmatuta dagoz.

Parroko liburuak 1.550 urtean asita dagoz, Bateatu, Ezkondu eta Illeneta-tik asita.

Orrelako lenengo bilduma 1.550 asia da.

Artxibo aretan aurkitzen dira Bateatu eta Sendotza artutako 1.884 urte artekoak.

Ezkonduenak, 1.908 arterartekoak.

Illenak, 1.922 urte artekoak.

Orrez gain beste liburu oneik:

* Parrokiko ardura edo "fabrika" deiturakoenak, 1.800-1.843 urte bitartekoak.

* Ermitak. "Santa Kutz" . 1.704-1.903.

* Doloretako Amaren aldareko kontuak. 1.880-1.939.

* "Maiatzeko lorak" 1.870-ko Maiatzaren 1-ean asi eta 1.936 arteko uka-
rrak (limosnak).

* "Mariaren alabak". Kontuak. 1.883-1.925 bitartekoak.

* " " " " .Batzar agiriak. 1.904-1.967

* "Sortzeak" (Fundaziñoiak) 1.905-1.929.

* "Garro'ren lan onak" (Obras Pias Varias. Garro)

1.619-1.677

1.619-1.630

1.631-1.636

1.635

1.643-1.746

1.677-1.761

1.761-1.855 (Banaketak)

* "Urteurrenei buruzkoak" 1.799-1.828

* "Erroltzea" (Matrikula) 1.789-1.828

* " " " " 1.905

* " " " " 1.965

* "Liturji eta lege oneko jardunaldiak" 1.878-1.906

* " " " " " " 1.906-1.939

* "Mezaen egunerokoa eta gizaki baten kontuak" 1.866-1.880

* "Arauk" 1.722-1.723

* Kontuak. Urteurrenak, amarrenak ordaintzen dituen etxeak":

1.619-1.750

* Urteurrenak, zentzoak, "Arriola" (Mari Ana Arriola) deiturako kapillautza. 1.613-1.899.

* "Arriola" Kapillautza eta Bikaritzako Batzordea.

1.645-1.856

1.760-1.880

Beraz, Bateatuen, Ezkonduen, Illen eta abarren jakingarriak, esandako urteak kenduta, geroagokoak dira errian geratzen diranak.

ELEIZARENTZAKO AMARRENAK

Eleiz bizitzarako amarrenak eta “primiziak”, lenenkiñak, ez ziran ugari, sasoi baten itxasoetatik bale-mingain eta arrain batzuen irabaziak lagaten ba jakozan be.

Eleiz-barrutiko menpean egozan lurretatik, berari eskintzen jakozan igali edo frutuak oneik ziran:

	Gari anegak	Arto otzarak	Mosto barrikak
Eleizarako	60 1/2	122	35 eta iru azunbre
Bikarioarentzat	12	28	13 eta azunbre bat
“Benefiziaduentzat”	20	35	12 1/2
Sakristauarentzat	6 1/2	14	3 eta azunbre bat
Mairdomurako	4 1/2	5 1/2	10
Bederatzigarrentzat	6 3/4	14	4 eta iru azunbre

Orrez gaiñera, eriotza baten ondoren, bere etxeoak, “mankala” jaso arte” parrokiagaz eskintza edo ofrendako beartasuna eukiten eben.

Oraintsutan dirua eskiñi izan dan legez, sasoi aretan ogia eskintzen, eroaten zan. Askotan bikarioak ez eben jakiten ogi ori gero zelan banandu, nai ta eleizarentzat eskiñi, gero eurak erriari zabaltzen eutselako ogirik geiena. Alaxe, alde baten, beartsu asko egozalako errian konpromisurik ez artezagaitik, bal-koitik zabaltzen ei eben parrokoak ogi ori, eta meza ostean, ogi-eskabidez, asarreak be egoten ei ziran.

1.828 urtean laguntzen ebenen izenak batuta daukadaz eta ondoren duazen orrietan irakurri leikez euren izenak. Eleiz-laguntzatik gaiñera, sasoi aretan Ondarroan bizi ziranen eta orduko etxeen izenak, eta abar, beti izaten dira jakingarri olako zertzeladetatik, etxe bakoitzaren jaubetasuna be bertatik artu eta ikasi leikelako.

Garia, artua eta txakoliña ziran eskintzen ziran frutuak. Garia eta artua, zar eta barri lez izentatuta egozan edo orrela bereizten ziran eskintzerakoan.

Ikusi emoleak eta emonak:

ONDARROA'KO ELEIZ NAGUSIAREN AMARRENAK 1.828 URTEAN.

Kalearrak	GARIA				ARTUA				TXAKOLIÑA	
	Zarra Kuartak	Kuarta txikia	Barria Kuartak	Kuarta txikia	Zarra Otzara	Otzara laurden	Barria Otzara	Otzara laurden	Azunbre	Kuartilloak
Jose Zubicaray			1	1			1			
M ^a Teresa Arechabaleta				1						
Pedro Iturrino	2				2					
Fernando Gandiaga	1	2		3	2	1				
Manuel Ig. Azpiazu			5			3			13	
Lorenzo Echano	1	2							30	
Martin Balzola	2	2	1	3					40	
Lorenzo Bereicua	2	1			1					
Miguel Badiola	3	2	1	3	2					
Antonio Ibaseta	1				1					
Sebastian Arrasate	2	11/2	2	11/2	1				87	
Jose Arriola	1		3	2						
Juan Bta Sustaeta	3	3			3					1
Jose C. Ibarloza	1									
Agustin Aristondo										
Domingo Ibaibarriaga									60	
Francisco Urquidi	3									
Micaela Ant. Badiola	2								12	
Geronimo Unanue		2			3	3			5	
Ignacio Urresti	1			1	2					
Martin Solabarrieta	2				1				14	
Jose Burgoa	1	1								
Miguel Arrizabalaga	1	3			3				4	3
Ramon Osa	1		2		1	1	1	1	20	
Jose Arrate			4	1			1	1		
Ana M ^a Meabe	2	1			1	1			30	
Manuel Pagoaga			1	1			1		27	2
Jose Mugartegui	1	1	2				1	1	66	
Lorenzo Aranbarri				11/2						
Juan Pagate			2	1						
Jacinto Landaburu	3									
Manuel Guenaga	3	2			3				26	3
Cosme Badiola			2				1			
Bautista Badiola	6				1			1	88	
Domingo Alcorta	2					2				
Jose Ant. Aguirre	3	2			1	2			23	
Domingo Azpiazu		2	1	1		1				
Francisco Azpiri			1	2			4		21	
Pedro Azpiazu	4									
Prudencio Bicandi	2	3			1	2		1		
Santiago Oñaederra			4	1			3	1	24	
Francisco Azpiri	4			2			1			
Pedro Pagoaga	2					2			27	2
Francisco Guelalsoro	11	3							80	
Antonio Arrizabalaga					1	2				
Pedro Aulestiarte	2		2	2						

	GARIA				ARTUA				TXAKOLIÑA	
	Zarra		Barria		Zarra		Barria		Azunbre	Kuartilloak
	Kuartak	Kuarta txikia	Kuartak	Kuarta txikia	Otzara	Otzara laurden	Otzara	Otzara laurden		
Kaletarrak										
Jose Andres Madariaga	2				4					
Bernardo Badiola	1									
Ignacio Zubizaray	10				4		1		83	3
Francisco Basterrechea	3	1			3			1	90	11/2
Juan Azpillaga		3						3		
Antonio Badiola	2			1	2					
Jose Pagate				2						
Jose Ansola			2				1	2		
Ventura Muguerza	2				1				5	
Felix Usobiaga	1	2							40	
Juan Guenaga			10				5	2		
Candido Jose Lezea			1	2				1	20	3
Jose Badiola										
Antonio Garramiola								2	10	
Martin Badiola					2	1	2			
Juan Jose Echebarria					1	1				
Santiago Eizaguirre							1	2	21	2
Martin Elu						1				
Domingo Azpiazu						1				
Domingo Aguirre							1	2		
Felipe Echaburu									7	
Ignacio Arrizabalaga						1				
Domingo Ibaseta						2				
Manuel Ignacio Icaran						2				
Gabriel Echano						1				
Pedro Aranzamendi					1	1				
Pedro Vicente Azpiazu								3		
Domingo Garramiola						2		2		
Diego Iriondo					1					
Ramona Pagoaga						1			3	
Ambrosio Alegria							1			
Juan Miguel Arregui								2		
Mª Josefa Echebarriagaray							1			
Tomas Elu					1	2				
Pedro Urquiola						1				
Andres Laca							1			
Juan Bta Mendibelzua									50	9
Manuel Antonio Urquiaga									15	
Francisco Aranzamendi									30	
Gabriela Josefa Lecue									36	
Mª Vicenta Bengoechea									30	
Florentino Ostolaza									36	
Mª Antonia Arriola									1	
Paula Goitia									70	3
Jose Ignacio Eguiguren									15	
Ana Mª Echebarria									4	

ONDARROA'KO ELEIZ NAGUSIAREN AMARRENAK 1.828 URTEAN.

	GARIA				ARTUA				TXAKOLIÑA	
	Zarra		Barria		Zarra		Barria		Azunbre	Kuartilloak
	Kuartak	Kuarta txikia	Kuartak	Kuarta txikia	Otzara laurden	Otzara laurden	Otzara laurden	Otzara laurden		
GOROZIKA'auzokoenak										
Lorenzo Urruzuno-Iramategi	6		6		3	3	4			
Ignacio Elistondo-Iramategi zarra	12			2	10	3				
Jose Lorenzo Gandiaga-Atxondo			13	3			5	2		
Pedro Ireta- Allendezabal			7				3			
Andres Bikandi- Ubilla	4	1	11		9		1			
Antonio Lezaola-Alfonsokua	14				9		3			
Andres Anchustegui-Beascoa	9				4					
Miguel Anchustegui-Beascoa subdono	7				5					
Miguel de Echea-Ansorena	12		4		7		1	2		
Manuel de Bikandi- id.	7		5	2	8					
Jose de Elustondo-Seroteche	5				3		1			
Santiago Abaroa-Basterreche	11				4		1			
Agustin Abaroa- id.	8		2	2	7					
Jose Elu- Munabe			9	2			9			
Santiago Eizaguirre-Zalduburu									9	
Jose Gandiaga- Baraicoa	14				7					
Cosme Gandiaga- id.	12		2		5		2			
Ignacio Anchustegui-Santa Cruz	6				1					
Francisco Iramategui-Burgoa	19				5		4		35	
Bautista Esnaola- Akilla		9					4	2		
Antonio Lezaola- Ichusquidi			4				1	2		
EIZMENDI Auzokoenak										
Juan Bta. Olabarria- Olabe	8		2		5					
Jose Antonio Bereicoa-Arguingoa	10				7					
Jose Anchustegui-Eizmendizabal	10		1	2	5	1				
Jose Arana- id.	8	2	1	2	4	2				
ERRENDERI Auzokoenak										
Esteban Aranzamendi-Kamiñaga	4	2	8	1	3		6			
Jose Urcalegui-Andicoetxe										
Francisco Aguirre-Anchikoa	4		1	2	5					
Ignacio Arrizabalaga-Belchiorrenkua					5		1			
Ramon Alegria- Patrokua	12				9					
Fco. Xabier Idiaquez-Kitarra	6	1	8	1	4	3	5	3		

ERRENDERI Auzokoenak	GARIA				ARTUA				TXAKOLINA	
	Zarra		Barria		Zarra		Barria		Azunbre	Kuartilloak
	Kuartak	Kuarta txikia	Kuartak	Kuarta txikia	Otzara	Otzara laurden	Otzara	Otzara laurden		
Jose Dgo. Eizaguirre-Pagate	1		7		2	1	2	1		
Juan Bta. Iturrino-Goitia	12	2	1	2	8		1	3		
Domingo Arrizabalaga-Santa Ana	6		1	2	5					
Tomas Idueta- Ibarguen	16									
Francisco Urresti- Alliri (Casa escusada)										
Vicente Arrizabalga-Saroe			10	2			6			
Jose Ant. Achurra- Goitiniz	4	1	4	1	2	2	1	2		
Pedro Badiola- Zaldua	10				5					
ASTERRIKA Auzokoenak										
Lorenzo A. Badiola- Arteta			20				8		36	
Francisco Guenaga- Ikaita	10	2	11	2	4	1	6			
Pedro Jose Juaristi-Zezermendia	15				6		1			
Bernardo Aranbarri-Arriaga	11		6		6	2	2			
Domingo Guenaga-Ikatza			11	2	7					
Jose Andres Arrasate-Urquiaga	15	2	3	2	6					
Jose Alcorta- Alipasolo	11		5		4	1	2	2		
Domingo Basterrechea-Becoeche	3				1					
Jose Elordi- Asterrikakoa	11		1	2	2					
Nicolas Arrate- Alekoa (Casa cural)										
Jose Ignacio Usobiaga-Celaicoa	2	1	6	2	2	1				
Josefa Goiogana-Goicoeche	7				2	1				
Pedro Amesti-Errementarikoa	6	2	1	1	1	1				
Pedro Alegria- Orueta	9		1		8					
Galtzuaran			17		6					
Oruetabarri										
Jose Uberuaga- Echechu	1					3				
Juan Urquiiza- Auliquiz										



Edificio del Hotel de la Bahía

19 — ONDARROA - Calle de la Ribera

III - ITXAS GIRO



Itxasoai begira.

ITXASOARI BEGIRA

Itxasoari begira bizi izan da Euskalerria.

Ez oraintsutik. Ez itxasoaren bideak eta sakonak ezagutu ta erraztu diranetik.

Urtez urte jo, gizaldietan atzeratu, zaartu, ta itxasoari begirako mugarik ez da aurkitzen.

Erririk nagusienak, aberatsenak, Baiona, Donosti ta Bilbo, itxasoari musuka bizi dira; itxas ondarra dabe zimendu.

Itxasoaren ondoa ta sakona,

itxasoaren kresala ta gatza,

itxasoaren oroldi ta bitsa,

itxasoaren garra ta negarra....

edozein erri ta ertzetan igarri, sentidu edo biziten dira.

Gure lur txikia, gure amalurra baiño zabalagoa dan itxasoak, nai ta ez indar egin bear euskaldunen giroan; nai ta ez tximurtu bear euskal gorputzen azala.

Itxasoaren kantari ugari ezagutzen doguz, berari begira, biotz eta gogoa nasaitu nairik. Itxasoak, olatuak ondar egaletan antzera, bultz eta ten egiten dau sa gizonari.

....."Oi , itsaso zabalaren zabala!

Leihorretik maiz nindagon ezin ase z hari so,
maiz nindagon, amets zoro z irakiten odola...."

(Iratzeder)

Itxasoa, euskaldunak, ez dau sekula ikusi ta artu atsegin leku lez. Ezin olakorik. "Kalma zuri" tako itxasoa baiño geiago ezagutu izan dau "aize berde" edo "ipar baltzez". Sarriago orruka, "bare-bare" baiño.

Kantari zaar batek, Joannes Etcheverri'k, 1.627 garren urtean , kantu erru-

kitsu ta mingarrietan agertzen dau euskal itxastarraren jokera, baletako bizitzeari buruzko bertso zaarretan:

"Biciaren gatik dugu hirriscatsen bicia...."

Bizia irriskatzen! Egi gordiña. Ez bakarrik arrantzan, itxasoaren aberastasuak sakonduten. Ala baita itxas komertzioan, euskal lurraren igaliak eta burni zokillak zabaltzen.

Itxasoaren bidea luzea bezin zabala da. Leorrian, tokiak toki ezagun izaten dira. Ara edo besteko artara joaten da. Neurria dago. Muga. Itxasoan, orde, galdu egiten dira lekuak.

Euskal arrantzaleak ba daki itz gitxitan luze be luze botaten:

– Nora zoaze?

– At'ako bandan.

Esatea lez: itxaso zabalaren zabalera. Arrantzialien mundu sakonera. At'ako bandan. Izenik gabeko lekura. Itxaso itxaso dan tokira.

Ez da ori gaurkoa. Ez da aurrerakuntzetatik datorren ausarpen eta ziurtasunaren ondorena.

..... "Pensar que en Terranova
Barachoa, Operportu y Aguchar señalaron
con ley de nombres vascos, surgideros seguros!....."
(Gabriel Celaya)

Edo,

"Euskaldunak, baleai jaten emon nairik, espainar Finisterre igaro eben antxiñetan, eta konpasa ta itxas orratza ezagutu ondoren, Terranobaraiño joan ziran, eta itxuraz, XV garren gizaldian, Islandia be ikutu ta jo eben". (I. Aldekoa)

....."en el mar de Vizcaya, que ora se desenfrena
con la negrura oleosa de la antigua ballena,
perseguida hasta Islandia por el recio arponero
de la boina calada y el braceral de cuero."
(Leopoldo Lugones)

"... les cotes de Groeland ayant insensiblement rebuté les Basques, ils allerent vers l'isle de Finlande...." (Dictionnaire raisonné)

Eta itxas zabalean, "at'ako bandan", erbestetarren "nord vall", euskaldunentzat "sardako balea" zan. Askorentzat (Gray, Benedèn, Reinhart eta abar) gizaldi luzetan ba egoan "balaena biscayensis", edo besteentzat, italiarrentzat bereziki, "balaena dei baschi".

Bein doanak ez dau izenik lagaten. Euskaldunak, ikusten danez, ba ziran inor itxasoetan; ba euken nortasun berezi bat.

Bizi-bide oneri esker, nortasun ori gaur be ezaguna da erri askoren ikurdi edo eskudoetan. Ainbat errik itxas-ontziak eta baleak dituez ezaugarri, nortasuna eta duintasuna erakutsi nairik.

Ala Ondarrabi ta Ondarruk.


Ala Getari ta Mutrikuk.

Ala Lekeitio ta Bermeok.

Erri osoak, askotan, itxastar dira. Itxasotik sortu izan da erria.

Ondarrun txakurrak be arrantzale dira, irakurri izan dogu. "En Ondárroa son pescadores hasta los perros" (Constantino Esla)

J. M. Salaverriak diñona "Itxas egalean jaio dan guztia, itxastar kutsuduna dala. "Todo el que ha nacido al borde del mar, es un poco marinero, o es, por decir mejor, un marino infuso."(Guia sentimental del pais Vasco)



Lengo gizaldietan.

ARRANTZALEAK, LENGO GIZALDIETAN

Erdi praille ta erdi gudari, esaten da Erdi Aroko lekaide edo monjeengatik. Euskalerriko arrantzaleak lau alderdi ba zituen:

IBILTARI.– Edonun ezagutzen dira:

Terranoban.

Islandian.

Indietan.

Flandesetan.

Moroen uretan.....

"Ils ont decouvert cent ans avant les navigations de Christophe Colomb, le grand et petit banc des morues, les terres de Terre Neuve, de Capbreton et Baccaleos, le Canada ou Nouvelle France..." (Cleirac)

Eta ez dago iñora joan bearrik.

Ondarroako illeta liburuak arrantzako ibiltarien kontuz beteta dabez euren orriak.

Sari irakurten da:....eta kanpaiak jo ziran Indietatik il barriak etorri zirala-ko.

.... eta kanpaiak jo ziran Flandes'etatik etozala, gaixoa batu ta il ziran barria eldu ta zabaldu zalako.

Edo Portugal'eko urak igaro ezilik, goseak arrakalatu eta gainduta il zirala-ko.

1.625 urteko agiri baten irakurten da: "*En onze de Septiembre se hizo el sentimiento de Ramos de Asterrica, y muriò biniendo de Terranova en la mar, segun dixeran de enfermedad y duró treinta días.*"

ITXAS-LAPUR.—Argi bako gizaldietan, illunpetako ames zoroetan, itxaso galduetako zabalaren zirristadetan, itxasoak abentura andien leku ziran.

Itxas lapur eta korsarioak, alkarren leian, ospe ta entzutea artu eben, edo lotsari ta ondamendia.

Erreskada luzetan aotik aora ibiltzen ziran euren izenak.

Ingalandarren Drake bat bizartsua izan zan, ba ekian barrabillak erakusten; baiña euskaldunak Okendo eta Errekalderen arduraopean zoritxarrrak jo ba zitun be, euki zituen zori obeagoak. Iturriaga, lekeitiarrak, ba ekian nun eta zelan ibilli zeregin onetan, eta bere izena nasaitzallea zan itxas ertzean.

ELIZTAR.—Arriskuak fedea esnatzen daki eta sendotzen.

Bear ba da origaitik izango ziran arrantzaliak ain fedetsu ta eliztar.

Bermeoko legeak, Getariko aginduak, Ondarroako eskintzak, Lekeitioko erabagiak eta beste ainbeste erritakoak, eleizarentzat laguntza oiñarri lez ebela egiñak dira.

Soldata bat Arimentzat.

Soldata bat Eleizarentzat.

Balien gantzak Jaunaren argirako.....

Irabazi zuzenenak nai lapurretakoenak. Sarri emoten ziran lapurretako zidarrak kapilla barriak egiteko. Edo ostutako pitxiak aldarak dotoretzeko.

...." dos barcos procedentes de Ondarroa, que merodeaban las costas de Inglaterra, aprehendieron una nave después de una larga persecución y cañoneo. Se hicieron con todo el cargamento..... En el mismo figuraba un candelabro de cobre de grandes proporciones que los marineros de Ondarroa donaron a su iglesia. "Los Vascos en el mar". (Carlos Claveria).

Beartsu izanik, premiñaz beteta ezagutuarren, ba egoan zerbait estutzen izttuna.

..." de aquí adelante hasta el fin del mundo, los que fueran a pescar a Irlanda o a otras partes, paguen a la Iglesia de Nuestra Señora Santa María de la Atalaya, de todo lo que Dios les diere de cien a uno de lo que pescaren...." (Bermeoko agirietan)

ARRANTZALE.—Itxas ertzeko arraintza txikiak au da, ur meetako arratsuak, ez ziran segurutik ugariak.

Bestera, baletakoa, ur andietakoa, itxas zabal eta luzetakua, itxuraz aberatsagoa zan.

J. Arteche'k, "Mi Guipuzcoa"n bale bakar batek diru asko emon eta erri osoarentzat onurakor zala, esaten dau.

XIII eta XIV garren gizaldietan, bale arrantza edo arrapaketa ta bere olio ta gantzen eta aragien sal-erosketa, erri askoren bizi bide ta mantengarri zan.

Baiña, egia, sinistu bear dana, —ez zan illeta izango—, arrantzale berberak esaten ekiena zan.


Felipe III garrenak, Gipuzkoako Korrejidoreari bertako arraintzari buruzko bizi-bidearen goraberak eskatueran, batzuk gogo onez eta besteak betoskoz erantzun eben. Erri batzutako ordezkariak borondate onez, eta besteak erdia ukoka.

Domingo Ernani'ren erantzuna au izan zan: Arrantzaleak beartsuak dira; ez dira arrotuten, au da, ez dira aberastuten; ortozik eta baldar ibiltzen dira, arraiñik ez dagolako bizi bide nasai, ugari ta ontsua emoteko aiña.

Arrantzako erak ezbarriñak ziran, agiri danez, antxiñako gizaldietan, gaurko antzera.

Ondarruko legedi baten, txalupa andiak, treñneruak eta potiñentzako legeak izentatzen dira. Ala baita Lekeition be.

Bermeoko araudietan, "cofrades pescadores y sardineros" aitatzen da.



Arrantzaluen Kofradia.

ARRANTZALIEN LEGEAK

Euskal arrantzalea ez da euskal baserritarraren kideko legetan.

Baserritarra bakarti agertu izan da. Arrantzalea alkarti.

Bizi modu ezberdiñak dira bata ta bestearenak. Eta bizi-moduko premiñak, antzik gabekoak.

Baserrietan izerdia botako da lan orde, estutasunez baiño ziurrago.

Itxasoetan izerdia botako da ittotasunez, kezkaz, arriskuz, lan orde baiño geiago.

Baserritarrak urrun ikusten dau arriskua. Amesetan. Arrantzaleak, oster, arriskurik ez dau galtzen lotan be.

Baserritarrak, esate baterako, etxean lan egiten dau. Orma lodien aterpean lo. Arrantzalearen etxea ormarik eta geldi egonik ezagutzen ez daben itxaso da.

Ortik, arriskutik, arrantzaleak alkartasuna billatu izan dabe. Eta alkartasunean, gizontasuna.

Alkartasun lege oneik gizaldien gizaldietan galdu egiten dira. Ez dakigu zuzen noiz asi ziran. Izen bat dabe, gaur be gaurko erako izenen orde kendu ezin izan dautsena: Kofradiak.

Amairugarren gizaldian, amabigarrenean ba zirala irakurten da. Ba zirala. Aurreragotik etorriko ziran segurutik.

1.381 urtea aurretik ba egoan Lekeition arrantzalien Kofradia.

Bermeon, 1.353 urteko agirietan, Kofradiaren arauak zeaztasunez batuta billatzen dira. Baiña arau oneik azpaldikoak zirala erakusten da, azpalditik oitura ta lege zirala jakin eraziz:...." de tanto tiempo atrás que memoria de hombres no havia y además de quinientos años antes."

Ondarrabikoak 1.361 urtean batuta irakurten dira.

Garai bardintsuak Ondarrukoak.

Segurutik, garai aretan euskal portuak ingalandarrekin erabili zituen algarra, eztabaida ta burruketan, alkarteak indartzeko batuko ziran; Kofradien nortasuna egunekotuz, aidean ebiltzan lege ta agindu ixillak batu ta barriztuko ziran. Nortasuna artzeko preminetan. Indar billa.

Kofradiarik geienak San Pedro izenekoak dira. Onetan arrantzale zaar bat goratzen dabe. Ondarrukoak Santa Clara dauke zaindaritzat. Arrigarri da gizonezkoak emakume bat zaindaritzat artzea. Zegaitik?

Augaitik mariñelak
dauke guraria,
gaur emon dakizula,
zor yatzun gloria,

kantaten dabe Ondarrun, Santa Clara egunean, kantu eder "gotiko"etan.

Liburuetan irakurten da Ondarroa eta Mutriku artean dagon Santa Kutz mendian fraileen etxea egon zala XV garren gizaldian, Canarias'etara Barri Ona eroateko gertuten ziran fraileena.

Eta Ondarroa'ko Arrantzalien Kofradiak Santa Clara zaindaritzat eukitea ortik datorrela esandakoak ba dagoz, frantziskotar areik Santa Kutz ermitan euken Klara deunaren irudia arrantzaliei ekarri eutselako.

Dana dala ori, esaera bat izan leike, zela-ala geratu dan sinisteen bat, aoz-aozko jakingarri bat. Baiña Aita Santu batek, Sixto IV garrenak, bere 1.484'ko Bula baten konbentu orren adierazpena emoten eban.

Beraz leike esaera a, siniste a, egitsua izatea eta Canarias'etarako gertaten ebiltzan fraileak, Ondarroa'tik Cadiz eta Sevilla aldera joaten ziran itxastar merkatarietakaz artu-emonak eukitea edo ezaupidea besterik ezean.

Noizkoak diran arrantzalien legeak?

Idatziak ba daukez euren zeaztasunak. Baiña geienetan esaten da gizaldien gizaldiz datozen legeak dirala, ez idatziak, bai oituraz zaindu eta beteak. Eta sarri irakurten da bosteun urte baiño aurreragotik datozen legeak dirala, idatziz jartean, noiztik datozen ziurtatu ezin leikien denboretakoak.

ARRANTZALIEN KOFRADIAK

Arrantzalien Kofradiak izan dira Euskalerrian itxastar eta mariñel eta arrantzalien bizitzako ardatza.

Bizitza arriskutsua izan da arrantzaliena, bai itxasoaren giro, indar, eragin eta arrotasunagaitik, bai eta arrantzale berberaren argaltasun, ezerestasan eta makaltasunagaitik, ikasketa eta gertuteko euki izan daben txirotasun eta eza-gueren utsuneagaitik.

Bere bizitza arriskuei salduta eskeiñi izan dau gizaldien gialdietan. Arrisku eta larritasun orreitan, alkar-laguntza, alkarren kidetasuna ezagutu bearrak sortu zitun arrantzalein kofradiak.

Noiz?

Kofradien sortzeari buruz ba dira lenen aldiko eta bigarren aldikotzat bereiztuten dabezanak.

Esateko batzuk uste dabe X garren gizaldia baiño be lenogotik etozala.

Gik, Ondarroa'n ezin orrelakorik esan.

Batetik erria bera, Ondarroa, bere nortasunez ez zalako ezagutu aldi aretan.

Beste batzuk XIV eta XV garren gizaldietan zeaztuten dautse sortzea.

Emen bai asi giñei Ondarroa lekutzen.

Beste batzuk sortzeko urteei begira sailkatzen dabez kofradiak.

Orrela Bermeo 1.353 urtean, Hondarribi 1.361'n, Deba 1.488'an, eta urterik zeaztu barik Lekeitio, Donosti, eta Gaminitz, XV garren gizaldian.

Eta bigarren sail bat dator XVI garren gizaldikoentzat. Or sartzen dira Getaria (XVI), Orio, Ondarroa, Pasai, Motriku.

Eta XVII gizaldiko lez Algorta, Ea, Elantxobe, Mundaka, Santurtzi, Zarautz eta Zumaia.

Baiña ez al da irakurten Kofradi orreitan, araudiak batu eta idaztean ez zala

denbora ori sortzekoa, antxiñatik etozan oituraz, ekanduz eta borondatez erabili eta zaindu zituen arauen idazkera egitekoa baiño?

Ikus Ondarroa'k 1.593 urteko arauen idazkeran lenengo atalean diñona:

“Lenengotik esan eben, Jainko gure Jaunaren serbitsu eta bere Eleiza eta Klara deunaren ermitako Jainkotiar gurtza zabaltzeko, bere izenez eta noiztik ez dakigun denboretatik datorren, eta gaur arte irauten dauan Kofradiaren zaintza, jagote, euste eta anaitasuna indartzeko.....”

Eskribaduaren aurrean agertu eta idatzitako textoan onela esaten da:

“*Primeramente dixeran que para el servicio de Dios nuestro señor y aumento del culto divino y de la iglesia y hermita de Santa Clara y para conservación y guarda e cuidado y hermandad de la dicha cofradia de los navegantes que de ynmemorial tiempo hasta hagora haura hauido y ay en la dicha villa de Hondarroa en nombre de la vienabenturada Santa Clara y para que ella como patrona y abogada de ellos delante nuestro señor Dios les alcance su vien espiritual y temporal para en su santo servicio hordenaban y constituían e ponían por constitución y ordenanza que de aqui hadelante aya de haber y aya como al presente son dos mayordomos de la dicha hermandad y cofradía y para que mexor se guarde ello hagora y siempre todos los capítulos se asienten con papel por escrito y los tales mayordomos sean elexidos en cada un año juntados los mayordomos y los maestros pinazeros y de zabras y navíos que en la dicha villa se hallaren en el ospital de ella, en el día de nuestra señora de marzo antes de comer, tañiendo campana para ello y primero y ante todas las cosas los mayordomos e cofrades de la dicha hermandad y cofradía en la capilla de dicho ospital hagan dezir e se diga una misa de espíritu santo, para que en la dicha elección interbenga su grazia y oyda la dicha por todos los cofrades se hala la dicha elección y sean los tales mayordomos los que mas votos tubieren de los maestros pinazeros y zabras y navios que en esta dicha villa hubiese si de otra manera entre si no pudieren conformarse”*”

Beraz 1.593 urtea, araudiaren idazkera lez artu lei, ez Kofradiaren sortzea lez.

Eta noiztik ez dakigun denporetatik datorren gaur arte irau dauan ori.... orrelako eskribadu aurrean emondako agerpen baten ondoren, gaurko idazleak fedez beterik eta guzurrik esaten ez ekien gure mariñel zarrei sinistu bear.

Orrez gain or dago denbora bereko Aita Santuaren idatzia, ondarrutar arrantzaliei urteetako nortasun eta duintasuna emoten eta euren laguntza eza-gutzen itxas gainean egoan euren izeneko ermitarentzako arrantsuen zati bat emoten ebelako.

Eta erakunde lez or dagoz 1.353 urtean Hondarribian egindako ituna eta abar. Or baita Lekeitio eta Ondarroak 1.560 urtean egin eben itun edo konponketa, arrantzarako tokiak mugatzeko.

Gizaldietan zear argi ikusten da Arrantzalien Kofradiak artu-emon sendo

bat euki ebalá parrokiagaz. Itun ori lekeitiarren salaketaren ondorenez egin zan. Urteak geroago ondarrutarrak izan ziran debarrak salatu zituenak euren “uretan” arrantzan ibili ziralako. 1.576 urtean zan ori.

Santa Clara ermita, denbora luzean, Kofradiako ermita lez egon zan, Kofradiak artzen zitula ango argi, oial eta abarren ardurak, eta Kofradiak ordaindu baita zaindariaren eguneko eleizkizun eta jaiak, ermitaren inguruan.

Parrokiko san Pedro eta Santa Klararen aldarea be, Kofradiak zaintzen eban, orretarako arduradunei laguntzak emonaz.

Gizonei buruz jakiña da Kofradiaren ardurapean zelan zaintzen ziran gaiso edo zoritxarrekoen laguntzak eta ittotakuak gertatzen ziranetako laguntzak.

Kofradiak berak ordaintzen eutsen medikuei arrantzaleen zaintza eta berak ordaindu errezetetako zati bat, geroago etorri diran osakidetzako arauak baiño gizaldi bat lenagotik.

Kofradiaren sarrerak ez ziran andiak. Arraiña ekarten eban txalopa bakoitzari, bere balioan kentzen zan onenbesteko bategaz bizi zan eta arrantzaleak aldi txar asko eta utsune asko eukiten ebezan ekaitz eta abarren aitzaki eta eragiñez, eta arrantzaleak irabazi ziurrik sekula euki ez ebenez, beti alegintzen zan orrelakoetan bere diruen kontura “diru partilla” bereziak egiten batzutan jaien baten besperan eta geiagotan bazkideak gosik bizi ziralako eta “premiña gorriak” igarten ziralako arrantzale familietan.

Orrelakoetan Aurrezki kutxak sortu aurretik, inguruko monjen konbentuetan atea jotzen ba ekian Ondarruko Kofradiak, ortarako diru aurreratzeak lortzeko.

Osoasun baten esan lei arrantzale Kofradiak alkarren artean beti konpondu izan dirala euren arteko auzietan, geien bat itxasoetan sortutako arazoetan.

Azken baten Kofradiak zigor orde z anaitasun legea geiago erabili izan dabe euren jokabidean.

Gure gizaldirarte ez da “bajura”ko arrantza besterik ezagutu, aldian aldiko berezitasunekaz, eta oraintsuarte Kofradia izan da erabide guztietan arrantzako gorabera eskuratuta euki izan dauana.

Eta bai portu, txalopa eta abarretan, alako aurrerakuntza bat gure gizaldi onetan agertu izan ba da be, esan bear “bapora” etorri arte, Ondarroan ezagutu izan dan arrantza era, erramuketa bidez erabilitako txalopetan egin izan dala, aize belae indarragaz lagunduta.

Bapora Euskalerrian 1.880 urtean sartu ba zan be, Inglaterratik Donostira eroandako txalopak bidea zabalduaz. 1.893 urtean sartu zala “bapora” Ondarroako txalopen artera. Bildurrez eta nekez.



Sareak sikatzen.

ARRANTZALIEN KOFRADIAKO 1.593 URTEKO ARAUAK

Jaungoikuaren izenean, amen.

Ondarroa'ko urian, milla bosteun eta larogeita amairugarren Martiko irugarren egunean, errege gure jaunaren eta uriko eskribadu naizen Juan Aiardia'ren aurrean eta ziñaldaritzat azken aldian izentatzen diran maiordomu eta berrogei lagun inguru dirala, danak, berenez, uri onetako biztanle lez euren izenean era urian egon edo kanpotik dabiltzan bertako eta inguruko aginpideko Kofradiako anaien izenean agertuko dirala zin egin dabenak, geroago esango dana bete edo ta onartuko dabenen izenean,

Klara deun amandrearen izen orretako Kofradiko anai lez obetoago zuzendu eta erabilteko, jarraiko au esan eta agindu eben:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santu, zeru, lur era itxasoa jaurri eta zuzentzen daben iru pertsona eta egizko Jainko bakarraren izenean:

1.- Lenengotik esan eben, Jainko gure Jaunaren serbitsu eta bere Eleiza eta Klara deunaren ermitako Jainkotiar gurtza zabaltzeko, bere izenez eta noiztik ez dakigun denboretatik datorren eta gaur arte irauten dauan esandako Kofradiaren zaintza, jagote, euste eta anaitasuna indartzeko, eta berak Jainkoaren aurrean euren zaindari eta bitarteko lez, gogoaren eta lureko bizibidearen ona beragandik lortu daġian,

agindu eta erabagi eta emendik aurrera atakotzat eta arautzat euki dagien anaitasun onetan maiordomu bi egon daitezala, oraintxe lez, eta emendik aurrera idatziz geratuko diran atal guztiak zaindu al izateko,

eta maiordomu oneik urtero aukeratuak izan daitezala, maiordomu eta txalopa, zafra eta beste ontzietako patroiekaz batean bertako ospitalean batzartuta, Martiko Ama Birgiñaren egunean, bazkaldu aurretik, orretarako kanpaia jota,

eta aurrez, beste edozeren aurretik, maiordomu eta anaiak bertako elizatzon, Espiritu Santuaren izeneko meza eskeini eta esanagaz, auteskunde onetan bere grazia zabaldu dagian,

eta anai guztiei entzun ondoren aukeratze ori egin dagien, eta maiordomu orreik izan daitezcan uri onetan dagozan pinaza, zabra eta txalopetako patroien artean geienen borondatez aukeratuak, euren artean beste eraen baten konpondu ezik.

2.- Baita agindu eta erabagi eta arau lez ipiñi eben, txalopa guztiak, sardiña eta aingira arrantzan ibili edo ta baleak ilten, edo ta edozein denboretan eta edonun lebatz eta besigu arrantzan ibiltzen diranak, mare bakoitzeko laurden bat emon dagiela euren izenean Kofradi eta Anaidirako bertako maiordomuei.

Eta besigu edo beste edozer arrain banatzen dabenean bardin, eta danori Ondarruko bikario eta beste abadeentzat, Klara deunaren ermitan bere aintza egunaren besperan besperak esan dagiezan, eta jai egunean laguntzalleekaz baterako meza eta ibildeuna, eta eleiz eta ermita eta bere apaingarri eta Jainko gurtzarako bearrezko diran beste gauzak zaindu dagiezan, eta agertu leikezan beste premiña eta gastuetarako eta eguna ospatu eta goratu al izateko.

3.- Baita agindu eta erabagi eben, esandako arrantzalietatik kanpora, beste ibillaldi eta garraioetan dabiltzan uriko bizilagunen txalopa, zabra eta pinazetako patroï eta jaubeak, ostera bakoitzean bere laurden bat ordaindu dagitsela, esandako maiordomuei, Kofradi eta Anaidiko esandako gauzetarako.

4.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, txalopa, ontzi eta zabra nai edozelako batelak, arrain gazitua ez dan beste zerbait errira saltzera ekarten dabena, ezin saldu al izango dabela maiordomuen baimen barik, batez be errian bertatik dabiltzanzen arraiña dagon artean.

Eta saltzen dabena emon bearko eta emon dagiela mare bakoitzeko laurdena esandako Anaidi eta Kofradiari, nai eta erririk kanpora salduta edo itunduta ekarri, eta orrela egin nai ezik, eta maiordomuei men egiñaz, laureun marauko isuna leporatu dagiela, eta ordaindu nai ezik arrain eta guzti erritik eta bere ingurutik kanpora bialduak izan daitezala, eta orrela dabiltzanak errikoak ba dira, lenengo aldiz irureun marau ordaindu dagiela, mareko laurdena ordainduaz gain, eta bigarren aldiz milla marau eta irugarrenez erri onetatik eta ingurutik itxasoan ibiltetik kanporatu, milla marau ordaintzetik gain maiordomuei deritxoen bitartean, eta orrela datorren arrain gordin guztia maiordomuen eskuetan geratu eta euren bitartez saldua izan daitela.

5.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, uri eta portu onetatik dabiltzan ontzi, txalopa eta zabra, edonora joanda be eta euren jaubeak kanpotarrak izanda be, emendik dabiltzan artean, eta batez be Terranobara bertako bizilagunak ebailita, ordaindu bearko dabela eta ordaindu dagiela mare bakoitzeko laurden bat esandako Anaidi eta Kofradiari eta bere maiordomuei esandakoa beteteko, eta bete nai ezik maiordomuak euren bete eta bete eragin dagiela.

6.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, esandako ermita eta Kofradiako maiordomuak esan eta agertzen dautsezanean Kofradi eta Anaidi orretan laguntza edo konponketa premiñak dagozala, agintzen dana txalopa bakoitzeko mariñelen artean zabalduaz, itxasora joan daitezala, eta arrantzan ibili eta lortzen dabena Kofradi eta Anaidiralko izan daitela, eta ukatzen diranak ez daitezala itxasoan ibili uri onetatik eta bere ingurutik maiordomuak zigortu edo agindu dautsen denboran.

7.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, sardiña, aingira eta baletan, mare bakoitzeko ordaindu bear eta ordaintzen danetik erdiz bana izan daitela txalopa eta mariñelen artean, esandako Jainkoaren gurtza eta beste lan onen mesederako dalako.

8.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, maiordomuak deitzen daberen guztietan ermitaren bear-izan edo dagokionerako, edo ta Anaidi eta Kofradiarako danetan, batu bear dabela eta batu daitezala esandako ospitalean, ukatzen diranei maiordomuak zigortzeko eskubidea eukiaz, eta batzen diranak erabagi eta itundu dagiela orretarako zuzen, on eta baliagarri izango dana.

9.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, Kofradiako laguneren batzuk asarratuta ba dabiltz, maiordomuak alegindu daitezala eurak adiskidetzen, eta orretarako, ala bear ezkerero, Kofradi guztia batu dagiela, eta ukatzen dana maiordomuak zigortu dagiela eta ez daitezala bertatik eta ingurutik itxasoratzen ibili maiordomuak zigortutako denbora bete arte.

10.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, maiordomuak uri onetatik ez ibiltera zigortutako batzuei, zigorpe orren menpe dagozan artean, txalopa jaubereren batzuk euren artean artu eta arrantzara eroango balebez, txalopa orren jaubeak ordaindu eta zigortu dagiela.

11.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, esandako Kofradi eta Anaidiak kutxa bat euki dagiala giltz bigaz bertako kontuak eurretan gordeteko, eta maiordomu bakoitzak bere giltza euki dagiala eta kutxa ori egon bearko dala eta egon daitela zarrenaren etxean.

12.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, esandako Kofradiak liburu bat eroan dagiala bertako maiordomuen kontuekaz, Kofradiak urte bakoitzean daukezan sarrera eta gastuekaz, eta liburu ori kutxa orretan gordeta egon daitela.

13. Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, urte bakoitzean maiordomu barriak aukeratu ondoren, bederátzi egun barru lengoak barrirei eta errian dagozan ontzi, zabra eta txalopen jaubei kontu zeatza emon dagiela eta orretan ez daijala beste ezelako zuzenketak esku artu, maiordomu eta arrantzaleak eta jaubeak ezik, euren arazoa dalako.

14.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, maiordomuak arduratu daitezala mareko laurdena, partillak egiñaz batera kentzera, gero emon naiko ez balebe be, euren agindu bidez, ukatzen diran txalopa eta ontziei indarrez kendu al izateko.

15.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, Klara deunaren egune-
neko jaiari eta ospakizunean erbestetarrik ez artzeko.

16.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, Anaidi eta Kofradia-
ren kontura, urtean zearko ille bakoitzaren lenengo domekan, Klara deunaren
ermitan meza bat eskintzeko ildako anaien arimen alde, eta bizi diran anaien
gogo eta soñien osasunaren alde, eta euren on izatearen alde, eta orrelako deia
ordaindua izan dedilla eta urian dagozan Kofradikoak euretara joan daitezala.

17.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, premiña berezi edo ta
itxaso edo leorreko lanen premiña dagoenetan, maiordomuak eta anaidiko bes-
te lagunuen aburuz ala uste dabenetan errogatibak egin bear dirala Jainko gure
Jaunari errukia eta mesedea eskatzeko arimari eta soñari bere serbitzuko
laguntza eskatzeko, euretara joaten ez diran anaidikoei maiordomuak zigortu
eta ordaindu eragin dagioela.

18.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, maiordomuak arreta
euki dagiela, illunpe eta ekaitz aldietan Klara deunaren ermitako zerbitzariari
agintzen, argiak biztu dagiezela gabetan, itxasoan dabiltzan ontziak, errikoak
nai inguruakoak izan, jakin dagien nun dabiltzan eta portura sartzea igarri
dagien.

19.- Baita agindu eta erabagi eta arautzat ipini eben, baleak zauritu eta
ilketetan jaube eta mariñelen artean Lekeition oiturazko eta itundua dagona
zaintzeko, dagokien banaketa eta ordaintzeari buruz.

Eta orrenbestegaz esan eben, atal oneitatik kanpo dagon guztia indar barik
lagako ebela eta laga eben, eta baliobakotzat etsi, edozelako idatzietan lendik
idatzi ebela uste ebenetan, eta alaxe erabagi eben apurtutzat eta indar barik
eukezala, iñungo epaiketan ez agertzeko eran eta ala agertu ezkerro, balio bako
izan eitezala (...) eta idazki oneri eta bertako atalei indar emoteko, esan eben
errege jaunari eskatuko eutsela eta eskatu eutsen, bai eta lendakari eta beste
entzuleei, alegin egin dagiela atal eta arau oneik egiaztatzea agintzen, esanda-
koa indarrean ezagutu aal izateko maiordomu eta anaidiko guztiak eurenez eta
kanpotik ebiltzan itxastarren izenean, eta eukezan eta euki ebezan ondasunekaz
eurak zaintzera beartuaz (.....) eta euren eskubide eta legea alboratuaz, diran
eta izango diran maiordomuen aginduetara menperatuaz, oneik beartuaz eure-
tan esaten dana bete eragin eta ordaintzera, epaiketa baten erabagiz orrela eska-
tu eta azken erabagiz aginduak litzakezan lez, orretarako euretara euren aldeko
beste eskubide berezi eta orokorrak bastertuaz, orrela autortuaz lege arein uka-
tze orokorrez balio ez dagien, eta orrelaxe onartu eta baitetsei eben.....

(izenpetzen dabe Bikario, maiordomu eta lekuko ziranak)

(Bizkaiko Aldundiko "Artxibo Historiko"tik)

1.638 URTEKO ARAUAK

Araudi au, 1.593 urtekoaren antzeko da, bai gaietan eta bai neurri eta idazkeran. Aldakuntzak era onetan zeaztu leitekez:

Sarreran. Sarrera luzeago, Jainkoaren duintasunak ugaritu eta goratuaz. Idazten dauzan eskribadua, oraingotan Damian M. da.

Lenengo atalean.– 1.593'en maiordomu bi urtero aukeratzea agintzen zan. Oraingotan bat bakarra agintzen da.

Eta galerazo Sevilla, Portugal eta Galizi'ra ibiltea edo beste oster luzeak egitea, beste maiordomu bat aukeratzeko zemaia emonaz, eta orrela egitean, ibilleratik biurtzean, bere irabazietatik arena ordaintzera zemaituz.

Bigarren atalean.– 1.593 urtekoan, Kofradiari ainbesteko bat ordaintzera beartuen artean, txalopak izentatzen dira, eta 1.638'koan arraiña ekarten daben txalopak eta "kanpora eroaren daben edozein burdi be" sartzen diran.

Irugarren atalean.– Esaten da Sevilla eta Portugal'era joaten diran maiordomuak, ostera bakoitzeko iru erreal ordaindu dagiela, Kofradiari.

Galizia eta Asturias'era joaten diranak bakoitzeko errial bi, eta Sevilla eta Portugal'era joan eta leorrez etorten ba dira, erreal bi eta ez besterik.

Orrelako zeaztasunik ez egoan 1.593'koan.

Amaikagarren atalean.– Kofradiako Kutxaren giltzei buruz esaten da, bietako bat azken urteko maiordomuak eukiko dauala.

Emeretzigarreanean.– Bale arrantzako arriskuak kontuan eukita zeaztasun oneik egiten dira: Baleetan dabilzanetan, iñor zauritzean, balearen dirutzatik ordaintzea agintzen da zaurituak bear aiña botika eta osagillea, eta txaloparen kalteak konpondu.

Bai eta baleak, bere aurka dabilzenetako bat il ezkerro, ildako onen alde lau meza eskintzea, Kofradiaren kontura.

Beste guztiak bardintsu dira.



Marearen zai.

ITXASOETAKO ONDAMENDIAK

Itxasoetako ondamendiak, gure gizaldiaren erdi inguruarte, benetan ondamendi arrigari eta negargarriak gertaten ziran. Eta ez famili bat edo besterentzako, ia erri guztiarentzako baiño.

Lengo denporetan itxasoak erraz artzen zitun arrantzaleak bere mende. Ba egozan ortarako errudunak: ontzien makaltasuna, egitura, eta esku eta aize bidezko ibilbidea, au da, erramu eta bela bidez ibili bearra, oraindik bapore eta motorrak ezagutu aurretik.

Gaurko teknikak ziurtasun geiago emon dautse gizonei eta txalupei.

Ondarroa'k istori baltz luzea dauka itxas ondamendietan.

Ainbat bidar gertatutako gizon bakarra galtzeak basterrean itxi eta ara emen, bear ba da tartean banakaren batek iges eginda, gure errian gogoratu leikezan batzuk, au da, ittotako ondarrutar batzuk:

Urtea :

- 1.691.- (6) Donosti'tik korsario bizikera urten eta sei itto.
- 1.696.- (3) Frantzetar txalupa baten bale ta bakallautara joandako iru.
- 1.700.- (4) Otsaillean, arrantzatik etozala lau, kairako sarreran.
- 1.727.- (10) Arrantzara joandako-ontzi baten, amar.
- 1.728.- (3) Portutik urteeran, iru.
- 1.741.- (5) Baletara joandako txalopa baten, bost.
- 1.766.- (3) Portutik urten eta bereala, iru.
- 1.773.- (2) Portuko sarreran, bi.
- 1.800.- (19) Portuko sarreran, txalopa bik tirabira egin eta emeretzi.
- 1.810.- (3) Bilbo'tik etozala, iru.
- 1.816.- (9) Portuko sarreran, bederatzi.
- 1.839.- (4) Portuko sarreran, lau.

1.841.– (2) Bi.

1.842.– (2) Baiona'ko sarreran, bi.

1.850.– (2) Hamburgo'ko aurrean, bi.

1.857.– (3) Itxas zabalean, iru.

1.860.– (5) Itxas zabalean, bost.

1.868.– (19) Donosti'tik etxera etozala, emeretzi. Urtarrilla'ren 22'an gertatu zan. Ekaitzagaitik Donosti'n sartuta egon ziran. "San Antonio" izena eukan txalopak, Juan Jose Larrinaga jaube zala. Ekaitza baretzean etorralkuan, etxerantz asi ziran, eta andik urteeran itto.

1.871.– Matzaku aurrean, iru.

1.878.– Itxas zabalean, galerna baten mende, bederatzi.

Egun au, Apirilla'ren 20garrena, zapatu santu eguna, benetan negargarria gertatu zan.

Bermeo'ko 95 itto ziran, Elantxobe'ko 47, Lekeitio'ko zortzi, Ondarroa'ko bederatzi, Colindres'eko 35.

Orrelaxe irureun lagun baiño geiago Donosti'tik Santander bitartean.

Ondamendi oneri buruz urrengo egunean, "El Noticiero Bilbaino" Bilbo'ko egunkariak au esaten eban: Zapatu santu eguna, egun zoritxarrekoa agertu zan; giro atsegin eta epela, udabarrikoa. Ipar-sorkalde aize biguna. Origaitik, eta antxoa sasoiak zalako, itxasertzeko arrantzale guztiak itxasoratu ziran. Eguerdia aurretxoan amaika ta erdiak inguruan, Ego aizea asi zan, eta orrelaxe jarraitu, ordu bata laurden gitxiago arte. Eta uste barik urakana lako Ipar-sorkaldeko aize zakarra sortu zan. Iru ordu laurden, ordu bete laurden gitxiago irau eban ekaitz orrek.

Amalau txalopa bermeotar falta ziran, 106 arrantzaletik 88 ittoak, euretari-ko 30 kale batekuak; Elantxobetik ogei ta amazortzi... Ala esaten eban egunkari orrek lenengo egunean, baiña zotitxarrez biaramonean zenbaki orreik geitu egin ziran.

1.879.– Aurreko ondamentitik urte bete baiño len, beste bat. Ondarroa'n txalopa bateko patroia izan zan itto zana. Baiña Zumaia'n amabi, Lekeitio'n, "San Migel" eta "Jesus Maria" txalopetan, ogei ta zortzi. Urtarrilla'ren 8'an izan zan. Besigutan ebiltzala.

1.902.– (10) Ondarruko portu aurrean ezin sartuta egon ondoren, Mutriku'ra joan, eta an, portu barruan "Nuestra Señora de Izar" sartu ondoren amar itto ziran.

1.908.– Bear ba da Ondarru geien kaltetu eban galerrena Santander'eko uretan atuntsu denboran igarotakua izan zan. Jakiña da arrain orren arrantzara ur areitara joaten zirala ondarrutarrak, andik ariñago eta ziurrago arrantzaten zalako. Emengo fabrikak be an egiten eben arrain orren denboraldi bat, garai aretan ez egoalako arraiña baldintza onetan andik ona ekarteko aukerarik, ez itxasoz ez eta leorrez be.

Laster zabaldu zan.

1908 urteko Uztaillaren 12'an, Santander aldeko itxas aurrean sortu zan galerrenak, inguru aretara atunkien arrantzara joanda ebiltzan ainbat txalupa tatarrez erabili zituala eta ainbateri tirabira eragin edo ta gizonak txalopetatik atara eta ondoratu.

Eta orrela gau orretan 27 ondarrutar itto zirala, amairu bermiar eta mutrikuar bi.

Urte orretako gure parrokoiko liburuak, illenak beintzat, Derio'n dagon Bizkaiko Eleizako artxibu nagusian dagoz.

Ara egindako osteretako baten, alegindu naz gizon orrein zeaztasunak jasoten.

Itxasoan galdutakotzat emondakoen goraberak ez dira liburuetan egun berean idazten eta goiko baimen bat bear izaten dabe parrokoak orrela galdutakoak benetan itto edo iltzat emoteko, ondo ziurtatu ondoren.

Orrela Uztaillaren amabian ondamendia gertatuarren, il-agiriak ez dira agertzen, lenenak Irailla'ren 29 arte, eta besteak Urrillaren 5 arte.

Danak bardin diño: galerrena goizaldean sortu zala eta Suances'ko portura arribadan eioazala gertatu zala ondamendia.

Bost dira Irailla'ren 29'an idatzitako agiriak , eta danak diño Gasteiz'ko obispaduko nagusiaren aginduz idazten dirala, eta bai eta illeta-eleizkizuna "de cuerpo ausente" egin izan dala.

Galtze bat San Ignacio txalopan gertatu zan.

Iñazio Badiola Laka, Urbano eta Emerite'ren semea, 18 urtekoa. Ondurazten ikusi eta testigutzat agiria parrokoagaz batean izenpetzen ebenak oneik ziran: Ramon Garmendia, azkoitiarra eta Andres Berridi, ondarrutarra.

Beste lau Concepcion txalopan gertatu ziran. Ara zeintzuk:

Antonio Urkiola Landaribar, 60 urtekua, Aita Frantzisko, otxandiotarra zan eta ama, Tomasa, ondarrutarra.

Salbador Badiola Urresti, 27 urteduna. Gurasoak: Ruperto eta Juliana; Elena Gallastegi'gaz ezkondata egoan.

Bruno Iriondo Lasarte, 18 urteduna. Gurasoak, Jose Ramon, markiñarra eta Feliciano.

Jose Garramiola Unamuno, 17 urtekua. Gurasoak Rufo Jose, ondarrutarra eta ama Maria, ziarrotzakua.

Azken lau onein testigantza Federiko Egurrola eta Balentin Arostegi'k izenpetu eben.

Gero ez da beste galdutakorik agertzen Urriaren 5 arte.

Egun onetan datoz Jesus, Jose y Maria txalopako irurenak.

Meliton Egia Kintana, 61 urtekoa. Mutrikuarra bera eta bai Jose Basilio eta Eugenia bere gurasoak be. Rosa Arantzamendi ondarrutarragaz ezkondata egoan.

Lorenzo Burgoa Zelaia, 24 urteduna. Gurasoak Jose Antonio eta M^a Concepcion. Petra Larrinaga Bengoetxeagaz ezkondata egoan.

Domingo Burgoa Pagate, 17 urtekoa. Gurasoak Pedro Manuel eta Manuela.

Iru onein galtzearen testigantza Iñazio Arantzamendi eta Jose Burgoa'k emon eben.

Ondoren datoz Nuestra Señora de la Antigua txalopan galdutakoak. Iru dira:

Gabriel Jose Txakartegi Zaldunbide, 30 urtekoa. Gurasoak, Domingo Millan eta Liberata. Norberta Izuriaga, bariñagatarragaz ezkondata egoan.

Pedro Leon Alkorta Olasolo, 35 urtekoa. Gurasoak, Tomas mutrikuarra eta Bizenta jemeindarra. Isabel Romualda Landaribar'egaz ezkondua zan.

Juan Jose Ituarte Osa, 25 urtekoa. Gurasoak, Antonio eta M^a Dominga, biak mutrikuarrak

Azken iru onein testigantza Domingo Millan Txakartegi'k eta Antonio Irusta'k emon eben. Azken onek berbaz, idazten ez ekialako.

Beste bi gero Santa Margarita txalopan galduak.

Enrike Manuel Urkizu Guenaga, 44 urtekoa. Aita Alejandro, gipuzkoarra zan, Legorretakua eta ama Josefa ondarrutarra. Pilar Solabarrieta Azpiazu'gaz ezkondata egoan.

Eleuterio M^a Solabarrieta Alegria, 60 urteduna. Gurasoak Jose eta Josefa Antonia. Gala M^a Azpiazu Aretxaga'ren senarra zan.

Onein testigantza emon ebenak: Jose Geronimo Albizu eta Migel Anton Zarraga, santoñarra izan ziran.

Eta esaten ziran 28 arteko beste amabostak nun?

Kontuan euki eleizan ez dala il agiririk idazten, bertan eleizkizuna egiten diranena besterik.

1.909.- Maiatzeko galerna baten , amairu.

(Galerna au iragarri eutsen arrantzaliei orduan Zarautz'eko bikario zan Orkolaga jaunak, baiña antxoa gorriak ez egozala urrun eta itxasora joan eta sare ta tresnak itxasoan itxita batzuk Getari'ko portu inguruan sartzea lortuaren, beste batzuk itto.

Getarian itto ziran ondarrutarren zerrenda. (Derio'ko Artxiboan, Onda-rroa'ko parroko illen liburutik atarata)

Jesus, Maria y Jose txalopan:

Lukas Urresti Arregi, 14 urtekoa. Felix eta M^a Dominga'ren semea.

Eustakio Illoro Makazaga, 42 urtekoa. Juan Domingo (Zenarruza) eta Juana Bautista (Berriatukoa)ren semea. Juana Engrazia Alberdi (Elgoibarkua)gaz ezkondata egoan.

Ruperto M^a Olano Iramategiu, 30 urtekoa, ezkongaiia. Leon Olano (Durango) eta Antolina ondarrutarraren semea.

Santa Clara txalopan

Evaristo Garramiola Berridi, 55 urtekua, patroia. Jose eta Rosa'ren semea. M^a Rosario Badiola Aretxaga'gaz ezkondua.

Domingo Garramiola Badiola, 19 urteduna. Ebaristo eta M^aRosario'ren semea.

Santiago Badiola Laka, 22 urtekua. Urbano eta Eleuteri'ren semea.

Feliciano Egurrola Zuazo, 17 urteduna. Jose Timoteo eta Baldomera'ren semea.

Iturraran txalopan

Domingo Urquiri Bedialauneta, 11 urtekua. Jose M^a eta M^a Santos'en semea.

San Francisco txalopan.

Jose manuel Imaz Elezgaray , mutrikuarra, 32 urte. Felipe eta Teresa'ren semea. Biak mutrikuarrak.

Narciso Alkorta Kerejeta, 42 urtekua. Jose Migel ondarrutarra eta Francisca, Urrestilla'koaren semea. M^a Andresa Zabala Larreategi, berriatuarragaz ezkondua goan.

1.912.– Dagonillean (Abuztuan) atun denporan, iru.

Ondarroa'n santa Klara ospatzen zalako, emengo txalopak erriratuta egozan geienak eta origaitik portu onetan iru bakarrik faltatu ziran. Gogoratu bertsoak:

Notizi triste ori

diñan adituak,

egun amasei Bermeoko

ba zirala ituak.

Iru ondarrutar ta amasei

Lekeitiokuak,

Elantxobetik zortzi

ba dira naikuak,

danak gure anaiak


Kantabriakuak. (Jose Garmendia)

Ikusten danez, Ondarroa'k ba dauka itxasoko istori baltza.

Bizimodu arriskuz beteriko onek, Jainkoaren fedean eutsi eragin eutsen arrantzale askori, jakiñez baiño bildurrez geiago.

Oraindik gure denporetan be ezagutu genduzan mariñelak, itxasotik etorri eta Antigua'ra ortozik joaten, Antigua'ko Amari euren estutasunetan egindako eskintza edo promesak beteten.

1.878'ko Apirillean egon zan ondamendiaren ondoren, gizonak salbateko txalopa egoki baten eredua billatu nai izan eben, eta Jose Antonio Arriola ondarrutar ontziegilleak irabazi eban eredu orren saria.



Estropadak. 1.888'ko irabazleak.

1.890 URTEKO ESTROPADA

Estropaden artean ba dago bat ain zuzen be ondarrutarrak miñez artu ebena eta oraindik be ia urtero Donosti aldetik gogoratzen dakiena.

Urteroko orrek min bizia sortuten dau ondarrutarren biotzetan.

1.890 urtea zan.

Lenago, 1.888'ko Pasai eta Ondarru arteko estropadak zotin eragin eban, ez bakarrik Gipuzkoan, bai Euskalerra guztian be.

Zer esanak sortu ziran,

asarreak biztu,

odolak berotu,

alkar-arteko artu emonak garrastu....

Eta desafioa ez zan Ondarrutik aizetu. Donostia'tik bialdu eben Ondarroa'ra.

Estropada galdu eben ondarrutarrak. Alaz eta nire erritarrak sekula ez dabe onartu estropada orretako azkena.

Ez dakie zergaitik, ez dakie zer gertatu zan, baiña orduko gertaera ori miñez artzen da gogoratzen dan bakoitzean.

Gerta eikean borondaterik onenagaz jokatu eta galdutea; gerta eikean artu ziran erabagiak bidezkoak izatea, baiña galdu zalako okertzat artu. ez jakin.

Ondarrutarrak estu artu eben estropada aretako patroia, betozkoz ikusi. Eta patroia arek ez eban euki beste erremediorik erritik iges egitea baiño.

Lengo zarrak esaten ekien orduko patroiak, jai andi baten, eguneko meza goizean entzun eta jaunartu ondoren, iñori ezer esan barik, burua makur, erbeste bidea artu ebal, geiago bertara ez etortzeko.

Orrek be ez dau esan nai gizon baten txarkeririk. Bear ba da, bera ikusten zan egoerak barrua artu eragingo eutsan.

Ikusi daigun zeaztasun geiagoz eta zertzelada ugariz, estropada a noiz jokatu zan, zelan jokatu zan eta zer gertatu zan.

Ba daukagu urte berean egindako agerpen jator, zeatz, egitsu eta borondate onenagaz idatzia. Bear ba da ordukoetan baiño geroagokoetan geiago pentsatuta.

Blas Iturriza, bere idazlea, Santa Klara deiturako Arrantzale Kofradiko bigarren kontularia zan. Barru-barrutik ekian dana" aurreko axutak, barruko pentsakerak, gertaeretako kezak, erramularien eskutuko denporak, jendéaren konfiantza eta jokorako itsutasuna....

Bera baiño obeagorik ez orduko kronika egiteko. Guk berea euskeratuko dogu.

Ondarroako Kofradian 1.890 aurtengo urte onetan gertatutako bigarren gertaera,

Ara emen Santa Bibiana egunez, 1.890'ko Abenduaren bigarrenean kai onetako Kofradiko erramularien artean eta Donostia'koen artean jokatutako estropada.

Ondarroa'k galdu egin eban estropada, bai eta galtze ugari euki be, ez bakarrik arrantza inguruko jende artean, bai eta bertan eukitako gastu andi eta trabesetan jokatutako dirutzaren galtzeagaitik; era berean leortarren artean, Kofradi onetako erramularien alde asko jokatu ebelako, gizonen gertaera eta ikasketetan baiño geiago euren indarrean sinistu ebelako.

Galtze a bete-betean jazan eban Kofradi onek, eta beste bein orrelako zerbait gertatu ezker be, Kofradiko bigarren kontulari onek orduko zertzelada eta gorabera batzuk idatzita itxi nai izan ditu, gaur bizi diranak eta urrengo baten bizi leikezanak, gertatua zeatz jakin dagien, eta indarrean bakarrik sinistu barik, estropadara joatekotan beste neurri batzuk artu dagiezan ikasketari buruz, tresna eta erramu ezbaridiñak probatu eta abar, oraingoan lez zirikalidian ain itsu jausi ez daitezkan, kontuan ondo eukiz Pasaia gaz jokatu zaneke baldintzak (kondiziñoiak) eta ez geroago aitatuko dogun estropada onetarako 1.890'ko Azilla'ren 12'an Donostiko urian artu ziranak.

1.888'ko Azilla'ren 25'ean, au da, santa Katalaina egunean Ondarroa eta Pasai San Pedro artean jokatu zan estropadan donostiarrak eta eurekin batean beste gipuzkoar askok galera andiak euki zituen Ondarroak irabazi ebalako estropada a.

Orduntxe esaten zan gipuzkoarrak ez zirala geldituko erabagien bat artu barik, eta errebantxa eskatzen aleginduko zirala galtze a zuzenduteko. Orrez gaiñera beste ainbat gauza esaten ziran, orain egi biurtuta ikusi doguzanak.

Esaten danetik gipuzkoarrak orduantxe asi ziran euren gertaera eta ikasketak egiten, Kofradi onetakoei irakaspide garratza emoteko asmotan. Eta erramuketarako era barriak sartzen asiak ziranez, bai eta gizonak ortako eragiña

gero ta obeto jasateko erak, pala zabalagodun erramuak erabilliz, erabagi eben urtero Irailla'ren 8'an estropada bat egitea, egun orretan ospatuten dalako uri aretan Andra Mari eguna.

Orretarako aurrez iragarri zituen estropada oneik eta euren sariak eta gipuzkoar erriak gertuten asi ziran.

Eldu zan 1889'ko Irailla'ren zortzigarren eguna. Estropadetara ainbat errietako treiñeruak agertu ziran, bai Donostia berbertakuak be. Lenengo saria donostiarrak irabazi eben.

Andik egunetara, donostiarrak Pasai Donibanekoeekin eztabaidaren bat euki eben. Oneik donostiarrak estropada bat jokatzera axutu zituen, baiña treiñeruak aldatuta, au da, donostiarrak pasaitarrena erabili eta pasaitarrak estropada irabazi eben donostiarrenagaz. Donostiarrak desafio ori ontzat artu eben. Estropada jokatu zan eta donostiarrak irabazi.

Ori ikusita, 1.890 urteko estropadetarako gertuten asi ziran, aurrez treiñeru arin eta meiak egiñaz, eta esaten zan 1.888 urtean lez Bilbo'n estropadak egiten ba ziran, an izango zala Donosti.

1.890ko uda eldu zan. Zabaduta ebillan gipuzkoarrak gertu egozala Kofradi onetakoei desafioa bialtzeko. Baiña ondarrutarrak ez eben uste orrelakorik eta zer-esanei ez eutsen jaramonik egiten.

Aurrez jakin erazi zan, aurtengo estropada Irailla'ren 7'an ospatuko zala, igandea gertaten zalako, eta biaramonean ospatuko ebela Ama Birgiñaren jai.

Errege eta printzipeak Donostia'n egozan, udaldiko bañoak artzera etorrira eta ia gipuzkoar portu guztiak izena emon eben estropada orretarako, sari onak lortzeko asmotan.

Ondarrutarrak, iñori jaramonik egin barik, atunetara joan ziran Bagillean (Ekainillean) eta Dagonillean (Abustuan) etxera biurtu ziran.

Eldu ordukoxe asi ziran Donostiko estropaden autuak. Eta Bilbon egongo ete ziran be zabaldu zan.

Aidean ebiltzan zurrumuruak jakinda, Kofradia batzarrean batu eta erabagi zan Bilbon estropadarik egiten ba zan, ara joatea, baiña orain egozan traiñeruak ez ziralako bear aiña, eta jakiñik beste pixu gitxiagoko eta ariñago batzuk beste portuean erabillezala, Ondarroan bertan Jose Maria Irueta'ren lantegian eta Genaro Osa'ren lantegian eginda egozan bi erostea erabagi zan eta eurekin Bilbora joatea.

Erriko jaiak igaro ondoren, txalopa guztiak atunetara joan ziran, Dagonillaren 20 eta 21'n urtenaz, eta etxera ez ziran biurtu Irailla'ren zortzigarrenearte.

Egun onetan estropadak egon ziran Donostia'n. Gipuzkoar treiñeruak aurkeztu ziran eta "Cariño" izendun donostiar treiñerua geratu zan irabazle.

Gipuzkoarrak ikusi ebenean euren artean irugarren garaitza lortzen ebela, egunkarietan egin zituen kronikettan ipini eben, eskutuko zerbait adierazi nairik, irabazteko egun orretan ondarrutarrak osasun ona eukela. Egia esateko,

alaxe zan, ondarrutarrak atun denporako irabaziagaz etxeratuta egozalako, eta denporaldiko irabazi lez amasei milla ogerleko baiño geiago lortuta.

Donostiko estropadetatik laster, zurrumurrua egoan donostiarrak ondarrutarrei axuka egingo eutsela, baiña ez zan sinistuten. Ikusirik urte onetan ez egoala estropadarik Bilbon, Kofradi onetako arrantzaleak kezka barik irugarren atuntsua egitera joan ziran.

Atunetan ebiltzala, Donostiko egunkariak Kofradi onetakoak zirikatzen asi ziran, eta egunkariak ekarrena ikusita, Bilbokoak be barri ori aizetzen asi ziran, eta orrela, "El Noticiero Bilbaino" k Irailla' ren 11' an idazlan au agertu eban:

"Ondarroa'ko mariñelak"

Egun oneitan, eta Donosti'ko estropadak ospatu diran artean, uri aretako egunkariak eta onetakoak, Ondarroa'ko mariñelen artean dagozan eztabaiden barri emon dabe, esanez batzuk nai dabela eta besteak ez Donostia'ko erramulariei desafio bat bialtzea, eta oneik, axuta (desafio) ori egingo ba litz, menperatu egingo litukela ondarrutarrak, eta orrela galdu egingo leukela 'Kantauriko gorenenak' ezaugarridun bandera, Bilbao'ko Nautiko Alkarteak emon eutsena.

Edo guk erderarik ez dogu ulertzen, edo ta orrek esan nai dau Ondarroa'ko mariñelak ez zirala Donostia'ko estropadetara joan gizon arteko ze-esanagaitik. Eta ori ez da egia.

Egunotan esaten ibili garean onetaz benetan be zer dagon jakin nai izan dogu, eta guk jakitea lortu dogunetik esan giñei Ondarroa'ko arrantzale adoretuak azken estropada bietara joan ez ba dira, ez dala beste ezegaitik ortara joaterik pentsatu ez ebalako baiño, eta ez iñoren arrokeriakaitik bildurtuta egozalako.

Ikusi ontaz gure ordezkari batek diñoskuna: Ondarroa'ko arrantzaleak ez dauke une onetan estropaden gomutarik. Lan asko egiten diardue, diru asko irabazteko, eta dagozan egoeratik ainbat lasterren urteteko. Eta zorionez egoera ori ez da iñoiz izan dan aiñako larria. Ain zuzen be Donostia'n estropadak ospatu ziran egunean, erri onetako arrantzaleak amasei milla ogerlekoren banaketa egin eben. Dirutza ori azken atuntsuak iraun daben amabost-amasei egunetan irabazia da. Ez al da au obe, millaka ogerleko batzuk galtzeko arriskueta sartu eta Kantauriko gorenenen ezaugarria be galtzeko arriskuan sartzea baiño?

Arrantzale oneik, ondo dakit, ez dauke garrantzi bako estropadetan sartu eta iru-lau milla pesetako sari batzuk billa ibiltzeko gogorik. Orreitarra joateko bear dan lez eta diru geiago bitarteko dala izan bear da, eta emendik lau bost urtetara, euren zor guztiak ordaindu dagiezenean, an egongo dira bear dan tokian euren izena aldeztuteko gertu.

Azken gerratea amaitu zanean, Arrantzalien Alkarteak ogei ta amasei milla ogerleko zor eukazan, eta orain amabi millara beratuta dago zor ori, kontuan eukita zentzu lez artuta eukazan beste bi milla ogerleko be ordainduta daukazala. (Karta au luzeago da, bertan aitatzen dalako 1.878 urte ezkeroztik Kofradiak ordaintzen dauan molla barriaren kontua be.)

Donostiko erramulariak ikusi eben ondarrutarrak atunetan ebiltzala, baiña uste izan eben eldu zala euren desafioa bialtzeko egun egokia, eurak ondo gertuta egozalako eta 1.888 urte ezkeroztik ondo eratuta, erramuetan mota guztietakoak eukezalako bai eta estropadarako bear ziran beste tresna guztietan, eta origaitik erabagi eben Kofradi onetako erramulariei desafioa bialtzea. Ala eldu zan orretarako denpora eta 1.888 urtean galdu ebenean artu eben erabagia bee nai izan eben.

Iraila'ren 21'ean eldu zan Kofradiara desafioko karta ori. Ara zer esaten dan bertan:

Ondarroa'ko Arrantzale Kofradiako lendakariari:

Gure jaun agurgarri: Karta au izenpetzen dogunak, uri onetako erramularien ordeazkariak gara eta Kantauri inguru onetan estropadak emoten daben ikuskizunarenmaitaleak. Estropada orreik gauza bat baiño geiagogaitik be goragarri dira, euretan euskal lurralde onetako semeen indar eta kemena erakusten dalako. Origaitik zuri idaztea pentsatu dogu, ala ba deritxazu, orko itxastarren artean jakin erazi dagizun bertakoekin estropada bat egiteko daukagun gogo, era onetan:

1.- Uri onetako itxastar edo arrantzaleak gertu dagoz Ondarroa'gaz estropada bat egitera azkenengo Pasai san Pedro'koekaz jokatu gendun baldintza bardiñetan, au da, Getaria'tik Donostia'rako ibilleraz.

2.- Ortan erabiliko diran treiñeruak arrantzan erabilten diranak izango dira, eta al danik bardiñenak izango dira, bakoitzak besteari eskintzen dautsazan treiñeruak suertera atarata.

3.- Dreiñeru orrein neurriak ezin izango dira 40 ein baiño gitxiagoko luzeran, ez 42 baiño geiagoko, eta zabaleran 3 ontza eta treiñeru bakoitzean amairu erremulari eta patroia.

4.- Apostuan jokatzeko dirutzat 25.000 peseta ipiniko dira. Axuta au ontzat artzen ba dabe ondarrutarrak, bear dan ituna idatziko da, esandakoak oiñarritzat artuz eta gero argitzea komeniko diran baldintzak geituz.

Donostia'n 1.890'ko Iraila'ren 20'an.

Batzordearen orde zizenpetuta: Francisco Irastorza.

Karteruak idazki ori itxi ebanean, laster zabaldu zan erri guztian zear, eta jendea kezkatu agertu zan zeaztasunak jakin nairik.

Bereala batu ziran ordezkariak, eta etorrana jakin ebenean, patri batzuei deitu eutsen eta oneik ordu bi baiño len erabagi eben erantzun au emotea:

Iraztorza tar Frantzisko jaunari.

Ondarroa'n , 1.890'ko Iraila'ren 21'an.

Jaun agurgarri: Egun bat lenago zuk izenpetutako karta artu ondoren, bereala artu neban emengo batzarrekoei zure oiñarriak jakin erazi eta estropada baterako deiaren barri emotea.

Ezetan sartu baiño len jakin erazi nai dautsut emengo Kofradian sartuta

gagozan bertako seme guztiok be, zuk agertzen eta erakusten dozuzan sentime-
nak eukiten doguzala estropadei buruz, orrelako leiaketak irabazleak lez gal-
tzailleak be goratzen dituelako, azken baten erramularien trebetasun, jatortasun
eta eragiña goratu eta zabaltzeko izaten diralako.

Eta sartu gaitez an bete-betea gaiean.

Lenengo eta bein nire ardurapekoak diño, estropadarik egitekotan, ez
dabela onartuko zuek nai dozuen Getaria'tik Donostia'rako ibillerarik, eta bai
Lekeitio'tik Deba'ra edo ta Deba'tik Lekeitio'ra, bide ori luzatu edo ez eraba-
giteko itxita.

Bigarren: Esandako estropada ezin leikeala egin santa Katalaina egun
aurretik, au da, Azilla'ren 25'e an, atuntsu denpora onetan lenago jokatu ezker
galera andia eukiko leukelako euren irabazietan.

Zure idazkia onela erantzuntzat emonda, nire agintarien izenean danon
ezaupideko agurrak bialtzen dautsudaz. Kai onetako arrantzalien ordezkari lez,
Jose Antonio Agirre lendakaria.

Illaren 25'e an eginda lez, bigarren idazki bat artu zan, lengoari erantzuten.
Bertan esaten eben, ikusi ondoren ondarrutarrak ez ebela onartzen eurak nai
eben ibilbiderik, batak eta besteak esandakoak bertan bera lagaten zituela eta
beste barri bat aukeratzea bearrezko zala. Orretarako Saturrararen' en asi eta itxas
barrurantz bederatzi edo amar milletako bidea eskatzen eben, eta beste baldin-
tza batzuk. (Ontaz "La Voz de Guipuzcoa" egunkaria ikusi, 2.013 zenbakiduna
eta Urria'ren 29'koa. An agertzen dira alde bien artean alkarri egindako idazki
eta erantzunak, Urria'ren 27'raño. Danetara amairu edo amalau dira.)

Irailla'ren 29' an erantzun eban Kofradi onek, lengoari eusten eutsela ager-
tuaz.

Idazki au bidaiez eioan artean, Arrantzalien Kofradia batzarrean batu zan,
eta gaia zeatz aztertu ondoren erabagi zan, biaramonetik asita Kofradiak erosita
eukazan treñneru bietan, erramulari talde egokiak ipinteko. (Dakigun lez aurrez
erosita egozan treñneru bi, bata Jose Maria Irueta'ri eta bestea Genaro Osa'ri,
bakoitzagaitik 2.800 errial ordainduta.) Eta nai izan ezker, tartetik tartera len
erabilten ziran taldeak barriztatzen joateko. Gaiñera patroï bakoitzak onentzat
uste eban erramularitzat aukeratu eikean bere txalopako gizonen bat , ortarako
treñneru bientzako zerrenda bat egiñagaz, bakoitzean ordezkari bi geituaz, eta
patroitzat Luis Urresti eta Simon Garramiola erabili az. Gaiñera ordezkarien
gain geratzen zan erramulari bakoitzaren irabazia eta bearrezko beste baldin-
tzak zeaztutea, biaramonetik orretan astea erabagiaz.

Batzarra amaitu baiño len egin zan erramularien zerrenda, ordezkariak be
sartuta. Bear ziranak aukeratu ondoren, Batzordeak erabagi eban bakoitzaren
aloga, eguneko bost errial izango ziral a, eta arrantzaten eben arraiña auren-
t zat, Kofradiako ordainbearrak beratuta. Gaiñera eguna itxasoan igaroteko aiña

ardau, ogi eta okela emongo jakoen, egun osoa itxasoan gertaeretan igaroteko eran. Aukeratuak pozik geratu ziran baldintza orreikaz. Bereala treiñeruak tresnaz egokitu ziran eta arrain-txikitan asi ziran, Luis urresti eta Simeon Garra-miola patroitzat eroanez, eta arrantzagaz batean estropadarako gertaerak egiteko.

Asi eta egun gitxitara aldatu zituen treiñeru barriak eta zarrak artu ikasketak egiteko, eta laster egon zan erramularien aldaketa be, batzuk ez ebelako orretan jardun nai eta besteak trebetasunik ez ebelako agertzen. Egunak aurrera eta jendea gero eta adorestuago, estropada egiten ba zan, irabaztea ziurra zalakoan.

Bitartean batetik besterako kartak geldu barik, Zarautz'en batzar bat egitea erabagi arte. Ondarroa'k bere ordezkariak, Kofradiako ordezkarien gain, beste oneik izentatu zitun: Eduardo Nafarrete, alkatea; Silvestre Arrate, osagillea; Pedro Jose Zelaia, Sebero Markuerkiaga eta Tiburzio Urrosolo. Kar-ten egille ta idazle lez Silvestre Arrate.

Zarautz'eko batzarra asiagaz batera, gipuzkoarrak esan eben ez ebela onartzen Ondarroa-Pasai estropadako baldintzarik eta norabide eta ezaugarrien lekutze eta beste egoki ez ziran baldintzak agertu zituen. Zarautz'era joan zan batzordeak (Arrate, Markuerkiaga, Urrosolo, J.A. Agirre kontularia eta beste batzordekide bi) ez euken orretarako baimenik, eta Zarautz'eko batzarra erabagi barik amaitu zan.

Orrek ezezpena lakoa sortu eban arrantzalienen artean.

Biaramonean, Urria'ren 13'an, batu zan Batzordea Kofradian eta erabagi eban norabideari buruz ezin zala onartu Zarautz'en eskatutakorik, ez eta baliza bikotzak ipinterik be, bearrezko ez ziralako, baiña ondarrutar ordezkariak alkar-artu naian egin eben eskariari eutsiten eutsela, au da, amaiera lurretik 800 metrotara egon egiala, 500'era ordeztu, eta estropadako bitartea asierako lez 45 metrotara egon bear zala. Eta treiñeruen luzeran ados ba etozan be, komeni zala zabalerari buruz bardin etortea, eta orretarako sei oin eta amar ontzaren edo ta zazpi oin eta ontza biren bitartekoa izan bear zala, eta onen erantzuna eskatzen zala.

Urteagaz batera Donostia'ko egunkariak eurak nai lez agertzen ziran tratuko goraberak eta ondarrutarrak bildurtu eta atzeratu egin ziralako eta antzerako destaiñak agertzen asi ziran.

Baiña Gipuzkoa eta Bizkai'ko portuetan gero ta gar geiago igarten zan estropada oneri buruz.

Illaren 13'ko idazkiari 16'an erantzun eutsen gipuzkoarrak eta euren baldintzak bost puntutan zeaztuten zituen:

1.- Urteera, Lekeitio'tik itxas barrurako 500 metrotako aldea bitarteko zala.

2.- Norabidea, Getaria'ko San Anton mendi aldera.

3.- Ibilbidea, 10 milla.

4.- Urteerako baliza bi, batandik bestera 45 metro bitartean eukiaz, eta elduerako beste bi, treiñeru bakoitzak bere balizarako zuzenbidean ibili bearez.

5.- Dreiñeruei buruz, len esandakoa.

Eta karta onela amaitzen zan: erantzun zeatza itxaroten dogu, au da, bai edo ez, Kristo'k erakusten dauan lez eta erriak epaitu dagiala.

Ondarrutarrak zeatz meatz erantzun eutsen idazki oneri, bere puntu guztietan: Dreiñeruen zabalerari dagokiona eskabide barri lez uste izan dozue. Oker zagoze. Neurri orreik izan ziran Pasai'gaz jokatzeko kontuan euki ziranak, eta aitatu ba doguz, gero zer esanik ez egotearren izan da, baiña ez daukagu setakeririk agertuta geratu dadin, onetan, beste gauzetan lez, ibilbidekoan ezik, 1.888'n Pasaiagazko estropadan oiñarrizko izan ziranei eustea besterik ez dogu esaten. Miñez erantzun bear dautsuegu ezin geinkezala zuen baldintzak onartu. Onegaz gure zeregiña bete dogula uste dogu, eta kezka barik geratzen gara erriaren erabagia itxaroten.

Oneri gipuzkoarrak erantzuten dautsoe jakitun geratzen dirala ondarrutarrak ez dogula artzen euren axutik (desafiorik) eta eurak be kezka barik geratzen dirala erriaren erabagiaren zain.

Estropada auzia gero ta beroago igarten zan, eta ez alde bateko ta ez beste-koak ezin eben geiago jazan, baiña ondarrutarrak irabaziko eben ziurtasunez egozalako, eurentzako eziña zan geiago itxarotea.

Urria'ren 28'an egiña lez, ondarrutarrak karta bat bialdu eben, estropada Azilla'ren 23'an egiteari baietza emoten, ibilbidea amar millatan zeaztuta, Lekeitio aurrean leorretik 500 metrotara asita, san Anton mendirako zuzenbidean, donostiarrak 14 lagun eta ondarrutarrak be beste ainbeste, eta karta onela amaitzen zan: Geiago ez luzatzeko, mesedez eskatuten dogu erantzunean garbi zeaztuteko estropadako baldintza eta goraberak, barrero Zarautz'en batzean uste bagako alderantzirik egon ez daiten.

Ondarrutarren baietza ikusita, "El Porvenir Vascongado" bilbotar egunkariak lan bat agertu eban esaten gipuzkoarrak, esanak aldatuz, ondarrutarrak bildurtuta estropada bastertu naianerakusten ebela, baiña egia au zala, Ondarrutarrak sekula ez ebela atzera egiten iñoren axutagaitik.

Beste karta batzuk bitarteko egon ondoren, beste batzar bat Zarautz'en egi-tea erabagi zan Azilla'ren 12'an.

Jendea larri egoan tratua sarratzeko.

Pedro M^a Madariaga'k 40.000 errial aurreratu eutsazan Kofradiari estropadako gaiak aurrera eroateko. Bartolomé Aulestiarte'k 20.000 errial aurreratu eutsazan, Zarautz'en ezaugarri lez ipinteko, baldintza onegaz: Kofradiak irabazten ba eban, diru ori jasoko ebala ezelako geigarri barik. Ordez galtzen ba zan, Kofradiari aurreratuta lez geratuko zala %4-an.

Baldintza bardiñetan Andres Campos'ek, Celaya y Cia.ren izenean, berrogei milla errial aurreratu zitun, eta Zelaia'ren alarguna zan Monika Lekue andreak ogei milla, eta geiagok be al ebena aurreratu eben baldintza bardiñetan.

Onetan Azilla'ren 12 garrena eldu zan. Larri egoan jendea, bai arrantzale ta bai leortarren artean, Zarautz'eko azken barria jakin arte.

Alako baten telegrama bat eldu zan, esaten estropadako jokua sarratuta geratu zala.

Illuntzean eldu zan batzordea eta arek ekarri eban baldintzen kopia. (Esan bearreko da ba daukala ze pentsatu pixkat, etorri leiken beste gertaera baterako zer esaten dan eta zer billatzen dan ondo zeaztuten.)

Geldi geldi txikotak lotzen

Itxastar eta arrantzale taldea batzar aretoan batu zan, eta gai batzuk erabagi ondoren, Eduardo Nafarrete alkatea jarri zan maiburu. Onek esan eban estropadarako tratua eginda egoan lez, komeniko zala Kofradiak treiñeruko patroï bat izentatzea, bear ziran erabagiak artu al izateko . Berari izen bi emoten eutsezala patroï lez ebiltzanenak, Luis Urresti eta Ambrosio Bedialauneta, eta Kofradiari askatasun osoa emoten eutsala aukeratzea berak egiteko.

Bakoitzak bere eritziak agertu eta eztabaidatu ondoren, bototara atara zan zein aukeratu eta Luis Urresti'k zortzi lortu zitun bere alde eta Ambrosio Bedialauneta'k ogei ta amabost. Orrela au geratu zan Donostia'ko erramularien aurka jokatu bear zan estropadako patroï izateko.

Egun bat edo besteko gauza izan zan erramulariak aukeratzea, eta oneiri, janaldietarako Bruno Aremayo'ren etxea izentatu eutsen, ogi eta ardaü erraziñoekaz batera. Aukeratuak oneik izan ziran:

Patroia: Ambrosio Bedialauneta.

Erramulariak: Pablo Atxa, Juan Zuazaga, Salvador Agirre, Felix Urresti, Jose Osa, Doroteo Badiola, Migel Aranzamendi, Adrian Bedialauneta, Periko Uribe, Rufino Badiola, Jose Olarreaga, Bruno Aremayo, Domingo Guenaga.

Ordezkozako : Fernando Badiola, Mariano Bedialauneta eta Pedro Larrañaga.

Len esan dan lez, Zarautz'etik batzordea etorri zanean, poza eta alaitasuna besterik ez zan zabaldu errian, gizonik argienak be esaten ebelako tratua ondo egiña egoala.

Egun batzuk lenago jendea, bai erritarrak eta bai arrantzaleak, euken diru-txoagaz Donostia'ra joaten asia zan apostuak egitera. Baiña uste izan zan ego-kiago zala ordezkarï bat Donostia'n ipintea, al zan dirua batu eta erriaren izenean jokatzeko. Erriaren eskabidez Jose Antonio Agirreoa, Iturranan deiturakoa, tratularia izentatu zan orretarako eta beragaz batera bere adiskide zan Jose Martinez. Baldintza bat ipini jakon: Irabazten ba zan, jokatzan zanaren % 2

berari emoteko. Eta urrengo goiza izentatu zan, goizeko seiretan asi eta kotxeak urteten eban ordurarte, au da, zazpi ta erdiak arte, dirua eukanak Blas Iturri-za kontulariari eroateko.

Batzorde orrek, ordu ta erdian, sail bitan, 108.760 errial batu zitun, eta ezin izan eban geiago batu kotxerako denporarik ez egoalako, baiña kotxeak eroan zitun dirutza geiago.

Iturarran Donostia'ra eldu zan, eta andik egun bira deitu eban esanez ezin ebala dirurik jokatu, gipuzkoarrak bildurti egozalako, eta eroan zan dirutza ikusita, goitik botaten astea nai ebela jokutzen asteko. Agirreoa jaunak orretarako baimenik ez eukalako, diru gutzia atzera ekarri eban, ezer jokatu barik.

Atsekabez artu zan errian ordezkariak orrela biurtu bearra. Itxuraz gipuzkoarrak atzerapen faltsu bat erabagi eben diru-jokoan estropada bespera arte, eta egun orretan itsu-itsurik jokatu eben al eben gutzia, ziur jakin barik ze eratan jokutzen eben. Azken baten jendea bakoitza bere aldetik asi zan jokutzen, batzuk goitik, besteak parrean eta alaxe egin zan estropada egun berbertan be.

Gipuzkoarrak, eurei jagoken lez treiñeru biak bardintsuak billatzea eta aukeratzea (dakigunez ori euren eskabidez alaxe geratu ziran) denpora euki eben oiñarrietan esaten zan egunean Ondarroa'n biak agertu baiño len bietan ikasketak egiteko eta treiñeruetan utsunak euren egoki etorkezan lez beteteko. Ain zuzen be denporaldi orretan egun zoragarriak egin zitun amar-amaika egunetan eta Ondarroa'ko Kofradian itxi bear zituen egunerako egunak illuntzen asi ziran eta ekaitz egunak etorriko zirala ziurtatzen zan. Alaxe gertatu be.

Donostiarrak illaren 23'an ekarri zituen treiñeru biak. Barrara eldu ziranean, batzordekoak urten eutsen laguntzera. Domeka zan eta jende ugari batu zan biak ikusten. Ontzi egilleak be ikustatu zituen eta ondo egozala autortu eben.

Treiñeru bat Francisko Polvora'ren jaubetasuneko zan.40 oin eta 10 ontza eukazan luzeran eta 6 oin eta zortzi ontza zabaleran. Au karena zarragaz etorri zan.

Besteak 41 oin eukazan luzeran eta 7 eta ontza erdi zabaleran. Ondarria'ko Ezkerra zan bere jaubea eta egun bat edo bi aurrerago emondako kare-nagaz etorri zan.

Kantauri itxasertzeko kaietan, milla eratako esan-mesanak ebiltzan. Estropadako tratua sarratu aurretik Lekeitio'ko ia Kofradi osoa eta erria Ondarroa'ren aurka egozan. Bermeo'ko kaia ardura berezi barik, baiña eritzia Ondarroa'ren aurkako zan. Mutriku'n, nai ta itxastarrak 1.888'n lez aurka jarri ez, baketsuago agertu zan, baiña al eben gutzia Ondarroa'ren aurka egiten eben. Ezin geinke beste kaietako joerarik zeaztu, danetan be bietarako eritzia ezagutzen zalako, baiña Gipuzkoan eta Bizkaian, garbi garbi Ondarroaren alde agertzen zan portu bakarra, Elantxobe izan zan, eta Bizkai'ko uri nagusia, au da, Bilbao. Beste guztiak Ondarroa'ko Kofradiari makurtu eragiteko zale agertzen ziran, eta benetan be euren guraria beteta ikustea lortu eben.

Treñneruak eldu ziranaz batera Kofradiako Batzordeak erabagi eban ainbat lasterren asi bear zala eurentan probak egiten, eta zein txalopetako gizonak ori egin, sortetara atara eben, jakin eraziz probetara joaten zan erramulari bakoitzari proba bakoitzeko amar errial ordainduko eutsezala eta ardaua, amaitzean. Eginbear ori Arantzamendi, Korta, San Pedro eta Jose Lekue'ren txalopetako neguko gizonei gerta jakoen. Bai eta erabagi eben balizetara joan bear eban gizon bakoitzari bost errial ordaintzea.

Estropadako baldintzetan esaten zan lez, Ondarroa'k Lekeitio'n agertu bear zitun treñneru biak illaren 28'an, eta jendea itzal geratu zan eguraldiak eukan itxura txarragaz, ezelako probarik egin barik treñneruak eroan bearra egoalako. Gogoratu aize gogor, euri eta edur egunak gertatu zirala eta ezin izan zala ezelako probarik egin Kofradikoak nai eben lez. Alaz eta denporarik ez egoalako, aize, euri eta edurretan egin ziran, zela-ala, bi edo iru ekitaldi.

Kofradiak Hilarion Urrosolo izentatu eban treñneruak probaetan egiten zituen denborak artzeko eta Eusebio Beitia beragaz batean. Biak artzen eben denpora eta bata besteagandik batzen eben alderantzia azpimarratu.

Proba bi edo iru egin ondoren, jakin erazi eben, eurentzako Ezkerra'ren treñnerua ariñago zala Polvora'rena baiño, edozetan kentzen eutsalako aldiren bat. Jendeak, ordez, uste eban bestea ohea zala, edo begia obeto beteten eutsan, nai eta karena zarra euki. Azken baten ze erabagi artu ez ekiela zalantzan geratu ziran, eta treñneru barria aukeratzea erabagi eban, emengoak eukan erramutarako egokiago etorralako.

Orain pentsatu daigun, zeñnek ez eban dirurik jokatuko batetik treñnerua aukeratzea norberengan euki eta probaetan batetik bestera aldia egoala jakinda?

Illaren 28'an, baldintzetan erabagia egoan lez, treñneru biak Lekeitio'ra eroan ziran eta an Andres Mendieta'ren astilleroan gorde, jakiña zalako beste anaia, Anton, ondarrutarren aurkako zala eta gipuzkoarren aldeko, bera izan zalako gipuzkoarrei argitasun asko emon eutsezana ondarrutarren aurka al ebe-nik geien egiteko.

Bitartean Kofradiko Batzordeak bere estropadalariak eta erremuak eta estropadarako bear ziran beste tresnak gertu zitun. Gipuzkoarrak atzerakoi eta bildurti igarten ziran egun oneitan. Iru motatako erremuak eukezala esaten zan, irurak pala zabalekuak. Batzuk kalma zuritan jokatzea gertaten ba zan, luzeak eta pala zabalak; atzekaldetik aizea gertate ba zan, beste batzuk eta oraindak be irugarrenak aizearen aurka ekin bear ba zan. Olako esanei iñok ez eutsan jaramonik egiten, eta egia zan iru motan eukezala danak pala zabaldunak. Ordez, ondarrutarrak beti erabilten zituen mota bakarra eukan eta oraingotan gaiñera 1.888 urtean Pasaiagaz egin zan estropadak erabilitakoak baiño labur eta pala gitxiagokuak.

Lau-bost egunetan, illaren 30 arte, eta gero illaren lenenguan, benetan txarrak gertatu ziran, edur eta otz andiekaz.

Illaren 29 eta 30'tan gipuzkoar kotxe asko igaro ziran Lekeitio aldera, erri onek edozetan laguntzen eutselako, eta aurrez egozan Lekeitio'n donostiar erremulariak. Bilbotarrak, batez be Nautiko Alkartekuak, eguraldiari jaramon barik, Lekeitio'n batzen eioazan.

Batzordeak patroï eta erremularien azken aukera eta izendatzea egin eban. Bai Kofradikoak, eta estropadetan aitua diran bestelakoak pozik egozan talde onegaz.

Illaren 29'an barrero karenatu ziran treiñeruak. Ainbat apostu egiten ziran, baiña ez egoan iñor Ondarroan aurka egingo ebanik.

Lekeitio'ko Kofradiak Ondarrutarrei desafioa bialtzea erabagiten dau. Bilbotar egunkarietara bialdu eben ortazko idazkia, baiña ez eben argitaratu eta "La Voz de Guipuzcoa"n agertu zan.

Lekeitio'tik beste barik gizon bat bialdu eben Ondarroa'ra desafio orregaz, Donostiarrekaz jokatzeko egindako baldintza bardiñetan jokatzekotan. Orain 37 urte euren gurasoak garbitu barik laga eben zorra ordaindu nai ebela esaten eben.

Ori ikusita Kofradian batu ziran arrantzale zarrak, dirala 37 urte lekeitiarrei irabazi eutsenak, eta beste patroï batzuekaz batean au erabagi eben: Lekeitiarrei erantzutea gertu egozala estropada bat jokatzera, baiña treiñeru andiagoe-kaz, neguan arrantzan erabilten ziran erremulariekin, eta beste bat biarko estropada jokatu dan antzeko treiñeruekaz, estropada bakoitzeko bost milla ogerleko jokatuz, Urtarrilla edo Otsaillean jokatzeko, eta ontzat artzen ba eben illaren 30'an estropada asi baiño len ezaugarria ipinteko.

Batzorde bat aukeratu zan, Nafarrete alkatea, arriola ontzigiña, Blas Iturri-za kontulariagaz. Lekeitio'n Manuel Garabilla'k eukan ostatuan batu ziran, Okamika eta Erkiaga Kofradiako kontulariekin, eta eurekin batean don Hilario "Mutur" eta Karrera eta Renteria jaunak. Estropada bietako ezaugarria ordain-tzera joan zirala esan eutsen.

Lekeitiarrak, eztabaida baten ondoren, erantzun eben eurak ez egozala ger-tu estropada biak jokatzera, bat bakarra baiño, treiñeruekaz. Ondarrutarrak tes-tigutzat batzuk artuta, euren agertu eta aldendu ziran.

Illaren 30'an goizetik agertu ziran ibilbidea aztertu bear eben ontziak, bali-zak ipiniak, eta goizeko zortzirak ingurura aukeratu eben ondarrutarrak euren-tzako treiñerua. Eguraldi otza eta aize zazkarra itxasoan. Ondarrutar erremula-riak Lekeitio'ra eldu eta jokatzeko itxurarik ez egoan lez, Nabarro'ren ostatura joan ziran. Leorreratzen asi ordukoxe, Lekeitio guztia ondarrutarren aurka txis-tuka asi zan, kanpora eta deadar itxusiak egiñaz.

Une onetan Bilbo'ko Club Nauticokuak be bertan egozala, oneri be laidoka ekin eutsen. Eguerdia igaro ondoren erabagi zan estropadarik ezin zala egun artan jokatu, eta ondarrutarrak barrero euren txalopara joan ziran etxerako asmotan. Baiña molla ingurua egozan arrantzaliak, txistuka eta deadar garra-tzak eta gogorrek egiten eutsezan.

Club Nautico'ko askok, ori ikusita, Ondarroa'rako bidea artu eben, arrantzaleen arteko ainbeste asarre ikusita. Baporak Ondarruko bidea artu eban, biaramonerarte.

Era bardiñean urten ziran illaren 1'an erremulariak eta gañerakoak Lekeitio'rako. Bilbo'ko baporak atoian eroan zituen ondarrutar txalopak. Erremularietako iñor ez zan baporetik urten, patroia ezik. Ikusirik eguraldi txarrak jarraitzen ebala eta ezin zala estropadarik egin, alde bien artean erabagi eben illaren bigarrenean jokatu ezin ba zan, une egokia zala erabagiten eben egunean jokatuko ebela. Eurentzat atzerapen oneik gastu ugari leporatzen eutsezan. Bigarrenez euren tokietara biurtu ziran.

Illaren bigarrena eldu zan, Bibiana deunaren eguna. Eguna bigun eta baretsuago agertu zan. Iru bidar aztertu eben giroa eta azken baten eguerdiko amabietan jokatzea erabagi eben.

Genteak, batez be itxastarrak, goizetik esaten eben egun aretan jokatuko zala, edozer gertatuta be.

Jende asko igo zan santa Clara'ra eta inguruko bidetara, eta benetan kezka-ti igarten ziran, ondorena ikusiarte. Eguerdi aldera igarri zan txalopak gertuten ari zirala, eta gipuzkoarren juradua eroan eban bapor-ontzia, barruko aldetik jarri zala. Orregaz uste izan zan sortea gipuzkoarren alde gertatu zala eta oneik barrukaldetik jokatzea pentsatu ebela eta ondarrutarrak kanpo aldetik. Alaxe gertatu zan. Kofradiko arrantzalerik geienak, euren txalupetan toki egokietan lekutu ziran, eta beste asko mendietara igo edo ta ondo ikusiko zala uste zan tokietara.

Ordubiak inguruan igarri zan treñneru biak euren tokietan egozala eta laster entzuten pusillaren tiro bat lakoa; origaitik tarteko batek esan eban, asi dira estropadan.

Andik bost minututara igarri zan barru-aldetik etozanak aurrerago etozala, au da, gipuzkoarrak.

A zelako une larriak arek! Batzuk gauza bat esaten eben, besteak bestera, eta orrela. Bidetako ikusleak laster asi ziran negarrez etxeratzen, samin eta penaz beteta. Estropadetan aituak ziranak esaten eben gipuzkoarrak astiro bogaten etozala, eta txalupea patroiak txori baten antzera erabillala, ezelako indarkeri barik. Ostera ondarrutarrak indar ugari egiten igarten zirala, eta alaz eta be ezin aurreratuta ebiltzala. Laster ikusi zan uste zan ziurtasuna bertan zo galtzen zala.

Ezin leike agertu egun gogoragarri onetan zelako atsekabe eta negarrak egon ziran erriak.

Ibillera egin zan, esan ebenez larogei minutu eta segundo batzutara gipuzkoarrak amaituaz, eta ondarrutarrak minutu bat eta segunduak atzerago. Oneik ikusi ebenean ezin irabazi ebela, azken alegiñik egin barik amaitzea nai izan eben.

Orra ba, ikusi da estropada onetan zar eta gazte, aitu eta bestelako guztiak,

oker egon dirala euren irizpidetan, eta euren itxaropenak bertan bera jausi dirala, estropada egin aurretik ondarrutarrei iñok aurrerik artu ez ba eutsen be, oraingotan ikusi dalako ondarrutarrak ezin izan dabela ezetara be gipuzkoarrei aurrerik artu, eta ez dakigu zer gertatu dan orretarako, nai ta berbaleku asko ibili.

Ondarroa'ko Kofradiak daukazan aiña arerio igarrita, bera beratu naian ainbestean ibiliaz, bera beratu naian ainbestean ibiliaz, ikusten zan egunen baten gure Kofradia euren sarepean jausiko zala, eta ba dirudi euren gurariak bete dituela, baiña denpora obeagoak artuko doguzan itxaropenik ez da galdu bear.

Ondarroak garaitza galdu ba dau, ez da izan esku eta indar faltaz, konfiantza larregi, ikusmen gitxi eta erremu mota eta beste gauzetan irakatsirik euki ez daualako baiño.

Kofradiako Batzordea batuta adierazi eben ez daukela mutillakaitik txarrrik esaterik. Erremulariak euren indar guatiak ipini ditue eta ondo, ezin eikien euren aldetik geiagorik egin, baiña akatsa ba dakigu nun egon dan. Orain ez daukagu besterik, denporaldi barri baterako jazan eta estropada dala-ta egindako zorrak ordaintzea baiño.

Egun bi irutara zer esan ugari euken mariñel jenteak. Batzuk esaten eben akatsa erremuen palaetan gelditzen ebalako eta erremularien indarrari aurerritzen lagaten ez eutsalako eta biratan ipini bear ebala txalopea eta ez ebala olakorik egin. Beste batzuk okerra treiñeruen probaetan egon zala, eta orrela zenbat buru ainbat aburu batzen ziran galtzearen errua billatu nairik.

Galtze au mintsu izan zan Bilbotarrentzat eta batez be ango Club Nautiko koentzat.

Andik laster Batzordea batu zan eta oneik Kofradi guztia eta erabagi oneik artu zituen: Amalau erremulariei eta patroiarri be, bakoitzari 75 peseta emotea, au da, irureun errial, eta Simon Garramiola'ri, mutillei erakusten ibilteagaitik, 20 peseta.

Eta Kutxan dirurik ez egoalako, Batzordeari eta Kontulariei baimena emon eutsen diru ori billatzeko, erreditua ordaintzekotan, eta lendik batut egoanagaz batera, 1.891'ko Urtarrilla'ren 2'an kittapena egitea. Alantxe egin zan.

Len esan diran Madariaga, Zelaia eta Lagunak, Aulestiarte eta Lekue'ren gain, Maximina Balzola andreak zortzi milla errial emon zitun gastutarako, Pedro Usandizagak amar milla errial, Leon Markue'k sei milla errial eta Ines Arrizabalaga'k lau milla errial.

Bilbo'ko Club Nautiko'k arpidetza zabaldu eban eta 16.280 peseta batu ziran. Diru orreik Urtarrillean ekarri zituen. Inguruko aldun zan Manuel Allende Salazar'ek 500 peseta emon zitun, Markina'ko Manuel Murga'k 200 eta Alfredo Perez'ek 250.

Dirutza onetatik, Urtarrilla'ren 17'an egin zan lez, arrantzale bakoitzari 25 peseta banatutea erabagi zan, baiña ortik 70 errial andrentzako ziran eta beste 30 arda diru lez gizonentzat.

Bai eta erabagi zan arrantzale bakoitzan alargunari, mairako semerik edo suinik ez ba eukan 70 errial banatzea, eta bardin agure, gaixo eta gai ez ziranei eta bardin baita soldadutzan egozanei.

Banaketa ori egiterakoan, ikusi zan ez zala danentzako elduten, alargun eta soldadu asko agertu ziralako, eta ori ikusita, batzordeko zan Pascasio Arrizabala'k agindu eban berak ordainduko ebalá falta zana.

Oi danez, egun orretan jendea pozik ibili zan, orrelako banaketak arrantza-líen familietan eroaten daben atsegiñez.

1.891'ko Maiatzaren 11'an Kofradiko arduradunik geienak batu ziran batzarrean. Kontuak aztertu ziran eta ikusi zan Epaila'ren 10 arte Donostiarrekazko estropadak 31.360 errialeko zorra eragin ebalá. Ez zan sartzen bilbotarrak ekarten eben bapor-ontziaren gasturik, nai eta erakundean egunak igaro, gastu guzti orreik Ramon de la Sota jaunak bere gain artu zitulako. Orrez gaiñera "El Porvenir Vascongado" egunkariak, estropada zala egindako dei eta iragarki guztien kostutik % 50 beratu eban.

Eta oraingo eta urrengo Kofradi onetan izango diran argibide eta jakingarritzat, Kofradiko bigarren kontulari dan Blas Iturriza'k zeaztasun guztiak liburu onetan batu nai izan ditu, bere lanetik euki izan ditun tartetan, geien be gertatuko ba litz gipuzkoarrekin edo donostiarrekin beste bizkaitarren batzuk jokatut bearinga, jakin dagien 1.890 urteko Abenduaren 2'an, Bibiana deunaren egunean zala galdu eben ondarrutarrak, eta alegin egin dagien 1.888 urtean bizkaitar izena ondarrutarrak zaindu eben neurrian goratzen, kontuak eukiaz egon leikezan aurrerakuntza guztiak bai erakusten, bai erremu sailletan, eguraldia zelako alako neurrikoak gertu eukiaz luzeran lez palaen zabaleran be. Eta bardin ondo aztertu dagiezala 1.888 eta 1.890 urteko estropadarako baldintzak, batez be eroapen eta soseguz jokoá sarratuaz, orrela, danak batean eta alkartuta garaitza lortu dagien, danok eta au idazten daben kontulariak be nai dauan lez, bere irakurleei eskatuz billatu leikezan ortografi akatsak parkatzeko.

Ondarroa'n, 1.891'ko Dagonillaren (Abuztuaren) 1'eán.

Kofrado onetako Bigarren kontuñari dan Blas Iturriza'k.

Iturriza'ren kronika

Ba dakigu Iturriza kontulariaren kronika au luzaro eskutuan gorde zala, ondarrutarrak entzun be ez ebelako nai estropada orretako koturik. Esan giñei Ondarrurako ondamendi itzala gertatu zala ain ziur egozan estropada orren galtzea. Garratz, negarrez eta ondasunak urrituta, baiña iruntsi bear. Ainbeste-koa izan zan erri osoaren berotasun eta garra joko orretarako.

Zelakoak izan ziran tratuko baldintzak, urrengo baten kontu obeagoa eukiteko Iturriza'k esateko?

Ikusi daiguzan eurak, eta aztertu begiez gai oneitan sartuta ibiltan diranak.

1.890 URTEAN ONDARROA ETA DONOSTIA'K JOKATUTAKO ESTROPADARAKO BALDINTZAK.

Zarautz'en batu ziran 1.890'ko Azilla'ren 12'an, ordezkariak. Ondarroa'tik Jose Antonio Agirre "Burgo" eta Donostia'tik J. Francisco Irastorza, biak erremularien ordezkari lez, euren artean tratua eginda euken estropada jokatu al izateko baldintzak erabagiten.

Eta erabagi oneik artu zituen:

1.- Estropada treñneru erabiliekin jokatu da. Euren neurriak, une oneitan zeaztasunez ezin erakutsi al ba dira be, muga oneik barruan sartuko dira. Luze-
ra, ez da 40 oin baiño beragokoa izango ez eta 42 baiño geiagoko be. Zabalera 6 oin eta zazpi ontza eta zazpi oin bitartean.

2.- Treñneruak erabilteko Ondarroako 13 erremulari eta patroia alde batetik izango dira eta bestetik Donostia'ko 13 erramulari eta patroia.

3.- Ibillera bitartean patroiak ezin laga izango dautso beste iñori bere toki-
rik, alaz eta bertatik al dauan trebetasunaz jokatzea azke izango dau, orregaz esan nairik, barruko amalau gizonek eurei derizkioen eran erramutan egin al izango dabela.

Treñneru barruan ez da erabiliko jarrileku edo tosta faltsurik, ez eta treñne-
ruak oituraz erabilten ez dauan beste tresnarik be. Alaz eta gura aiña erremu,
estropa eta tolete eroan lekiez.

3.- Donostiarrek treñneru bardin antzeko bi aukeratuko dituez eta probatu
ondoren, karenatuta eroango dautsez Ondarroa'ra ango erramulariei; oneik be
probatu al izango dabez, barruan ezelako barrizatzerik egin barik, eta Lekei-
tio'n agertu bearko dabez illaren 28'an, aurrez donostiarrei jakin eraziz, Lekei-
tio'n izte ori ikusi nai ba dabe.

Treñneruak leorrean egongo dira estropada asi baiño ordu bete lenagorarte,
eta orduntxe aukeratuko dabe ondarrutarrak komeni jakoena. Oneik alderdi
bietakuak barriro aztertu al izango dabez, eta barriro karenatuko dira illaren
29'an. Zeregina au lekeitio'ko ontzigille baten kontura itxiko da.

Orrez gaiñera, talde bakoitzak bere treñneruan deritxozan tolete barriak ipi-
ni al izango dauz estropada asi aurretik.

4.- Ibilbidearen luzeera amar milla izango da. Urteera Lekeitio'ko Ugarte-
tik itxas barrura 500 metro neurtuaz ipiniko da. Ortik asi eta Getaria'ko san
Anton'erako zuzenbidean neurtuko dira ibilbideko amar millak eta eurak bete-
ten diranean mugatuko da elduera.

5.- Urteerako baliza bi ipiniko dira eta elduerako beste bi. Urteeran treñne-
ru bakoitza, bata besteagandik 45 metrotara gertuko da, eta eldueran neurri bar-
diña zainduko da.

6.- Erabagiten dan señale bat bitarteko, estropadaren asiera emongo da, eta
biak beartuta geldituko dira ibilbidean alkar jo edo orrelakorik ez egitera.

Orrelakorik gertatuko ba litz, juradukoen gain geratzen da erruduna nor izan dan erabagitea, eta erruduntzat jotzen danak galduko dau estropada.

Estropadaren asieran egongo diran juraduak, ibilbidea ontzi-bapordun baten jarraituko dabe, aldi egoki bat atzetik, eta eureri dagokie len esandako naurriak artzea.

7.– Alderdi bakoitzak juradu bi aukeratuko dauz, eta errialde bietako Itxaskomandanteei eskatuko jakoe irugarren bi izentatzeko. Orrela, urteeran iru juradu egongo dira, bi erremularen aldekoan, eta irugarrena eurekin zer galdurik ez daukana, eta bardin eldueran be. Onein zeregiña gorago esanda geratu da.

8.– Estropada il onen 30'ean jokatuko da, eta eguraldi txarragaitik jokatu eziña gertatu ezker, biaramonerako itxiko litzake, eta emen beegin ezik, urrengo iganderako atzeratuko litzake, eta orrelaxe aurrerantzean.

9.– Estropada asi baiño len, sortetara atarako da bakoitzari zein urteerako tuntux, baliza dagokion. Juraduei dagokie egon leiken naste edo eskariak erabagitea, estropada bardintasunez egin al izateko eran.

10.– Baldintza oneik zapaltzen dituanak seña lez Azpeiti'ko Roke Artidia eta Mimendia'ren eskuetan ipini diran 5.000 pesetako ezaugarria galdu egingo dau.

11.– Estropadarako izentatu dan eguna baiño lan egun lenago, talde bakoitzak berari dagokiozan 20.000 peseta Banco de España'n ipini bearko dauz. Ondarrutarrak Bilbo'n eta donostiarrak Donosti'n.

12.– Treiñeruak gertu, eurak bearrezko baldintzetan ipini eta estropadako beste gastuak, alderdi bakoitzak erdiz-erdi ordainduko dauz. Or ez dira sartzen tald ebakoitzak probetan egin leikezan gastuak, orreik bakoitzaren konturako izango diralako.

13.– Illaren 29'an lekeitio'n batu bearko dira talde bietako ordezkariak, ezaugarriak ipini eta ibilbidea neurtuteko.

14.– Elduerako juraduak amaierako ertz baten egongo dira.

15.– Ondarroa'ko erremulariak aukeratzen daben treiñeruko tostak estutu edo zabaldu al izango dabez, baiña tokiz aldatu barik.

16.– Estropada goizeko amarretan asiko da.

17.– Taldetatik kanpora aukeratutako juradukoen tokia sortera atarako da. Urteeran egotekoak, ibilbide gutzia jarraitu bearko dau beste juraduekin batera, euren baporean, seigarren atalean esaten dan lez.

18.– Elduerako juraduak illaren 30'an balizen egoera aztertuko dau, eta amaierako ertza mugatzen daben txalopa baten egongo da, beste txalopa utsik gelditzen dala.

19.– Elduerako juradua eroateko erabiliko dan bapor-ontzia, amaierako balizen artean geldituko da, eta ibilbidearen luzapenetik 20 metro ingurura.

Izenpetu dabenak: J. Francisco Irastorza.– Jose A. Aguirre.– Eusebio Fuentes.– Eduardo Nafarrete.– Jose Leon Lasarte.– Severo Markue.

Jakingarri geiago

Erri bakoitzak, juradutzarako, lau lagun aukeratu zitun.

Donostiarrak aukeratuak oneik izan ziran: Franzisko Muñoa, Juan Jose Larrea, Franzisko Irastorza eta Eusebio Fuentes.

Ondarrutarrak beste oneik: Ramon de la Sota, Isidoro Lafite, Fausto Mada-riaga eta Eduardo Nafarrete.

Juraduak berak erakusten dau zenbatean sartu ziran estropada onetan errie-tako agintariak eta errialde bakoitzeko gizon andiak.

Odol beruak

Gu jaio baiño urte asko lenago jokau zan estropada a. Baiña gure denpore-tan be entzun eta jakin izan doguz aren ondorenak.

Gaur ez da iñor bizi Ondarroa'n a ezagutzeko adiñik euki ebanik. 103 urte dira jokatu zala.....

Gu ez guaz esaten erri osoak itsu jokatu ebanik. Ori une aretan bizi eta estropada berberaren gertaera, autu-mautu eta erakundean, bertarako diru bat-zen eta ainbat zeregiñetan ibilli zan Blas Iturriza, Kofradiako kontulariak argi eta garbi idatzita itxi eban, "ondorengoan eskarmenturako" edo geroagokoen jakingarritzat.

Guk beste zerbait esan eta azpimarratu giñei: estropada odolak berotzeko jokoa izan dala gure itxasertzean.

Gaur estropada ugari jokutzen da, eta ugaritasun onek galtze eta irabazieta-rra errezago oituten gaitu. Aukera geiago eukiten dogu joko lez barik, kirol lez artu eta ikusteko. Baiña len ez egoan orrelakorik.

Gaur era bat edo bestera gainduten diran gorabera asko, len arantza zorrotz izaten ziran, eta uretak iraun arantza ziztadak erakarten eban sornatzeak.

Gure denporetako estropadetan be igarri izan gendun estropada onek ingu-ruko errien artean itxi eban urratsa.

Bere denporan zerbait gertatu, odolak bero-bero egozala bat-batekoen bat entzun eragin, edo zemaian bat itsukeriz esan edo jaurtiteak, edo ta eskuak zapartadaka erabiltea....ori beste kiroletan be igarri edo ikusten dogu.

Askok itaunduten dabe: Sota'k euki zitun ainbeste itxasontzien artean, zelan ez eban "Ondarroa" izenagaz bat bedeinkatu?

Gitxik pentsatuko dabe onetan estropada entzutetsu onek ze ikusirik euki eikeanik.

Ikusi dogu Sota'k bere gain artzen zitula estropadarako juradutza egin, erramularien joan etorrietan lagundu edo beste ainbat arasotan erabilten zan bapor-ontziaren gastuak.

Beraz ondarrutarrak begiko eben eta berak be maite gure erria. Ori ala, zegaitik bere laguntaldeko itxasontzien zerrendan ainbat Bizkai'ko erri eta inguruen izenak ipini eta "Ondarroa" ez?

Ainbestean berotu ete ziran iñoiz odolak?

Orren erantzuna "El Bilbao del Novecientos" liburuan billatzen dogu.

Liburu orretan, Rafael Ossa Etxaburu bere egille ondarrutarrak kontaten dau, berari Ramon de la Sota eta Aburto'k Biarritz'eko "Etchepherdia"n, 1.968 ko Abenduaren 10'ean au agertu eutsala:

"Sota, ontziak egin-ala, eurentzako izen barrien billa ebillan. 1.896 urtean "Lekeitio" ipini eutsan urte aretan itxasoratutako 2.272 toneladako bateri. Eta urrengoak "Ondarroa" izan bear eban. Alaxe zan bere guraria.

Baiña ez eutsen "Ondarroa" ipini. Eta esango dot zegaitik.

Negu gordiñean Ondarru eta Donosti artean euki eben estropada gogor eta gogoangarri baten, ondarrutarrak nire aitari eskatu eutsen euren ordezkari izateko estropadetako juraduan.

Estropada egin zan. Ondarroak galdu eban eta ondarrutarrak, errua emotean, nire aitari, treiñeruko patroiarri eta estropada a eratu ebenei emon eutsen....Eta Karril azkarra izan zala esaten joan ziranean, erramuketa egokiago bat asmatu besterik ez ebal, eta ondarrutarrak, guztiz sendo eta erramulari andi izanarren, modatik pasatako erramuketan jarraitzen ebela esan ebanean.....Ez eutsen errazoirik entzun nai izan; arrika egin eutsen, berba txarrak esan eutsezan eta ariñeketa baten iges bearra · euki eben, eta orduantxe nire aitak, beragaz euki eben destain origaitik, ez eutsan "Ondarroa" izena ipini, Bizkai'ko itxas-ertzeko toki eta inguruen izenei jarraituz urrengo itxasontziari egokion lez....."

(Ikusi Rafael Ossa Etxaburu'ren "El Bilbao del Novecientos, Riqueza y Poder de la villa, 1.900-1.923, bere 49 eta jarraiko orrialdetan. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbao)

Ossa Etxaburu izparkari eta idazle zeatz eta zintzoa dala, akats bat billatzen dautsagu, beragan arrigarri dana, idazki onetan.

Sota'ren min eta naigabea andiago izan zala, diño, kontuan eukita ille batzuk lenago, Sota'ren yate batek Santander eta Castro bitartean, Caballo deiturako ingurutik 12 millatara ebillala, tirabira eginda egoan ondarrutar txalopandi bat begiztatu ebala goiz-aldean, eta alegin biziak egin zitula arrantzale arein laguntzan, eta itxasoa latz eta gaizto agertuarren, yateko laguntzailleen arrisku biziz, txalopandira urreratu eta bi ittoarren, beste sei bizirik jasotea lortu ebela.

Origaitik Ondarroa'ko Arrantzalien Kofradian gertaera orretako kuadru bat ipinita egon zan, arrantzaleak Sota'ri esker ona agertzen.

Guk esan bear dogu, idazleak naste bat euki dauala agerpen onetan, gertaera bat eta besteak ez ebelako lotuerarik euki katean.

Estropada 1.890 urtean izan zan, eta ez 1.899'n, erratuta agertzen dauan lez.

Beraz estropada baiño ia bederatzi urte geroago izan zan "Josefita" txalopandiaren salbamentua, eta ez or iruditzen dan lez, lau illabete aurrerago.

Edozetara be, arrantzaleak Sota'gaz, bere semeak kontaten dabenean, estropadako urtean brastadako zerbait euki ba ebebe ne, arrantzaleak izan ziran dana aztu eta geroagoko laguntza ori Kofradi guztiaren izenean eskertu nai izan eutsenak.

Karril'en ondorena eta ondarrutarren gizatasunezko biozkada.

1.890 urteko estropada aretan, ondarrutarrak Karril eta Ambrosio arteko estropada lez ezagutzen dabenean, diru asko jokatu eben emengoak. Bai eta tresna eta beste ogasunak be, nai eta batzuk eguneroko premiñetakoak izan.

Familiko ondasunak, lanekoak, ogibidekoak, doteak, etxearen jatorrikoak, bakoitzaren pitxiak....al ebena edo eukena, lenengo dirutan jokatu eta gero zela-ala dirutara biurtuta, edo ondamendi ondoren Karril'en lagun andi batek erabilten eban "Avelina" izeneko txalopa. Ain zuzen be Francisco Iturriza, "Polvora" k irabazi eutsan estropada aretan Ondarroa'ko ontzitegi bateko jaubeari. Eta "Polvora" au zan estropada aretako treñneru baten jaubea, ain zuzen be Karril berberak erabili eta estropada irabazi eban treñneruarena.

Estropada jokatu eta ia urte bira, 1.892'ko Urrilla'ren 19'an, eguerdi inguruan, Karril botakar naian, lantzoi naian arrantzan ebillan, Donosti'tik bederatzita milla ingurutan. Barruan 13 lagun. Euretari zortzi beragaz estropada egiñak.

Bat batean, ezelako neurririk artzeko denporarik barik, aize bolada zoroa sortu zan.

Ordukoak esan eben une aretan Karril'ek bere erremua eskutik itxita eukala eta era orretan txalopea bereala trabestu zala, eta aizearen bultzadak tirabira eragin eutsala, gizon guztiak uretara jaurtiaz, eta gero oneik al eben eran, txalopako killari eta al zanari ezin eutsita alegintzen zirala, sinistu ezin alako indarraldi eta alegiñetan.

Era orretan iraun eban txalopa eta gizonak une luzean. Eta etsipena sartu, txalopa bat eurekaz konturatu barik igaroten ikusi ebenean. Gizonak, banabanaka, indarrak galtzen igarriagaz batera, geiago eutsi ezinda, ondoratzen asi ziran. Gelditzen ziranak, ori ikustean, eurak be makaltasunak errezago jo eta artu eta jausten ziran eta ur sakonetan itto.

Alako baten, "Avelina" treñneruak atunetatik etorrara, ikusi zitun eta berari esker lau gizon bizirik salbatu ziran.

Orrelako gertaeretan gizonak zelako arren eta eskintzak egin daikezan, sarri irakurri izan dogu ondamendien gertaeretakoz azken uneak nok kontatu egon izan danetan.

Oiturazko eben arrantzaleak orrelako gertaeretan euren Zaindari eta maitasuneko santuei promesak egitea eta emen be, lau gizon oneik Lezo'ko Kurutzarra joan ziran ortozik euren promesa beteten.

Orrelako ondamendi batek zotin eragiten dau beti arrantzalienen artean, eta

oraingotan, estropada entzutetsu a bitarteko, oraindik geiago, Karril berbera an itto zalako.

Oitura zan, ittotakoen famili eta senideen aldeko eskeak egin ziran, eta errukizko dei ori inguru zabalera eldu zan.

Ondarrutarrak, eurak be orrelako egoera larrietan sarri gertatuta egozalako, miseri gorrian biziarren, dana aztuta, arrantzale anaiek egoera aregaz gogoratu ta bakarrik, euren laguntza eskiñi nai izan eutsen donostiarrei.

Ondamendia gertatu eta andik iru-lau egunetara, Kofradia Batzar berezian batu zan, eta ao batez, gizatasunak txikikerien gaiñetik atara eta lortzen daben biozkadaz, bosteun pesetako laguntza bialtzea erabagi eban.

Dirutza ori Ondarroan “doña Monika” lez ezagutzen zan andre alargunak eroan eutsan Donosti’ko alkate zan Lizarriturry jaunari, Kofradiaren izenean. Eta biozkada ori aldi aretako egunkaririk andienak goratu eben, bai ingurukoak eta bai Madrid;ekoak be.

Orrela erakutsi nai izan eben ondarrutarrak estropada egunetako jokoa dala, urtetako urratsagaz, baiña giza anaitasuna bizi guztirako itxastarren jokoa.

Ikusi estropada oneri buruzko bertsoak:

1.890.– Ambrosio eta Karril’en estropada.– Ambrosio Sagastume.

1.890.– Ambrosio eta Karril’en estropada.– Franzisko Etxebarria.

Sail biak irabazlearen aldeko dira, beraz ondarrutarren aurkako.

ONDARROA.
REGATA DE BILBAO CELEBRADA EL 31 AGOSTO 1865.
ÚNICO PREMIO DE HONOR.

Estropadetako banderarik zarrena.

1.– Milla ta zortzireun ta larogeita amar urte abenduaren biya señaladamente, berso bi paratzeko enkargatu naute gure estropada eder au dala mediante, zer ausunto pasa dan esan bear nuke.

2.– Ogeita zortzi lagun treiñeru biekin, gizon eskojitubak beren arraunakin, estropada egiten dute batak bestiaikin jendia nungua zan nai dubenak jakin, gipuzkuana zan bizkaytarrarekin.

3.– Lekeitiotik zuben estropadak salida, iru legua bide markatubak dira, bazala nago zeñek arraunari tira, guztiyak artakuak peleatu dira, guza atsegiña zan oyeri beguira.

4.– Bizkaitarra asi zan bastante nekatzen, petxutik estututa indarra bajatzen. Luis patroya asi zan orduban mintzatzen, ya mutillak asi arraunak dantzatzen, jota pasa ditzagun aurrera guazen.

5.– Luis egiten ziyoten txit modu onian, ya nere semiak egin arraunian, mutillak alimuan artu dutenian ogeira brasa bire bai golpe bakoitzian urik ikutu gabe txalopa aidian.

6.– Bestia dubenian atzetik ikusi mantendu arraun oyeck bentaja oni eutsi etzan arriskatuba interesa gutxi, egun milla duro bai artu edo utsi, gure donostiarrak orra irabazi.

7.– Egun gizon ba daude eskui ta eskerrak estropan jokatzeko langille askarrak, gaztiak geldituta juan zaizkate zarrak, eztituzte ikusi arraunlari txarrak, donostiyako seme joshemaritarrak.

8.– Presiso eztitza zarrak sasoi andikuak, ogeita emezortzi urte andik berakuak, gizon indar aundiko markas fuerakuak, beren pulso fiñekin petxo onekuak, probintzikayo seme Gipuzkuanuak.

9.– Bizkaitar oyeck ere txit giozn fuertiak empeñatu dituzte abilidadiak, azkarrak dira bañon guriak obiak, ori deseck zuben emengo jendiak, danok tiratzen gaitu bakoitzak beriak.

10.– Patroyarentzat ba zan milla oparisa fin jokatuko zala eman zuben itza etzala mudatuko beste askoren giza, Luis Karril jarri da estropako giltza, askok nai ez du bañon alperrik dabilta.

11.– Gipuzkoari eman, Bizkayari kendu, bere jendearekin prueba ona eman du, gizona portatu da ederki egin du bere onerikan etzuben nai galdu, ez diamanterikan kobre truke saldu.

12.– Tripulasiyo dana da jende berdiña, onek sendatu digu Gipuzkoan miña, ain da gizon zuzena leyala ta fiña, espiritu utsarekin bakarrik egiña, Jainkuak artarako apropos egiña.

13.– Donostiyak jaso du onoria franko arraunian jendia abilla dalako, amaren sabelek datoz artarako, beren ofiziyorik eztute lagako, au da loteriya bat Gipuzkoarako.

14.– Bandera eskribituba dute erakutsi kosta kantabriyan daudela nagusi, estropa jokatuta degu irabazi, berak nai omen luke Donostiyan bizi, berriz eskubetatik ez dezagun utsi.

15.– Tisiko gelditu zan guretzat bandrea, medikuak jua zaizka bisitatutzero, enfermedade txar au biatela atera, iñori egiten ba da puska orren galdera, Donostiyara etorri da leku aldatzera.

16.– Laguntza eskatzen diyot Amabirgiñari aditzera emateko mundu guztiyari, partikulari gure euskal erri oni, nola irabazi degun bandera eder ori, jardiñean asitako loria dirudi.

17.– Amalau gizon formal beren desensiyon Luis patroï dutela daude kompañiyan, tripulasio ederrau daukagu erriyan, nai bada errespetatu kosta kantabriyan, orra lumero uno jarri donostiyak.

18.– Geldituko ba giñan iñor ganatziyan, presisamente batek galdu biar zian, pakian bizi biagu Jaunaren garziyan, publikatzera nua Europa guziyan, zer jendia atera dan Kosta kantabrian.

19.– Kantabriyako seme txapel txikidunak noizbait ikasi dute dantzatzen arraunak, guztiyak ezagunak, alkarren lagunak, pakian pasa bitez gabak eta egunak, denak portatu dia biba eskaldunak.

20.– Orra ogei bertso berri jarri mundurako, Kosta kantabriyonen akuerdurako, memoriyan artuta ikusi geroko, bosna sentimo daude paperak saltzeko, gizon miserable bat

21.– Biba Gipuzkoa ta Biba Donostiya, kanta abek firmatzeko daukat sententsiya, Francisko Etxebarria da nere graziya.

AMBROSIO
TA KARRIL'EN

ESTROPADAKUAK
1.890

ANTONIO SAGASTUME
"ALEGRIA'KO"

1.-Milla ta zortzireun da
laroi ta amarrian,
apustura bat izan
degu arraunian,
Bizkayan Ondarrua
deritzan errian,
bandera artzen zuten
eskilla torrian,
inbenzible zirala
Kosta Kantabrian.

2.- Gipuzkoano asko
ori ikusita,
izketa formalian
adierazita,
pakea gendukela
bandera jetxita,
bizkaitarrak kontesta
gaizki iritzita,
"guk ori jartzen degu
ondo merezita"

3.- Amalau Donostiar
Luis patroï dutela,
ez dirade unitu
kuadrilla ustela,
abisatu zioten
biar dan bezela,
bandera torretikan
kendu dezatela,
bestela jokatzeko
planta zitezela.

4.- Karta ori artuta
ondorean gero,
bizkaitar oyek ziran
izugarri bero,
partidua zarratu
digute aguro,
esanaz "au sakuan
daukagu seguro",
depositatu dute
milla bana duro.

5.- Zarautzen modu ontan
egin da papera,
batzuentzat mesedean
bestien kaltera,
beste kondiziyo bat
nua esatera,
Donostiarrak bear
txalupak atera,
Ondarruatarrentzat
bietan aukera.

6.- Iru legua eta
gañera pikua,
bideak neurtutzero
juan zan nautikua,
gizonak probatzeko
ba zuten naikua,
trayetua izandua
amar millakua,
Zarautzen firmatu ta
bertan sellatua.

7.- Partidua zerratu
dute ondorean,
indarra ta arronka
bazan mingañean,
jokatzeko denpora
etorri danean,
Bizkaitarrak atzetik
gureak aurrean,
Maixu diradelako
uraren gañean.

8.- Batzuek penaz eta
besteak gustuan
askotan gertatutzen
dana apustuan,
itzegiten ari naiz
gauza bidekuan,
zenbaitek atsegin du
ederki kaskuan,
len Bizkayan ziranak
orain Gipuzkoan.

9.- Aspaldian geldirik
zeuden ontzakuak,
orainguan ederki
dira dantzatuak,
mesede egingo diyo
toki aldatuak,
petxu lasayetak eta
zein fiñatukuak,
dira arraunlariak
Donostiakuak.

10.– Ojuka ibilliak
dira kalez kale,
berdiñian ez bada
botatzeko doble,
Bizkaitar oyek zeuden
izugarri noble,
partidua galtzea
ez dala posible,
orain Donostiyan da
bandera inbenzible.

11.– Bandera ta diruak
ta gañera onra,
Gipuzkoan dirala
jakitea on da,
partidua irabazi
ta dirua kobra,
orra donostiarrak
egin duten obra,
au urte batzuetan
ez diteke borra.

12.– Esperantza gogorra
zan bietatikan,
baña batek bearra
ez da dudarikan,
nork esan jokatu dan
kantudaderikan,
etzat iruditutzen
posible danikan,
estudio gabeko
gizonik nautikan.

13.– Asko gizonak daukan
barrengo larriya,
konsideratutzen dot
dala izugarriya,
eguzkia uste ta
egin du arriya,
baita zapaldu ere
Ondarruko erriya,
urte au izango da
goguagarriya.

14.– Partidua jua da
esan dedan gizan,
“au geuria da” esanez
panparroi zebiltzan,
oyen kontra bidean
gugan etorri zan,
gipuzkoano abekin
beti bildur izan,
arrauak asentatzeko
ori komeni zan.

15.– Alkar probatutzeko
zuten desiyoa,
orain akabatu da
oyen pasiyoa,
gauza onak beti
du estimaziyoa,
irabazi duenak
ostentaziyoa,
gora Donostiyako
tripulaziyoa.

16.– Adios Ondarroa
eta bizkaitarrak,
beste bat arteraño
agur lagun zarrak,
lanak egiten ditu
trantzean indarrak,
neketan galdutako
juntura igarrak,
mutil pizkorak dira
Joxemaritarrak.

17.– Minutu bat oso
eta segunduak,
aurretik etorriak
bentaja kenduak,
zuek izanik orren
persona sanuak,
defetorik gabeko
mutil lozanuak,
zañik ez dute zuen
juntura senduak.

18.– Ondarruan tristura
Donostiarra poz,
len galduen ordaña
orainguak datoz,
orra beartsuak jarri
errazoi al kasoz,
nork bere tokiyetan
gauden errespeto,
ez degu bizi biar
alkarren gorrotoz.

19.– Antonio Sagastume
Alegriakua,
obeto jakiteko
zintzarri errikua,
ontan akabatzen da
nere predikua,
esanik aztuan
estropadakua,
Abenduaren biya
jokatutakoa.

20.– Azkenengo bertsua
au ogeigarrena,
onekin kunplitzen det
artutako ordena,
ez da lasai egongo
askoren barrena,
probata jakiten da
zein dan abillena,
orrela umiltzen da
arro dabillena.

ITXAS LANTEGIAK (ASTILLERUAK)

Jakiña da Ondarroak, gizaldi luzetan, bere ondartzetako tartetan euki zitula bere “portuak”. Baiña beti izan zala euretarako sarrera arriskutsu eta estua, eta euretara sartzeko, barran, gaurko molla eta esiak egin aurretik, aitz tartetan ibili bear izaten zala, itxas zabaleko olatu eta eragin guztien menpe.

Ondarroa, sortu zanetik, uri eskubidea emon eutsen mesede berbertan esaten da arrantzale eta merkatarien bizi-leku zala.

Onetan gogoratzeko da Bilbao’k 1.300 urtean , Portugalete’k 1.322 eta Lekeitio’k 1.325 urtean artu ebela irazpeneko (fundasiñoko) agiria eta orreik itxas foru berezia lortu ebela, baiña Ondarroak barrualdeko errien antzeko sorpena euki eban, Logroño’ko forua ezaugarritzat eukala.

Alaz eta geroagoko garapenean itxastar erri lez bizi izan zan.

Eta Bizkaiko portu guztietan ezagutu izan da alako ardura berezi bat itxas giro ori zaintzen eta giro orretan sartu bear ontzigintza be, beretzat bear-bearezko diran egurtegia zaintzen aleginduz.

Liburu zarretan irakurtzen dira tartetan ondarrutarren ibillerak eta ondarrutarren izenak.

Onelako baten esaten da Mediterraneo’ko XV garren gizaldiko itxastar ospetsuen artean Romo abizeneko ondarrutarra be ezaguna zala.

Baiña aurrez esan bear da Españiar erregeak, euren egoera edo ta giroko eragiñaren ondorenez, sarri ebiltzala gerratean nastauta, edo ta merkataritzan, eta txalopen premiñan.

XV garren gizaldian ainbat ondarrutar agertzen dira itxasoetako zerrendetan.

Ala, Aiarza, Andonaegi, Aranburu, Aranzibia, Asterrika,

Bidania,

Eizagirre, Erezuma, Estakona, Etxebarrirta,

Galdona, Gillestegi, Goitisolu,
Ibarguen, Ibarra, Illoro, Jauregi,
Kamiruaga, Lejardi, Likona,
Meabe,
Ormaetxea, Plaza, Puerto eta abar.

XVI garren gizaldian oraindik ugariago da itxasoetan zer ikusi euen ondarrutarren zerrenda.

Besteen artean,
Aiardia, Ansola, Apallua, Domingo eta Juan; Aranzibia; Askarza, Asterrika, Arriola, Ategiuren, Pedro eta Juan, Aulikiz;
Elantxo, Nikolas; Elorriaga, Juan;
Galdona, Domingo eta Santxo; Garro, Juan; Gillestegi Juan; Goitia, Gorozika, Errodrigo;
Jauregi, Kareaga; Lekoia, Iñigo;
Markina; Marzana; Munibe, Martin; Muguruza, Juan;
Olea, Pedro; Oronsua, Pedro; Puerto, Fortun;
Renteria, Rodrigo;
Tellaetxea, Juan;
Unda, Juan.....

Danak pilotu, kapitan, "armadore" edo txalupa jaubeak.

Esaten da Felipe II garrenaren denboretan Ondarroa'k 50/60 inguru itxasontzi eukazala, urandietan ibiltekoak geienetan Mediterraneo, Andaluzi, Portugal, Frantzia eta Ingalterra eta abarretan.

XVI garren asieran, nai ta arrantzale gaietazko agiri asko aurkitu ez, Delmas'ek diño fleteei buruzko agindu au billatu ebala " *Agintzen dogu egon leikezan auziak oitura lez erabagi daitezala eta beti be alik baketsuen, alkarren iraun barik, eta txalopa jaubeak edo ta merkagaien jaubeak fleteari buruz konpontzen ez ba dira, eta erriko zuzentzagaz bat etorri ez, albo errikorik urrenen egon leikenagaz itundu daitezala, eta orrelakorik egon ezik, lengo zuzentzak emon izan dauan fleteen aldeko sarietan izentatua bete dagiala edo bestela gure aldtik erabagi leikezan zigorrak artzera gertu daitezala.*"

Irakurten danez Bizkaia'n erririk geienak euren itxas lantegiak, astilleruak eukezan eta euretan egiten ziran arrantzarako nai merkataritzarako txalopak.

Ondarroa'n lantegirik geienak Berriatu'ko lurretan egozan. Gaurko ondarrutarrak gaitz sinisten dabe ori, era orretako azken lantegi bat edo beste ezagutu izan dabezalako, baiña len , ibai egaleko mollak egin aurretik, eta lurralde batzuk bete aurretik, gaur Madalena auzoa etxez bete diran tokiak uarritzak ziran, itxas urak eltzen ziran inguruak.

Origaitik esaten da Amallo errekan egozala, edo ta Errenderian eta Antzoso' n lengo itxas lantegirik geienak. Lengo gizaldiaren azkenetan egon zan eskabide bat pelota tokiaren atze aldeko ondartzan astilleru bat egin al izateko.

Edozetara be krisi aldietan arrantzarako ontzi txikiak egiñarren, merkataritzarako indartsuagoak egiten ziran, bardin meazki erabilketarako be.

Txalopa azpiak garbitzeko, galipota emoteko eta egiteko tokirik egokie-nak Amallo Erreka azpi aldean egozan eta Erreterian, baiña astillerurik geien Antzosolo edo Auzosolon, diño Teofilo Guiard'ek.

Inguru ori aberatsa zan egurretan, azken baten denboraldi luzetan Ondarru-ko merkataritzaren ardatza, burdinkien erabilpenagaz batean.

Orretara elduta Lekeitio eta Ondarru artean egondako egurrei buzuzko auzia gogoratzekoa da.

Labayru'ren "Historia General de Bizcaia"n irakurten danez, 1.338 urtean, au da, Ondarroa'ri uri mesedea emon eta amaikagarren urtera, Juan Nuñez Bizkai'ko Jaurerrian egoala, Lope Garzia Salazar'en aurrean Lekeitio eta Ondarroa'k euren artean euken auzi bat erabagi zan.

Ondarrutarrak eskatzen eben auzokide zituen lekeitiarrak ordaindu egiela petxaren bat Ondarroa'ko portutik edo Errenderitik edo bere jaubetasuneko edozein tokitatik ataraten eben egurragaitik, eta lekeitiarrak erantzuten eben iñoiz ez ebela orrelakorik ordaindu eta eskatu be ez eutsela egin Ondarroa'n txalopan sartu eta itxasoz Lekeitio'ra eroateagaitik.

Erabagi ziuurrago bat emoteko Lope Garzia Salazar'ek, Juan Nuñez eta Maria Andra onaren izenean Bizkaiko alkateei eskatu eutsen auzi ori aztertu eta erabagiteko.

Orretarako aukeratu ziran alkateak Errodrigo Adan, Iñigo P. Lezamakoa eta Albizko Rui Martin izan ziran. Eta oneik, auzi orren ezaupidea euken gizon onekaz batu ziran eta uri bietako jaun marzalekaz batu eta aztertiu ondoren erabagi eben:

Ondarroa'k ez beste iñok ezin eskatu eikiala Lekeitio nai Amalloko bizilagunei, erosi edo kargatzen eben ezegaitik ezer eskatu, erabakia ez ba zan, izan ezik barriro saltzeko eroenagaitik, eta ez euren etxe edo txalupa edo zama-ontzitarako edo ta maasti eta soloetarako.

Eta lekeitiarren eskabidez Salazar diru batzailleak auzi onen agiria emon eutsen, zilluz jota.

Gero lekeitiarrak erabagi onen ziurtasuna euki nai izan eben.

Orduan Durango'n bizi zan Bizkai'ko Jaunagana jo eben eta Juan Nuñez'ek Uztailla'ren 30'e an, eskatzen ebena emon eutsen.

Gogoratzekoa da Ondarroa eta Berriatu'ko mendiak alkartasunean eukezala erri biok Ondarroa uri sortu zanetik, nai eta urteetan eta gizaldietan eta geien bat mendiekaitik, erri biak auzitan ibili.

XVIII garren gizaldian gorabera askorik ez zan ibili Ondarroa'ko portuan.

"Ondarroa'k bere iru-lau meazki itxasontzigaz jarraitzen eban, bergantiñen bat edo beste, txikiak, patatxeak eta gabia bagako txalopekaz.

1.765-1.793 bitartean Ondarroan erroldu ziran 30 toneladako San Francis-

ko Jabier, 26 toneladako San Francisco y Animas eta beste iru, irurak 20 toneladadunak: San Miguel Arcangel, San Jose eta San Juan Bautista.

Geroago, Guiard'en irakurri lei: Frantzetarrek emen sartu ziranean eta egon ziran bitartean eta geroago Jaureerriak ezagutu zitun iraultza, gerra eta erasoaldien denboretan, Ondarroa'ko itxas gintza Bizkai'ko beste kaltetakoaren antzera ikusten da. Arrantzarako jendez, bigarrena zan itxasertz onetan, eta ongiro makalagoa egoanetan be, berrogeitik berrogeitamar txalopa ibiltzen ziran bertatik.

Arrantzarako txalopen egitura, beti be, garrantzitsua izan zan; batelak, atunetarako ontziak, treiñeruak, potiñak, txalopak eta balandra, pailebot, goleta eta abar.

XIX garren gizaldia urte ona izan zan itxas-gintzarako, batez be bigarren zatian.

1.850 urtean Anton Arriola'k eskatu eban udal baimena itxas lantegi bat egiteko. Bere eskaria zutabe batzuekin tejabana jasoteko gaboteriko ontziak egin al izateko.

1.864 urteko Urrilla'ren 30'ean Jose Tomas Ikaran'en eskabidea sartu zan Udaletxean pelota toki atzean egoan tokian batelak egiteko lantegia ipinteko. Udalak baimena emon eutsan, iñoiz toki orren premiñan aurkitzen ba zan ezelako eskabide eta eskubide barik lagateko.

Edozetara be gizaldi orren azkenetan ainbat lantegi, txiki edo andi, egozan errian. Ala Pedro Arriola, Tomas Ikaran, Jose M^a Garli, Bitor Urresti, Jose M^a Aranbarri, Anton Arriola, Jose M^a Agirre, Kandido Arriola, Jenaro Agirre, Agustin Legarda, Agustin Egurrola, Jose Zumeta, Jenaro Osa eta Domingo Aranbarri'renak.

Egin zituen ontzi batzuen artean, oneik agertzen dira:

“Joven Nicolas”, maste biko goleta. 22,84 luzeran; 6,40 errun; 2,78 besanga eta 117 toneladako gaitasuna. 1.864 urtean egiña.

“Petra y Eulalia” goleta. 20,7 luze; 5,51 errun; 2,78 besanga; 61 toneladako gaitasuna. 1.872 urtean egiña.

“San Jose” txalopa andia, 60 metro luze; 12 errun; 6,50 besanga; 27 tonelada. 1.870'n egiña.

“N^a Sra de Begoña, katxemariña: 64 metro luze; 16 errun; 7 besanga. 1.873'en egiña.

Ezagunak izan ziran baita “Angel de la Guarda”, “Fany” eta “Margarita” goletak, Kandido Arriola'nean egiñak.

Eta besteen artean “Angela y Pepita”, “Gloria”, “N^a Sra de Iciar” eta “N^a Sra de Antigua”, txalopa andiak.

Eta “Dos Amigos” eta “Jose Nicolas” katxemariñak.

Bai eta balandren artean “Nueva Union”, “Paulita”, “Angelita”, “San Pedro”, “Agustina”, “Bayonesa”, “Union n^o 2”, San Pedro” eta “Vizcaya”.

Eta “San Pedro” patatxea eta “Concepcion” eta “Rafael” pallebotak.
 Gizaldi barrian ez sartzearren , zerrenda jarraitzea moztu egingo dogu.


Ez gogoratu barik, Lekeitio, Bermeo eta emengo lantegien ospea benetan andi eta ziurra zala itxasgintzan.

Itxas-gintzan ekitean arrigarrizat etsiten da itxasontzi zale eta gaituen artean, galeoiak neurtzeko XVI garren gizaldian Ondarroan erabilten zan erabidea.

Markina’ko J.J. Mugartegi’k agertu eban RIEV aldizkarian, XXV garren liburuan, 61 orrialdean. Bere esanetan Markiña’ko eskribadu zan Antonio Abaitua’re paperetan aurkitu eban eta 1.598 urtekoa da. Berberak diño egiten dan azalpena ulergaitza dala eta berak be zerbait argitu nairik edo ta ulert-errez egiteagaitik, zela-ala luzatu egin dauala.

Agirian onela agertzen dala: “La cuenta que se ha de de hazer para saver las toneladas de un navío o Galeón como se hizo para el galeon de atrás” (bere aurrekoa).

Lenengo galeoiaren erruneko zabalerarik andieneko neurri osoa ipini, eta zenbat ukondo diran, au da:	17
Eta gero ipini Galeoi onek bere barruan zelako luzera daukan ganbaran, galeoiaren tokirik zabalenean	10
goitik neurria jaurtita...	<u>6</u>
	176
Onen azpian bere erdia ipini bear da	88
eta kopuru ori bidartu bere luzeran daukazan ukonduekaz eta au ukonduen kopuruz	<u>47</u>
Kopuru onetan geratuko da.....	4.194
Kopuru onetatik iru laurden atara eta laugarren zatia bakarrik itxi	1.048
gero azken kopuru onen erdia bakarrik ipini	524
eta kopuru au (524) 5’gaz bidartu	2.620
Emendik lenengo zenbaki biak atara.....	26
eta kopuru ori goragoko kopuruari kendu	524
Orrela geratuko dan kopurua izango da.....	<u>498</u>
Ain zuzen be galeoiaren toneladen kopurua.	



Ixas lantegiak.

KAIA

Ondarroa'ko kaia, portua, antxiñatik etorralla uste izanarren paperetan ez da argibide askorik ezagutzen.

Bizkai'ko Jaunen mesedetako baten , Juan Nuñez eta Maria bere emazteak 1.335 urtean emonikoan ikusten da Erretereria izentatzen dala burdiñolen lanak erabilteko toki bakar lez.

1.338'an Lekeitio gure basoetatik egurrak atara eta bertara eroatearen zer-garik ordaintzen ez ebalako eta nai be ez ebalako, auzi bat egon zan, eta orren ondorenez garbi geratu zan etxe, nai itxasontziak egiteko ataraten zan egurra, aske zala.

Jakiña da Bizkaiko portuetako ordezkariak Ondarribian batu zirala 1.353 urtean Baiona eta Miarriz'ekoekaz Inglaterragazko bakeak egiteko.

Geroago 1.372'en Bizkai'ko bost portuak Bretaina'ko dukeagaz itun bat egin eben, bere itxasertzetara joan al izateko.

1.375 urtean ingelesak txalopa bi atxilotu zituen Bourgneuk'eko baiian gatzera joanda egozala. Euretariko bat "San Nicolas" izenekoa, ondarrutarra zan, Juan Maio patroiz zala.

1.477 urtean euskal txalopa batek eskoziar txalopa bat menperatu eban eta Ondarroa'ra sartu eragin eutsen. Euskal txalopan ondarrutar bi ebiltzan, beste-
en artean: Aranzibia'ko Juan eta Itola'ko Peru.

1.480'n, Quinper'eko Katherine ontziak Deba, Motriku eta Ondarroa'ra alekiak ekarri eta burdinkiz Ondarroa'n beteta biurtu zan. 507 kintal burdin eta sei aingura (arlanka) eroan zitun emendik.

1.483 urtean Juan P. Likona ondarrutarrak siziliar txalopa bi baitu zitun Tirreno itxasoan.

1.487 urtean, Pedro Urresti'ri, Levante'ko uretan ebillala, indarrez kendu

eutsen bere 170 toneladako txalopa eta gero moroak erabilten ibili zan. Eta etoikeriz ibili zalakoan "San Cristobal" txalopa kendu eta bere asarrez errematera atara eutsen eta bera kartzelan sartzea lortu, nai eta berak, urtectara, bere zintzotasuna ezagutu eragin eta besteak txalopa biurtzera beartu epaikariek.

Onelako agiriak billatzen dira, zela-ala gure portuaren barri erakusten dabenak.

Gero bale eta bakallautako denborak datoz eta ziurra da orretan ibiliagaz gain emengo txalopak Terranobaraiño joaten zirala.

Beintzat XVI garren gizaldian, bilbotar armadore baten txalopan, "San Nicolas"en ondarrutarra zan, Gaspar Muguruza.

Aldi onetako ainbat barri billatzen dira illen liburuetan, ondarrutarren ibillerak inok baiño obeto ziurtatzen dabezanak. 1.673 urtean lekeitiarrekaz auzitan ibili ziran ondarrutarrak baleei buruz; 1.692 urtean bardin.

Ala 1.693'en iru lagunuen eriotzaren barri agertzen da, F. Iramategi, 30 urtekoa, D. Armenza 27'koa eta Lorenzo Txopite, 14 urtekoa. Oneik laburditarren txalopa baten joanak ziran eta gaixorik il ziran.

Ikusi, gai onetaz, liburu onetan bertan agertzen dan "Itxasoetako ondamen-diak" atala.

Orrela ba dakigu Ondarroa itxas erri zala, portu zala, baiña ez dakigu portuko erakunde eta lanei buruzko askorik.

Orretazko lenengo albistea 1.614 urteko Maiatzean agertzen da. Bertan molla bat eta nasa aitaututen dira. Bertan diñoanez mugarritik "lur lauan" dagozan lantegiakarte. Emen erderaz esaten dan "tierra llana" ezpai barik Berriatu'ko lurraldea zan.

Geroagoko egiturak eta molla egite, ondartzak eraikuntzarako gertute eta barrek, itxura baten, gure denbora areitako ezaupidea artzen galeraso eragiten dausku.

Ba dirudi Ondarroa'k XIX garren gizaldiko lenengo lautadan ez ebalamollaetako eskubiderik ordaintzeko edo kentzeko eskubiderik ez oiturarik.

1.831 urteko Dagonillaren (Abustuaren) zazpian, alkateak jakin eragin eban, Lekeitio eta beste portuetan garraiotako txalopei, edozelakuak izan da be, diru ordainketa bat eskatzen eutsela eta komeni zala portu onetan be beste zerbait egitea, edo antzerako neurriren bat artzea, erribera, ubide eta zubi konponketa eta abarretan dirutza asko eralgiten zalako urtean. Oraingo, orrelako ordainketa eskatzen daben portuetakoei beste ainbeste kentzea erabagi zan, baiña ordaindu bearrik ez egoan portuetakoei aske itxi.

1.863'ko Maiatzako udal batzarrean, erriberatik pelota toki azpiko molla arterako bidea zabaltzeari buruz eztabaidatu eben ziñegotziak. Dirudianez pelota-toki azpiko molla ori joan-etorri askotako tokia zan, antxe egiten zalako arrain leorreratzea eta erabilpen guztia eta bertatik ibili kotxe eta burdi guztiak. Gaiñera laster egiteko dan Lekeitio'rako bidea toki orretatik igarotekoa da.

1.863'ko Bagilla'ren 14'an, erriko molla eskabetxe tokia egoan lekutik uriaren zabalgunere barriarterakoa zabaltzea eztabaidatu zan, Zubizar ondotik, au da Kofradia zarraren etxe ingurutik.

Balzola eta Agirre ziñegotziak ez ziran orren aldeko, esanez bide orrek eta zabalgunere orrek naiko zabalera eukala eta geiago emon nai izatea aierkunde bat, bengantza bat zala, eta erri oneri geiago komeni jakola familientzako etxe-bizitzak egitea, mollak zabaltzea baiño. Orrez gain esan eben erriak erantzunbear asko eukazala, orrela ebiltzanak ez ekienak, eraikuntza barrietan asi barik, eta origaitik eurak ezezkoan egozala.

(Gai onetan esan bearreko da Arantzamendi batek eleizaren alboko ortu bat erosi ebala eta autu asko egon zala metro goraberan)

1.866'ko Apirilla'ren 15'eane Udal batzarrean Zubibarritik eskabetxeria egoan leku arteko bitartean molla bat egitea komenigarri zala adieraso zan, eta orretara erriko arrantzaleak bertan aukera euki egien leorreratzeko nai kanporatzetan bertan sartzeko.

Sorkaldeko erriberako mollak 1.850 / 1.860 inguruan egiñak dirala esan lei. Lan oneik izango ziran errian mesede asko ekarri ebenak itxastarren bizi-modurako.


1.874 urtean, Larzabal eta Galdos'en eskribu bat dago Udaletxean, molla-ko lanei buruz, 79.593 errialetan egitekotan.

Baiña Ondarroari bizia emoten etorri zana, ezpai barik Egidazu jaunaren egitasmoa deitzen dana izan zan.

Egidazu au zan ibaiaren bideratzea eta orduko txalopentzako egokitasuna billatuaz, luzerako ikuspegi zabal bateri bideak eratu eta geroago egin diran lanugariei aukera eta egokitasuna emon eutsena.

Gizaldiaren azkenetan asi ziran gero uri barritzea eta anditzea gertateko ondartza zabalak itxasoari irabazte eta abar, eta geroakoak dira gaur Ondarroan, gizaldia sartu ta geroago ezagutu diran lanak eta geroagokoak oraindik gizardiaren ia azkenetan egiten diarduenak.

Lengo gizaldietan Ondarroa'ko portuak kanpoaldera begira duintasun andirik euki ez ba eban be, gogoratu bear da 1.693 urtean argitaratutako "Carta des Costes septentrionales d'Espagne depuis Fontarabie jusque á Bayonne en Gallice" portu au 6 oiñeko urpe edo sarkurako lez agertzen zala.



Arraiña saltzeko.

ARRAIÑEN GERTUKETA

Antxiña, ez biderik eta erri biztanle ugaririk be ez egoanetan, ba dirudi itxasertzean arrantzaten zan arraiña, erri ta ingurutako auzoetarakoa kenduta, orduko erara, orduko jakintzaz gorde eta gertuten zala.

Batez be usteltzen ez lagatea zan ardurarik andiena.

Ortik etorri zan arraiña sekatzea gaur be arrantzale askok, batez be kolaixo eta antzekoekaz egiten daben lez, edo ta tollagaz.

Ortik arrain zimeltzea, zumailtzea.

Ortik arrain gaziketa, bere eltzeraiño osasunez laguntzeko .

Ortik ketan “osatzea” be.

Eta geroago “eskabetxe”eran gertatzea.

Urteak ziurtatzen

Noiz sartu ete zan Ondarroan arraiña eskabetxean jarri eta gertutearen oitura?

Ondarroa’ko agirietan ez dogu oraindik ortazko ziurtasunik aurkitu. Baiña kontuan eukita Lekeitio’n 1.570 aurretik, iru-lau urte aurretik, erabide ori erabilten zala, uste da arrantzaleak alkarren artean eukiten ekiezan artu-emonak gogoratuta, Ondarroan be bardintsu gertatuko zala.

Ziurra da beintzat Lekitio’ko Kofradiako arduradunak ukatu egin zirala 1.571 urtean besigua gazitzeko eta eskabetxerako saltzera .

Orretarako aitzakia ez zan besterik, orrelakorik ez zala egiten azken laubost urte aurretik, edo ez zala orrelakorik ezagutzen baiño.

Eta asarre orrek, arrantzalientzat ez eukan zentzunik.

Arrantzalea, bere alegiñaren legez, arraiñetik alik onurarik geien ataratera makurtu bear da. Kofradiako maiordomuak, ardulariak, arraiñaren gorabera

bereziki erabillenenak, bidezko da arrantzaleari laguntzera beartuak egotea, baiña euren arrazoia bestera zan. Era orretan arraiña karutu egiten zala erriarentzat esaten eben. Mandazaiñentzat eskabetxateko gordetean, arraiñak salneurri obeago lortzen ebalako. Eta kanpotarrentzat mesede zana, arrantzaten eben erritarrentzat kaltegarri.

Ba dirudi orretan Kofradiako ardulariak arrantzalienen mesedea baiño erritarrena geiago begiratzan ebela. Azken baten, bear ba da, erritarrak danak arrantzaleak ziralako.

Bestetik igarten da aldi aretan ez egoala lan kezkarik emakumeentzako.

Emakumeak bai ibiltan ziran txalopetako zeregiñetan, bizi guztian ezagutu izan dan txalopetako "maistresen" zeregiñetan, baiña eskabetxean sartu ezker, euren txalopetako zeregiñetarako aiña batuko ez ete ziran bildurra be ba egoan.

Origaitik, baita, eskabetxeko lana ez zan atsegin ikusten, ain zuzen be emakumeak txalopen arduetako faltako ziran bildurrez.

Ba egoan baita eskabetxearen iraupenaren bildurra.

Gaur erraz emoten jakoz eskabetxean jarten dan arraiñaren iraupenari, galtze, usteltze edo mindu eta, limurtze arrisku barik, iru-lau urte. Baiña aldi aretan epe mugatua eukan, iru-lau illabete, ontziak be ez eukelako gaurkoen osotasun eta itxiturarik eta gertaerak be gaur baiño ziurtasun gitxiagoz egiten ziralako.

Lenengotan arrantzaren egitura eta merkataritza, esana danez, urteko errematea artzen ebenen kontura egoten zan.

Arrain errematea, eskabetxerako, urtean birritan egiten zan. Udan, atunarentzako eta Abenduaren asieran besiguarentzako.

Geroago sortu ziran taldekako alkarteak, konpañiak, batez be mandazaiñak sartzen zirala orretan, euren esku egoalako orduko garraioa, erabilketa.

Mandazaiñak begi luzea euki eben, arraiñerako egiten eben alkartea, arda zerbitzuagaz be osatzen ebelako, orrela joan-etorriei edo ta bideetako osterei onurarik beteena lortu eragiñaz.

Orrelako gertaera bat Ondarroan argi ikusten da emeretzigarren gizaldian.

1.899 urtean Celaya y Cia alkartea sortu zan, burdi andietan emendik arraiña Haro'ra eroan eta andik ango arda edota ortuariz beteta etorteko.

Baiña atzeragokoa obeto zeaztu daigun.

Zeaztasun geiago

1.593 urtean Ondarroa'ko Santa Clara izeneko arrantzalienen Kofradiako arauetan, bigarren atalean esaten da: Txalopa guztiak, nai sardiña eta aingirak arrantzatu edo ta baleak il, eta lebatz eta besiguak arrantzaten dabezanak....(Item hordenaron y constituyeron e pusieron por ordenanza, que todas las pinazas así las que pescan sardina y congrios y matan ballenas y las

que pescan merluza y besugoz en cualquier tiempo y lugar...« Ordenanzas de la Cofradia de 1.593» A. Historico de la D. Foral de Bizkaia)

Ikusten danez ez da aitatzen antxoarik.

Eta laugarren atalean esaten da, kanpotik etozan txalopak, arrain gazitua ekarri ezik, ezin eikeela emen saldu, maiordomuen baimen barik. (*Item horde-naron e instituyeron y pusieron por ordenanza que todas las pinazas, zabras e otros qualesquier vaxeles que vivieren a vender qualquier género de pescado que no sea salado a esta dicha villa e su jurisdizion no puedan vender ni vendan sin lizenzia delos mayordomos.*)

Orregaz ikusten da batetik zelako arrantza zan emengoa, eta bestetik “erri-koak arrantzaten ebena be naiko zala, edo naiko buruauste emongo ebala errian saltzen. Eta esaten daben arrain gazitua izan lei urandietatik ekarten zan baka-lluari buruz esatea.

Bertan arrantzatu eta urteera laburrik ez eukanantzako oitura berezi bat egon zan, gorago aitatu dogun lez: au da, eskabetxerako enkant egillea, (rematante del escabeche). Garbi esanda freskoan saltzeko barik, eskabetxea eginda saltzeko erosiko ebana.

Onetan ba dago itun berezi bat 1.610 urtean. Kofradiako arduradun edo maiordomuak eta Urretxu’ko bizilagun bategaz, Juan Zabaleta’gaz ituna egin eban. Urretxuarra gertu egoan arrantzuak asten ziranetik Aratuste egunerarte sartzen zan besigu guztia erostera: “Todo el besugo que se pescare hasta el día de Carnestollendas”. Urte aretan Otsaillaren 24-an gertatu zan egun ori.

Tratua au zan: sei errial ordainduko eban dozenako, baiña kontu egin, “dozena” ori fraileen oiturazko amairukoa baiño be ugariago zala, au da “dozena bakoitzean amabost besigu sartuta”.

Eta era onetan ordaindu: Erdia zidarretan, beste erdia “belloitan” (Archivo Corregimiento Vizcaya. Leg. 857- n° 13-213)

Andik urte bira beste tratua egin zan Pedro Amezketa eta Asensio Kortazar’egaz. Oneik gertu egozan eskabetxetarako besigu guztia eroatera urte orretako Abenduaren lenengotik asi eta urrengo urteko Aratusteakarte.

Urteetan zear tratuetarako erabide argal ori ikusita eta jakinda, ba dirudi alkarte zabal eta altsuago bat sortu nai izaten ebala Euskalerriaren Adiskideak deiturako Alkarteak.(Real Sociedad de Amigos del Pais)

Onek, 1.776 urtean, erakunde zabal bat sortu eban, etxe nagusia edo bere idazkaritza Bilbao’n lekututa.

Ori monopolio baten antzerako zan. Itxuraz eta egitez. Freskoan jateko arraiña kenduta, beste kontserba ta eskabetxetakoaren baimena berak bakarrik lortu eban III Karlos Erregearen aginduz, 1.770 urtean.

Baiña Lekeitio ezik, Bizkaiko itxasertzeko Kofradiak orren aurka agertu ziran. Ala Ea-Natxitu, Elantxobe, Bermeo, Gaminitz (Plentzi), Mundaka eta Ondarroa.

Onein arrazoia: Bizkaiko Arrantzale Kofradiak bizi guztian euki ebela orren ardura.

Egia da Kofradiak eukiarren, gero errematera ataraten zala eta sarri agertzen zala urterako orretaz arduratuko zan norbait.

Toki batzuetan, Ea'n lez, irabaziak Udalgaz batera erabillezan, eta izan be Udalaren eutsigarri izaten ziran, Natxitu'ko udal zana, Ea'ko udal biurtu zanean, Natxitu eta Bedarona auzokidetzat geratuz, garbi ikusi zan lez. Ordurarte Natxitua'n Ea'ko kabana (fabrika) besterik ez egoan, Fabrika bakarra.

Eta denboraldi berean, 1.861 urtean, Ondarroan bederatzi milla arrua eskabetxe egiten ziran atun eta besigutan, Kofradiaren eskabetxe-lantegian, eta beste bederatzi ta eun milla arrua gazitu antxoia eta sardiñatan.

Au da, sartzen zan arraiñeko ia euneko irurogei (% 60).

Bermeo'n denboraldi berean, euneko (% 57) freskoan saltzeko aukera egoten zan.

Zegaitik?

Gizaldietako jokoia

Esan daigun gogortadea egon zala eskabetxe merkataritzan gizaldian zear.

Ba dirudi batetik ziurtasuna euki nai izaten zala arraiña erosi eta ordainduko ebenena. Arrantzalea beti izan da orretan ezpaikor. Beti izan dira erbestetarren bildur.

Alegin asko, arrisku ugari eta irabazi gitxiko izateak, erbesteko merkataritza "gantzeruen" bildur biurtzen zitun.

Beti ebiltzan Kofradiak urri diruagaz. Eta zer esanik ez arrantzale soillak. Urte askotan "etxerako" zerbait eroatearren, Kofradiak aurreratuta diru banaketak, alkartearen konturako laguntza lez "diru partillak" egiten ebezanean, Kofradia bera diru eske ibili bear izaten zan, eta gure gizaldiko Aurrezki Kuntxak agertu arte, zentzoan artu dirutza batzuk.

Onetan ba ekien atea nun jo. Inguruko monjaen konbentuak, Markiña, Mutriku edo Elgoibar, laguntzaille onak ziran arrantzalientzat eta nai eta inoiz zerbait atzeratu, ez eben eragozpen andirik eukiten fedez eta borondatez ain on eta zintzo ziran arrantzale "sufriduei". euren dotetako altxorretik diru laguntzak aurerratzen, oiturazko ziran mozkin edo korriduetan.

Beste aldetik arrantzaleak eurak arrain kontuan eskabetxerako itxitakotik zerbait baimentzeko borondaterik inoiz agertu ba eben, zabaltasun apur ori erlijiosoentzat izaten zan.

1.782 urteko kontuetan irakurten danez, erremateagaz geratzen ziranetatik kanpora ate txiki bat zabaltzen zan eskabetxea egiten lagateko. Eta ori ain zuzen be erlijiosoentzat izan zan, edo ta bearrian edo lotuerak eukezan bakar-tientzat, baiña geien be sei edo zortzi arrua gertatzeko euren seme, senide edo aideentzat.

Jakiña, portu guztiak ez eben bardin pentsaten edo ta jokutzen.

Bermeo'k XIXgarren mendearen asieran eskatu eban aske itxi bear jakola edozein auzokideri Bizkaiko portuetan arraiña erosi eta gordeteko eskabetxea egiten. Eta saltzeko be egitea, bakoitzak nai eban erara.

Baiña Ea-Natxitu, Elantxobe, Lekeitio eta Mundaka laster agertu ziran orren aurka eta lortu be egin eben bein-beingoiz 1.811-1.812 urteetarako eska-bide ori atzeratzea.

Baiña Ondarru ixilik egon zan berean.

Urteroko erremate mugatuak egiten jarraitu zan, negu aurrean besiguarentzako eta uda aurrean atunkientzat.

Aldatu bearra

Nekez, baiña erabideak aldatu bearra igarten zan.

Batez be emengo legeak estatukoekaz bat egitean, arrantzaleen erabideak be merkataritza orokorerra aldatzen asi ziran.

Gizaldia aurrera eta txalopak be ugaritzen asi ziran gure itxas kaietan.

Arraiña arrantzateko erak be aurreratzen, egokitzen, txalopen indarrak eta denboren aurrerakuntzeak emoten eben adorez.

Itxas lantegiak be ugaritzen asi ziran eta gero ta txalopa indartsu ta bizia-goak egiten, gaurko begiz ikusita, nai ta orduko txalopak kaio egalariak izan ez, nai ta atakotzat euki.

Orrela arrantsuak be gero ta ugariago egiten ziran.

Lengo eretan arrain freskoak ez eukan aukera andirik zuzenean kanpora bialtzeko eta ezin jarraitu errematari txikien kontura bertako merkataritzak. Gaiñera "freskoan" ataraten zan arraiñiak. or eukan, beti be, bakallaua askoz be baldintza obeagotan kontsumorako.

Arrantzaleak artu eben beste aukerabide bat be.

Arrain asko arrantzaten eben egunean, oiturazko eben lenengo bakoitzaren portura sartzea, saltzeko asmotan, baiña urteerarik ezean, auzoko portuetara aldatzen asi ziran, txalopetan arraiña eroanez.

Orrek sortu eban euren artean oiturazko merkataritza "arindu bearra", bakarren eskubideak murriztu eta erostzaile eta gertutzaille geiagoei eskubideak emonaz.

Merkataritzarako askatasun orrek, bideak zabaldu eutsezan beste askori, arrain tratuan asteko, eta lenengotan arrain tratu ori ardau tratuagaz be bateratzeko, lenengotako tratulari barriak Errioxa'ko edo inguruko aldetik joan etorria biribiltzen ekielako, ango ardau eta gaikiekaz.

Ortik asi ziran Ondarroan arabar lur-jaube eta tratulariak, emen geratu eta bertakotzen.

1.865 urte inguruan asi ziran Bizkaian arrain lantegiak, emen kabanak deitzen ziranak, geitzen.

Ordurako Bizkaia'n ba egozan berrogei inguru, geienak eskabetxerako. Bermeo'n sei ziran eskabetxerakoak eta bi kontserbatarako. Orreitariko asko Bilbao'ko ibaialdean sortu ziran, ibai inguruko erri txikietan.

Lantegi orreik, geien bat, inguruko merkatuetarako lan egiten eben. Ondarroan 1.863 urtean sortu zan emen ezagutu zan lenengo lantegi, fabrika edo kabana pribatua. Pedro Jose Zelaia'rena zan.

Zubi barri inguruan egoan, Artibai ibaiaren egalean, Zaldu'rako bide azpian.

Arrantzalien Kofradiaren laguntza artu eban. Ain zuzen be Kofradi berberak emon eutsan bear eban ura bere urarkatik, depositutik.

Udaleko Erabagien 9garren liburuan (Libro 9 de Decretos) au irakurten da 1.868 urteko Martiaren 22'ko batzarreko gaien artean"

"Pedro Jose Zelaia'ren eskabetxerako kabana. Itxastar eta Arrantzalien Kofradiaren izenean Buenabentura Etxano, Martin Aristi, Franzisko Arrasate, Jose Antonio Badiola, Migel Egurrola, Rafael Antezana, Ramon Txakartegi, Pedro Antonio Bedialauneta, Iñazio Aremaio eta Juan Jose Egurrola'k izenpetutako idazkia irakurri zan, jakin eragiten Kofradiak ontzat artu eta erabagita eukala berak eukan uretik Pedro Jose Zelaia zubibarri inguruan egiten ebillan eskabetxe kabanen bear zan ura emotea."

Zazpi illabete geroago Eduardo Nafarrete asi zan lanean.

Onek etxe-oin (planta) bakarreko kabana eraiki eban eta urte onetan eskatu eutsan udalari bear eban ura.

Goratzago esan dan Udal liburu berbertan, 1.868'ko Urriaren 11'an egin-dako batzarrean gai au irakurten da:

"Nafarrete'ren eskabetxeri kabana. Jakin eragiten: Ondarroa'tik Markiña'ra doan errepidea joten eskabetxeri kabana barri bat egiten diarduela, eta ur gozoaren premiña daukanez bear aiña emotea eskatzen dauala, "Emendiko Erreka" izenez ezagutzen dan ubidetik artuta. Eta erabagia emotearen aldeko izan zan."

Geroago sortu zan Martinez de Luko'rena.

Liburuetan irakurten dogu 1.889 urtean lau (4) eskabetxe kabana egozala errian.

Eskabetxe eta kontserbak egiten asiak ziran.

Andiena, lanik geien egiten ebana Pedro Jose Zelaia'rena zan.

Iru milla ta bosteun kutxa kontserba bialdu zitun Ameriketara.

Gero Nafarrete'rena zan, eta ondoren, neurriz beintzat, Martinez de Luko'rena.

Eta or egoan baita be 1.885 urtean Kofradiako eskabetxe lantegia bere kontura artuta, Mr. Brieu frantzetarra.

Lau oneik ba egozan beintzat 1.885 urtean. Ala ikusten da Manuel Azka-

rraga eta Regil'en liburu baten: (Historia de Vizcaya general de todo el Señorío y particular de cada una de las Anteiglesias, Villas, Ciudad, Concejos y Valles desde su fundación hasta el año 1.885. Imp. C. Lucena. 1.885. Bilbao)

Goiago aitatu dogun Mr. Brieu Pasaia'n be asi zan lanean 1.865 urtean.

Ba dirudi 1.865/75 urteen inguruan asi zala gure kaietan besiguaren gerta-kuntza makaldu eta atunkiena, batez be ega luzearena, ugaritzen. Orrek ekarri eban toki askotan kabana barriak zabaldu bearra eta egitura orren gintzak indar artzea. Eta orrela joan ziran lantegien eraikuntzak geitzen.

Gizaldiaren azkenengo estadistiketan Ondarroan sei etxe egozala irakurten da, kontserba eta eskabetxea gertuten ebenak: bat kontserba utsa egiten ebana eta beste lau eskabetxe utsa egiten ebenak. (Guía Comercial Vasco Navarra. II año. Lib. Elcano. Bilbao)

Esan bearreko da azken aldira sardiña konserbak egiten ba ekiela emengoak eta orretakoak Ameriketara bialtzeko oitura sortu zala.

Ojalata sartu ba zan be, latak sarratzeko ez egoan gaurko erako tresnarik, eta lata zapal lautuetan egiten zan lana. Sarratzeko eta antzerako lanetarako gaur buztin langilleak erabilten dabezan antzeko tresnak erabilten ebezan.

Edozetara be eguneko emaitza ezin luzea izan ugaritasunean.

Txiki nintzala aukera euki neban orduko lateri eta tresneria ezagutzeko.

1.920 urte inguruan oraindik denbora areitako lateria ezagutzeko aukera euki neban, ain zuzen nire aitak eukan aroztegian.

Aroztegi orretako zati baten Zelaia'ren kabanako latagintza lekua izan zana sartzan, Nire aitita bertan lan egin ebana zan, eta bertan bizi be. Orre-la Erremigio "Lateiko" deitzen eutsen eta ala nire aita eta osabei: "Lateiko"

Aldabidearen eragilleak

Gizaldietan iraun eben oiturak, arintzen asi ziran.

Geien be bideak zabaldu eta artu-emonak erraztutean.

XIXgarren gizaldiaren erdi alderarte, oraindik Gipuzkoarako sarrera Ondarroa'tik Markiña'ra, andik Durango aldera jo eta Ermua'ko bidetik zear artzen zala.

Bideen kontuan gogoratu beti egon zala errien artean alako itsukeri edo txikikeri bat.

Bizkaia'n Mundaka'tik Elantxobe eta Lekeitio alkartuaz Mundakatik zear bidea zabaltzea pentsatu zanean, ez egoan borondaterik orrentzat, gitxiago Ondarroa'tik zear luzatzeko, uste zalako orrek Mutriku lako portu indartsu bateri mesedeak eroango eutsazala.

Eta errepideak egin ziranean be, Bizkaia'k Berriztik Ondarroa artekoa egin eban, eta Gipuzkoarenak, beste aldetik, Mutriku'n geratzen ziran.

Orrela, Ondarroa eta Mutriku lotuera barik.

Ori ikusita Mutriku eta Ondarroa'ko ordezkariak 1.851 urteko Otsailla'ren 26'an lenengo eta illabete geroago barriro Arbelaitz baserrian batu ziran.

Iru erabagi oneik artu ziran bidea egin al izateko :

1.- Bide barri au zabaltzen ba zan, ez zala ordain bearrik ipiniko alde bate-tik Mendaro eta bestetik Berriatu baiño lenago.

2.- Ardaue etxerik ez zala zabalduko bide onetan, Mutriku'ko Madalenatik asi eta Ondarroa'ko kai bitartean. Bakar-bakarrik Mijo auzoan bertako txakolin eta sagardaua saltzeko baimena emongo zala.

3.- Bide luzea ez zalako, erri biak Aldundiekaz artu-emonetan astea, laguntza eske, erri bientzat mesedegarri zalako bide ori egitea.

Bizkai'ko bide egintzailleak, zubi barri bat egin barik, Ondarroa'ko zubi-zar ospetsua beratu nai izan eben, bajatu, kendu ez. Baiña arrantzalien Kofradia gogor agertu zan, ez artearen izenez, zubia beratu ezkeru, txalopak ibaian gora igoteko aukerarik eukiko ez ebelako baiño, inguruko mollan euren zeregiñak beteteko. Eta azkenean be lortu zan lengo zubia, Ondarroaren ezaugarria, zutik laga eta barri bat egitea.

Zubi au egiteko, Pedro Ugalde bere egilleagaz egin zan Agirian ikusten danez, zubiaren aurrekontua 164.297 errialetakua izan zan. (Artxiboa:Gernika-ko Batzar etxekoa. Escrituras Originales del Señorío de Vizcaya. Reg. 4. n.15)

Auzo bideak osotu eta urrunagoko beste barrikuntzak, esateko tren bideak eta Castillarako bideetarako sarrerak egokitzeak, arraiñari urteera bat eskintze-ko benetan mesedegarri izan ziran eta ortik sartu zan arrain-gintza onen gara-pena.

Arraiñaren merkataritzarako beste gaiki ziur eta bear-bearrezko bat agertu zan, edo agertzen asi zan XIXgarren gizaldian, Burdin zuri, berme edo beste deiturekaz euskeraz deitu al izanarren ojalata deituraz geiago ezagutua.

Gaiki au, ain zuzen, Ingalterra'tik ekarri eta Euskalerrian Gipuzkoan asi zan bere indarra artzen.

Lenengo alegiñak Zestona eta Zumaia bitartean, Iraeta'n egin ziran, baiña zoritxarrez porrot.

Gero, 1.860 urtean Beasain'en, ango San Martin burdintegian.

Andik Bizkaira aldatu eben, 1.887 urtean, Etxebarria anaiak sortutako olara.

Ortik sortu zan Sociedad Anónima Iberia 1.890 urtean. (Iberia, ezezagunen alkartea. Iberia S.A.)

Urte bi geroago 1.892'en Basconia S.A. zabaldu zan.

1.896'en Iberia, ezezagunen lagunartea. C^a A.)

Gero, gizaldi barriagaz batera, 1.902 urtean, Iberia, Vizcaya eta Altos Hornos alkartuta, jarraituko eben orretan.

Ia gizaldi oso baten, plastikoak eta alumina agertu arte, ojalata izan da arrain kontserben egituran erabili izan dan gordegarria eta gaur be ziurren eta geientsu erabilten dan gaikia bera da.

XIX garren gizaldiak ekarri zitun, baita, beste egokitasun batzuk. Portueta-ko, kaietako lanak.

Ukatu eziña da Ondarroa'ko kaia, sarrera arriskutsuduna izan zala gure gizaldirarte, eta orrez gain, itxasontziak mareen goraberen mende ibili bear izaten ebela, sarrera batetik ondarez erraz beteaz gaiñera, ibaia kaitzat erabiltean, mare berakoetan ia ondorako bitarte barik geratzen zalako, txalupak ondoa jota bertan geratzen zirala.

Portuko sarrerak ez eukan ormarik olatuei eusteko eta oneik kai-aurrean zabaltzen ziran, zabalduaz baretuarte, kai sarrera gizon askoran iltoki izaten zala.

Onetan esan geinke XIXgarren gizaldia, oiñarrizko izan zala nasa ta molla gintzan.

Gauzak azal azaletik aztertu ezkeru, aipagarri dira:

1.828.– Arrain garbitokiaren eraikintza

1.851.– Udala eta Kofradi arteko ondarezko nasa egitea.

1.859.– Erriberako nasa, Domingo Lekue'ren saltoki ertzetik Bizente Arana'ren etxe egalerarte.

1.861.– Portu zarretik ondartzetan urten arte.

1.862.– Olatuak desbideratzeko orma.

1.863.– Eskabetxe lantegia egoan lekutik uriko zabalgunee barrirarteko molla zabaltzea.

1.866.– Beste molla andiago bat egitea portu barritik Eskabetxeri lantegi arte. Lanak 32.631 errialetan egitekotan artu ziran.

1.879.– Arrigorri ondartzaren goi aldean asi eta 212 metrotako inguruaz amaitzen zana. Ez eban bete beragaz uste zanik.

1.855.– Portua merkataritzako gauzetarako baimentzea.

Udaleko kontuetan ori dala ta jaurtitako su-zirien kontua be aipatzen da.

Merkataritzari indarra emon nairik, Urrutidatz (Telegrafo) zerbitzua be ipini zan errian.

Erriak, Udalak, bere kontura egin eban Markiña'tik Ondarroa arterako urrutidatz arien luzapena.

Udaleko liburuetan orretarako txartel batzuk aurkitzen dira:

1.884-VIII-31.– 724.50 peseta ordaindu jakozan Pedro Agirre Sarasua'ri, Markiña'tik Ondarroa'rako luzapenerako abeak (posteak) ekartearren. 161 abe ziran, bakoitza sartu bear tokiraiño eroanda, bakoitza 18 errialetan.

1.884-XII-12.– Erremigio Zubikarai'ri 159,50 peseta ordaindu ogei abegaitik, menditik Urberuaga eta andik bakoitza sartu bear zan tokietaraiñoa sartuta.

1.885-II-26.– 30 peseta ordaindu jakezan Markiña'tik Ondarroa'rako bidean arien bidea konpontzen ebiltzanei. Sei lagun ziran, bakoitza eguneko amabi errealeko alogeraz, lau egunetan ibili ziranak.

1.885-V-13.— 48 errialen ordainketa Txomin Badiola'ri, lau egunetan telegrafoko ariak barrizatzen eta beste 48 errial lau laguntzaleei eta amar erreal burdi baten indar-ontzia Berriatu'ra eroatearren.

Jakingarri lez geituko dogu Telegrafoko arduradunak urteko milla pesetako alogera eukala. Franzisko Ortuzar zan. Eta bere agindupekoak 276 peseta urtean. Jose Agustin Egiguren zan bera.

1.886 urtean esaten da Telegrafoaren urteko irabazia 1.548,80 pesetakoan izan zala.

1.890 urtean, oraingotan Baiona'tik ekarri ziran 50 abe telegraforako, "San Antonio" deiturako xalopan ipinita bakoitza zazpi pesetatan. Txartela Theodore Frois'en izenean etorran.

Argi indar eta abarrek eragin eben lez, Telegrafoak be sorginkeri asko biztu ebazan eta orrelakotzat artuta gertatu ziran ari etete eta abar.

Orrela 1.885-ko txartel baten au ikusten da: Federiko Ortuzar'eri 63,85 pesetako dirukontua ordaintzea, burdin ari galbanizatu borobil bigaitik, Markina'tik Ondarroa'ra datorran bidean egindako ari etete eta lapurretaitik.

XIX garren gizaldiko gorabera batzuk

Arrain eta arrantzarako txalupak dira onetan gure gai.

Gai oneri buruz, F. Arrizabalaga eta M.A. Agirre'k egindako lan sakon bat agertu zan Bermeo'n ia urtero ataraten dan "Bermeo, Udalerrri eta Itsasoko gaiei buruzko aldizkaria" deiturako 6 zenbakiko 239-300 orrialdetan.

Lanaren deitura: Aproximación al Sector Pesquero Vizcaino en el Siglo XIX. Producción y Comercialización.

Ortik eta beste iturrietako kopuruekaz baliatuko naz jakingarri batzuk agertzeko, batez be gizaldi orretako arrain sarrera eta balioa adierazteko.

1.816.—

Urte aretan 62.000 kilo arrantzatu ziran lebatzetan.

19.800 kilo atunetan.

116.170 kilo sardiñatan.

24.637 kilo besigutan.

61.260 kilo txitxarrotan.

425.250 kilo antxoatan.

Azken datu oneri buruz esan bear da, kopuru ori sinisgarritasun barik artzen dauala lanaren egilleak, batetik beste portuetan ez dalako antxoaren arrantzarik agertzen, eta bestetik antxoaren garaia udabarria izaneran, kopuru ori urte azkeneruntz agertzen dalako.

Iñoiz arrantzaleak neguko sarreran, amuskitzarako arrantzatu izan dabean antxoa txikia, txitxiña, ez ete zan izango?

Urteak aurrerago, 1.859 eta 1.863 urtetako arrantsu kopuruak aztertuta ikusi leikena au da :

1.859.– Bizkai'ko portuen artean Bermeo zan buru, arrantsutan eta arraiñaren dirutzetan.

Lekeitio bigarren arrantsutan, 781.637 kilo guztira eta 286.002 peseten balioa. Onetan irugarren geratzen zan.

Ondarroa irugarren arrantsutan, 720.600 kilo danetara, baiña bigarren baliotan, au da, 294.167 peseta.

1.863 urtea

Urte orretan Bermeo nausi arrain eta balioan.

Lekeitio bigarren arrantsutan, 707.500 kilo, baiña irugarren dirutan: 375.000 pta.

Ondarroa irugarren arrantsutan, 634.725 kilo eta bigarren baliotan 438.707 peseta.

Arrain balioaren bataz-bestekoan, alderantzi andia dago Bermeo eta Ondarroa artean, Ondarroa'ren mesedean.

Bermeo'n 976.437 kilo eta 488.071 peseta.

Ondarroa'n irureun milla kilo baiño gitxiago arraiñetan, baiña balioaren kopuruko alderantzia 50.000 peseta ingurukoa da.

Beste iturritik :

Gernika'ko Batzar Nagusietako Artxiboan (Reg.1,Leg.6, n.3) Arrantzari buruz 1.880'tik 1.884 bitarteko adierazpenak dagoz. Aldi aretan Bizkai'ko errietatik El Ferrol'era bialtzen ziranak, ango itxas agintari militarrek aginduta.

Gain gaiñetik igarten da, kopuru batzuk biribildu egiten dirala, bai arraiñetan eta bai dirutan.

1.881 eta 1.882 urteetan ez da arrain motarik zeaztuten.

1.880 urtean, arrantzatutako arrain kopurua, 51.227 arrua izan zan. Balioa, 1.282.408 errial.

Ortik 3.785 arrua gazitu egin ziran, eta 5.649 eskabetxean gertu.

Arrantzan ibilitako txalopak 76 ziran danetara.

Arrantzan ibilitako txalopen balioa, 317.836 errial.

Arrantzako sare eta tresnen balioa, 156.913 errial.

1.881.– Arrantzatutako arraiña 73.579 arrua. Dirutan 1.548.878 errial. 2.800 arrua gazitu ziran eta beste 9.570 arrua eskabetxatu.

Arrantzan ibilitako txalopen balioa, 785.000 errial.

Txalopetan erabilitako sare ta tresnena, 233.600 errial.

1.883.– Arrantzatu eta "eskabetxatu"tako arraiñak:

Besigua 16.618 arrua arrantzatu eta 1.600 eskabetxatu.

Atuna 8.699 arrua arrantzatu eta 6.000 eskabetxatu.

Aingira 278 arrua.

Lebatza 3.197 arrua.

Antxoa	20.000	„
Sardiñak	10.500	„
Batzuk	<u>46</u>	„
Danetara	59.338 arrua.- 1.451.806 errial	

1.884 urtea Denboraldi onetako kopuruak, aurrekoan lez, arruetan datoz, baiña oraingoan balioa be azaltzen da.

Besigua	6.659 arrua,	318.000 errial.	Eskabetxerako 600 arrua.
Lebatza	5.840 arrua,	308.000 errial	
Aingira	264 arrua		
Atuna	9.176 arrua,	330.000 errial.	Eskabetxerako 6.000 arrua.
Merua	4 arrua.		
Sardiña	2.500 arrua,	117.000 errial.	
Antxoa	20.000 arrua,	196.166 errial.	Gazitzeko 2.500 arrua. Eskabetxerako 12.000 arrua
Lantzoia	<u>200 arrua.</u>	<u>3.600 errial</u>	Gazitzeko 140 arrua.
Guztira	44.643 arrua	1.272.766 errial	

Arrantzan ibilitako txalopak	110
Arrantzan ibilitako gizonak	460
Txalopen balioa	336.000 erreal
Sare eta tresnen balioa	370.000 erreal.

Ori ikusita, arruak kilotara biurtu eta errialak pesetetara biurtuaz, ikusiko dogu batez beste arrain bakotxaren kiloko balioa au zala:

Besigua	0,95
Lebatza	1,05
Atuna	0,71
Sardiña	0,93
Antxoa	0,19
Lantzoia	0,36

(Artxboa: Gernikako Batzar Etxea. reg. 1, Leg.6, N 3)

Ikus daiguzan gizaldiaren azken urteetako gorabera batzuk. Oneik gorago aitatu dogun Arrizabalaga-Agirre ´ren lanetik artuta:

Urtea	LEBATZA			BESIGUA		
	Kilotan	Dirutan	Bataz beste	Kilotan	Dirutan	Bataz beste
1.887/88	91.514	80.546	0,88	235.395	132.681	0,56
88/89	100.712	81.782	0,81	170.574	113.068	0,66
89/90	59.614	68.750	1,15	546.112	256.064	0,46
90/91	60.941	65.237	1,07	418.351	208.117	0,49
91/92	73.349	72.383	0,98	350.364	219.493	0,62
92/93	81.340	60.625	0,74	471.154	244.459	0,51
93/94	61.711	58.375	0,94	479.153	239.231	0,49

94/95	51.345	47.017	0,91	263.901	157.029	0,59
95/96	54.245	54.747	1,00	320.406	175.934	0,54

ZIMARROIA

Urtea	ZIMARROIA			ATUNA		
	Kilotan	Pesetak	Bataz beste	Kilotan	Pesetak	Bataz beste
1.887/88	3.175	1.488	0,46	128.832	54.704	0,42
88/89	12.102	4.405	0,36	155.815	41.493	0,26
89/90	49.727	28.021	0,56	121.701	38.205	0,31
90/91	16.409	12.970	0,79	148.820	60.250	0,40
91/92	62.644	35.056	0,55	264.412	119.288	0,45
92/93	79.950	36.579	0,45	149.403	60.937	0,40
93/94	24.161	13.840	0,57	128.866	63.074	0,48
94/95	15.108	7.633	0,50	28.580	16.997	0,54
95/96	62.569	35.003	0,55	82.158	43.029	0,52

SARDIÑA

Urtea	SARDIÑA			ANTXOIA		
	Kilotan	Pesetak	Bataz beste	Kilotan	Pesetak	Bataz beste
1.887/88	385.933	53.586	0,13	275.550	22.790	0,08
88/89	302.614	45.080	0,14	315.196	26.402	0,08
89/90	376.150	61.449	0,16	75.416	19.231	0,25
90/91	342.282	96.562	0,28	60.435	23.249	0,41
92/93	193.238	45.575	0,23	380.323	85.407	0,22
93/94	298.649	74.313	0,24	393.356	65.367	0,21
95/96	211.659	46.009	0,21	29.461	7.596	0,25

PAPARDOA

Urtea	Kilotan	Pesetak	Bataz beste
1.888	69.084	11.516	0,16
1.889	75.484	17.425	0,23
1.890	4.848	1.519	0,31
1.891	38.854	8.819	0,22
1.893	91	96	1,05
1.894	895	335	0,37
1.895	1.197	307	0,25

Arrain onetan, geroagoko urteetan gertatu dan lez, zorotasuna igarten da, ziurtasunik ez arrantzarako.

Arrain kontuan laburpen bat egiñaz, esan daigun, arrain mota bakoitzak bere bataz bestekoa arraiñaren arrantsuen kopuruaren neurritz erabili izan dabela.

Orrela, agertzen doguzan kopuruetan igarten da lebatza beti izan zala, gizaldi osoan, arraiñen errege.

Lebatza, gizaldi osoan , peseta baten kiloko ibili zan.

Besigua : 0,46 / 0,66 bitartean

Zimarroia : 0,36 / 0,79 „

Atuna : 0,26 / 0,54 „

Sardiña: 0,13 / 0,28 „

Antxoa : 0,08 / 0,41 „

Arrantzalien irabaziak

Bereiztu egin bear dira arrain andietan ibili diranak, txalopak be andiago eta itxas urteera geiago, eta arrain txikietan ibiliak.

Arrain andietan ibiliak:

1.888.- 65 txalopa ibili eta 23'k irabazi eben 3.500 peseta baiño geiago.

1.889.- 81 txalopa ibili eta 24'k irabazi eben 3.750 peseta baiño geiago.

1.890.- 87 txalopa ibili eta 24'k irabazi eben 5.000 peseta baiño geiago.

1.892.- 84 txalopa ibili eta 19'k irabazi eben 7.000 peseta baiño geiago.

1.893.- 84 txalopa ibili eta 21'k irabazi eben 6.000 peseta baiño geiago.

1.894.- 84 txalopa ibili eta 21'k irabazi eben 6.000 peseta baiño geiago.

1.895.- 89 txalopa ibili eta 19'k irabazi eben 4.000 peseta baiño geiago.

1.896.- 116 txalopa ibili eta 24'k irabazi eben 4.000 peseta baiño geiago.

Arrain txikietan ibiliak:

1.888.- 53 txalopa ibili eta 15'k irabazi eben 1.000 peseta baiño geiago.

1.889.- 65 txalopa ibili eta 17'k irabazi eben 1.250 peseta baiño geiago.

1.890.- 53 txalopa ibili eta 21'k irabazi eben 1.500 peseta baiño geiago.

1.891.- 52 txalopa ibili eta 21'k irabazi eben 2.000 peseta baiño geiago.

1.893.- 49 txalopa ibili eta 14'k irabazi eben 3.000 peseta baiño geiago.

1.894.- 53 txalopa ibili eta 16'k irabazi eben 3.000 peseta baiño geiago.

1.896.- 58 txalopa ibili eta 14'k irabazi eben 1.500 peseta baiño geiago.

Esandako urteetan itxas egunak, au da, txalopak itxasora urten eben egunak 180 izan ziran 1.888'an eta geien urten ebena 1.890'koa izan zan 242 egunekaz.

XX garren gizaldian

Gure gizaldia, XX garrena, arrain gintzarako, arrain gertapenerako, itxaropen barriekaz jaio zan.

Italiarrak, batez be siziliarrak asi ziran gure artera agertzen.

Oituta egozan euren itxasertzean antxoa arrantzatu eta gazitzera, gero gaiki orrei, janaritzan ainbat zeregin bete eragiñaz.

Baiña XIXgarren gizaldiaren azkenetan antxoaren arrantza gitxitu egin zan Mediterraneo'ko alde aretan. Eta asi ziran gure itxasertza aztertu eta bertara urreratzen.

Bat edo beste euren kontura lan egiten ebenak agertuarren, geienak ango etxe eta merkatarien bialdu edo ordezkari ziran.

Etorrera ori, eurentzat lez emengoentzat be, merkatu barri bat zabaltzea zan.

Italiarren eragiñak eta 1.914 /1.918-ko europear gerrak, alako bizitasun berezi bat sartu eban arrain gintzarako, batez be antxoa gazitu eta bere egiturarako.

Beste alde batetik denboraldi aretan asi ziran txalopak indar barritzen.

Arrikatzagaz ibiltzen ziran baporen garaia zan. Ugartzen etozan, bai eta ontzi txikiagoetan, gasoliñazko motorrak be.

Nai eta oraindik lengo erako txalupa batzuk azken luze eta neketsuan eutsi.

Arrantzarako erabideak be aldatu ziran. Tresnak erraztu. Eta arrantzale berberen erabideak be aldatu ziran.

Baiña txalopak belaz eta erramuen indarrez erabili bear arrantzarako edo ta bapore edo gasoliñaren indarrez, mariñelak ba euken alderantzi pixkat.

Adoretu zirala, ariñegi asi zirala, bizia len baiño geiago arriskatzen, itxas sakonagoetara joanaz. Galdaren ziurtasunik eza eta gasoliñaren arriskuak bil-durra sartu eikien edozeiñeri, beste bizi baten oitu ziran arrantzaleei ezik.

Italiarren etorrerak kanpora begirako aize pixkat zabaldu eban.

Ezin ukatu bizitasun barria emon eutsanik antxoa gaziketari eta geroago antxoa gazitua filetetan zabaldu eta gertatzeari.

Orrek emakumeentzako lana ekarren, ordurarte ez egoalako antxoak filetetan gertuteko oiturarik.

Eta emakumien lan ugari eskatzen eban. Eta orduko giza egoera errudun, bai eskoletan ibili bear eben neska mutil txikien eskulana be.

Berez filetetan gertuten dan antxoa ez da besterik antxoa gazitua, arrantza-tu eta alik ariñen gazitutakoa, buru eta sakatzak atarata, eta iru-lau illabetetan "osatzen" euki eta gero garbitu, gatza-kendu, paparreko azurtxoak ebagi, zati bitan banatu erdiko azurra osorik kenduaz eta gero antxoa tira orreik banan-banan latetan sartu eta ori estaldu eta gertutea baiño.

Dana da emakumeen esku biarra, geroagoko lata itxi edo sarratzea izan ezik.

Antxoaren urte on baten, antxoa gazitu ugari gertuten da, Italiko erara. Neurri oneko antxoa nai izaten da orretarako.

Latetan sartzen dana antxoa aukeratua izaten da, al dala egunean arrantza-tua. Kiloan 40 antxoa arterakoa izaten da egokiena. Ortik goragokoa, 40/55 bitartekoa fileterako zaintzen da. Fileterako egiten dana barrilletan sartzen da eta asketan, eta ez banan-banan, eskukadaka sartuta baiño, "pelotetan" deitzen

dautse geienak, eta gero prentsa onagaz euki, "osatzen" joan daiten, eta ontzie-tatik egunean eguneko lanerako aiña ataraten joan.

Lanbidea itxi eta guazen "girora".

Urteak aurrera eta oraindik ez zan igarten arrantzalien bizitzan nasaitasunik.

Egon zan gizaldiaren lenengo lautada orretan, arrantzalien arteko ezin iku-siren bat eta len gizaldi luzetan kofradi baten alkartuta bizi ziranak Kofradi bitan banatu ziran eta alaxe iraun ogei urtetan, 1.907 urtetik 1.927 bitartean.

Eta ain zuzen ondarrutarren "amor propixua" berotzen daben treñeru estropadak izan ziran, "indarra batasunean egoala-ta", 1.926 urteko Donosti'ko estropadetako gertaera eta garaitza ondorenez, arrantzaleak alkartuaz batera, Kofradi biak be barriro bateratzea eragin ebenak.

Banatuta egon ziran artean "Santa Klara" deiturako Kofradian 560 bazkide batu ziran eta "San Pedro" deiturakoan 350.

1.925 urtean, Arrantzalien egoeraren azierketarako, Eusko Ikaskuntzak deituta, batzar nagusiak egin ziran Donostia'n.

Arein ondorenetako lanetan irakurten danez,

Ondarroa'n 400 famili, au da bi milla pertsona inguru sartzen ziran Santa Klara Kofradian eta 240 famili san Pedro izenekoan.

Etxe bizitzen urritasun eta egoera larria nabari zan arrantzalien artean.

Arrantzaletatik iñor ez zan bere etxe jaube. Danak errenteruak. Urteko errenta 100 pesetatik 200 bitartekoa.

Eriotzen euneko ainbestekoa naiko gogorra. Alkoolkeria eta bularretikoa, gaizotasun eta eriotz-bide ugarienak.

(Eusko Ikaskuntza- Sociedad de Estudios Vascos. Asamblea de Pesca Marítima Vasca. San Sebastian 1.925. Recopilación de trabajos. Imp. Diputa-cion de Guipuzcoa, 1.928. Pàg 434-435)

Gure arrantzaleen eta familien egoera errukarriak, ainbat jakingarri atara eragingo leuskigu ain zuzen gu jaio giñan urte areitako bizibiderai buruz.

Gizaldiaren asieratik ugaritzen asita, 1.915 urterako ainbat "kabana" (fabrika) sortu ziran, batez be arrain gaziketarako.

Esan lei diru apur bat euken edo tokièn baten jaube ziran tratulariak, zere-gin onetan sartu zirala, gerra giroak sortu eban ikuspegian eta gerra orrek itxi eban utsunean.

1.923 urtean, Kantauri itxasertzeko arrain gazitzailleen alkartea sortu zan Santoña'n. Gipuzkoa, Bizkaia eta Santander'eko arrain gertutzailleak sartzen ziran bertan. Eta Bizkai'tik eukazan berrogeitalau (44) bazkideetatik amazortzi ondarrutarrak ziran. Obeto esanda, Ondarroan kabanak euki edo arrain gertake-ta egiten eben bertako eta erbestetarrak.

Edozetara be zeaztu daiguzan 1.915, 1.919, 1.923 eta 1.928 urtetan, gure errian arrain gintzarako errolduta egozan etheen izenak.

ARRAIN LANGINTZARAKO ZERGA ORDAINTZEN EBENAK

1.915 urtea : Agirreoa, Jose Ant.
Aretxaga, Jose
Bloem, Hnos.
Busalachi, Caietano
Busalachi, Salvatore
Dentissi, Antonino
Guenaga, Blas
Gussimano, A.
Iturribeitia, Fernando
Iriondo, Hnos.
Lub.
Ludovico
Marino, Jose
Martinez y Campos
Neizen, Jac.
Ortiz, Vda e Hijo
Pelazza
San Fillippo
Scola, Bartolome
Scola. Felix
Selaverani.
Serrats, Jose
Sociedad Comercial
Vila
Zizzo, Salvatore

(Iturria : Cámara Comercio, Industria y Navegacion. Bilbao. Feb.1.916)

ARRAIN GERTABIDETARAKO ZERGA ORDAINTZEN EBENAK

1.919 urtea

Agirreoa, Antonio	Piedad
Aretxaga, Jose	Ensanche
Arrasate y Cia	Iñaki deuna 25
Bloem Hermanos	N. Sra de la Antigua
Bosco, Juan	San Ignacio 24
Busalacchi, Caietano	
Busalacchi, Salvador	

Campos, Martin	Puerto 1
Cefalú, Pedro	
Celaya y Etxebarria	Ensanche 16
Dentici, Antonino	Ensanche 24
Elissalt	
Gaudin, Edmundo	
Garcia, Martin	Ribera 24
Goitia, Jose M ^a	Ensanche 8
Guenaga, Blas	Trav. Ensanche 15
Gussimano, Antonio	Muelle
Iriondo, Hnos.	Ensanche
Lecea, Juan Luis	Mayor 30
Lub. Juan	Puerto 8
Marino, Jose	Ensanche
Naizzen, Juan	San Ignacio
Ortiz, Vda de.	Matadero
Pelazza Dominico	San Ignacio
Ponte Corvoli, Oliveri	
Scola, Bartolomeo	
Solabarrieta, Jose M ^a	Ribera 21
Vila, Jose	Zubizarra
Zizzo, Salvatore	

(Iturria: Catálogo Comerciantes e Industriales de Vizcaya. 1.919)

ARRAIN GERTABIDETARAKO ZERGA ORDAINTZEN EBENAK

1.923 urtea

Kontserbak:

Agirreoa, Jose Ant.
 Etxebarria, Hnos.
 Guenaga, Blas
 Marino, Jose
 Martinez, Vda e Hijos de José
 Ortiz, Vda.
 Scola, Bartolomé

Gaziketarako

Agirreoa, Jose Ant.
 Busalachi, Caietano
 Busalachi, Salvatore
 Bustindui, Alejandro
 Bustindui, Pedro M^a y Cia.

Campos, Martin
Cusimano, Antonio
Dentici, Antonino
Elu, José
Etxaburu Hnos.
Etxebarria Hnos.
Eizagirre, Ignacio
Goitia, Jose M^o
Guenaga, Blas
Guenaga, Domingo
Iriondo, Hnos.
Lecea, Juan Luis
Marino e Figli, Pietro
Markuerkiaga, Hnos.
Markuerkiaga y Agirre
Markuerkiaga, Severo
Martinez, Vda e Hijos de José
Oliveri
Ortiz, Vda e Hijo
Parodi, Angelo
Pelazza, Domingo
Scola, Bartolomeo
Societta Comerciale.
Solabarrieta, Jose M^a
Zizzo, Salvatore
Urresti y Cia, Juan.
(Iturria: Guía Comercial, Industrial y tributaria de Vizcaya. Viciola y Garamendi)

ARRAIN GERTABIDERA KO ZERGA ORDAINTZEN EBENAK

1.928 urtea

Eskabetzetarako

Agirreoa, Jose Ant.
Arruti, Domingo
Campos, Liboria
Etxebarria, Isidro
Etxebarria, Pedro
Eizagirre, Ignacio
Guenaga, Blas
Marino e Hijos, Pietro
Ortiz e Hijo
Solabarrieta, Jose M^a

Gaziketarako

Agirreoa, Jose Antonio
Billante, Hermanos
Bloem, Hermanos
Busalachi, Caietano
Campos, Liboria
Campos, Martin
Dentici, Antonino
Etxebarria, Isidro
Etxebarria , Pedro
Eizagirre, Ignacio
Elu, Jose
Goitia, Jose M^o
Guenaga, Blas
Guenaga, Silverio
Guzimano, Antonino
Iriondo, Joaquin
Lersundi, Buenaventura

Letona, Joseba
Lub.
Markuerkiaga, Rafael
Markuerkiaga, Severo
Marino, Santos
Marino e Hijos, Pedro
Naizzen, Jac.
Ortiz, Vda e Hijo
Solabarrieta, Jose M^a
Urkiri, Pilar
Vicandi, Antonio
Vilá y Carbó

Berriatu'ko Udalaren lurretan

Zizzo, Salvatore
Madariaga y Guisasola
Scola, Bartolomé

(Iturria: Anuario del Comercio, Industria, Profesiones y Tributación del País Vasco-J.L.Viciola. 1.928)

Bide barriak

1.933 inguruan, egaluzeari begira, atunari begira, asmo onurakor bat sortu eta zabaldu zan.

Ordurarte gure arrantzaleak San Pedro txiki egunetik Andra Mari jaien besperarte, eta jai ondoren Irailleko jaiak arteko bitartean, erritik urrun egiten eben euren arrantza ekitaldia.

Santander edo Asturias aldera joaten ziran arrantza orretarako gai ziran txalopa guztiak eta ur areitatik eta itxasertz aretan egin arrantza, arrain saltze eta abar.

Emengo kontserba egille batzuk be ara joateko oitura euken, ango erritxoen bateko kabanen euren lanak egitera.

Oitura eta nai ezko jokabide orrek erria uztuta lagaten eban, agure, andra ta ume utsekaz; lanik eza be erakarten eban kabana bat edo besteko filete egitea izan ezik. Eta erriak kalte andia eukiten eban.

Arrantzaleak eurak, esateko egokitasun eta baldintzarik beteten ez eben txalopetan, ezelako aukera barik igaroten eben denboraldia, sarri atuna atunaren gain jaten urdailletik naiko larri ibiltzen ziran eta era guztietara begira, berrogei egun inguruko erbestalde a ez zan batere mesedegarri errirako.

Ori ikusita asmoa biribildu zan. Porturen baten erdi lotuta egoan itxasonziren bat alokatu, Kantabriako uretatik Ondarroa'ra alik osterarik geien egingo ebazana, eta bera erabili Santander-Asturias aldetik ebiltzan emengo txalopen arrantzuak batu, txalopa bakoitzarena bere sail berezian ekarriaz, emen saltzeko. Orrez gain ñor gaixo ba ebillan be, bertan ekarri edo sendagarriak bialdu, bai eta txalopentzako bialtzea pentsaten zan janari, jantzi eta abarren zerbitzua bete eragiñaz.

Urte orretan, berandu samar, baiña "Osasuna" bapora bidelari zala, Uztail eta Abustuan ondarrutar txalopen atuna Ondarroa'ko Kofradian saltzera ekarteko alegin eta azterketa egin zan. Eta erriak poz eta itxaropenez ikusi eta onartu eban asmo ori eta bere onura ezagutu

Urrengo urtean, 1.934'n sakonago eta beteago jokatu nai izan zan.

Ortarako batzordea indartu zan.

Eta Gipuzkoa'ko Pasaia'n egoan ikatzez ibiltzen zan "Julito" burdiñazko txalupa alokatu zan.

Lenengo urteko denboraldia 7.000 pesetatan berbatu zan.

Gertakizunak egin ziran.

Txalopa aretan 30 "kajera" baiño geiago gertu ziran, bapore bakoitzaren atuna besteenakaz nastu barik, garbi ekarteko.

Orrek mesede ugari ekarri eban errira.

"Julito" gertu egoan bere zeregiña "egun batean joan eta bestean etorri" egiteko.

“Julito”ri esker, urte aretako udan, 522.067 kilo egaluze saldu ziran Ondarroan.

1.934 urteak ba dauka beste aipamen bat egin bearra. Arrantzarako aurre-rapide nabaria izango zan txalopetako izotza erabilteari buruzkoa.

Orrek batetik ziurtasuna emongo eutsan arrantzuen salmentari eta bestetik arrantzan egun geiago egiteko aukera, marerik galdu barik, txalopa ugariri.

“Arrasteruak”

Urte orreitan asi ziran “arrasteruak” Ondarroa’tik lanean eta lenengotan bi-iru bikote ziranak, urteak aurrera eta portu barriko lanak be aurreratzean, gure erriko portuko arrantza-erabidea zearo aldatuko eben.

Gerrateko ixilune eta makal-unea, eta gero, bereala, len arrasteko eraren aurkako zan Ondarroa, itsu eta prisaka erabide orretan sartzen igarriko da.

Txalopetan, indar barri eta egokitasun barriak, laster asi ziran sartu eta eza-gutzen. Izoz-tokiak ipintean, amesik be egiten ez zan autonomia emoten eutsen txalopei eta “izotzeko” arraiñarentzat lenengotan egon zan zalantza, bertan bera galdu zan.

Baiña bajurako aukera eta egokitasun barriak ezagutuarren arrasteruen indarra eutsi eziña zan.

Orrek, geldiro geldiro, oiturazko bajurako erabidea aulduten, makaltzen, indargetzen ezagutzera eroango gaitu gaurko egunak arte.

Ondarroa’ko Kofradiako arrain-saltzetan beratze au ez da igarten, edo obeto esanda, eskutatu egiten da, ain zuzen be Orio’ko txalopak antxo denboran, emengo portua artzen dabelako arraiña saltzeko, emengo Kofradiagaz egin eben itun berezi bat bitarteko dala.

Leorrean be, arrain gertaerako fabriketan, krisi gogorra ezagutu da. Kapital gitxiko urteetako enpresa zar asko, bertan bera galdu dira, arrantzaren eta beste gaikien kostuen gorakadan, diru gareztiaren lorrak makurtu eraginda.

Edozetara be, jarraian ipinten doguz arraiñaren gizaldi zearko goraberek, eta arrain inguruko bizibideko gorabera batzuk, gure esaera eta autorpena belaunaldi barrien kondairarako geratu dedin.

XX GIZALDIA**ANTXOA**

Urtea	Kiloak	Dirutza	Bataz bestekoa
1.910	540.050	359.644	0,66
1.920	1.230.369	953.847	0,77
1.930	1.703.460	864.499	0,37
1.940	2.157.128	1.451.855	0,67
1.950	2.104.400	5.471.907	2,60
1.960	2.910.973	9.131.847	3,14
1.970	3.214.970	79.661.257	24,78
1.980	4.233.954	460.713.090	108,81
1.982	1.067.946	252.986.343	236,89
1.985	1.842.112	633.301.751	343,79
1.990	4.820.118	1.123.080.063	233,00
1.991	2.000.780	712.081.548	355,90
1.992	4.629.866	1.028.431.109	222,13

Oarra : Gogoratu, azken gizaldian oraindik 0,08tan amaitzen zala antxoaren bataz-bestekoa.

XX GIZALDIA ATUNA (EGA LUZEA) Ondarroa'ko Kofradiko goraberak

Urtea	Kiloak	Dirutza	Bataz bestekoa
1.910	56.365	42.338	0,75
1.920	46.217	95.481	2,06
1.930	220.953	402.790	1,82
1.940	1.199.877	3.339.218	2,78
1.950	1.709.409	13.432.350	7,85
1.960	1.309.683	22.837.043	17,43
1.970	1.115.282	62.724.781	56,24
1.975	2.398.784	182.768.923	76,19
1.977	1.645.278	257.157.922	156,30
1.980	2.879.929	530.395.841	184,17
1.981	2.189.407	606.467.921	277
1.984	1.307.159	430.899.203	334,24
1.985	2.000.239	740.829.272	370,37
1.990	2.347.441	681.413.248	290,24
1.991	1.187.709	413.058.286	347,78
1.992	1.344.184	487.277.760	362,51

Oarra : 1.966 urtearte ez zan eldu kiloko 10 pesetara.

1.934 arte, atun salmentarik geiena, Ondarroan, 1.927 urtekoa izan zan: 374.313 kilo.

1.934 urtean 631.164 kilo saldi ziran.

Eta ortik aurrera, gerrateko urteak alboan itxita, 1.940 urtean milloek ta gorakoa asi zan eta 1.950 arte urte baten bakarrik sartu ziran milloek kilo baiño gitxiago: 1.941'n.

XX GIZALDIA		BESIGUA	
Urtea	Kiloak	Dirutza	Bataz bestekoa
1.910	196.810	104.347	0,53
1.920	79.643	147.489	1.85
1.930	27.009	53.121	1,96
1.940	57.395	256.935	4,47
1.950	19.371	189.876	9,80
1.977	702	68.696	97,81
1.978	234	94.214	401,77
1.980	1.286	804.764	656,41
1.983	5.255	3.708.870	705,78
1.984	7.105	6.098.631	858,36
1.986	3.960	3.863.953	975,75
1.988	6.101	6.952.247	1.139,53
1.989	756	940.641	1.244,23
1.991	2.569	3.974.146	1.546,96
1.992	726	1.174.231	1.617,40

Oarra: Besiguaren gorabera, arrasteko arrantzaren eta bajurakoen artean ze ikusi andia daukana da.

Arrasteko era ugaritu zanean, kalak uste zirala esaten dabe bajurakoak, eta arrantza ori lagaten joan ziran. Lengo Azillatik Otsail azkenerarteko neguko arrantzatea, besigutea, galdu zan bajurakoentzat.

Alaz eta urtearen buruan beti sartzen da zerbait eta azken urteetako zenbaikiak erakusten dabe arrain kopuruen jaxiera eta salneurrien gorakada.

Lengo gizaldian besigua eskabetxátu bear izaten ba eben, urteera emoteko, gaur ez da orrelakorik gertaten.

Bestalde, kontuan euki, datu oneik bajurako arrantzari buruzkoak dirala. Arrasterakoen kopuru eta salneurriak jakitea gaitz da, erabide berezia daukelako kontu ta salneurrietan.

XX GIZALDIA SARDIÑA (Ondarroa'ko Kofradiko goraberak)

Urtea	Kiloak	Dirutza	Bataz bestekoa
1.910	196.736	50.945	0,25
1.920	315.567	231.967	0,73
1.930	119.115	88.620	0,74
1.940	535.508	560.886	1,04
1.950	244.279	1.243.348	5,08
1.960	1.378	15.882	11,52
1.970	258.732	1.120.662	4,33
1.980	1.429.171	14.501.963	10,14
1.990	370.770	12.272.000	33,10
1.991	1.024.837	39.605.220	38,65
1.992	580.587	22.802.052	39,27

Oarra: Emengo lantegietan ez da arrain onen kontserbarik egiten, Galiziarrek artuta dauke sardiñaren gintza eta merkataritza.

Orain zerbait egiten da antxoaren antzera gazitu eta gero fileteak egiteko, merkatu txiki eta merkeentzat.

Gizaldi onetan 1.944 urtean apurtu eban urteko milloek kilo azpitik ibilteko muga. Urte orretan 1.071.108 kilo sartu ziran eta 1,56 kiloko saldu zan bataz beste.

Beste arraiñak

Ba dira arrain batzuk ugari arrantzatu eta sartzen diranak, baiña fabriketarako tengada gitxi daukenak.

Orreitariko da, esateko, txitxarroa.

Len eskabetxatu eta ogei kilo inguruko upel txikietan saltzen zan batez be Castilla aldera.

Baiña jateko oitura eta gurariak aldatu dira bizimoduaren arabera. Gaur ez dira Castellako lurgiñak lengo erara taldetan egun guztirako lanera joaten. Gaur tratore eta abarrek euren lan-erabidea aldatu dabe. Eta jatorduak ez daukez lengo erakoak, Eta arraiña arrantzatu eta kaietara ekarten ba da be, beste merkatu bat dauka: Esateko, arrantzarako amuskitzat arrantzaleak eurak erabilten dabe arrain obeagoetarako, edo ta baita arrain mardula danean, "bakallau antzeko edo pobre" lez, erri makal eta pobreentzat.

Ori dala ta ez dogu bere zeaztasunik emoten arrantsu kopuruei buruz.

Ordez ba dago beste bat, beste mota bat, berdela eta makarela lez bereiztu bear diranak.

Berdelak ez dauka eskabiderik kontserba lantegietarako. Makarelak bai. Ondarroan betandi deitzen dautse. Ordaindu be ez dira bardin egiten berdela eta betandia.

Baiña kontserban egin ezkerro latetako deitura eta abarretan dago nastea.

Galiziar kontserba egilleak dira españar laterrian, kontserba maillan, eune-ko erdi baiño geiago diranak, eta euskaldunak asarre agertuarren, lortu eben makarelari be, betandiari be, deituretan “caballa” ipini bearra. Eta “caballa” kontserba lez saltzeko, eziña zan euskaldunentzat, berdela baiño betandia askoz geiago ordaintzen dalako Kofradietan. “Estornino” deitura ipinteko, esaten eben, zerbaitetan bereiztu nai ba zan , baiña “estornino” txoritxat dauke merkatuan, ez arraintzat. Eta aldi baten “atuncillo” edo beste deitura berezi batzuekaz ondo saldu ta ondo artzen eben. Ikusi bear Makarela edo Betandi ize-nagaz barriro bere onartzea lortzen daben.

ARRAIN EGITURETARAKO ZERGA ORDAINTZEN EBENAK

Antxoa fileteak	Kontserbak	Gaziketa
Agirreoa, Vda de Jose	Agirreoa, Vda J.	Agirreoa, Vda J.
Alegria , Pedro	_____	_____
Arruti, Vda. Dgo.	_____	_____
Astelarra, Celestino	_____	_____
Askondo, Jabier	_____	_____
Billante, Juan	Billante, Juan	_____
_____	Bloem, Hermanos	Bloen, Hermanos
Campos, Martin	Campos, Martin	Campos, Martin
Cia. Exportadora Esp.	Cia. Exportadora Esp.	Cia. Exportadora Esp.
Dentici, Antonino	Dentici, Antonino	Dentici, Antonino
Etxebarria, Vda. de Isidro	Etxebarria, Vda. de I.	Etxebarria, Vda. de I.
Elu , Jose	Elu, Jose	_____
_____	Eizagirre, Ignacio	_____
Guenaga, Blas	Guenaga, Blas	Guenaga, Blas
Guenaga, Vda de D.	Guenaga, Vda de D.	_____
Guenaga, Vda de Sil.	_____	_____
Gisasola, Jose	_____	_____
Iriondo Joakin y Cia.	Iriondo Joakin y Cia.	Iriondo Joakin y Cia.
Lizarzaburu, Vda Miguel	_____	_____
Marino, Jose.	Marino, Jose.	Marino, Jose.
Martinez, Ignacio	Martinez, Ignacio	
Ortiz S.L.	Ortiz S.L.	Ortiz S.L.
Scola, Bartolomeo	Scola, Bartolomeo	Scola, Bartolomeo

1.956

Urte onetan 13 etxek kontserba zerga ordaintzen eben eta 19 etxek arrain gazitu utsa.

1.976 urtea

13 etxek kontserba zerga ordaintzen eben.
5 etxek gaziketa.

1.986 urtea

8 etxe agertzen dira kontserba ta eskabetxe ordaintzen.

1.990 urtea

7 etxe dira kontserba eta gaziketa ordaintzen dabenak.

1.991 urtea

7 dira kontserba eta gaziketa ordaintzen dabenak.

Oneik:

Agirreoa S.A.

Alegria S.A.

Etxebarria Idoeta Anaiak, S.A.

Guenaga S.A.

Guenaga, Silberio'ren oñordekoak S.A.

Martinez de Luco, I'ren semeak S.A.

Ortiz, S.A.

1.992 urtea

Goragoko zerrendatik bat gitxiago.

KONTSERBA ETA GAZIKETA KABANETAKO LANGILLEAK

Arrain gaziketa eta kontserbetan zenbat langille ibiltzen ziran, gaitz ziurtatzea.

1.950 inguruarte, antxoia buru-kentze eta lanetan, ez egoan agerbide agiririk. Legez lan urtetara eltzen ez ziran ainbat ume ibiltzen ziran lanean.

Ume, emakume eta abarrek eskuz artzen zituen eguneko alogerak eta or konpon.

1.939 urtean, Ondarroan, arrain lantegietan,

14 gizon lan ziurreko,

10 gizon "aldietako" laneko.

875 emakume, danak "aldiz aldizkoak" au da, "ebentualak".

(Cámara de Comercio, Industria y Navegación. Vizcaya. Memorias comerciales.)

1.950 urtean, danetara 356 pertsona sartzen ziran lan oneitan.

1.955 urtean, 528;

1.960 urtean, 511;

1.975 urtean, 373;

1.990 urtean, 237.

Esan bearreko da 1.975 urtean, kontserba, gaziketa, izozketa eta fresko'ko erakundeen artean 40 alkarte egozala, baiña 3 bakarrik 50 langile baiño geiago eukezanak.

ARRAIN LANTEGIETAKO BATAZ BESTEKO IRABAZIAK

1.940 urtean, gizonezkoen alogera	10,50	zan egunean. Andrena	5,90.
1.950 urtean	25,00	„ „ „	8,00
1.960 urtean	64,00	„ „ „	32,50
1.970 urtean	235,00	„ „ „	148,00
1.975 urtean	350,00	„ „ „	310,00
1.993 urtean gizonezkoak illeko	100.000	peseta irabazten dabe eta andraz-	
koak illeko	95.000	pta.	

ARRANTZAKO TXALOPAK

Gure lana kontserba eta eskabetxe eta arrain gaziketari dagokionez, esan bear da arrasterako arraiñak ikutu gitxi egin dautsela alor orreri eta origaitik gure portuko indarra aipatzean, arraiñetan lez txalopetan be “bajura” ko arrain eta arrantzalei buruz diardugu, onein arraiña dalako darabilgun saillak darabillana.

Ukatu eziña da Ondarroa’k, arrastera kontuan, garrantzi andia artu dauala.

Esan geinkena da, nai ta arrasterako bizitza, gerra osterarte, 1.940 ingurarte, asieretan ezagutu, ba egozala Ondarroan irurogetak txalopa orretan ebiltzanak 1.950 urtean.

Eta geroago txalopen zenbakia geitu eta indarra be askoz ugaritu dala, txalopa bakoitza barrizatzean indar barriz eta ugariagoz ornitzen dalako.

Baiña “bajura”ko saillera aldatuta, esan geinke aurten berrogei urte, au da, 1.953 urtean ontzi oneik egozala Santa Clara Kofradian errolduta :

1.953 urtean egozan ontzi, euren H.P. eta tonnaz

Deitura	HP	Tn.	Deitura	HP	Tn.
Akarregi	50	20,71	Nra. Sra de Fatima	100	46
Akarregi Lasarte	70	31,25	Nº Angel Maria		
70	36				
Albertin	125	42	Nueve Hnos Bengoechea	125	45
Amaya Uribe	125	45,72	Nueve Hnos Solabarrieta	100	45,72
Arkotxa Balenciaga	100	42	Nuevo Amaya	100	45
Aristondo-Hnos.	100	31	Primavera	90	37,68
Arrizabalaga	100	42	Reinaré	150	46,50
Ave Maria	70	34,95	Reina de los Angeles	70	32,81
San Nicolas (Bari)	75	30,04	Sabas Rosa Mari	100	34,20
Benhur	100	36,92	Sagasta	150	45,20
Bienvenida	100	45,72	Sagrada Familia	75	19,70
Carmen Virtudes	75	36,82	Sagrada Hermanos	125	45
Cinco Hnos. Etxaburu	100	45,72	San Cándido	70	31,51
Clotilde	70	48	San Isidro 2	70	36,49
Corazon de Maria y Jesus	70	38,92	San Pedro	36	17
Domingo Egiguren	100	45,72	San Rafael Maria	100	32,89
Estanislao Etxaburu	70	35,65	Sta Teresita	50	19,30
Ignacio Mari	70	34,55	Segundo Markuerkiaga	100	33
Jose Ramon Magdalena	100	35,68	Solabarrieta	70	34,81
Josy	70	34,10	Soterita	100	45,30
La Esperanza	100	35,68	Tobaneku	70	34,81
Luziana	100	54,72	Trece Hermanos	100	42
Madre Rosa	125	48	Victor Bedialauneta	70	36,04
Markue	70	24,92	Yeregui	70	33,83
Matias Bengoechea	100	45			
Euren artean ba eukezan 4.396 HP eta 1.842 Tn.					

1.993 urtean Kalere Deuna (Santa Clara) Kofradian dagozanak

“Bajura”ko itxasontziak, alor onetako arrantzaren krisia erakusten dabe.

Urteak urtera, berakada agiri eta nabaria da.

Lan au egitean, 1.993'ko Bagillean, amazortzi txalopa dagoz eun zaldi baiño indar geiagokoak.

Talde bitan sailkatzen dabez gaur, euretatik kanporakoak txikitzat itxita. Eta 2-A eta 2-B sailletan zeaztuta dagoz, era onetan:

	HP	T.R.B.
2-A.- Arca de Alianza	600	103,31
2-A.- Ator	525	97,97
2-A.- Decano	450	140,58
2-A.- Ensenada Sagustan II	700	125
2-A.- Gibelpe	675	99,28
2-A.- Nuevo Anmtxustegi	200	78,40
2-A.- Nuevo Lau Anayak	300	90,11
2-A.- Nuevo Monte Bizkargi	400	116,94
2-A.- Nuevo Rosa Mari	280	92,55
2-A.- Pixape II	600	96
2-A.- Siempre Juan XXIII	600	118,41
2-A.- Siempre Lagun Artea	380	114
2-A.- Siempre Ongi Etorri	390	117,05
2-B.- Agirre anaiak	215	34,84
2-B.- Bertan	360	46,80
2-B.- Eguzki ederra	285	37,90
2-B.- Iriarte	190	30,41
2-B.- Punta do Con	165	18,50

Guztira

7.315

1.558,05

1.983 urtean, sail onetan, 27 itxasontzi batzen ziran. Beraz 9 gitxiago.

Gure aldetik, ba dakigu, azken urteak arte, lantegi oneitako langintzak gorabera asko euki dauzala, antxoa filete lanetan ezik, ez dalako arrain aukera andirik egon izan, arrain izoztuen (konjelatuen) aukera asi arte.

Bestetik Ondarroako gertaeran, arrasteroen arrain lanetan aloger andiagoa irabaztean, emakume langilleak bietara jokatu nai izan ebelako, orrela langilleak eurak galduaz lan jarraipen ziurtasuna.

Ba dirudi urteak aurerra, legearen geiagoko estutasunak lengo jokabide batzuk zuzendu dauzala.

Edozetara be ez gara txikikerietan sartu eta uste dogu zeatzago aztertu nai dabenentzako ainbat jakingarri erraztu doguzala.

AURKIBIDEA

Eskeintza.....	5
Labur eta argi.....	7
I.- ERRI-MIÑEZ.....	9
Gure jatorria.....	11
Ondarroa uri izateko mesedea, iraspeneko agiria.....	13
Erriaren izena.....	19
Uri biurtzearen ondorenak.....	21
Gauzak argitzen.....	25
Batzarren ondorenak ezin lortuta.....	43
Muga kontuak.....	45
Ondarroa'ren mugak.....	51
Bateratze asmo eta egiñenak.....	53
Azken konponketako mugak.....	55
Ondarrutarren ibillerak.....	61
Etxe, jauregi eta torre batzuk.....	75
1.541 urteko errotze bat.....	77
1.598 urteko Bagilla'ren 14'an, Martin Otxoa ajorabide eskribaduauren aurrean.	
Iñigo Lertxundi kapitana eta Mari Ibañez Ondarroa eta Apallua eta euren gurasoen arteko ezkontza-ituna.....	87
Errietako begiraleak 1.635.....	91
1.639 urteko ikustaldia.....	95
1.704 urteko etxeen errotzea.....	101
1.746 urteko etxe errotzea.....	107
1.766 urteko matxiñada.....	111
Frantzetarren erasoak.....	119
Frantzetarren erasoaren ondorenak.....	133
Egoeraren agerbide batzuk.....	143
1.541'ko errotze baten agertzen diran Ondarroa'ko abizenak.....	147
Ondarroa'ko abizenak.....	149
Ondarruko ezizenak («desixenak»).....	167
Ondarroa eta Artibai.....	175
Artibai ibaiaren inguruko langintza zarra.....	177
Auzoak.....	179
Zubiak.....	183
Zubirik zarrena.....	189
Ondartzako “zubi” ibiltaria.....	191
Errekak eta iturriak.....	193
Kale eta kantoiak.....	195
Ondarroa'ko etxe eta lur jaubeak 1.814 urtean.....	199
Ondarroa'ko jaubetasunen balioa 1.823 urtean.....	205
1.825 urteko errotzea.....	209
Ondarroa eta Madoz.....	215
Ondarroa Iturriza'ren kondairan.....	219

Ondarroa E. Labayru'ren kondairan liburuz liburu eta orriz orri.	223
Ondarroa Delmas'en esanetan.	235
Trueba eta Ondarroa.	239
Humbolt eta Ondarroa.	243
Lenengo maillako irakaskintza lengo gizaldian.	245
Nesken irakaskintza.	249
Itxasketa eskola.	251
Udaletxe barria.	257
Armarrria.	263
Alkateak. XVIII eta XIX gizaldietakoak.	265
Pelota tokia.	269
Sagardaua eta txakoliña eta beste edariak.	275
Ospitalak.	283
Bizilagunak.	293
Nun ilten ziran antxiñako ondarrutarrak?	297
Illen ibiliak jarraitzen.	301
Edariak.	311
Bideak.	317
Urak eta garbitokiak.	323
Erregearen gorapen eta aldarrikatzea.	327
Gertaera negargarri bat Errenteriko Patrokua etxekoetan.	329
Domingo Garro.	335
Pedro Mari Unanue.	337
Txomin Agirre.	339

II.- FEDE ETA GOGO 341

Andra Mari Parrokia.	343
Parrokiko illobiak.	347
Parroki barruko lanak.	355
Parrokiko lan geiago.	359
Parrokiko lan batzuetako kontu bat.	363
Eleizako kanpaiak.	365
Andra Mari parrokiaren eleiz-barruti mugak.	367
Udala eta Parrokia. Tartekako gaiak.	369
Eleiz inguruan. Oiturak.	377
Organoa.	389
Organu buruz jakingarri geiago.	397
Antigua'ko eleiza.	401
Antigua izena.	405
Andra Mariaren irudia.	407
Oiturak eta sinistreak.	409
Bateko ta besteko aberastasunak.	413
Andra Mariaren irudia parrokira ekarteak.	415
Antiguako Salbea.	417
Antigua'ko lapurreta.	419
Santa Clara.	421
Kopla gotikoak.	423
Santa Klara ta zerbait geiago.	425

Kurutze deuna.....	427
Canarias'etarako Misiolariak gertuteko ikastetxea Ondarroan?.....	429
Santa Kutz dala ta.....	433
“Aita Eternu”.....	435
San Juan (Ospitalekoa). San Juan (Gorozika'koa).....	437
Lorentzo deuna.....	439
Ama Bitartekoa. Santa Ana.....	441
Beatak eta serorak.....	443
Jaiak eta esaerak.....	445
Oiturak.....	449
Artxiboak.....	455
Eleizarentzako amarrenak.....	457

III.- ITXAS GIRO..... 463

Itxasoari begira.....	465
Arrantzaleak, lengo gizaldietan.....	469
Arrantzalien legeak.....	473
Arrantzalien kofradiak.....	475
Arrantzalien Kofradiako 1.593 urteko arauak.....	479
1.638 urteko arauak.....	483
Itxasoetako ondamendiak.....	485
1.890 urteko estropada.....	491
Itxas lantegiak (Astilleruak).....	517
Kaia.....	523
Arraiñen gertuketa.....	527
Arrantzako txalopak.....	555



**Bizkaiko Foru
Aldundiaren
Laguntzaz.**

Kultura Saila

